

**Demokrazian sakontzea
eta Parte-hartzea,
hainbat eskalatan**

Demokrazian sakontzea eta Parte-hartzea, hainbat eskalatan

Leire Escajedo, Julen Zabalo, Igor Filibi
(ed.)



CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Azaleko argazkia: Miren Ariño Altuna. Lanaren izenburua: *SAREAK*. Bitartekoa: akuarela.
Lekua eta data: Donostian, 2022ko maiatzaren 8an egina

Edizio-laguntzaileak: Silvia Tomás Tomás eta Iñaki Zaldua-Calleja

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
ISBN: 978-84-1319-
Lege gordailua: LG BI

Demokrazian sakontzea eta Parte-hartzea, hainbat eskalatan

EGILEAK (alfabetikoki)

Igor Ahedo Gurrutxaga	Iago Lekue
Amalur Álvarez	Zesar Martínez
Mila Amurrio Vélez	Jone Martínez-Palacios
Miren Ariño-Altuna	Gorka Moreno
Leire Azkargorta	Onintza Odriozola Irizar
Jon Azkune	Andere Ormazabal Gastón
Ainhoa Berasaluze	Charo Ovejas-Lara
Noemi Bergantiños Franco	Argimiro Rojo
Igor Calzada	Eneko A. Romero
Saúl Curto-López	Imanol Telleria
Idoia del Hoyo Moreno	Luis Miguel Uharte Pozas
Maddalen Epelde-Juaristi	Javier Uncetabarrenechea
Leire Escajedo	Miriam Ureta
Igor Filibi	Unai Vázquez
Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe	Tomás R. Villasante
Jule Goikoetxea	Ander Vizán-Amorós
Izaro Gorostidi	Julen Zabalo
Iker Iraola Arretxe	Iñaki Zaldua-Calleja
Ane Larrinaga Renteria	Nerea Zubillaga-Herran
Ainhoa Lasa	Uxue Zugaza Goienetxea

Aurkibidea

<i>Kapitulu editoriala. Tokikotik globalera, Demokraziak herritar aktiboak behar ditu</i> Julen Zabalo, Leire Escajedo, Igor Filibi.	000
<i>Eredu demokratiko kosmopolita bat aurkitzeko erronka</i> Argimiro Rojo	000

I. atala

NEOLIBERALISMOAK DEMOKRAZIAN DUEN ERAGINA

<i>Merkatua, kapitala eta herritarren parte-hartzea: neoliberalismoaren eragina demokratizazio-prozesuetan</i> Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurutxaga.	000
<i>Demokrazia, merkatura edo gatazkara bideratuta? Oinarri juridiko-konstituzional berrien bila, bidezko ordena sozial eta ekonomiko baterako</i> Ainhoa Lasa, Leire Escajedo	000
<i>Hirien suntsipen sortzailea eta demokratizaziorako aukera berriak aztertzen</i> Iago Lekue, Imanol Telleria	000
<i>Sindikalismoa eta demokratizazioa kapitalismo globalean: euskal kasua</i> Jon Azkune, Eneko A. Romero, Jule Goikoetxea	000

II. atala

PARTE-HARTZE ERA BERRIAK MENDEBALDEKO DEMOKRAZIAREN ESKALA EZBERDINETAN

<i>Datafikazio Estrategia Emantzipatzaileak</i> Igor Calzada	000
---	-----

AURKIBIDEA

<i>Krisia eta herrikuntza demokratikoa integrazio-prozesuan: subiranotasun europar baterantz</i> Javier Uncetabarrenechea, Igor Filibi	000
<i>Herrien Nazioarteko Biltzarra (HNB): herri-mugimenduak koordinatzeko nazioarteko proposamena</i> Leire Azkargorta, Unai Vázquez.	000
<i>Herri-boterea, eraldaketa demokratikorako subjektu gisa. Demokrazia komunalera irazteko subjektua, proiektua eta prozesua</i> Saul Curto-López, Luis Miguel Uharte Pozas	000

III. atala

PARTE-HARTZE ESTRATEGIAK ETA EUSKAL GIZARTEAREN ZENBAIT ESPERIENTZIA

<i>Erabakitzeko eskubidea: estatu berriak sortzeko bide demokratikoen bila</i> Ander Vizán-Amorós, Amalur Álvarez, Julen Zabalo	000
<i>«Zer da guretzat parte-hartze politikoa?» Euskal gazte aktibisten herritartasun-praktika performatiboak</i> Ane Larrinaga Renteria, Mila Amurrio Vélez, Iker Iraola Arretxe, Onintza Odriozola Irizar.	000
<i>Gizarte-zerbitzuen dimentsio komunitarioa: demokratizazioarako aukera Parte-hartzearen bidez</i> Nerea Zubillaga-Herran, Noemi Bergantiños Franco	000
<i>Etorrinen integrazio pertzepzioa eta Parte-hartze soziopolitikoa</i> Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe, Gorka Moreno Marquez	000

IV. atala

MENDEBALDEKO DEMOKRAZIA(K) AZTERTZEKO METODOLOGIAK ETA ESPARRU EPISTEMOLOGIKOAK

<i>Transdukzioko estrategietarako metodologiak</i> Tomás R. Villasante	000
<i>Gainbegiratzea: jardun profesionala hobetzeko eta ezagutza sortzeko tresna</i> Maddalen Epelde-Juaristi, Ainhoa Berasaluze, Miren Ariño-Altuna, Charo Ovejas-Lara	000
<i>Intersektionalitatea sakontze demokratikorako ikerketa-tresna gisa: teoria eta adibideak</i> Idoia del Hoyo Moreno, Miriam Ureta García, Uxue Zugaza Goienetxea	000

AURKIBIDEA

Parte-hartze politikoa eta ekintza kolektiboa: herri-ekimenaren eta administrazio publikoaren arteko harremanak
Zesar Martínez, Izaro Gorostidi, Andere Ormazabal. 000

V. atala

Funtsezko kontzeptuak Demokrazian eta Parte-hartzean hainbat eskalatan murgiltzeko
Iñaki Zaldua-Calleja 000

Aipamenak 000

Kapitulu editoriala.

Tokikotik globalera,

Demokraziak herritar aktiboak behar ditu

Julen Zabalo, Leire Escajedo, Igor Filibi
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

1. Irakaskuntza/ikaskuntza, tokikotik globalera demokrazia sendoagoa izan dadin

Demokraziak ez du bere unerik onenetakoa bizi. Duela gutxi egindako elkarrizketa batean, «Demokraziaren gainbehera. Autoritarismoaren sedukzioa» liburua- ren egile Anne Applebaumek irmoki adierazten zuen demokrazia maila globalean ahuldu izanaren sintomak nabariak direla, eta beste garai batzuetan ez bezala, ahulezia hori ez dela soilik azken demokrazietan ikusten, baizik eta tradizio demokratiko zabala duten Ipar Amerikako eta Europako herrialdeetan ere sintoma horiek nabaritzen ari direla. Gainbeheraren ideia hori, ahultasun-sintomen eta hori islatzen zuten fenomenoen azterketarekin batera, topiko errepikakor bihurtu da azken hamarkadan, COVID-19aren pandemiak areagotuta bereziki. Demokraziaren etorkizuna, Anne Applebaumek gaineratzen zuenez, ezin da jada idatziztat jo; hark irautea edo ez irautea, egileak dioenez, horretarako hartzen diren erabakien arabera da.

Erabaki horien artean, zalantzarik gabe, pentsamendu kritikoko trebetasunak sustatzea dago, eta, bereziki, kontzientzia demokratiko gisa deskribatu dena (Abdi, Carr, 2013). Historiako une honetan, inoiz baino premiazkoagoa da herritartasun eta demokrazia kontzeptuak sakon aztertzea, eta ikuspegi horien nagusitasuna zalan- tzan jartzea; izan ere, ikuspegi horiek demokraziari buruzko ustezko ideiak erabiltzen dituzte politika neoliberalen posizioa berresteko.

Lan hau UPV/EHUko hogeitabi irakaslek idatzi dute, beste herrialde batzue- tako aditu gonbidatuen parte-hartzearekin, eta demokraziaren kontzientzia sako- neko herritar kritikoen prestakuntzan lagunduko duten materialak euskaraz ematea du helburutzat. Kapitulu bakoitzak, xehetasunez aurkeztuko den moduan, dimen- sio kontzeptual eta/edo teoriko praktikoko berriak lantzen ditu, sakontze demokrati-

koan ez ezik, askotan, partaidetzako esperientzia pertsonal eta komunitarioetan ere oinarrituta. Esan daiteke liburu honen egileek, inolako salbuespenik gabe, beste demokrazia bat, benetako demokrazia bat, posible dela sinisten dutela. Hori da, halaber, Parte Hartuz ikerketa-taldea inspiratzen duen printzipioetako bat, eta talde horretatik sortu da ikasmaterial horiei forma emateko euskarria eta inspirazioa. 2002az geroztik, talde horrek ezagutza-arlo desberdinetako dozenaka ikertzaile bildu ditu, betiere gizarte-zientzien barruan, eta ikerketak bideratu ditu, bai arlo akademikoan, bai dibulgazioan, beste gizarte-mugimendu batzuekin lankidetzan aritzeaz gain.

Ez da erraza demokrazia definitzea. *Demosen* (herria) eta *kratoen* (boterea) gainean eraikitako ikuspegi klasikoak eta oinarriko printzipioek zerbait sinplea diruditen arren (Popper, 1945), ez dago adostasunik termino horren definizio zehatzean. Esparru-kontzeptu hori ez da soilik erakundeen funtzionamenduan eta herritarrek erabaki politikoak hartzen parte-hartzeko mekanismoetan proiektatzen, baizik eta harreman sakona du berdintasuna-desberdintasuna, adierazpen-askatasuna, justizia, pobrezia edo hezkuntza bezalako fenomenoekin, beste askoren artean (Krauss, 2016). Egia esan, definizioa bera sistema demokratikoak bideratu nahi duen eztabaida politikoaren parte dela esan daiteke.

Demokrazia definitzeko dauden arazoei emaitzak eta bilakaera ebaluatzeko zailtasuna gehitu behar zaizkie. Demokrazia modernoa bere bertsio liberal eta erradikalen artean tenkatuta eta alternatiba erreakzionarioek setiatuta, etengabe hedatu da geografikoki planetan zehar. Aldi berean, kapitalismoa korporatibo bihurtu da. Azken hamarkadetan, ideia neoliberalen nagusitasunaren testuinguruan, gizarte-estatuaren eta arlo publikoaren kontzeptioaren higadura nabarmena izan da. 2008ko krisiak, zeinak kapitalismoa uzteko edo birsortzeko beharra planteatzera eramán baitzuen, ez dirudi ikasgai esanguratsurik ikasteko balio izan duenik.

Bestalde, muturreko joerak eta joera autoritarioak areagotzeko arrisku ziurra dago, eraginkortasunaren eta segurtasunaren, demokraziaren eta eskubideen arteko eztabaida faltsuak markatutako giroan. «Estatu itzultzeko» tentazioa sortzen ari da, baina ez estatu sozialera, baizik eta XX. mendeko estatu indartsu eta autoritariora, birzentralizatuta eta eskala politiko transnazionalak (baina ez ekonomikoak) zalan-tzan jarrita. Berrikuntza kontzeptuaren zentraltasuna ere aipa daiteke, baina ekonomia- eta teknologia-eremuetara mugatuz, eta espazio publikoan eta instituzionalean duen irismena funtzionaltasun- eta efizientzia-irizpideak betetzera baldintzatuz, ikusmolde neoliberalen arabera. Lan honen bidez, erabaki eta estrategia horiei buruz hausnartzen lagundu nahi da, demokrazia egokitzeko, bizirauteko eta garatzeko.

Interes akademiko handia pizten duen demokrazia kontzeptuaz ari gara. SCOPUS datu-baseak 90.000 dokumentu baino gehiago eskaintzen ditu termino horri buruzko bilaketetan, eta 90eko hamarkadaz geroztik gai horri buruzko interesa gero eta handiagoa izan dela ikus daiteke, XXI. mendeko bi krisi global garrantzitsuenen inguruan esponentzialki biderkatuz: 2008ko krisi ekonomikoa eta COVID-19aren pandemia. Beste datu-base zientifiko batzuetan bilatzeak, Web of Science izenekoan, kasurako, emaitza konparagarriak eskaintzen ditu, goranzko interesa eta demokrazia erakutsiz

(Bornmann eta Mutz, 2015). Bilakaera horretan nabarmendu beharreko beste ezau-garri bat da ikasketa-eremuak eta demokraziaren gaikako espazio konplexurako hur-bilketak dibertsifikatu egin direla.

Hain zuzen ere, obra honetan premisa hau dugu abiapuntu: euskal gizartea ta-laia pribilegiatua da demokrazia garaikidearen forma eta eskala emergenteei hel-tzeko. Beste lan-metodologia batzuekin partekatzen du Mendebaldeko gizarteek aurrean dituzten arriskueta eta gabezia sakontzeko nahia. Erroka handia da, inondik ere, testuinguru berri honetan, zeinean demokrazia gainbeheran baitago, eta bestalde, demokrazia klasikoaren kontzeptuak eta tresnak asebetetzen ez dituzten es-kala politiko berriak sortzen ari baitira. Baina elementu bereizgarri garrantzitsua ere aurkituko dugu ondoko lerrootan, izan ere, lanok tokikotik globalera bitarteko eska-letan proiektatuta daude, eta gaur egungo euskal gizartearen estrategia, esperientzia eta ikuspuntuak dituzte erreferentzia nagusi.

Hainbat arrazoi direla medio, interesgarria da demokrazia aztertzeko fokua Eus-kal Herrian jartzea. Hasteko, kokapen bera bereziki erakargarria da aztergai gisa: Mendebaldeko Europaren barruan, iparraldeko eta hegoaldeko estatu banatan ko-katzen da. Iparraldeko partean dagoen zatia txikiena da, eta hegoaldean geratzen dena, aldiz, handiena lurraldez eta populazioz, baina hegoaldean egonda ere, motor ekonomiko eta politiko garrantzitsua da.

Berezitasun horietatik harago, euskal gizartea aspalditik benetako laborategi so-zial eta politikoa izatetik dator interes nagusia. Identitatearen gaia izan da, agian, arreta handiena jaso duena, zalantzan jarri baitu munduko egituraketa politikoaren oinarrietako bat: ezarritako estatuak direla erreferentziatzko esparru politikoa. Estatu horien barruan, herritarrek beren nazioa eta nortasun nazional bakarri onartzen di-tuzte, zalantzan jarri gabe. Baina hori ez da horrela Euskal Herrian.

Hainbat une eta testuingurutan, ikuspegi-aniztasun handiarekin, herritarren gehiengo handi batek zalantzan jarri du nazio-estatuaren eredia, ez baita barne-aniztasunaren integrazioa konpontzeko egokiena. Euskal identitate-sentimenduaren adostasuna ez dator bat, era berean, Estatuak nazio-identitate bakarrari buruz di-tuen ulerkera desberdinekin, eta horren gaitzespena agerikoa da. Horrela, hegoal-deko hainbat belaunalditan, beren burua euskalduntzat (eta ez espainiartzat) jotzen duten herritarren presentzia egiaztatzen da; beste batzuek, berriz, identitate nazional klasikotik harago doazen nortasun dualak adierazten dituzte, eta soilik zati eskas ba-tek onartzen du Espainiako nazio-identitatea bere zentzu tradizionallean. Ipar Euskal Herriaren egoera beste errealitate bat da, gainera, hura ere konplexua eta interesga-rria.

Hala eta guztiz ere, ikerketa-fokuak arreta handia jarri du nortasun-gaietan, eta, horren ondorioz, oharkabean igaro da euskal herritarren bilaketa etengabea eredu instituzional eta demokratiko propio baterantz, bere beharrian sozialetara egoki-tuko dena eta bere arazoak konponduko dituena. Bilaketa hau baieztapen orokor ba-ten adierazpen berezi bat baino ez da: demokraziak kasu zehatz bakoitzean eraiki eta egokituz gero bakarrik funtziona dezake. Unibertsaltzat jotzen diren balio eta prin-

tzipioetan inspiratuta egon arren, ezin da beste errealitate batzuetatik esportatu, ezta kanpotik inposatu ere. Demokraziak, herriari ahotsa emanez, bere berezko ezaugarriak errespetatu behar ditu, baita herri orok huts egiteko duen gaitasuna ere, norberaren akatsetatik baino ezin baita ikasi. Kanpotik ezarritako akatsak egiten direnean, arriskua da herritarrek pentsatzea huts egitea ez zela eredu zehatz horrena izan, demokrazia kontzeptuarena berarena baizik.

Euskal gizarteak modu gogorrean ikasi du demokrazia elkarrekin bizitzeko artea dela, jakinda aniztasuna eta ezberdintasuna aitortzeak duen garrantzia, eta desberdintasun hori errespetatzen duten bizikidetzak-moduak aurkitzea. Horregatik, obra honetan, eskala eta eskumen-eremu desberdinetan sortzen ari diren partaidetzarako euskal estrategiek ere tokia izango dute, parte-hartze demokratikoari buruzko hurbilketa akademikoekin batera.

Eskuliburu hau lau bloketan antolatuta dago, jarraian aurkeztuko denez. Baina haien aurretik Argimiro Rojoren kapitulua dago, eskalen garrantzia azaltzen duena. Globalizazio-prozesuek eta hainbat garapen politikok eta teknologikok esparru politikoak birmoldatzeko eta mundu mailan eskala politiko eta instituzional eraginkorra sortzeko beharra planteatzen dute, eredu demokratiko kosmopolita, berak azaltzen duen bezala. Ondoren, I. zatia irekitzen da, eta demokraziaren ikuspegi neoliberalaren eta horri erantzuten dioten ahotsen arteko tentsioak jorratzen ditu, gobernantza-eskala desberdinetan egindako proiektioekin. Ondoren, azaleratzen ari diren esparru eta eskaletan oinarritutako bloke bat dator (II. zatia); eta herritarrek parte-hartzeko modu berriak aurkezten eta aztertzen saiatzen den beste bat (III. zatia). Azkenik, gai hauek aztertzeko metodologiarekin zerikusia duen IV. zatia agertzen da: demokraziari eta herritarren partaidetzarako mekanismoei buruzko ezagutza sortzen duten metodologia- eta epistemologia-esparrua berrikustearen garrantzia azpimarratzen duena, alegia.

2. Demokrazia hezteko ahalegin neoliberalak (I. zatia), eta haren aurka ari diren herritartasun-praktika berriak (II. zatia)

Demokraziaz hitz egiten denean, terminoak esan nahi duenaren exegesi lehiakor batean gaude beti (Mouffe, 1992), eta, horren ondorioz, demokraziaren ideia, neurri batean, gorabeheratsua izan da, eta beti maila kontuan geratzen da. Baina azken hamarkadan badirudi terminoaz jabetzeko borroka horren une gorenean gaudela, berdin dio zein edukirekin. Esanahi antagonikoekin erabiltzeko aukera ematen duen sinbolo ambiguo horietako bat bihurtu da. Fenomeno deigarrienen artean, parte-hartzailetzat edo benetako demokraziakotzat arbitrarioki etiketatzen diren praktika horiek daude, zeintzuetan oso eztabaidagarria baita oinarritzen diren *demosa* eta, are gehiago, parte-hartzen dutenek benetan gauzatzen duten *kratos*. Demo-fikzioa bene-

tako demokraziaz mozorrotzen da arazorik gabe, eta adierazpen horrekin parte-hartzeko beste formula batzuk irreal edo faltsu gisa etiketatzeko aukera ematen du.

Lehen blokeko kapituluek aztertzen dute demokraziaren bertsio etxekotuak nola ari diren, batetik, paradigma demokratikoa lurruntzen; eta bestetik, pertsonen begi-bistakoa dena bistatik galarazten, hau da, gizartea pertsonaz osatuta dagoela, eta gizarte baten indarra, erresilientzia eta moldagarritasuna jendearen ezaugarri horien mende dagoela erabat (Shah 2016: 10). Maila guztiek, tokikotik hasi eta —batez ere— globaleraino, defizit demokratiko nabarmenak dituzte. Desberdintasun estrukturalak eragotzi egiten du deliberaziozkotzat har daitekeen herritarren parte-hartzea; norbanakoaren askatasuna azpimarratzeak eragotzi egiten du guztion ongizateari buruzko erabaki partekatuak hartzea.

Agertoki horretan, ezinbestekoa da parte-hartzeko mekanismoak eta ongizatearen zutabeak berreskuratzea, indartzea eta, behar den neurrian, berrasmatezea, aberastasuna birbanatzea eta gutxieneko bizi-baldintzak bermatzea barne. Hausnarketa estrukturalista eta intersekzionala eginez, Martínez-Palaciosek, Ormazabalak eta Ahdok partaidetza-tresnei buruzko material enpiriko garrantzitsua ematen dute, eta joera instituzional bat islatzen dute, gehienbat Espainian aztertzen bada ere, Mendebaldeko beste demokrazia batzuetan ere nabari den joera baten sintoma dena.

Eskala globalerako proiektioarekin, Lekuek eta Telleriak hiri-teoria kritikoa dute abiapuntu, eta tokiko gobernuak eta hiri-mugimenduek azken urteotan sakontze demokratikoa helburutzat duten esperientzia parte-hartzaileak aurkezten dituzte. Euskal esparru batean teoria orokorrak uztartuz, Azkunek, Goikoetxeak eta Romerok bazterketa sistemikoaren gaia jorratzen dute, sindikalismoak hegemonia neoliberalaren testuinguruan duen rolean oinarrituta. Jessop-en ikuspegi estrategiko-erlaziionalaren eta Foucaulten gobernu-gaitasunaren erreferentziatik, demokraziaren tentsioei erreparatzen zaie, eta euskal sindikalismoak egindako ekarpen positiboa nabarmen-tzen da.

Liburuaren bigarren zatian demokrazia nola eboluzionatzen ari den hausnartzen da, eskala eta forma emergenteetara eta jarduteko esparru berrietara egokitzeko helburuarekin. Demokrazia modernoa Estatuaren baitan sortu zen, nazio-estatuari bide emanez, eta, oro har, esan daiteke demokraziak, azken mendeetan, gehienbat nazionalak izan direla. Baina eskala estatal-nazional hori pixkanaka erlatibizatuz joan da, kapitalismo korporatiboak sustatutako interdependentzia- eta globalizazio-prozesu gero eta handiagoek eraginda. Nazioz gairik eskalak eta eskala globalak sortu dira, baita eskualdeetako eta tokiko eskalak ere, eta, ondorioz, eskala-anitzeko esparru konplexua sortu da. Zalantzan geratu dira demokrazia modernoaren oinarriak, estatuaren subiranotasunetik hasita, eta nazioek gizarte eta merkatu nazionalen oinarri sendoak emateko duten gaitasuna.

Hala, COVID-19 pandemiari dagokionez, Igor Calzadak azaltzen digu bertan berpiztu dela estatu hornitzailearen, herritarren segurtasunaren bermatzailearen, eta herritarrek izan behar dituzten askatasun zibilen arteko eztabaida historikoa. Artikulu horren arabera, beharrezkoa izango da demokrazia eta parte-hartzea ga-

ratzeko modu eta aukera berriak aztertzea, berak «demokrazia teknopolitiko post-pandemikoa» deitzen dion horretan. Bestalde, Uncetabarrenak eta Filibik Europako demokraziaren egungo bilakaera eta egoera aztertzen dute, subiranotasun kontzeptutik abiatuta, eta planteatzen dute demokrazia europarra eraikitzeak nazio-estatuaren ereduaren eraldatzeko eta hobetzeko balio behar duela, eta ez soilik sistema bera eskala zabalago batean eraikitzeak. Horrek esan nahi du demokrazia transnazionala eraiki behar dela, eskala anitzekoa, bere burua pluralizat hartzen duena, eta, horrela, Estatuaren muga geografikoak eta botere politikoaren nozio monista klasikoa gainditzen dituena.

Azkargortak eta Vázquezek eskala globala aukeratu dute, gizarte osoaren egiturazko arazoak aztertzeko aukera ematen duelako, eta egungo sistema kapitalista eta neoliberalari emandako erantzun eta alternatiben arteko batasun, elkartasun eta lankidetzaren eraikuntzan oinarritutako emantzipazio-ikuspegia eskaintzen duelako. International People's Assembly (IPA) delakoaren kasu-azterketarekin, demokrazia globala eraikitze proiektuan sartzen dira. Eskala globalean ere, Lasak eta Escajedok merkatuaren forma globalean narratiba politiko eta juridiko bat sortzeko moduari buruz hausnartzen dute, bai kontzeptu preskriptibo eta deskriptiboetan, bai substantiboetan, merkatua nolabaiteko osagai demokratiko batez hornitzeko asmoarekin. Egileek azaldu dutenez, horrek eragina du estatu garaikidearen forman, eta horrek merkatu-estatu bihurtu du. Azkenik, Curtok eta Huartek herri botereaz hitz egiten digute, eraldaketa demokratikoaren subjektu gisa. Dinamika komunitarioen sorrera aztertzen dute, non subjektu kolektiboek botere-modu berriak eta logika politiko berriak eraikitzen dituzten gizartea antolatze eta garatzeko, eta horrela zalantzan jartzen dituzte bai subjektu neoliberalak bai krisian dagoen demokrazia liberalaren proiektua.

3. Zer da parte-hartze demokratikoa, teorian eta praktikan (III. zatia), eta nola ikertu gaur egun demokraziari eta parte-hartzeari buruz (IV. zatia)

Aspalditik susmatzen da gai politikoak formulatzeko eliteek duten erak oztopatu egiten duela kultura- edo gizarte-baliabide nahikorik ez dutenen parte-hartzea. Horrek *ezkutuko errolda* bat eragingo luke, errolda ofiziala iragazten duena, eta gero eta handiagoa den biztanleriaren sektore baten parte-hartzea murrizten duena (Gaxie, 1978). Joera hori indartu egiten du partaidetza-joera neoliberalak; izan ere, parte-hartzearekiko interesa antolatu beharrean, gehiago dirudi botere-eremuan lehia-kide gehiago ez izatea bermatzen duen interes politikoari eustera bideratuta dagoela (Martínez-Palacios, 2021: 366).

Baina zer da parte-hartzea? Argi dago azken hamarkadetan kontzeptua ulertzeko moduan bilakaera gertatu dela, demokrazia eta herritartasuna bera ulertzeko moduan bezala. Parte-hartzeko modu murriztaile horietatik abiatuta (instituzionaliki

bideratuak eta gobernuari, Estatuari edo elite politikoei zuzenduak), Norrisen proposamenak (2002) kontzeptua zabaltzeko aurrerapausotzat jo behar dira. Izan ere, bere ustez, eragin zibila edo soziala bilatzen duten jarduerak, edo gizarte-portaeraren eredu sistematikoak aldatzen saiatzen direnak, parte-hartze politikoaren motatzat har daitezke. Kontzeptua garatu nahian, Van Dethek (2014) lau parte-hartze politiko mota proposatzen ditu. Lehenengoa, parte-hartze instituzionala, konbentzionala edo formala; bigarrena, parte-hartze ez-konbentzionala, ez-instituzionala edo auzi-politikakoa; hirugarrena, konpromiso zibikoaren, sozialaren edo komunitarioaren motak biltzen dituena; eta azkena, parte-hartze politiko indibidualizatua eta adierazkorra. Saillapenak eztabaida luzea ekarri du (Hooghe, 2014; Hosch-Dayican, 2014; de Moor, 2016), baina edozein kasutan, parte-hartze politikoaren kontzeptua birdefinitzeko beharra adierazten du, gero eta gehiago eta hainbat arlotan sortzen eta aldatzen ari diren partaidetza-praktikak interpretatu ahal izateko: eremu pribatu eta publikoan, politikoan edo ekonomikoan.

Beharbada, gazteak dira aldaketa horiek ondoen islatzen dituztenak. Horrela, Europako eta munduko beste eremu batzuetako gazteen parte-hartze politikoa gero eta gehiago definitzen da parte-hartzeko modu instituzionalizatuetan jasotzen ez diren praktiken eta erreperitorio hibridoaren edo mistoen garapenean (Hustinx, Meijs, Handy eta Cnaan, 2012; Sloam, 2016; Monticelli eta Bassoli, 2016).

Herritarren parte-hartze politikoa birformulatzeko eta zabaltzeko beharra lotuta dago globalizazio neoliberalerako prozesuekin eta estatuak botere globalaren eremu komplexuetan birkokatzearekin. Prozesu horiek areagotu egin dute herritartasun-praktiken eraikuntza, gero eta urrunago baitaude estatuak definitutako herritartasun formalek (Sassen, 2003). Paradigma liberalean, banakako instantzia eta estatuko ordena politikoa lotzen dituen elementu-multzo gisa ulertu da herritartasuna. Eredu hori gainditu egin da gaur egun. Izan ere, herritartasun-eskubide formalak ahulduz joan diren heinean, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da sistema politikotik formalizatu gabeko prozesu eta eragile ugari izatea, parte-hartzeko praktika eta modu alternatiboak garatzen dituztenak.

Horrek ordezkapenaren gai nagusira garamatza. Izan ere, Andrea Greppik planteatzen du erabat higituta geratu dela subjektu bat baimentzea beste batzuen izenean eta kontura jarduteko (Sermeño eta Aragon, 2017: 32). Gizarte-mugimenduek mahai gainean jarria zuten hori, baina orain orokortu egin da. Aberatsek eta boteresuek ihes egiten diote jendearekin duten harremanari, ez dute arazo publikoekin zerikusirik, eta ez dute uste komunitatearen zerbitzuak laguntzera behartuta daudenik, baina boterearen kontrola ez galtzea dute helburutzat. Klase ertainek, atzora arte demokrazia liberalen gotorleku, beren oraina, eta batez ere etorkizuna, kezka ikusten dute, eta zalantzan jartzen hasi dira bizkarra eman diela dirudien sistema. Herri-klaseak ozen esaten hasten dira beren izenean gobernatzen dutenek ez dituztela ordezkatzeko.

Hainbat egilek denbora daramate ordezkartza-krisi bati buruz hitz egiten, askotan ordezkartza kritikatuaren ordezkari, etorkizun handiko eta ustez demokratikoa

den parte-hartzea jarritz. Hala ere, argudio horiek akademian sinesgarriagoak eta iritzi publikoan ahaltuagoak ziruditenen, ahots diskordanteak sortu dira. Nadia Urbinatik liburu bat eskaini zion «demokrazia eta ordezkari-tza, antitetikoak baino gehiago, osagarriak direla uste duen gutxiengoaren argudioak» defendatzeari. Horregatik, bere buruari galdetzen zion zer baldintza bete behar zen ordezkari-tza bat demokratikoa zela baieztatzeko, demokrazia ordezkari-tzailea eta hauteskunde-demokrazia identifikagarriak ez direla oinarri hartuta (Urbinati, 2006: 4).

Ordezkaritzaren berraurkikuntza demokratiko horren barruan (Urbinati, 2006: 5), Andrea Greppi sar dezakegu. Parte-hartzea eta ordezkari-tza kontrajarri beharrean, Greppik dio «prozesu beraren une desberdinak direla, deliberamendutik erabakira eta alde-rantziz doan joan-etorriko bide bat» (Sermeño eta Aragon, 2017: 22-23). Eta, aurre-rago, ordezkari-tza deskalifikatzeko eta ezabatzeko arriskuaz ohartarazten du, izan ere, «ordezkari-tzan oinarritutako demokraziaren alternatiba ez dago ordezkari-rik ga-beko (ustezko) demokrazian, baizik eta errepresioa eta indarkeria politikoa dosi izu-garrietan handitzean» (Sermeño eta Aragon, 2017: 18).

Zer balio dute hauteskundeek gaur egun gizarte baten sentimendua irudika-tzeko? Gutxi, Mairek (2013) adierazi zuen bezala. Alderdi jakin batean ordezkatu-tako ideia batzuekiko leiala den boto-emaile mota gaingitu ondoren, hautesleria al-dakor bat sortzen da, alderdi baten ideiarekin identifikatzen ez dena, eta kontsumo politikorako egokiagoa dena. Greppik ere gabezia horiek aipatzen ditu, baina hor-tik ezin da ondorioztatu, haren ustez, ordezkari-tza kontzeptua erabat alde batera utzi behar denik; izan ere, demokrazia eta ordezkari-tza nahitaez lotuta daude, eta bigarrena kentzeak ez luke lehenengoaren biziberritzea ekarriko. Are gehiago, «gi-zakiok *ordezkagarritasuna maite dugun izakiak*» garelako dio (Sermeño eta Aragon, 2017: 11-12). Horregatik, ordezkari-tza motaren bat egon behar da.

Greppik gizartearen izenean autoritatez hitz egiteko ahalmenaren higaduraz ohartzen du, eta Urbinatik adierazten du demokrazia ordezkari-tzailearen teoria demo-kratiko batek «subiranotasunaren ikuskera modernoaren berrikuspena ekarri behar duela, zeinean subiranotasun horrek erronka egingo baitio askatasun politikoaren de-finizioan eta praktikan gaur ageri den borondatearen monopolioari. Baieztokoaren eta ezeztokoaren politikaren amaiera markatzen du, eta aldi berean, politika berriaren ha-siera, zeinean iritziak plazaratuak eta erantzunak izan baitaitezke, eta erabakiak ere beti berrikus baitaitezke» (Urbinati, 2006: 224-225).

Eztabaida orokor horiek ere zentzua hartzen dute Euskal Herrian. Hasieran ai-patu dugun bezala, euskal gizartearen laborategi interesgarria da bere bizikidetzaren be-harretara egokitzen diren eredu instituzional eta politikoak bilatzeari dagokionez, eta III. blokean ekarpenak lau elementu oso ezberdinetara bideratzen dira.

Lehenik eta behin, harremanetan jartzen dira, batetik, gizarte-mugimenduak, hauteskundeetako parte-hartzea demokrazian parte-hartzearekin identifikatzen duen ikuspegi sinplista kritikatzeko dutenak; eta bestetik, autodeterminazio-eskubidea, zehazki kontzeptu horren inguruko berrikuntzarik handienetakoa izan duen aldaera, Erabakitze eskubidea, erradikalismo demokratikoaren printzipioan oinarritua (Ló-

pez, 2011). Vizán-Amorósen, Zabaloren eta Alvarezen kapituluak euskal testuingurura hurbiltzen du gai hori, eta autodeterminazioari eta Erabakitze eskubideari buruz gizarte-mugimendu subiranistek izan duten diskurtso-bilakaera aztertzen du.

Adierazi dugun bezala, gazteen artean aldaketa handiak nabari dira parte-hartzea ulertzeko orduan. Larrinagak, Odriozolak, Amurriok eta Iraolak euskal gazteriarri buruz egindako ikerketak erakusten du politikarekiko interesak beste bide batzuk egin ditzakeela, orain arte klasikotzat hartu direnen ordeaz. Egileek egungo euskal gazteriaren sozializazio politikoko prozesuak eta parte-hartze politikoko errepertorioak aztertzen dituzte, eta horien ondorioek arlo politikoaren birdefinizio zabaldua indartzen dute.

Parte-hartzeaz eta herritartasunaz ari bagara, erabakigarria da gizarteko sektore ahulekin harremanetan jartzea. Alde horretatik, liburuak bi adibide interesgarri dartzak. Lehenengoa gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonena da. Gutxi dira, teorikoki eta enpirikoki, gizarte-zerbitzuek sakontze demokratikoko prozesuen funtsezko eragile gisa duten zeregina jorratzen duten lanak (Pastor, 2017), baina Zubillagaren eta Bergantiñosen kapituluan ikuspegi demokratikotik aztertzen dira, eta azpimarratu egiten da parte-hartzea elementu nuklearra dela ikuspegi komunitario estrategikoko batekin konprometitutako gizarte-zerbitzuetarako. Bigarren adibidea pertsona migratzaileena da; izan ere, askotan aldi baterako gonbidatu gisa ikusten dira harrera-gizarteetan, eta ez herritar potentzial gisa. Fullaondoren eta Morenoren kapitulua eztabaida honetan sartzen da, eta Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko datu ugari ematen ditu. Egindako azterketan ikusten da nolako lotura dagoen etorkinek gizartean eta politikan duten parte-hartzearen eta gizarteratzeari buruz duten pertzepzioaren artean.

Laugarren eta azken zatian, arreta berezia jartzen zaio sarritan behar adina garrantzi ematen ez zaion gai bati: demokraziari buruzko ezagutza sortzeko erabiltzen diren tresna eta metodoei buruz hausnartu beharra. Izan ere, hura ulertzeko modu bakoitzak, bere suposizio teorikoak —explizitu eta implizituak— barne, ikertzeko, neurtzeko eta aztertzeko modua baldintzatzen du. Horregatik, ikerketa-metodologiak eta -teknikak balioen, lehentasunen, subjektuen eta abarren kontzepzio desberdin batera egokitu behar ditugu, eta horregatik gonbidatu dugu Tomás Rodríguez Villasanten, zeinak, atalaren sarrera gisa, azken 50 urteetan metodologia parte-hartzaileei buruz izandako eztabaiden errepaso zabala egiten baitigu.

Gai garrantzitsua da unibertsitateak herritarren partaidetzako eta sakontze demokratikoko prozesuetan bete behar duen eginkizuna: inplikatzeko, jarrera neutrala eta urrundua mantentzea, aurkitutako iritzi eta sektoreen arteko adostasuna edo bitartekaritzak bilatzea... Gure liburu honek esperientzia zehatzetan oinarritutako hausnarketaren adibide onak ematen dizkigu. Alde batetik, unibertsitatearen eta profesionalen arteko lankidetzak, Berasaluzeren, Epelderen, Ariñoren eta Ovejasek kapituluan bezala. Azken horiek Gizarte Langintzatik egin berri den ikerketa baten garapena eta emaitzak aurkezten dizkigute, ikerketa/ekintza parte-hartzailearen prozesu batean, baita haren gainbegiratzeko ere.

Bestalde, Zugazak, del Hoyok eta Uretak feminismoaren ekarpen garrantzitsu baten aukerak aztertzen dituzte, interseksionalitatea. Tresna bikaina da genero, klase, arraza, etnia, sexualitate, jatorri, adin edo funtzionalitateen zapalkuntzen arteko harremana ikusarazteko, eta, horregatik, guztiz bat dator liburuaren lelo orokorrarekin, sakontze demokratikoari buruz. Gizarte-emantzipazioko eta -eraldaketako proiektuek interpretazio-esparru egokiak eskatzen dituztela defendatzen dute, era horretara, zapalkuntzaren hurbilketa unidimentsionalak eta boteregabetzaileak konplexutzeko eta problematizatzeke.

Azken gogoeta batean, unibertsitatearen eta herri-mugimenduen arteko lankidetzari heltzen zaio. Hain zuzen ere, Gorostidiren eta Martinezen kapituluak, unibertsitateak, bere erantzukizun sozialetik abiatuta eta herritarrekin eta bere kolektibo-sareekin lankidetzan diharduenean, esperientzio demokratikoko eta ekimen komunitarioak indartzeko prozesuetan egin ditzakeen ekarpenak aipatzen dira. Hori guztia Erkidegoaren partaidetzako bi esperientzia zehatzetan oinarrituta, non gobernariaren eta gobernatuen arteko botere-harremanak eraldatu diren.

4. Demokrazia berriaren herritargo aktibo eta eraikitzaile baten alde: eman ta zabal zazu

Sistema neoliberalaren nagusitasunak, une askotan, indar geldiezina dirudi; gizateriaren etorkizunerako —eta orainerako— aukera posible bakarra balitz bezala (Abdi eta Carr, 2013). Hegemonia horren aurka alternatibak sortzea zaila da, baina liburu honen egileek berretsi egiten dute hezkuntza funtsezko pieza dela bertsiio domestikatu neoliberalatik harago doan demokrazia eraikitzeke.

Gerra Hotzaren amaieran ahots autokonplazienteak sortu ziren, historiaren amaiera eta balio liberalen garaipen unibertsala dekretatu zutenak (Fukuyama, 1989, 1992). Mendebaldeko akademiak sendotze-prozesuan dauden demokrazien arazoak teorizatzeari ekin zion, eta eredu herrialde berrietara esportatzeko biderik onenak aurkitu zituen. Robert Dahlek 1998an zioenez, «XX. mendea ohiko huts demokratikoen garaia izan zen arren (...) itzelezko arrakasta demokratikoaren garaia ere izan zen». Amaitu baino lehen, XX. mendea garaipen demokratikoko mendea bihurtu zen. Ideia, erakunde eta praktika demokratikoen irismen eta eragin globalaren ondorioz, historian zehar egondako demokrazia indartsuenaren mendea izan zen, alde handiz, gainera (Dahl, 1998: 145).

Baina triunfalismo horrek batzuen eta besteen ikusmena lausotu zuen. Politika neoliberalak eta 2008ko krisiak eragindako nahigabeak areagoturik, ez zitzairen seriooki heldu demokrazia liberalaren arazo tradizionalari. Horrek sistemaren beraren legitimitate-galera larria ekarri zuen herrialde zentraletan. Horrela, demokraziari buruzko azterlanak demokrazia gazteen edo sendotze-prozesuan zeudenen arazoetan zentratetik demokraziaren ideia beraren gainbeheraz eta gainbehera

hori zuzentzeko beharrezko politikez galdetzera igaro ziren (Levitsky eta Ziblatt, 2018).

Izan ere, Mendebaldeko sistema demokratikoez arazo larriak zituzten bai funtzionamenduan bai legitimazioan (Habermas 1973, 1976; Offe, 1994). Aldi berean, eliteak itun sozialari uko egiten hasi ziren, gehiegizko demokrazia gertatzen ari zela argudiatuz. Hiru Aldeko Batzordearen Txostenak hainbat arazo atzeman zituen, hala nola gobernuaren autoritatea galtzea, intelektual batzuek eta masa-komunikabideek elikatua; edo herritarren etengabeko eskaeren gorakada, sektore publikoa zabaltzen baitzuten eta zor publikoa etengabe handitzen baitzuten, inor ez baitzen ausartzen hautesleen beldurreratik zergak igotzera (Crozier, Huntington eta Watanuki, 1975).

Diagnostiko horri jarraikiz —Gerra Hotzaren garaiko gastu militar erraldoia alde batera utzi zuena—, Samuel Huntingtonek, txostena idatzi zuenetako batek, ondorioztatu zuen Estatu Batuetan gehiegizko demokrazia zegoela, adierazi dugun bezala, eta, horregatik, moderazio handiagoa behar zela, bi arlotan aplikatu beharrekoa. Alde batetik, «egoera askotan, trebetasun, antzinasun, esperientzia eta talentu bereziko baieztapenek demokraziaren baieztapenak autoritatea eratzeko modu gisa deusezta ditzakete...». Bestetik, sistema politiko demokratiko baten funtzionamendu eraginkorrek nolabaiteko apatia eskatzen du, eta gizabanako eta talde batzuen parte-hartzerik eza (Crozier, Huntington eta Watanuki, 1975: 113-114).

XXI. mendeko lehen hamarkadan, korporazio transnazional nagusiak finantzariorioak ziren, baina are ikusgarriagoa izan zen ekonomiaren finantza-dimentsioaren hedapena. Offshore ekonomia, finantzak nagusi dituen eta Londres-New York ardatzean egituratua, ekonomikoki boteretsua izateaz gain, sozialki eta politikoki ere boteretsua da (Wójcik, 2011: 2). Itxuraz behintzat, elite ekonomikoez eta politikoez ez zuten lezio esanguratsurik ikasi, eta desarautze- eta austeritate-politikei eusten tematzeak arazoak larriagotu eta desberdintasun soziala areagotu zuen, txosten eta azterlan askok erakutsi zuten bezala (Oxfam International, 2014; OECD 2008, 2011, 2018, 2019; United Nations, 2020). Horrek esan nahi du arretarik gabe jarraitzen dutela gure gizarte-sistemari datxezkion legitimazio-defizitek (Gonnet, 2020).

Nahigabe soziala gero eta nahigabe politiko handiagoa bihurtu zen, eta sistemaren aurkako diskurtsoei eta indarrei babes emanaz adierazi zen, baita aukera politiko berriak sortuz ere (Castells, 2017). Sistema demokratikoetan joera orokor bat identifika daiteke, zeinaren ezaugarriak baitira balio demokratikoen higadura, alderdi tradizionalen nagusitasunaren galera herrialde askotan, polarizazio ideologiko eta politiko izugarria, eta sistema demokratiko tradizionalaren alternatiba bihurtu nahi izan duten aukera politiko berrien sorrera.

Demokraziaren etorkizunaren hausnarketan erabilitako esparru epistemologikoak eta metodologikoak egokiak direla ziurtatzeak estrategikoki giltzarria dirudi.

Eredu demokratiko kosmopolita bat aurkitzeko erronka

Argimiro Rojo

Vigoko Unibertsitateko Irakaslea (UVIGO)

Laburpena. Ez dago zalantzarik munduko gizartearen egungo egitura politikoa ez datorrela bat gizateria osoaren premia objektiboekin. Dimentsio globala hartzen duten arazoen dimentsio globaleko boterea, konstituzioa eta ekintza-bide izango lituzkeen aginte publiko batek bakarrik heldu diezaieke modu egoki batean. Gauzak horrela, logikoa da munduko gobernu baten aukera, edo beharra, kontuan hartzea. Hala ere, politika agertoki globalera eramateak ez luke ekarri beharko politika demokratikoa desegitea edo, bestela esanda, gure gizartearen oinarritzko eskubide eta askatasunak, konstituzio-bermeak, herritartasuna edo espazio publikoa galtzea. Hori da gaur egun dugun erronka handienetako bat, eta horrek behartzen gaitu aro globalarekin bat datorren beste demokrazia modu bat edo batzuk asmatzera. Erronka horri nolabaiteko erantzuna bilatzea da, izan ere, azterketa honen funtsezko eskakizuna.

Sarrera

Proposatzen den mundu-mailako gobernu horren eskakizuna ez da espekulazio edo amets-irudi soiletik eratortzen, ezta norbaitek mirets dezakeen aukera edo sinemen kosmopolita batetik ere. Proposamen hori eskakizun pragmatikotzat jo behar da, bai eta planetaren eskalan komunikazio- eta interdependentzia-prozesuen bi-ziagotzeak eta azelerazioak progresiboki bateratutako mundu baten ezaugarriekiko erantzun politiko-instituzional egokitzat ere; mundu horri, gainera, arazo eta krisi sistemikoei eragiten diote, eta, fenomeno meteorologikoen antzera, indar eta abiadura handiz mugitzen dira, muga nazionalak alde batera utziz eta estatuen gaitasun eta mugak gaindituz. Nazioarteko sistemaren barruan gertatzen ari denaren irakurketa adi eta lasai bat eginez gero, agerian jartzen da estatuak, mende ugariaren ondoren eta planetan progresiboki finkatu ondoren, ez direla gai globalizazioaren logikek baldintzatutako gizartearen gobernagarritasuna bermatzeko.

Erronka globalei nazio-estatuaren muga estuetatik erantzutea sekulako anakronismoa eta zentzugabekeria da. Dagoeneko ez da posible arazo globalak tokiko erantzunen batura gisa eraginkortasunez jorratzea; beraz, agindu kosmopolita gailentzen da. Held-ek (2012) bere buruari galdetzen dio, alde horretatik, zergatik ez duen politikak ere globala izan behar gaur egun, gizakion bizitzaren gainerako alderdiak hala badira (osasuna, gaixotasunak, ekologia, ekonomia, bizitza soziala, zientzia, kultura, kirola). Hori da, zalantzarik gabe, gure garaiko paradoxa handienetako bat: guztia globalizatzen da politika eta demokrazia izan ezik; hau da, zibilizazio planetarioa sortu eta hedatzen den bitartean, politikan fase aurre-planetarioan trabatuta jarraitzen dugu (Bummel, 2017).

Waldron-ek (2005) «politikaren inguruabar» deritzonetik abiatuta, hots, aintzat hartuta politika sortzen dela gatazka eta desadostasun sozialen aurrean ekintza edo erabaki kolektibo bat behar dugunean egoera kudeatzeko, pentsatu beharko genuke ezen gaur egun beharrezko baldintza objektibo horiek betetzen direla, eskala globalean politikaren arloa eta praktika sortu eta ezartzeko. Politika global horrek ez ditu alde batera utzi behar konkista nagusiak eta ezaugarri bereizgarrienak; adibidez, dimensio demokratikoa. Baina zer demokrazia praktika daiteke maila globalean? Demokrazia berdina edo nazio-estatuaren mugen barruan erabili dugunarekiko analogoa? Politika agertoki globalera eramateak aro globalarekin bat datozen beste demokrazia-forma batzuk asmatzera behartzen gaitu? Eredu demokratiko kosmopolita bat aurkitzeko erronkaren aurrean gaude?

Galdera horien erantzunetako bat aztertzeko asmoa da, zehazki, azterlan honen helburu eta xedea; bertan, aurretiazko kontu gisa, hausnarketa bat proposatzen da: zer dakar politika agertoki globalera eramateak, eta zeintzuk dira agertoki politiko globalizatu berri hori osatu beharko luketen printzipio eta prozedura demokratikoak?

1. Zer dakar politikara jotzeak eta agertoki globalera eramateak?

Planetaren gobernu baten beharra planteatzeak berekin dakar politikara jotzea eta agertoki globalera eramatea, nazio-estatuaren monopolioa gainditzeko, eta, horrez gain, gobernantza globalaren egungo eredu (zeinetan etsipenez egokitzen saiatzen garen) gainditu eta perfektionatzeko. Hala ere, azken hori ez da nahikoa planetako kontu nagusiak eraginkortasunez jorratzeko. Boterearen, gobernuaren eta administrazio publikoaren planeta-maila hori ezarri gero, egungo arazo eta erronken izaera eta irismenaren eta mundu-mailako egungo arkitektura politiko-instituzionalaren arteko desfase eta alde handia zuzendu beharko da. Horrekin batera, ordena berean, Lurraren antolakuntza politikoa bukatzea ekarriko du; dagoeneko baditu tokiko, nazioko eta kasu batzuetan nazioz gaindiko gobernuak (adibidez EB), baina oraindik ez du lortu beharrezko maila global hori.

Politika agertoki globalean ezartzeak, horrez gain, berekin dakar gizadiaren kontu komunak politizatzea, hau da, mundu-mailako ondasun kolektiboak; horrek esan nahi du agenda publiko globalean sartuko direla, ondoren, dagozkion erakunde eta prozedurak erabiliz, erabaki lotesleak hartzeko munduko gizarte osoarentzat. Horretan datza, hain zuzen ere, politika: gatazka arautzera eta helburu kolektiboak lortzera bideratutako jarduera da, eta haren emaitza da erabaki lotesleak hartzea, alegia, nahitaezkoak komunitateko kide guztientzat.

Politika agertoki globalean ezartzeko asmoak berekin dakar munduaren gure interpretazioa enfokatzeko, baita gobernagarritasuna ere, ikuspegi global eta kosmopolitiko, globalizazio- eta kosmopolitizazio-prozesu orokorrarekin bat. Kosmopolitismoaren eta politikaren arteko loturatik kosmopolitika sortzen da, hau da, nazioz edo estatuz gaindiko gobernu-erakundeetan oinarritutako mundu-mailako ordena politiko baten proposamena, eta haren subjektuak Lurreko biztanleak izango dira, munduko hiritarraren estatusarekin, dagozkien eskubide eta betebeharrekin (Peña, 2010). Giza behar, arrisku eta interakzioen mundu-mailako komunitate horren existentzia aintzat hartzen badugu, ados egon behar da baterako existentzia baketsuaren betebeharrak eta exijentziarekin ez ezik, planeta osatzen duten pertsona, lurralde eta giza talde guztien arteko ulermen eta lankidetzarekin ere. Historiaren une honetan, arrazoizkoa litzateke zatiketa eta borroka behin betiko gainditzeko eskatzea, planetako herri eta lurralde guztien arteko komunikazioa, lankidetzak, interdependentzia eta elkartzea-integrazioa ahalbidetzeko.

Kosmopolitismoak behartzen gaitu gizarte partikularren parte izatearen balioa erlatibizatzen, probintziako patriotismo itxiari mugak jartzera (Nussbaum, 2013) eta, ondorioz, hedatutzat jotzen leialtasunen, elkartasunen, betebeharrak moralen eta justiziaren arloa (justizia unibertsala). Kosmopolitismoan bat egiten dute estatismo eta nazionalismo etnozentriko, isolatzaile eta baztertzaileren arrazoizko alternatiba bat bilatzen dutenen posizioek, nazioz gaindiko loturen, gizartearen arteko interdependentziaren eta partaide izatearen, nortasunaren eta hiritartasunaren nozio konbentzionalei aurre egiten dieten interes gurutzatuen aurrean. Kosmopolitismoak politika eta politikak birpentsatzera (berrasmatzera) behartzen gaitu; izan ere, planeta osora proiektatutako ordena politiko bat irudikatzean, teoria politiko tradizionalaren oinarritzeko kontzeptu asko probatzen ditugu (estatua, subiranotasuna, hiritartasuna, muga, giza eskubideak), baita demokraziarena ere. Eta hori da hemen planteatu dugun kontu nagusia: nola eragingo die kosmopolitismoak demokraziaren teoria eta praktikari? Baina, zer da demokrazia?

2. Politika demokratikoa

Politikak barne hartzen ditu gizartearen barruko eta haien arteko lankidetzak eta gatazka-jarduerak guztiak; jarduerak horien bidez, gizakiak bizitza biologiko, sozial

eta ekonomikoaren erabilera, ekoizpena eta erreprodukzioa antolatzen ditu. Politikak berekin dakar proiektu komunak antolatu eta planifikatzea, pertsonen arteko harremanak zehazten dituzten arau lotesleak finkatzea eta gizakien premia eta asmoetarako baliabideak esleitzea. Hori guztia, alde batetik, herritarren interesak asetzeko egiten dute, helburu berekoi, sektorial eta partzialekin, eta, bestetik, gehiengoak asebeteko duen ongizate komuna eta interes orokorrak babestu eta artikulatzeko. Deutsch-ek (1981) funtsezko elementutzat jotzen du giza ahalegin eta itzaropenen koordinazio irmoa, gizarte baten helburuak lortzeko; Sodaro-ren ustez (2015), prozesu horren bidez giza komunitateek helburu kolektiboak bilatzen dituzte eta beren gatazkak jorratzen dituzte arau, prozedura eta erakundearen egitura baten esparruan, irtenbideak lortzeko eta gizarte osoan aplikatzeko erabakiak hartzeko helburuarekin.

Beraz, premisa horietatik abiatuta, aintzat hartuta politika gizakiaren berezko ezaugarria dela eta erreferentzia egiten diola komunitatearekin eta bizitzarekin lotutako orori, eta kontuan izanda politika gatazka kudeatzera bideratutako jarduera kolektibo bat dela, ez litzateke logikoa eta koherentea izango herritarrek politikatik kanpo uztea, eta ez uztea parte-hartzen politikak esku hartzen duen eta agertzen den arlo guztietan erabakiak hartzeko prozesuan. Horregatik, politikak beti izango beharko luke parte-hartzailea eta parte hartua; hau da, hitz zehatz eta argiagoekin esanda: politikak (arloan globalekoa barne) beti izan beharko luke demokratikoa. Eta zer esan nahi dugu «demokrazia» diogunean?

Definizio adierazgarrietako bat Robert Dahl-ena da (1999), eta kontzeptu bat garatzen du oinarritzko galdera batetik abiatuta: nola maximiza daitezke mundu errealean subiranotasun herrikoia eta berdintasun politikoa? Politologo estatubatuarrek demokraziaren teoriari egindako ekarpen nagusietako bat, osagai normatibo eta enpirikoekin, bost irizpide proposatzea izan zen, prozesu demokratikoa identifikatu eta bereizi ahal izateko: benetako parte-hartzerako aukerak; hark «ulermen ikasia» deritzonerako aukerak, hots, jokoan dauden interes edo ondasun propioak ezagutzeko gaitasuna; *demos* delakoaren edo herritar hautesleen kontrola agenda publikoaren gainean; bermeen berdintasuna botoen azken zenbaketan, eta, azkenik, guztiak erabat sartzea hauteskunde-prozesuan.

Sodaroren ustez (2015), demokraziaren kontzeptutik ondorioztatzen den ideia nagusia honako hau da: herritar guztiek eskubidea dute nork gobernatuko dituen erabakitzeke; ideia nagusi horren inguruan hainbat abantaila, xede, bertute eta egin-tza demokratikoren ekarpenak artikulatu daitezke. Hortaz, demokraziak pertsonen bizitza-kalitatea eta duintasuna hobetzen laguntzen du, aukera ematen baitie komunitatearen kontuetan parte-hartzeko, beren iritzia adierazteko eta ahotsa eta botoa edukitzeko gobernuaren erabakietan; espazioa ematen du askatasun indibidualerako eta berdintasun politikoa sustatzen du «herritar bat, boto bat» printzipioan oinarrituta; etengabeko eztabaida irekia sustatzen du politika publikoei, programei eta gobernu-alternatibei buruz; pluralismoaren alde egiten du, eta erakunde eta talde sozial hegemoniko eta pribilegiatuen eraginari aurre egiten dio. Azkenik, demokraziak au-

kera ematen die herritarrei gobernuen jardueren berri izateko eta kontrol eta muga legalak finkatzeko estatuko botereek botere subiranoa erabiltzeari dagokionez.

Aurrekoarekin lotuta, eztabaidarako gai bat planteatzen da demokrazia terminoaren erreferentzia- eta aplikazio-eremuarekin lotuta. Alde horretatik, komenigarria da gogoratzea egile batzuen ustez kontzeptu horrek erreferentzia egiten diola soilik arlo politikoari, eta bereziki gobernu-erakundeei (Sartori, 1994); beste egile batzuen ustez, ordea, sistema politiko baten demokratizazio-maila erakunde publikoetatik (adibidez, alderdi politikoak, erakunde sindikalak, elkarte zibikoak, etab.) kanpoko errealitateetan dagoen demokrazia-mailaren mende dago zehazki (Bobbio, 1986).

Beraz, demokrazia esfera politikora mugatzea, soilik prozedura-dimentsioa ikus-tea eta beste arlo batzuetako aplikazioa (ekonomikoa, kulturala, soziala, etab.) bazter-tzea kontraesanean dago haren kontzepzio funtsezko eta integralarekin, eta zuzenean lotzen du pertsonaren duintasunarekin eta herritarren arteko berdintasun sozioeko-nomiko handiagoa lortzearekin. Demokrazia erakundeen multzo hutsa izango da soilik, baldin eta herritarrek erakundeetan beren ordezkariak bozkatzera mugatzen bada; ondorioz, erabateko demokraziak berekin dakar pertsonak erakunde eta pro-zesu handi guztietan jardutea eta eragitea, haien energia eta obediencia behar bai-tute (Young, 2002).

Teoria rousseautiar klasikoaren ildoan, alegia, gobernu-zereginetan herri-subi-ranotasuna eta herritarren parte-hartze zuzena babesten dituenaren ildoan, duela gutxi irismen orokorreko eta deliberaziorako demokrazia parte-hartzaile baten aldeko hainbat teoria formulatu da, hau da, aldizkako hauteskunde soiletatik haragoko parte-hartzea sustatuko duen demokrazia bat. Demokrazia horrek benetako autogo-bernua ahalbidetuko du herritar aske, arduratsu eta konprometituen bidez, eta jar-duera politikoa ez dute jarriko soilik profesionalen (politikarien) esku. Gainera, ez du herritarren parte-hartzea mugatuko botoaren ohiko erabilera sinplera. Alde horretatik, gure demokrazia ordezkatzailak ez lukete hautaketa-demokrazia soilak izan behar (pertsona batzuk boterean ipintzen dituztenak eta beste batzuk kentzen dituz-tenak), eta ordezkariak *ordezkatzailagoa* bermatu behar dugu, hots, «konplexuagoa, gai izango dena gizarte garaikideen autonomia, aniztasuna eta berdintasun-exijen-tzia jasotzeko» (Subirats, 2011: 32).

Hortaz, demokrazia ordezkatzailaren osagarri gisa, beharrezkoa da, horre-kin batera, deliberazio-demokrazia parte-hartzaileari ateak irekitzea¹. Demokra-zia ordezkatzaila, gaur egun, ordezkazina da, besteak beste ekintza politikoari beharrezko zilegitasuna, koherentzia, egonkortasuna eta artikulazioa ematen diz-kiolako, eta, gainera, demokrazia bera babesten duelako herritarren heldutasunik ezaren, ahultasunaren, ziurgabetasunaren eta pazientziarik ezaren aurrean (Inne-rarity, 2020). Hala ere, beharrezkoa da mugimendu sozial alternatiboen eta gizarte

¹ Parte-hartze sozial maximotzat jotzen da (bazterketarik gabe) ongizate komuna identifika-tzera eta erabaki kolektiboak hartzera bideratutako deliberazioetan.

zibilaren ekintza kolektiboaren beste modalitate batzuk (alderdi politiko eta presio-talde tradizionaletatik harago) baliatzea eta haiei ateak irekitzea, agenda publikoa zuzendu, herritu eta aberasten baitute.

Horrek agora berreskuratu eta indartuko du. Agora hori deliberazio eta argudiatze arrazionalerako espazio publikoa da, ezagutzan, askatasunean, eskubide-berdintasunean, bazterketarik ezan eta derrigortzerik ezan oinarritua, non asmo eta arazo pribatuek bat egiten duten konponbide bat bilatze aldera kausa kolektibo bihurtzeko (Bauman, 2003). Espazio horretan zenbait ideia sor eta gara daitezke, besteak beste ongizate publikoa, elkartasuna, balio zibikoak edo gizarte bidezko eta irekia (Popper, 1994). Espazio horrek aukera ematen du agintaritza kontrolatu eta publikoki erantzule egiteko gaitasuna herrezartzeko, hura moralizatuz eta garden eginez, edo eza-gutaraziz eta nagusi den gaindeterminismo ekonomikoaren ezintasunak edo amore-emateak justifikatzeko darabiltzan gezurrak, engainuak eta manipulazioak agerian utziz (Vallespín, 2012).

Balio garaikideen arloan, demokrazia etikoki hobea eta eztabaidaezina den arrazionaltasun gisa agertzen da, eta, alde horretatik, ezin gaituzte itsutu erregimen politiko autoritarioek (edo teknoautoritarioek), mota guztietako larrialdiak irmotasunez, azkartasunez eta eraginkortasunez kudeatzen dituztelako (efizientzia eta eraginkortasuna ez dira beti benetakoak), baina herritarrak artalde gisa tratatzen dituzte, eta funtsezko eskubide bat kentzen diete, hau da, eragiten dieten kontu guztiei begira autodeterminatzeko eskubidea eta gaitasuna. Ez dago demokraziaren alternatibarik, haren inperfekzio, mendekotasun eta disfuntzioak gorabehera.

Zilegitasun demokratikoaren kontzeptua, edo, beste modu batean esanda, botere politikoaren legitimazio demokratikoa, gure egungo antolamendu juridiko-politiko guztiaren oinarria da, eta Lehen Mundu Gerraren osteko konstituzio ia guztietan topatzen dugun baieztapen irmo eta solemnean oinarritzen da: subiranotasuna herriarena da, eta bertatik sortzen dira botere guztiak. Horrela igarotzen da antolakuntza politikoaren eredu absolutistatik konstituzionalera eta demokratikora, eta demokraziarik gabeko politikatik demokrazia, baimena eta herritarren determinazio askea dituen politikara. Horrek esan nahi du gobernuek, erakundeek eta botere politikoek, oro har, gobernatuen akordioan, baimenean eta konfiantzan dutela jatorria eta oinarria, eta inoiz ez indarrean, derrigortzean, inposizioan edo usurpazio zapal-tzailean.

Beraz, «zergatik obeditzen da?» edo «zergatik eskatzen da obedientzia?» galderi erantzuteko, esan daiteke hori gertatzen dela herritarrak baimena ematen duelako eta boterea, dagokion subiranotasun-kuota, eskuordetzen duelako. Herritarrak, botere subirano baten titular gisa, eta subiranotasuna zuzenean eta elkarrekin erabiltzeko ezintasunaren aurrean, hau da, demokrazia zuzenaren bideraezintasunaren aurrean, zeharkako demokrazia ordezkatzaillearen alde egiten du, eta horrek gobernu konstituzional eta demokratikoaren forma orokorra hartzen du. Hauteskunde bidez boterea, erakundeak eta gobernatzaileak legitimatu eta baimentzen ditugu, eta, oro har, sistema politikoa. Hor dago haren garrantzi handia, eta horregatik jotzen

dira hauteskundeak gobernu demokratiko zilegi eta ordezkatzailerearen erakunde nagusitzat (Manin, 1998).

Egintza demokratikoaren berrespen horren ondoren, dena dela, aitortu behar da demokrazia modernoek zailtasun ugari dituztela, eta haien promesetako batzuk, Bobbiok (1986) esango lukeen moduan, ez direla bete. Ideal demokratikoa erabat gauzatzea eragozten duten eta demokrazia berdinzale eta bidezkoagoetarako trantsizioa tratatzen duten oztopoen artean, merkatu-ekonomia aipatu behar da, diru-sarrereren eta aberastasunaren desberdinkeriak eragiten baititu halaberharrez, eta, ondorioz, bizitzaren, aukeren, eraginaren eta boterearen desberdinkeriak. Arazo zaharra da, baina orain indartu egin da, besteak beste alternatiba sozialistaren kolapsoaren eta globalizazio-prozesuaren bat-bateko heldueraren ondorioz. Beste oztopo bat honako hau da: politika, hots, politika publikoa, geroz eta konplikatua eta zailagoa da ulertu eta administratzen; horrenbestez, pertsona arruntak ez dira inplikatzeko, konpromiso eta ekintza politikotik aldentzen dira eta espazio hori gutxiengo baten esku uzten dute. Alderdi politikoen krisiak ere eragin zuzen eta nabarmena du herri-demokraziaren ahultze horretan eta gobernu ordezkatzailerean, Mair-ek (2015) dioen moduan.

3. **Eredu demokratiko kosmopolita bat aurkitzeko erronka**

Aurretik adierazi dugun moduan, politika agertoki globalean ezartzeko asmoak edo beharrak berekin dakar munduaren gure interpretazioa enfokatzeko, baita gobernarritasuna ere, ikuspegi global eta kosmopolitatik, globalizazio- eta kosmopolitizazio-prozesu orokorrarekin bat. Baina kosmopolitismo horrek politika eta politikak birpentsatzera edo berrasmatzera behartzen gaitu; izan ere, planeta osora proiektatutako ordena politiko bat irudikatzean, teoria eta praktika politiko tradizionalaren oinarritzko kontzeptu asko probatzen ditugu, besteak beste demokraziarena. Heldek (1997 eta 2005) dioen moduan, aro globalaren etorrerak eskatzen digu berriro planteatzeko erredu demokratiko tradizionala, nazio-estatuaren eremuaren eta mugen barruan, eta erredu demokratiko kosmopolita bat bilatzea. Eta hori da une honetan jorratu behar den erronka eta zeregin nagusia: maila globalean erredu politiko eta instituzional bat asmatzea, aurretik aztertutako printzipio eta prozedura demokratikoak aldi berean babesteko eta praktikan jartzeko.

Egungo bizitza politikoaren nazioartekotzeak eta mundu-mailako bihurtzeak krisi demokratiko hori sakontzen du; izan ere, gure agenda politiko propioa kontrolatzeko gaitasuna txikiagoa eta lausoagoa da orain. Nazioz gaindiko erregimenen sorrera progresiboak, arlo eta agertoki global edo azpiglobal ikusezin eta gardenetan erabakiak hartzeak, edo beren burua izendatutako direktorioetan eta despotismo ilustratuaren antzeko postulatuetan oinarritutako gobernantza globalearen funtzionamenduak printzipio eta praktika demokratikoaren defizita edo haustura argia dakarte.

Argi eta garbi dagoenez, gobernantza globalaren egungo ereduak ez du zilegitasun demokratikoa, ez baitie uzten planetako herritarrei behar bezala parte-hartzen (beren baimena ematen) gobernatzeko moduari eta erabakiak hartzeaz arduratzen diren pertsoneri begira. Ez dago demokrazia kosmopolitarik: alegia, erakunde politiko global inklusibo eta irekirik, boterez inbestituta eta *demos* batek eta gizarte zibil global eta parte-hartzaile batek legitimatuta; horrek sinesgarritasuna eta atxikipena kentzen die. Horrez gain, ez dago kontu emateko mekanismo argirik, eta horrek eragotzi egiten du, adibidez, zehaztea nork duen ardura erakunde eta sare publiko eta pribatuaren multzo batean, non, gainera, ez dagoen parte-hartzea edo baztertzea arautzen duen bidezko irizpiderik (Keohane, 2003). Zaila da identifikatzea egungo gizartean nork hartzen dituen benetan erabakiak, eta noren aurrean erantzun behar duten eta kontu eman behar duten eragile horiek; horrek funtsezko kontu bat konpontzea eragozten du: nola eta non birkokatu *accountability* delakoa aro globalean (Lafont, 2010). Calame-ren (2009) arabera, ugaritu egin dira aurpegiarik, mandatu argirik eta errekurritu eta erreklamatzeko instantzia identifikagarriarik gabeko agintaritzek emandako nazioarteko arauak, eta horrek arauaren autoritatea eta eraginkortasuna kaltetzen du.

Gobernantza globalaren egungo ereduaren beste gabezia batzuk islatuta daude, adibidez, erakundearen gainjartzean (NBEren Segurtasunaren Kontseiluaren eta G-8 eta G-20 taldeen artean), justizia-auzitegi globalen mugetan, herrialde batzuek instantzia globaletan duten ordezkaritza handian beste batzuen ordezkaritza txikiaren aurrean edo demokratikoak ez diren erregimenek mundu-mailako erakundeetan duten parte-hartzean eta protagonismoan. Gainera (eta komenigarria da hau azpimarratzea), nazioarteko legezketasunaren mende jartzea estatuen borondatearen eta beren interesen arabera da, baita maila globalean jokatzeko botere faktikoen arabera ere, eta ez dago hori errespetatzera behartzen dituen agintaritzarik, bereziki indartsuenen kasuan. Bestalde, botere gutxien duten estatuak eta bertako biztanleak baztertu egiten dituzte erabakiak hartzeko prozesuetatik.

Edonola ere, aitortu behar da azken urteetan erakunde global batzuek beren eraginkortasuna eta efizientzia hobetu dutela, gardentasun-maila handitu dutela eta kontuak demokratikoki emateko mekanismoak areagotu dituztela. Adibidez, arindu egin da Nazioarteko Diru Funtza, Munduko Bankua edo antzeko erakundeetan erabakiak hartzeko gehiengoaren alde guztien adostasuna eskatzeko irizpidea, edo indartu egin dira deliberazio-elementuak; esate baterako, Munduko Merkataritza Antolakundean. Horrez gain, zakur zaindarien funtzio tipiko horiek betetzen dituzten geroz eta instantzia global gehiago ari dira agertzen, eta negozio ustelak argitara ematen dituzte edo agenda publiko globalean hainbat gai sartzeaz arduratzen dira, besteak beste kontu-ematea, gardentasuna edo giza eskubideen errespetua. Hori da, adibidez, Amnistia Internazionalaren, Gardentasun Internazionalaren edo Giza Eskubideen aldeko Goi-komisarioaren kasua.

Beraz, prozesu politikoen nazioz gaingiko izaera eta mundializazioa joera eta prozesu eztabaidaekin dira Gizadiaren fase honetan, eta, horrekin batera, harre-

man sozialen eboluzioaren, aurrerapen teknologikoen, globalizazioaren eta azken urteetan sortutako mota guztietako interdependentzia ekonomikoen isla eta emaitza dira. Dagoeneko hasi da planetako gobernuaren eraikuntza! Are gehiago, egile batzuek zalantzarik gabe baieztatzen dute, alde horretatik, mundu-mailako gobernua hemen dagoela dagoeneko (nahiz eta soilik adituen mundu-mailako gobernua izan), eta mundua dagoeneko modu eraginkorrean gobernatzen dutela planetaren gobernarritasunarekin lotutako zereginak egiten dituzten erakunde globalek (Colomer, 2015).

Komenigarria da hori guztia azpimarratzea eta baloratzea, eta, gainera, gertakari itxaropentsua da planetaren gobernarritasun demokratikoan aurrera egiteko etengabeko ahalegin horretan. Hala ere, ezin dugu etsi gobernantza globalaren eredu horren aurrean; izan ere, zilegitasun demokratikoaren, autoritatearen, eraginkortasunaren eta gaitasun erabakitzaile eta loteslearen gabezia larria du. Horrez gain, erakundearen ugartasuna eta gainjartzea ere badira haren ezaugarriak, baita arauketa sakabanatua, zatitua eta aurpegirik gabea ere, non beren burua izendatutako dozena bat bulego, erakunde, agentzia, funts, banku eta direktoriok (G-8 eta G-20, adibidez) gizadi osoaren etorkizuna erabakitzen duten haien ezagutza eta baimenik gabe.

Giza historiaren une honetan, ia inork ez du zalantzan jartzen erakunde politikoen demokratizazio-prozesua, ezta arlo politikoan funtsezkotzat jotzen diren hainbat eskubide, praktika eta printzipioren konkista (herritartasuna, parte-hartzea, ordezkaritza, kontrola, fiskalizazio eta kontu-hartzaitza publikoa, legegintza, bermeak, botere-banaketa, etab.) Estatua sortu eta finkatzearekiko paraleloak izan direla ere aldi demokratikoan. Alde horretatik, globalizazio-prozesu geldiezinaren aurrean, estatu-sistemaren higadurarekin, arriskua dago politika demokratikoa desegiteko, edo, gauza bera dena, gure gizartean oinarritzko eskubide eta askatasunak, berme konstituzionalak eta herritartasuna desagertzeko edo espazio publikoa galtzeko (Bauerman, 2003).

Munduko herritar bihurtzeak (egungo gizartearen globalizazio- eta kosmopolitizazio-prozesuen ondorioz), nolabait, egoera berri batera eramane gaitzake, non gizakia inongo herritar izango den, horrek dakarren guztiarekin. Hau da, kosmopolitismoa ez da gertatu behar herritar izateari uko egiteagatik, hori elementu ukaezin gisa konkistatu eta bereganatu baitugu estatu liberal eta demokratikoaren esparruan, eta une oro botere politikoaren edo izaera ekonomikoko edo bestelako botere batzuen aurrean erabil ditzakegun eskubideak eman baitzizkigu. Ezin dugu amore eman estatu-erakundearen higaduraren aurrean, eta espazio politiko horiek galdu, non justiziarren, etikaren eta legearen izenean gure eskubide eta askatasunak defendatu eta gure aldarrikapenak egin ditzakegun.

Horregatik guztiagatik, planteatutako arazoarekin lotuta, beharrezkoa da politikaren eta demokraziaren nazio-estatuaren arkitektura tradizionalaren alternatibak bilatzea. Horrek agertoki konplexu berri bat sortzen du, eta horri aurre egin behar diogu, egungo errealitatearekin zerikusirik ez duten eskema eta printzipio sinplistik gaindituta. Eredu politiko demokratikoaren kategoria zaharrak zehaztu eta birkoka-

tzeko arazoa konpondu behar dugu orain, bizikidetzako formula etikoetan eta orain arte estatu demokratiko, sozial, konstituzional eta zuzenbidezkoa ezaugarritu duten balio eta printzipioetan oinarritzen baita. Azalpenaren une honetara iritsita, gure buruari galdetu behar diogu zein den eskala globaleko inkongruentzia demokratiko honen konponbidea.

Alde horretatik, gobernagarritasun demokratiko globalaren sistema bat bilatzea izango litzateke erantzun koherente eta logikoa globalizazioaren aurrean, esparru politiko eta moralean; politika eta demokrazia globalizatzea, hau da, agertoki globalera eramatea eta nazio-estatuaren eremuan egin dugunarekiko modu analogoan praktikatzeta. Globalizazioa, politikaren amaierara eramatek urrun, «politikaren jarraipentzat hartu behar da, maila oso desberdinetan jarduten duten bitarteko berrien bidez» (Held, 2005: 34). Innerarityk (2020: 437) dioen moduan, nahiz eta globalizazioak hertsadura ugari planteatzen dituen politikarentzat, horrek ez dakar haren amaiera, «baizik eta agian politikarako aro berri baten hasiera».

Zilegitasun demokratikorik ezaren konponbidea da «gobernu-ordena berriak topatzea, eskala globalean gobernu eraginkor eta bere ekintzen gaineko erantzukizun demokratikoa izango duenaren antzeko zerbait garatu ahal izateko» (Keane, 2008: 91). Heldek (2005) arauen sortzaile eta hartzaileen lan-arloak lotzeko beharra azpimarratzen du, baita erabaki-espazioak tradizionalki baztertuta egon diren sektore eta eragileei irekitzea ere; horrela, eztabaida, proposamen eta ekintzaitza politikorako espazio berriak sustatu ahalko dira mundu-mailan. Alde interesdunen zirkuluak erabakiak hartzen dituztenekin elkartzea, «euren bizitzetara eragiten dieten ondare publiko globalei buruzko iritzia eman ahal izateko aukerak sortzeko» (Kaul *et al.*, 2003: 5)².

Cavallerok (2009) uste du soilik *federative global democracy* batek zuzendu dezakeela gobernantza globalaren egungo sistema ezaugarritzen duen geroz eta gabezia demokratiko handiagoa. Ideia bera partekatzen dute Bradford-ek eta Linn-ek (2010: 10), eta baieztatzen dute mundu-mailako egungo gobernantza-sistema ez dela egokia planetaren erronka garrantzitsuenei aurre egiteko. Beraz, beharrezkoa da «egungo itopuntutik erronka globalei aurre egitea ahalbidetuko duen nazioarteko sistema batera igarotzea, gobernantza global demokratiko, inklusibo eta eraginkorrrago baten bitartez». Azken finean, «erreklamatu behar da munduko kontu publikoen kudeaketak bat etorri behar duela historikoki estatuaren *barruan* lortzen hain zailak izan diren estandar demokratikoekin, zeinak orain higitzen ari diren *kanpotik*» (Ibañez, 2015: 119).

Colomerek (2015: 15), aitortu ondoren «beren burua izendatutako eta maila globaleko dozena bat bulegok, erakundek, agentziak, funtsek, bankuk eta direktoriorik mundua gobernatzen dutela gaur egun», bere buruari galdetzen dio ea maila globalean aplikatutako erabaki instituzionalak hartzeko formula eta eredu horiek

² V. Held (2005: 133).

bateragarriak izan daitezkeen demokraziaren baliozko nozio batekin. Haren erantzuna baiezkoa da, eta argudiatzeko dio demokrazia soilik printzipio bat eta baimen sozialen oinarritutako nozio etiko bat dela, eta hainbat formula instituzionalen bidez jar daitekeela abian, maila globalean aplikatutakoak barne. Beraz, sortzaileak izan behar dugu, eta formula berriak sortu behar ditugu, mundu-mailan erabakiak hartzeko eta printzipio eta prozedura demokratikoaren «espiritua» eta esentzia errespetatzeko.

Innerarity (2020: 430) ere mintzatu da duela gutxi gai horri berari buruz, eta honako hau adierazi du: «ez da onargarria herrialde gutxi batzuetako elite gutxi batzuek beste herrialde batzuetako politika nazionalak baldintzatzea, aintzat hartu gabe iritzi publiko nazional zein globalak». Nolanahi ere, autoreak berak aitortzen du nazioarteko erabaki politikoen intzidentzia etxeko espazioetan ez dela beti bidegabeko mutur-sartze bat, «baizik eta legitimazioa behar duen eta gero eta presentean dagoen errealitate bat»; are gehiago, nazioarteko eta nazioz haraindiko auzialdiak, eremu globalekoak zein azpiglobalakoak, behar-beharrezkoak dira estatuen gaitasuna gaindikatu duten zenbait gai kudeatzeko. Arazoa da nazioarteko instantzia horiek hain aipatua den «defizit ekonomikoa» jasaten dutela; hau da, zorrozki ez-demokratikoak dira, orain arte komunitate politikoen kalitatea neurtzeko eta baloratzeko erabili ditugun irizpide eta estandarren arabera.

Innerarity (2020: 117) arazo horrentzat proposatzen duen irtenbidea demokrazia globala (kosmopolita) (bir)pentsatzea da, kontzeptu berri eta jardunbide ezezagunen bidez, besteak beste: banantzerantz beharrean, integrazio bereizirantz (hau da, dimensio anitzen bidez egituratutako pluriarkia orokorreko sistema baterantz, zeinetan dagoeneko ez duten agintzen hierarkien logikek eta mendekotasunek) doan mundu eta gizarte konplexuen esparruko demokrazia irudikatzea. Egungo arronka handienetako bat, zehazki, gizartearen arkitektura polizentrikoa maila guztietan pentsatzea da (multilateralismo globaletik hasi eta tokiko komunitateetara), «herritarrak zenbait logikaren bidez gizarteratzen dituen eta gizartearen gobernu eraginkorra oztopatzen ez duen maila anitzeko gobernantza eratzeke».

Beste esku-hartze bat izango litzateke demokraziaren balio nagusiak nazioz gaindiko beste erakunde-modu operatibo batzuetara eramaten saiatzea, edo esku hartzeko eremu jakinen inguruan sortzen diren sistema funtzionalak edo erregimen konplexuak, globalak zein azpiglobalak, demokratizatzea, sistema global osoa demokratizatu beharrean; izan ere, eremu batzuk beste batzuk baino errazago demokratiza daitezke, besteak beste. Testuinguru global eta globalizatu berrian, zeinetan bat egin eta elkarri eragiten dioten oso konplexuak diren sistemek (horien guztien ezagutza dira kontingentzia, bereizte funtzionala eta elkarrekiko mendekotasuna), demokrazia ez da amaitu hautesleen elkarreaginean, eta agertoki berrian (zeinetan esku-men-eremu asko estatuaren ardura demokratikoaren espaziotik aldentzen ari diren) printzipio demokratikoa bete nahi badugu, erabakiak hartzen dituztenen eta hartzaileen arteko lurralde-mailatik haragoko koherentzia baterantz aurrera egin baino ez dugu.

Abiapuntutzat hartzen badugu gaur egungo gizarte asko hierarkizatu ezin daitezkeen eta hiperegitura batekin bat egiten ez duten eta hartan eskuordetzen ez duten sistemen multzo bat direla, Innerarityk uste du XXI. mendeko bizikidetzako politiko-rako modu positiboan eraikitzen den oro *diferentzia aitortuaren* kontzeptupean eraikiko dela, eta inposizioa, mendekotasuna, bazterkeria eta aldebakartasuna ez direla bateragarriak izango gizarte demokratiko aurreratu batekin. Garai historiko bakoitzak bere gobernatzeko modua behar du, eta egungo gizarteak, gero eta globalizatuagoa eta konplexutasun-maila handikoa denak, gobernuko subjektuak eta gobernatzeko moduak berriz definitzea behar du. Hori dela eta, eta aintzat hartuta demokrazia ez dela aldazina eta konplexutasun (eta nazioz haraindikotasun) handiko inguru-neetan jarduten duen politikak ez duela aurkitu oraindik bere teoria demokratikoa, gure politologoak *demokrazia konplexuaren teoria* bat proposatzen du, uste baitu kontzeptu-esparru egokiena dela egungo gizartearen konplexutasunak berak eta elkarrekiko mendekotasunak eragindako eskakizun demokratikoak artikulatzeko. Horri esker, «testuinguruak gobernatzeko estrategiak egin eta “zeharkako demokrazia” dei genezakeenaren lurraldea esploratu ahalko da» (Innerarity, 2020: 57).

Planteamendu horrek honako hau aitortzea dakar, besteak beste: Estatu nazionala dagoeneko ez da politika eta demokrazia gauzatzeko eredu unibertsala eta erreferente bakarra; izan ere, politika eta demokrazia nazio-estatu ez diren beste formatu batzuen pean gauzatu daitezke. Nazio-estatu eredu historikoak ezin du agortu edo monopolizatu politikarekin eta demokraziarekin zerikusia duen oro, eta, horren ondorioz, halabeharrez, sormen eta esperimentalismo politiko eta demokratikoko agertoki berri batean kokatzen gaitu, zeina, gure ustez, ausardiaz, mailaz maila eta zorroztasunez onartu behar dugun. Baina horrek ez du esan nahi nazio-estatu ereduaren esperientzia, jakinduria, eta demokraziari —eta politikari— eman dion legatu handia albo batera utzi behar direnik. Legatu hori modu egokian baliatu, egokitu eta berrasmatu behar da.

Batik bat, gizartearen antolamendu politiko eta juridikoak ezaugarri dituen Estatuak azken katebegia da bata bestearen atzetik joan diren gizartearen politikoki antolatzeko moduen kate luzean, eta gizadiaren historia bizi izan dutenen giza elkar-tze- eta antolaketa-erregimenik unibertsalena, konplexuena eta perfektionatuena da. Gizartearen antolaketa politikoaren ereduari dagokionez, Estatuak aurrerapen eta hobekuntza ugari ekarri ditu, bai erakundearen ikuspegitik, bai gizakiaren duintasuna eta antolaketa-eredu horren ondoriozko eskubideak aitortu eta babestearen ikuspegitik. Berak eman dizkigu, besteak beste, erakundeak eta printzipio demokratikoak, oinarrizko eskubide eta askatasunak, garantia konstituzionalak, herritartasuna, espazio publikoa, sistema hertsatzailea, ingeniariaritzak eta erakundearen diseinua, botere-banaketa, administrazioaren antolaketa, antolaketa organikoa eta lurralde-antolaketa. Elementu, teknika politiko-administratiboak eta estatu-mailako erakundearen berezko ezaugarri horietako batzuk oso baliagarriak izan dakizkiguke Lurraren gobernu demokratikoaren sistema politikoa eta administratiboa eraikitzean eta artikulatzean.

4. Agertoki globaleko eta azpi-globaleko experimentalismo global horren adibide batzuk

Gure ustez, oso txalogarriak eta aintzat hartzekoak dira eredu demokratiko kosmopolita aurkitzeko ahalegin zintzo eta izugarri horren testuinguruan egindako hausnarketa eta proposamen horiek guztiak; ondorioz, irudikatzeko eta erabakiak hartzeko formula berri horiek maila globalean pentsatzen eta esperimendatzen (aplikatzen) hasi behar dugu, eta, horretarako, printzipio demokratikoaren funtsa ez desnaturalizatzeko beharrezkoak diren egokitzapenak eta doikuntzak egin behar dira. Ausartak izateko ordua da, eremu politikoan eta instituzionalean ekintzaile izateko, eta bestelako politika-, gobernu- eta demokrazia-ereduak asmatu eta proposatzeko ordua. Jarraian, hain zuzen ere, maila globalean zein azpiglobalean gertatzen ari diren saiakera eta proposamen demokratiko horien adierazpen batzuk azalduko ditugu; izan ere, horiek agerian uzten dute politika eta demokrazia nazio-estatutik harantz ere egon daitezkeela.

4.1. *Hasi berria den gizarte zibil globala: espazio publiko kosmopolitaren eramuina*

Lehenengo aldiz historian egiazta daiteke herritarren jarduera kolektiboak eragina izan dezakeela prozesu politikoetan, planeta-mailan. Hori planetaren kontzientzia gero eta handiagoaren ondorioa da, bai eta Lurrean zehar zabaltzen eta elkarri eragiten dioten erakunde, eragile eta sare multzo batek osatutako gizarte zibil global hasiberri baten sorrerarena ere. Gizarte global horrek nazioko mugak gainditzen ditu, eta elkarrekin bizitzeko eta espezie gisa ditugun erronkei modu solidarioan ekiteko borondatea eskatzen du.

1989an, Berlingo Harresia erortzen lagundu zuten iraultza guztiak gertatu ziren, bai eta Gerra Hotzaren amaiera ere; eta, data sinboliko hartaz geroztik, orokortu egin dira gizarte zibil globala deitzen dugunaren jardunbide mobilizatzaileak. 1999an, Seattle hirian (AEB), manifestazio ugari egin ziren *No Globalization without Representation* lelopean; 2003an, milioika herritar, *United for Peace and Justice* leloaren inguruan bilduta, Irakeko gerraren aurka azaldu ziren kontinente guztietan. Horri guztiari beste mobilizazio batzuk gehitu behar zaizkio, besteak beste: Munduko Gizarte Foroan eraturako mugimendu «altermundialistaren» arrakasta handi samarra, edo «arabiar udaberria» deiturikoa, zeinetan zenbait herrialde arabiarri (Tunisia, Egipto, Libia, Yemen, Siria) eragin zieten manifestazio eta protesta-mugimendu ugari gertatu baitziren. Mobilizazio horiek, zenbait kasutan, gobernu edo erregimen politiko batzuen erorketa eta uzkaileza eragin dituzte.

Teknologia berrien euskarria oso baliotsua da, eta, horren ondorioz, beste mobilizazio asko ere gertatzen dira mundu-mailan; horiek agerian uzten dute planetarekiko kontzientzia zibila gero eta handiagoa dela. Azken urteotan emakume langilearen eguna (martxoaren 8a) ospatzea mugimendu feministak nazioartean hartu duen

indarraren beste erakustaldi ukaczina izateaz gain, planeta-mailan mobilizatzeko eta aldarrikatze gero eta handiago eta hedakorragoa den ekintza kolektiboaren erakustaldia ere bada. Azkenaldian, planeta osoko milaka hiritako gazteek gero eta maizago eta intentsitate handiagoz egiten dituzte manifestazio jendetsuak, gobernuen ingurumen-krisiarekiko eta, bereziki, klima-larrialdiarekin eta -aldaketarekin zerikusia duen guztiarekiko geldotasunaren aurka protesta egiteko.

Mundu-mailako ekintza kolektibo horrek agerian utzi du planetako hiritarrak hasiak direla konturatzen mundu-mailako gizarteak, mobilizazioaren eta presioaren bidez, historiaren norakoa alda dezakeela, edo, are gehiago, kontrola dezakeela. Mundu-mailako ekintza kolektibo hori, gainera, hasi berria den gizarte zibil globalera iragatearen sinbolo da. Keanek (2008: 8) honela definitzen du: erakundeen, eragileen, sareen eta talde sozioekonomikoen gobernuz kanpoko sistema dinamikoa. Sistema horrek «Lur osoa hartzen du eta bere eragin bakezale eta “zibilak” txoko guztietan sentitzen dira, tokiko eremuetatik planeta osoraino».

Gizarte global horrek zenbait kultura, araudi eta kodetako eragile anitz hartzen ditu bere barnean; baina, era berean, nazio mugak gainditzen dituen «kontrabotere kosmopolita» irudikatzen duen *demos* baten hasierako artikulazioa adierazten du» (Beck, 2005). Halaber, espazio edo eremu publiko global horren ernamuina zein den adierazten du, maila globalean antolatutako diskurtsoaren, erantzunaren eta ekintzaren eremu instituzionalizatu gisa ulertuta. Eremu horrek nazioarteko gizartearen prozesuak legitimatzen ditu, eta «munduko komunitatearen interes eta ondasun publikoen babesaren partekatutako erantzukizuna gauzatzeko aukera» ematen du (Rodrigo, 2016: 39).

Mundu-mailako herritarren kontzientzia eta bulkada politiko hori oinarritzko aurrebaldintza da munduan sortzen ari den ordena soziala demokratizatzeko, gobernu globalaren sistema eratzeko eta «muga guztien gainetik», munduko herrialdeen esku-bide eta betebeharrak unibertsalak berriz definitzeko (Keane, 2008: 8). Gainera, gizarte zibil global horrek, berau osatzen duten eremu eta espazio publiko anitzen bidez, lagundu egiten du negozio ustelak argitara ematen, «agintean inor ez dagoelako» arazoari irtenbidea ematen, eta alternatibak daudela sinetsarazten. Horrez gain, hari esker, agenda publikoan hainbat gai agertzen dira, besteak beste ordezkari demokratikoa, kontu-ematea, legitimotasuna edo giza eskubideen errespetua.

Ekintza kolektibo globaleko prozesu horiek gero eta ohikoagoak eta orokortuagoak dira planeta osoan, eta sortzen ari den gizarte-klase berri hori izan dezakete alde, hain zuzen ere, sare sozialetan elkarri konektatuta dagoen eta aktiboa den gizarteak, muga eta banaketa geopolitiko edo identitarioak ulertzen ez dituen, Mason-ek (2016) «herritar jakintsu unibertsal» deitzen duena. Horiek hasten ari den mestizaje globalaren prozesua adierazten dute eta haren demostrazio ona dira, aldi berean; eta egoera horrek ere lagunduko dio planetaren kontzientziaren artikulazio mailakatuari. Trent-ek (2007) dioen bezala, gizarte zibil globala da, eta anarkiaren edozein konnotaziotatik at, gizarte horrek egin behar du lehen urratsa, bere gaitasun guztiak mugiarazi behar ditu, eta, bereziki, bere gain hartu behar du protagonis-

moa une erabakigarri honetan. Horretarako, gobernuak derrigortu eta behartu egin behar ditu jardun dezaten, eta planetari gobernu demokratikoko sistema bat ematera bideratutako erreforma-prozesu honetan guztian parte hartu behar du eta hura legitimatu.

4.2. Munduko Mugimendu Federalistaren *proposamenak*

Nazioartean ibilbide luzea eta presentzia handia duen Munduko Mugimendu Federalistak azken hamarkadetan arreta handia jarri dio gai horri, eta aintzat hartzeko modukoak dira horri buruz egindako azterlanak, txostenak eta proposamenak. Abiapuntutzat hartzen badugu demokrazia kosmopolita bat, hau da, planetako gobernu demokratiko bat ezartzeko denbora behar dela, ezin dela gauetik goizera ezarri eta, ziurrenik, etapaz etapa joan beharko dela, federalistek proposatzen dute Nazio Batuen Parlamentu Biltzar bat sortzea (UNPA). Honako hau da proposamen horren arrazoi nagusia: logika demokratiko hutsaren testuinguruan, parlamentua da erakunde zentrala eta nagusia berez, eta gobernu demokratikoko sistema orean oinarri izango den legitimotasun-iturria. Batzar hori izango da abiapuntua eta, aldi berean, etorkizuneko munduko gobernu demokratikoaren prozesu mailakatu horren motorra eta gidaria.

2007an egin zen proposamen hori eta, harrezkero, gizarte zibileko erakundee-tako, nazioeko eta nazioarteko parlamentuetako edo 150 herrialde baino gehiagotako alderdi politikoen sareetako pertsona edo erakunde askoren babesa du. Ildo horretan, azpimarratzekoak dira Europako Parlamentuak, Parlamentu Panafrikarrak, Latinoamerikako Parlamentuak, Internazional Sozialistak, Internazional Liberalak, Berdeen Mundu Biltzarrak eta abarrek proposamen horren alde emandako ebazpen garrantzitsuak³. Ebazpen horietan guztietan nabarmentzen da planetari planteatutako erronkekin bat datorren gobernantza-sistema bat emateko premia eta urgentzia, baina, aldi berean, printzipio eta prozedura demokratikoei uko egin gabe.

Bummelek (2017) diotenaren arabera, Nazio Batuen Parlamentu Biltzarra (UNPA), funtsean eta lehen fasean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak sortutako eta parlamentari nazionalek osatutako organo aholku-emaile subsidiario bat izan liteke. Haren botereak eta legitimazioa handitu egingo lirateke, apurka-apurka, denborak aurrera egin ahala, Europako Parlamentuarekin gertatu zen bezalaxe. Ildo horretan, gogora dezagun Europako Parlamentuak hainbat etapa behar izan zituela garatzeko: 1952an Batzar Bateratua sortu zen (hari zegokion estatu kideetako Herrialdeen zeharkako ordezkariak, herri bakoitzeko parlamentuek hautatutako ordezkarien bidez, eta aholku- eta kontrol-botereak zituen, baina ez legegintza-botereak), bost urte geroago Europako Parlamentua izatera igaro zen (eskumenak areagotu zitzaizkion, eta, bes-

³ Hemen eskuragarri: www.unpacampaign.org.

teak beste, bere gain hartu zuen Europako Komunitateen aurrekontuen kontrola), eta, azkenik, 1979an, kideak zuzenean hautatzea eta eskumenak nabarmen zabaltzea lortu zuen.

Gaur egun, Europako Parlamentua EBren organo legegilea da, Kontseiluarekin batera, eta, gainera, gero eta eragin handiagoa du Europar Batasunaren prozesu politiko osoan. Hari dagokio erakunde politiko demokratiko orotan garrantzi handiena duen eginkizun hori gauzatzea, besteak beste ordezkariak, kontrol eta legitimazio politikoa, bai eta aurrekontuarena eta kontsultaren ere, eta goi-karguak izendatzea. Bummelek dioten bezala, UNPAk Euroganberaren antzeko zeregina izango luke maila globalari dagokionez.

Euroganberaren adibidearekin jarraituz, eta talde federalistaren proposamenaren arabera, UNPAko kideak ez lirateke elkartuko beren jatorri nazionalaren irizpidearen arabera, baizik eta nazioz gairik gabeko taldeetan antolatuko lirateke, dauden orientazio politiko-ideologikoen arabera (kontserbadoreak, sozialistak, liberalak, berdeak, etab.). Bestalde, batzar hori nazioko parlamentarietara osatu behar da, eta aurrerago herritarrek beren hautatuko lituzkete zuzenean. Nazioko parlamentarien eskumenak ere apurka-apurka bereganatu beharko lirateke: informazio- eta kontsulta-zereginetatik hasi eta parlamentuak berezkoak dituen ordezkariak, legegintza- legitimazio- eta kontrol-zereginetaraino.

Ildo berean, adierazi behar da 2015ean, Nazio Batuen Erakundearen 70. urteurrean, *Commission on Global Security, Justice and Governance* batzordeak txosten bat argitaratu zuela, zeinetan 80 gomendio jaso zituen gobernantza globalak bizi duen krisi-egoera zuzendu eta arintzeko. Ondorio eta gomendio garrantzitsuenen artean honako hauek atera daitezke: Nazio Batuen sare parlamentarioa sortzeko beharra («a *UN parliamentary network*»), mundu osoan erakundearen gardentasuna eta ezagutza hobetzeaz gain, nazioko parlamentuek eta gizarte zibilak haren zereginetan parte-hartzeko aukera ere hobetuko lukeena. Hala, maila globalean erabakiak hartzean eragina izango lukeen nazioz gairik gabeko kultura demokratikoaren hasiera ahalbidetuko luke.

4.3. *Europar Batasunaren erreferentzia*

Aurreko erreferentziek agerian jartzen dutenez, maila globalean praktikatzeko demokrazia-formula egokia aurkitzeko zeregin zail honetan, antolaketa politikoko eredu eta esperientzia berrienak eta berritzaileenak (orain arte arrakasta handia izan dutenak) baliatu eta egokitu beharko genituzke. Horixe da, adibidez, Europar Batasunaren kasua, zeinetatik nazioz gairik gabeko sozietateen gobernagarritasunari buruzko ikaskuntza garrantzitsuak atera daitezkeen.

EB gaur egun eskualde-mailako integrazioari buruzko kasurik adierazgarrienetako bat da, eta esperientzia hori, bere ezaugarri eta lorpenengatik, erreferentetzat hartu behar da, kontinenteko edo maila azpiglobaleko eskualdekatze-prozesurako

ez ezik, baita mundu-mailako integrazio-prozesurako ere. EB estatuz gairako integrazio-kasu original eta berria da (bai metodoaren ikuspegitik, bai lortutako emaitzaren ikuspegitik); etengabe eboluzionatzen ari den eta proba- eta errore-prozesuen bidez eraikitako lana da; *polity* berria, herritzailea, ausarta eta garai berriekin eta gizateriaren bilakaerak markatzen duen norabidearekin bat datorrena; laborategi politiko bat, non eztabaida handiak izaten diren eta gobernagarritasun-eredu berriak aztertzen diren, zeinak agerian uzten duen nazio-estatu ereduak ez dituela agortzen gizartearen politika antolatzekeko moduak.

Gainera, EB gobernu-eredu konplexu eta pluriarkikoa da, erdigune bakarra ez duena; bertan, politika hierarkiatik heterarkiara igarotzen da, eta gobernatzea heterogeneotasuna kudeatzea da; gizarte plural eta konplexu baten eragile ordezkarien arteko hainbat eragileren arteko topaketa-, elkarrizketa- eta negoziazio-ageritoki handi bat; tolerantzia, giza eskubideen errespetua eta sortzen ari diren eragile berriak (eskualdeak, euroeskualdeak, gutxiengoak...) onartzeko gaitasuna izateko gune bat. Azken batean, Europa eraikitzekeko prozesuak kontinente zaharraren adiskidetzaren, herriz elkartzearen eta batasun federalaren ikuspegi hori irudikatuko du, zeinetan planetako beste inon baino odol gehiago isuri den metro koadroko.

Nazio-estatuaren sorrera-prozesuan aitzindaria den gaur egungo Europa berrikuspen-bidean dago, eta horregatik EBren esperimentu politikoak era guztietako kalifikatzaileak jaso ditzake: Estatu ondorengo gizartea, metanazioa, sistema post-modernoa (Cooper, 2005) edo maila anitzeko gobernantza-eredua (Morata, 2004). Ezaugarri horiek eman zaizkion Europa honek, bere gabeziak eta ahuleziak gorabehera, balio eta argudio erakusle oso indartsua eta pozgarria ematen du planetaren gobernu demokratikoaren proposamena oinarritzean: Estatutik harago badago bizitza, eta nagusi den estatismoa gairatu eta garai eta premia berriekin bat datozen antolaketa politiko demokratikoaren eredu berriak asma daitezke, era askotako zailtasunak gorabehera.

EB nazioz gairako antolaketa-integrazioaren eredu ukazina da, baina hobetu daitezke, eta, horretarako, gero eta gehiago hurbildu behar du antolaketa politiko demokratiko eta federal baten berezko parametroetara. Izan ere, beste faktore eta ezaugarri definitzaile batzuen artean, EBko erakunde bateratuek independentzia argia dute estatu kideekiko; erakunde horien arauak herri-subiranotasunak emandako zuzeneko edo zeharkako legitimazioan oinarritzen dira, eta lotesleak dira estatuentzat eta herritarrentzat; lotura zuzena dago EBko erakunde eta arauen eta Europar Batasun osoko herritarren artean; gainera, hainbat eremutan (gero eta gehiago dira) erabakiak gehiengoaren irizpideen arabera hartzen dira, eta ez aho batez; eta, azkenik, EBri eskumenak, eskusibo zein partekatuak, esplizituki eta zehazki esleitzen zaizkio.

Europako esperientziak, inolako zalantzarik gabe, planetari komeni zaion antolaketa politikoaren eredu berria eman diezaguke, arlo hauetan duen esperientzia berritzaile eta era askotako bidez: estatuz gairako integrazioa, estatu barruko deszentralizazioa, mugaz gairako lankidetzaren integrazioa, maila anitzeko gobernantza eta multilateralismoaren, ituntzearen, elkarrizketaren eta giza eskubideen errespe-

tuaren alde egin duen hautua. EB berrikuntza instituzionalaren, nazioz gaindiko irismena duten arauak sortu eta konstituzionalizatzearen, subiranotasun partekatua eta nazioz ondorengo *demos* bat eratzearen kasu praktikoa da, eta, hala izanik, EBk gobernantza demokratiko kosmopolitak zer norabidetan egin beharko duen aurrera adieraz diezaguke (Habermas, 2012). Eta horrela, azken batean, eta adiskidetze, integrazio eta berrikuntza politiko eta instituzionalaren testuinguru honetan, Europa honek nola gida dezakeen benetan XXI. mendea (Leonard, 2006).

Neurri handi batean, EB maila anitzeko gobernantzaren parametroen eta logiken arabera funtzionatzen ari da, honako ezaugarri hauek dituela: gobernatzeko modu soziopolitiko interaktiboak; prozesu politiko oso konplexu eta labirintikoa (horren adierazgarri ageriak dira Batasuneko erakunde nagusietako kontsultarako batzorde eta lantalde kontaezinak); inplikaturako hainbat mailatako eta eratako eragileak, publikoak zein pribatuak, beren ahaleginak eta baliabideak (ezagutza bidezkoak, teknikoak, finantzarioak, mediatikoak, instituzionalak...) partekatzen dituztenak arazoak funtzionalki ebazteko eta estatuz gaindiko eremu berri honetan aurrerak sortzeko. Gainera, prozedura horrek erabakiak hartzeko garaian zenbait oreka-, pisu- eta kontrapisu-mekanismo egotea ahalbidetzen du, bere izaeragatik.

Gobernantzaren ideia, harreman-gobernua den heinean, sarearen kontzeptuari ere lotuta dago, eta sarean elkarren artean harremanetan dauden zenbait eragilek osatutako agertoki bat erakusten digu; eragile horiek egitura sarekarak eratzen dituzte politika jakin batzuk negoziatzeko eta haietan eta haien ezarpenean konpromisoa hartzeko. Sareak esan nahi du hainbat eragilek, erakunde eta interes ugari ordezkatzeko. Sareak esan nahi du hainbat eragilek, erakunde eta interes ugari ordezkatzeko dituztenek, elkarri eragiten diotela, bitartekotza egiten dutela eta informazioa eta baliabideak partekatzen dituztela, eta hala, tartean dauden alderdien arteko hurbilketa (adiskidetzea, batzuetan), negoziazioa eta konpromisoa ahalbidetzen dute. Europako eremuari dagokionez, hainbat eta hainbat interes, talde eta erakunde publiko zein pribatu ordezkatzeko dituzten sare anitz eta zabalaren ugaritzea errealitate sendoa da dagoeneko, eta Brusela da, Europar Batasunaren hiriburua, eratzen ari den sare erraldoi horren erdigunea eta leku aglutinatzailea (Morata, 2004).

Ehunka erakundek Bruselan dute beren ordezkariak, eta beren asmoa da, batetik, Europar Batasuneko erakunde erabakitzaile gorenekin harremanetan jartzea eta haien aurrean beren interesak defendatzea, eta, bestetik, beren artean harremanak izatea eta elkarri eragitea, horrela helburuak lortzea ahalbidetzeko. Batzordea, Euroganbera eta Kontseilua, politikaren zereginari uko egin gabe, eragile publiko eta pribatu interesatuak inplikatzeko saiatzen dira, eta, horretarako, parte-hartzeko eta kontsultak egiteko erakundeak eta mekanismoak sustatu eta bultzatzen dituzte, besteak beste, komitologia zabal horren, foroen eta kontsultarako organoen bidez. Hala, posible egiten dituzte kogobernantza hori, gobernantza ireki hori, parte-hartzeko demokrazia hori, zeinak honako hauek ahalbidetzen dituen: baliabideak, informazioa, ezagutzak eta ikuspuntuak partekatzea eta, are garrantzitsuagoa dena, zenbait politika negoziatzea eta haien ezarpenean konpromisoa eta erantzunkidetasuna hartzea.

Gobernantzaren praktikak, Europako agertokian, eredu nagusiki lineal eta bertikal bat ordezte ahalbidetzen du. Ereduek horrek politikak goitik edo erdigune hierarkiko batetik erabakitzen ditu, nolabaiteko zirkulu bertutetsu batek, parte-hartze anitz eta maila anitzekoan, konprometitutako eragile eta sareen arteko negoziatzioan eta elkarrekintzan oinarrituta, eta politikak formulatzen direnetik ezarri eta ondoren ebaluatu arteko prozesu osoan zehar. Laburbilduz, hirurogeita hamar urte hauetan lortutako esperientziak eta emaitzek agerian uzten dute Europa erakitzeke metodo bereziak bere bideragarritasuna eta eraginkortasuna frogatu dituela nazioz gaindiko integrazioan. Hori dela eta, Europako bidea hurbiletik jarraitzea, agertoki globalean behar diren hobekuntza eta egokitzapenak eginda, aukera gomendagarria izan liteke gure Lur planetari gobernu demokratikoa emateko lan erraldoi eta laudagarri honetan.

5. Ondorioak

Aintzat hartuta gaur egun baldintza objektibo horiek betetzen direla, eskala globalean politikaren arloa eta praktika sortu eta ezartzeko, eta, aldi berean, politika global horrek ez dituela alde batera utzi behar konkista nagusiak eta ezaugarriak bereizgarriak, adibidez, dimentsio demokratikoa, azterlan honetan saiatu gara eredu demokratiko kosmopolita aurkitzeke erronkari buruzko auzia planteatzen. Bestalde, maila globalean zer demokrazia praktikatu daitekeen galderari erantzuteko, hainbat ideia, proposamen eta esperientzia aztertu dira (besteak beste, demokrazia konplexua, maila anitzeko gobernantza, ordezkartza-, partaidetza- eta eztabaida-demokrazia), eta horiek, oro har, baliagarriak izan daitezke eredu demokratiko kosmopolita bat aurkitzeke erronka laudagarri eta erraldoi honetan. Ereduek premisa kardinal eta ukaezin honetan egon behar du oinarrituta: gobernuak, erakundeak eta botere politikoeak, oro har, gobernatuen akordioan, baimenean eta konfiantzan oinarritu behar dute, eta inoiz ez indarrean, derrigortzean, inposizioan edo usurpazio zapaltzailean.

I. atala

**Neoliberalismoak demokrazian
duen eraginaz**

Merkatua, kapitala eta herritarren parte-hartzea: neoliberalismoaren eragina demokratizazio-prozesuetan

Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena. Mendebaldeko demokrazia deritzenetan *parte-hartzearen aldaketa globala* gertatzen ari dela oinarri hartuta, kapitulu honen helburua da Espainian hartzen duen forma berezia ezagutzea. Horretarako, 1978-2017 urteen arteko herritarren parte-hartzearen instituzionalizazioaren azterketa genetikoak egiten da. Azterketa horretatik ondorioztatzen da joera neoliberal bat dagoela parte-hartzearen aldaketa ezartzeko. Testuan, parte-hartzearen aldaketa neoliberalaren diagnostikoa osatzen duten hiru mugimendu zirriborrazten dira: 1) Demokraziaren krisiaren *topos* bat naturalizatzea, izaera mekanizista duena; 2) parte-hartzearen burokratizazio neoliberala eta 3) parte-hartzearen merkantilizazio pribatiboa. Hiru mugimendu horien ildo nagusiak azaltzen dira, eta bereziki horietako hirugarrenaren azterketan sakontzen da, hots, herritarren parte-hartzearen merkantilizazio neoliberalcan.

1. Sarrera

Itxuraz, ekintza publikoan parte-hartzea eta/edo eztabaidatzea ez da inoiz izan gaur egun bezain erraza, XXI. mendeko bigarren hamarkadan gauden honetan. Partaidetza-produktuen inflazioak badirudi bilatu nahi duela herritarrek beren proposamenak eta ideiak gai publikoen definizioan integratzea. Alabaina, testu honetan planteatzen dugu itxurazko errealitate baten aurrean egon gaitzkeela, eta baietz erantzuten diogu, ñabardurekin, baina, Baiocchi eta Ganuzaren galderari (2017: 7): «Participation is the buzzword of the neoliberal era?». «Parte-hartzea al da aro neoliberalerako modako hitza?»

Kapitulu honetan adierazten dugu Espainian parte-hartzearen aldaketa neoliberal (PBN) gertatzen ari dela 2010az geroztik. Une horretatik aurrera, herritarren parte-hartzeari buruzko lege-testuak ugaritzearekin batera, administrazio publikoetan parte-hartzea esternalizatzeko prozedura zabaldu da (Martínez-Palacios, 2019).

Horrela, PBN errealitate bat laburbiltzen duen diagnostiko bat da: baldin eta parte-hartzearen arloko ahalegin publikoetan izaera neoenpresarialeko kode pribatuak sartzen badira, ahaleginok, iragartzen dutenaren kontra, azkenean, herritarren interesik eza eta ezjakintasun politikoa antolatzerara bideratzen dira. Beste era batera esanda, parte-hartzea erabiltzen da politika publikoarekiko axolagabekeriaren politika naturalizatzeko. Diagnostiko horren oinarria da (ikus hirugarren atala) Espainiako 1978-2017 urteen arteko parte-hartzearen arloko *ekintza publikoaren* instituzionalizazioari buruzko azterlana, ikuspegi genetiko batetik egina¹. Ekintza publikoaren soziologiaren arabera, ekintza publikoa aztertzeak ezinbestean behartzen du «eraikitako espazio soziopolitikoaren aztertzera, bai tekniken eta tresnen arabera, bai hainbat eragileren helburuen, edukien eta proiektuen arabera» (Lascoumes eta Le Galès, 2005: 12).

XXI. mendeko lehen hamarkada hastearekin batera, hainbat kontzepturi buruzko gogoeta hasi zen, hala nola parte-hartzearen «industria», «ingeniaritza», «merkatua» edo «enpresa» gisakoei buruzkoa (Nonjon, 2005; Lee, 2015; Baiocchi eta Ganuza, 2017). Termino horiek zenbait ustekabeko ondorio deskribatzen dituzte, alegia, parte-hartzearen dinamikak *eremu sozial*² guztietan orokortzeak dakartzan ondorioak, zeinak parte-hartzearen diskurtsoa eta dinamika eremu ekonomiko, mediatiko, administratibo, burokratiko edo politikoan txertatzearen ondoriozkoak baitira. Horrek demokrazia parte-hartzailearen arloko analisiaren lan-eremua zabaltzen du. Orain arte, azterlanen xedea zen neurriak eta esperientziak dokumentatzea, edo parte-hartzearen baldintza materialak eta politikoak eta horien ondorioak aztertzea; baina praktika parte-hartzailea orokortzearekin batera, problematika berriak sartzen dira lan-eremuan, hala nola parte-hartzearen profesionalizazioa (Nonjon, 2005), demokratizazioaren estandarizazioa (Lee, 2015), edo merkatu-irizpideak sartzea parte-hartzearen kudeaketa publikoan (Hendriks eta Carcson), besteak beste. Problematika horiek parte-hartzearen industriaren sorrera dokumentatzen dute, nazioartekotze-praktika eta -dinamika berriekin. Hortik aurrera, hainbat termino erabiliko dira parte-hartzearen ingeniari-tza globalari lotutako problematikak biltzeko: «Participatory turn» (Bherer *et al.*, 2017), «Tournat participatif» (Mazeaud eta Nonjon, 2018) edo «partizipative wende» (Hüller, 2010).

Parte-hartzearen aldaketa globala (partaidetza-praktiken orokortze gisa ulertua eta, aldi berean, parte-hartzeari lotutako industria, ingeniari-tza eta are merkatua ere egon badaudela egiaztatzen duena) eremu akademikoan gero eta gehiago dokumentatzen den fenomeno multieskalarra da (Ganuza eta Fernández, 2012; Mazeaud, eta Nonjon, 2018; Bherer *et al.*, 2017; Baiocchi eta Ganuza, 2017), eta une zein testuin-

¹ Jone Martínez Palacio irakasleak egin du ikerketa hau, 2016-2019 artean: TUC8/1-D00110-11 Unibertsitateko Irakasle Titularren Kidegora sartzeko lehiaketara aurkeztutako ikerketa-ariketa da.

² Testuan, Bourdieu-ren *eremu* nozioari egiten diogu erreferentzia: eragile sozialek ondasun arraroak —kapitela adierazten den askotariko moduak— lortzeko eta metatzeko borroka egiten duten espazio soziala. (Bourdieu, 1966; 1999; 2013, besteak beste).

guru bakoitzeko aukera historikoen, materialen eta sinbolikoen baldintza nahiz horien logiken inguruan egituratzen da. Zehazki, aldaketak ez du forma bera Frantzian, bertako tradizio parte-hartzaile errepublikarrak partaidetza-produktuak baldintzatzen baititu (Mazeaud eta Nonjon, 2018). Espainian, aldiz, «kontseiluen demokrazia» (Ganuza, 2010) gailentzen da, zeina Espainiako kultura politikoaren praktika klientelarretan oinarritutako erabakitzeko lehentasunari lotzen baitzaio (Ramió, 2016). Horregatik, beharrezkoa da aldaketa hori dokumentatzea, bai modu partikularrean, bai modu kolektiboan, hartara barne-dinamikak (tokikoak, nazionalak, estatu-mailakoak, etab.) zein kanpo-dinamikak (nazioartekoak) ulertzeko, eta, batez ere, haien arteko gurutzaketak ulertzeko, horiexek azaltzen baitituzte haien mugimenduak.

Aurkezten dugun lanak aldaketaren ondorioak dokumentatu eta aztertu nahi ditu. Horretarako, parte-hartzearen instituzionalizazioa izanik parte-hartzearen aldaketaren elementu komunitario bat 2016tik 2019ra bitartean leku guztietan, Espainiako partaidetza-ekintza publikoaren instituzionalizazioa aztertzeko, 1978-2017 bitarteko epealdia hartu dugu. Aztertutako materialak (ikus 1. taula) baieztatzen du Espainiako aldaketak izaera neoliberala hartu duela.

Jakin badakigu termino neoliberala erabiltzen ari garela noiz eta beraren izaera esplikatzailea inoiz baino politizatuagoa eta kuestionatuagoa dagoenean (Slobo-dian, 2018). Neoliberalismoak askotariko proiektu eta eskolak hartzen ditu (Ahedo eta Telleria, 2020); ondorioz, kontzeptua kategoria abstraktuegia da batzuetan, eta behin eta berriz erabiltzen da sistema kapitalistetan ekintza publikoak etapa jakin batean jarduten duen modua izendatzeko.

Testu honetan, teoria kritikoaren azterketetan oinarritzen gara finantzarizatu-tako kapitalismoaren funtzionamendu-logika hori pentsatzeko. Ikuspegi horretatik, neoliberalismoaz hitz egiteak esan nahi du, nahitaez, kapitalismora jotzea beraren ulermen teleologikoa saihestuz. Horretarako, tesi marxianoak oinarri hartuta, eta Harvey (2014), Hibou (2012), Nancy Fraser eta Rachel Jaeggi (2019: 32) edota Wendy Brown-en (2015) gaiari buruzko irakurketek lagunduta, kapitalismoa modu honetan karakterizatzea interesatzen zaigu: «metatze-erregimenen sekuentzia bideratu bat, historian diakronikoki hedatzen dena» (Fraser eta Jaeggi: 2019). Kapitalismo finantzarizatuaren ezaugarri nagusia da logika neoliberal duela, eta, beraz, «kapital finantzarioari baimena ematen diola estatua eta publikoa diziplinatzen inbertitzaile pribatuen berehalako interesen mesedetan» (Fraser eta Jaeggi 2019: 84), eta, gainera, «zuzenbidearen indarra erabiliz» egiten duela hori, beti ere gauzen egoera mantentzeko (Slovdian, 2019).

Ildo horretan, Brown-i jarraikiz (2015), proiektu neoliberalaren xedea da demokratizazio-prozesuak desegitea eta ekintza publikoa komertzializatzea, haien lekuan merkatuak eta moralak ezarri (2015: 108), eta, legearen eta eguneroko bizitzaren monetarizazioaren bidez, *habitusaren habitus*-aren pisua lausotuz eta *ethos*arena indartuz. Bereziki, Hibou-ri (2012) jarraituz, honako honek ezaugarritzen du neoliberalismoa: erregimen juridikoak areagotzea arau-testuen kopurua ugartuz, eta ikuspegi ordoliberalak onartzea, zeinak merkatua defendatzeko sare ezeztazekin bat sortu

nahi baitu edozein interferentziaren aurrean (Ahedo eta Telleria, 2020), aldi berean, enpresa-eragileei irekitzeko ekintza publikoaren arauci buruzko erabakiak hartzeko prozesua. Horren guztiaren ondorioa, azkenean, izaera moraleko arau-artikulazio bat da, zeina «indibidualtasunaren fantasian» (2012) sartzen den subjektu baten jarrekerik zirriborrotzen baitute (Boltansky eta Chiapello, 2002). Kapitalismoaren espiriturik berria (Boltansky eta Chiapello, 2002), merkataritza-logika egunerokotasunean lurreratzen da, eta naturalizat hartzen dira desberdintasunak, lehia eta agresibitatea, merkaturaren administrazioaren eraginkortasuna bermatzeko mekanismo prozesatzaile gisa definitzen den neurri berean (Mirowski, 2014). Azken buruan, neoliberalismoaren gakoak da nola kokatzen duen arlo politikoa: alde batetik, lehia askerako eta jabetza pribaturako berme instituzional zein legal hertsia ezartzera bideratzen du, eta, bestetik, bizitzaren gainean merkaturaren logika lehiakorrek eta indibidualistak txertatzen ditu (Ahedo eta Telleria, 2020). Horrela, egokiagoa da neoliberalismoa «gobernu-arte» gisa interpretatzea (Colmenero, 2019) ideologia indibidualista edo estatua murrizteko programa gisa baino. Azken finean, Hayek-en utopia (Vergara, 2005) Margareth Thatcher-en baieztapenean zehazten da: bere helburua «arimak konkistatzea da».

Hala, egindako azterketa enpirikoaren ondoren, artikulu honetan defendatzen dugu hiru mugimenduk ezaugarritzen dutela Espainiako parte-hartzearen aldatzea neoliberal, zeinari esker sartzen baita enpresa pribatua —interes pribatuak dituen— estatuaren erabakimenean, Parte-hartzeko neurrien bidez, eta zeinaren ondorioz pobretzen baita demokrazia. Honako hauek dira hiru mugimenduak: 1) demokraziaren krisiaren *topos* bat naturalizatzea, konpainia pribatuek bere egiten dutena eta partaidetza-produktuak saltzeko erabiltzen dutena esternalizazioaren moduko formulen bidez; 2) parte-hartzearen burokratizazio neoliberal, kudeaketa publiko berriaren balioak bideratzen dituen, zeina, oro har, enpresa pribatuen esku uzten baita; eta 3) parte-hartzearen merkantilizazio pribatiboa, zeinaren ondorioz parte-hartzea produktu merkaturagarria bihurtu baita, bideratzen dena kapitala bere edozein formatan (*cf.* ekonomikoa, soziala, kulturala, sinbolikoa) metatzera.

Testu honen helburu nagusia ez da PBNren tesi osoa zehatz-mehatz garatzea, baizik eta haren mugimenduetako bat aztertzea, hirugarrena, hain zuzen, artikuluari izenburua ematen diona. Hala ere, garrantzitsua iruditzen zaigu hiru mugimenduak erlazioatuko dituen gutxieneko kartografia bat aurkeztea.

Horregatik, kapitulua bost ataletan banatzen da. Kokatzeko balio digun sarrera honen ondoren, bigarren atalean, metodologikoan, analisiaren ikuspegi genetikoa zertan datzan azaltzen dugu, eta hiru mugimenduak definitzeko erabili dugun material enpirikoa azaltzen dugu. Hirugarren atalean, PBNren diagnostikoaren karakterizazio globala eskaintzen dugu. Lehenengo eta bigarren mugimenduak aurkezten ditugu, labur-labur, hartara, aurrerago, herritarren parte-hartzearen merkantilizazioarekin duten lotura ulertzeko. Laugarren atalean, hainbat arrazoiengatik —bizitza publikoaren eta politikoaren merkantilizazioari buruzko eztabaidaren gaurkotasanagatik (Brown, 2015), merkaturaren eta parte-hartzearen arteko harremanari

buruzko lanak ugaritzeagatik (Mazeaud eta Nonjon, 2018) eta Espainiako autonomia-erkidegoetan dagoen araugintza-testuinguruagatik—, parte-hartzearen ekintza publikoaren merkantilizazioak dituen aukerak eta arriskuak aztertzen ditugu. Azken atalean, lanaren ideia nagusiei heltzen diegu berriro, eta ikertzen jarraitzeko ideia batzuk eskaintzen ditugu.

2. Herritarren parte-hartzearen instituzionalizazioa aztertzea Espainian (1978-2017). Metodologia eta material enpirikoa

Espainiako parte-hartzearen aldaketa zer zentzutan gertatu den ezagutzeko, 1978-tik 2017ra bitarteko parte-hartzearen instituzionalizazioa aztertu genuen. Horretarako, parte-hartzearen arloko ekintza publikoa ikuspegi estrukturalista genetiko batetik aztertu genuen, Bourdieu-ren lanean oinarrituta (1993, 2014, besteak beste), eta eragileen arteko botere-harremanak nola sortzen diren aztertu genuen, eremuko logikak aztertuz. Horren ondorioz, ikuspegi soziohistoriko batekin aztertu behar dira bai parte-hartzeko zerbitzuak ekoizten dituzten eragileen posizio soziala, bai eremu politikoan eskaintzen diren herritarren partaidetzarako edukien sorrera eta produktuen izaera.

Horrela, naturalizatuta agertzen denaren sorrera ikertzen dugu (I. taulako partaidetza-produktuak), ekoizpen-prozesua aztertuz. Hala identifikatzen dugu diskurtsoak, lege-dokumentuak eta parte-hartzeko neurriak sortzen dituzten eragileen posizioa, eta, halaber, eragile horiek botere-eremu globalean (politikoa, ekonomikoa, etab.) duten harremana, bai eta ekoizpen-prozesuan eragile horien artean gertatutako elkarrekintzak eta botere-harremanak ere.

Ikuspegi genetiko horren arabera, zer gertatzen den ezagutzeko, eremu baten (parte-hartzearen) konposizioa aztertzeaz gain, beharrezkoa da mugimenduari jatorritik erreparatzea.

Jada aipatu dugu parte-hartzearen aldaketaren ezaugarri nagusia partaidetza-produktuen inflazioa dela. Horiek guztiak aztertzea ezinezkoa denez, instituzioak sortzeko eta mantentzeko zeregina duten tresna politiko nagusiak hautatu ditugu lan honetan, Lawrence-k eta Suddaby-k (2006) lan instituzionalari buruzko azterlanetan erabilitako irizpideen arabera: legeak, estatuaren diskurtsoak, aholkularitza-dokumentuak, teorizazioa, errutinizazioa, sustapena eta instituzioen mimetismoa ahalbidetzen duten kategorien eta produktuen definizioa. Lagin horretan, honako hauek jaso ditugu: parte-hartzearen mugarri diskurtsiboak nahiz juridikoak eta hura ezartzeko jardunbideak (adituei —eragile akademikoak, partaidetza-teknikariak eta partaidetza-aholkulariak— egindako kontsultetatik lortutakoak), Espainiako partaidetzaren araubide juridikoa osatzen duen dokumentazio arauemailea eta, halaber, Espainian partaidetza-zerbitzuak ematen dituzten agentzia nagusien eskaintzak.

I. TAULA

Aztertutako material enpirikoaren laburpena

<p>Parte-hartzeari buruzko diskurtsoari dagozkion partaidetza-produktuak (parte-hartzeari dagokionez ESATEN dena).</p>
<p>129 diskurtso HPri buruz Gorte Orokorretako Behe Ganberan, 1978-2017 bitartean.</p> <p>14 inbestidura-hitzaldi, gobernu-presidentetza hartzekoak, 1978-2017 bitartean eginak.</p>
<p>Parte-hartzearen erregulazio, normalizazio eta estandarizazioari lotutako partaidetza-produktuak (parte-hartzeari dagokionez ARAUTZEN dena).</p>
<p>76 testu parte-hartzeari buruzkoak.</p> <p>72 gida eta eskuliburu parte-hartzeari buruzkoak, Espainiako erakundeek editatuak eta sortuak, partaidetza-prozesuak nola gauzatu behar diren adierazten dutenak.</p>
<p>Inplementatutako partaidetza-produktuak (parte-hartzeari dagokionez GAUZATZEN dena).</p>
<p>67 prestakuntza-programa, Espainiako udalerrien 19 federazioen babesean proposatutakoak.</p> <p>12 deialdi enplegu publikorako, PAT izateko.</p> <p>9 monografia, partaidetza-politikan erreferente diren udalerrietako PAT lanpostuenak.</p> <p>Espainiako 96 aholkularitza eta ikerketa-talderen web-orriak, zerbitzu-kartak eta memoriak, partaidetzaren arlokoak (erakunde publikoei partaidetza-arloan zerbitzuak eskaintzen dizkieten aholkularitza eta ikerketa-taldeenak).</p> <p>Partaidetzako 8 master akademikoren programak, Espainiako estatukoak.</p> <p>Zientzia Politikoetako eta Soziologiako 22 kongresu-programa, Espainian egindakoak. Diziplina horiek jorratzen dituzte, arlo akademikoan, parte-hartzeari buruzko jarduera intelektual gehienak.</p>

Iturria: Martínez-Palacios, 2019. PAT: parte-hartze agente teknikaria. HP: herritarren parte-hartzea.

Laburbilduz, ikuspegi genetikoarekin, produktu horiei modu sistematizatuan «hitz eginarazten» diegu (Martínez-Palacios, 2019: eranskin metodologikoak) haien antolaketan esku hartzen duten ikuspegi- eta banaketa-printzipioei buruz...

PBNren diagnostikoa, hurrengo atalean aurkezten duguna, I. taulako produktu publikoen azterketaren emaitza da. Lehenengo mugimendua identifikatzeko, parte-hartzearen diskurtsoa aztertu da; bigarren mugimendurako, partaidetzari buruzko testu juridiko, gida eta eskuliburuak; eta merkantilizazio pribatiboa identifikatzeko, berriz, prozedura parte-hartzaileetan inplementatutako produktuak aztertu dira (ikus laugarren atala).

3. Parte-hartzearen aldaketa neoliberala

Espainiako aldaketa neoliberalaren lehen mugimenduak zerikusia du demokraziaren krisiaren *topos*aren ekoizpenarekin eta naturalizazioarekin, zeinak munduaren ikuspegi sistemikoa txertatzen baitu. Ikuspegi horren arabera, konponbide mediko gisara aurkezten eta ulertzen da parte-hartzea (parte-hartzea terapia gisa). Lehen mugimendu horrek demokraziaren krisiaren diskurtsoa erabiltzen du, modu honetan: «leku komuna, zeinarekin eztabaidatzen den, baina zeinari buruz ez den eztabaidatzen»; alegia, *topos* gisa (Bourdieu eta Wacquant, 1998: 109).

Horrela, alde batetik, politikaren eta ekonomiaren eremuan ezarritako krisiaren *topos*-ak aukera ematen die beren produktuak saltzeko orain arte demokrazia parte-hartzailean interesik izan ez duten ekonomia- eta enpresa-eragilei (*v.g.* telefonía-enpresa pribatuei edo parte-hartzearen arloan espezializatu gabeko aholkularitzei), halako moldez non, aipatutako ikuspegi neoliberalan, korporazio ekonomikoek interes ekonomiko pribatuen logikan oinarrituz birformulatzen baitute demokratizazioa (Brown, 2015).

Argigarri gisa, Espainiako Sctyl *spin-off*aren adibidea nabarmentzen dugu. Hauteskundeen modernizazioan espezializatutako enpresa hori Telefónica S.A.-rekin elkartu zen 2016an, eta sozietate mugatu bat sortu zuten, Open Séneca filiala, zeinak baduen «plataforma» bat aholkularitza gisa diharduena, «Civicití: herritarren parte-hartzean adituak». Civicití hainbat udaletan dihardu «partaidetza-prozesuko» zerbitzuak ematen eta lanak egiten, hala nola Logroño, Narón, Granollers; beste batzuetan, berriz, aurrekontu parte-hartzaileak kudeatzen ditu, adibidez, Lloret de Marren edo Lleidan.

«Sctyl hauteskunde modernizazioaren merkatuko lider globala bihurtu da, eta orain gauza bera egiteko aukera ikusten dugu demokrazia parte-hartzailearen esparruan; gure ustez, merkatu hori nahikoa heldua da irtenbide berrietarako». (Pere Vallèsen adierazpenak, Scytlen kontseilari delegatua, economista.es, 2016/02/24)

Aurkezpen hartan bertan, Telefónica Open Future-ko zuzendari orokorrak krisiaren diskurtsoa erabili zuen bere produktua saltzeko, honako hau adierazi zuenean:

«Gaur egun, gobernuak herritarrekin duten komunikazioa lau urtean behin gertatzen den hauteskunde-prozesura mugatzen da gehienetan, eta hori

ez da nahikoa herritarren belaunaldi berrientzat, beren egunerokotasunean eragina duten erabakietan entzutea eskatzen baitute eta politikariekin elkar-eraginean aritzeko aukera ematen dieten tresnak eskatzen baitituzte». (Ana Segurado, Telefónica Open Future-ko zuzendari orokorra, economista.es, 2016/02/24)

Demokraziaren krisiaren esparruak enpresa-eragilei sarrera emateaz gain, demokratizazioa abian jartzeari buruzko sekuentzia zirkular bat ere naturalizatzen da, parte-hartzea medikalizatzea ahalbidentzen duena. Ez dira eztabaidatzen ez krisi horren edukia, ez jatorria; gauza bakarra aipatzen da, alegia, «demokraziaren, eragin-kortasun demokratikoaren, herritarren konfiantzaren eta abarren krisia», eta, horren aurrean, beharrezkoa da parte-hartzeko neurriak hartzea, eta, hori guztia, ordezkari-tza-sistema eta alderdi politikoen lana arriskuan jarri gabe. Izan ere, parte-hartzea proposatzen dutenek (alderdi politikoei eta enpresei) beren existentzia bera bermatzen duen mugara arte onartzen dute parte-hartzea, eta, ondorioz, «partaidetza-norabide» bat sortzen dute (Navarro, 1999).

Krisiaren nozio sistemiko horren ondorioz, parte-hartzeko eskaintza instituzional bat hedatzen da: emaitza da erabakitze eta parte-hartzeko neurriak sakabanatzea, elkarren artean lotura txikia dutenak, baina erabakietan esku-hartzeko aukeraren itxura sortzen dutenak. Sakabanatze hori koherentea izan dadin, neurriak «sistema» baten (parte-hartze instituzionaleko sistema) edo «erregimen komun» baten (parte-hartze instituzionaleko erregimena) itxurapean aurkezten dira. Bi ideiak (sistema eta erregimena) funtzionalak dira demokraziaren krisiaren *topos* mekaniztari lotzen zaion munduaren ikuspegi sistemiko baterako, eta, aldi berean, neoliberalismoak erabiltzen duen normatibizazioarekin bat datoz, zeinak laguntzen baitu mantentzen maila globaleko kapitala metatzen duten eragileentzako gauzen egoera abantailatsua (Brown, 2015; Slovodian, 2018; Fraser eta Jaeggi, 2019).

Bigarren mugimenduak zerikusia du parte-hartzearen burokratizazio neoliberalarekin. Hori ezinbestekoa da aldaketa neoliberallean axolagabekeria nola antolatzen duten ulertzeko. Espainian, partaidetzarako ekintza publikoaren zati gehiena arau-proiektuen bidez bideratu da (legeak, erregelamenduak, eta abar) (Navarro, 1999; Ganuza, 2010), eta ikusi dugu arrazionalizazio burokratiko berri baten zazpi praktikatari gorpuzten direla. Horiek corpus moralen normalizazioan gorpuzten dira, eta ondorioz gertatzen den fenomenoan, alegia, burokrazia maila intimora sartzen dela: biak ala biak arlo publikoa kudeatzeko logika neoliberalaren ezaugarri dira (Hibou, 2012). Brown-i jarraikiz (2015: 151), enpresa pribatuei aplikatutako arrazionaltasun neoliberalak zabaltzeko neurri bihurtzen da sare juridikoa. Zehazki, arrazionalizazio burokratiko berri baten zazpi praktika zehatz zabaltzen ditu: 1) parte-hartzea ulertzeko modu uniboko bat estandarizatzeko joeran sakontzea; 2) arrazionalizazioa jotzen duten bideratze-formuletan sakontzea; 3) prozedimentalizazio juridikoa; 4) parte-hartzea abstrakzionatzeko eta objektibizatze formulak integratzea eta naturalizatzea; 5) praktika parte-hartzailea indibidualizatzea eta logika komunitarioa

haustea; 6) corpus moralak normalizatzea; eta 7) parte-hartzearen profesionalizazio elitista.

Espainian parte-hartzearen aldaketari izaera neoliberala ematen dion hirugarren mugimenduak zerikusia du partaidetzaren ekintza publikoaren merkantilizazioarekin eta pribatizazio progresiboarekin. Hori hala da, neurri batean, desburokratizazio administratiborako borondatea dagoelako eta kudeaketa publiko berria gailendu delako, zeinaren emaitza baita eduki moralizatzaile handiko sare juridiko berri bat (Brown, 2015). Espainian, demokraziaren eta burokraziaren krisiaren diskurtsoak herritarren parte-hartzearen beharra ikusarazi du, eta horren aurrean erakundeek egiten duten parte-hartzeko eskaintzan argi ikusten da, XXI. mendeko lehen hamarkadatik aurrera, kudeaketa metatzaile bat, onura politiko eta ekonomikora bideratuta dagoena, baita lehiakortasuna indartzeko neurrien areagotzea ere. Une honetan, esan dezakegu badaudela «parte-hartzearen merkatu sozial» bat eta «parte-hartzearen merkatu neoliberal» bat (Martínez-Palacios, 2019). Lehena, bidezko merkataritzaren printzipioek gidatzen dute; bigarrena, ideia batean oinarritzen da, alegia, aberasteko ondasun gisa sal daitekeela parte-hartzea, eta saldu egin behar dela. Hala, mugimendu horrek ekarritako aldaketaren ezaugarri nagusia da parte-hartzearen artisautzua herritarren partaidetzaren industria bihurtu duela, beste egile batzuek aipatzen duten bezala (Mazeaud eta Nonjon, 2018).

4. **Herritarren parte-hartzearen merkantilizazioa**

Esternalizazioaren praktikak eztabaida ugari sortzen ditu, baina guztien artetik bat nabarmentzen da: zenbat eta zer esternalizatu; izan ere, horrek ondorioak izan baititzake estatu hustu baterako bidean. Hau da, non jarri *outsourcing*aren mugak? Galdera horren erantzunak, alde batetik, administrazio publiko batek aplikatzen duen kudeaketa publiko berriaren (KPB) ereduari buruzko informazioa ematen digu (ikuspegi neoenpresarialetik edo neopublikotik gertu dagoen eredu); beste alde batetik, estatuaren ereduari eta eskubide publikoen defentsan duen joerari buruzko informazioa ere aurkituko dugu, oinarri hartuta *core*-jarduerak edo estatuko agintaritzaren muin estrategikoko jarduerak esternalizatzen dituzten praktikak, bai eta bigarren mailako jarduerak esternalizatzen dituzten praktikak ere, alegia, lehenengoen hausnarketa politikotik eratorritakoak, kanpoko eragile batek egin baititzake.

Parte-hartze arloko zerbitzu publikoen barruan zenbait ekintza sartzen dira, batzuk administrazioen jarduera nagusiei dagozkienak (legeak egitea, zergak ezartzea, sustatzea, eta abar), eta beste batzuk estatuaren izaera bera arriskuan jartzen ez dutenak. Gaur egun funtsezkoa da jakitea ea esternalizatzen ari diren administrazioaren jarduerak *core*ari eragiten dioten, eta, halaber, ea nola eragiten dion eragile bat edo beste kontratatzeak (sozietate mugatuko enpresak, kooperatibak, ikerketa-zenbroak) emaitzaren kontrolari eta herritarrek parte-hartzeko zerbitzuen merkatuak fin-

katzeari. Alegia, falta da ulertzea parte-hartzearen ekintza publikoaren bitartez nola egiten den estatua, baldin eta ekintza hori gauzatzeko bitartekoaren jatorria enpresa-eraginkortasuna lortzea bada.

Teorian, esternalizazioa hainbat faktorek azaltzen dute: etekinak bilatzea, aurrezte, zerbitzu publikoaren eraginkortasuna eta kalitatea argudiatzea, hornikuntzarako defizit teknikoa, etab. Parte-hartzearen ekintza publikoari dagokionez, lan batzuek behin eta berriz azpimarratzen dute beharrezkoa direla parte-hartzea abian jartzeko baliabideak, langileak eta sustapena, «parte-hartzearen erregimenak» hala eskatzen baitu (Salvador eta Ramió, 2012; FEMP, 2015). Behar hori, teknikoa ez ezik, konpromiso politikoak hartzeari buruzkoa ere bada, eta gaiari buruzko diskurtsoa indartuz eta araudiak sustatuz erantzuten ari da *eremu* politikoan. Biak, diskurtsoa eta araua, estatuaren *core*-jarduerak dira. Jarduera *ardatz* horretatik eratorritako ekintzak (prestatuak, dinamizazioa, eta abar) jada esternalizatzen ari dira edota administrazio publikoa hornitzen ari da neurri batean. Fenomeno hori Espainian zein errotuta dagoen erakusten dute, batetik, gaiari buruzko monografia gutxi egoteak eta parte-hartze agente teknikarientzako lanpostu berri gutxi egoteak, eta, bestetik, aldi berean, partaidetza-zerbitzuak hainbat modutan eskaintzen dituzten enpresak ugaritzeak.

Oro har, agindu politiko handiagoarekin edo txikiagoarekin, enpresek ekintza publikoaren esparru zabala garatzen dute. Besteak beste, udaleko teknikariek aurrez diseinatutako tailerrak dinamizatzen dituzte —estrategia landu eta politiko bati erantzuten diotenak— edota, behin «parte-hartzean zerbait egin nahi dugu» esanda, horren ondoren abiarazitako jarduera oro hartzen dute bere gain. Fraser-en arabera (2008), merkatu-diziplinak eragindako logikek, alegia, denbora laburrek —eraginkortasunaren eta behin-behinekotasunaren bilaketaren izenean defendatzen dena— gobernarritasunaren metadimentsioari eragiten diote. Hori nazioarte-mailan gertatzen ari da, demokrazia parte-hartzailea esternalizatzen ari da: Taiwanen, adibidez, parte-hartzea instituzionalizatzean, sistematikoki egiten da aurrekontu parte-hartzaileen kanpo-kontratazioa, eta elkarteetan, GKEen eta akademikoen esku uzten da (horrek *boom* bat ahalbidetzen du, herrialde hartan 2015ean gertatu zena bezalakoa; bitartean, estatuak ez du prozeduran parte-hartzen eta hasieran bakarrik esku hartzen du —aurrekontua erabakiz—). Hornitzaileak areagotzeak eta enpresen lehia-kortasunak indartu egiten dute mendekotasun- eta klientelismo-harremana, beti ere ahalbuntzean oinarritutako logikaren kontra, *partaidetzaren coachingaren* alde. Bestela esanda, enpresak lehiatzen dira ez partaidetzarako zerbitzurik onena eskaintzeko, baizik eta parte-hartzearen bitartez emaitzak kontrolatzeko zerbitzurik onena eskaintzeko. *Coaching* horrek, egilearen emaitzen arabera, «*ethos* publikoa deuseztatzea» dakar eta, aldi berean, logika merkantilista indartzea: «lizitatzailer merkeenak irabazten du proiektua, langileen autoesplotazio nabaria gertatzen da eta baliabide nahikorik ez duten proiektuak lortzeko lehiatzen da» (2018: 10-12).

Errealitate horrek erakusten du legitimitatea lortzera bideratutako izapide politiko hutsa bihurtzen ari dela parte-hartzeko eskaintza publikoa, eta horri gehitzen zaio *ethos* bat, hain zuzen, oinarritzen dena lehia oldarkorrean, kolektibo baten pre-

karizazioan eta logika produktibista metatzailean sartzen ez den proiektu ororen desegitean. Jakina, Espainia ez dago Taiwanen egoeran, baina horrek ez du esan nahi *outsourcing* fenomenoaren ezarritasun ez dagoenik eta horren ondorioak aztertu behar ez direnik, baldin eta PBN erradikalizatzea saihestu nahi bada behintzat.

Horretarako, administrazioek partaidetzaren arloan kontrata ditzaketen eragile zerbitzu-emaileen eskaintzak aztertu ditugu. 96 aholkularitzak eskaintzen dituzten zerbitzuak eta horien izaera aztertuta, *outsourcing*aren fenomenoaren zirriborrazten hasi nahi dugu. Zalantzarik gabe, ikerlan honetan detektatu ditugunak baino enpresa eta eragile gehiago daude, eta, bihoa aurretik, beraz, zuhurtasunez aritu beharra, onartu beharra baitago lagina mugatua dela. Lan egiteko dugun muga ikusteko erreferentzia gisa har dezakegu, adibidez, gurearen antzekotasun handia duen beste ikerlan bat, Mazeaud eta Nonjon-en taldearena: Frantziako HP arloko 226 aholkularitza (edo antzekoak) inguru identifikatu zituzten, 2015 artekoak. Hain zuzen, Frantziako parte-hartzearen merkatuari buruzko ikerlanean, egileek «nebulosa» terminoa erabiltzen zuten (2018: 175) eskaintzen diren eta aholkularitza horiek egiten dituzten «profilen eta jardueren aniztasuna» erregistratzeko. Bi ideiak, ñabardurekin, Espainiako aholkularitza-lanaren karakterizazioari ekiteko balio dute.

Lehenengoari dagokionez, Espainiaren kasuan, nebulosaren metafora argigarria da. Hemen, haren kontzeptua hartzen dugu bi moduren erdibidean, bai dibertsifikazio gisako hurbilketa arin moduan, bai Coxen zentzuan (Cox, 1987), alegia, eragile akademikoaren, korporazioaren eta administrazioaren egitura *managerial* gisara, kapitalismo globalaren aldeko kontsentsu politikoa lortzera bideratutakoa.

Nebulosa nozioaren erdibideko erabilera horri esker, Espainian parte-hartzearen *outsourcing*ak zer errealitate dakarren eta zer ezaugarri dituen azter dezakegu. Zehazki, planteatzen dugu errealitate hori ulertzeko zailtasunak daudela, izaera lau-soa baitu, «nebulosa» nozioaren adiera desberdinek islatzen duten gisan (cf. RAE, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 8)³.

HP zerbitzuak eskaintzen dituzten eragileen kasuistika era askotakoa da: batzuk, adibidez, 1960-1990ean sortu ziren eta 2000tik aurrera HP zerbitzuak proposatzen dizkiete 2001etik aurrera zuzendari ohiek sortutako kide bakarreko *coaching y consulting* enpresei; beste batzuk, berriz, administrazio publikoetako idazkari ohiak dira, zeinek, kargua utzi eta bertako kontaktuen agendak erabiliz, administrazioei *coaching* egiten baitiete.

Eskaintzari dagokionez, zerbitzu-kartetan ikusten da aniztasuna: batzuek dirulaguntzak kudeatzen dituzte, beste batzuek aurrekontu parte-hartzaileak diseinatzen dituzte. Multzo konplexu horretan sartzen dira bai HP zerbitzuetan espezializatutako aholkularitzak (jarduera horixe dutenak bere izateko arrazoia), bai parte-hartzea es-

³ «Nebulosa» hitzak baditu, «izar-laino» adieraz gain (Euskaltzaindia), beste esanahi batzuk gaztelaniaz (RAE) zein frantsesez, adibidez: gauza zehaztugabe eta nahasiaren multzoa, argitasunik gabea... Hemen, «laino» edo «laus» adierei loturik, «nebulosa» hitzari eutsi diogu itzulpenean, metafora gisara balio digulakoan eta termino unibertsalari hurbiltzen baitaio.

kaintzen dutenak beste produktu batzuen artean (merkatu-aholkularitza, partaide-tzari ez dagozkion dokumentuen maketazioa), bai «ikerketa sozialeko eta merkatu-azterketetako aholkularitzak, zerbitzua eskaintzen dutenak parte-hartze prozesuak, merkatu-azterketak eta ikerketa sozialak abiarazten» (Consultores Investigación Social y de Mercados enpresaren egitekoa), eta abar.


Bestalde, uste dugu errealitate ezezagun horrek nebulosa jakin bat duela, Robert Cox-ek azaldutako zentzuan. Izan ere, bere baitan baitu «sare formal eta informal bat —*gero eta identifikagarriagoa nahiz eta eragile edo agentzia bakarrean gorpuztua ez egon*—, kapitalismo globala mantentzeko kontsentsu-politikak sortzen diharduten intelektua-len, korporazioen eta estatuaren artekoa (Cox, 2002: 33). Sare horrek zerikusi handia du Brown-en neoliberalismoaren definizioarekin (kapituluaeren hasieran aurkeztu duguna): neoliberalismoaren ezaugarri nagusia da bizitza publiko zein pribatuko esparru guztiak monetarizatzen dituela (2015: 21). Kasu honetan, PBN mantentzea du helburutzat, alegia, axolagabekeriaren politika antolatzea. Nebulosaren zentzu horri esker, partaidetza-zerbitzuen merkatu-modu batek zer ezaugarri dituen ikus dezakegu (merkatu neoliberalala).

Bigarren ideari dagokionez, merkatuaeren izaera askotarikoari/ pluralari/... lotutakoa, Espainiako HP zerbitzuen aniztasuna antolatzeke ardatza izango da merkatu *sozial* eta merkatu neoliberalaren arteko bereizketa. Lehenaren ezaugarri nagusia da ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioen arabeko zerbitzuak eskaintzen dituela, betiere, «beste edozein interesen gaineratik, lehentasun gisa, pertsonak, ingurugiroa eta garapen jasangarri zein sostengarria kontuan hartzen duen jarduera ekonomiko baten ikuspuntutik» (REAS ekonomia solidarioaren karta). Multzo horretan sartzen dira ikerketa-taldeak, aholkularitzak, *freelancerak* eta, halaber, baita arlo publikoko parte-hartze teknikari zenbait ere. Bigarrenaren ezaugarria da nebulosa-izaera coaxiarra duela, parte-hartzearen jarduera irizpide kapitalistetan oinarrituz bideratzen baitu (produktibitatea, malgutasuna eta mozkinen lorpena, KPBen ikuspegi neoenpresarialaren arabera ulertuak).

96 aholkularitza horiek agertzen diguten errealitatean sakonduz gero, ikus dezakegu zenbait gorakada nabarmen daudela eragile horien sorreran, urte hauetan: 1999, 2000-2006 eta 2011-2013 (*cf.* 1. grafikoa).

Gorakada horien azalpenetako bat legegintza-ekintzaren eragina da. Slobodan-ek (2019) identifikatzen duen neoliberalismo-forman, jarduera nagusitzat definitzen da legegintza-ekintza. Hala, 1999ko gorakada azaltzeko, jakin behar da, garai hartarako, autonomia-erkidegoek jada onartuak zituztela partaidetza instituzionalerako bitarteko ugari: herri-ekimen legegileak, arloko kontseiluak, etab. Era berean, Porto Alegreko aurrekontu parte-hartzaileen oihartzuna eragina izaten hasi zen, eta administrazio publikoak ez zuen, artean, agente teknikarien kidegorik. Horrenbestez, funtsezkoa izan zen militanteak artisau bilakatzea partaidetza-zerbitzuak eskaintzen dituzten fundazioen bitartez. Beren jarduera ekintza publiko instituzionalaren mesedetan bideratu nahi duten ekintzaile askok hautatu zuten fundazioaren forma (*v.g.* Fundación Pere Tarres).

MERKATUA, KAPITALA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA



Iturria: Martínez Palacios, 2019: 100.

I. GRAFIKOA

Aztertutako 96 aholkularitzen antolaketa kronologikoa, sortu ziren urtearen arabera

Bigarren gorakadari dagokionez (2000), komeni da gogoraraztea orduan hasi zirela Espainian lehenbiziko aurrekontu parte-hartzaileak eta 2001-2002 artean onartu zirela HP zerbitzuen merkatu bat sortzea laguntzen duten legeak: 4/2001 Lege Organikoa, Eskaera Eskubidea arautzen duena, 1/2002 Lege Organikoa, Elkartzeko Eskubidea arautzen duena, eta 50/2002 Legea, Fundazioei buruzkoa. 2013ko gorakadak, berriz, lotura du 19/2013 Legearen onarpenarekin (gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa) —horrekin eman zitzaion hasiera, argi eta garbi, Espainiako estatuko gobernu irekiaren estrategiari— eta, halaber, garai hartan sortutako aholkularitzen izaerarekin, parte-hartze digitalera bideratuak (Komunikatik, Novagob, Delibera, Kuorum), zeinek parte-hartzeko eta «gardentasunerako metodologiak» eskaintzen baitzituzten.

Hala, hain zuzen, 1. grafikoak nebulosa bat adierazten du, eta beharrezkoa da horretan sakontzea, baina errealitate bati erantzuten dio: parte-hartze instituzionalerako eskaera bat dago, eta horrek herritarren parte-hartze zerbitzuetako merkatura garamatza.

Merkatuari buruz hitz egitean, garrantzitsua da azpimarratzea, Collon-ek foro hibridoen azterlanean (2001) egiten duen bezala, merkatua ez dela instituzio abstraktu bat. Horri loturik, hemen ez zaizkigu interesatzen haren izaerari buruzko diskurtso teologikoak. Merkatuari buruz modu orokorrean hitz egiteak ez du zentzurik, eta ez da zehatza; hobe da merkatuei buruz hitz egitea, pluralean, historikoki eta modu mailakatuan antolatuak eta egituratuak. Gainera, gure analisisiei zehaztasun handiagoa ematen dio merkatuen erabilerari erreparatzeak.

Horren ildotik, izaera plurala antolatzeko karakterizazio ugari proposatu dira. Fraser eta Jaeggi-ri jarraikiz (2019: 27), merkatuen erabilerak bereiz ditzakegu: *banatzeko* erabiltzen direnak (ondasun ukiezinak banatzera eta zatitzera bideratuak) eta *esleitzeko* erabiltzen direnak (indibidualetik haratago doazen eta kolektibora iristen diren proiektuetarako baliabideak erabiltzera bideratuak). Horrenbestez, zehatzagoak izateko, ez dugu soilik hitz egingo parte-hartze zerbitzuen merkatuei buruz, baizik eta zehaztu beharko dugu, merkatuen erabilerari dagokionez, parte-hartze zerbi-

tzuen ezaugarri nagusia dela, hain zuzen, baliabide sozialei (kapital-formak, azken batean) helburu kolektiboetara bideratutako erabilerak esleitzea. Helburu kolektibo horiek demokraziaren krisiaren testuinguruan janzten dira publikoki, baina, arestian aipatu dugun moduan, legimitate politikoa metatzeko edo onura politiko eta enpresariala lortzeko helburuak ezkututzen dituzte.

Horri dagokionez, garrantzitsua da zehaztea gizarte kapitalistetan dauden merkatu-formek trukearen logikari erantsitako ezaugarri bat dutela, eta horrek gidatzen dituela (metatzera bideratutako trukea): produktuarekiko erlazio instrumentala ezartzen dute. Jaeggik adierazten duenez:

«Baldin eta zerbait tratatzen badugu saltzera bideratutako produktu gisa, zerbait horrekin eta geure buruarekin dugun harremana aldatzen da. Despersonalizazioa edo axolagabekeria dakar, eta munduarekiko harremanak termino instrumentaletan bideratzen ditu, berezko balioen aurka». (Fraser eta Jaeggi, 2019: 29)

Hala, merkatu kapitalistek berezkoa dute burokratizazio neoliberalak hauspotzen duen axolagabekeria. Hau da, ezin da bata bestea gabe ulertu: parte-hartzearen burokratizazio neoliberalaz hitz egiteak esan nahi du interes ezaren antolaketaz hitz egitea, eta, orobat, haren adierazpen zehatzaz, axolagabekeriaz.

Diagnosi honetan PBNren hirugarren mugimendu gisa azaltzen dugun HPren merkantilizazioaren ezaugarrietako bat da lehiaren logika instituzionalizatzen duela zerbitzuen eskaerari erantzuteko garaian. Eskaera hori legimitate politikoa metatzeko beharrari erantzutera bideratuta dago. Laval eta Dardot-ek esaten dutenean merkatua dela «mekanismo sozial bat, informazioa mobilizatzea eta besteei prezioen bitartez jakinaraztea ahalbidetzen duena», zera azpimarratu nahi dute, «ekonomiaren arazoa ez dela oreka orokorrarena, baizik eta jakitea norbanakoek nola atera diezaioketen onurarik handiena esku artean duten informazio osatu gabeari» (2015: 145-48).

Azalpen horrekin, egileek adierazten dute lehia trazio-elementu bat dela, merkatu neoliberal honen izaera definitzen duena. Espainian, agerikoak dira lehiaren existentziaren ebidentzia politikoak. parte-hartzea politizatzen da, ez *topos*-aren eztabaida gisa, beste zentzu batean baizik: parte-hartzearen kudeaketari buruzko eztabaiden erabilera politiko gisa errentagarritasun politikoa lortzeko.

Gaur egun, udalerrri batek parte-hartzeari lotutako bere esparru eta filosofiarekin ondoen egokitzen den aholkularitza kontratatu dezake. Merkatuaren handitasunak horretarako aukera ematen du. Hori borroka politikorako arma bihurtzen da. Jada badaude zenbait gatazka horren haritik, adibidez, udalerrri bateko oposizioak uste baitu udalak parte-hartzeko zerbitzuak kontratatzen dituela, ez objektibotasun-irizpideen arabera, baizik eta adiskidekeria-irizpideen arabera eta klientelismoan oinarrituta.

Lehia ez da bakarrik *eremu* politikoan ikusten. Logika horrek aurrez aurre eta elkarren kontra lehian jartzen ditu parte-hartzea ulertzeko bi modu, halako moldez non bidea egina baitu esanahiak eraikitze borrorak. Honako hauek dira elkarren kontra lehiatzeko *tipo ideal* formak: batak defendatzen du parte-hartzea sal *daitekeela* eta saldu *behar dela* (jarraian, nebulosa izenez azalduko duguna; parte-hartzearen merkatu neoliberalak, parte-hartzearen sofistak); besteak defendatzen du parte-hartzea sal *daitekeela baina ez dela saltzera eta merkantilizatzera bideratu behar* (HPren merkatu sozial deritzoguna).

5.1. *Nebulosa: merkatu neoliberalak edo administrazioari coaching egiten dioten sofistak*

Espainiako *Coaching* Elkartearen (ASESCO) arabera, *coaching*aren lehen araua da «erabat konbentzitura egotea pertsonak lorgarria den guztia lor dezaketela». Bigarrena, jakitea «konbizio hori etengabe indartzen aritu beharko dutela». Lehenengo arauak esan nahi du egiturak existituko ez balira bezala jokatu behar dela, bizitza ahula eta mugatua izango ez balitz bezala; bigarrenak, berriz, eskatzen du eragileak, dinamikak, produktuak eta bitartekoak egokitzeko espazio bat sortzea, eta horiekin lan egitea ilusio bat indartzeko: merkatu bat. Herenreich-ek, *Smile or die* lanean (2018), diskurtso neoliberalaren oinarri legitimatzaile gisa aztertu ditu elementu horiek guztiak, modu bikainean. Hortaz, ez da harrizkoa parte-hartzeari aplikatutako *coaching*aren printzipioek zenbait erronka mahaigaineratzea jardunbide horri modu kritikoa hiltzen dion edonori. Printzipio horiek ongi egokitzen zaizkio axolagabekeria antolatze proiektu neoliberalari: interesarekiko interes eza, eta joko-arau, azpitu eta benetan diharduenarekiko axolagabekeria (*poliseko gaietan parte-hartzen ez dutenak ez daitezela sartu, ez baitakite zer garrantzi duen ikuspuntuarekiko ezaxolaki*).

Parte-hartzea sal daitekeela eta saldu behar dela uste dutenen diskurtso-esparrua ScytI enpresako kontseilari delegatu Pere Vallès-en adierazpenen ildoan kokatzen da: 2016ko otsailean *El economista* egunkarian (*cf.* kapitulu hiru garren atala) adierazi zenez, demokrazia parte-hartzailearen merkatu heldu bat dago, demokraziarako produktuak saldu ahal izateko. Bildutako datuen arabera, 1980ko hamarkadan sortutako aholkularitzak dira (*v.g.* Euroconseil, Estrategia Local, besteak beste), guztiak sozietate anonimoak, 10 kide baino gehiagokoak eta metatze-logikarekiko partaidetza-zerbitzu funtzionalak eskaintzen dituztenak, zer eta «lider politikoaren eta erakunde publikoaren eraginkortasuna hobetzea» (Estrategia Local).

Eragile horiek «edozein indar politiko demokratikok zuzentzen dituen erakundeekin» egiten dute *coachinga*, parte-hartzeko barne erakunde-egitura bat eraikitzen laguntzen dute (administrazio-organoak egituratzen edo parte-hartzearen administrazio-ereduak egiten), eta, dagoeneko, merkatu-hizkera propioa dute jasota beren zerbitzu-kartetan. Hala, aurrekontu parte-hartzaileak, planak eta politika parte-hartzaileak egiten dituztenean, «herritarrek parte-hartzeko lanak» egiten dituztela adierazten dute (Tokiko Estrategia). Berehala, nebulosa hori osatzen duten eragile nagu-

sien artean, profil jakin bat aurkitzen dugu: sozietate anonimo edo mugatu izaerako enpresak, talde enpresarial ertain-handiz osatuak, lurralde eta eskala anitzekoak —zenbaitetan, estatu anitzekoak—, mota guztietako produktuak eskaintzen dituztenak, ez soilik parte-hartzeari lotutakoak. Enpresa horiek zuzentzen dituzten eragileen profilak arakatzean, ohikoa da gizonezkoak aurkitzea, askotan industria-ingeniariak antolaketa eta berrikuntzako graduondoko ikasketekin.

Sofista gisa, badakite, nebulosan tokia hartzeko, beharrezkoa dela botere-*eremua*-ren konfigurazioaren aldaketekiko erretorika funtzionala edukitzea. Hala, ikuspuntu horretatik zerbitzua eskaintzen dutenen erretorikaren ezaugarrietako bat da, lehenik eta behin, azpimarratzen dutela malgutasuna, moldagarritasuna eta aukera eduki behar dela ondasun sinbolikoen metaketaren arrazionaltasun neoliberallean oinarritutako HP arloko *coaching* administratiboa egiteko:

EVM.net pertsonen, bitartekoen eta prozesuen ekosistema bat da, modu arin eta berrizailan antolatzen dena gizarteko edozein eremutatik planteatzen diren erroka eta arazoei erantzun eraginkorra, efizientea eta balio erantsi handikoa emateko. (EVM aholkularitza)

«Baliabideak optimizatzea eta inpaktuak maximizatzea» errazten dugu. (97 sf. aholkularitza)

Bigarrenik, beste ezaugarri bat da diskurtso merkantilista eta produktibista erabiltzea, mozkinak eta ondasunak metatzera bideratutakoa, *ad hoc* produktuak, produktu pertsonalizatuak eta gailenak, abiaraziz. Zerbitzuaren indibidualizazio hori ez da eragozpena enpresa-existentziaren profesionalismo-printzipioari eusteko, alegia, hala eskatzen duen edonorentzat lan egiteko gaitasuna edukitzeko:

Hurbiltasuna, profesionaltasuna, zorrotasuna eta erantzukizuna dira gure nor-tasanaren ezaugarriak. Konponbide eraginkorrak eta arrakastatsuak eskaintzen ditugu, zure kudeaketan eraginkortasuna hobetzen eta hobeto gobernatzen lagun diezazuketena. Edozein pertsona, entitate edo erakunderekin lan egiteko gai gara, edozein unetan eta edonondik, gure lan-tresna ezagutza baita. Pertsona gizartekoiak gara, eraginkortasunez eta malgutasunez egiten dugu lan, emaitzetara bideratuta, eta digitalizatuta gaude, etengabeko bilakaera profesionalean. Espazio konektatuak sortzea bilatzen dugu, sormena sustatuko dutenak, produktiboagoa izatea ahalbidetuko dizutenak eta, batez ere, zure bizitza profesionala erraztuko dutenak eta zoriontsuago egingo zaituztenak. Gure lan-espazioak, antolaketa-kultura eta gure bezeroen aurrean agertzeko dugun modua eraldatzeko erroka onartzen dugu (Iritziak Batuz).

Tomás Calvok, Grezia klasikoko sofistei buruz ari dela (1986: 69-74), azaltzen du sofisten profesionalismoak, profesionala ikusteko zuten moduak, kritikak sorrarazten zituela, zeren, alde batetik:

Aretéa irakatsi nahi zuten, eta hori onartezina zen aristokratentzat, *aretéa* ez baitzen irakasten, nobleziaren berezko zerbitzua baita; bestetik, demokratentzat, *aretéa* ikas daiteke, bai, baina polisaren baitan. Benetako hezkuntza komunitatearena da.

Sofistak bezala, nebulosa hori osatzen duten agenteak haien artean eta besteekin lehiatzen dira irakasteko ahalik eta ikasle/bezero gehien lortzeko. Era berean, aristokrazia parte-hartzailearen kritikak jasotzen dituzte, aristokraziak uste baitu ez dela beharrezkoa ezein eragile motari atea zabaltzea; izan ere, uste du bitartekaritza-modu orok, baita neoliberalak ere, pribilegioak galaraz diezazkiokeela dagoeneko *habitus* parte-hartzaileak dituenari. Aurre egin behar diete, halaber, «intrusismoa», «merkantilismoa» eta «klientelismoa» direla-eta parte-hartze zerbitzuen merkatuan jarrrera kritikoarekin agertzen direnen gaitzespenei (horrelako deskalifikazioak entzun ahal izan ziren «Patás arriba: El (a)salto de la participación» parte-hartzean hezteko IX. topaketan, 2016ko urriaren 28, 29 eta 30ean, Kordoban. HPren merkatu sozialeko parte-hartze arloko 56 pertsona bildu ziren han); horri esker, parte-hartzearen heroi gisa aurkez dezakete beren burua.

Hirugarrenik, erretorikaren beste ezaugarri bat da luzaketa kontzeptuala erabiltzea, hartara bezeroen profil zabalagoa eta anitzagoa lortzeko. Nebulosa horrek joera handiagoa dauka «gobernu irekiaren» diskurtsoa mobilizatzeko; beraz, gobernu irekiko zerbitzuetan diharduten enpresa guztiak merkatu honetan daude. Era berean, parte-hartzea definitzeko garaian, joera dute komunikazioarekin, gardentasunarekin eta informazioarekin berdintzeko:

ATC-SIG SLk komunikazio, gardentasun eta parte-hartze talde bat jarzen du (...)ko udalaren esku, Udalaren komunikazioa hobetzen lan egiteko, informazio gehiago izan dezan udal-webguneari eduki gehiago emateko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko. Gure bulegoak komunikazioa areagotzeko eta gardentasuna hobetzeko lan egiten du, eta, hala, parte-hartzea sustatzen laguntzen du. (ATC aholkularitza)

Nebulosa horren ezaugarrietako bat da erretorika malgua darabilela. Merkatu horretan dihardutenen praktikei dagokienez, ohikoa da estandarizazioaren bitartez malgutasunaren eta segurtasunaren artean oreka bilatzen duten eskaintzak aurkitzea. Hala, parte-hartzearen kudeaketari aplikatutako produktu estandarizatuak saltzen dira, hala nola Predictive Index®, «produktibitatea izugarri handitzeko» eta partaidetza-arloko logikako lanpostuen *targeten* sorrerari buruzko informazioa eraginkortasunez erabiltzeko. Merkatu horren xede nagusia ez da ebaluazio-indizeak edo partaidetza-produktu modelatuak sortzea, baina ohikoa izaten da; ezaugarri nagusietako bat bada, ordea, horien aplikazioan kanon-tasak erabiltzea. Hau da, kanona egotea, produktu batengatik ordaindu behar izatea, oinarritzkoa da nebulosan; izan ere, tresna edo indize baten bidezko estandarizazio-maila horiek merkatu sozialean ere bai baitaude —merkatu horretan, ordea, lizentzia komun eta irekiarekin proposatzen dira—.

Nahiz eta eraginkortasunaren erretorika modu horretan ezartzen den merkatuan (azkartasuna, malgutasuna...), bertako eragileek beste praktika batzuei dagozkien eti-

ketak erabiltzen dituzte, denbora mantsoagokoak eta parte-hartzea ulertzeko beste modu batekoak (artisansu-erakoa). Hor, ikusten da merkatuko lehia, argi eta garbi, kategorien esanahien lehia eta borroka ere badela; esanahiak emateko borroka bat. Aztertutako entitateetako batek, adibidez, artisansu-nozioa erabiltzen du, eta, bere diskurtsoan, aldiz, erakundeen elkarlaneko kudeaketarako praktika neoliberalak erakusten du, *copyrighta* duten produktuak eskainiz:

Neurrira egindako aholkulariak gara. Artisansuaren espirtua dugu, eta horrek errealitate bakoitzera egokitzeko aukera ematen digu. Gure interes nagusia da pertsonen, taldeen eta antolakundearen garapen-prozesuak erraztea eta laguntzea. Etengabeko hobekuntzaren eta berrikuntzaren aldeko apustu garbia egiten dugu, metodologia oso praktikoeekin eta testuinguru bakoitzari aplikatutakoekin. (Prímula Asesores aholkularitza, Aragon Participa ekimeneko herritarren parte-hartzearen I. metodologia-koadernoaren sinatzailea)

II. TAULA

Civicití (Bartzelona, Madril eta Sevilla)

Noiz sortua: 2000.

20 urtetik gorako esperientzia dugu parte-hartze prozesuetan, sektore guztietan, eta zure proiektua arrakastaz gauzatzen lagunduko dizugu.

Definizioa: partaidetzan adituak gara eta parte hartu nahi dutenei laguntzen diegu. Parte hartzea partekatzea da, inplikatzeko, konpromisoa hartzea... Parte hartzea deskubritzea da, eztabaidatzea eta erabakitzea. Civicitin, erantzuna ematen diogu partaidetza-prozesuaren kudeaketaren eta gardentasunaren eskaera gero eta handiagoari, eta datuak ematen ditugu, erabaki hobeak aztertzeko eta hartzeko. Civicití diziplina anitzeko enpresa dinamikoa da, parte-hartzea etengabeko eta eguneroko prozesuetan hartzen duena. Horregatik, gure bezeroen eskutik goaz, eta behar bakoitzari egokitutako irtenbidea eskaintzen dugu.

Gure esperientziak eta proiektu globalak aukera ematen digute Civicití etengabe aberasteko eta parte-hartze arloko azken berrikuntzak eskaintzeko. Civicitin sektoreko enpresarik onenekin elkartzen gara, gure bezeroei irtenbiderik osoena eskaintzeko. Gure partnerek oso leku berezia dute gure garapen estrategikoaren barruan eta, horregatik, haien ondoan gaude uneoro, kolaboratzaile bakoitzaren konpromisoa eta inplikazioa saritzen. Egiten ditugun lankidetzak-akordioekin bidez, kalitate goreneko zerbitzu integratua eskaintzen dugu, bai gure partnerekin bai azken erabiltzaileen onurarako.

Iturria: autoreek egina, aholkularitza-enpresaren 2018ko zerbitzu-karta oinarri hartuta.

Administrazioarentzako parte-hartze arloko *coachinga* zenbait apaingarri/osagarri diskurtsiboz lagundurik egiten da. Horiek balioa ematen diote harremanak, baliabideak eta eragile-sareak —oro har, ingelesezko *partner* terminoarekin aipatzen direnak— mobilizatzeko gaitasunari eta berrikuntzari. Gainera, sektore baten aitzindari gisa aurkezten dute aholkularitza. Diskurtso hori, termino sinbolikoetan, nebulosa osatzen duen kapital sofistiko edo teknikoaren oinarria da.

Ezaugarri horien argitan, komeni da merkatuan modu neoliberallean diharduten eragile horien rolaz hausnartzea. Sofista gisa dihardute, itxuraz artisau gisa, berrikuntzan kezkatuta, eta nebulosa baten parte aktibo dira, modu coxiarrean, behin eta berriz jotzen baitute partaidetza-agendaren helburuak lortzeko mobiliza ditzaketen bazkide-sareetara. Sare hori ikusezina da, baina eraginkorra, eta erakusten du gutxi inporta duela *ethos* komunitarioa eraikitzeak; axola duena da *habitua* edukitzea, zentzu guztietan, baina, batez ere, sakonenean: merkatu aldakor batean, eragileari etorkizuneko aurreikuspenak egitea ahalbidetzen diona, lagunduko diona aurreikusten zerk izango duen balioa eta zerk ez botere-eremuan.

5.2. Parte-hartzearen merkatu soziala

HP zerbitzuen merkatu sozialak, parte-hartzean aritzeko duen zentzu kritikoa dela eta, desberdina izan nahi du, eta ekonomia sozial eta solidarioko sareetan egituratuta dago, hala nola Mercado Social de Madrid edo REASen moduko ekimenetan. Ekonomia sozial eta solidarioaren printzipio gehienak biltzen dituzten aholkularitza edo aholkularitza-talde guztiak ez daude sare batean izena emanda, baina haien zerbitzu-kartetan sareoi dagozkien elementuak aipatzen dira beti. Ezaugarri horrek bereizten ditu, hain zuzen ere, bi merkatu-motak.

Bertako eragileen profilari dagokionez, esan behar da enpresa gehienak kooperatibak direla, 10 pertsona baino gutxiagoz osatuak, eta hainbat arlotatik etorritakoak: Gizarte Zientziak, Humanitateak, Gizarte Langintza, Gizarte Hezkuntza eta Psikologia. Merkatu honetan, ugariak dira emakumeek gidatutako aholkularitza-kooperatibak, zeinen erretorikak bat egiten baitu Justizia Sozialarekin, herritarren parte-hartzearekin, komunitatearekin, denborak zaintzearekin, jakintzak aitortzearekin eta konfiantza eta konpromisoa eraikitzearen garrantziarekin. Parte-hartzearen kausaren aldeko konpromiso-*pathos* militante bat daukate, merkatu-logika estraktibistarekin talka egiten duena, baina beharrezkoa dena partaidetza-sistemek iraun dezaten. Merkatu sozialeko eragileak mugiarazten dituen konplizitate isil horrek dakarren doako lan (ordaindu gabeko) hori gabe, ezingo lirakeke aurrera atera hainbat prozesu parte-hartzaile.

Praktika horri jarraikiz, honako helburu hauek aurkitu daitezke zerbitzu-kartetan: «gizarte justuago bat bilatzea» (Fundación Jaime Bofil); «erantzun arduratsu, zientifiko eta erabilgarriak» emateko interesa (Fundación Ferrer i Guàrdia); bere lana «kalitate demokratikoa hobetzer» bideratzeko beharra (EIDOS); eta parte-har-

tzearen definizio jakin bat eskaintzea, komunitateari, Justizia Sozialari eta garapen komunitarioari lotutakoa. Krisiaren *topos* kritiko bati heldurik (zainketen krisia), parte-hartzeaz hitz egiten dute «pertsonek eta komunitateak bizitzaren erdigunean kokatzeko, eta esparru publikoaren birdefinizioaren aldeko apustua egiten dute, eremu komunaren alde» (CIMAS).

Ondasun komunen defentsaz gain, merkatu honetan, nebulosan ez bezala, partaidetzari buruzko planteamendu kritiko eta feministak aurkitzen ditugu, zeinek erabakiak hartzeko prozesuen erdigunean jartzen baitituzte zainketen krisia eta pertsonen bizitza, eta horrek eskatzen du eredu ekonomiko, sozial eta administratiboari buruzko hausnarketa egitea, askotan modu interseksionalean. Horietan, gero eta eragin handiagoa du ekonomia feministaren diskurtsoak eta praktikak. Hau da, parte-hartzeari buruz aritzean, ezinbesteko tokia hartzen dute bizitza antolatzen duten egitura material eta sinbolikoek:

Feminismoa eta genero-ikuspegia dira gure jarduera guztien zeharkako ardatzak. Gaur egun, gure jarduerak bost lan-ildo ditu: prestakuntza eta sentsibilizazioa, ikerketa eta aholkularitza, komunikazioa, kultura-kudeaketa eta parte-hartzea. (Pandora Mirabilla)

Kooperatiba txiki honen oinarria da inklusioaren, ahalduntzearen eta parte-hartzearen aldeko konpromisoa, justizia sozial handiagoa lortzeko bidean. Gure kooperatibari izena ematen dion Aradiak sorginkeria erabiltzen zuen erresistentzia sozialerako tresna gisa, pertsona ahulenek jasaten zituzten zapalkuntza-moduei aurre egiteko. Guk magia prestakuntzara eta ikerketara eramaten dugu, gaur egun oraindik indarrean dauden menderatze-moduen aurka borrokatzeko tresna gisa (Aradia Coop.).

Barne-desberdintasunak gorabehera, mota honetako aholkularitzek elementu komunak dituzte; alegia, parte-hartzearen artisau-izaera aldarrikatzen dute, axolagabekeria kritikatzan dute eta harremanak ehuntzeko denbora luzeagoa bilatzen dute (adibidez, Cooperativa de Iniciativa Social, Emprendimiento y Consultoría Social delakoak —gizarte-ekimeneko, ekintzailetzako eta gizarte-aholkularitzako kooperatiba— printzipio hau nabarmentzen du, besteak beste: «inplikazioa, gure lanean jorratzen ditugun errealitateek ez gaituzte axolagabe uzten»). Parte-hartzearen denbora azkarrei eta grina ezari egindako kritika hori, berez, merkatu- eta ekonomia-erlazioak kudeatzeko eredu menderatzailearekiko kritika da.

Esanahien inguruko borrokaren aurrean —aro neoliberalak ezaugarritzen duena—, dagoeneko ukazina da merkatu horren barruan nabarmentzeko beharra. Aholkularitza batzuk jada ohartu dira horretaz, eta horregatik hasi behar izan dute erabiltzen parte-hartzearen nebulosaren bultzatzaileekiko desberdintzen dituzten kontzeptuak. Horietako bat da S. Cooperativa Plevia, Gizarte Zientzien arlotik datozen hiru emakumek osatua, eta «autore-aholkularitza» terminoaren berrikuntza dakarrena:

Autore-aholkularitzak esanahia ematen dio gure lana egiteko moduari; sukaldaritzaren mundura jotzen dugu egiten duguna eta gure bezeroei eskaintzen dieguna irudikatzeko: usainez, zapoz eta ehunduz betetako espazio handi bat, non hiru sukaldarik beren sormena eta esperientzia askatzen duten gure zigilu pertsonalarekin plater paregabeak egiteko, herrialde bakoitzeko (bertako jendearen) produktu tipikoen eta elaborazio-prozesu bikainen arteko nahasketa harmoniko baten bidez (Plevia).

Parte-hartzearen sofistek aurre egin behar diete aristokratei eta artisauei, baina nebulosaren inertzia dute alde. Aldiz, merkaturan jarrera kritikoz egotea etengabeko pultsua da, eta egoera deserosoan egiten da, *habitus* dominatzailearekiko etengabeko zalantza agertzeak prekaritatea eta ziurtasun eza sortzen baititu. Deserosoa da, izan ere, alde batetik, latza baita antzeko ereduaren ispilurik gabe esperimendu behar izatea, eta, bestetik, ezartzen delako «*habitus outsider*» bat (Ripio, 2015), eutsi behar diena normaltasunaren bidera buelta dadila eskatzen dioten abisuei eta kargu-hartzei. Kargu-hartze horiek egunerokoak dira, praktika hori naturalizatu egiten da, eta boterea erabiltzeko formula autoritarioen bitartez bideratzen dira.

Neoliberalismoaren berezko domestikazio-saiakera horiek —axolagabekeria eraitzeko politikarentzat beharrezkoa— jada entitatearen proiektua sortzeko prozesuan (aholkularitzaren sorreran) agertzen dira. Horren adibide izan daiteke, adibidez, tokiko aholkularitza-erakunde batek kooperatiba edo enpresa berriei eskaintako ikastaro batean, parte-hartzearen merkatu sozialekoa izango den bati eskatzea kentzeko «feminista» hitza enpresaren xedetik, hartara, administrazio publiko bati zerbitzuak eskaintzean, hain gatazkatsua ez izateko.

Era berean, saiakera horiek zerbitzua enkargatzeko prozesuan zehar bideratzen dira, baita instituzionalizazio berrian sartzen diren eta HP modu kritikoa instituzionalizatu nahi duten administrazio publikoen jardunbideetan ere. Bigarren ideia horren adibide da zenbait administrazio publiko kritikoren (edo ez-kritikoren) eskaera merkatu sozialeko aholkularitzak kontratatzen dituztenean: eskatzen dute azterlanak ikuspuntu berri batekin egiteko, baina aldi berean eskatzen dute aurrez identifikatutako joerekiko konparazioak egiteko. Hain zuzen, kategoria zaharretan oinarritutako analisi estatistiko berriak eskatzen direnean konparazioa egin ahal izateko, eskatzen da galdetegietako galderek ez ditzatela eduki planteamendu errotik desberdinak. Esate baterako, generoaren aldagaiari dagokionez, ez da errazten interseksionalitatearen tresnarekin lan egitea ahalbidetzen duen beste aldagairik, horrekin ezingo baiditzateke konparaziorik egin⁴.

⁴ Hausnarketa hori zor diogu Liquen DataLab kooperatibari eta Bartzelonako udalak antolatutako parte-hartzeari eta feminismoari buruzko jardunaldietako konbertsatorioari (2019ko otsailaren 5ekoa).

6. Ondorioak

Artikulu honetan aztertu dugu zer forma zehatz hartzen duen parte-hartzearen aldaketak Espainian. Horretarako, 1978-2017 arteko partaidetzaren arloko ekintza publikoaren instituzionalizazioaren analisi genetikoak egin dugu, estatuko parte-hartzearen industriaren egungo zenbait produktu politiko aztertuz.

Material enpirikoa aztertu ondoren (ikus I. taula), ondorioztatu dugu, neoliberalismoaren interpretazio marxiarretan oinarrituz (Bourdieu, 1997; Hibou, 2012; Brown, 2015; Fraser eta Jaeggi, 2018; Slovodian, 2018), Espainiako parte-hartzearen aldaketak izaera neoliberalak duela. Horrek esan nahi du korporazio enpresarial pribatu gehiago daudela erabakigune publikoan, eta, halaber, kapital juridikoaren garrantzia areagotu egin dela instituzioen partaidetza-egiturak diseinatzeke garaian.

Hain zuzen, baieztapen hori hiru mugimendutan oinarrituz egiten dugu.

Lehenengoa, demokraziaren krisiaren *topos* bat naturalizatzea, zeinari esker iragaz baititzakete korporazio ekonomiko handiek beren herritarren parte-hartze arloko produktuak, kapitala metatzera bideratuak. Era berean, *topos* hori diseinatzeke, parte-hartzearen ideia medikalizatua duen sekuentzia bat erabiltzen da.

Bigarren mugimendua parte-hartzearen burokratizazio neoliberalari dagokio. Espainian gaur egun parte-hartzearen burokratizazioa gauzatzea ahalbidetzen duten zazpi praktika aipatu ditugu. Horri dagokionez, azpimarratzen dugu garrantzitsua dela kontuan hartzea demokrazia desburokratizatzeke proiektuaren paradoxa, hain zuzen, parte-hartzea burokratizatuz egiten ari baita hori. Halaber, adierazten dugu kontua ez dela, orain, praktika burokratiko oro desagerraraztea parte-hartzearen diseinu instituzionalean, baizik eta beharrezkoa dela hausnartzea zer eragin dituen, prozesu parte-hartzaile bat integratzean eta diseinatzean, eragileen kapital juridiko eta sozial metaketa pribilegiatzeak. Alegia, beharrezkoa dela «burokrazia erre-flexibo» baten antzeko zerbait.

Hirugarren mugimendua, sakonago aztertu duguna, parte-hartzearen merkantilizazio pribatiboari buruzkoa da. Jakin badakigu, 1970eko hamarkadako parte-hartzearen artisautzatik 2010eko hamarkadako parte-hartzearen industriara igarotzean, herritarren parte-hartze arloko hainbat merkatu sortu direla (Mazeaud eta Nonjon, 2018). Testuan, merkatu soziala eta neoliberalak identifikatu dira. Horri dagokionez, herritarren parte-hartzearen arloko merkatuaren funtzionamendua aztertzeke etorkizuneko ikerketetan, interesgarria ez da izango merkatu bakoitzaren joeren azterketa deskriptiboak egitea, baizik eta estatuak merkatu horiek nola erabiltzen dituzten aztertzea eta horietan burokraziak zer rol jokatzen duen bereiztea.

Orrialde hauetan, PBNren ideari lotutako diagnostikoaren ildo nagusiak marraztu ditugu. Zalantzarik gabe, sakondu gabe geratu dira aldaketaren mugimenduetako bakoitzaren hainbat alderdi. Izan ere, parte-hartzearen merkantilizazioari jarri nahi izan diogu arreta, parte-hartzeak erronka garrantzitsu bati aurre egin behar baitio Espainian, alegia, modernizazio administratiboaren prozesu betean,

erradikaltasunari eutsi behar baitio kudeaketa publiko berriaren programen bitartez, non burokraziarekiko kritika burokrazia gehiagorekin konpontzeko joera dagoen (Hibou, 2012, Baiocchi eta Ganuza, 2017). Aurrerantzean, hemen aipatutako hiru mugimenduak gehiago zehazten jarraitu beharko da; badago zertan sakondu ekintza publikoa gauzatzeko bitartekoen azterketan —batzuk ez ditugu hemen landu; besteak beste, herritarren parte-hartzea esternalizatzeko prozeduren barruan, eskala desberdinetako administrazio publikoen eta bitarteko eragileen arteko lankidetzak— hitzarmenak—. Horien nahiz administrazioaren bizitza osatzen duten beste dokumentu batzuen azterketa sistematikoa eginez, zehaztasun handiagoz kalkulatu dugu neoliberalismo parte-hartzaileak zer intentsitatekin desegiten duen demokrazia.

Demokrazia, merkatura edo gatazkara bideratuta? Oinarri juridiko-konstituzional berrien bila, bidezko ordena sozial eta ekonomiko baterako

Ainhoa Lasa, Leire Escajedo
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena. Erdi Aroan botere politikoa legitimatzeko balorazio etiko edo erlijiosoak erabili izan ondoren, garai berri bat heldu zen, zinetan politika horietatik bereiziko den. Hor Estatu forma desberdinak agertuko zaizkigu (absolutua, liberala, soziala, eta merkatu-estatu globala). Testuinguru historiko bakoitzean indarrean dauden indar- eta nagusitasun-harremanek baldintzatuko dute zein Estatu forma garatzen den. Eta, hori horrela, zera esan daiteke: Estatu mota bakoitza juridikoki artikulatu egiten dela baldintzapen batzuen mende, baldintzapen horien artean baliabide materialak eta sinbolikoak birbanatzeko jarduten duten harreman eta ekintzak daudela. Gizarte-erreprodukzio baldintzak esaten zaie hauei.)

Premisa horri jarraikiz, demokrazia, kategoria politiko eta juridiko gisa, baldintzatuta agertzen zaigu, zehazki leku eta garai zehatz batzuetan Zuzenbidean eta Politikan gizarte-erreprodukzioarako ezarri diren baldintzapean. Gaingiroki, XVIII. mendearen bukaeran sustraiak dituen estatu liberalean, hauxe barneratu zuen demokraziak: sistema ekonomiko liberalak juridikoki, legetan, markatuko dituen erreprodukzio sozialerako baldintzak. Horien artean, Estatuaren eta gizartearen arteko banaketa, sufragio zentsitarioa eta legearen inperioa direla medio. Geroago, XX. mendearen lehen hamarkadetan, estatu sozialaren formak berritasuna ekarriko zuen. Birbanaketaren aldeko borroka gizarte eta ekonomiaren esparruetan egotetik, Zuzenbidearen esparrura pasatuko zen, bereziki konstituzioetan eta lege politikoetan bildutako konpromisoen bidez. Horrek ekarriko zuen, estatu liberal klasikoan ez bezala, Kapitala eta Lana subjektu politikotzat hartzea, eta demokrazia masa politikoaren demokrazia bezala ulertzea.

Bitarteko bilakaerari ere arreta emango diogu, baina kapitulu honen mamia gaur egungo Estatu forma da. Krisi ezberdinek, bereziki 2008tik aurrera Mendebaldeko herrialdeetan pairatutako krisi ekonomikoak, bai eta, handik gerora, COVID-19aren pandemiak ere, sakondu egingo zuten dagoeneko errealitate zen estatu sozialaren formaren hausturan. Or-

den juridiko berriak merkatuari, merkatuaren forma globalari egingo zion mesede. Eredu juridiko horretan, erabaki araugileak hartzeko guneak pribatizatu egin dira, eta boterea eta politika birbideratu egin dira gizartea birsortzeko baldintza berri batzuetara. Baldintza horien erdigunea ez da jada birbanaketa, baizik eta merkatua. Aipatutako bilakaera-prozesuari arreta eskaini ondoren, modu hausnartuan aztertuko ditugu, alde batetik, ordena berri honek politikaren eta ekonomiaren arteko harremanetan ekarri dituen berezitasunak, eta, bestetik, horrek guztiak demokrazian izan dituen ondorioak.

1. **Demokrazia kontzeptuan topa daitezkeen dualtasun juridikoa (legitimazioa eta kontrola) eta politikoa (boterea eta menderatzea)**

Demokrazia esamoldea, antza, kontzeptu zabal eta malgu bihurtu da azken aldian. Hainbeste testuingurutan eta askotariko asmoekin erabiltzen da, batzuetan substantibo gisa eta beste batzuetan adjektibo edo adberbio bihurtuta, eta horrek eragin paradoxikoa du. Asko erabili izanak kontzeptua trinkotu ordez, demokrazia kontzeptua hitz huts eta edukirik gabeko termino bat bihurtzen ari da. Hitzek hitz, egia da demokrazia hitzak nolabait gogoratzen duela boterearen titulartasuna herritar guztiei esleitzen (edo aitortzen, nahiago den bezala) zaiela, baina deigarria da gaur egungo proposamen askok demokraziaren azken helburuetan baino gehiago, formetan jartzen dutela arreta. Hau da, badirudi ahaztu egiten dutela *demosak* gaitasuna behar duela boterea (*kratos*) zertarako eta zein helbururekin erabili nahi duen finkatzeko, eta oligarkia baten erabakiak ez direla demokratiakoak, sinbolikoki eta azaletik herritarren iritzia nolabait kontsultatzeko lekua utzi delako.

Bere *The moral basis of democracy* liburuan, Eleanor Roosevelt-ek zera esaten zuen: *ehunka pertsona etxerik eta elikagairik gabe daudenean, gogoeta egiteko garaia da zenbat demokrazia dugun eta zenbat izan nahi dugun jakiteko*. Haren hitzak erabat aldarrikatuz, oraintxe bertan gaineratuko genuke, espero dugun demokraziaren kantitateari buruz hausnartzeaz gain, garrantzitsua izango litzatekeela demokrazia horren kalitateari buruz ere hausnartzea edo, zehazkiago, lasaiago aztertzea *demokrazia gehiago* esamoldeari lotuta gure burura zer datorren (Roosevelt, 1940). Esamoldea hainbestetan erabiliz gero, badirudi demokraziaren kontzeptuaren profilak desitxuratu egin direla eta tamalez zapalkuntza-formen zerbitzura jarri direla. Zapalkuntza-forma horiek, izan ere, beste garai batzuetakoak baino atseginagoak direnez, oharkabean pasatzeko arriskua dute. Dirudienez, deriba horrekin berriro ere estropezu egingo dugu Alexis de Tocquevillek (1990) duela ia bi mende deskribatu zuen harri batekin: *Gizarte demokratikoez lehen ezagutzen ez ziren zapalkuntza-formak sortzeko arriskua dute; zapalkuntza-forma horiek, pertsonak degradatu egin ditzakete, haiengan tormenturik sortu gabe, eta hori horrela posible zaie pertsonak artalde gisa eramatea*.

Zapalkuntza modu horiek sotilak dira. Tocquevillek esan bezala, tormenturik gabeko degradazioa sortzen dute. Besteak beste, zera egiten dute, pertsona bakoitza bere buruaren gainean biraka jartzen dute, bere interes eta nahietan arduratuta, eta horrela lortzen dute pertsonak elkarrengandik aldentuta, urrun, dituen gizarte bat. Gizarte arazoei arretarik ematen ez dien gizartea da hori. *Panem et circenses*, zioen Juvenalek Erromatar Inperioaren garaian (Juvenal, 2007: 90-127) hiritarrek jatekoa eta aisialdirakoa dutela, boteretsuek askatasun osoa dute edozer gauza egiteko, ezen hiritarrak ez daude azken hauetaz arduratuta. Bitxia bada ere, demokraziarekin paradoxa bati eman dakioke sorrera (De Vega Alonso, 2012). Pertsonak askoz askeagoak sentitzen dira, tormenturik gabe, baina benetan botere nagusien mende daude (Aguilar, 2018), botere sotil baina askoz indartsuagoen mende. Gainera, kontzientzia kolektiboa izateko eta gizarte berean sinesmenak, ideiak eta sentimenduak partekatzeko gaitasuna hondatzen da (Durkheim, 1893). Eta egia-ostearen artistek aukera gehiago dute; pertsonak erresistentzia txikiagoa erakusten dute egia eta faltsutasuna lausotzen duten kontakizunekiko, gertaerak eta fikzioa trebetasunez nahasten dituzten kontakizunekiko (Arendt, 2017).

Zaila da egoera hau baikortasunez ikustea. Mendebaldeko gaur egungo herrialde batzuetan, Europakoak barne, badirudi ez dagoela diskurtso politiko boteretsuagorik demokrazia eta askatasuna ordezkatzeko dituela dioten hizlariarena baino. Zenbaitek ahotsa eman nahi die ez hiritar zehatzei, baizik eta «jende» deritzoten masa formagabe bati. Hipnotizatuta, gizarte talde mota hark —Tocquevilleren esanetan «artalde»— joera du demokrazia izenez proposaten dioten edozer ontzat emateko, hausnarketarik gabe. Hori horrela, nahiz eta gezurra izan erraz sinets dezake demokrazia gehiagok biziko omen dela, eta sinesmen horri eutsita uko egin ahal die egunerokoa eragiten dioten erabaki kolektiboetan parte-hartzeari.

Horri egiten zaio erreferentzia *demokrazia etxekotu* dela esaten denean. Azken hamarkadan, bereziki hedabide eta tresna digitalak direla medio, mekanisko ugari sortu dira, sasi parte-hartzeari leku emanen diotenak. Hala, adibidez, gardentasun-mekanismoak edo herritarrek parte-hartzeko modu berriak. Lehen begiradan hautematen ez badira ere, demokrazia mehatxatzen etorri dira, izen handi horien atzean ez baitago kexa eta iradokizunen postontzi bat baino, inork irakurriko ez dituen mezuak metatu besterik egiten ez duena. Adibide bat jartzearen, Madrilgo Erkidegoko 10/2019 Legeak bere hitzaurrean dio herritarrek gero eta interes handiagoa dutela «*eragiten dioten erabaki publikoetan parte-hartzeko*», eta ezinbestekoa dela nahi horri *bide ematea*. Jarraian, ordea, ohar-tarazten du parte-hartze horrek «*ez lukeela oztopatu behar ez funtzio legegilea, ez betearazlea*», eta, koherentzian, Legearen testuak, oso luzea dena, azaltzen du zein diren herritarrek kexa eta iradokizunen postontzi horietara iristeko dituzten aukera urriak.

Ez da ezer berria. Bere garaian, *Tatcherismoaren agendak* (Erresuma Batua 1979-1990), politika neoliberal sendoengatik historiara igaro den gobernu hark, eskutik zertorren *herritartasun aktibo* bat bultzatzen omen zuen diskurtso batekin. Egia da erretorika hura norbanakoaren eta merkatuaren baieztatpenean zentratzen zela (zatitu eta garaitu egingo duzu), balio komunitarioen sustapenean baino gehiago (Faulks, 1998).

Baina pertsona askorengan herriartasun aktiboaren lelo hura oso erakargarria suertatu zen. Egun diskurtsoak ez du hain mamitsua izan behar; klicktibismoaren garai hauetan, txio baten 280 karaktereak txukun idatzita, nahikoa da. Eta azkenean, artaldea eramateko trikimailua beti bezain sinplea da: hatzak ilargia erakusten duenean, ergela hatzari begira geratzen da. Parte-hartzea, demokrazia edo antzeko etiketa jartzen diogun bitartean, badirudi gutxi izango direla hatz hori ilargitik zein urrun dagoen konturatuko direnak. Eztabaidagarria litzateke zenbat *demos* dauden parte-hartzeko mekanismo horietan, baina argi dago, sarritan demokrazia erreal edo efektiboaren tresna bezala aurkezten bazaizkigu ere, mekanismo horiek herritarrei *kratos* (botere) gutxi esleitzen dietela. Zerbait izatekotan, demo-fikziozko mekanismoak direla esan beharko genuke.

Demokrazia elastiko, malgu bihurtzeko joera edo tentazioa, ordea, ez da beraz berria. Adierazpen historiko eta geografiko desberdinak izan dituen tentsioaren bertio eguneratua besterik ez da. Horregatik guztiagatik, egokia dirudi gaur egungo ikuspegitik historiaren azterketa egitea, eta baita ikustea ere estatu demokratikoen forma ezberdinetan Zuzenbidea eta Politikak zeren inguruan dantza egin izan duten. Horri dagokionez, ikusiko dugu metodo juridikoen eta metajuridikoen arteko etengabeko dialektika bat dagoela hurbilketa kontzeptual orotan, eta ikusiko dugu, baita ere, iritzi aurkakotuak daudela demokraziak arlo politikotik haratago —hau da, arlo sozialean— zer-nolako proiektzioak izan behar dituen zehazterakoan. Demokraziaren dualtasun politiko eta juridikoaren teorizazioek aurrez aurre jartzen dute demokraziaren esanahia; batetik gobernu forma lez eta araubide juridiko lez erabiltzen da, bestetik boterearen eta menderatzearen dinamika faktikoekiko tresna bezala.

Horrela, gutxienez, lege politikoetan —konstituzio testuetan bereziki— proiektzioa izan duten demokraziaren kontzeptuaren bi orientabide nagusirekin egingo genuke topo. Lehen kontzeptu bat, erronkatsua, demokrazia era sakonago batean ulertzen duena, eta bigarren kontzeptu bat, prozesualagoa. Azken hori historian aurrenik agertu zen, baina kontzeptzio bien arteko alde ondo hautemateko, komenigarria izaten da kontzeptu sakona, osatuena, lehendabizi aurkeztea. Hona hemen demokrazia kontzeptuaren orientabide nagusi biak:

- a) Lehenik eta behin, **demokraziaren kontzeptu bat dugu, zeinean erabakigarria baita demokratizazio-prozesuak nola eratzen diren gizarte-erreproduktzio baldintza materialekiko** (Gianinni, 1986). Hemen demokratizazio-prozesuak hartzen dira, ez bakarrik boterea eskuratu zein parte-hartzeko baldintzak, baizik eta boterearen erabilera dinamikoa ere, bere dimentsio askotarikoetan; hau da, ez bakarrik dimentsio politikoan, baizik eta dimentsio sozial, ekonomiko eta kulturean ere bai. Ikuspegi horretatik, demokraziak, kontzeptu bezala, irismen zabalagoa hartzen du; hau da, demokrazia ekonomikoa, demokrazia soziala eta demokrazia kulturala barneratzen ditu. Ikuspegi horren arabera, gizarte demokratikoak, bere burua finkatzeko eta oligarkia politiko eta ekonomikoetatik babesteko borrokan, zera du helbu-

ruzat: ahal den neurrian, gehiengo sozialarekin bat datorren borondatea nagusi izatea. Parsons-ek zioen bezala, kohesio hori ez dago soilik arau edo balio partekatuen mende; kohesio sozialerako ezinbestekoa da ondasun garrantzitsuenak —material zein sinbolikoak— gizarte bat osatzen duten giza-banakoen artean era egokian banatuta egotea (Parsons, 1961). Gizarte baten kohesiorako funtsezko baldintzak dira, alde batetik, gizarte horrek bere kide guztien ongizatea bermatzeko duen gaitasuna, baliabideetarako sarbide ekitatiboa barne; eta bestetik, kohesiorako baldintza ere bada gizarteak egiten duen ahalegina desberdintasun sozial eta ekonomikoak murrizteko. Demokraziaren kontzepzio hau sustatzen dutenentzat, baldintza horiek ezinbestekoak dira demokrazia eraginkor baterako (Frazer, 2011).

- b) Aipatutako kontzepzioaz gain, literaturan eta politikan **demokrazia kontzeptu zorrotzago bat ere erabiltzen da, mugatuagoa**. Bigarren ikuskera honen arabera, *demokrazia erabaki erabat politikoak legitimatzeko eta kontrolatzeko mekanismoa hutsa da*; bat dator hori modernoan demokraziaren formulazioarekin, ordezkaritza ideiarekin. Funtsean, demokraziak botereari muga ezartzen dio —muga erabat politiko—, eta, beraz demokraziaren funtzioa sektoriala da, botere politikoa kontrolatzeko funtzioa du. Arrazionaltasun politikoaren oinarria legitimatu asmoz, «*gizaki libre eta berdinen arteko*» itun edo kontratu sozialaren sofisma erabiltzen da, itun horrek adierazten dituela inklusio/bazterketa erlazioak (Mortati, 1969).

Sar gaitezen orain apur bat gehiago demokraziari buruzko bi ikuskera handi horietan eta ikus dezagun une historiko desberdinetan ikuskera horiek nola islatu diren (2). Hori finkatu ondoren, esparru konstituzional bakoitzaren ahuleziak aztertuko ditugu (3), eta horrek bide emango digu gaur eguneko egoerara nola heldu garen azaltzeko. Merkaturia abantaila hartuz joan da, legeaz baliatuta, eta bide horretatik posible izan zaio estatu-eredua bere alde eraldatzea. Fenomeno horren oso adibide argia da Europar Batasunaren ereduak izan duen joera, legeaz baliatuz merkatuak estatuak eta estatuen gaineko egitura bere mesedetan jartzea lortu baitu. Aztertuko dugunez, gaur egun Europar Batasuna merkatu-botere globalaren esparru konstituzional hobetuena da, tamalez merkatura bideratutako demokraziaren paradigma (4).

2. Demokraziaren ideia ulertzeko era nagusi biak eta bakoitza nola juridifikatu den konstituzio-promesa ezberdinetan

Aurkeztu berri ditugun demokraziaren bi ikusmolde nagusiak, garai eta espazio desberdinetan formulatu dira. Aipatu bezala, bigarren ikusmoldea, demokrazia le-

gitimazio-mekanismo gisa ulertzen duena, zaharrena da. Estatu liberalaren formari eusteko postulatu teoriko-ideologikoen formulazioan presente egon zen. Erraz ikus daiteke 1789ko Frantziako Iraultzatik eta Estatu Batuetako Independentziatik eratorritako profil prototipiko konstituzionaletan, besteak beste, *Ipar Amerikako Hamahiru Estatu Batuek* (1776) aho batez aitortu zituzten printzipioetan.

Ipar Amerikako britainiar kolonien *Independentzia Adierazpenak* (1776) eta *Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Frantziako Adierazpenak* (1789), bakoitzak bere testuinguruan, ordura arte ordena politiko eta soziala ulertzeko erabili zen modua behin betiko zuzendu nahi izan zutela zirudien. Iraganarekiko haustura aipatzen dute, bai eta, etorkizunari begira, pertsonen zorionarekiko irekiera bat, zoriona *bizitza-osotasun* gisa ulertuta. Bi iraultza horiek menderatu zituen burgesiak konbentzimendua zuen historian garai berri bat inauguratzen ari zela (García de Enterría, 1994); sinetsita zegoen Estatuaren aldetik interferentziarik gabe gizartea berez gai izango zela ordena berri bat eratzeke. Eta sinetsi zuen ere ordena horretan giza izaerari datxekion eskubideak berez, inolako estatu-ekintza aktiborik gabe, bermatuta egongo zirela.

Demokraziaren ikuskera horri aurkakotua, beste bat ikusi dugu: legitimazio hutsari baino gehiago, erabakiak hartzeko prozesuei arreta ematen diena. Bi mundugerren arteko aldiari formulatzen da, langile-identitate sozialaren subjektibazio politikoaren ahaleginekin batera —lana subjektu politiko gisa onartzeko saiakeran, alegia—. Subjektibazio hori ez du soilik hemeretzigarren mendeko liberalismo politikoak ukatzen, baita hogeigarren mendeko faxismoak eta nazismoak ere. Weimar-eko Konstituzioa (1919) erreferentziatzko arau-testu gisa hartzen da konstituzio-ziklo berri baten inaugurazioan: *konstituzionalismo sozialarena*. Konstituzio batean lehen aldiz baieztatu egin zen kapitalaren eta lanaren arteko gatazkaren zentraltasuna, eta esparru ekonomikoen eta politikoen artean ordura arte egiten zen banaketak zentzua galduko zuen; banaezintzat hartuko ziren.

Konstituzionalismo sozialaren demokrazia kontzeptuak, hala ere, ez zuen lortu kontzeptu liberal hutsaren desagertzea. Nolabait, zenbait aktorek eta pentsalarik, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, bi nozio horiek konbinatu nahi izan zituzten. Konstituzioetan, Europar Bigarren Mundu Gerraren ostean idatzitakoetan, demokrazia aitortu zen, aniztasun politikoaren balioaren bitartekari gisa. Zehazki, ulertu zen, erkidego politiko berri bat egituratu ahal izateko, hiritarrek beren eskubide natural indibidualen parte bat delegatu egiten zutela. Eta estatuaren egitura eta araubide juridikoa antolatu ziren, ordena liberal politikoaz eta ekonomikoaz bestelako parametroetatik. Boto unibertsal eta berdinean oinarritutako ordezkartza-gobernua aitortu zen.

Bigarren Mundu Gerraren ondorengo lege politikoak dira 1947ko *Italiako Errepublikako Konstituzioa*, 1949ko *Bonneko Oinarrizko Legea* eta 1978ko Espainiako Konstituzioa. Azken hau besteak baino beranduagokoa, diktadoreak 1975era arte, bere heriotzera arte, lortu baitzuen karguan mantentzea eta bere ondorengotzarako ere, frankismoaren jarraitutasunerako plan bat prestatuta utzi ere. Konstituzio horietan guztietan arreta berezia jarri zen era esplizituan jasotzeko: demokrazian aniztasun eta parte-hartze politikoak duten garrantzia eta herritar guztientzat gutxieneko ongizatea lortzeak duen ezinbesteko izaera. *Bonneko Oinarrizko Legearen* 1.1 eta 20. artikuluetatik abiatuta, hau da, pertsonaren duintasuna eta Ongizate Estatuaren printzipioak abiapuntutzat hartuta, Alemaniako Auzitegi Konstituzionalak interpretatu zuen konstituzio-testutik ondorioztatzen dela pertsonak bizi-maila duina bermatzeko duen eskubidea. Hala ere, aitortzen du legegileak zehaztu behar duela oinarrizko eskubide horren edukia, besteak beste, erkidego osoaren garapen sozioekonomikoaren maila kontuan hartuta.

Legitimazioaren demokraziaren nozioa eta prozeduren demokraziarena konbinatzeko asmo hori nolabait erraztu egiten da bigarren mundu-gerra ostean konstituzioek izaera edo kutsu sinboloko oso nabarmen bat bereganatuko dutelako. Zuzenbide konstituzionalaren teoriak ez die konstituzio testuen elementu emozional edo irrazionalei arreta gehiegi jarri, arrazionalen azterketan aritu da gehienbat, baina egia esan sistema demokratiko guztiek dute *emozionaltasun* osagai bat. Ezaguna da, adibidez, Bagehot-ek gaur egungo monarkia demokratikoen irautea azaltzeko erabiltzen duen ideia: sistema politiko hauetan bi motatako osagaiek dantza egiten dute, alde batetik osagai eraginkorrak, bestetik osagai dignifikatuak —sinbolikoak, solemneak, nobleak—; azken hauen inguruan, guztiz azaldu/ulertu ezina den era batean, esanahiak eta emozioak pilatzen dira, aniztasunarekiko nolabait batasuna antzezten laguntzen dutenak, eta, beraz, herri baten existentzia politikoari nolabaiteko euskarria ematen diotenak (Bagehot, 1867).

Gizarte demokratikoak kontsentsu baten gainean bizi dira, antza, eta adostasun horrek, arrazionala ez ezik, irrazionala ere bada (nahiz eta zaila den jakitea zein portzentajetan). Arrazionaltasunari buruzko diskurtsoak eratzeaz gain, estatu guztiek, bizirauteko, irrazionaltasuna ere landu behar dute, eta nolabaiteko batasuna ziurtatu «*iritzi, interes eta asmo aniztasun baten barruan*» (Häberle, 2007). Horretan laguntzen dute, zalantzarik gabe, konstituzio testuak bezalako sinboloek; konplexutasuna murriztu eta gizartekideen multzoa bide berean jartzen dutela diruditen sinboloak dira; promesen horizonte bateratura begira jartzen dute gizartea. Sinbolo politikoen artean, argi eta garbi esan dezakegu konstituzioak *multivocal symbols* kategoriari atxikitzen zaizkiola, esanahi desberdinak onartzen dituztelako; are gehiago, esanahi antagonikoentzat ere badago lekua, batzuetan (Gill, G.; Angosto-Fernandez L. F., 2018). Interpretazioen aniztasuna une zehatz batean sokatira bihurtzen ez den bitartean, interpretazio ezberdinek bizirik diraute, elkarrekin topo egiten ez duten plano parale-

loetan. Sinboloek laguntza ematen dute identitate kolektiboak moldatzen eta aurpegi antagonikoen arteko identifikazio-prozesuak errazten.

3. Demokraziaren ahuleziak: zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoaren konstituzioak

Monoklase eta pluriklase estatuak (Cossutta, 2017): Gianniniren arabera (Gianinni, 1986), monoklase estatua XVIII. mendearen amaieran sortu zen historikoki, eta *antolamendu kohesionatua duen estatu zentsitario* izatea da haren ezaugarrietako bat. Iraultzatik garaile irten den burgesia da klase agintari berria, eta harreman guztiak gizabanakoaren inguruan eraikitzen dira. Gizabanakoa da ekimen-iturri eta erantzukizungunea. Zuzenbidearen rola ez da norbanakoarentzako zein gizartearentzako helburuak finkatzea. Zuzenbidea da bakoitzak nahi dituen helburuak (adibidez, industria, merkataritza edo lanbidea) lortzeko aukera ematen duen tresna.

XIX. mendeko estatu monoklasetik, pluriklasea den estatu-aparaturako igarora, estatu neutro edo liberal hutsa desagertzearekin batera gertatuko zen. Estatua, kolektibitatearen barruan dauden instantzia guztietara irekia, *prozedurazko estatu* bihurtuko zen; instantzia ezberdinen eta kontrajarrien arteko bitartekaritza egitura izatera deitua dagoen estatua. Nabaria da, beraz, Estatuak errealitate sozialarekin zuen harremana eraldatzen hasi zela. Fenomeno hau azaltzeko, Mouffek ohartarazi du garai guztietan egon direla herritartasun demokratikoaren ideari buruz lehiatzen diren ikuspegiak, tentsioak (Mouffe, 1993), nahiz eta garai bakoitzean tentsio horrek bere profil espezifikoak izan. Hala izan zen XX. mendeko hainbat unetan ere, eta hori gertatzen da, bere berezitasunekin, bizi garen garai honetan. Ildo horretan, estatu sozialak modernoek demokraziaren eraberritzea lortu nahi zuen, baina horrek ez zuen eragotzi eraikuntza politiko horren ahulezia: ahulezia gizabanakoaren eta taldeen zeregina ordenaren artikulazioan; eta ahulezia ere estatu-erakundeari eta esku hartzeko mekanismoei dagokienez. Azken horren sorburu zera da, gatazka sozialaren eta demokrazia pluriklase delakoaren kontingentzia legezketasunaren esparruan jotzen zela, eta ez zuela esparru konstituzionalera ailegatzerik.

Hala, nahiz eta gatazka demokratizatze prozesuek merkatua nolabait baldintzatzen zuten, hura mantendu egin zen gizarteratze pertsonala lortzeko gune nagusi bezala. Gatazka birbanatzaileak borroka izaera hartuzuen, baina horrek soberakinaren banaketari soilik eragin zion —eta ez, beraz, ondasunen muinari—; koherentzia, ekonomia kapitalistaren oinarria ere ez zen zalantzan jarriko. Hori zalantzan jarri ez izanak, aurrerago xehetasunez garatuko den bezala, estatu soziala desnaturalizatu egingo zuen azkenean. Kapitalaren metatzea, alde batetik, eta birbanaketa eskarien legitimazioa, bestetik, elkarren arteko sintonia galdu zuten, sistema ekono-

mikoak ezinziolako eutsi keynestar zirkulo birtuosoari. Orduan jarriz abian estatu-modu berri bat, literatura espezializatuan, besteak beste, *merkatu-estatu* izena jasozuena. Eta forma berri horrekin batera demokraziaren teorizazio kontzeptual berri bat ere sortu zen; edo hobeto esateko, kontzepzio liberal klasikoaren bertsio berri bat. Nolabait, batzuentzat behintzat, atzerapausoa izan zen, aurka egin baitzion klase-aniztasunaren aitortpena ireki zen demokrazia kontzepzioari. *Arrazionalismo monologiko* batetik abiatzen den demokrazia bat proposatu zen, hau da, antolaketa sozial, politiko eta juridikoaren arrazionaltasunaren oinarri gisa merkatuaren zentraltasunaren printzipioan hartzen zuena.

Zirkulu bertutetsu keynestarra (Jessop, 1993)

Keynesen eraikuntzaren funtsezko aldagai gisa, enplegu osoak emandako eskari eraginkorraren mailak soldata faktore nagusi gisa kokatzen zuen; aldi berean, soldata kanpoko dinamiken eta gizarte-ongizatearen arteko lotura zen; azpikontsumoa gainditzeko motorra (kontsumo-ondasunen gehiegizko eskaintza). Harreman industrialen eredu *fordistak* masa-ekoizpenean oinarritutako hazkunde-zirkulu bertutetsu bat zekarren. Eskalako ekonomietan oinarritutako produktibitate gero eta handiagoa, errenta gero eta handiagoeekin lotzen zen, eta azken horiek masen kontsumoa eta etekinen hazkundera bultzatuko zutela espero zen, sistema ekonomikoaren ekoizpen-baliabideen erabateko erabilera zela eta. Inbertsioek ere gora egiten zuten, eta, horrela, sistemaren funtzionamenduaren helburua lor zitekeen: enplegu osoaren helburua. Teoria *keynestar* horrek kapitalaren eta lanaren arteko konpromisorako oinarriak ematen zituen, non kontzeptu nagusiak metatze-erregimena eta soldata-harremana ziren.

3.1. *Kontraktualitate liberala, nazioaren botere demokratikoaren berme gisa*

Aurrerago, egungo merkatu-forma orokorraren eta haren zehaztapenen praktika zehatzak aztertuko ditugu, bai prozedura-zehaztapenak (parte-hartze politikoa, ordezkariak), bai materialak (ordena berriaren forma politikoa, ekonomikoa eta soziala). Baina azterketa hori egin baino lehen, beharrezkoa da gogoeta egitea hauteskunde bidezko demokrazia ordezkatzailaren postulatuari buruz; izan ere, demokrazia hori, Ingalaterrako, Frantziako eta Ipar Amerikako iraultza-esperientzia liberalen ondoren, gobernu modu konstituzionalizatuaren printzipio gisa hartuko baitzen. Ikuskera horien funtsezkoena da konfigurazio demokratikoa mugatu egingo zela *legezkotasunera*. Egiturazko kontzepzio honek gizarte bizitzarako zenbait printzipio ontzat emango ditu eta haien zerbitzura jarriko zuen ordenamendu juridikoa: merkatuaren autonomia, Estatuaren eta gizartearen arteko bereizketa, askatasun indibiduala eta jabetza. Printzipio horiek eratuko zuten komunitate politiko eta juridiko liberal berria. Botere absolutuaren erregimen politikoaren kontzepzioarekin

apurtuko zen, eta Konstituzioak baztertu egingo zuen edozein kutsadura metajuridikoa —hau da, aipatu diren printzipio horiek zalantzan jar dezakeen edozein kutsadura— (De Cabo Martín, 1993).

Erregimen konstituzional amerikarraren eta frantsesaren artean aldeak egon arren, antzekotasun garrantzitsuak dituzte bi erregimenek. Ordena liberal berriaren sorrera legitimatzen duen adierazpen juridiko eta arauemaileari erreparatzen badiogu, Konstituzioari antzeko funtzio bat esleitzen zaio. Boterea kontrolatzeko eta eskubideak bermatzeko funtzioak betetzeko tresna gisa aurkezten da Konstituzioa, Locke edo Rousseauk garatutako *tesi kontraktualisten ildoan*. Ikuspegi horretatik, *lex superior* delakoak boterearen titulartasunari eta haren mugei lotutako funtzioak zituen, eta, beraz, gizartearen premia-sistematik kanpo kokatzen zen (De Cabo Martín, 1986). Gizabanakoa autoritatetik emantzipatzea, bakarkako arrazionaltasun abstraktuaren bitartez baino ez zen posible, eta ez zen kontuan hartzen gizakia, gizaki bezala bizi ahal izateko, gutxieneko gizarte baldintza batzuk ere behar direla.

Kontratuaren ideia aplikatuta, gizabanakoak askatasun politikoa lagatzen du baldintzapekotasunaren truke, eta eskubide zibil eta politikoak jasotzen ditu. Adiera horrekin, Estatuaren eta gizartearen arteko bereizketa egiten da. Horrek aukera ematen du, halaber, *kolektibitate nazionalak* norbanako partikularren gainean dituen balioak baieztatzeko. Zuzenbideak *egoera naturalaren zuzenbideak* aurrikusitakoa errepikatzen omen zituen, eta horietatik subiranotasunaren oinarritzko arauak ondorioztatzen ziren. Kontratu sozialak menpekoen eta subiranoen ordez herritartasuna goraiatu zuen, baina herritartasun hori menpekotasunaren korrelatu bat besterik ez zen izan. Botere absolutuaren ordez eta aurkako, beraz, askatasun politikoa bermatzen omen zen, subiranotasunaren titular berri batekin: *nazioa*. Baina hori, azken batean, botere absolutua legitimatzeko modu (berri) bat baino ez zen izan, forma politiko eta juridiko berri batean ezkatututa: estatu liberala (Hinsley, 1972).

Ildo horretatik, subjektuen benetako baldintzak unean uneko testuinguru historikoaren esperientziekin lotzen baditugu, bi premisa gogorarazi behar ditugu, demokraziaren kontzeptua estatu liberalaren esparruan ulertzen laguntzen digutenak: Lehenengoa, Estatuaren eta gizartearen arteko banaketa. Bigarrena, konstituzioa legearen mende dagoela.

(1) Lehenengo premisa. Estatuaren (eremu publiko-politikoaren) eta gizartearen (eremu pribatu-ekonomikoaren) arteko bereizketa. Estatu liberalaren eraikuntza arrazoiaren mende geratuko zen ideia ilustratuan oinarrituta zegoen; politikaren eta ekonomiaren arteko harremanen konplexutasunak sinplifikatzea zen helburua. Hala ere, erregimen politiko liberalak benetan nahi zuen helburua burgesiaren gizarte-ugalketaren ordenaren baldintzak legitimatzea zen; hau da, Zuzenbidean islatu nahi zuen ordena juridiko liberalaren mundu-ikuskera soziala, ekonomikoa, politikoa eta kulturala. Baike, emantzipazioa gertatzen zen Estatuaren botere absolutuarekiko, baina legezkotasunarekiko mendetasuna hasten zen; subiranotasunaren titularrek sortutako arau juridikoekiko mendetasuna.

Mendekotasunak aurreko mendetasuna ordezkatu zuen, baina mendekotasun berriak Spinozak *subiranotasuna botere politiko gisa* definitzeko erabili izan zituen nota guztiak barneratu zituen (Spinoza, 1986). Orain, baina, subiranoaren izaera absolutoarenekin ordezkatu fikzio bat ezarri da; esaten da nazioa dela subiranotasuna duena, nahiz eta azken finean klase burgesa ordezkatzeko duen nazioa izan. Hori dela eta, subiranoaren beharraren justifikazioa eta subiranoaren mendetasuna negatiboan justifikatzen dira, borondate politikoa eta borondate pribatua bereiziz. Azken horrek ez du proiektio politikorik; borondate pribatua Nazio bilakatuko den erkidegoaren interesetatik kanpo dago. Hala, estatu liberalaren erreproduktio sozialaren baldintzen ondorioz Estatuaren eta Gizartearen bereizketaren jatorria espazio ekonomikoan bertan du sorburu. Espazio horrek zera eskatzen zuen, kapitalaren logikatik kanpoko edozein muga baztertzeko, haren interesak bermatzeko (Settis, 2017). Erabaki politiko hori eremu publikora eramateak esan nahi zuen esku-hartze sozialerako funtzioek ez zutela eraginik esparru pribatuan. Argi da beraz itxurazko deskonexio hori, praktikan ordena liberalaren azpian zegoen erabakiarekin lotuta zegoela: autonomia pribatuari, jabetza pribatuari eta kontratu-dogmari lotuta. Estatu liberalaren oinarri teoriko gisa, kontraktualisten tesiak hartzeak zera dakar, merkaturak beste egiten da interesak banaka egikaritzeko eremu gisa. Hori horrela, Estatuak eratzeko balio izan duen akordioa, aldi berean legitimaziorako tresna juridiko indartsu gisa hartzen da (Maestro Buelga, 2021).

Bigarren premisa gisa, (2) konstituzio testua, *lex superior* delakoa, legearen mende jartzea. Estatu liberalaren egitura monoklaseak ez zuen konstituzioaren babesik behar. Izan ere, kontraktualitate liberalaren oinarri ideologiko eta politikoa ziren bazterketa-irizpideek homogeneizatu egiten zuten jorratu beharreko arazoa: merkaturaren funtzionamenduaren bermea, lehia askea, jabetza indibiduala, kontratu-askatasuna, merkataritza eta lana.

Kontraktualitate liberala (Gorski, 2010). Iruditeria liberalean, ordenari bi kontratu edo akordioak eusten diote (agian egokiagoa litzateke promesak esatea): kontratu soziala eta ekonomikoa. Alde batetik, konstituzioak bermatutako eskubideak ditugu, funtsezko eskubideak; bestetik, promesa bat, merkatuak norbere interesa erkidegoaren onura bihurtuko duela, alegia.

Horri esker, ordenamendu juridiko liberalaren baliozkotasun-iturri gisa, beste ideia bat jorratzen da: legeetan islatzen diren interesak, gizartearen nahia islatzen du. Lege horien egitea parlamentu bakar bati zegokion; nazioaren borondate orokorren ordezkari bakartzat jotzen zen parlamentua, ahots bakarrekoa balitz bezala. Ez da harrizkoa liberalismoaren teorikoen erregimen politikoaren eraketa kapitalismo industrializatuaren erreproduktio sozialaren ordenarekin lotzea. Kapitalismo industrializatuaren ulermenean, kapital industrialaren ordenaren ezaugarri zen lan-banaketa (pertsona bakoitzaren gaitasunen, trebetasunen eta trebetasunen arabera muga-

tutako zereginetan espezializatzea); hori politika-esparrura eramango da, hautapen bidezko ordezkartzaren bidez. Ereku pribatuan, pertsonak libre ziren kontratu-autonomiaren esparruan adostasuna emateko edo ez emateko; esparru politikoan, berriz, paralelismo bat aplikatuta, ulertuko da adostasuna —kasu honetan autonomia politikoa jatorri duen adostasuna— agintaritzaren legimitimoaren iturri bakarra dela, eta, beraz, betebeharraren politikokoaren oinarria.

3.2. *Konstituzionalismo soziala, demokratizazio kolektiboa eta kapital-egituren baldintzatzaileak*

Merkatu-ekonomia sozial izena jaso duten eredu-erantzoko bilakaeran, bi kontratu horiek, soziala eta ekonomikoa, malgutu egiten dira (Gorski, 2010). Kontua da, sistema zehatz bakoitzean, horietako bakoitza zenbat malgutzen den. Sistema batzuetan, herritarren lege-estatusa, egitate batera baino gehiago *legezko estatutu* formal batera murizten da (Walzer, 1997). Herritarren arteko berdintasuna aitortzen da, baina zentzu formalean; berdintasunak esan nahi du legea guztientzat modu berean interpretatzen dela. Ez du beraz, helburu materialik, ez du bidegabekeria sozial eta ekonomikoa zuzentzeko asmorik. Koherentziaz, lege-sistemaren eraketa eta, hedaduraz, ordenamendu juridiko osoaren antolakuntzak zera bilatzen du: *statu quo* delakoa mantentzea. Bestera esanda, jatorrizko egoera hori ontzat ematen da, idealizat, eta ez du eraldaketa sozial ez eta hobekuntzarik behar. Ziurtzat jotzen da agertoki hori behin betiko eraikuntza-mailara iritsi dela. Beste sistema batzuetan, ordea, konstituzio-testuek gizartea eta ekonomia eraldatzeko promesa jasotzen dute, eta horietan konstituzioa *itsasargi gisa* aurkezten da, sistema politiko eta sozialaren norabidean erreferentzia, helburu utopikoa markatzen duen elementu gisa (Häberle, 2007).

Historikoki, behintzat, adierazpen formalenetan (konstituzio-testuak barne), demokraziak *proiektu gisa* azaldu dira beti, herritar guztien oinarrizko eskubideak eta askatasunak babesteko helburudunak. Volkmannek azaltzen duen bezala, konstituzio testuak botere eta funtzioen esparru baten hezurdura gisa sortu ziren. Denboran iraun dutenen kasuan —AEBko 1787koa, kasurako— esan ohi da, agian haien arrakastaren oinarri izan dela komunitate politikoa konprometituta sentitu dela konstituzioetan islatutako balio eta printzipioekin, edo testu horiek, perfektuak izan ez arren, sinbolikoki islatzen dutenarekin (Volkman, 2008). Konstituzioarekiko konpromisoak, aldi berean, nolabaiteko iraunkortasunari eustea esan nahi du, komunitatearen azpian dagoen adostasun baten zentzuan. Badirudi adostasun horretan izan daitezkeen aldaketak izatekotan, aldaketa horiek gertatuko direla gutxi gorabehera arrazionala eta aurreikusteko modukoa den esparru baten barruan. Hau da, aldaketa bortizik ez da espero. Egia da hasierako konstituzioetan jada adostutako abiapuntuak oso irekita uzten zuela proiektu komunak nola amaituko zuen (Ackerman, 1993), baina guztietan jaso izan zen gutxieneko bizi-baldintza duinen aldeko aldarriren bat.

1776ko Independentzia Adierazpenean, adibidez, *zoriontasuna lortzeko eskubide besterenezin* gisa adierazi ziren gutxieneko bizi-baldintza horiek.

Baina hemeretzigarren mendeko konstituzionalistek irudikatutako gizartea ezin izan zen gauzatu. Ordena sozial eta ekonomikoan Estatuaren nolabaiteko esku-hartzerik gabe, ezinezkoa zen ordena sozial minimo bat eraikitzea, non pertsona guztiek beren zoriontasuna benetan bilatu ahal izango zuten. Jatorrizko desberdintasun-egoera batetik abiatuta ezin da komunitate demokratiko bat ulertu; partekatzen den ondasun komun bakarra ezin liteke soilik norbanakoaren askatasuna izan. Beste zer-bait behar da: ekitatea; ongizate kolektiboa bermatzeko elementuak. Liberalen ordenari uko egin gabe, Bigarren Mundu Gerra eta gero herrialde batzuek, hala nola Alemania, Italia edo Espainia, beren konstituzioak aldatu zituzten, Estua —nolabait— ordena sozial eta ekonomikoari dagokionez birkokatzeke —ikus gorago esandakoa—. Optimistek interpretatuko dute konstituzio horiek *konstituzionalismo soziala* deiturikoa hartzen dutela abiapuntutzat, baina ez da guztiz egia. Egia da ez diotela eutsiko politikaren eta ekonomiaren arteko banaketari, eta ordena soziala eta ekonomikoa eraldatzeko bokazioa islatzen dutela nolabait. Horregatik jaso izan dute *ongi-zate estatu* izena. Eraldaketarako aurikusitako tresnak, berriz, ahulak dira.

Izatez, konstituzio-testu horietan baliokide gisa identifikatzen dira lehen kontrajarrita bezala adierazi ditugun demokrazia kontzepzio biak: modernoan gobernu ordezkatzaila den demokrazia eta prozesu dinamiko gisa ulertutako demokrazia. Hori horrela, inklusioan oinarritutako prozesutzat hartzen da demokrazia, berdintasun-eta desberdintasun-irizpideen arabera, eta identifikazio horrek oximoron bati ematen dio bidea: *hautaketaren bidezko demokrazia ordezkatzailarena*. Sufragioa hedatu egingo zen, eskubide politikoen titulartasun aktibo eta pasiboak garatu eta, beraz, demokrazia-renganako hurbilketa ez zen jadanik teoria politiko-liberalaren dogmapean egitaratuko. Baina aldaketa horiek ez ziren nahikoak izan konstituzionalismo sozialak kapitalaren metatze-estrategiaren mugak gaindi zitzan. Gogora dezagun, puntu honetan, estatu sozialaren funtsa kapital-lanaren gatazkan oinarritzen zela, gerraosteko kapitalaren erreproduktzio sozialaren ordenaren oinarri gisa. Formalki, birbanaketa-gatazkaren bi subjektuek (kapitalak eta lanak), Bigarren Mundu Gerra osteko europar konstituzioetan onarpen juridiko-politikoak jaso zuten, baina demokrazia politikaren esparrutik haratago eramateko asmorik ez zen konstituzioan gauzatu. Praktikan, horrek esan nahi zuen prozesu demokratizatzailearen isla ekonomikoak eta sozialak potentzialki *eskura zegoenaren eta ahal zenaren* espazioan kokatuko zirela, eta inoiz ez haratago. Beraz, asmoa ez zen gizarte-klaseen jabetza eta antolaketa gainditzea. Definitu gabeko erreforma baten ideia izan zen promestutakoa, erreforma horren zenbatekoa zehaztu gabe. Beraz, arlo politikoaren eta sozialaren esparruetan, joeraz pluriklase zen estatu baten ideia onartzen zen, baina oraindik monoklase mantenduko zena ekonomiaren zuzendaritza politikoaren esparruan (Cassese, 1994). Konstituzio sozialaren demokrazia honek ez zion beraz, lehia birbanatzaileari lekurik utziko, ez zen egongo demokrazia kolektiborako biderik, eta hori faktoreetako bat izango zen estatu sozialaren formaren deskonposizioan.

Demokrazia kolektiboa (Abendroth, 1986)

Estatu sozialaren nozioak ez ditu soilik partikularrak botere publikoaren aurrean dituen eskakizun zehatzak biltzen. Nozio horrek zentzu osoa du agerian uzten duenean demokrazia batek funtziona dezakeela soilik demokrazia gizartera hedatzen bada, eta gizarte-klase guztiei aukera berdinak eskaintzen bazaizkie prozesu ekonomikoan.

Demokrazia birbanatzailearen espazioak demokrazia ordezkatzailearen esparruan baino ez ziren entseatu, eta horrek parte-hartze, elkartze, greba edo negoziazio kolektiborako eskubideen bermerkantilizazioa eragin zuen (Santos, 2005). Gatazka-guneak desegin ziren, langile-klaseen arteko elkartasun-babesaren profilak ahultzeko helburuarekin. Ondorioz, kontratu sozialaren oreka ere kaltetu zen.

Testuinguru horretan, Estatuak zeregin berriak hartuko ditu, jatorrian estatu sozialaren oinarri konstituzionalan esleitu zitzaion roletik urrunduz. Harreman sozio-ekonomikoen berrantolaketan, estatu berriak, orain merkatuan oinarrituta dagoenak, metatze-funtzioa hartu zuen bere gain eta saiatu zen desegiten estatu sozialaren ikuskera integratzailean inplizitua zegoen gatazka. Aldaketa horiek nola gertatu diren, hau da, Estatuaren izaera, funtzioak eta forma politikoa nola aldatu diren aztertuko ditugu orain, horiek multzo moduan identifikatzeko *merkatu-estatu* izena erabilia (Maestro Buelga, 2016).

4. **Merkatuaren forma globala: Europar Batasuna zehaztaperen politiko-juridiko gisa**

Merkatu-estatuaren forma berria lege-ordenak ezartzen dituen loturez baliatzen da, hura merkatuaren zerbitzura jarritz. Katharina Pistorrek zehaztasunez azaldu bezala, legea aberastasuna eta gizarte bereizkeria sortzeko tresna bilakatzen da, nahiz eta konstituzioetan islatutako konpromezuek beste gauza bat aditzera eman (Pistor, 2022). Merkatu-estrategiak eta zuzenbideak elkarri eragiten diote, Estatuaren funtsa era sakon batean eraldatuz.

Premisa horren arabera, esan dezakegu *merkatu-estatuaren* estrategia globalizazio finantzario eta ekonomikora bideratzean datzala; orientazio hori estatu-forma berriaren oinarri legitimatzaile gisa aurkezten da. Haren printzipioak konstituzioaren diseinu berrian txertatzen dira, honako osagai hauek dituen dinamika batetik abiatuta: (1) Estatuaren gutxieneko esku-hartze bat, ondasun ukigarri eta ukiezin jakin batzuetara mugatzen dena (gizarte-ongizatea, hezkuntza, ingurumena); (2) merkatu globalaren aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzea, goi-mailako teknologiak zeregin erabakigarria betez; (3) nazioartean boterea bilatzea, estrategia politiko ekonomikoak dituzten eskualde-bloketan parte hartuz (estatu-eskala gainditzea); (4) eta beste estatu-erakunde lehian aurrea hartzea lehiakortasun metodo alternatiboak erabiliz —lehia soziala eta finantzario desleiala—.

El Código del Capital – Cómo la Ley crea riqueza y desigualdad (Pistor, 2022), 15-16, 20 or. Laurogeiko hamarkadan, bai merkatu garatuetan, bai gorabidean zeudenetan, erreforma ekonomiko eta legalak aldarrikatu ziren, baliabideak esleitzeko garaian merkatuei lehenasuna ematen zietenak gobernuen aurretik, [...]. Mundu guztiak aurrera egin ahal izateko baldintzak sortzea zen asmoa. [...]. Hogeita hamar urte geroago, ez gara oparotasun unibertatsala ospatzen ari. Ezta gutxiago ere. 1789ko Frantziako Iraultzaren aurretik zeuden desberdintasun sozialeko mailak lortu ditugu, eta hori beren buruari demokrazia deitzen dioten herrialdeetan; autogobernu-konpromisoa gehiengoaren gobernuan eta ez eliteen gobernuan duten herrialdeetan. Kapitalismoak zera behar izaten du, aktibo batzuei pribilegio legala ematea, eta horren ondorioz, aktibo horien jabeek abantaila dute aktibo horiek ez dituztenen aldean.

Merkatu-estatuaren paradigmatik aurkakotu egiten zaizkie Europan estatu sozialaren urrezko hamarkadetan gauzatu ziren esku-hartze moduei. Merkatu-estatua eta estatu soziala bateraezinak dira, besterik gabe. Komunitatearen ongizatearen bilaketa aurrerapen indibidual batekin ordeztzen da, zeina merkatuen liberalizazioaren bidez bakarrik posible den (Jessop, 2002).

Prozesu politiko eta juridiko honetan, Estatuak da protagonista nagusia. Beraz, *merkatu-estatua* instantzia politikoak hartutako erabaki gisa aurkezten da. Kapitalismo instituzionalizatu horrek esan nahi du merkatua erakunde politikoak dela eta, beraz, Estatuarekiko mendekotasun-harremanak ezartzen dituela. Globalizazio finantzarioak estatuek sortutako baldintza politiko liberalizatzaileekin duen lotura estua, merkatuaren eta Estatuaren arteko loturaren adibideetako bat da (Helleiner, 1999). Prozesu honek berezitasun nabari bat du. Merkatuaren zentraltasuna da paradigma globalizatzailea, eta horrek zenbait muga ekarri ditu, zeintzuen ondorioz estatu sozialaren eraketaren lotura politikoak desagitzen diren. Muga horiek sistemaren antolamendu-printzipio berriak ere zehazten dituzte.

Moneta-koordinazioa eta politika ekonomiko diziplinatzaileak (aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna) dira Estatuaren antolaketa legitimatzen duten elementuak merkatu globalean, Europar Batasunaren kasuan ikus daitekeen bezala. Progresiboki estatu sozialaren berezko printzipioekiko haustura dakarten antolamendu-printzipioak finkatzen dira, zehazkiago esanda, birbanaketa-gatazka integratzeko mekanismoekiko haustura dakartenak. Birbanaketa-prozesuetan partaidetza-eskubide kolektiboek (greba, negoziazio kolektiboa) zekarten bermea galtzear da, eta, horren ordez, lan-harremanen monetarizazioa ezarri da. Horrela, merkatuko indarrek lanaren «faktorearen» balio pribatua soilik hartzen dute beren gain, eta ez haren balio soziala (Losurdo, 2013).

Deskribatu den globalizazio finantzarioaren estrategiak eragina izan du eskala nazionalen eta nazioz gairik, eta eskala horiek, aldi berean, elkarri eragiten diote. Gainera, esparru ekonomikoaren eta politikoaren konposizioa kapital finantzario globalaren eskalatik definitzen denez, Estatuak testuinguru berri batean txertatzen dira.

tzen da. Alde batetik, espazio global horrek estatu sozialarekiko haustura indartzen du; eta bestetik, aldi berean, espazio global horretatik boterea eta gizartearekiko harremanak antolatzeko modu berri bat bultzatzen da; horrela, *merkatuaren forma globala* sortzen da (Maestro Buelga, 2022).

Planteamendu horrek zalantzan jartzen ditu azken hamarkadetan finkatutako formulazioak. Gogoeta horiek ikuspegi desberdinetatik interpretatzen dute zein zeregin duen Estatuak merkatuaren forma globalak ezarritako ordena berriaren eraikuntzan, eta, oro har, bitan laburbil daitezke:

1. Formulazio batzuek interpretatzen dute **estrategia globalizatzailea transizio ebolutiboa dela eta ez duela ekarri estatu sozialaren formaren aurkako elementurik**. Tesi hori oinarritzeko, argudiatzen da estatu sozialak eta bere konstituzioak tarte bat dutela merkatua ulertzeko modu berria hartzeko; hau da, merkatuaren kontzeptua lehiaketa gisa eta lehia gisa, globalizazio ekonomiko eta finantzarioaren printzipioen esparruan. Interpretazio horren arabera, merkatuaren zentraltasunak estatu maila eta estatuaz gainekoa lotu egiten ditu, jarraitutasun terminoetan eta hausturarik gabe. Horrela, merkatuaren zentraltasunak ez du esan nahi interbentzionismo publikoa ekonomiatik kendu behar denik, Estatuak parte-hartzeko beste modu bat baizik, merkatuaren arauak baizik, eragile ekonomiko pribatuen baldintza berberetan (Bognetti, 2005).
2. Bigarren hausnarketa batek **Estatuaren subiranotasuna berreskuratzeko asmoan** kokatzen du bere gakoa, horrela gainzorpetzearen presiotik eta estrategia globalizatzaileak eragiten dituen defizit fiskaletatik ihes egiteko. Interpretazio hori batez ere 2008ko finantza-globalizazioaren krisia delakoa kudeatzeko prozesuan zabaldu da. Irakurketa horren arabera, demokrazia politikoa eta ekonomikoa berreskuratzea izango litzateke aukera bakarra kapitalismo globalaren diziplina-mekanismo horiek (kanpo-lotura) hausteko, horiek Estatuako politika baldintzatzen baitute. Laburbilduz, erabaki politikoak modu formalean ekoizteko prozedurak Estatuako espazioetan berrezartzeko birpolitizazio bat da: funtsean, ekonomia- eta finantza-politiken zuzendaritzari eta definizioari dagokienez (Fazzi, Th./ Mitchell, W., 2018).

Bi gogoeta horiek fenomeno desberdinak deskribatzen dituztela dirudi, baina, egia esan, badute nahikoa berdintasun; bereziki, globalizazioaren, Estatuaren eta Zuzenbidearen arteko harremanetara hurbiltzeko modua. Ikuspegi partzialetatik egiten dute hurbiltze hori, nahasmen handiagoa eraginez. Hori gertatzen da, adibidez, globalizazio finantzario eta ekonomikoak Estatuaren funtzioen berrantolaketan duen eragin zuzena minimizatzen denean. Berrantolaketa hori espazio globaletan, nazioz gairik gabe eta estatukoetan gauzatzen da. Gertatu diren aldaketei garrantzia kenduz, diskurtso juridiko bat artikulatu nahi da indarra egokitzean jartzen duena. Egokitzea da egoeraren aurreko erantzun desiragarria eta, hori horrela, diskurtso

honek legitimatu egiten du Europako nazioz gaindiko instantziak estatuko legedietan merkatu-ordena globala txertatzeko duen modua. Integrazioa egokitzapen bat dela planteatzeak merkatuaren integrazio negatiboa onartzea dakar; integrazio hori Maastricht-en jarri zen abian eta Europar Batasuneko Auzitegiak sustatzen du, legegile negatibo errola hartuta. Tesi horiek zera galtzen dute bistatik: Bigarren Mundu Gerra osteko konstituzioen enuntziatu formalek bere horretan dirauten arren, gaur egun nazioz gaindiko ordenaren errealitate juridikoak ezinbestean berresten duela estatu sozialaren formaren haustura.

Gobernantza, gobernatzeko modu gisa (Mair, 2007)

Gobernantza, Europako ordena gobernatzeko modu gisa, politika azpipolitikara lekualdatzea dakarren gobernu-estilo gisa identifikatzen dugu. Gobernantzak ezartzen duen despolitizazioak edo azpipolitikak politika merkatura eta lehia askera mugitzea dakar. Estatuak politikan zuzenean esku hartzeko modu horren ordeztu, teknokrazia ezaugarri duten organoak eta erakundeak (Eurotaldea, Europako Banku Zentrala) erabiliko dira. Beraz, gobernantzak gobernatzeko modu bat dakar berekin, eta horrek hautsi egiten ditu prozesu ekonomikoaren gobernu politikoari esleitutako funtzioak.

Merkatuaren forma globalak inposatutako estatalitate berriak metatze-funtzioa hartu zuen gidari, eta gatazka inplizitua desegin zuen estatu sozialaren ikuskera integratzailean. Ondorioz, ez dago Estatuaren ekintzatik kanpoko lotura hori, baizik eta Estatuak bere burua mugatzen du, finantza- eta ekonomia-prozesuen gobernu politikotik esku-hartze sozialari uko eginez. Espazio globalak Estatuaren espazioa proiektu globalizatzailearen mende jartzen du, bigarren mailako bezala, merkatuaren zentraltasunak espazio politiko publikoari ezartzen dion forma emanez. Espazio global hori, aldi berean, boterearen kontrolerik eta erregulaziotik kanpoko espazioa da; izan ere, boterearen funtzioa Estatuak eta Europako espazioak mende hartzea eta baldintzatzea da, horiek baitira Batasuneko Zuzenbidean sartu behar direnak, eta barne-eskubideek, berriz, merkatu-forma globalaren diziplina-mekanismoak. Horregatik dago lotura estua prozesu globalizatzailearen eta europarraren artean.

Finantza- eta ekonomia-prozesuen gobernu politikoa (Luciani, 1994)

Horrek esan nahi du ekonomiak, gizarte-erakunde gisa, ez dituela bere baitan aurkitzen bere funtzionamendua bera baloratzeko irizpideak (prozesu ekonomikoaren autorregulazioa); aitzitik epaia jasotzen du funtsezko gizarte-balorazioetatik abiatuta orientatzeko duen gaitasunaren arabera. Eredua honetan, beraz, ekonomia eta berak ekoitzi dezakeen ongizatea ez dira helburua, bitartekoa baizik.

Europako integrazio-proiektua maila juridikoan antolatzen duten printzipioek kapital globala metatzeko estrategia politikoa barne hartzen dute, moneta-batasunaren eta diziplina-izaerako politika ekonomikoen bidez. Azken horiek, gainera, nazioz gaindiko eta estatu mailako politika publiko berriak legitimatzeko oinarri gisa jokatzen dute, merkatuaren botere globalaren logikak politika publikoak baldintzatzen dituela agerian utziz. Ikuspegi horretatik, Europako integrazio-proiektuak sendotu egiten ditu estatu-antolaketaren merkatu globalaren legitimazio-elementuak. Merkatu-botere globalaren legitimazioak irautea lortzen du nahiz eta boterearen krisi-elementuak nabariak diren eta zenbaiten erretorikan estatuaren subiranotasunera itzultzen ari omen garela dirudien.

Krisi pandemikoa da, hain zuzen, merkatuaren nagusitasunaren sendotzearen eboluzio-faseen azken adibidea, Errusiak Ukrainako lurraldea inbaditzeak zer ekarriko digun zain. Estatuak ez dira gai izan ekonomia nazionaletan politika birbanatzaileak sortzeko, gastu publikoaren barruko gizarte-eskaeren aurrean independentzia berreskuratzu. Are gehiago, oro har, nabarmena da estatuak pandemiaren kontingentzian alde bakarrez hartu dituzten neurriek funtsean krisiaren aurreko erreproduktzio sozialeko baldintzak berrezartzen saiatzen zirela. Are gehiago, neurri horiek neurri mikrosozialtzat har ditzakegu, interes ekonomikoa estatu multiklase batek koordinatutako interes publikoaren mende egon ez dadin.

Neurri mikrosozialak (Lasa López, 2022).

Mikroneurriak dira, merkatu bideratuta daudelako. Neurri makrosozialetatik bereizten dira (enpleguaren egonkortasuna bermatzea, kaleratzeko baldintzak gogortuz, kontratazio mugagabea sustatzea, lan-kontratazio partziala zigortuz), neurri horiek Estatuaren esku-hartze zuzena dakartelako lan-merkatuetan. Kantitateari dagokionez, neurri mikrosozialak baliagarriak dira lan-harremanetako desberdintasunaren eta pobrezia zifrei nolabait aurre egiteko, baina esanguratsuen da kostu fiskal moderatua dutela. Neurri horiek ordaintzearen zama ez zaie eragile ekonomikoek lekualdatzen, eta, gainera, ez ditu zalantzan jartzen lan-kontratazioaren ereduak. Neurri horien adibide bat Covid-19aren osasun-pandemiak eragindako ondorio ekonomikoek (diru-sarreraren galera) eta sozialei (langabezia) aurre egiteko hartutakoak izango lirateke.

Demokraziaren eraketa merkatuaren forma globalean aipatzea falta da, nahiz eta zenbait gogoeta aurreratu ditugun. Lehenik eta behin, espazio globala espazio *ajuridiko* gisa (Zuzenbidearen eragin posiblek kanpo) ulertzen du, eta bere baldintzatzaileen juridikotasuna nazioz gaindiko proiektura eta antolamendu nazionaletara eramaten du. Bigarrenik, Batasuneko Zuzenbideak eztabaida eta diskurtso politikoa gauzatzeko mugak zehazten ditu, demokrazia nazionalak «eurotuz» (Lasa López, 2022).

Eurotzea (Lasa López, 2022).

Europako gobernantza ekonomiko eta monetarioak izandako azken fasearekin bat datorren prozesua. Kronologikoki, bat dator euroak 2010 eta 2014 artean izandako krisiarekin. Eurotzearen funtzioa da Europako barne-merkatuaren zentralitatea sendotzea, politika ekonomiko eta fiskal nazionalak gobernantza ekonomiko eta monetarioaren helburuen mende jarritz: aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-oreka.

Zerga-egonkortasunaren helburu nagusia ziurtatzeko, aniztasun politikoa finantza- eta ekonomia-prozeduretatik desaraututa geratzen da. Subiranotasunaren bermerako funtzio parlamentarioa birdefinituta geratzen da, mugatuta, egonkortasun fiskalaren helburu hori nola betetzen den gainbegiratzeko funtzioa besterik ez balu bezela. Eta murrizketa hori konpentsatzeko ez da nazioz gaindiko demokrazia ekonomikorik sendotu.

Nazioz gaindiko merkatu-boterearen demokraziak ez dio botere ekonomikoaren mugaren logikari jarraitzen. Merkatuaren suntsipena saihesteko beharrezkoa den neurrian baino ez da mugatzen merkatu-boterea. Botere finantzarioaren esku-hartze eta erreskate neurriek irakatsi ziguten lezio hori. Horrela, politikaren nagusitasunaren edo lehenespenaren prozesu eratzaillea (konstituziogilea) beste prozesu eratzaille batekin kontrajartzen da: merkatua eratzeko prozesuarekin; bigarren prozesu horrek ordena politiko berri bat ezartzen du, baldintzarik gabe merkatuan zentratuta dagoena eta subjektu politiko-instituzional berriei leku ematen diena (Eurotaldea, Europako Banku Zentrala). Demokrazia, merkatuaren arabera, zeharkako erregulazio funtzioekin lotzen da, non botere politikoak prozesuaren funtzionamendu eraginkorrerako egiturazko baldintzak ezartzen dituen. Beraz, merkatuaren lotura ekonomikoak definitzen ditu botere politikoaren eta botere ekonomikoaren arteko harremanaren mugak. Ekonomia- eta finantza-politikari buruzko erabakiak sistema politikotik kanpoko eremuetara bota dira, eta birbanaketa-erabakiak erabaki tekniko bihurtu dira.

Interes kolektiboak batera aztertzen eta definitzen dira, eta legitimitatea demokrazia mota baterantz mugitzen da, non herritarren parte-hartzea gutxienekoa den eta hauteskunde-erantzukizuna tresna nagusia den. Aldi berean, merkatua herritarren eskaerak gauzatzeko lehentasunezko gune bihurtzen bada, herritarrek merkatuaren hizkuntzarekin eta kulturarekin bat datorren subjektibotasuna hartzera behartuta daude. Gizarte-harremanak neutralizatzean, merkatuko konstituzionalismoak gizarte-nortasunaren garrantzia murriztea ere eragiten du, eta, ondorioz, klaseen inguruko gizartratze politikoko borroken ahultzea ere. Hala ere, horrek ez du esan nahi konpromiso politikorik ez dagoenik; badago, baina, hain zuzen ere, konpromiso politikoak zera du oinarri: finantza-kapitalismoaren kontrol politikoaren despolitizazioa. Nazioz gaindiko legitimitatea monetaren eta ekonomiaren kontrolaren inguruan eraikitzen da.

Ildo horretan, gobernantza-eredua kontrol bermatutako emaitzetan oinarrituko da. Horrek subiranotasunaren funtsezko edukia aldatuko du, desoreka makroekonomikoen arriskuak kontrolatzeko gune hutsa bihurtuko baita. Merkatu-ordenak, koherentziaz, ez du estatuaren subiranotasun soziala bermatzen kapitalismo global finantzarioaren aurrean. Aitzitik, merkatuaren interesen subiranotasun ekonomiko eta finantzarioa bermatzen da; merkatuaren lotura ekonomikoaren hegemonia ukazina arriskuan jar dezaketen gizarte- eta enplegu-politikak erabakiak hartzeko guneetatik kanpo geratzen dira. Halaber, merkatuaren demokraziatik sustatzen den estatu-subiranotasun berri honek legitimatuko du haustura bat, estatu sozialaren eraketarekiko (edo haren azpian zegoen gizarte-proiektuarekiko). Kontrajarriak dira, beraz, nazioz gaindiko demokrazia, legitimitate ekonomikoaren ondoriozkoa, eta estatu sozialaren demokrazia, birbanaketa-gatazkaren legitimitatearen ondoriozkoa.

Sakontzeko

- Brunkhorst, H. (2016). Democracy under Siege: The Decay of constitutionalisation and the crisis of Public Law and Public Opinion. In P. F. Kjaer eta N. Olsen (ed.), *Critical Theories of Crisis in Europe. from Weimar to the Euro* (177-194). Rowman & Littlefield International: Lanham.
- Dahl, R.A. (1992). *La democracia y sus críticos*. Paidós.
- Lafont, C. (2021). *Democracia sin atajos*. Trotta.
- Patberg, M. (2020). *Constituent Power in the European Union*. Oxford University Press.
- Pistor, K. (2022). *El Código del Capital - Como la ley crea riqueza y desigualdad*. Capitán Swing.
- Streeck, W. (2011). The crises of democratic capitalism. *New Left Review*, (71),5-29.

Hirien suntsipen sortzailea eta demokratizaziorako aukera berriak aztertzen

Iago Lekue eta Imanol Telleria

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena. Gaur egungo gizarte urbanoan, hiriak borrokarako eta tentsioen erdigune nagusia bihurtu dira. Hiri bat ezagutzeko bertako jendearekin hitz egin behar da, betaurreko kritikoekin kaleetan galtzea eta periferiako auzoetara hurbiltzea ere derrigorrezko ariketatzat hardezakegu. Horrek lagunduko digu hango gizarte izaten diren desorekak, espazio edo auzo bereziak, paisaia aldaketak eta haren ibilbide historikoaren arrastoak identifikatzen. Baina hirien formak eta hirien eraikuntzak edo (erre)produktzioak, begi-bistakoak ez diren arau eta egitura sozioinstituzional batzuk ere ezkututzen ditu. Toki mailako eskalatik hasi eta nazioz gaindikora, hiri-dinamikek berebiziko eragina dute estrategia neoliberal globalaren barnean. Horiak horrela, demokraziaren hautua egiten badugu, gizartean dauden eragile eta agenteak, eta era berean, kontuan izan beharko ditugu tokiko, nazioko eta nazioarteko egitura zabalekin haiek dituzten elkarrekintzak .

Azken hogeita hamar hamarkadetan jazotako globalizazio kapitalistak eskalen arteko desberdintasunen lausotzea ekarri zuen berekin. Izan ere, 1970eko hamarkadara arte maila nazionalan eraikitako Mendebaldeko estatuak izan ziren protagonistak nazioarteko testuinguruan, baina harrezkero, globalizazioaren bulkadek tokiko- eta eskala nazionalaren forma estrategikoen garrantzia azpimarratu dute. Kapitulu osoan zehar aipatzen den berreskalamenduaren fenomeno honek, kapitalaren eta boterearen berlurralderatze prozesua eragin du. Ondorioz, kapitulu honen helburua da Estatuaren lurraldetasuna, bai eta gobernantza nazionala, goragoko eta behegoko eskaletara birdefinitzen eta erlatibizatzen ari direla agerian uzten saiatzea. Era berean, neoliberalismoaren estrategia suntsizaille eta sortzailearen logikari jarraituz, hirietako estatu lokalen botere arautzaileak murrizte eta handitze momentuak jasaten dituela frogatzea da.

Diagnostiko horren ondoren, tokiko agentzien rol berria ulertu nahi dugu, berreskalamendu neoliberalaren testuinguru batean, ekintza kolektiboan moduei eta borondate eraldatzaileak duten eragileei balioa emanaz, beren jarduera berrasmatez lortu baitute, hiri-demokraziaren forma desberdinetan sakontzeko. Hori dela eta, hiri-gobernantza borrokarako eszenatoki bihurtu dela baieztatu dezakegu.

1. **Sarrera: Hiriak aztertzeiko ikuspegi berria**

Oro har, gizarte zientzientzat, gizaki multzo zehatzen jarrerak, ekintzak eta portaerak aztertzea etengabeko motorra izan da. Azken mendeetan zehar, gizakiek eraikitako egitura sozial gisa, hiriak izan dira arreta gehien jaso dutenak. Izan ere, Çatalhöyük duela ia 9.000 urte egungo Turkian kokatuko genukeen protohiriaren azterketetatik lehen hiri globaletaraino, sistema ekologikoen analisiak eta datu estatistikoen interpretazioak berebiziko garrantzia izan dute, batez ere Chicagoko eskolari men eginez. Baina, aurreko mendeko azken hamarkadatik hona, Hiri Teoria Kritiko (HTK) oparoan batu izan diren zenbait diskurtso eta paradigma berri agertu dira. Teoria honen bitartez, errealitate sozialak bizi dituen arazoak, erronkak eta alternatibak modu zorrotzago batean aztertzeiko aukera izango dugu.

III. TAULA

Chicagoko Eskola *vs* Hiri Teoria Kritikoa

Chicagoko eskola, XX. mendearen hasieran Manchesterreko Eskolaren ondorengo gisa hasi zen itxuratzen, hirigintza eta hiri ikasketetan batez ere. Eskola amerikarraren ekarpen handienetakoa hiriari unitate zentzua ematea izan zen, hau da, berezko zatiak ukatu eta oso bakarra bezala aurkeztu zuten. Horrela, hiriak «laborategi sozialak» balitz bezala hartu zuten eta ikerketak immigrazioaren, mestizajearen eta talde arteko gatazken inguruan ziharduten. Hala ere, nahiz eta hiriaren alde sozialean arreta jarri zutela iruditu, egia esan, espazioaren orden funtzionalena nola lortzea ikertu zuten gehien. Horrek kritika ugari ekarri zituen; izan ere, sistema ekonomikoa alde batera uzteak eta espazio urbanoa modu objektiboan, hau da, lekuz leku trukagarria balitz bezala ulertzeak zeharkako irakurketa ekar zezakeelako. Hiri sistema neutrotzat hartzen duen ikuspegi honi Hiri Ekologia deritzogu, dentsitatea, dimentsioa eta heterogeneotasuna bezalako ezaugarri ekologikoak ikertzen baititu. Horren aurrean, Frankfurtoko Eskolatik eratorritako (Hiri) Teoria Kritikoa daukagu. Eskola alemaniarren nahiz eta hirietan arretarik ez jarri, ekonomia politikoa, dinamika psikosozialak, ebo-luzio-joerak eta kapitalismo modernoaren barne-kontraesanak aztertu zituen (Brenner, 2009a).

Historian zehar hirien analisiak egin direnean, analisi horiek edukiontzi bakun gisara hauteman dituzte hiriak. Aldiz, guk erabiliko dugun ikuspegi berritzaile hone-tatik, hiriak eta haren espazioak historiaren parte aktiboa dira, hots, prozesu sozialen eta botere-liskarren emaitzetatik eratorritako emaitzak dira, hain zuzen. Gauzak horrela, beraz, Hiri Teoria Kritikoak, Frankfurtoko Eskolaren eraginez, erakunde poli-tiko eta sozialen merkantilizazioari egindako kritika filosofiko bera jasotzen du eta to-kiko mailako erakundeetara eramaten du, hau da, hirietako botere esparruguztietara.

Gizartea interpretatzeko zein eraldatzeko erabilgarria izan daitekeen teoria honen erradikaltasuna Henri Lefebvre hiri-filosofo frantses famatuak (1996) teorizatu zuen «HIRIRAKO ESKUBIDEAN» datza. Azken kontzeptu hori justizia sozialari zeharo lotuta dago (Fanstein, 2011) eta Peter Marcusek (2007; 2012), jada HTKren baitan kokatuz, hiru jarduera estrategiko nagusi proposatzen ditu eskubide hau lortzeko: arazoaren azalpena, alternatibaren proposamena eta erantzunen politizazioa. Lehenik eta behin, hiri justuago bat eraiki nahi duen orok gizartean eta orokorrean hirian gertatzen ari diren arazoaren analisi sakona egin beharko luke, batez ere eragile kaltetuei jakinarazi ahal izateko eta arazoaren berri emateko. Hau da, arazoaren kausak diagnostikatzeko eta autotratamendua errazteko dira kasu honetan helburuak. Horrela, bigarrenik, Hiri Teoria Kritikoari jarraituz, alde aurretik kaltetuei azaldu zaizkien funtsezko kausa hiltzeko gai diren estrategia eta jomuga errealek proposatu behar dira. Azkenik, hirugarren urratsa azaltzen zaigu, hots, azaldutako arazoari aurre egiteko eman nahi den erantzunaren politizazioa. Alternatibak ehundu ditzaketan diskurtsoei eta elementu aktibatzaileei erreparatu beharko litzaieke, eta, kasuaren arabera, azken beltzean, komunikabideak eta mundu akademikoa ere mugiarazi beharko lirake.

Ildo honetatik, kapituluak aurrera egin ahala ikusiko dugunez, HTK tresna egoikia da neoliberalismoak eta urbanizazio kapitalistak hirietan sortzen dituzten fenomeno eta dinamikak ulertzeko (Brenner, 2009a; Marcuse *et al.*, 2014; Bossi, 2019). Era berean, komenigarria da aipatzea Mendebaldeko hirien testuinguru ekonomikoa eta politikoa aztertuko dugula, baina ikuspegi honek mundu osoko hirietan izan daitezkeen erronkak azaltzeko bokazio epistemologikoa dauka.

Behin hori argituta, kapitulu honetan zehar ikusiko dugu, alde batetik, berreskalamendu prozesuak nola ekarri dituen hiriak erdigunera, eta nola bihurtu den eztabaida ideologikorako eremu garrantzitsu. Eta, bestetik, neoliberalismoak eta bere dinamika ekonomiko globalek hiri-demokraziarentzat dakartzaten erronkak eta mehatxuak aztertuko ditugu. Azkenik, hirien demokratizazioa bilatzen duten alternatibak eta joera berriak bilduko ditugu. Horien artean, ikuspegi integral batetik, bai hiri-mugimenduen ekarpenak, bai eta toki mailako gobernuak egungo hiri-politika publikoak aurrera eramateko bultzatutako partaidetza-praktikak ere aztertu ahal izango ditugu.

2. Berreskalamendua eta hirien eginkizun berriak

HTKoren akademikorik oparoenetakoa den Neil Brennerrek (1999) ondo adierazten duen bezala, globalizazioak bilakaera multieskalarra eta denbora anitzekoa izan du. Hau abiapuntutzat hartuta, praktikan, 1970. urtetik aurrera —batez ere Mendebaldeko herrialdeetan—, estatalitate adierazpen berriak, hala nola hirien sareak eta Europar Batasuna, garrantzi handiagoa hartzen hasi ziren testuinguru ekonomiko globalean. Horrexegatik diogu globalizazioa ezin dela munduko pertsonen, salgaien edo kapitalen merkatuko fluxuetara soilik murriztu. Izan ere, ukazina da

estatu nazionalek prozesu honetan izan duten subiranotasun-galera (Wriston, 1992; Ohmae, 1995), baina hala ere, botere-gabetze edo estatuaren hustuketa hori, nolabait estatu zehatzen botere politiko eta ekonomiko berari atxikitzen diogu. Azken horiek izan baitira, estatu-ahalmenen ahulduengatik eta harreman-baldintza selektiboengatik (hautakortasun estrategikoarekin lotuta) kapitalaren interes ekonomikoen aldeko ahultzea ahalbidetu dutenak (Jessop, 1990; 1994; 2016). Hona hemen Bob Jessopek (*ibid.*) proposatzen duen hautakortasun estrategikoa edo selektibitate estrategikoa, estatu erlazionalaren teoria gramsciarrean oinarritua. Horren oinarria da estatu modernoak, toki- edo nazio-mailan, ez dituela beti hautatzen bere estrategiak modu arrazionalen edo soilik enpresa-logiketan oinarrituz. Estatua lurralde jakin batean erabaki kolektibo lotesleak definitzeko eta aplikatzeko eginkizuna duten erakundeen eta/edo gizarte-erakundeen arteko harreman-multzo gisa ulertzen badugu, ulertuko dugu, lurralde hori zeharkatzen duten botere-asimetrien ondorioz, talde jakin batzuk beste batzuk baino errazago sar daitezkeela Estatuko agintaritza horretara, politika publiko batzuk erraztuz eta beste batzuk gaitzetsiz (Telleria eta Lekue, 2020).

Berreskalamenduak erreferentzia egiten die eskala desberdinen arteko botere-oreka berri baten agerpenari edo oreka horretan eman daitezkeen transformazioei, zeinek, agian egoera ezegonkorra sor baitezakete, baina, era berean, eskalen arteko botere desberdintasunak lausotu baitiitzake. Gure kontinenteari erreparatzen badiogu, adibidez, ikusten dugu estatuak (eskala nazionalean) berreskalatze-prozesu dual batean murgilduta daudela (Sevilla Buitrago, 2017). Alde batetik, nazioz gairikiko gobernuen forma berrietan birkokatu ahal izateko sortu behar izan dituzten eremu eta politika instituzional berriak hauteman ditzakegu. Eta bestetik, toki mailako eskaletan (hirietan, eskualdeetan, eta bestelakoetan) gobernantza eredu berriak ahalbidetzen dituzten *elkarte* publiko-pribatuak (*public-private partnerships*) bidea ematen dietenak (Harmes, 2006; Franquesa, 2007; Ahedo eta Telleria, 2020), eta planifikazio ekonomikorako autonomia zabalagoa esleitzen. Horrela, alde batetik, hirietan azpiegitura mugiezinak pilatzen jarraitzen da (energia-iturriak, komunikazio-sareak, enpresa-egoitzak, etab.); eta, aldi berean, estatuek, hots, fordismo-keynestarraren garaian moneta, legeria, gizarte-ongizatearen hornidura eta eskala handiko espazioaren kudeaketa arautzeko ardura izan zutenek (Lefebvre, 1978: 298), neurri batean, tokiko eskalen esku uzten dute erregulazio ahalmen hori.

Ildo horretan, Sassenek (1991: 1993) lurraldeen arabera espezifikoa diren leku urbano gisa identifikatzen ditu hiriak, non globalizaziorako erabakigarriak diren ekoizpen- eta erreprodukzio-prozesuak garatzen diren, hala nola finantza-zerbitzuen industriak eta nazioz gairikiko enpresak.

Eric Swyngedouw (1996: 1997) autoreak, ildo beretik, tokiko eskalak eskala globalean izaten diren tendentziak bereganatzen dituela adierazteko «glokalizazio» terminoa proposatzen du. Alde batetik, honek industria eta biztanleria hiriguneetan areago elkarretaratzea/biltzea/konzentratzea esan nahi du, eta ondorioz, eremu edo hiri garatuen eta ez-garatuen arteko bereizketan sakontzea (eskala globalean herrialdeen arteko desorekak ere nabarmengarriak dira). Neil Smith geografo estatubatuarra (1984) «espazioaren garapen irregularra» bezala aurkeztuko zuena da hori. Hu-

rrengo atalean ikusiko dugun bezala, modu sinplifikatuan azalduz, hori gertatzen da ekoizpen kapitalistaren prozesua, espazio-denbora zehatz batean, garatzen den heinean. Kapitala leku jakin batean ezarri eta errentagarri bihurtzen hasten denean gertatu ohi da, eta, hainbat aldagairen ondorioz —lehiakortasuna, adibidez— irabazitasua nahikoa ez denean, toki horretatik alde egiten du espazio errentagarriago baten bila. Horrek hirien eta lurraldeen arteko desorekak sortzen ditu, eta, proiektu fordista-keynestarrean, Estatuak berak konpentsatzeaz arduratzen zen, baina egungo estatutu nazionalaren hustuketak prozesu hori kontrolatzea eragozten du (Dunford, M. eta Kafhalas, G., 1992; Brenner, 2003a; 2009b; Jessop, 2009).

Bestalde, hirien kudeaketa eta orokorrean gobernantza, politika ekonomiko nagusiaren mende geratzen da. Ondorioz, aipatutako eskala nazionalak kudeatzen eta inplementatzen zuen ongizate-estatuaren murriztea gertatzen da, eta erantzukizun fiskalak gehiago deserregularizatzen dira (Brenner, 2003a; Peck, 2012).

Beraz, paradoxikoki, estatuetatik hirietara eskualdatutako autonomia horrek, *a priori*, autonomia horren murriztea ekarri du. Hala adierazten du Edward Soja geografiko estatubatuarra (2000: 218): «*The practices of daily life, the public domain of planning and governance, the formation of urban community and civil society, the processes of urban and regional economic development and change, the arena of urban politics, the constitution of the urban imaginary, and the way in which «the city» is represented, are all increasingly affected by global influences and constraints, significantly reducing what might be called the conceptual autonomy of the urban».*

3. Ezegonkortasun eskalarra. Neoliberalismoaren lur hartzea hirietan

Eskalen berregituratze hori honako estrategia neoliberal hauen parte da: «*are deeply and indelibly shaped by diverse acts of institutional dissolution»* (Brenner *et al.*, 2011: 20). Erregulazio-fase horiek neoliberalismoaren koiunturalki espezifikoak diren prozesuen araberakoak dira, hau da, uneoro lekuaren eta denboraren araberakoak dira, bai eta tokiko, nazioko edo nazioarteko estatuetatik jarauntsitako egitura instituzionalen araberakoak ere (*path dependence*).

Brenner *et al.*-ekin (2010: 330) bat etorritz, neoliberalizazioa zera izango litzateke: «*historically specific, unevenly developed, hybrid, patterned tendency of market-disciplinary regulatory restructuring»*, hots, estatuaren sistemaren berregituratzea. Halaber, Jamie Peck eta Theodore Tickellek (1994: 322) diotenez, keynestar fordismoaren krisiaren ondorioz eraikitako alternatiba neoliberalak ezegonkorregia da denborari eta espazioari eusteko: «*business cycles swing ever more violently, while localised growth seems increasingly fragile and short-lived».*

Hiri Teoria Kritikoaren esparruan, David Harvey geografia ekonomialari britainiarra (2003; 2006) *Schöpferische Zerstörungen* («suntsipen sortzailea») kontzeptu schumpeteriarra hartzen du, hazkunde eta krisi ekonomikoaren gorabehera horiek eta ezegonkortasunak azaltzeko. Baina apur bat lehenago, Smithek berak (1984) prozesu hau

Halaber, suntsipen sortzaileak balioko digufordismo keynestarrak eskala guztietan mantentzen zituen azpiegitura instituzionalen berrikuntza sakonean gauzatu diren aldaketa instituzional-espazial-eskalar geografikoki desberdinak eta, sozialki, atzerakoiak eta politikoki aldakorrek diren ibilbideak deskribatzeko (Brenner eta Theodore, 2002).

Arestiko grafikoa baliagarria da Europako zenbait hiri postindustrialetan gertatutakoa azaltzeko. Izan ere, desindustrializazioak eta krisi neoliberalak eragindako suntsipen sozioespazialaren faseak 80-90eko hamarkadetan igaro ondoren (Lekue, 2022), badirudi hiriarren (erre)produktzioa eta hiri enpresarialismoari esker neoliberalismo egokituaren une sortzaile bat hasi zela (Sevilla-Buitrago, 2015).

Suntsipen *sozioespaziala* deritzogu ez zelako soilik suntsipen urbanoa izan; ezaugarritzat izan zituen lan antolatuaren aurkako ofentsiba, zerbitzu publikoen murrizketa eta pribatizazioa eta hiriko pobreen kriminalizazioa ere.

Horiek horrela, estatuen gaitasun arautzaile edo erregulatzailearen inguruan ere aldaketa larriak gertatu dira, eskumenak merkatuaren esku utziz eta suntsipen sortzailea gobernantzaren esparrura pasatuz. Brenner eta Theodorek (2002) 6 erregulazio-eremu identifikatzen dituzte: soldata-harremana; kapitalen arteko lehia; finantza- eta diru-erregulazioa; gobernantza-moduak; nazioarteko konfigurazioa eta Espazioaren Garapen Irregularra. Sei arlo hauetan estatuek zuten erregulazio boterea hustuta geratu da. Ildo honetan, adibidez, soldaten arteko harremanean jazo zen suntsipen unea erakundeen, akordio sindikalen eta hitzarmen kolektiboen aurkako etengabeko erasoak izango lirake, eta, une sortzailea, berriz, lehiaren desarautzean gauzatuko litzateke, hau da, lan-baldintzen birnegoziatio atomizatuan.

Modu berean, maila globalean estatuen gaitasunak zeharo murriztuak izan dira eta maila globalean gertatu ohi diren neoliberalizazioaren tendentziek lau mota desberdin izango lituzke emaitza gisa (Jessop, 2002): neoliberalismo hutsa, neokorporatibismoa, neoliberalismo neoestatista eta neokomunitarismoa. Hala ere, guri gehien interesatzen zaiguna da neoliberalismoak hirietan izan zituen ondorioak argitzea. Horretarako suntsipen sortzailearen logikari jarraituz, tokiko eskalan hiru epe edo momentu identifikatzen ditugu (Brenner eta Theodore, *ibid.*): protoneoliberalismoa, murrizketen neoliberalismoa (*roll-back neoliberalism*) eta hedapen-neoliberalismoa (*roll-out neoliberalism*).

Lehenik eta behin, «protoneoliberalismoak» hiria gudu-zelai bat izango balitz bezala aurkeztea du helburutzat. XX. mendeko azken aurreko hamarkadan zenbait hiritan berregituratze sakonaren beharra ikusi zen, industria gero eta indar gutxiago zuen eta dislokazio ekonomikoak ugaltzen ari ziren. Desastre egoera hartan, hirietan hartutako estrategiek desregulazio ekonomikoetan oinarrituriko hazkunde ekonomikoa proposatzen zuten, nahiz eta oraindik mantendu birbanaketan oinarritutako fordismo-keynestarren erakundeetatik jasotako akordio soziopolitikoak. Ezegonkor-

tasun eta modeloen arteko liskar garaia izan zen, hiriak gudu-zelai bihurtuz. Adibiderik paradigmaticoa AEBn gertatu zen; izan ere, 70eko hamarkadan gobernu federalak, finantza-sektoreekin koordinatuta, uko egin zion New Yorkeko hiriarren zorra berriro negoziatzeari. Horrek enplegu publikoaren eta zerbitzuen hornidura zabala eta zerbitzuen hornidura zabala ezaugarri zituen hiri-garapen eredu ekonomikoki ito zuen, baina, hala ere, hurrengo hamarkadetan beste hiri eta gobernu batzuentzat zuen disuasio-funtzioa bete zuen (Ahedo eta Telleria, 2020); hantxe jar dezakegu, bezaz, eredu fordista-keynestarraren gainbeheraren hasiera.

Euskal Herrira hurbilduz, eredu fordista-keynestarraren amaieraren hasiera 1980ko hamarkadan eman zen. Izan ere, produkzio-ereduen arteko talka Bilboko Euskalduna ontziolako borroketan eszenifikatu zen. Industria astunaren azken fabriken itxierak estatu-forma lokal zehatz baten bukaera ere ekarri zuen

Bigarrenik, «murrizketen neoliberalismoak» erreferentzia egiten die Estatuak baliabideen gaineko gobernu-kontrolan jasandako atzera egiteari eta ongizate-estatuen suntsitzeari. Herrialde batzuetan jada 1980tik aurrera hasi zen toki-administrazioetan itxura hartzen, gastua murrizteko formulen bidez, estatuko administrazioetan ere gastu hori murrizteko helburuarekin.

Ido beretik, austeritate fiskaleko neurriak ere ezarri ziren, hala nola gizarte-prestazioen murrizketa edo sektore publikoen langileen soldata-murrizketak. Hiri- eta administrazio-maila askotan jardunbide egokien eskuliburuak onartu ziren administrazio-eraginkortasuna eta giro mesedegarria sustatzeko asmoarekin, eta geroxeago, eskuliburu haiek «hiri enpresarialismoa» edo «hiri ekintzaile-sortzailea» eraikitzeke gidaliburu bihurtuko ziren (Harvey, 1989; Jessop, 1997). Berrikiago, eta 2008ko finantza-krisiari lotuta, «austeritate-hirigintza» (Peck, 2012) da toki-gobernuei eragiten dien finantzaketa-falta kudeatzeko modurik ohikoena. Izan ere, epe hori *roll-back neoliberalism* garaitzat har dezakegu zentzu askotan.

Horrela, trantsizio-prozesu bat hasten da hiri-gobernantzan. Prozesu hori lekua-ren promozio ekonomikoaz eta hazkundeaz arduratzen hasi zen, lankidetzat publiko-pribatuaren tresna erabiliz (berreskalamenduak hirietan sorpresaz eragindako baliabide falta dela medio), azken urteotan gizarte-ongizatean jarritako arreta albo batera utziz (Harvey, 1989; Hall eta Hubbard, 1996). Udalek beren gain hartu zituzten super-ekitaldien politika megalomanoak, nazioarteko lehiakortasuneko hiri-marketina eta tokikoa eta globala lotuko zituzten estrategiak, hori guztiori hirien arteko lehiaren premisapean (Cox, 1993). Era berean, barrura begira, hiriak ere beren lurraldearen barne espazioak lehenesten hasi ziren, hirigintza neoliberalaren proiektu ikusgarri eta erakargarrien bidez (Swyngedouw *et al.*, 2002).

Azkenik, hirugarren fase batera iritsiko ginatke, «hedapen-neoliberalismora» hain zuzen. Murrizketen neoliberalismoak ekarri zuen une suntsitzailerearen ondoren, *roll-out neoliberalism* delakoak hiri-enpresarialismoak haztatutako patrioiak sendotu zi-

tuen. Horrela, kudeaketa-modu neoliberalak normalizatu ziren ekonomia despolitizatuz teknokraten bidez. Proiektu liberal klasikoaren berriraketa da, erakundeen (batez ere estatu nazionalen) esku-hartze bideratzailearen bidez. Eta egia esan, tokiko politikak kapital pribatuaren interesen mende geratu ziren. Beraz, proiektu neoliberalaren sorkuntza instituzional berriaren agerpena emango litzateke fase honetan (Jones eta Ward, 2002).

Premisa horren aurrean, eta neoliberalismoaren efektu «parametrizatzailea» (Gill, 2003) kontuan hartuta, instituzioak, eskala axola barik, sistema arautzen eta erregulatzen saiatu dira Jessopek (1992) «konponbide» edo «irtenbide instituzionalak» (*institutional fixes*¹) deituko liokeenaren bidez. Irtenbide horiek keynesianismoaren berezko ongizate-estatu bultzatu dutelako ideiaaren aurrean, Jessopek nabarmentzen du estatu-forma hori, konponbide horien bitartez, lan-estatu schumpeteriarraren eredu postfordistak ordezkatu duela. Honen arabera, Estatu —tokikoa edo nazionala izan— indartu egingo luke lehia sustatzeko zuen rola (ez bakarrik enpresa eta konpainia nazionaletan, baizik eta produkzio-sistemaren maila eta sektore guztietan).

Beraz, konponbide instituzionalak, iraunkortasun zalantzarikoa adabaki gisa, erakundeen berrikuntza sustatzea izango lukete helburutzat, eredu berrien bidez beren ekonomien lehiakortasun estrukturala indartzeko (Brenner eta Theodore, *ibid.*) aurretiazko marko arautzaile edo erregulatzailerako politikak deseginez. Hori, hain zuzen ere, suntsipen sortzailearen eredu berri eta zaharrei eustea eta horiek erreproduzitzea izango litzateke —governantzaaren esparruan batez ere— eremu baten egonkortasuna lortuz, beste baten ezegonkortasunaren kontura (Jessop, 2016).

Hala ere, nabarmendu behar da hiri-mailan gertatu diren berregituratze instituzionalak² aldatu egin daitezkeela krisi-uneen arabera, eta, gainera, hiriak demokratizatzearen arrakala gisa balio dezaketen ahultasun-puntuak eskaintzen dituztela. Governantza eredu berriak eragile berriak kontuan hartzen dituen heinean, gizarte mugimendu progresistentzako aukera politikoaren leihoa irekitzen da, nahiz eta hautakortasun estrategikoak iraun.

¹ Terminoak hitz-joko bat ezkututzen du eta ingelesezko *fix* hitzaren interpretazio desberdinei egiten die erreferentzia. Alde batetik, «finkapenaren» zentzu literalak leku jakin batean kapitalak denbora luzarozan zehar egiten duen finkatze iraunkorrari egiten dio erreferentzia. Bestalde, kontzeptio metafisikoak bat-bateko eta aldi baterako konponbidera edo erantzunera garmatza, berrantolaketaren espazialean eta/edo estrategia espazialean oinarrituta, kapitalismoaren berariazko krisi-joerei erantzuteko hartzen diren «soluzioei» hain zuzen. Azken hauen artean aipatutako produkzio-ereduen arteko talka (desindustrializazioa bezala ere uler dezakeguna) eta haren ondorioak nabarmenduko genituzke.

² Brenner-ek eta Theodoren (2002) honako hauek aipatzen dituzte: tokiko politiketan enpresek gidatutako kooperatiba-sareak ezartzea; tokiko garapen ekonomikoko politika berriak mobilizatzea, enpresen eta industria-multzoen arteko lankidetzaren sustatzea; gizarte-bazterketa murrizteko oinarri komunitarioko programak hedatzea; koordinazio-sareetan lan egiteko modu berriak sustatzea, lehen independenteak ziren estatuko esku-hartze lokaleko eremuetan; eta metropoli-mailako hiri-marketina sustatzea, eskualde-mailako erakunde berriak sortuz.

Horrekin guztiarekin, neoliberalismoa etengabea den, azaleratzen ari den eta kontraesankorra den estatu-estrategia gisa ulertuko dugu (Harvey, 2014). Estrategia horrek, desarautzearen eta lehiaren bidez, lehiarako abantailak sortu nahi ditu leku espezifikoetan (Brenner eta Theodore, 2002). Hau da, neoliberalismo hutsaren estrategien kontrakoa (Jessop, 2002), hala nola austeritate politikak, pribatizazioak, zerga zuzenen murrizketa eta abar; gaur egungo neoliberalismoa horrela berrinterpretatu genezake: «*as a contradictory practice of state intervention, which attempts to lead state institutions to dismantle regulatory restrictions, promote market-mediated forms of governance and protect the interests of transnational corporations*» (Brenner, 2003b).

4. Hiriak demokratizatzeko aukerak

Puntu honetara iritsita, badirudi *there is no alternative* diskurtsoa nagusitzen dela; baina, aitzitik, hiriek testuinguru globalean duten potentzial demokratizatzailea aldarikatuzera bideratutako esperientzia eta prozesu ugari daude. Alde horretatik, ikus dezakegu berreskalamenduak, alde batetik, erabakiak hartzeko lekua hirietara hurbildu duela, horrek ez du esan nahi demokratizazioa gertatu denik, baina bai instituzio eta erakunde opakoagoen sarea murriztu egin duela, eta horrek hiri-eredu neoliberalera zalantzan jartzeko aukerak erraztu ditzakeela, tokiko testuinguruan behintzat. Bestalde, ikusiko dugu ea neoliberalismoak berak, noizbait, errealitatea eraldatzeko prozesuak bultzatzeko aukera politikorako leihoren bat ireki ote duen.

Gure ustez, premiazkoa da testuinguru honen azalpena; aurreko paragrafo haue-tan bizi dugun ingurune kaotikoa osatzen duten dinamikak eta eraldaketak aurkezten saiatu gara, horiek planteatzen dituzten erronkak ulertzeko eta, edonola ere, hiri-testuinguruetan alternatiba demokratikoagoak proposatzeko aukera izateko.

Lehenik eta behin, egungo gobernantza hainbat eragilez, interes-taldez eta sare-z osatuta dago; hartara, testuinguru honetan kontrolerako eta koordinaziorako tresna gisa balio diezagukeen kontzeptu bat ekarri nahi genuke aitzinera: «kolibrazioa». Termino hau Andrew Dunsirek (1990: 1993), administrazioan aditua zen ikertzaile britainiarrak, sortu zuen hainbat aktoreren arteko oreka lortzeko esku-hartze estratigikoari erreferentzia egiteko. Hau da, kontua izango litzateke kontrako bi posizio-ren eta adierazpenen arteko balantzak alde batera edo beste aldera egiteko kontrol-neurriak ezartzea. Horrela, gobernantza-tresna gisa kolibrazioa baliagarria izango litzateke, batetik, kasu zehatz batean zein indar eta eragile antagonista dauden identifikatzeko; eta, bestetik, oreka edo isostasiazioa publiko espezifikoekin bat ote datorren konprobatzeko. Gainera, beharrezkoa izanez gero, esku-hartze zuzena ahalbidetuko luke, ez hainbeste adiskidetasunera joz, baizik eta egon daitezkeen desorekak babes handiagoa behar duten talde edo interesen alde aldatuz (Dunsire, 1990: 17). Azken batean, kontrakoak diren posizioen eta adierazpenen artean egon daitezkeen botere desorekak orekatzeko eta lortutako egoera demokratikoagoa mantentzeko neurriak hartzean oinarrituko litzateke.

Tresna hau funtsezkoa izan daiteke tokiko gobernuen autonomia berreskuratzeko; izan ere, gobernantza demokratikorako ezinbesteko arauak emango liriateke, joko-arau batzuk ezarriz, modu kolektiboan (eragile guztiekin ahal den heinean) adostutako helburuak sustatzeko (Jessop, 2016). Hau da, Estatuaren edo toki-administrazioaren posizio estrategiko pribilegiatua³ aprobetxatuz, erabakiak hartzeko prozesuak eta horietan parte-hartzen duten eragileen boterea berrantolatu nahi dira, gobernantzaren kalitate demokratikoa bermatze aldera. Azken finean, lehen aipatutako hautakortasun estrategikoari buruzko hausnarketari ekiten diogu berriro. Hautakortasun estrategikoaren tratu pribilegiatuak ekiditeko, kolibrazioa hesi eta suebaki gisa erabiliko litzateke sektore jakin batzuentzat, eta, aldiz, harreman-sisteman laguntza gutxiago duten sektoreei ozen hitz egiteko aukera emango lieke, haien posizioak hobetuz.

Kontua ez da soilik gobernantza erakundeetatik bultzatzea, ezta gizarte-egitura albo batean utzita, gobernantza monitorizatzea ere; kontua da hau doitzea, hots lankidetzat abantaila bezala hartzea eta aprobetxatzea (Font, 1997), eta tokiko gobernu edo administrazioa, tokiko gobernantzak dakarren zatikatutako eragile-multzoen testuinguruan, neoliberalizazio-prozesuei aurre egingo dien abangoardia-eragile bihurtzea. Hortaz, zera adieraz dezakegu: «*collibration is a critique of political economy, forms of domination, and ideology*» (Jessop, 2016: 229).

Bigarrenik, parte-hartze prozesuek edo prozesu parte-hartzaileek eskaintzen dituzten aukerak azpimarratu behar ditugu. Mendebaldeko hiri-testuinguruetan, milurtekoaren hasieratik, erakundeek gidatutako eta zuzendutako parte-hartzea, haien proiektuak eta estrategiak legitimatzeko bitartekari gisa erabiltzea, eztabaidarako gai garrantzitsua izan da. Alde batetik, logika *top-down* partzial hori azpimarratzen dutenak ageri dira; eta, bestetik, parte-hartze errealerako edota alternatiba herrikoiagoak aurrera eramateko aukera-zirrikua izan daitekeela onartzen dutenak aurkitu ditza-kegu (García-Espín eta Jimenez, 2017; Blanco *et al.*, 2018).

Kolibrazioak, mugimendu edo ehun asoziatiboa politika publikoen prozesuetan parte-hartzeko funtzio bermatzailea izango lukeen arren, beharrezkoa da urrats bat harago egitea eta parte-hartzeko mekanismo egonkorrak ezartzea (Telleria eta Ahedo, 2015), alde batetik, hiri-agendan eragiteko, eta, bestetik, politika publikoen koprodukzioan sakontzeko helburuarekin.

Koprodukzioaren azken kontzeptu hori (Parés, 2017; Arnanz *et al.*, 2018; Osborne *et al.*, 2016) partaidetza-prozesuak edo -mekanismoak ezartzetik haratago doan proposamen bat bihurtzen ari da, are gehiago, «partaidetza globala duten politika publikoen» logikei egiten die erreferentzia (Subirats *et al.*, 2009). Klasikoen proposa-

³ «Administrazio» terminoa sartzen dugu, burokraziak izan dezakeen garrantzia hobeto jasotzen eta bistaratzen duela uste dugulako. Hemen, Gramscik (1975: 15.) termino horri ematen zion garrantziaz ari gara, funtzio tekniko eta politikoak betetzen baititu gure sisteman. Gainera, ikuspegi gramsciarrek beharrezkotzat jotzen du burokrazia estatuarekiko leialtasuna izatea, horrek eramango baitu praktikara estatuaren ideologia eta ikuspegi hegemonikoaren zabalkuntza.

tzen zutenaren aurka (Rosentraub eta Sharp, 1981), uste dugu gaur egun koprodukzioak ez diola soilik zerbitzu publiko espezifikoaren inguruan, interes-talde edo indibidualen agerpen espontaneo eta interesatuari erreferentzia egiten; baizik eta erabaki politikoak hartzeko, funtsezko ardatz gisa, parte-hartze kolektiboa proposatzen duen gobernantza-tresna berri bat dela —eredu berri bat ez bada ere ikusteke dago— (Sorrentino *et al.*, 2018; Nabatchi *et al.*, 2017).

Egia esan, azterketa enpiriko eskasa duena tresna berritzailea da, baina hala ere, botere-harremanen aldaketetara egokitzeko gaitasunengatik, potentzial handia erakusten du.

Izan ere, azken urteotan, munizipalismo edo udalgintza berriaren eskutik eta sakontze demokratikoaren ikuspuntutik, esperientzia edo prozesu berritzaileak egiten ari dira honako hiri-politika hauen inguruan (Blanco eta Subirats, 2012; Telleria, 2020): espazio publikoa, etxebizitza, jasangarritasuna eta mugikortasuna. Gaiak berriak ez izan arren, hauei aurre egiteko moduak beharrezko oinarriak sortzen ditu hirien erreforma demokratikoan aurrera egiteko. Nahiz eta oraindik legitimazio bikoitza lortzeke dagoen, beharrez, eredu hori babesten duten (hautetsontzietan ere) sektore sozial eta herrikoiena; eta gorantz, sakontze demokratikoko prozesu hauen aurka jarduten duten beste gobernu-maila batzuen eragozpenetatik (gastu-sabaiaren bidez edo, Espainiako estatuko hainbat hirik hasitako udalekotze prozesuen kasuan bezala, botere judizialaren bidez).

Deigarria da, kasu honetan, Bartzelonako eta Pariseko edo Valladolideko kasuak alderatzea. Bigarren eta hirugarrenak ur zerbitzuen kudeaketaren udalekotzea lortu zuten. Honek gastu publikoaren murrizketa ekarri zuen, uraren salmenta-prezioaren egonkortzea eta azpiegituren modernizazioa. Bitartean, Bartzelonan arazoa epaimahaietara bidali zen eta udalekotzearen aukera guztiz desagertu zen. Goitik, hau da, Estatuaren estrukturan dauden eragozpen-mekanismoek azkar eta eraginkortasunez erantzun zuten korporazio handien interes partikularrak babesteko.

Bestalde, hiriak demokratizatzeko borrokan aktibo nagusietako bat «gizarte mugimendu urbanoak»⁴ izango lirake (Castells, 1974), askotan irrupzio bidez parte-hartzeko erabiltzen dituztenak. Haien ibilbide historikoari laburki hel diezaiogegu.

⁴ Arestiko terminoaren ordez, «hiri-mugimenduak» erabiliko dugu, egungo hirien errealitatera hobeto egokitzen dela uste baitugu. Izan ere, nahiz eta uste dugun mugimenduek beren burua hiri-mugimendutzat, hiritartzat edo hiriarekin erlazionatutzat hartzea beharrezkoa dela, benetan hiri-mugimendutzat hartzeko (Castells, 1983), ezinbestekoa da berreskalamenduaren testuinguruari berriro ekitea, eta kontuan hartzea gaur egun hiri-mugimenduek lurraldearekin duten eskala anitzeko harremanak? urrun daudela (Sw, Yngedouw, 2004) lehen existitzen ziren antolamendu-egituretatik eta mobilizazio-estrategietatik.

Hiri-mugimenduen marko nagusia aldatzen denean (Telleria eta Ahedo, 2016), mugimendu horiek, 80ko eta 90eko hamarkadatik aurrera, demokrazia ordezkatzailer handiagoa eta eskubide sozial/identitarioak eskatzetik, sistema instituzionalean guztiz sartzerara pasatu ziren.


Baina eredu ordezkatzailerak eskaintzen zituen mugak eta aldaketarako erresistentziak egiaztatu ondoren, marko nagusia eraldatu egin zen. Egun, demokrazia parte-hartzailea eta, azken finean, demokrazia ekonomikoa aldarrikatzen duten diskurtsoak artikulatzen dira, etxegabetzeen aurkako mugimenduak eta okupa mugimenduak erakusten diguten bezala (Martínez, 2011; Bonet i Martí, 2012; González García *et al.*, 2019).

Ildo honetatik, aipatu dugun ezegonkortasun neoliberalaren ondorioz, hiriko arazoen agendan hiri-mugimenduen eragin handieneko uneak gorabeherak izan ditu. Brenner *et al.* (2012: 18-19) ekintza kolektiboaren ahalmen eraldatzailea oinarritzko bi faktoreren arabera dela ziurtatzen dute: «*the objective position, power, and strategies of those currently established in positions of domination; and the objective position, power, and strategies of those who are mobilizing in opposition to established forms of urbanism*».

5. Ondorioak: kontraneoliberalizaziorako potentzia

Hirien erreforma demokratizatzailea hainbat indar eta estrategiaren uztartzearen mende dago. Tokiko estatuaren barrutik barrutik eta kanpotik konprometituko diren indar eta estrategia horiek, sektore guztien, eta bereziki boteretik urrunen daudenen, parte-hartzea indartuko duten praktika eta esperientziak burutu beharko dituzte. Hausnarketa horri lotuta, eskalak ez isolatzearen garrantzia islatzen dugu; izan ere, frogatu den bezala, ezinbestekoa da helburu berera bideratutako ekintza; ezer gutxi balio du hiriaren demokratizazio erradikalaren alde egiteak, neoliberalismo globalaren printzipio kontraesankorrak azpimarratzen ez badira. Horrela, HTKren logika estrategikoan oinarrituz, egungo hirien ezaugarri konplexuak agerian uzten saiatu gara, bai eta egungo areagotze neoliberalerako testuinguruan, sakontze demokratikoko prozesuak aurrera eramateko duten ahalmena ere. Kuantitatiboki ildo honetatik esperientzia asko egon daitezkeen arren, errealitatea oso aldakorra eta loturarik gabea da oraindik, eta esan daiteke asko falta dela nolabaiteko hiri-demokraziaren diskurtsoak lekukotzea lortzeko, bai gizarte-ehunean, bai toki-administrazioan, kontraliberalizazio-prozesuen mesederako tresna eraginkorra izan dadin.

Orain arte aipatutakoak adierazten du ekintza kolektiboa kontraneoliberalizaziorantz bideratu behar dela, heredatutako eta berrartikulatuak izan diren egiturak desartikulatuz, merkatua mugatuz eta esparru alternatibo berriak landuz: tokiko jarduketa izan behar duen kontraliberalizazio desartikulatutik hasita eta sozializazio sakonera iritsi arte (2. grafikoa), non erregimen normatibo neoliberalizatuaren desegitea posiblea izango den (Brenner *et al.*, 2010).



Iturria: egileek eginak Brenner, Peck eta Theodoren (2010) lanean oinarrituta.

III. GRAFIKOA

Kontraneoliberalizazioarako prozesua

Ildo horretan, 2011ko udaberriko protesta- eta mobilizazio-uholdea, hirigunee-tan egon daitezkeen errotze desberdinak alde batera utzita, inflexio-puntu bat izan zen, Walliserrek eta De la Fuentek (2018) «hiri-aktibismo berri» gisa definitzen dutena ulertzeko. Lurraldean gertatu den ekintza kolektiborako inflexio-puntu horrek (ekintza kolektiborako izan zen, oro har, Espainiako estatuaren mugen barruan eta kanpoan), mobilizazioaren hazkundera edo berpiztea markatzeaz gain, kualitatiboki beste parametro batzuetan adierazten da. Kasu eta hiri askotan, mugimenduen instituzionalizatzeko eta gizarte mugimenduetatik eratorritako hautagaitzek hiri-agendan eragina izan dute, nolabait eztabaidaekin ziren gaiak problematizatu eta berriz jokalekura ekarri dituzte. Janoschkak eta Motak (2018) oso era egokian laburbiltzen dituzte «Aldaketarako Udalek» proposatutako hiri-agendaren ildo berriak. Laburbilduz hauek izango lirake: 1) Urbanizazio hedakor predadorea geldiaraztea; 2) Aurreko administrazioetan pribatizatutako zerbitzuak berrudalekotzea; 3) Espazio publikoa berreskuratzea; 4) Demokrazia berrezartzea partaidetza-mekanismo berrien ezarpe-

netik abiatuta. Praxira hurbilduz, Espainian udalgintzaren bultzadak (Merida eta Telleria, 2021) hainbat gai planteatu eta proiektuak egin ahal izan ditu, hala nola, adibidean aurkeztu bezala, Valladoliden ura berriz udalekotzea, Cádizen garbiketa- eta salbamendu-zerbitzuak zuzenean kudeatzeko subiranotasuna, edo Bartzelonan bankuen jabetzako etxebizitza hutsak, etxebizitza sozial bihurtzeko negozio eta berreskurapen prozesua (Roth *et al.*, 2019).

Era berean, nabarmendu behar da lurraldearekin lotura txikiagoa duten hiri-mugimenduak, hala nola feminismoa edo ekologismoa, berpiztu egin direla, eskalak gaindituz eta mugimendu altermundistek eta globalek galdu zuten protesta-zikloaren arrakasta berreskuratuz (Tarrow, 1998). «Hiri-protesta globalizatuen» (Köhler eta Wissen, 2003; Martí i Costa eta Bonet i Martí, 2008) hiri-mugimendu horiek hirietako eta nazioarteko agendan aurrera egiten jarraitzen dute, askotariko gaiak mahai gainean jarritz, hala nola mugikortasuna, gas kaltegarrien isurketen murrizketa (maila nazionalean eta globalean), etxegabetzeen aurkako defentsa komunitarioa edo genero-ikuspegia tokiko politika publikoetan txertatzea.

Orobat, mugimendu horiek eginkizun garrantzitsua izan dezakete deskribatu dugun agertoki multieskalar batean. Azkenik, eta pandemiak gaur egun sortzen duen ziurgabetasun-maila handia gorabehera, ebidentziek erakusten dute (Espainiako Pandemiaren Atlas⁵) hiri-testuinguruan sakontze demokratikoaren dinamika hori mantendu egiten dela, eta areagotu ere egiten dela, bai ekintza kolektiboaren eta baita mekanismo instituzionalizatuen bidez. Ikusteke dago noiz arte iraun dezakeen olatu progresista honek.

Sakontzeko

Blanco, I; Subirats, J. eta Gomà, R. (2018). El nuevo municipalismo: derecho a la ciudad y comunes urbanos. *GAPP. Nueva época*, 20.

Brenner, N. eta Sevilla-Buitrago, A. (2017). *Neil Brenner: Teoría urbana crítica y políticas de escala*. Icaria.

Delgado, M. (2015). *El espacio público como ideología*. Los Libros de la Catarata.

Harvey, D. (2007). *Breve historia del neoliberalismo*. Akal.

Jessop, B. (2016). *The state: Past, present, future*. Polity Press.

Lefebvre, H. (2013). *La Producción del espacio*. Capitán Swing.

⁵ Espainiako Institutu Geografiko Nazionalak eta Espainiako Geografia Elkarteak bultzatzen dute argitalpena, Alcalá de Henaresko Unibertsitateko José Francisco Sánchezen eta Alacanteko Unibertsitateko Jorge Olcinaren zuzendaritzapean. Argitalpen hau SOLIVID ikerketa proiektutik dator, elkarlaneko mapa bat eta online baliabideen banku bat eraikitzeko proiektu kolektibo bat, COVID-19aren krisiari aurre egiteko ekimen solidarioei buruzkoa. Hona hemen iturria: <https://www.solivid.org/?lang=es>.

- López, I. eta Rodríguez, E. (2010). *Fin de ciclo: Financiarización, territorio y sociedad de propietarios en la onda larga del capitalismo hispano (1959-2010)*. Traficantes de Sueños.
- Smith, N. (1984). *Uneven development*. Blackwell.

Sindikalismoa eta demokratizazioa kapitalismo globalean: Euskal kasua

Jon Azkune, Eneko A. Romero, Jule Goikoetxea

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena. Esku artean dugun testuak Estatu garaikidean gertatzen diren estrategia desdemokratizatzaileen eta demokratizatzaileen arteko tentsioa aztertu nahi du. Artikulazioaren metodoari jarraituz, irakurketa abstraktu eta sinpleagoetatik abiatuko gara pixkanaka zehaztasuna eta konplexutasuna txertatuz. Hori dela eta, hasteko, Estatuaren kontzeptualizatuko dugu, egitura-agentzia banaketa gainditu eta Estatuaren harreman konplexu gisa ulertzeko aukera emango digun Ikuspegi Estrategiko Erlazionala baliatuz. Gogoeta teoriko horren hurrengo analisi planoa gobernamentalitate neoliberalak eskainiko digu. Neoliberalismoa ez da Estatuaren desagertpena edo irakurketa ekonomikora mugatuko. Neoliberalismoa estatuak bultzatzen dute, estatuaren bidez, eta estatuaren bertan garatzen da. Horregatik, maila zehatzago batean, horren ondorio zuzenena aztertuko dugu: demokraziaren pribatizazioa. Erakunde eta eragile pribatuak modu estrategikoan indartuko diren bitartean, eredu horri erantzun dioten erresistentzia eta demokratizazio-proposamen alternatiboak ere aztertu behar dira. Plano zehatz eta konplexuago batean, Euskal gehiengo sindikalaren kasua aztertuko dugu, aurretik botere-blokean sartutako eta postfordismoan kanporatutako subjektuek gauzatutako demokratizazio-estrategiak behatzeko. Gure lanaren ondorio nagusia hau da: estrategia demokratizatzailea boterearen birlurraldetzean oinarritzen da, instituzionalizazio publikoaren bidez. Horri esker gobernu-modu neoliberalak sistematikoki kanporatutako subjektu eta klaseak ez ezik, beste gobernu-modu batzuetan ere zentralak ez ziren beste batzuk ere barnean hartuko dira; estrategia horri «estatismo komunitarista» deituko diogu.

1. Sarrera

Saskia Sassen-ek erakusten du globalizazioa estatuak berek bultzatu dutela, nazio-estatuaren funtsezko elementuak eremu pribatuetara transferituz. Horrek ekarri du demokraziaren pribatizazioa deitu dugun prozesua (Goikoetxea, 2017). Estatuaren gaitasunak eta, beraz, ahalmen politiko publikoak (erabakiak hartzea, legeak sortzea eta ezartzea, ebaluatzea, arautzea, ekoiztea eta banatzea) esku pribatuetara

transferitza, adituak, lobbyak, interes-taldeak, erakunde betearazleak edo korporazio handiak izan, demokraziaren pribatizazioaren ezaugarri dira.

Estatuaren ahalmen publikoa (autoritatea) husteko prozesua hainbat nazio-estatu bultzatu dute (ez merkatuaren premia objektiboek edo egia ekonomiko unibertsalek), klase sozioekonomiko desberdinen botere harremanen eta interesen ondorioz. Hori dela eta, globalizazioak ez die berdin eragiten nazio-estatu guztiei, horien ondorioak bakoitzaren barne-konfigurazioen eta egitura ekonomikoaren arabera izango baitira. Sassen-en arabera (2008), globalizazioa nazio-estatuaren antolaketa-logikak eta bere gaitasunak desmuntatzearen eta eskala ekonomiko, judicial eta finantzario globalean bermihizatzearen emaitza da. Antolatze gaitasun eta logika berri horien ondorioz, desnazionalizazioa gertatzen da. Hala ere, herriak nazioartean aukeratutako egitura politiko publikorik ez dagoenez, desnazionalizazio hitza eufemismo bat da. Maila globalean aukeratutako eta herri-kontrolaren mende dauden egitura horiek gabe, desnazionalizazioa demokraziaren pribatizazioa edo desdemokratizazioa adierazteko beste termino bat da.

Euskal kasuan, demokraziaren pribatizazioaren aurpegietako bat sindikalismoa edo, gutxienez, horren zati bat kanporatzea da. Horrela, ikusiko dugu euskal estatu-erakunde (EEE) (Goikoetxea, 2013) gaitasuna hustu egin dela lan-merkatuko funtsezko elementuei buruzko erabakiak hartzeari dagokionez, horiek estatu matrizean birzentralizatuz (Azkune, 2021). Fenomeno horrekin batera, sindikatuak tradizioz ordezkaturako klase sozioekonomikoak sistematikoki kanporatzen dira, Sassenek berak (2014) adierazitako zentzuan, eta ekonomiaren tertziarizazioa prekariora edo zuzenean ordaindu gabeko lan feminizatueta oinarritzen da (Goikoetxea, Lujanbio, Rodríguez eta Garai, 2020).

Sindikatuak askotariko erantzuna ematen diote desdemokratizazio-prozesu horri, baina bi talde handi bereiz ditzakegu: euskal gehiengo sindikala deritzona, bi sindikatu nagusiek eta beste sindikatu sektorial batzuek osatua; eta Estatuaren sindikatu nagusiek, CCOO eta UGTk osatutako multzoa. Lehen blokearen birdemokratizazio-estrategia aztertuko dugu, estatu nagusiak eta beste EEE batzuek garatutako gobernamentalitate proiektu alternatibo bat toki-mailan instituzionalizatzeko ahaleginetan oinarrituta.

Tesi horiek argudiatzeko, Estatuaren teoriaren berrikuspenarekin hasiko gara, batetik, gobernu-joera neoliberalaren eta desdemokratizazioaren arteko harreman kausala garatzeko, eta, bestetik, sindikalismoaren eta demokratizazioaren artekoa, horretarako Estatuaren Ikuspegi Estrategiko Erlazionalaz baliatuz.

2. Estatuaren teoria banaturiko mahaietatik harago

Hizkuntza erromantze eta germaniko gehienetan, *st-* sustraia duten hitzek *e(st)* abilitatea eta, ondorioz, denbora-iraupena islatzen dute: estatua, egitura, instituzioa, estatutua, estatua. Beraz, nahiz eta horiek alde batera uzten saiatu, eztabaida akade-

mikoaren lehen lerrora itzultzen dira, eta ia belaunaldiz belaunaldi berregokitzea eskatzen dute. Hala ere, hausnarketa horiek ez dira hutsean egiten, garai bakoitzeko korrante nagusiek eta testuinguru politiko orokorrak baldintzatuta baizik.

Gaia aztertzerakoan, segmentaziorako joera nagusitu da, edo Gabriel Almondek metaforikoki «mahai bereiziak» deitu zuena (1988). Haren ustez, zientzia politikoa-ren barruan hainbat eskola eta sekta mahai berezietan esertzen dira, bakoitzak zientzia politikoa zer den behar bezala ulertzen duela uste duen arren, bakoitzak bere ahultasuna isolaturik mantentzen du (1988: 828).

Estatuaren teoriari buruzko eztabaida, soziologiako eta zientzia politikoko eztabaida handiekin batera egin da, besteak beste, *empirismoaren eta abstrakzioaren* arteko lehian, *egituraren eta agentziaren* arteko eztabaidan edo *estatuaren eta gizartearen* arteko bereizketa oinarri duten ikuspegiaren arteko gatazkan (Simon, 2004: 47). Korrante bakoitzak bere ikuspegiaren nagusitasuna defendatu du, eta gutxi batzuk baino ez dira saiatu elkarriketa eraikitzailea bilatzen eta bakoitzaren onena integratzen.

Eztabaida horien oinarria ulertzeak eta gainditzen saiatzeak gure ikuspegi teori-koa aberasten eta azken hamarkadetako haustura epistemologiko garrantzitsuetan kokatzen lagunduko digulakoan gaude. Simonek adierazi digunez, bai Migdal (pluralismotik datorrena), bai Jessop (estrukturalismo marxistatik datorrena) izan dira iturri desberdinetatik edan eta bakoitzaren eskema mugatuak gaindituko dituen ikuspegia garatu duten bakarrik (*ibidem*: 425). Jessopen lanaren ardatz nagusia Estatuaren teoria den heinean, gure ikuspegi teorikoaren erreferentzia nagusia izango da.

Abstrakzioaren eta empirismoaren arteko hausturari dagokionez, bai pluralismo klasi-koak, bai Truman, Dahl, Polsby edo Latham autoreek bultzatutako behaviorismoak fede itsua zuten empirismoan (*ibidem*: 455-456). Lehen kritikak Richardson eta Jordanen pluralismo erreformistaren eta bigarren Dahl eta Lindblomen neopluralismoa-ren aldetik etorri ziren bitartean, Migdal-en lana argitaratzean lortu zuen korrante teoriko handi horrek modu koherentean integratzea abstrakzioaren eta empirismoa-ren arteko elkarrekintza (*ibidem*: 457).


Ikuspegi antagoniko batetik, estrukturalismo althusseriarra, estrukturak nagusi ziren abstrakzio huts batetik abiatzen zen, beraz, ez zuen zentzurik gertaera historikoetan gelditzeak, azalpen-gaitasunik ez zuten anekdota hutsa besterik ez zirelako (*ibidem*: 458). Theda Skockpolek eta Fred Blockek lehen kritikak egin zituzten arren, abstrakzioarekiko obsesio estrukturalistari uko eginez, Bob Jessop izan zen mahai bereiziak batzeko gai zen proposamen bat eskaini zuena. Haren ustez, ez dago alde zurreko teorizazio batetik abiatzen ez den errealitate empiriko eta zientifikoki objektiborik, ezta elementu erreal, zehatz eta empiriko bat alde batera uzten duen abstrakzio teorikorik ere (1982: 214). Dikotomia faltsu hori gainditzeko, artikulazioaren metodoa garatzen du.

Metodo horrek abstrakzioaren eta empirismoaren arteko dialektika integratzen du; izan ere, plano abstraktu eta simple batetik abiatuta, maila zehatzago eta konplexuago batera eramango gaituzten analisi-plano berriak urratsez urrats eskaintzen dituen mugimendua proposatzen du (Jessop, 1982: 213-220). Orobat, euskal sindika-

lismoaren eragin demokratizatzailea maila zehatz batean aztertu aurretik, uste dugu beharrezkoa dela aldez aurreko urrats abstraktuago eta sinpleago bat egitea eta Estatua eta gobernu neoliberala zer diren ulertzea, ondoren gure ikerketaren xedeari plano zehatzago eta konplexuago batean hurbilduko gaituzten analisi-plano gehiago gehituz joateko.

Bestalde, *agentziaren eta egituren* arteko hausturak aurrekoaren antzeko logika du. Tradizio pluralista aktoreengan erabateko konfiantzarekin hasten da, pixkanaka elementu estrukturalak integratuz joateko Richardson eta Jordanen eskutik lehenik, eta bigarren fase batean Charles Lindblomen neopluralismoaren eta Robert Dahl bigarrenaren eskutik (Simon, 2004: 460). Neoestatismoak pluralismoan duen eragina mugatzeko ahaleginean, Joe Migdal izan zen zuzen lortu zuena agentzia eta egitura dikotomia integratzea, erakunde politikoen errealitatea aitortuz, baita erakunde horien ikusmolde eta irudi desberdinen garrantzi performatiboa ere (*ibidem*: 461).

Antzeko ildotik, Althusser eta Poulantzasen abstrakzioa hertsiki lotuta dago egituretan zuten konfiantza epistemologikoarekin, non aktoreak produkzio-harremanen isla besterik ez ziren (Ritzer, 2001: 179). Jessopek ikuspegi horren determinismoarekin batera, Holmwood eta Stewarten egituraketaren teoriaren erredukzionismoa arbuatzen ditu. Horren ordez, egitura eta agentzia era originalean integratzen ditu. Haren ustez, egituretan inskribatutako selektibitate estrategikoarekin batera, aktoreen ekintza estrategikoki kalkulatzat eta egiturari begira bideratuz hartu behar ditugu (Jessop, 1996: 124). Grafiko honetan ideia horien laburpen bat ikus dezakegu:



Iurria: Jessop, 1996:124.

IV. GRAFIKOA

Egitura eta agentziaren arteko dialektika

Eragile sozialei buruzko azterketek, gure kasuan sindikalismoak, eta demokrazia garaikideak, agentziaren egiturazko dimentsioaren eta egituraren ikuspegi estrategiko

hori integratu behar dute. Aurrerago ikusiko dugunez, besteak beste, euskal kasuan hori funtsezkoa da estatu matritzetik bereizirik demo eta nazio eraikuntza prozesua ulertzeko (Azkune, 2021).

Azkenik, aurreko hausturetan ez bezala, *gizartearen eta Estatuaren* arteko banaketari dagokionez, pluralismoak eta estrukturalismoak bilakaera paraleloa egiten dute, gizarteak erabateko lehentasuna izatetik, bi dimentsioen integrazioa igaroz. Pluralismoak Estatu kontzeptuari uko egiten zion eta zenbait kontzeptu lehenesten zituen, hala nola «talde sozialak» edo «sistema politikoak». Estrukturalismoak sistema kapitalistaren dimentsio ekonomikoa eta soziala lehenesten zuen (Simon, 2004: 462). Ildo horretan, nahiz eta Althusserrek eta Poulantzasek nolabaiteko autonomia eman Estatuari, funtsean, sistema kapitalistaren interesen epifenomeno-rolari eusten zion.

Berriz ere Migdal eta Jessop dira dikotomia hori hautsi eta bi dimentsioak osatzen dituztenak. Haien ustez, ezin da ikuspegi estatiko bat mantendu, Estatuaren aparatuak eta praktikak beste ordena instituzional eta praktika sozial batzuekin interdependenteak baitira materialki (Jessop, 2008: 5). Orobat, bi dimentsioak banaezinak dira; izan ere, Estatu sozialki integratuta dago, eta banaketa horren itxura gaur egungo estatu-eraikuntzaren prozesuaren emaitza da (Mitchell, 1991: 95).

Horretan oinarrituta, Estuari buruz hitz egitean, ezin dugu gauza bat edo objektu bat kontsideratu eta haren mihizatze instituzionalera mugatu, ezta bizitza propioa duen subjektu bat ere ez, ez da erabiltzen duen aktore nagusiaren zerbitzura dagoen tresna pasibo bat, eta ez da hainbat interes sozialen arbitro gisa jarduten duen aktore neutral bat (Jessop, 2016: 54). Poulantzasek emandako definizioari jarraituz, Estatu bere formak zehaztutako gizarte-harremana da (1979 [2014]: 154), eta horrek, bere definizioaz haratago, irismen luzeko ondorioak ditu sindikalismo garaikidea eta hark demokratizazio-prozesuetan duen eragina aztertzerakoan.

Beraz, Estatu ez da soilik egitura, ezta gizartea soilik eragile. Estatu ez da esentzia eta metaketa, eta aktoreak ez dira soilik ekintza eta kontingentzia. Estatu ez da unibertsalaren errepresentazioa, eta herria bere instantzia partikularra (Goikoe-txea, 2014, 2018).

Estatu gizarte-harreman gisa definitzeak esan nahi du estatu-boterea erabiltzeak kondentsazioa dakarrela, indarren oreka aldakorren formak zehaztua¹ (Jessop, 2008: 46). Jessopen arabera, Estatuaren botereak indar nagusien oreka islatzen du, estatuaren aparatuaren bitartekoa, egituraz inskribatutako selektibitate estrategikoarekin² (*idem*). Ikuspegi horretatik begiratuta, Estatu honela defini daiteke: erakundeak, gizarte-indarrak eta jarduerak, gizartean txertatuak eta aratuak, modu

¹ Gaztelaniaz: Definir al Estado como una relación social, implica que el ejercicio de poder estatal, supone una condensación determinada por la forma del cambiante equilibrio de fuerzas (Jessop, 2008: 46).

² Gaztelaniaz: «El poder del Estado refleja el equilibrio de fuerzas predominante mediado por el aparato estatal con su selectividad estratégica inscrita estructuralmente»

estrategikoa hautatuak eta erabakiak hartzearen inguruan antolatutako kolektiboki lotesleak direnak irudikatutako komunitate politiko batentzat³ (*idem*).

Jessopek selektibitate estrategikotzat hartzen du Estatuak, gizarte-multzotzat hartuta, indar politikoez beren interesak eta estrategia partikularrak testuinguru espazial espezifikoetan jazartzeko duten gaitasunean eragin espezifiko eta berezia izateko duen modua⁴. Selektibitate horren ondorioz, interes, praktika eta diskurtso batzuei beste batzuei baino irekiago egongo da.

Ikertzaile britainiarrak adierazten duen moduan, arreta handia jarri behar zaio estatu-formen eta erregimen politiko espezifikoaren egiturazko selektibitate estrategikoari, eta urrundu egin behar da teorizazio abstraktu eta sarritan esentzialistatik, erakundearen eta gizarte-borrokan elkarrekintza konplexuaren bertsio zehatzagoen alde (*ibidem*: 48-49).

Zentzu horretan, boterea ez du Estatuak bere horretan erabiltzen, baizik eta indarren orekaren mende dago, bai zentzu zabalean ulertutako gizartearen barruan, bai Estatuaren aparatuen barruan. Esan dugun bezala, gizartea eta Estatuak ez dira bi dimentsio elkarrengandik bananduak eta kontrajarriak. Estatuak aztertzean, bere zentzu zabalean ulertu behar dugu (Gramsci, 1981), gizartea deitu dugunaren eta Estatuotzat hartzen dugunaren arteko elkarrekintza konplexua kontuan hartuta. Hori, gure kasuan, garrantzi handikoa izango da; izan ere, sindikalismoak modu estrategikoan jardungo du egitura instituzionaletan dituen posizioak aurreratzeko, eta azken horiek erabiltzen saiatuko dira bere gizartea gobernatzeko eta haren gainean «estatu-efektuak» sortzeko. Gainera, alderdi politikoen mobilizazio soziala ez ezik, sindikatuen eta edozein demokratizazio-prozesutan funtsezkoak diren bestelako mugimendu sozialena ere sartu behar dugu.

3. Foucault eta gobernamentalitate neoliberalak

Neoliberalismoa definitzerakoan, hain modu zabalean eta hain testuinguru desberdinetan erabili den kontzeptu batekin egiten dugu topo, ezen analitikoki erabilgarria ez den oskol huts bat izatera iritsi baitaiteke. Fenomeno konplexu bat definitzeko edozein saiakera beti izango da selektiboa, beraz, ez dago haren nozio neutral edo objektiborik (Jessop, 2008: 2). Gure kasuan, gobernamenduaren ikuspegi foucaultak

³ Gaztelaniaz: «el Estado puede definirse como un conjunto de instituciones, organizaciones, fuerzas sociales, y actividades, incrustadas, y reguladas socialmente, seleccionadas de manera estratégica, y organizadas alrededor de la toma de decisiones que son vinculantes colectivamente para una comunidad política imaginada».

⁴ Gaztelaniaz: «Jessop entiende por selectividad estratégica, la forma en la que el Estado, considerado como un conjunto social, posee un impacto específico, y diferenciado sobre la capacidad de las distintas fuerzas políticas para perseguir sus intereses, y estrategias particulares en contextos espaciotemporales específicos».

rra erabiliko dugu gobernu neoliberalaren ideia oraindik maila abstraktuan hurbiltzeko.

Michel Foucaultek boterearen mikrofisika behetik aztertzen du, hain zuzen, botere-praktika zehatz, sakabanatu eta heterogeneo moduan definitzen dituen praktika bidez (Foucault, 2008: 95). Foucaultek gobernamentalitatearen kontzeptua garatu zuen praktika horiek aztertu ondoren, eta, horren arabera, Estatuaren eta gobernuaren kontzeptuetara iritsi zen. Horren haritik, Estatu, gizartea, merkaturia edo gizarte zibila bezalako kontzeptu ustez unibertsalak, alde aurretik berezko esentzia balute moduan erreifikatu ordez, botere-praktika zehatzen ondorioz bakarrik azal daitezkeela uste dugu (Foucault, 2008: 17). Botere praktika horiek azaltzeko grilla analitiko egokiena gobernamentalitatearen kontzeptua da (Foucault, 2008: 186).

Oro har, pertsonen jokabidea bideratzeko moduari dagokio (*idem*). Gobernamentalitatea, aldi berean, Estatuaren barnean eta kanpoan kokatu daiteke, gobernuaren praktikek bere definitzen dutelako zer dagoen eta zer ez dagoen Estatuaren mende (Foucault, 2006: 136). Horretan oinarrituta, neoliberalismoa ekonomiaren kolonizazio huts edo Estatuaren atzera-egite gisa hartu beharrean, «politikaren ageriko amaiera» hori programa politiko gisa definitu behar dugu (Lemke, 2007: 45).

Gobernamentalitate neoliberalaren arrazionaltasun berri gisa

Gobernu liberal klasikoak ez bezala, gobernu neoliberalak bere funtsezko printzipio baten aurka egiten du: «laissez-faire». Arazoa ez da ekonomiaren autonomia, baizik merkatu ekonomia osatzeko botere politiko eta sozialak nola antolatu behar diren erabakitzea (Cotoi, 2011: 113). Elkartruketik lehiara igarotzen da fokua, eta, beraz, «laissez-faire»a bakuntasun naturalista bihurtzen da, lehia ez baita alde aurretik emandako datu naturala, artifizialki eraikitako baldintzen ondorioa baizik (Foucault, 2008: 120). Beraz, lehia etengabeko ahaleginaren ondorio da, gobernu-modu aktibo baten etengabeko lanaren ondorio (Cotoi, 2011: 113).

Testuinguru horretan, Estatuaren esku-hartzea beharrezkoa izango da, merkatura bideratu beharrean, merkatu-ekonomiaren aukera-baldintzetara bideratuko dena (Read, 2009: 28). Horregatik, ardatza ez da merkatuan esku hartzea izango, baizik eta gizarte-ehunean esku hartzea, lehiaren mekanismoa zabaltzeko eta biderkatu ahal izateko gizarte-kidegoko maila guztietan eta eskualde guztietan (Cotoi, 2011: 114). Helburua ez da merkantziaren efektuari lotutako gizartea, baizik eta dinamika lehiakorra; ez supermerkatuko gizartea, enpresa-gizartea baizik (Foucault, 2008: 147).

Ororen gainetik, gobernu neoliberalak arrazionaltasun berri bat eskaintzen digu, ezagutza politiko berri bat, neutrala ez dena eta gobernatutako errealitatea soilik ordezkatzeko ez duena (Lemke, 2002: 59). Ez da kanpoko instantzia bat, baizik gobernu-elementu propio bat, diskurtso-eremu bat sortzen laguntzen duena, boterearen egikaritzea «arrazionala» izan dadin. Beraz, benetako erregimen gisa funtzionatzen

du, eta ezagutza-modu berriak sortzen ditu, nozio eta kontzeptu berriak asmatzen ditu, erregulazio- eta esku-hartzeko eremu berriak gobernatzen laguntzeko (*idem*).

Orobat, ikusten dugu hainbat erakundek, hala nola Nazioarteko Diru Funtsak, Munduko Bankuak, EBk, Unescok edo nazioko eta tokiko erakundeek antzeko diskurtsoak erabiltzen dituztela, merkatu askea, gobernantza ona, ekintza arduratsua edo kontuak ematea azpimarratuz (Joseph, 2014: 12). Hainbat arlotan, pobrezia murriztetik hasita, Estatua berreraikitzeke proiektuetan edo Europar Batasunaren proiektuetan, besteak beste, honako ideia hauek etengabe azaleratzen dira: botereak itzultzea, tokiko erantzukizuna, lankidetzak, erantzukizun partekatua, gobernantza-sareak edo herritartasun aktiboa. Testuinguru oso ezberdinetan aplikatu arren, elkarren oso antzekoak dira, arrazionaltasun berak moldatzen dituelako, gobernamendu neoliberalak ezarritakoak.

Horrela, ezaguna da modu aske eta deszentralizatuan gobernatzeko deia, distantziatik jarduteko, zuzeneko ekintza eta agintari subiranoen kontrola baztertuz. Hala ere, distantziatik gobernatzeak botere-teknologia berriak eskatzen ditu, eta hor ulertzen dugu gailu berrien gorakada, hala nola gobernantza, *New Public Managementa*, herritartasun aktiboaren sustapena, GKEak eta gobernu kanpoko beste eragile batzuk edo gizarte zibilaren inplikazioa gobernu demokratikoagoa eta eraginkorragoa lortzeko (Kohler-Koch, 2007: 255).

Gure ustez, gobernamentalitate foucaultiarren ikuspegiak tresna ona eskaintzen digu azken hamarkadetako aldaketa askoren azpian dagoena ulertzeko, zein den haien arrazionaltasuna eta nola funtzionatzen duten; hala ere, hegemoniaren teoriak hobeto azaltzen digu nola eta zergatik diren nagusi (Joseph, 2014: 12). Azken hori egokiagoa da testuinguru instituzional orokorra, klase-indarren rola, interes partikularrak nola ordezkatzeko diren edo proiektu politiko desberdinak nola eraikitzen diren ulertzeko. Era berean, gobernamentalitatea estatuek- estatuen barruan eta estatuen bidez bultzatzen dute (Joseph, 2014: 12). Norabide bikoitzeko ibilbide bati jarraituz, estatuak gobernamentalitate forma berriak moldatzen ditu, eta, aldi berean, azken horiek estatua moldatzen dute. Hortxe kokatzen dugu demokraziaren pribatizazioaren egungo auzia.

4. Neoliberalismoa eta demokraziaren pribatizazioa

Estatuaren eta demokraziaren arteko harremanari dagokionez gure premisa hau da: Estatu moduan ezagutzen ditugun egitura, praktika, teknika eta harreman konplexuak, biolentziaren sorkuntzan eta erreprodukzioan tresna eraginkorrak izan daitezkeen moduan, ongizatea, integrazioa edota parekidetasunaren sorkuntzan eta erreprodukzioan ere ezinbesteko tresnak izango dira. Desberdintasun teoriko eta filosofiko honek eragin zuzena dauka ez soilik Estatua ulertzean, baizik eta edozein objektu sozial ulertzerakoan. Eragina izango du botere harremanen azterketan eta

harreman horien eragina gizartearen, gizabanakoetan eta edozein komunitateren sorkuntzan, baita demokraziaren eraikuntza prozesuan.

Demokrazia Estatu edo Herririk gabe proposatzeak, kosmopolita liberalek egiten duten moduan demokrazia postnazionala eta postburujabea aldarrikatzean, demokraziaren teorizazio berri oso bat behar du. Azaldu beharko dute nola den posible berdintasuna, ahalduntzea edo ahalmen kolektibo zein politikoa eraikitzea egitura publiko eta publikatutako lurralderik gabe; hau da, herri-burujabetzarik gabe eta komunitate politiko baten autogobernu ahalmen barik, komunitate hau nazio, herrialde ala *demos* deitu (Goikoetxea, 2014). Aldi berean, frogatu beharko dute kapitalismoa, proposatzen duten sistema ekonomikoa alegia, Estatu edo Herri barik bideragarria dela.

Inork ez du azaldu nola kapitalak kapital gehiago sortu ahal duen emakumeek eskaintzen duten doako lan indarra gabe edo estatuek, instituzioen bidez, egiten duen lana ezabatuz (hezkuntza publikoaren bidez, adibidez). Berdina botere judizialak eta exekutiboak sortzen duten plataforma legal autoritario eta lotesle barik, edo kapitala zirkulatzeko behar duen azpiegitura publiko barik.

«Langile moderno», «langile industrial», «finantzario kapitalista» eta abarrak subjektu historiko zehatzak dira, eta haiek sortzeko gorputzak modulatzeko eta erregulatzeko beharrezkoa da. Gorputz eta talde sozial batzuek lotuta egon behar dute produkzio kateetara, eta horretarako marko diskurtsibo konkretuak behar dira; estatuek —instituzioa moduan— eta estrategia publiko konplexuek soilik sor dezakete sorkuntza honetarako beharrezkoa den gobernu arte determinatua. Merkatuek, nazioarteko gobernantza sistemek, lehiakortasunak, gizabanako arrazionalak ez dute ez ongizatea ez komunitateak sortzen, instituzioek eta estrategia publikoek egiten duten moduan; hau da, modu masiboan eta egituratuan.

Ikuspegi Estrategiko Harremanezkoari jarraituz (Jessop, 2008), erakunde eta estrategia publikoei buruz hitz egiten dugunean, hezkuntza publikoaz, osasungintzaz, zerbitzu publikoek eta erakundeek eskaintzen duten beste ondasun publikoek ari gara (ura, airea, errepideak, energia, trenbideak...), baina baita ere erakundeek zertifikatutako eta, partzialki bada ere, finantzatutako bestelako elkarteez, sindikatuek eta alderdiez ere. Estatu ez da soilik parlamentua, polizia edo justizia sistema. Estatu ez da klase zapaltzaile baten esparru pribilegiatua, besteak beste ez dagoelako klase zapaltzaile bakarra, eta, beraz, ez dago gatazka politiko edo klase borroka bakarra. Ezin dugu ulertu Estatu botere bortitz baten esparru gisa edo klase dominatzaile baten tresna gisa; hori fobia liberal eta patriarkalaren irakurketa da, non Estatu edo boterea «txarra den» eta familia «ona», gizabanako arrazionalari moralitate arrazionala egotziz, eta komunitatea askatasun esparrua (Goikoetxea, 2017).

Estatu boterearen efektua da, ez jatorria. Are gehiago, fenomeno sozialez egituratua eta fenomeno sozialen egituratzailea den objektu soziala da Estatu; hori dela eta, boterearen efektua izateaz gain, bir(produktzio) eremu bat ere bada, non «emaitza» kontzeptua partzialki identifikatu ahal dugun. Objektu sozialak objektiboak eta subjektiboak dira; ez dira soilik instituzionalizatutako edo objektibatutako botere ha-

rremanak, baizik eta gure mundua artikulatzen eta zentzua ematen dioten sinetsmenak, pertzepzioak, diskurtsoak... Fenomeno sozialen existentzia ezin da murriztu kausa/emaitza dikotomiara, logika elementala edo proposizionalak egiten duen moduan, askotan efektuek kausak *a posteriori* artikulatzen dituztelako; kausak efektuen esanahia direlako.

Defizit demokratikoa gainditzeko egin diren proposamen global zein europarrak demokraziak subiranotasunik gabe funtziona dezakeela dioten premisan oinarritzen dira. Teorialari liberal gehienek nazioaren, herriaren eta estatuaren subiranotasuna arbuatzen dute egungo mundua demokratizatzeko mekanismo gisa. Gure premisa zera da, estatua deitzen diogun egitura publikoen multzoa, estatuaren eta herriaren subiranotasunaren teoria eta jardunbideekin batera, funtsezkoak direla demokratizazioarako. Horrez gain, komunitate politiko baten botere instituzionala eta konstituzionala zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta subiranotasun txikiagoa izango du erkidegoak, eta, beraz, erreproduzio ahalmen txikiagoa izango du denboran eta espazioan zehar komunitate autogobernatu gisa irauteko.

Ikusiko da nola eta zergatik *demoi* deitzen ditugun tokiko lurralde-mihiztatze horiek subiranotasuna behar duten, erkidego batek autogobernurako duen ahalmen politiko instituzional eta lurraldetzat hartuta. Subiranotasuna zatigarria izan daiteke, baina ezin da desagertu; izan ere, ahalmen politikorik (subiranotasun materiala) eta aginte-leku loteslerik (subiranotasun formala) gabeko komunitatea ezin da bere erabaki politikoen arabera gobernatu.

Subiranotasuna ulertzeko modu honek berekin dakar liberalismoak subiranotasuna eta botere politiko instituzionalizatuaren kontzeptualizazioa alde batera uztea. Estatismo industrialetik eta demokrazia liberaletik haratago joateko apustua egiten dugu. Demokrazia ezin da mugatu herria ordezkatzera; aitzitik, aztertu behar da nola ezartzen diren hezkuntza publikoa (mundu guztiarentzat derrigorrezkoa) eta osasuna (adibidez) eta nola modulatu eta ahaldu dituzten gorpuz indibidualak eta kolektiboak beren autogobernurako eta emantzipazioarako.

Horretarako, kontuan izan behar dugu euskal lurralde jakin batzuek demokrazia gisa erreproduzitzeko eta bizirauteko izan duten gaitasun politiko eta publikoa, eta ez soilik eskualde nazional, kultural edo ekonomiko gisa. Tokiko demokratizazioarako baldintzak existitzen diren lurralde horietan, euskal nazioa *demoi* gisa erreproduzitu da, eta baldintza horiek ez dituzten leku horietan, berriz, euskal nazioa desagertzen ari da. Nortasun eta leialtasun politiko guztiek baliabideak eta nolabaiteko instituzionalizazio- edo formalizazio-maila behar dute erreproduzitzeko.

Pribatizazio globaleko prozesu multieskalar eta multidimentsionalak espazio berriak eraikitzea dakar, eta birlurralderatze- eta deslurralderatze-prozesu horrek desdemokratizazio-prozesu desberdinak barne hartzen ditu, kanpoan baina baita erakunde demokratizatzaileen rola (sindikatuak, esaterako) eraldatzen den muga politiko instituzional berberen barruan ere.

Pribatizazio horren adibide bat TTIPa (Transatlantic Trade and Investment) da. Europar Batasunaren eta Estatu Batuen arteko merkataritza askeko akordio hau-

Sassenek (2008, 2013) esaten duenaren adibide bat da; lurraldearen desnazionalizazioaren eta demokraziaren pribatizazioaren adibidea, alegia. Estatuak nazioz gaindikoa erakunde antolatuei eta herri-subiranotasunetik independenteak diren eragileei uzten diete beren autoritatea, eta merkatuaren eta enpresa pribatuaren interesen arabera jarduten dute.

Nazioarteko zuzenbidearen aldaketak eta horrek nazio-estatuaren lege subiranotasunaren duen eraginak, negoziazioaren opakatasunak eta botere politikoa exekutiboari eta korporazioei transferitzeak, Estatuaren pribatizazioaz gain, ongizatea eta gizarte inklusioaren oinarrituta dauden langile klasearen eta, oro har, herritarren eskaerak despolitizatzen ditu.

Sindikatuak, orobat, aktore pribilegiatua izan zen fordismoaren garaian, Estatuarekiko harremanei dagokionez. Langileen interesen ordezkari gisa jardun zuen Ongizate Estatuaren, Estatuarekin eta patronalarekin hiruko negoziazioak eginez. Globalizazio postfordistan, non Ongizateko Estatu Nazional Keynestarrak Lan-erregimen Schumpeteriar eta Postnazional bihurtzen diren (Jessop, 2008), hiruko elkarriketa kapitalaren eta Estatuaren arteko aldeko negoziazio bihurtzen da, eta horren ostean egiten dira patronalaren eta enplegatuaren arteko zuzeneko negoziazioak, hiruko negoziazioaren eredu alboratuz.

Hala ere, negoziazio honetan lanaren prezioa merkatuak erabakitzen du osoz. Hau da, kapitala-patronala konbinazioak. Sindikatuak alde batera uzteak esan nahi du langileak ez duela defentsa-plataformarik, eta, ondorioz, kontratu sozialak sexu-kontratuaren ezaugarri asko bereganatzen dituela —emakumeen ordezkari eta negoziatzaile ezari dagokionez—. Hori esanda, ziurtasun bakarra dugu: sindikalismoa aktore demokratizatzailea izan da, baina bere egiturak, lan egiteko moduak, diskurtsoak eta antolatze moduak aldatu ezean, izateari utziko dio etorkizuneari.

5. Sindikatua agente demokratizatzaile gisa

Sindikalismoa bigarren mailako agentea izan ohi da: langile-klasearen eta patronalaren edota Estatuaren arteko bitartekari moduko bat izan da, kapitalak inposatutako testuinguruari erantzuten diona (Offe, 1997; Hyman, 2007). Gero eta egile gehiagok aitortu dute sindikalismoak estrategikoki jarduteko duen gaitasuna (Hyman, 2007; Alonso, 2009; Schmalz, Ludwig eta Webster, 2018); hau da, ez bakarrik errealitate jakin bati lotutako eragile gisa, baizik eta errealitate hori erreproduzitzeko —beraz eraldatzeko— gai den eragile gisa. Ikuspegi estrategiko-erlazionalari jarraituz, Estatuaren erakunde gisa ulertu behar dugu.

Karl Polanyiaren mugimendu bikoitzaren ideari jarraituz (Polanyi, 1944; Fraser, 2013), sistema bi ardatzen bidez azaldu ahal da: merkatuarena eta *laissez-faire* fokatzeara, eta babes sozialarena eta komunitatearena. Sindikatuak bigarrenaren

alde egiten du. Orobat, Ongizate Estatu ardatz hauen arteko oreka egoera gisa uler daiteke, negoziazio eta kontzertazio hirukoitza horren mekanismoa izanda.

Gobernamentalitate neoliberalak, *demosaren* oinarriak desegiten ditu. Kapitala metatzeko modu garaikideak, ekonomiaren finantzarizazioa, austeritate politikak eta zorra izan ditu ardatz, eta, horren ondorioz, langile klase industrialean oinarritutako *demosa* eta komunitatea desegin ditu (Alonso, 2009; Sassen, 2014; Brown, 2015).

Euskal kasuan, sindikalismoaren instituzionalizazio-prozesua 70eko hamarkadaren erdialdera gertatzen da, Francisco Franco diktadorea hil ostean eta, hain zuzen ere, gobernantza eredu neoliberal munduan zehar garatzen hasi zenean.

Espainiako estatuko instituzionalizazio sindikalaren mugari nagusietako bat 1979ko Moncloako Itunak deiturikoak dira, non, alderdi politiko ezberdinez gain, sindikatuak (hasieran CCOO bakarrik, baina geroago UGTekin ere bai) eta patronalek ere parte hartu zuten. Itun horiek ez ziren bake soziala lortzeko eta krisia gainditzeko egindako akordio ekonomiko hutsak. Itun haiek botere bloke berri baten osaera sustatu zuten, hainbat eragilerek: erreformarako joera zuten elite politiko eta ekonomiko zaharrak, Adolfo Suarezren gobernuan ordezkatuak; Espainiako ezker politikoa (batez ere PSOE eta PCE) eta sindikala (UGT eta CCOO, nagusiki); nazionalismo moderatua (EAJ eta CiU); eta eskuina (Alianza Popular). Hau da, protagonismo politiko eta ekonomiko izango zuten elite zahar eta berrien multzo bat, esan bezala, Trantsizioaren osteko gobernuetan kokatuko den botere-bloke berria (Petras, 1990; Calvo, 2014; Azkune, 2018).

Itun honetan euskal sindikalgintzarekin lehenengo desberdintasuna azpimarratzen zen. Horrez gain, ikusiko dugun bezala, Espainiako sindikatuak zerbitzu sindikatu bezala eraiki ziren, Estatu zentraletik finantzazioa jasoz. Euskal sindikalgintzan, zehazki ELA sindikatuan —sindikatu nagusia— finantzazioaren parterik handiena kideengandik dator. Zerbitzuei dagokienez, euskal sindikalgintzan arlo laboralera mugatzen dira. Ezaugarri hauek, besteak beste, azal dezakete zergatik euskal sindikatuak gatazkara jotzen duten, politika instituzionala bigarren mailan utziz.

5.1. *Euskal gehiengo sindikala*

Euskal sindikalgintzak, oro har, lau eragile nagusi ditu: CCOO eta UGT, Espainia mailan (Estatu matrizean) antolatzen direnak, eta ELA eta LAB, estatu subalterno mailan⁵. Sindikatu hauek, EAEn eta Nafarroan jarduten dutenak, estrategia desberdinak eta aldakorrek eraman dituzte lurralde hauetan. Haatik, azken

⁵ Azkunek (2018; 2021) garatutako ideari buruz ari gara: Estatu matrizea Espainia izango litzateke, eta estatalitate subalternoak, kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa izango lirateke. Ez dira estaturik gabeko naziotzat hartzen, estatu-egiturak dituztelako. Mendekotasun material, estrategiko eta diskurtsiboak bihurtzen ditu subalterno Estatu matrizeari dagokienez.

hamarkadetan ELAren eta LABen arteko harremanen ondorioz bi sindikatu hauek «gehiengo sindikala» bezala definituak izan dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2019. urteko datuak hartuta, ELAk ordezkariaren % 41,32 dauka, LABek % 19,64, CCOOk % 18,42 eta UGTk % 18,35. Ordezkaritza harago, euskal «gehiengo sindikalak» estrategia sozial eta politikoago bat garatu izan ohi dute, bertako gizarte mugimenduekin harremanetan, lan-arloan eta eremu sozialean gatazkak piztuz eta, orokorrean, estatu subalternoen (EAE zein Nafarroa) erreproduzioa bilatuz (Letamendia, 2009: 96; Elorrieta, 2012: 110). Horren adibidea *gutun soziala* da, ikusiko dugun moduan.

Espainiarekin alderatuta, esan beharra dago euskal *demosak* (EAEz ari gara orain) sindikatu dentsitate handiagoa eta osaera desberdina duela. Horrek eragin du kapitalen banaketa ezberdin bat (kapital ekonomiko, sozial eta kulturala). Estatu matrizean CCOOk eta UGTk estrategia instituzionalizatzailerik bideratu dute, eta euskal gehiengo sindikalak bere estrategiak konfrontaziora bideratu ditu, hitzarmen kolektibo hobekiak lortuz; hau da, langileak modu desberdinean erreproduzitu egin dira euskal *demos*ean, bestelako gaitasun eta helburuak dituzten Euskal Estatu Egiturak indartuz (Goikoetxea, 2013).

Eragile guztiek, baita sindikatuek ere, estrategikoki jokatzen dutela ulertu behar dugu; ez dute modu abstraktuan edo idealean jokatzen, produktu historikoak dira eta identitate sinbolikoen bidez adierazten dira (Alonso, 2009: 24). Euskal kasuan, zentro-periferia gatazkak ere estrategia sindikalak zeharkatzen ditu (Kaiero, 1992; Letamendia, 2009: 96). Esan bezala, sindikatu bakoitzak *demos* baten erreproduzioa izango du helburutzat, Estatu Erakunde bilakatuz —fokatzeko estrategiko erlazionalari jarraituz—.

Aldi berean, sindikatuek «komunitatea» ardatzaren ordezkarietaz haratago, polarizazio sindikalaren bidez, erkidegoaren zati zehatz bat (ideologikoa euskal kasuan) ordezkatzeko dute jatorrian. ELAren kasuan EAJri lotutako sindikatu gisa sortu zen, Trantzizioaren ostean apurketa handia izan arren, bereziki 90eko hamarkadatik aurrera; LAB Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren adar sindikal gisa sortu eta mantendu da; CCOOk PCEko sindikatu erreferentzial gisa jardun zuen, 80ko hamarkadan despolarizazioa gertatu zen arren; azkenik, UGTk, PSOEren sindikatu gisa sortzen denak, harremana mantenduko du alderdiarekin, gorabehera desberdinekin. Aipatu behar da CCOO eta UGT Estatu matrizean antolatu arren, euskal *demos*aren erreproduzioan ere presente daudela, lurraldearen ezaugarriak erantzunez.

Alta, kontuan izan behar dugu 1978an onartutako Espainiako Konstituzioak lan-harremanak arautzen dituela, Estatu matrizearen (Espainiaren) esku utziz. Hori horrela izanda, 1980ko hamarkadaren hasieran lan-harremanerako euskal esparruaren lehenengo oinarriak ezarri ziren (Kaiero, 1999; Kortabarria, 2015: 44-46). Hiruko kontzertazioa garatzen hasi zen eragileen autonomian oinarrituta: Eusko Jaurlaritzak bere autonomia zabaltzea bilatzen du; sindikalgintzak, bere dentsitatea eta estrategiatik pisu handia lortzen du eta Euskal Estatu Erakunde zilegitasun berezia ematen dio —abertzaletasunarekin eta frankismoaren aurkako borrokekin lotuta—; euskal

patronala instituzionalizazio prozesuan dago eta, desagertutako erregimen frankista-rekin izandako harremanaren ostean, zilegitasun berria bilatzen du.

Lan-harremanen esparru autonomoa UGTren gaitzespenarekin eta CCOOren errezeloarekin gertatzen/antolatzen... da (Kaiero, 1991). Horrela, bada, Estatu matritzeko hiruko negoziazioen instituzionalizazioarekin eta zentralizazio-olatuaren ondorioz —azken lan-erreformetaraino heltzen direnak—, euskal esparrua ahulduz joango da eta 1980ko hamarkadaz geroztik euskal gehiengoaren aldarrikapena izatera mugatuko da (Kaiero, 1999; Eorrieta, 2012; Goikoetxea, 2013; Calvo, 2015).

Baiezta dezakegu euskal gehiengo sindikalaren «kanporaketa sistemiko» (Sassen, 2014) bat saiutzen dela, bere erreproduktzioarako ahalmena ezabatzen saiaturik —hau da, Estatu Egitura gisa ezabatu, Mendebaldean izaten diren antzeko saiakerekin batera—. Kanporaketa honen isla ez da gertatzen soilik sindikatuen botere instituzionalean —instituzionalizazioan eta arauen sorkuntzan duten eragina—, beren egiturazko boterean (edo botere ekonomikoan) ere eragina dauka, hau da, lan-indarraren egiturari —tertziarizazioa, desindustrializazioa, prekaritatea...— (Schmalz, Ludwig eta Webster, 2018).

Kanporaketa hauen aurrean sindikatuek estrategia desberdinak landu dituzte. Alde batetik, arlo instituzionalean, «hustutako» negoziazio markoetan parte-hartzeari uko egin diote eta negoziazio kolektiboan zentratu dira, hitzarmen kolektiboaren negoziazioetan eskakizun maila altua mantenduz. Bestetik, egiturari dagokionez, industriaren gainbeherarekin ez dira mugatu langile «klasikoen» —hau da, industria, maskulinoa, zuria...— interesak defendatzera, baizik eta hauetatik haratago joan dira, langile *outsider* edo atipikoen kapetara hurbilduz, bereziki eremu feminizatuetara, non historikoki sindikatuek presentzia txikia izan duten (Petras, 1990; Eorrieta, 2012; Goikoetxea, 2013; Calvo, 2014; Azkune, 2018; Goikoetxea, Lujanbio, Rodriguez eta Garai, 2020).

Hau da, euskal gehiengo sindikalak, kanporaketa sistemikoaren aurrean, konfrontazioarako joera izan du, langile klasearen egitura «berriak» antolatzen saiaturik eta hitzarmen kolektiboari garrantzia emanez, kontzertazioaren gaitetik, baina kontzertazioa (lan-harremanetarako euskal esparruan egikaritzen dena) etengabe aldarrikatuz.

5.2. *Lurraldeari lotutako demokratizazioa*

Zein da, zehazki, euskal gehiengo sindikalak kanporatze honi eman dion erantzuna?

Lehenik, antolakuntza boterea handitzeko egindako barne egokitzapenen bidez (Hyman, 2007; Letamendia, 2009; Eorrieta, 2012), langile «prekarioen» ordezkaritza handitzen eta lurraldeari —eskualdeei— pisu handiagoa ematen saiatu dira.

Bigarrenik, euskal gehiengo sindikalak hiruko negoziazio eta kontzertazioarako markoen deszertifikazioa sustatu du (McAdam, Tarrow eta Tilly, 2001: 146). Hau da, Hobetuz (langileen prestakuntzarako erakundea); Osalan (lan segurtasun eta osa-

sunerako erakundeak); Lan Harremanen Euskal Kontseilua; Gizarte Kontseilua eta antzeko erakundeak utzi dituzte.

Erakunde hauek uzteko arrazoia egitura hauen gaitasunik eza izan da. Labur esanda, euskal gehiengoaren iritziz Euskal Estatu Erakunde hauek ez dira baliagarriak langile klasearen erreprodukzioa sortzeko. Horren adibidea *Hobetu*z fundazioaren sorkuntza prozesuarekin ikus dezakegu, non gehiengo sindikalak eta Eusko Jaurlaritzak formakuntza eredu propio bat garatzen duten, hezkuntza publikoan oinarrituz, eta neoestatista bezala identifikatu ahal duguna. Bestalde, Estatu matrizeak, Madrilgo gobernuarekin eta sindikatuen (CCOO eta UGT) adostasunarekin, eredu neokorporatibista garatzen du, non Estatuak dirua jartzen duen eta formakuntza sindikatuen esku geratzen den. Prozesu honek erakusten digu nola Estatu Erakunde bidez erreprodukzioarako estrategia desberdinak garatu ahal diren, eta, nola, kasu honetan, Estatu matrizeak Estatu subalternoari eredu neokorporatibista bat inposatzen dion, Euskal Estatu Erakunde ahalmen politikoa ahulduz eta estrategia alternatiboen —neoestatistak kasu honetan— aurka eginez (Kaiero, 1999; Jessop, 2008; Kortabarría, 2015).

Prozesu honek Estatu subalternoaren ahalmenaren mugak aurkeztu zituen eta, horren ondorioz, euskal gehiengo sindikala aipatutako deszertifikazio estrategiarekin hasi zen. Edozein kasutan, ezin dugu esan ELAren eta LABen estrategia berria, elkarrizketa soziala baztertzen duena, ideologikoa denik; presio eta salaketa modu bat da. Orobat, bi sindikatuak elkarrizketa sozialaren alde aurkeztu dira ahalmen politikoa bermatzen bada. Horrez gain, gutxiengoan onartutako erabakien zilegitasuna dudan jarri dute. Gutxiengoarekin erabakiak hartzea, kanporaketarako beste mekanismo gisa identifika dezakegu, gehiengo sindikalaren erreprodukzioarako gaitasuna ahultzen duelako.

Alta, kanporaketa sistemikoaren adibiderik argiena da patronalak euskal gehiengo sindikalaren «sindikatu» izaera ezabatzeko proposamenaren zirriborroa, prentsari filtratu zitzaiona. Proposamen hor ez zen aurrera eraman, baina finean proposatzen zuen ELA eta LAB sindikatuak erregistrotik ateratzea.

5.3. *Estatismo komunitarista, eredu publiko-komunitarioaren markoa*

Ezin dugu esan euskal gehiengo sindikalaren estrategia bateratua denik. Sindikatu hauen harremanak gorabeheratsuak izan dira. Adibidez, XXI. mendean sartzean harremanak oso kaltetu ziren, Lizarra-Garaziko akordioen apurketen ostean; alta, 2009ko krisiak sindikatuentzako Aukera Politikorako Egitura (Meyer, 2004) berri bat irekiko du, aliantzak erraztuz (Elorrieta, 2012; Letamendia, 2013; Kortabarría, 2015).

Lehenengo erantzuna greba orokorren bidez izan zen, krisiaren aurrean hartutako neurrien aurka mobilizatzeko. Greba hauen izaera berritzailea hauxe izan zen, euskal gehiengo sindikala deitzeaz gain (ELA, LAB eta bestelako sindikatu txikiak, esaterako, ESK edo Steilas,), mugimendu sozialekin batera deituak izan zi-

rela, eta egungo sistemaren aurkako identitate kolektibo zabal bat elikatu zutela (Elo-rieta, 2012; Letamendia, 2013).

Gauzak horrela, Euskal Herriko Sindikatuen eta Gizarte Mugimenduen Batzar Nazionalak artekari rola hartuko zuen (Vasi, 2011), identitate kolektibo hori artikulatuko zuena. Batzar hark gehiengo sindikalaren zertifikazio berri bat ekarriko zuen, zilegitasun berriztu bat, eta, era berean eragile gehiago gehituko zituen irekitako aukera-leihora.

Greba orokorren zikloari amaiera emanez —gerora gehiago egon badira ere, bereziki mugimendu feministak deituta edo 2020. urtearen hasieran— Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta aurkeztu zen, 2013an. Karta hartan, erreproduktzio alternatibo bat eskatzen zitzaien Euskal Estatu Erakundeei, Estatu matritzetik egiten zen politika publikoen aurrean. Eskakizun horrek bi eredu arteko polarizazioa bilatzen zuen, konfrontazioari uko egin gabe (greba orokor batekin aurkeztu izan zen).

Gutunak berak Butlerrek (Bedin, 2017) aipatzen duen *agenda erradikalaren* forma hartzen du. Hau da, eragile desberdinek hainbat eskakizun artikulatzen dituzte, aliantza soiletik haratago. Horrenbestez, eragile desberdinek bere egiten dituzte hainbat proposamen, komunitatearen ardatz polinyarrari emantzipazioa (Fraser, 2013) gehituz. Hau da, komunitatearen erreproduktzioa bermatzeaz gain, modu askatzaile eta ireki batean planteatzen da komunitatea, haren irakurketa klasikotik —non gizon, zuria eta langile industrialak erdigunean kokatzen zen— aldenduz.

Eskubide Sozialen Kartak proposamen nagusiki neoestatista (Jesop, 2008) egiten zuen, Euskal Estatu Erakundeen esku-hartzea aldarrikatuz eta defendatuz, sistema publikoa eta erregulazioa indartzeko asmoz. Gutunaren edukia prozesu parte-hartzaile masibo eta deszentralizatu batean erabakitzen da, birlurraltatzeko mekanismoa izanik baita ere. Agenda erradikal honekin, euskal gehiengo sindikalak bere egiturazko boterea indartzea ere bilatzen zuen, testuinguru hobea bilatuz lan-merkatuan eta, orokorrean, gizartean.

Haatik, gutun sozialaren lorpenak mugatuak izan ziren. Horren aurrean *Alternatiben Herria* planteamendua sortu zen, 2015. urtean. Dinamika hark gutun sozialaren izaera neokomunitarioa (Jessop, 2008) indartu zuen ekonomia sozial eta eraldatzailearekin aliantzak bilatuz eta estrategia berri bat garatuz.

Azken urteetan, emaitza zuzenak bestelakoak izan badira ere, hainbat ondorio izan dituzte dinamika hauek. Alde batetik, sindikatuen demokratizazio bera, non langile «atipikoe» gero eta protagonismo handiagoa duten. Horrek isla izan du langatazketan, non zaintza eta, sektore feminizatuetan oro har, grebak, gatazkak eta negoziazioak ugari diren, askotan bestelako mugimenduekin harremanean —mugimendu feminista eta mugimendu antiarrazista gehienbat—. Bestetik, *agenda erradikalak* eragina izan du agenda politiko orokorrean; ekonomia sozial eta eraldatzailearen inizatibak egonkortzeaz gain, hainbat mugimenduk, alderdik eta, finean, Euskal Estatu Erakundeek «sistema publiko komunitarioaz» hitz egingo dute, bereziki mugimendu feministatik eta COVID19 krisiaren ondoren.

6. Ondorioak

Gure ustez, edozein dela ere bere artikulazio instituzional zehatza, demokrazia beti izango da «governarien gobernua, *demosak* adierazitako lehentasunak eta eskakizunen arabera» (Goikoetxea, 2014: 146). Orain arte, burujabetza da gobernuaren eta *demosaren* arteko interakzioa artikulatzen duen harreman soziala. Alta, tendentzia orokorrek erakusten dute boterea gero eta gehiago esku pribatuetan geratzen dela, eta klase herrikoien ahalmena txikitu dela. Gobernamentalitate neoliberala errealtate berria irakurtzeko beharrezkoa den tresna da (Foucault, 2008: 243). Horregatik, eta gobernantza demokratikoak gizarte zibilaren ahalduntzea lortzen duela defendatzen den arren, burujabetzaren galera eta demokraziaren pribatizazioa da gobernantza eredu honen *raison d'être*.

Gauzak horrela, ezin dugu ahaztu demokrazia demokratizazio eta desdemokratizazio prozesuen interakzioaren emaitza dela, eta ezin dugula aurkeztu modu absolutuan, baizik eta joera gisa. Ez dugu esango demokrazia guztiz pribatizatu izan denik edo Estatu guztiz autoritarioa denik. Bestalde, bai uste dugu demokraziaren pribatizazioarekin lotutako ezaugarriak ekologikoki dominanteak⁶ direla (Jessop, 2008).

Hori dela eta, euskal gehiengo sindikalak demokratizazioan duen rola aztertu dugu, hots, *demosaren* erreprodukzioetat hartuta. Artekaritza, berrikuntza diskurtzioa, aukera politikoen egitura (McAdam, Tarrow, Tilly, 2001) eta halako mekanismoak ezinbestekoak izan dira euskal sindikatuen eskaerak politika publikoetan barneratzeko. Aldi berean, negoziazio kolektiborako euskal espazioa egonkortzea ahalbidetu da haien bidez. Horretaz gain, polarizazioak, oposizio erradikalak eta mobilizazioak berebiziko garrantzia izan dute, eta horren ondorioa da % 25eko sindikatu afiliazioa, Europa iparraldeko estandarretatik urrun, baina Frantziako eta Espainiako datuetatik gora (% 10 ingurukoak).

Sindikatuaren estrategiak ezinbestekoak izan dira halako estrategiek Euskal Estatu Erakunde bezala duten rola/eginkizuna/... ulertzeko. Aipatutako estrategia eta mekanismoek langileen arteko berdintasuna hobetu badute ere, taldeen arteko desberdintasunak handitu egin dira azken hamarkadetan, Europako beste herrialdeetan bezala. 1993an langileen soldata EAeko BPGaren % 54,7 zen. 2007an % 48an kartzatzen zen, BPG % 150 igo arren (Manu Robles-Arangiz Fundazioa, 2012).

Hau da, langileen egiturazko botereak —edo botere ekonomiak— behera egin du. Horregatik, lehen aipatu dugun bezala, euskal demokratizazioa ez da lineala, eta desoreka ekonomikoaren eta gaitasun publikoaren aldetik, desdemokratizazioaren egungo olatua gorabehera, negoziazio kolektiboa funtsezko tresna izan da, aberastasuna, baliabideak eta aukerak banatzeko ez ezik, baita Espainiakoaz bestelako baliabideetarako sarbide berezi bat negoziatzeko ere.

⁶ Demokraziaren pribatizazioari loturiko garapen-logikak nagusituko direla adierazi nahi dugu.

Horren bidez, euskal sindikalismoak konfiantza-sareak barneratu ditu, eta horiek, aldi berean, euskal langileak modu aktiboan monitorizatzeko eta Eusko Jaurlaritza modu aktiboan presionatzeko balio izan dute. Horrek esan nahi du zertifikazio instituzionalaren, artekaritzaren⁷ eta negoziazio kolektiboaren bidez (Mcadam, Tarrow, Tilly, 2001), euskal sindikalismoak desberdintasun sozioekonomiko batzuk antolatu dituela bereizketa politiko gisa. Hala eta guztiz ere, enpresaburuek eta korporazioek, oro har, eta exekutiboek, bereziki, eraso egiten diete sindikatuei, bai Europan bai munduan, langile klasea desartikulatzeke helburuarekin, demokrazia pribatizatzeko prozesu globalaren aurka sindikatu eta ezin mobiliza daitezten.

Horregatik esan dezakegu lan harremanen euskal esparruaren instituzionalizazioak euskal langile klase baten existentzia ekartzen duela: ez Espainiaren desberdinak lurralde desberdin batean daudelako, baizik eta espazio sozial desberdina ere badelako (Lefebvre, 1974). Horregatik, eremu politiko ezberdin bat egonkortu da egitura desberdinekin, gobernu sistema desberdinekin, ordezkaritza politiko desberdinarekin eta erregimen politiko desberdinarekin (Jessop, 2008: 122; Poulantzas, 2014[1974]: 40-45).

3. Horrez gain, ahalmen politiko desberdina duen lurralde bat izateak, zeinak kapital sozioekonomikoa zein kulturala era desberdinean birbanatzen duen, entitate politiko eta sozial desberdinak izatea ekartzen du. Ez dira soilik desberdintasun sozioekonomiko objektiboak (lan baldintzak, Osasuna, hezkuntza maila, pentsioak...), baizik eta «lana eta osasuna erregulatzen dituenaren atzean dagoena da komunitate baten «komuna»[1] denaren ulermen partikularra» (Rancière, 2010: 58).

Partikularitasun honen kontzepzioaren gainean desberdintasun material eta objektibatuak sortzen dira eta haien gainean estatuak, nazioak eta *demoiak* eraikitzen dira. Demokraziaren helburua herri burujabetza izan da beti. Herriak bere burua erreproduzitzeko gaitasuna izatea. Herriari nazioa, *demos*, komunak edo komunitatea deitzeak ez du hori aldatzen.

⁷ Aldez aurretik banaturik zeuden espazioak elkartzeko gaitasuna.

II. atala

Parte-hartze era berriak Mendebaldeko demokraziaren eskala ezberdinetan

Datafikazio Estrategia Emantzipatzaileak

Igor Calzada

Ikertzaile Nagusia, Cardiff-eko Unibertsitatea, WISERD (Erresuma Batua)
eta Fulbright US-UK Batzordea (AEB)

Laburpena. Pandemiak utzi dituen alboko kalteak asko izan dira; eta desagertu baino, gure artean geratu dira, gure bizitzetan txertatuak. Zeintzuk dira? Adibidez, sare sozialetan nabigatzen dugun bakoitzean, klik bakoitzarekin, Facebook, Amazon, edota Google multinazional erraldoiek, gure datuak xurgazen dituztela. Okerrena ez da hori bakarrik; okerrena da, hori egiten dutenean, ez digutela baimenik eskatzen. Eta areago, gure eskubide digitalen kontra egiten ari direla, Europar Batasunaren datuen babeserako arau-tegi orokorraren (GDPR, General Data Protection Regulation) kontra ere eginez. Gure bizitzetan beraz, digitalizazioa lorratz sakona uzten ari da. Honako ikasmaterial honetan beraz, gure datuen inguruko gidaliburu akademiko eta kritiko bat eskaintzen da. Bertan, euskal gizartea, gure datuen aferaren prismetatik begiratuta, alegia datafikaziotik begiratuta, mundu mailako prozesu globaletan kokatzen dugu. Datafikazioa, globalizazio prozesu bat da. Eta horri modu eraikitzailean aurre egin ahal izateko, estrategia emantzipatzaileen ekarpena egiten da. Datafikazio estrategia emantzipatzaileak, hiritarren eskuetan egon beharko luketen balizko estrategiak lirakeke. Alegia, nondik eratzen hasi euskal nazio algoritmikoa: datuz eta pertsonaz osatua dugun naziogintza berri hau. Gure mugikorra erabiltzen ari garen bakoitzean, gure eskuetan baitago zer egin eta zer ez egin, eta zein estrategia emantzipatzaile egikarizatzen hasi, berandu baino lehen; maila kolektibo nahiz indibidualean. Modu horretan bakarrik esan ahal izango baitugu, teknologikoki burujabeak garela; eslogan eta propaganda antzuetatik harago. Estrategia emantzipatzaileak formulatu eta inplementatzeko gai bagara soilik izango gara burujabe, bestela ez. Eta horrela bada, olatu globalizatzaileak irentsi egingo gaitu gu eta baita gure mugikorretatik dabilzan milaka eta milaka algoritmo eta datu-fluxuen jariora ere. Berandu baino lehen, jar gaitzen bizi dugun mundu algoritmiko hau ulertu eta erantzun trebe eta errealista bat erdiesten, gure euskal koordinadetatik. Datafikazio estrategia emantzipaileen kapitulu hau, ikasleentzat bereziki idatzia dago, 2019-2021 urteen bitartean, Italian egoitza duen Europar Batasuneko Joint Research Centre-ren (JRC) zenbait ikerketen emaitzak transferituz, hala nola, Digitranscope eta AI Watch.

1. **Sarrera: euskal nazio algoritmikoa munduko hiru paradigma geopolitikotan kokatzen**

Pandemia pasatu dela pentsa genezake. Agian ez hainbeste; fenomenoak utzi dituen alboko ondorioei erreparatuz gero. Digitalizazioa eta datafikazioa gailendu egin dira gizabanakoaren eguneroko jardueren inguruan. Hala nola, medikura joatean, bankuarekin eragiketa bat egin nahi denean, edo erosketak egin nahi ditugunean: guztia bihurtu da datu, gizabanakoen arteko hartu-eman telematikoen artean. Sarri hartu-eman horiek dagoeneko gizakien artean ere gertatzen ari ez direlarik (Arendt, 1949; Berditchevskaia eta Baeck, 2020).

Paradoxa handi batean erortzen ari garen susmoa dut: gure segurtasuna bermatu nahi duten sistema algoritmiko horietan jarri behar omen dugu gure konfiantza guztia, baina sistema horiek diseinatu dituztenek ez dute gugan konfiantzarik (Andersen, 2020; Christl, 2017). Are gehiago, gure nortasun digital propioa haiei frogatzen ibili behar dugu (Aho eta Duffield, 2020; Nguyen, 2017). Alegia, zer garen eta nor garen frogatzen: gure nortasun digitala berresten etengabe. Horri dataismoa deitzen zaio (van Dijck, 2014): dena datu bihurtu dugu, baina gure datuak gobernatzen dituzten erakundeek eta enpresek guk baino gehiago dakite gure bizitzaz. Baimenik gabe xurgatzen dizkigute gure bizitza pusketak. Gure argazki, mezu, edota oroimenen desjabetza bortitza bihurtzen ari da ondorioz. Fenomeno honi datuen politika deitzen zaio (Bigo *et al.*, 2019).

Honek guztiak zerikusi zuzena du gobernantza, herrigintza, erakundetze, herri-estrategia, nazio, eta balizko estatugintza batera lerratzeko urratsekin (Zabalo eta Iraola, 2022; Zabalo *et al.*, 2016); alegia, nazio algoritmikoarekin (Calzada, 2018a, 2020f). Hala ere, eztabaida honetan hiriak izan dira lehenak plazara ateratzen (Calzada, 2018c). Adibidez, Bartzelona hiriaren kasuari azpimarra berezia egin behar zaio. Bartzelonan planteatu baitira munduan oihartzun zuzena izan duten politika eta estrategia emantzipatzaileak eta subirautea teknologikoarekin zerikusia duten eztabaidagai anitz (Calzada, 2019a). Debate subiranista politiko hutsaren aldamenean (Calzada, 2018b, 2019b), subirautea teknologikoaren gaiak sona handia lortu du eta itzal handiko proiektu eta jarduerak burutu dira Nazio Batuen agendan eragin zuzena izan dutenak (Calzada eta Almirall, 2020). Horien artean eskubide digitalen mugimendu osoa eratu da, Cities Coalition of Digital Rights, hiri globalen sarearen altzoan (Calzada, Pérez-Battle, eta Battle-Montserrat, 2021). Are gehiago, egunotan Europar Batasunak eskubide digitalen deklarazioa plazaratu du, eskubide digitalen afera politika publikoen erdigunean jarriz.

Baina nola kokatu euskal nazio algoritmikoa munduko hiru paradigma global eta digitalen artean, eskubide digitalak hauspotuz? (Calzada, 2022a).

Maila geopolitiko global batean, Txinaren hegemonia oso nabarmena izango da, eta litekeena da AEBk krisi sakon batean sartzea. Izan ere, berriki, PIPL (*Personal Information Protection Law*) indarrean da Txinan (Kostka, 2019). Txinaren datuen babe-

serako arautegi orokorra da. Eta AEBn, CCPA (*California Consumer Protection Act*) dugu kontsumitzaileen babesaren bermatzen duen AEBko ia arautegi bakarra datuen pribatasunari dagokionez. Hala ere, Europako GDPRa (*General Data Protection Regulation*), euskaraz Datuak Babesteko Arautegi Orokorra (DBAO) moduan itzuli dena, oihartzunik globalena izan duena da.

Hala ere, lehen analisi honetan ez genuke ahaztu behar bi erraldoi hauen eta EBren arteko joko-zelaia, oso esparru ekonomiko estrategiko eta zeharkakoan gertatzen ari dela aspalditik: Adimen Artifiziala (*Artificial Intelligence, AI*) eta eraldaketa digitalen paradigmaren konpetizio eta inposizioan (Delipetrev, Tsinaraki, eta Kostic, 2020; Dyer-Witthof, Kjosen, eta Steinhoff, 2019; Hobbs, 2020). Oso komenigarria iruditzen zait, euskal hiritarraren bizitzan hain nabarmena ez den kontu honen azpimarra egitea; izan ere, ikusezin egiteak ez du esan nahi eragin zuzena jadanik izaten ari ez denik (Janssen *et al.*, 2020). Nire tesia baita, krisi pandemiko eta algoritmikoa txanpon beraren bi aldeak izan direla. Krisi pandemikoak prozesu ekonomiko, politiko, teknologiko eta sozial paraleloak abian jarri ditu, adimen artifizialaren kontrolaren norgehiagoka global batean hezurramitzen ari dena; alegia, krisi algoritmiko batean (Allam, 2020).

Algoritmoak ez dira hodeian dauden zerbait; algoritmoak, euskal hiritarrok, patriketan nonahitik daramagun sakeleko telefonoko zerbitzuetan eta nabigazioan sortzen ditugun «gure» datuekin elikatzen ari gara etengabe. Eta horrek zuzeneko zirikusia du krisi honen ondorioen ostean «geratuko» zaigun demokrazia mailarekin. Edo, hobeto esanda, geratuko ez zaigunarekin. Adimen artifiziala, datu-ekosistemak eta, oro har, eraldaketa digitalak ez dira jadanik gure bizitza eta gure herri proiektutik at egon beharko luketen gaiak. Kontrara, gomendatuko nuke ahalik eta lasterren gai hauek debate publikoan txertatzea eta ekintza estrategiko inklusiboak abian jartzeari Euskal Herriko lurraldeetako eragile eta interes-taldeekin (*stakeholderekin*). Puntu eus argitaratu zen hausnarketaren arira (Calzada, 2020c; 2020g).

Subirautza teknologikoaz ari naiz (Hummel, Braun, Tretter, eta Dabrock, 2021; Delker eta Heikkilä, 2020; Floridi, 2020). Eta zuek, ikasleok, baduzue eskuartean lanabesa: datafikazio estrategia emantzipatzaileak formulatzea. Ezin baita ideologia hutsa egin ekintzak aurreikusten ez badira. Gramsci pentsalari italiarra gogoan izatea komeni da.

COVID-19aren oldarrak, areagotu besterik ez du egin munduko hiru paradigma global hauek aspalditik adimen artifizialari dagokionez zuten norgehiagoka (Wong, 2020). Halaber, COVID-19aren kudeaketan azaleratu eta aplikatu egin dira aspalditik sumatzen ziren joerak eta kontraesanak paradigma ezberdinen artean (Burki, 2021; Csernatori, 2020):

- i) Txina aspalditik esperimentatzen ari da *Social Credit System (SCS)* delakoa, gradualki helduz hiritarren kontrola gailendu eta totalitarismo/nazionalismo teknologiko gisako paradigma bati (Kostka 2019; Calzada, 2022a). Bestalde, Huawei enpresa berritzailearen estrategia oso esanguratsua izaten ari da, eta Europar Batasunaren alderako (EB) hurbiltze-estrategiko bat aurreikus-

- ten da. Txinaren estrategia geopolitiko global osoaren abiapuntua izan da COVID-19a.
- ii) Shozana Zuboff (2019), *Harvard University*ko adituak maisuki azaldu zuen bezala, GAFAM izenez ezagunak diren Googlek, Applek, Facebookek, Amazonek eta Microsoftek, zelatatze-kapitalismoa (*surveillance capitalism*) aspalditik praktikatzen dihardute (Rikap, 2020; Stucke eta Grunes, 2017). Egunotan Applek eta Googlek aurkeztu duten akordioak konfirmatu baino ez du egiten norgehiagokaren eta paradigmen arteko lehia. COVID-19aren emergentziakudeaketa fintzeko, *contact tracking*aren egitasmoa aurkeztu zuten pandemia garaian. Itzelezko inflexio puntua izan zen gure pribatutasunaren eta datuen erabilgarritasunari dagokienez, eta Silicon Valley-ren esku utzi zituen aurreantzeko gure datuak eta subirautza teknologikoa. Alternatibarik ba ote da European, EBren aldetik? Erantzuna baiezkoa da, baina estrategia emantzipatzaileak garatzeke daude esparru europarrean.
 - iii) Horrek zerikusia du Euskal Herriak, herri-proiektu gisara, estrategia digitalaren eta subirautza teknologikoaren arloan bete beharko lukeen eginkizunaz (Calzada 2019b), aurrean dugun ekonomia eta gizarte digitala ulertuko badira eta gutxieneko berme demokratikoei eutsiko bazaie (Calzada 2019a). Agian hemen, *stakeholderak*, interes-taldeak alegia, diren sektore publikoa, pribatua, zibila, bai eta akademia eta ekintzaileak/aktibistak ere lerratzea faltako litzateke euskal nazio algoritmikoa erdiesteko (Calzada 2020a). Hemen, EBren aterkipean, *blockchain* bezalako arkitekturak oso baliagarriak suerta litezke gure hiru administrazioen artean (Calzada, 2018a) (eta batik bat gure metropolizatze-prozesua kontuan edukita; Calzada, 2018c), protokolo dezentralizatuak eta sareratuak egikaritzeko (Calzada, 2018d). Galdera asko sortzen zaizkigu, eta hori ona da, estrategia emantzipatzaileen bilaketan jarzen gaituelako. Hala nola:

Nola jarri adimen artifiziala euskal nazio algoritmikoen zerbitzura ongizate soziala berma dadin? (Floridi *et al.*, 2020) Nola ekidin Euskal Herria eta euskal hiritarrek etengabe zelatatuak egotea *Big Tech* direlakoan edota estatuaren kontrolaz? Nola diseinatu euskal estatu bat, hain zuzen ere, panoptiko digitalaren kontzeptutik urrun (Calzada, 2020d)? Posible al da egungo mundu konplexu, interkonektatu, interdependente, eta mugaz jositako honetan estatu bat izatea? Euskal estatu batek demokratizazio eskaintzarik zabalena egitea ezinbestekoa litzateke.

Beraz, estatugintza demokratikoa ez da posible izango nazio algoritmiko moduan operatzen hasten ez bagara, behintzat. Gure hartu-eman guztiak daude zipriztinduta kodetutako sare, datuz, eta hartu-emanek: teknohiritar gara teknopost-COVID-19 gizartean. Determinismo teknologikoa ekiditeko bidea subirautza garatzea da, baina europar hiri-eskualdeekin, nazioekin eta estatuekin elkartasun eta lankidetzaren inter-nazionalisten bidez (izan Estonia, edo izan Katalunia). Euskal errepublika bat nazio algoritmiko gisara operatzen irudikatu ahal dugu europar federazio batean? Kon-

tzertu berri honetan jokatzeko baliatu behar ditugu gure aukerak, eta, bestela, (i) datu-azpiegitura, (ii) datu-erakunde, eta (iii) datu-ekosistematik gabe, gureak egingo du (Calzada eta Almirall, 2020). Ezingo ditugu euskal hiritarren eskubide digitalak babestu aurreratzean, ezta haien lan-, bizi-, eta duintasun-baldintzak bermatu (Calzada, 2018b). Eta... ez al dira nahiko arrazoi euskal nazioagintzaren narratiba berri bati ekiteko (Calzada, 2017a, 2017b, 2018c, 2022b)?

Datafikazio estrategia emantzipatzaileak erdiesteko, balizkoa izan daiteke transhumanismotik (Echeverría, 2022) eta *Digital Foundational Economy* delakoaren (Calzada, 2022b) iturrietatik edatea. Harari-k esaten duenaren ildotik, ezin baikara gure historiaren jabe izan ondo ezagutzen ez badugu gure lekua munduan. Horretarako erreminta-kaxa bat aurkezten da gidaliburu honetan. Erreminta-kaxa hau ez da zurruna eta ezta ere dogmatikoa; zuentzat, ikasleentzat, inspirazio-iturri izan nahi du. Erreminta-kaxa, demokrazia teknopolitiko postpandemikoa deitzen da. Lau erreminta kabitzen dira bertan: (i) nazio algoritmikoak, (ii) datu-subirautza, (iii) eskubide digitalak, eta (iv) datu-kooperatibak. Aurkez ditzagun banan-banan eta izan dadila zuentzat inspirazio-iturri, zuen datafikazio estrategia emantzipatzaileak irudikatu eta formulatu ditzazuen. Zuenak dira erreminta hauek. Eta zuenak baldin badira izango dira soilik baliotsuak; betiere gizarteak onura eta berrikuntza badakar. Goazen erreminta-kaxa irekitzera:

2. Erreminta-kaxa: (Euskal) Nazioagintza Algoritmikoa Eraikitzen

2.1. Nazio algoritmikoak

Googlek eta Facebookek beren gain hartu dituzte jada estatu-nazioaren funtzio asko. Kartografiatik abiatu eta hiritarren zelatatzeraino iritsi arte. Enpresa erraldoi hauen ortzi-muga agorrezina dela dirudi. Pandemian ikusi dugun moduan, teknologiek hiritarren datuak jaso hala, datu hauek aldi berean osasuna antolatzeko molde teknikoak aldatu dituzte.

Beraz, gure gizarteen osasun demokratikoa berreskuratzeko, demokrazia teknopolitiko postpandemikoetan jarri behar dugu atenzioa. Baina horretarako nazioa bera ikusteko moldeak aldatu behar ditugu. Balio al digute honezkero nortasunak eta komunitate konkretu batekiko atxikimendu mailak, nazio-ikuspegia aztertzeke eta neurtzeko? Ez al daude honezkero beste parametro batzuk jokoan? Nazio algoritmikoak estaturik gabeko nazioek behar duten paradigma bat dira (Calzada, 2020b). Izan ere, hiritar digitalak bizi dira nazio algoritmiko hauetan (Bridle, 2016; Calzada, 2022c). Eta hiritar digital hauen datuak askatu eta birklasifikatu behar ditugu. Horretarako, hiritarrek erabiltzen dituzten datuak lurraldera ekarri behar ditugu, alegia, lokalizatu behar ditugu. Datuak ez daude hodeian. Datuak zerbitzari erral-

doietan artxibatuak eta gordeak daude. Gure lana, datu hauek non eta nola gordezen diren arakatzea da. Hori egin eta gero, datuak lurraldeari itzuli behar dizkiogu. Honi, *data devolution* deitzen zaio (Calzada, 2017a). Datuen arakatzeko lan honi, teknopolitika deitzen zaio eta oso inportantea da, datuak nondik nora dabilzan jakiteko (Calzada, 2017b). Datuen arakatzeko lan hau burutzeko datu-etnografiak erabiltzen dira. Ekintza-ikerketak bidez burutuak. Adibidez, zenbait hiritan honelako arakatzeko lanak egiten dira, hala nola, Glasgow, Bristol, Bartzelona eta Bilbon.

Datuak arakaturakoan, datuak berregituratu edo ensanblatu egin behar dira, alegia berriro elkartu. Horretarako, nazio algoritmikoak bidea eman beharko luke, alegia, kaleetako, auzoetako, herrietako, eta abarretako lurralde-eskaletako datuak elkartu eta hiritarren eskura jarri.

Euskal Hiriaren, alegia euskal hiri-eskualdearen izate konfederalarekin lotuta legoke nazio algoritmikoa Euskal Herriko kasuari aplikatuko bagenio. Eta horretarako Estoniari begiratzea baino ez dugu, ikusteko nolaz eta oso gaztea den estatu independente batek erdietsi duen jadanik nazio algoritmikoa izatea (Calzada, 2018a) eta datafikazioarekin eratorriak diren erronkak.

Nazio algoritmikoaren paradigma edo erreminta ere aplikatu geniozaioke Ipar Irlandaren kasuari (Calzada eta Bustard, 2022). Izan ere, gatazka ondoko kasu garbi bat izanik, Brexitak eta pandemiak, Ipar Irlanda nazio moduan errotik eraldatu dutela esan genezake. Izan ere, uste dugunaren kontrara, hain zuzen ere Ipar Irlandako hiritar bati bere «hiritartasuna» galdetuz gero, duda asko sortuko baitzaizkio. Kategoria etnikoetatik harago, irlandar hutsa edo britaniar hutsa, kategoria bikoitz asko aurkituko baititugu. Horrek, nazioak eta hiritarren datuak nola erabiltzen diren birpentsatzera eramane beharko gintuzke halaberharrez. Nazio algoritmikoak nortasun algoritmikoa izatera behartzen gaitu: gure pasaporteak, gure pasahitzak, gure datu biometrikoak eta hatz-markak, eta geroz eta filtro gehiago, frogatzeko geu garelako guk diogun pertsona (Cheney-Lippold, 2011). Eta zergatik da inportantea, orduan, nazio algoritmikoa gisa jokatzeko? Bada, gure datuak beste erakunde nahiz esparru batetik gobernatzen badituzte, gureak egin duela: sarean egiten ditugun jarduerak ez dira gure jabetasuna izango. Pribatutasuna, zelatatzea, eta datuen hornidura, estatuen jabetasuna izanik, nazio algoritmikoen hiritarren onura lehenetsi beharko lukete ezer baino lehen (Christl eta Spiekermann, 2016). Nazio algoritmikoak ez du zertan bermatu atzean dagoen estatua ez dela autoritarioa (Christensen, 2019). Txinari begiratzea besterik ez dago horretaz ohartzeko. Horratx, nazio algoritmikoa eta datafikaturako estatuen afera, American Association of Geographers-en 2023 urteko bildararean aurkeztuko den moduan (Calzada 2023; <https://aag.secure-platform.com/aag2023/gallery/rounds/54/details/34586>).

Nazio algoritmikoak, definizioz, lurraldetasun berri baten azaleratzearekin du zerikusia. Alegia, digitalaren eta ez-digitalaren arteko uztarketa. Algoritmikoaren eta nazionalaren arteko uztarketa, perspektiba urbano eta metropolitano batetik, perspektiba etniko huts batetik baino gehiago. Estaturik gabeko nazioek iraultza algoritmikoa besarkatu behar dute, atzean gelditu nahi ez badute, behintzat. Nazio al-

goritmikoak, bestalde, dezentralizatzea du muinean, eta, beraz kideztaz eratzen da (Calzada, 2017c); ez inposizioz edo goitik behera. Beraz, erreminta-kaxa honetako lehenengo lanabesa dugu nazio algoritmikoa. Baina, lehenengo lanabesa egiteko, bigarrena behar dugu: datu-subirautza. Baina, zer da hori?

2.2. *Datu-subirautza*

Gure datuen kontrola berreskuratzeko moldeak dira datu-subirautza. Batetik, enpresa nahiz erakunde publikoek gure datuak erabiltzen dituzte eta ordainetan guk beren zerbitzuak dohainik jasotzen ditugu. Gakoa da, ia gehienetan, bueltatzen zaigun balioa, kentzen zaiguna baino exkaxagoa dela. Alegia, zenbat balio dute gure datuek? Erabilera kolektiboaren baitakoa da, gure datuek duten erabilera. Ekonomia digitalean aski frogatua dagoen kontu bat da honako hau: sare-efektu deitzen dena. Erabilerak egiten du balioa izatea; baina erabilerak kolektiboa izan behar du. Gure datuek, isolaturik, haiek bakarrik, ez dute inongo baliorik. Hori da, hain zuzen, Big Datak egiten duena: gure datuak agregatu, metatu edo gehitu; horrela sortzen da ekonomia digitala datuen erabileraren inguruan. Datuak lekuan eduki behar ditugu; datuek, lokalak direnean dute balioa (Loukissas, 2019). Eta subirautza izateko, nahitaez behar ditugu gure erabilerak sortzen dituen datuak gure esku izatea (Muldoon eta Stronge, 2020). Horregatik, datu-subirautza ez duten hiri eta leku askok joera handiagoa izan dezakete gizarte ezberdintasunak bertan sufritzeko (Lightfoot eta Wisniewski, 2014; Lutz, 2019; Pilkington, 2019). Datuen kudeaketa garbia ez denean, datu ilunak eta gardentasunik eza pairatzen da gizarteetan (Hand, 2020). Eta gardentasunik ez dagoen tokietan, zelatatze-azpiegiturak oso modu errazean ugartzen dira (Gekker eta Hind, 2019).

Baina, bestalde, benetan da kontuan izatekoa estatu txikiek pandemiaren aurrean eskaini duten erantzuna (Thorhallsson, 2006, 2016). Estatu txikiek, alegia, Zeelanda Berria, Islandia, Irlanda, Danimarka, Herbehereak, Singapur, Hego Korea, edo Eslovenia, besteak beste, eraginkorrak izan dira datu-subirautza beren esku zutelako.

Hala eta guztiz ere, ez dezagun ahaztu, estatu txikiek duten boterea oso mugatua dela; EB, AEB, eta Txina bezalako superpotentzia digitalen arabera jokatzea egokitzen zaiela halaberrez (Calzada, 2022a). Datu-subirautza, beraz, ez da Euskal Herriak soilik bere kontura egin ahal duen zerbait. Sarritan, datu-subirautzaren diskurtsoa oso mugatua eta inozentea dela ere esan genezake. Datafikazio estrategia emantzipatzaileak garatzeko asmoz, datu-ekonomiaren analisi serioa eta osoa egin beharko genuke. Eslogan eta ideologia soilek ez dituzte eraldaketak eragiten.

Azkenik, gure erreminta-kaxarako azken ideia bat behar dugu datu-subirautzari lotua dagoena: gobernuak egun, teknologia berri eta dezentralizatuarekin egiten ari dira probak. Teknologia dezentralizatu ezagunena *blockchain* deitzen da. Izatez, ez da bakarria (Calzada, 2018a). Hala ere, egiten ari diren esperimentazioak oso itxaropentsuak dira. Datu-subirautza garatzeko, bestalde, hiritarrek beren eskubide digita-

len kontzientzia bereganatu beharko lukete. Eta hori praktikatik bakarrik etor liteke. Mobilizazio eta praktikak esanguratsuak gertatzen ari dira munduko zenbait hiritan.

2.3. *Eskubide digitalak*

Zer dira eskubide digitalak? Interneten erabilerari lotuta, erabiltzaile eta hiritar gisara dagozkigun eskubideak dira (Goggin, Vromen, Weatherall, Martin eta Sunman, 2019; Calzada, Pérez-Battle eta Battle-Montserrat, 2021). Erreminta honen inguruan esan behar da, mundu mailan badela erakunde bat, eskubide digitalen aldarria lau haizetara zabaltzen diharduena: *Cities' Coalition for Digital Rights* (2019). Erakunde hau 50 hiri global baino gehiagoz osatua dago eta oso arrakastatsua gertatzen ari da. Eta haien helburuen artean, hiri-administrazioaren bermea: hiritarren eskubide digitalak ez urratzeko. Sailkapen asko daude eskubide digitalen inguruan: ahaztua izateko eskubidea, deskonektatuta egoteko eskubidea, ondare digital pertsonala izateko eskubidea, pertsonak teknologiaren aurrean babesteko eskubidea, adierazpen askatasuna izateko eskubidea, nortasun digitala izateko eskubidea, algoritmoen erabilera arduratsu eta gardena izateko eskubidea, beste askoren artean (Calzada, 2021b). Azken batean, eskubide horiek sortu dira, erabiltzaileek jasan ditzaketan eskubide urraketak babesteko (Calzada, 2020g). Hain dira garrantzitsuak, Nazio Batuen erakundeak ere babesten baititu. Hintz *et al.*-ek (2017) eta Kitchin-ek (2020), eskubide digitalak zelataztereekin eta pandemiaren osteko erantzun batekin lotzen dituzte eta, hein handi batean, erakunde publikoetan gerturatze hau oso zabaldua dago. Hain zabaldua egonik, *Foundational Economy Collective* bat eratu dela pandemiaren osteko ekonomia birpentsatzeko (2020). Eta elementuen artean, digitalizazio eta datafikazioak daude. Lupton bestalde, oso autore oparoa da datuen zelatatzearen inguruan egin dituen aztergai asko direla medio (2017). Lucas (2020), bestalde, demokrazia pandemikoaz mintzo zaigu molde berean, baina pandemiak utzi duena eskubide digitalei lotuz.

Hala ere, eskubide digitalen aldarria hipzide dugularik, ezinbestekoa da Mazzucato *et al.*-en (2020) eta Moulaert eta MacCallum-en ekarpena (2019): lehenek, estatu ekintzailea dutelako jomugan; eta bigarrenek, berrikuntza soziala. Egia da, Euskal Herrian, bigarren honi buruz asko hitz egiten dela, baina agian lehenengoa ukitu gabe: estatu ekintzailea. Eta eskubide digitalak ez dira soilik enpresa erraldoien aurrean hartzen den jarrera, baizik eta erakunde publikoen aurrean gizabanako gisara hartu ahal dugun konpromiso indibiduala eta kolektiboa. Morozov (2020) da, seguruenik, gai honi modu zalapartatsu edo probokatzailenean heltzen dion autorea.

Adimen artifizialaren gailentzerekin batera gertatzen ari da eskubide digitalen aldarria. Kontua da, orain artean estatuen aurretik, hiriak direla soilik testigu zuzena hartu dutenak. Hiriak dira, hain zuzen ere, hiritarren eskubide horien bermea eskatzen hasi direnak. Calzada *et al.*-en (2021) ekintza-ikerketan erakusten den moduan, 13 hiri global hasi dira lan zehatz eta sakona egiten. Baliteke, Euskal Herriko testuingurutik urruti aurkitzea kontu hau, baina euskal hiritarrak beste munduko hiritarren pare ja-

saten ditu eskubide digitalen bortxaketak. AirBnB-ren edota Uber-en zerbitzuak erabiltzen ditugunean, edo, larriago agian, Amazonen bidez edozer produktu erosten dugunean, gure kreditu txartelaren informazioa, gure helbidea, zein produktu, eta zein maiztasunez erosten dugun, hori guztia, Amazonen esku geratzen da. Agian, Amazonen balioa ez da saltzen digun produktuaren kostua, baizik eta gure datuekin zer egiteko gai den. Amazonen atzean, gure datuarekin trafikatzeko duen sare erraldoi bat dago. Eta ez beti, baina bai geroz eta sarriago, ez dakigun zirrikitu batetik, gure eskubide digitalak urratuak egon litezke; gu lasai asko eta patxadan bizi garen bitartean.

Maxmen-ek (2019) zelatatzeari buruzko aldarria egiten du eta kontu hau eskubide digitalekin lotuta dago. Izan ere, zelatatzea, demokrazia arriskuan jartzen duen jarduera baita (Prainsack, 2020). Eta Smuha-k oso argi azaltzen duen moduan, zelatatzea eta demokrazia parekide ez diren modu berean, gure esku dago eskubide digitalen defentsa egitea (2020); giza eskubideetan oinarritzen direlako eskubide digitalak. Taylor-ek bestalde (2020), herriaren plataformaz dihardu; herrigintza eta naziozintza algoritmikoaren atezuan legoke ideia hau ere.

Baina behin aldarria eginda: Zer egin? Nola jokatu? Erantzuna garbia da, baina zailagoa aurrera ateratzea. Ez, ordea, ezinezkoa: antolakuntza eta estrategia, biak batera eta elkarrekin. Datu kooperatibak antolatzeari buruz ari gara. Hau da, erreminta-kaxaren azken lanabesa. Datafikazio estrategia emantzipatzaileak aurrera ateratzeko bidea izan litezkeenak.

2.4. *Datu kooperatibak*

Datu kooperatibak eratzeko, datuak libre izan behar ditugu. Izan ere, haien jabetza aldarrikatzeaz gain, antolatuko egingo baikara lanabes honekin estrategia emantzipatzaileak ere lortu ahal izateko (Fia, 2021). Datu kooperatibak, plataforma kooperatiben azpimultzo bat da, Calzadaren azterketaren arabera (2020b). Eta datu kooperatibak eratzeko, ezinbestean izan behar dugu eskura datu-subirautza (Calzada, 2020b; 2021a); alegia, subirautzarik gabe ezin antola ditzakegu kooperatibak.

Gai honen inguruan, Borkin-en lana (2019) aipatzekoa bada ere, Pentland *et al.*-en (2019) lanak dira benetan aitzindariak. MacCann-ek eta Yacizi-k (2018) irakurketa interesgarria egiten dute. Bestalde, Scholz-ek egin dio hurbilketarik sakonena gaiari, nahiz eta zenbait gabezia aurkitzen dizkiogun haren hurbilketari (2016; 2021). Kasu asko aipatzen ditu mundu-mailakoak baina oraindik ez da garbi geratzen plataforma kooperatibek nola funtzionatu ahal izango luketen praktikan. Horregatik, datu-kooperatiben lanabesaren inguruan lortzen ari diren aurrerapenak benetan dira esanguratsuak (Delacroix eta Lawrence, 2019).

Datu-kooperatibak datuak gordetzeko kooperatibak dira; baina kooperatibakideen datuak izanik gordetzen direnak, haien inguruko betebeharrak ere badaude. Alegia, datu-kooperatibak, kooperatibakideen eskubide digitalak bermatzeaz gain, haien datuen eta haien kideen datuen inguruko betebeharrak ere badakartza. Besteak beste, datuen

pribatutasuna bermatzeko sortuak dira, baina ez hori bakarrik. Datu-kooperatibak, gure datuen erabileraren gordeleku izateaz gain, gure datuen balioaren bermatzaile ere badira. Adibiderik garbienak Salus, Driver's Seat eta MyData dira (Calzada, 2021a).

Pentland eta Scholz-en artean, datu-kooperatibek duten esanahiaren eta erabileraren inguruko desadostasuna dago. Lehenak, diru bidezko hartu-emanekin lotzen du, eta bigarrenak, komunitateak egiten duten erabilerakin. Eztabaidak eztabaida, hiru ideia zehatzekin amaitzen da, laugarren azpiatal hau:

Lehenengo ideia: gizarte zibilak biziberritzeko behar handia dago. Horregatik, datu-kooperatibak, behar horri erantzuteko moduan egon litezke. Europar arautegia, testuinguru egokia sortzeko oso aldekoa dela ikus genezake.

Bigarren ideia: kooperatibagintzari buruzko trebakuntza oraindik oso beharrezkoa da. Hala ere, kooperatibagintzari buruz jakiteak soilik ez du bide ematen datu-kooperatiben ezagutza praktikoa izateko. Datu-kooperatibak, kooperatiba digitalak dira, ez kooperatiba edo enpresa fisikoak (Orona, Ampo, Orkli, etab). Beraz, datu-kooperatibak oraindik eratzen ari den fenomeno berria denez, dauden adibideei gertutik jarraitzea komeni da.

Hirugarren ideia: datu-kooperatibak ugaltzeko, administrazioetatik apustu sendo egin behar da. Harritzekoa da Euskal Herrian gai honi ematen ari zaion hauspo urria. Izan ere, Europar Batasunean, datu-altruismoa eta donazioa, dagoeneko legediaren parte baitira. Legeak eta araudiak egon badaude; falta dena ekintzailetasuna da. Ekitea alegia, datu-kooperatibak eratzea, gure inguruko beharretatik.

3. Azken ondorioak

Kapitulu honen inguruan, datafikazio estrategia emantzipatzaileak aurkeztu nahi izan dira, lau lanabesez osatutako erreminta-kaxa baten bidez: (i) nazio algoritmikoa, (ii) datu-subirautza, (iii) eskubide digitalak, eta (iv) datu-kooperatibak. Datafikazio estrategia emantzipatzaileak formulatzeko, erreminta-kaxa honetako lau lanabesak uzartu eta konbinatu behar ditugu nahitaez.

Pandemiak zerbait erakutsi badigu da, digitalizazioaren zaldi eroari trostan libreaki uzten bazaio, ez dakarrela hiritarren zelatatzea bakarrik. Merkatu librearen moduan, digitalizazioak datafikazio sakona ere badakar, eta azken honek ez du justizia soziala kontuan hartzen: indartsuenak eta handienak lehenesten ditu. Beraz, datafikazio estrategiaz erditzeko, ezinbestean hausnarketa eta ekintza uzartu beharrean gaude. Bata bestea gabe ez dira bideragarri.

Datafikazio estrategia emantzipatzaileekin soilik bermatuko ditugu demokrazia teknopolitiko pandemia-ondokoak (Calzada, 2022c). Erabilgarri suertatu izanaren esperantzarekin, *erdu eta to zuentzat*, erreminta-kaxa hau, *eta gorde itzazue galtzetako* poltsikoetan, erabiliak izateko. Orduan bakarrik izango baitira baliagarri, orduan bakarrik izango baitira erreminta, lanabes, eta estrategia emantzipatzaile. Zuenganatzen dituzuenean, soilik. *Erdu eta to zuentzat!*

Krisia eta berrikuntza demokratikoa integrazio-prozesuan: subiranotasun europar baterantz

Javier Uncetabarrenechea, Igor Filibi
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena. Subiranotasunaren kontzeptua berrikuntza politiko handia izan zen, eta XVI. eta XVI. mendeetan Europa suntsitu zuten Erlijio Gerrak gairatzeko balio izan zuen. Iraultza burges handiek, nazio modernoaren kontzeptuarekin, aukera eman zuten merkatu nazionalak eraikitzeko eta herritarren boterean eta demokrazia liberalean oinarritutako eredu politiko berri bat legitimatzeko. Berrikuntza horri esker, Europako potentzia nagusiek ordura arte izandako botere handiena lortu zuten, baina, industria-iraultzaren ondoren, Europa suntsitu zuten bi mundu-gerratara eramanez gintuen. Gerra Hotzaren hasierarekin eta Europa deuseztatuko zuen gatazka beliko berri baten mehatxu errealekin, hirugarren berrikuntza gertatu zen: subiranotasuna partekatzea nazioz gairatzeko erakunde baten esparruan. Hala ere, ez zen desagertu nazio-estatu garaikidearekin lotutako subiranotasunaren ideia zaharra, eta, aulki hutsaren krisiaren ondoren, nazioz gairatzekoaren eta gobernu artekoaren arteko tentsioa funtsezko faktorea izan da integrazio-prozesu europarraren bilakaera ulertzeko.

Krisi berriek (ekonomikoa, errefuxiatuak, zorra, COVID-19, Ukrainako inbasioa) agerian jarri dute gobernuartekora geroz eta gehiago hurbiltzen den eredu bat agortzen ari dela, eta Europak ez ditu beharrezko baliabideak eta boterea erronka horiei aurre egiteko.

Estatuetakoko gobernuak, ahalmenik gabe, onartzen hasi dira subiranotasun europarra behar dela; horrek ez du estatuen subiranotasuna ordezkatuko, baizik eta osatu, eta, kontu batzuetan, erreferentziako boterea bihurtuko da. Dena dela, subiranotasun europar berri horrek estatuko subiranotasuna gairatu behar du. Ez da eraiki behar subiranotasuna eskala handiago batean, baizik eta desberdina eta hobea, askoz demokratikoagoa; horrek esan nahi du, eraginkorra izateaz gain, Europako gizartearen aniztasuna aitortu eta errespetatu behar duela.

1. Berrikuntza politikoa eta integrazio europarra

Berrikuntza politikoa funtsezko faktorea da integrazio europarraren prozesua ulertzeko, bereziki ziurgabetasunak eta desilusioak markatutako garai batean. Jakina den moduan, nazioz gaindiko erakunde batean subiranotasuna partekatzeo ideia berrikuntza bat izan zen, eta ez zuen gerra soilik pentsaezin bihurtu, baizik eta baita materialki ezinezko ere. Testu honetan zehar ikusiko dugun moduan, Aulki Hutsaren krisitik gaur arte eraikuntza europarraren prozesuak etengabeko tentsioa bizi izan du nazioz gaindiko eta gobernu arteko elementuen artean. Ereditu hori krisian sartu zen azken hamarkadan, batez ere 2008ko krisiaren kudeaketaren kritiken eta Brexit delakoaren ondorioz, eta pandemiak eta etorkizuneko ziurgabetasunak markatutako tes-tuinguru honek agerian jarri du Europa dela jarduketa-eskala eraginkorrena arazo askotan. Beraz, eskala europarra garatu behar da eraginkorra izan dadin, baina, lan honen arabera, eraginkortasuna bilatzeak ez du esan nahi demokraziari buruzko ez-tabaida alde batera utzi behar izatea. Hortaz, erronka da definitzea nola garatu dai-tekeen esparru politiko europarra, guztiz beharrezkoa baita, eta horrekin batera pro-zesuak garapen demokratikoa inplikatzeko.

Eskala politikoei, estatuaren esparrutik harago doazenean, eskatzen dute subira-notasunaren gaia jorrazteko. Bestalde, gobernu arteko eta nazioz gaindiko ikuspegi-en arteko tentsioak berekin dakar demokraziari buruzko eztabaida. Lehen ikuspegiak segurutzat jotzen zuen demokrazia baterako esparru posible bakarra nazio-estatu-a zela; beraz, estatuaren arteko lankidetzak, nahiz eta beharrezkoa izan zitekeen hainbat arlotan, kontu tekniko eta funtzioaletara mugatu behar zen, estatuaren esparru poli-tikoa eta nazioaren zilegitasuna (herria) zalantzan jarri gabe *demos* posible bakar gisa. Bigarren ikuspegiak zalantzan jarri zuen hori, eta adierazi zuen beharrezkoa zela es-parru politiko berri bat eraikitzea, XX. mendeko erronka handietara egokitutako es-kala bat, aukera emango zuena agertu ziren erraldoiekin (AEB, Sobietar Batasuna) lehian aritzeko beharrezko masa kritikoa lortzeko. Esparru politiko horrek demokra-tikoa izan behar zuen, baina hura pentsatzeko erabili ziren kontzeptuak eskuragarri zegoen adibide bakarrean inspiratu ziren: AEB. Ipar Amerikako federazioak, jakina den moduan, *The Federalist Papers* dokumentuan jasotzen diren aita fundatzaileen ez-tabaida handiak markatutako hastapenen ondoren, laster ezarri zuen ikuspegi ha-miltondarra, eta garaiko nazioarteko gizartean nagusia zen nazio-estatuaren eredia onartu zuen, neurri handian bakarra zen subiranotasun batekin.

Beraz, federalismo europarrak, salbuespen gutxirekin (20ko hamarkadako gazte inkonformistak, esaterako), Ipar Amerikako kasuan inspiratutako federazio europar bat proposatu zuen. Denborarekin, hala ere, bi ikuspegiak beren oinarriak aldatu di-tuzte, eta integrazio-prozesuak aurrera egin ahala eboluzionatu dute.

Alde batetik, nazionalismoaren zati handienak onartu du integrazio europarrak estatuaren arteko lankidetzak-modu indartsuak izan behar dituela, subiranotasuna mu-gatuko duten betebeharrak juridikoak barne, gehiago eraginkortasunarekin lotutako go-goetengatik subiranotasuna mugatzeko beharrezko benetako konbentzimendu baten-

gatik baino. Hala ere, bereziki 2008ko krisiaren ondorengo garaian eta erakundeek hura kudeatzeko zituzten gaitasunari buruzko zalantzen aurrean, herritar batzuek estatu subirano idealizatu batera itzuli nahi dute. Krisiak eragindako beldurrak eta ziurgabetasunak «kontrola berreskuratzeko» beharrari buruzko ideia sustatu dute, eta, gure testuinguru politiko eta kulturalen, «horren baliokidea da Nazio-estatuaren berreskuratze subiranoa» (Arias Maldonado, 2020: 16).

Bestalde, federalismo europarra eredu ideologiko eta formalagoetatik aldendu da, eta onartu du integrazioa arazo zehatzak konpontzean oinarritu behar dela, eta erakutsi behar duela erabilgarria dela estatuek ezin dutenean beren kabuz eraginkortasunez jokatu. Nolabait, federalismo europar zaharrak ulertu du estatuak arazoak dituela eta horiek egiturazkoak direla, eta horiek ez direla nahikoa federazio europarra justifikatzeko; izan ere, erabilgarria dela frogatu behar du herritar gehienek eta gobernuak hura onartu aurretik.

Egungo testuinguruan, bi krisi handik markatuta (2008-2019 aldiko finantzario eta ekonomikoa eta 2020-21eko COVID-19arena), subiranotasun europarraren kontzeptua agertu da integrazio-proiektua sakontzeko iparrorratz gisa, Europaren erronken konponbide bakar gisa. Gure iritziz, eztabaida hori beharrezko berrikuntza da Europak aurrean dituen erronkei erantzuteko, baina ez da nahikoa, bereziki Errusiak Ukraina inbaditu ondoren 2022ko otsailean. Ziur asko, Europako erakundeek euren boterea handitu beharko dute arlo batzuetan, estatuetakoa gobernuak behin eta berriro erakutsi baitute ez direla gai erronkei erantzuteko. Hala ere, EBko erakundeek boterea handitzeak, eraginkortasunaren izenean, Europa teknokratiko bat indartu lezake, eta baliteke estatuko subiranotasunaren kontzepzio monistaren mugak kopiatzea.

Horregatik, subiranotasun europarraren eztabaida ezin da mugatu estatuko subiranotasun monistaren egungo nozioa orain aplikatzera Europako eskalan. Subiranotasunaren kontzepzio pluralista jorratuko duen eztabaida sakon bat behar da. Subiranotasun europarrak subiranotasun nazionalak baino eraginkorrago izan behar du (hori da integrazio europarraren sorreraren arrazoia), eta, gainera, sakontze demokratiko bat ahalbidetuko duen berrikuntza kontzeptual bat ekarri behar du. Puntu hori garrantzitsua da; izan ere, politika europarraren printzipio utziezin bat haren izaera demokratikoa da. Garrantzitsua da hori baieztatzea testuinguru honetan, non demokrazia ugari gainbeheratu diren eta non eskualdeko (Brasil, Turkia, Iran, etab.) eta munduko (Txina, Errusia, India) potentzia batzuek geroz eta modu adierazgarriagoan defendatzen dituzten demokratikoak ez diren balio eta jokabideak.

Demokrazia europarraren erronka da, beraz, nazio-estatuaren subiranotasunaren kontzeptu zaharra birdoitzea, subiranotasun europar berri bat sortu ahal izateko, bateragarria izango dena estatu eta nazioekin; hala ere, horrekin batera esparru politiko solido bat sortu behar du, gai izango dena eraginkortasunez jokatzeke eskala europarrean beharrezkoak diren arloetan.

Xede horrekin, jarraian (2. atala) hausnarketa labur bat egingo dugu subiranotasunaren kontzeptuaren bilakaerari eta subiranotasun nazional bihurtzeari buruz.

Subiranotasunaren kontzepzio monista eta pluralistaren arteko kontraesana ere jorratuko da; izan ere, lehenaren garaipenarekin, nazio-estatuaren mundu bat sortu zen, non soilik *demos* bakar baten existentzian oinarritutako demokrazia bat sar zitekeen. Aurrerago (3. atala) ikusiko dugu eredu horren krisi handi batek, bereziki Bigarren Mundu Gerraren ondoren, hainbat berrikuntza sakon eragin zituela Mendebaldeko Europako herrialdeetan. Horren emaitza nagusia izan zen ikuspegi monista hori zailantzan jartzea; izan ere, Europako komunitateen barruan, nazioz gaindiko erakunde baten barruan subiranotasuna partekatzea zekarren eredu bat planteatu zen. Ondoren (4. atala) labur berrikusiko dugu integrazio-prozesuaren historia, eta ikusiko dugu nola, funtsean 60ko hamarkadaz geroztik, hasi zen nazioz gaindikoaren eta gobernu artekoaren arteko oreka zail baten aroa, integrazio-prozesuaren etorkizuna markatu zuena. Jarraian, aztertuko dugu nola sartu den oreka ezegonkor hori krisi sakon batean, funtsean azken hamarkadan, ez delako gai izan krisiari erantzuteko (5. atala). Azkenik, azken atalean, termino politiko eta demokratikoetan berrikuntza bat dakarren erantzun bat emateko beharra planteatuko dugu, subiranotasun europar pluralista baten aldeko apustua eginez.

2. Subiranotasunetik subiranotasun nazionalera: monismo-pluralismo tentsioa

Erdi Aroan zehar, munduak trantsizio motel bat bizi izan zuen Jainkoaren hiri unibertsal eta hierarkikotik subiranotasun konpartimentalizatu eta partikularren sistema batera. Aitasantutzak erregeak babestu zituen enperadorearen boterearen aurka, eta ondorioz botere nazionalak sortu ziren. Frantziako erregeak «*rex superiorem non recognoscens in regno suo est imperator*» (erregeak ez du aitortzen nagusirik, enperadorea da bere erreinuan) adierazi zuenean, aldi berean bi printzipio ezberdin berretsi zituen: alde batetik, erregeari botere absolutua eman zitzaion bere lurraldean, eta, bestetik, erregearen gaineko *civitas maxima* baten existentzia ukatu zuen (Torres Gutiérrez, 1999: 998).

Krisien, ziurgabetasunaren eta beldurraren uneetan berrikuntza politikoaren alde egiten da, eta subiranotasunaren kontzeptuaren historian horren adibide on bat topatzen dugu. Izan ere, XVI. mendeko Europako errealitate sozial, ekonomiko eta politiko asaldatuak erlijio-gerrek eragindako eraldaketa sakonerako baldintzak finkatu zituen. Atal honetan ikusiko dugun moduan, subiranotasuna izan zen etengabeko gerrei amaiera emateko diseinatutako erantzuna; izan ere, bazirudien ezinezkoa zela behin betiko irabazle bat izendatzea (Filibi, 2020).

1517an Luterok bere laurogeita hamabost tesiak ipini zituen Wittenberg herriko elizaren atean, eta hasiera eman zion Erreforma protestanteari. Matxinadaren emaitza nekazari alemaniarren gerra izan zen 1524an, eta hasiera eman zitzaion gerren aro amaiez in bati: 173 urte iraun zuen, 1697ra arte. Gerra bereziki senideen artekoa

izan zen Frantzian, eta herrialdea etengabeko gerra erlijioso eta politiko batean murgilduta egon zen 1562 eta 1598 artean. Kaos-testuinguru horretan, higanoten sarraskia eta lau urte geroago, Jean Bodin-ek *Errepublikaren sei liburuak* izeneko liburua argitaratu zuen 1576an, eta, bertan, kontzeptu berri bat aipatu zuen, subiranotasuna, «Errepublika baten botere absolutu eta betierekoa», Erregearen agintaritzaren indartzeko xedearekin, bandoen arteko bitartekaritza-lanak egiteko eta ordena eta bakea ziurtatzeko. Subiranotasunaren eta gobernuaren arteko bereizketa gorabehera, beti azpimarratu zuen «agintaritzaren subiranoak absolutua, betierekoa eta zatiezina izan behar duela» (Andrew, 2011: 77).

1609an, Charles L'Oyseau-k *Traité des Seigneuries* idatzi zuen, nagusitasun politiko motei buruzko tratatu bat, eta argi eta garbi adierazi zuen subiranotasuna estatuaren berezko *Seigneurie* dela, besteekiko desberdina eta nagusia. Bertrand de Jouvenel-en hitzetan, «L'Oyseauk 1609an aurkeztu zuen moduan, subiranotasuna landare indartsua da»; hori ikus daiteke 1614ko Estatu Orokorretan, non subiranotasunaren ideia «erabat nahasten den botere errealearen ideiarekin» (Jouvenel, 2000: 196 eta 189).

Beste gerra zibil baten erdian, kasu honetan Ingalaterran (1642 eta 1651 artekoa), Thomas Hobbes-ek subiranotasun absolutuaren beste zutabeetako bat izango zen liburua idatzi zuen 1651n: *Leviatan*. Hobbesek kontratu sozial baten eta subirano absolutu baten gobernuaren alde egin zuen, gerrari amaiera emateko eta bakea berrezartzeko. Hobbes zegoekion baina lehenago jaio zen, amak erditze aurreratua izan zuelako Ingalaterrako kostara hurbiltzen ari zen Espainiako armadaren aurreko beldurragatik, eta esan zuen haren bizitza beldurrak markatu zuela. Bizitza osoan zehar ikusi zuen bandoen arteko bereizketa, eta bere lanekin botere bat sortu nahi zuen, gai izango zena guztien arteko gerra amaigabe horri amaiera emateko.

Konponbide iraunkorrik gabe, 1568 eta 1648 artean, toki guztietako gerren erdian, Hogeita Hamar Urteko Gerrak Europa osoa suntsitu zuen beste behin, potentzia nagusiek hartu baitzuten parte. Gerra luze eta izugarria izan zen, eta biztanleria sarraskitu zuen, gosete eta gaixotasun garrantzitsuak eragin baitzituen. Azkenik, potentziek, leher eginda eta elkar suntsitzeko edo nagusitzeko gaitasunik gabe, bakea sinatu behar izan zuten. Baina ez zen izan tolerantzia edo handitasun politikoko ekintza bat, bestearen existentzia onartzeko ekintza soilak baizik. Egiatan, Westfaliako Tratatuak «desberdintasunaren benetako aitortpen, esplorazio eta ahokaduraren atzeratzea» formalizatu zuen (Blaney eta Inayatullah, 2000: 44).

Prozesu hori oso garrantzitsua izan zen Europako historian, eta gerrak ere prozesu horretara egokitu ziren. Lehenik eta behin, botere zentrala nagusitu ahala, «gerra pribatuak toleratzeari utzi zioten, eta gerrarako gaitasuna unibertsalki aitortzen hasi ziren subiranotasunaren ezaugarri gisa». Ondorioz, *osagarritzat* jo ditzakegun gerren fase bat egon zen (horien artean sar ditzakegu argi eta garbi erlijio-gerrak); izan ere, jokoan zegoena zen zein unitate izango ziren subjektu politikoak. Aurrerago, *konfigurazioko* gerren bigarren fase bat etorri zen, non unitateen izaera onartzen zen, baina haien lurralde-konfigurazio zehatza finkatu behar zen. Azkenik, lurralde-hurbiltasuna printzipio onartu gisa finkatu zen, gutxienez erdialdeko Europan (Ruggie, 1993: 162-3); hala ere,

bazeuden salbuespenak, adibidez lurralde kolonialak, eta horiek ekarpen garrantzitsuak egin zizkioten estatu moderno europarraren osakerari (Branch, 2010).

XVIII. mendeko bi iraultza burges handiek funtsezko aldaketak ekarri zituzten subiranotasun kontzeptura, baina aurretiazko elementu batzuk ere mantendu zituzten, eta horiek argi eta garbi gogorarazten zuten XVII. mendetik aurrera eman zitzaion zentzu absolutista (Ferrero eta Filibi, 2004: 10-11). Bazirudien Vienako Kongresuaren (1815) osteko monarkiaren berrezarkuntzak printzipio monarkikoa berrezarri zuela, eta botere-oreka ezarri zuela eskala globalean; horri esker, erlatiboki egonkorra izango zen sistema bat garatu ahal izango zen. Monarkia absolutuen garaia itzaltzen joan zen tentsioek gora egin eta iraultza-prozesuak iritsi ahala, XIX. mendean zehar eta XX. mendearen hasieran. Horrela, pixkanaka erregeak irudikatutako estatuko subiranotasuna nazioak irudikatutako subiranotasun nazionalarekin ordezkatu zen (Ferrero eta Filibi, 2004: 11), eta, nahiz eta nazioarteko ordena egonkor mantendu zen 1914ra arte (Filibi, 2020: 122), nazio-estatuaren ereduaren orokortzeak ondorioak izan zituen nazioartean:

Lotura sinbiotiko bat ezartzen da estatuaren, botere politikoaren erakunde gisa, eta nazioaren, herri subirano baten nortasun politiko eta kultural bereizgarri gisa, artean, eta horrela sortzen da Nazio-estatuaren, gizartean legitimoa den komunitate politikoaren forma bakarra aro modernoan. Horrela, formula westfaliarrean inskribatutako espazialtasun esklusibista indartzen da: estatuaren lurralde-jurisdikzio esklusibotasunari nazioaren esklusibotasuna batzen zaio, nortasun politikoaren objektu gisa. Ondorioz, estatuaren nazioarteko gizarte gisa birdefinitzen da, eta elkarri eragiten dioten unitateak gorenkotzat jotzen dituzten interes «subiranoak» defendatzen dituzten komunitate nazional homogeneo bihurtzen dira. (Ferrero eta Filibi, 2004: 12)

Frantziako Iraultzak sakon eraldatu zuen subiranotasunaren kontzeptua, baina haren kontzeptzio monistari eutsi zion, eta horrek aukera eman zuen, Nazio-estatuaren ereduaren garatzearekin batera, XVII. eta XVIII. mendeetako erregimen absolutista zaharrek irudikatu ezin zuten uniformizazioa aurrera eramateko, adibidez masen eskolatzeko sistemen garapenarekin. Iraultza amerikarra termino desberdinetan planteatu zen. Lehenik eta behin, iraultza demokratiko gisa ikusi behar dugu, baina baita botere kolonial europar baten aurkako independentzia-gerra gisa ere. Alde horretatik, European.

XVI. mendean zehar egondako eraldaketa politikoekiko prebentzio logikoa zegoen, baita kontzeptzio monisten aurkako erresistentzia ere, eta garrantzia azpimarratzen zen. *The Federalist Papers* dokumentuan jasotzen den kontu horiei buruzko eztabaida zabalean, auzitegi gorenaren hainbat epaitan ikusten den estatu federalaren eta estatu federatuen arteko tentsioaren ondorioz pixkanaka ikuspegi hamiltondarra ezarri zen, eta denborarekin garaiko nazioarteko gizartean nagusi zen Nazio-estatuaren ereduaren onartu zuten, neurri handi batean bakarra zen subiranotasun batekin.

IV. TAULA

Egungo Konfederazioaren ezintasuna Batasunari eusteko

(...)

Egia da (...) gertakari batzuek, eusteko indartsuegiak, gure sistema nazionalean akats larriak daudela dioen proposamen abstraktuaren baicspen orokor bat sortu duela; baina neurri federalen aurkari zaharrek hura onartzeak izan dezaken erabilgarritasuna sunsituduta gelditu da erremedio baten aurkako oposizio setatiagatik (...). Onartzen duten bitartean Estatu Batuetako gobernuak ez duela energiarik, diote ez zaizkiola eman behar energia hori ordeztzeko ezinbesteko botereak. Badirudi oraindik elkarren aurkako gauza bateraezinak lortu nahi dituztela; agintaritza federala handitzea, estatuen agintaritza txikitu gabe; Batasunaren subiranotasuna eta kideen erabateko independentzia. (...)

Egungo konfederazioaren eraikuntzaren oinarritzko akatsa *estatu edo gobernuentzat legeak egiteko printzipioa da, modu korporatibo edo kolektiboan*, eta ez haiek osatzen dituzten banakakoentzat. Nahiz eta printzipio hori ez den hedatzen Batasunari eskuordetutako botere guztietara, gainerakoen eraginkortasunaren mendeko horiek gobernatzen ditu. (...)

Nazio independenteen arteko liga edo aliantza baten ideia ez da absurdoa edo ezinezkoa, xede jakin oreka ezartzeko; hala ere, osatu bezain laster hautsi ziren, eta gizakiei lezio probetxugarri eta penagarri bat eman zioten: oso gutxi fidatu behar da zigor gisa soilik fede onaren betebeharrak dituzten tratatuez, justiziaren eta bakearen kontsiderazio orokorrak berehalako interesen edo pasioaren bultzaden aurka jartzen badituzte. (...)

Baina ez badugu gure burua egoera arriskutsu horretan ikusi nahi, eta gobernu nazional baten proiektura atxikitzen bagara, edo, gauza bera dena, botere arautzaile batenera batzorde komun baten zuzendaritzapean, gure planean liga baten eta gobernu baten arteko desberdintasuna osatzen duten elementuak sartu behar ditugu, eta Batasunaren agintaritza herritarrengana hedatu behar dugu (gobernuaren benetako objektu bakarrak).

Gobernatzeak legeak egiteko eskumena dakar. Funtsezkoa da legearen ideiak zehapen bat edukitzea, hau da, obeditzen ez dutenentzako zigor bat. Desobedientziak ez badu berekin ekartzen zigor bat, lege izan nahi duten agindu edo ebazpenak ez dira igaroko gomendio edo aholkuen kategoriatik. (...)

Botere subiranoaren izaeran murrizketen intolerantzia dago, eta hura baliatzen dutenak haien eragiketak mugatu edo gidatzera zuzendutako kanpoko saiakera guztien aurka jartzen ditu. Espiritu horren ondorioz, interes komun batean hainbat subiranotasun txiki biltzeko printzipioan oinarritutako elkarte politiko orotan mendeko eta azpiko aldean joera eszentriko berezi bat dago, eta haren ondorioz etengabe ahaleginduko dira erdigune komunitik bereizten».

(Alexander Hamilton (2004 [1780]), «Egungo Konfederazioa ez da nahikoa Batasunari eusteko»: *El Federalista*; Mexiko DF, Fondo de Cultura Económica; XV. atala, or.: 57-61).

Ipar Amerikako estatuaren bilakaera horrek iradokitzen du antolakuntza politikoaren eredu bat sortuko zela, eta hori zilegitasun politikoaren kanon eta estandar bihurtuko zela (Hall, 1999). Eredua egonkortzen den heinean, ereduaren imitazioa sustatzen duen eta desbideratzeak zigortzen dituen kontrol sozialaren eredu bat ere egonkortzen da (Hurd, 1999).

XIX. mendean zehar eta XX. mendearen hasieran Europan Nazio-estatuaren eredu orokortu zenean, bizitzako arlo batzuetan presente zegoen estatu bat garatu ahal izan zen (osasuna, hezkuntza...), lehen ez zegoena. Horrek atea ireki zion Industria Iraultzari, eta aldaketa teknologikoa sustatu zuen; hori, halaber, nagusitasun teknologiko eta militarrean islatu zen, eta inperialismoa eta hedapen koloniala eragin zituen munduaren zati handi batean. Aldaketa ekonomikoari esker, estatuak enpresa handiak sortu ahal izan zituen sektore estrategikoetan, berrarmatze-politikak planifikatu eta garatzeko. Politika horiek potentziala zuten gatazka belikoak maila berri batera eramateko. 1914an Europako potentziak hegemoniko izatera eramaten zituen ereduaren ondorioz, hiru hamarkadaren eta dena aldatu zuten bi mundu-gerren ondoren, Gerra Hotzaren testuinguru berriak sartu ziren, non jokoan zegoen Europaren biziraupena.

3. Krisia eta integrazio europarra: subiranotasun klasikoa gainditzea eta nazioz gaindiko metodoa

Integrazio europarra eta krisiaren ideia berrikuntza politikorako aukera gisa es-tuki lotuta egon dira hasieratik. Lehen Mundu Gerra lehen ohartarazpena izan zen Europan gaia beste modu batean jorrazteko. Gerren arteko aldiak, eraldatzen ari zen mundu baten (eta kontinente baten) isla gisa, Europan eraikuntzari heltzeko tresna berriak bilatzen zituen. Aristide Briand Frantziako Kanpo Harremanetarako ministroak proposatu zuen Europan erakunde federal bat sortzeko Nazioen Elkar-tearen Batzarraren urteko bilkuran, 1929ko irailean. Horrez gain, Nazioen Elkar-tea osatzen zuten 27 estatu europarren aurrean horretarako plan xehatu bat aurkez-teko konpromisoa hartu zuen. Hori izan zen Briand Memorandumaren jatorria, eta 1930eko maiatzaren lehen aurkeztu zuten. Elementu original ugari zituen lankidetz-a handinahi bat artikulatzeko arlo politiko eta ekonomikoan, baina ez zuen jorraz-ten subiranotasunaren gaia². Krisi ekonomikoaren, erregimen autoritario eta totalita-rioren gorakadak eta Europa eta mundu-mailako gatazka armatu berri baten aukera-ren ondorioz, ekimenak porrot egin zuen.

V. TAULA

Europar Batasun Federalaren erregimen baten antolakuntzari buruzko memoranduma

Europar Batasun Federalaren erregimen baten antolakuntzari buruzko memoranduma
(Aristide Briand, 1930)

Elkartasun konbentzionaleko erregimen iraunkor bat ezartzeko beharra, Europaren antolakuntza arrazionalerako, munduaren zati honetan izateko elkartasuna partekatzea eskatzen duen egoera geografikoa duten herrien segurtasun- eta ongizate-baldintzetatik dator. (...)

Europako gobernuen arteko lehen elkartasun-loturaren bilaketak batasun-politika europarrera jo behar du, eta horrek antzina aduanen batasunen eraketak Europan zehaztu zuen kontzepzioaren aurkakoa inplikatzeko du. Batasun horiek barneko aduanak indargabetu zituzten, horma zorrotzagoa jartzeko komunitatearen mugetan, hau da, batasun horietatik kanpo kokatutako estatuen aurka borrokatzeko tresna bat osatzeko. (...)

Azkenik, garrantzitsua da proposatutako azterlana argi eta garbi kokatzea kontzepzio orokor baten pean: gobernu europarren artean sortu nahi den lotura federalak ezin die inolaz ere eragin izateko elkarte horren kide diren estatuen zuzenbide subiranoci.

Europarren arteko akordioa. Gainera, ezinezkoa litzateke menderakuntza politikoaren pentsamendu txikiena irudikatzea nahita Nazioen Elkartearen kontrolpean jarritako erakunde baten barruan, haren bi oinarrizko printzipioak estatuen subiranotasuna eta eskubide-berdintasuna baitira. Eta, subiranotasun-eskubideekin, ez al da nazio bakoitzeko jenioa berresteko modu kontzienteago bat topa dezakeena lan kolektiboaren lankidetzan, herri bakoitzaren berezko tradizio eta ezaugarriekiko.

Iturria: Kongresuko liburutegia, jatorrizko frantsesez 10-12.

Bigarren Mundu Gerrak esparru egokia sortu zuen beste testuinguru batean inoiz aurkeztuko ez ziren proposamenak aurkezteko, eta edozein lankidetzat motatik harago zihoazen, nahiz eta handinahia izan. 1940ko ekainaren batasun frantziar-britainiar bat sortzea proposatu zen, defentsarako, kanpo-politikarako, ogasunerako eta ekonomiarako erakunde komunekin, beste hainbat neurriren artean (Shlaim, 1974).

VI. TAULA

Batasun frantziar-britainiarraren proposamena

Mundu modernoaren historiaren une larri honetan, Erresuma Batuen Gobernu eta Frantziako Errepublikak modu bereizezinean batuta daude, eta elkarrekin justizia eta askatasuna defendatuko dituzte gizakiak robot eta esklabo bihurtzen dituen sistema baten menderakuntzaren aurka.

Bi gobernuak adierazi dute Frantzia eta Britainia Handia ez direla bi nazio izango etorkizunean, baizik eta batasun frantziar-britainiarra.

Batasunaren konstituzioak defentsarako, kanpo-politikarako eta gai ekonomikoetarako erakunde komunak inplikatu ditu.

Frantziar orok berehala izango du Britainia Handiko herritartasuna, eta britainiar oro Frantziako herritar bihurtuko da.

Bi herrialdeek elkarrekin konponduko dituzte gerra-kalteak edozein tokitan, eta bien baliabideak erabiliko dira xede horretarako.

Gerran zehar, gerra-kabinete bakarra egongo da, eta Britainia Handiko eta Frantziako indar guztiak indarrak. Batasunak deia egiten die Estatu Batuei, eta eskatzen die aliatuen baliabide ekonomikoak indartzeko eta haien material indartsuaren laguntza emateko kausa komunari.

Batasunak energia guztiak pilatuko ditu etsaiaren aurka, edonon. Eta, horrela, irabaziko dugu.

Iturria: Jean Monnet, *Memorias*. Madril, XXI. mendea, 1985 [1976], 14-15.

Ziurgabetasuna ez zen desagertu gatazkaren ondoren, eta Bigarren Mundu Gerraren amaieran horizonte iluna gelditu zen Europa suntsitu eta odolgabetuan; gainera, bereizita gelditu zen, eta are gehiago bereizi zen Gerra Hotzean. Estatu Batuen eta SESBen arteko gatazka nuklear baten aukerak, Europa zelarik eragiketen antzoki probaleena, berekin ekarri zuen Hirugarren Mundu Gerra bat ekiditeko beharra agendaren erdigunera, eta horrek berrikuntza politikoa ekarri zuen.

Europaren etorkizunari buruzko eztabaidagai nagusi bihurtu zen, eta elementu berritzaileen bilaketa garai hartako erronkei erantzun ahal izateko betebeharrak bihurtu zen. Elementu horiek mugimendu federalista europar bizi eta indartsu batean aurkitu ditzakegu, Europaren etorkizuna jorratzen zuena begirada desberdin batekin. Adibide on bat topatzen dugu Hagako Kongresuaren moduko gertakari garrantzitsuetan (1948), non eztabaida baten ondoren arlo kultural, ekonomiko eta politikoko hiru ebazpen onetsi ziren. Lehen nazioarteko erakunde esanguratsua Europako Kontseilua izan zen, non soilik estatu demokratikoak sar zitezkeen (**ikus Londreseko Tratatuen Bigarren Kapituluak**); elementu berritzaile eta garapen praktikoa ugari

zituena, batez ere giza eskubideen arloan, baina ez zuen jorratzen subiranotasun europarraren kontua (Dayez, 1949).

Mendebaldeko Europako estatu guztiek subiranotasun europarraren kontua jorratzeko eta gobernu arteko lankidetzatik harago joateko erakunde berriak sortzea onartzeko zailtasunak argi eta garbi ikusten dira Europako Erkidegoaren sorrera-prozesu konplexuan. Puntu horretan, berrikuntza Schuman Adierazpenean zehaztu zen, eta haren helburu handinahia zen European gatazka beliko berri bat «ez soilik pentsaezina izatea, baizik eta baita materialki ezinezkoa ere».

VII. TAULA

Schuman Adierazpena

Schuman Adierazpena (1950eko maiatzaren 9a)
<p>Munduko bakea ezin da babestu hura mehatxatzen duten arriskuen pareko ahaleginik gabe.</p> <p>Europa antolatu eta bizi batek zibilizazioari egin ahal dion ekarpena ezinbestekoa da harreman baketsuei eusteko. Frantziak hogei urte baino gehiago daramatza Europa batua babesten, eta beti izan du funtsezko helburu gisa bakearen alde egitea. Europa ez zen eraiki, eta gerra hasi zen.</p> <p>Europa ez da egingo behin eta aldi batean: egikaritze zehatzen bidez egingo da, lehenik eta behin izatezko elkartasuna sortuko dutenak. Nazio europarrak taldekatzeak eskatzen du Frantzia eta Alemaniaren arteko oposizio sekularra gaunditzea; beraz, ekintzak lehenik eta behin, Frantzia eta Alemaniari eragin behar die.</p> <p>Xede horrekin, Frantziako Gobernuak proposatzen du berehala jokatzea puntu mugatu baino erabakigarri batean: Frantziako Gobernuak proposatzen du ikatzaren eta altzairuaren Frantzia eta Alemaniako ekoizpen osoa goi-agintaritzaren komun baten mende jartzea, eta erakunde hori irekita egotea Europako gainerako herrialdeei begira.</p> <p>Ikatx eta altzairuaren ekoizpena bateratzeak berehala bermatuko du garapen ekonomikorako oinarri komunak sortzea, federazio europarraren lehen etapa gisa, eta horrek eskualde horien etorkizuna aldatuko du. Denbora asko eman dute armak fabrikatzen, eta haiek izan dira lehen biktimak.</p> <p>Ekoizpen-elkartasunak agerian jarriko du Frantzia eta Alemaniaren arteko gerra ez dela soilik pentsaezina izango, baizik eta baita materialki ezinezkoa ere. Ekoizpen-unitate indartsu hori sortzeak, bertan parte hartu nahi duten herrialde guztientzat irekita, hura osatuko duten herrialdeei ekoizpen industrialaren oinarritzko elementuak emango dizkie, baldintza berdinetan, eta batasun ekonomikoaren oinarri errealak finkatuko ditu.</p>

Ekoizpen hori mundu osoari eskainiko zaio, bereizketa eta bazterketarik gabe, bake-lanen maila handitzeko eta aurrera egiteko. Europak, baliabide gehiagorekin, funtsezko xedetetako batekin jarraitu ahalko du: Afrikaren garapena.

Beraz, komunitate ekonomiko bat sortzeko ezinbesteko interesak fusionatuko dira, eta herrialdeen arteko komunitate sakonago baten hartzigarria sartuko da, herrialde horiek horrenbeste denboraz elkarren aurkako bereizketa odoltsuak bizi ondoren.

Oinarrizko ekoizpenak bateratuta eta goi-agintaritza berri bat sortuta (eta horren erabakiek Frantzia, Alemania eta atxikitako herrialdeak behartuko dituzte), proposamenak federazio europar baten lehen oinarri zehatzak finkatuko ditu, eta hori ezinbestekoa da bakeari eusteko.

Helburu horiek lortzen jarraitzeko, Frantziako Gobernua prest dago negoziazioak hasteko oinarri hauen arabera. (...)

Iturria: Robert Schuman Fundazioa [<https://www.robert-schuman.eu/en/declaration-of-9-may-1950/es>]

Proposamenaren ardatza sinplea zen, baina aldi berean erabat berritzailea: subiranotasuna partekatzea sektore mugatu bateko nazioz gaindiko erakunde baten esparruan: ikatza eta altzairua; hala ere, sektorea estrategikoa da gerrarekin eta berrarmatze-prozesuekin duen lotura estuagatik. Metodo horrek arazoaren diagnostiko argia erakutsi zuen, baita konponbide berritzaile bat eta praktikara eramateko beharrezko ausardia ere. Hain zuzen, subiranotasunaren ideia monistak eta nazionalismo oldarkorren garapenak (estatukoak) Europako herrialdeak gerrara eta porrotera eraman zituzten (Filibi, 2020). Schuman Adierazpenak Ikatz eta Altzairuaren Europako Komunitatearen (IAEK) sorrera inspiratu zuen 1952an, eta, defentsaren arloko integrazioan aurrera egin nahi zuen Pleven Planaren porrotaren ondoren, beste bi komunitate (Europako Ekonomia Erkidegoa eta Euratom) 1957an.

Schuman Adierazpenaren izaera berritzailea Europako Erkidegoaren sorreraren funtsezko faktorea izan zen, eta askotan azpimarratzen du literatura espezializatuak. Hala ere, ez da hain ezaguna Bigarren Mundu Gerra amaitu ondorengo urteetan eta IAEK sortu aurretik Europako hainbat herrialdek koordinatutako hainbat erreforma onetsi zituztela beren konstituzioetan, eta subiranotasuna partekatzeko aukera planteatzen zuten nazioarteko erakunde baten esparruan (Brunkhorst, 2016: 15).

Adibidez, Alemaniako Errepublika Federalaren Oinarrizko Legearen (1949) 24. artikulua arabera, Federazioak legez transferi zitzakeen subiranotasun-eskubideak nazioarteko erakundeetara (lehen paragrafoa), eta «segurtasun-sistema kolektibo eta elkarrekiko batean sar zitezkeen bakeari eusteko, eta, ondorioz, subiranotasun-eskubideen mugak baimenduko zituen, baldin eta European eta munduko herrien

artean ordena baketsu eta iraunkor batera eramango bazuten eta ordena hori bermatuko bazuten» (2. paragrafoa).

Alemaniako Errepublika Federal berriaren konstituzioko originaltasunek neurri handi batean zerikusia dute Estatu Batuen, Frantziaren eta Erresuma Batuen presioarekin eta eraginarekin. Hala ere, Frantziako Laugarren Errepublika sortu zuen 1946ko Konstituzioaren hitzaurrean adierazten zenez, elkarrekikotasunarekin, bakea antolatu eta mantentzeko beharrezko subiranotasun-mugak onartzen zituen. Aldiz, Erresuma Batua ez zegoen prest subiranotasuna partekatzeke, eta, konturatu zenean seiek aurrera egingo zutela haiek gabe, proiektu alternatibo bat sustatu zuen, Merkataritza Askearen Europako Elkartea (EFTA), integrazio europarrean aurrera egiteko beste modu bat proposatzen zuena, subiranotasuna laga gabe. Erabat gobernu artekoa zen metodo baten porrota egiaztatu ondoren, eskatu zuen Europako Erkidegoan sartzea, eta hori 1973an formalizatu zen (Filibi, 2019: 135).

Britainiarrek ez ziren erakunde berriez fidatzen ez ziren bakarrak, premisa baitzen subiranotasuna partekatzea nazioz gaindiko erakunde batean. Pleven Plana abiarazteak, Jean Monnet-en babesarekin eta Ikatzen eta Altzairuaren Europako Komunitatearen arrakastak sustatuta, agerian jarri zuen integrazio politikoan aurrera egiteko nahia, baina Frantziaren proposamenez jaiotako Europako Defentsa Komunitateak porrot egin zuen, Asanblea Nazionalak hura berrestearen aurka bozkatu baitzuen 1954an. Charles De Gaulle boterera heltzeak Frantzia bezalako funtsezko herrialde batean (Laugarren Errepublikaren gainbeheraren testuinguruan eta Aljeriako gerrarekin atzealdean) garai gogorak iragarri zituen Europako Erkidego berrien etorkizunarentzat. Hain zuzen, De Gaulle lankidetzaren europar handi-nahiaren aldekoa zen, defentsa bezalako gaietan, baina ez subiranotasuna partekatu behar baldin bazuen. Aulki Hutsaren krisiak eta ondorengo Luxenburgoko Konpromisoak, (modu informalean) aitortzen zuenak, Kontseiluko kide guztien adostasuna (beste modu batean esanda, beto- eskubidea) eskatzea jokoan zeudenean estatuaren funtsezko interesak, une erabakigarri bat definitu zuten integrazio-prozesuaren historian

VIII. TAULA

Luxenburgoko Konpromisoa

Luxenburgoko Konpromisoa
(Kontseiluaren ezohiko saioko amaierako jakinarazpena,
Luxenburgoko, 1966ko urtarrilaren 29a)

«EEEaren Kontseiluaren ezohiko saioaren bi zatiak Luxenburgon egin ziren 1966ko urtarrilaren 17an eta 18an eta 28an eta 29an, eta akordio batera heldu ziren gehien-goaren araua aplikatzeari eta Kontseiluarekiko harremani buruzko kontuetan; Frantziak planteatu zituen kontu horiek 1965eko uztailaren lehen hasitako krisiaren ostean.

(...)

1. Batzordeak proposatuta gehiengo bidez har daitezkeen erabakian kasuan, jokoan daudenean bazkide baten edo gehiagoren interes garrantzitsuak, Kontseiluko kideak saiaturiko dira arrazoizko epean Kontseiluko kide guztiek har ditzaketen konponbideetara iristen, elkarrekiko interesak eta Erkidegoarenak errespetatuz, Tratatuaren 2. artikularekin bat.
2. Aurreko paragrafoari dagokionez, Frantziako ordezkartzaren ustez, interes oso garrantzitsuak direnean, eztabaidak jarraitu beharko du guztien arteko akordio batera heldu arte.
3. Sei ordezkartzek ohartarazi dute ez daudela ados erabat ados jartzen ez direnean egin behar denari begira.
4. Dena dela, sei ordezkartzek uste dute desadostasun horrek ez duela eragozten Erkidegoaren lanei berriro ekitea ohiko prozedurarekin bat». Jatorrizko testuaren iturria frantsesez: https://www.cvce.eu/obj/communique_final_de_la_session_extraordinaire_du_conseil_luxembourg_29_janvier_1966-fr-abe9e77d-9bf9-4e0a-90a9-b80cb48efb47.html

Komunitate europarren arrakasta ekonomikoak estatu berriak erakarri zituen, eta gogoz kontra onartu behar izan zuten subiranotasuna nazioz gairik erakunde batean partekatu behar izatea. Lau herrialdek izan zuten hedapen-txandan sartzeko aukera, eta britainiarrek izan ezik, guztiek erreferendum bidez erabaki zuten 1972an. Irlandan (maiatzaren 10ean) eta Danimarkan (urriaren 2an) bozketaren emaitza baiezkoa izan zen, baina irailaren 25ean Norvegiar ezezkoa ateratu zen eta gobernuak Parlamentura Atxikitzeko Itunaren berrestea aurkezteari uko egin zion. Edward Heath-en gobernu kontserbadoreak hauteskundeak galdu zituen 1974an eta Alderdi Laboristak gai horren inguruko erreferenduma egitea zintzen egin zuten: 1975eko ekainaren 5ean egin zen eta baiezkoak irabazi zuten gehiengo zabalez.

Komunitate europarrak bidegurutzean zeuden hirurogeita hamarrekiko hamarkadan. Aulki Hutsaren krisiak erakutsi zuten eliteek sektore bat eta herritarren parte bat ez zirela instituzioez fidatzen eta ez zutela beren subiranotasuna nazioz gairik era-

kunde batekin partekatu nahi. Hala ere, britainiarren EFTA bultzatu zuten komunitatearen metodoa ez onartzeko, baina atzera egin behar izan zuten eta komunitatean sartzeko eskatu behar izan zuten; izan ere, garapen ekonomiko handiagoa lortzeko eraginkorra baitzen. Nazioz gaindikoaren eta gobernuartekoaren arteko tentsioak, Europa eraginkor(agoa) eta demokratiko(agoa) lortzeko eztabaidarekin batera, hurrengo hamarkadetako integrazio-prozesua markatu zuten.

4. Nazioz gaindiko eta gobernuarteko oreka delikatuaren bilaketa

Integrazioaren historiako ikuspegi konbentzionalen arabera, Aulki Hutsaren kritikatik aurrera eta Europako Agiri Bakarraren onspenaren arteko garaia paralis- eta geldialdi-epetzat jotzen da. Ikuspegi horren arabera, gobernuartekoaren indartzeak erabakiak adostasun bidez hartzea zailtzen zuen 1973an 6 kidetik 9 izatera igaro zen klub handiago batean. Gainera, kide berriak (Danimarka eta bereziki Erresuma Batua) nazioz gaindiko gakoetan aurrera egitearen aurkakoak ziren bereziki. 1974an, Europako Kontseiluaren sorrerak berak (hasiera batean foro informal⁴ gisa), gure ustez, gobernuartekoa indartzeko nahi ez-disimulatua erakusten du, eta, neurri batean, Kontseiluaren helburu nagusia lausotzeko nahia etorkizuneko komunitateen agenda definitzerako orduan. Laburbilduz, garai hau gobernuartekoaren indartze sakoneko epe gisa aurkezten da, baina ezin dugu ahaztu bi hamarkada horietan aurrerapausoak ere eman zirela (batzuk ez oso ezagunak) nazioz gaindikoaren integrazioan aurrera egiteko. Zehazki, bi gertaeraren garrantzia azpimarratuko dugu: Itunen konstituzionalizazioa eta 1977an Europako Parlamentua zuzeneko sufragio unibertsalaren bidez hautatzeko erabakia.

Europako integrazioak ez zuen berritzeko gaitasuna galdu, baina gure iritziz, nazioz gaindiko erakundearen subiranotasuna partekatzearen ideia ekarpen positiboa izan zen arren demokratikoki, gerora egindako beste berrikuntza batzuk kontuz aztertu behar dira. Horren adibidea da zuzenbidearen bidezko integrazioa eta «Itunen konstituzionalizazioa» komunitateko legezko ordenaren definizioan. Orobat, merezi du gogoraraztea haren bi oinarri nagusiak (gailentasuna eta efektu zuzena) ez direla Itunetan agertzen, eta Auzitegiko jurisprudentzian garatu dira epai batzuetan, 1963an hasitako Vand Gend eta Loos kasuarekin. Zehaztasunetan sartu gabe¹, merezi du aipatzea oso prozesu berritzailea izan zela, baina zalantzazkoa zentzu demokratikoan. Zehazki, bereziki trebea izan zen arazo prejudizialaren erabilera herritarren parte-hartze (mugatuko) mekanismo gisa. Horrek baimendu zuen Auzitegiak bere jurisprudentzia garatu ahal izatea eta komunitateko erakundeen jarduteko aukerak zabaltzea.

¹ Zuzenbidearen bidezko integrazioari buruzko informazio gehiagorako, ikus Burle, y eta Mattli, 1993 eta Weiler, 1994.

Auzitegiak Europar Batasuneko barne-merkatuaren funtzionamenduan zuen garrantzian zentratutako eraginkortasun ekonomikoei lotutako arrazoiengatik, eta gobernuartekoaren eta nazioz gaindikoaren arteko oreka konplexuaren barnean kokatzen da (Uncetabarrenechea, 2009: 119-122).

Europako Parlamentua zuzeneko sufragio unibertsalaren bidez hautatzeko erabakiak momentu berezia ekarri zuen Europako integrazioaren historian. Lehenengo hauteskundeak 1979an izan ziren, eta erakunde horrek, momentu hartan eskumen handirik ez izan arren, 90eko hamarkadako erdialdean oso paper garrantzitsua jokatu zuen integrazioaren prozesuaren bultzadan, nahiz eta literatura espezializatuak ez duen beti behar bezala baloratzen. Sufragio unibertsalez hautatutako lehenengo Parlamentuaren zilegitasuna bere agintaldiko punturik gorenera iritsi zen 1984an, Europar Batasunari buruzko Itunaren proiektuarekin (Spinelli Proiektu gisa ezaguna dena). Erronka izan zen gero eta gobernuartekoagoa zen eraikuntza europarraren prozesuan, eta integrazioaren prozesuan sakontzeko beharra indartu zuen:

«Hori izan zen, zalantzarik gabe, Europako Erkidegoko zilegitasun demokratikoaren laguntza garrantzitsua, eta baimendu zuen instituzio hori proposamen politikorako gaitasuna zuen eragilea bilakatzea. Hala erakutsi zuen 1984an, Europar Batasunari buruzko Itunaren proiektuarekin (Spinelli Proiektua). Gobernuak integrazioaren eta instituzioen inguruko erabateko kontrola zela eta, Spinelli Proiektua eskusiboki testu parlamentario bat sortzean zetzan. Gehiengo zabal batekin onetsi zen: 258 boto alde, 35 baino ez kontra eta 23 abstentzio. Erronka politikoa erabatekoa izan zen: izan ere, Europako Parlamentuak testua zuzenean berretsi nahi izan zuen nazioetako parlamentuen bidez. Estatuetakoa gobernuak 1985eko Milango Kontseiluan erreakzionatu zuten, itunen berrikuspenak Gobernu arteko Konferentzia bidez egin behar zirela xedatzen zuen artikulua aipatuz, eta berehala Europako Agiri Bakarra onartuko luken konferentzia bat deituz». (García de Enterría, 1995: 12-13)

Europako Agiri Bakarraren onespenez (1986) eta handik gutxira Maastrichteko Itunak hasiera eman zioten integrazioaren prozesuan nabarmen sakondu zuten aro bati. Esaterako, Itunen erreforma bakoitzean, Parlamentuak gero eta eskumen gehiago lortu zituen, baina aldi berean, gero eta botere handiagoa zuen EB sortzea eragin zuen. Europako gizarteko gero eta sektore gehiagok azken horri mesfidantzaz begiratzen zioten. Integrazioaren sakontzeak ez zuen halabeharrez esan nahi gobernuarteko dimentsioan atzera egin zenik, eta merezi du gogoraraztea Maastrichten lehenengo *opting out* klausula gehitu zela Itunetan. Horrek aukera ematen zion Erresuma Batuari nahi zuenean Ekonomia eta Diru Batasunera gehitzeko.

Integrazio-prozesuaren berezitasunak, Europako instituzioekiko kritiken areagotzearekin batera, eragin du autore batzuek demokraziaren eta eraginkortasunaren dikotomia (faltsua) ezartzea. Integrazio-prozesuaren berezko logikak sortu du egitura instituzional bat, integrazio negatiboa eta ikuspegi liberalizatzailea lehenesten duena,

eta integrazio positiboaren ekintzak definitzea zailtzen duena (Scharpf, 2000: 64-96). Justizia Auzitegiko jurisprudentziak sustatutako liberalizatzeko ekintzak derrigortasuneko izaera du, eta aldi berean, denbora luzean zehar, neurri zuzentzaileak hartzeko aukera ia ezinezkoa zen, Kontseiluaren barruko adostasuna eskatzen baitzen. Orain ere, gehiengo kualifikatuaren zabalkuntzarekin, prozesu konplexua izaten jarraitzen du, eta adostasun zabalak beharrezkoa izaten jarraitzen du (Scharpf, 2000: 86). Horri gehitzen badiogu Itunetan edozein aldaketa egiteko estatuaren adostasuna behar dela, horrek, bestela esanda, esan nahi du edozein estatu kide kalte egiten dion edozein aldaketari betoa jar diezaiokeela. Adibidez, eta guztiz egunerokotasuneko den gai bati erreferentzia eginez, zaila da pentsatzea Irlandak, Luxenburgok edo Herbeherek, esaterako, onartuko dutela Itunetan edozein aldaketa egitea EBk arlo fiskalean paper aktiboagoa eta erabakigarriagoa izan dezan.

Panorama are gehiago korapilatu zen integrazio-proiektuaren orientazioaren aldaketa batekin. Bastiaan Van Apeldoorn-ek azpimarratu du Europar Batasuneko barne-merkatua, eta geroago, Maastrichteko Ituna onetsi ziren garaian, «proiektu konstituzional neoliberala» delakoaren gailentasuna ikus zitekeela horren kontrako bi proiektuen aurrean: sozialdemokrata eta neomerkantilista, hurrenez hurren (Van Apeldoorn, 1998). EABaren eta Maastrichteko Itunen neoliberalismoaren hegemonia ulertzeko faktore garrantzitsua da merkatuen liberalizazioa sustatzen duten jokoaren arauak edo Ekonomia eta Diru Batasuna definitzen den modua Itunetan adierazten direla argi eta garbi, eta soilik alda daitezkeela estatu kide guztiak ados badaude. Aitzitik, kohesio-politikan gertatutako jauzi kualitatiboa (herrialde pobreeni Maastricht eta EABa onartzeko eskainitako pizgarria) nekez eztabaidatu behar da zazpi urtean behin urte anitzeko finantza-esparruan. Testuinguru mesedegarri batean, indar handiagoz negoziatzea dezakete erreforma horiei babesa ematea; izan ere, askotan, erreformari babesa ematea «erosteko» modutzat jo daiteke:

«... Estatu kideen subiranotasunaren bidez ezarritako Europako Batzordeak dituen politika publikoko tresnek eta Batzordearen eskumenen eta baliabideen murrizketak eragiten dute Batzordea eraginkorra izatea merkatuaren liberalizazioa sustatzerakoan, baina ez gizarte-politika edo enplegua Europa mailan arautzerakoan (...) Kontrara, Batzordeak gutxi aurreratu ditu Europa barneko garraioaren azpiegituren inbertsio masiboak sustatzeko ahaleginak, enplegua sortzeko bitartekoa den arren, bai eta neurri batean beharrezkoak diren finantza-baliabide handiak mugitzeko autoritaterik ez duelako ere. Kohesioa sustatzeko baliabide esanguratsuak dauden tokietan — Erkidegoko egiturazko funtsak — baliabide horiek askoz gehiago funtzionatu dute albo-ordainketa gisa estatu kide pobreenak merkatu bakarrean sartzeko, estatu kideen barruko gizabanakoen, taldeen edo eskualdeen arteko aukera ekonomikoen bantzaile zabalago gisa baino. Bestalde, Erkidegoan araudi murriztailerik ez balego, baliabide horiek urriak izango liriteke estatu kideetako agintari publikoek eskualde- edo gizarte-helburuetarako erabil ditzaketen funts handiekin alderatuta». (Smith, 1999: 128)

Europako proiektuaren kritika eta erantzunak 90eko hamarkadaren amaieran eta mende hasieran apustu bikoitza ekarri zuten: alde batetik neoliberalismoaren hegemoniaren indartzea EBko politiketan, eta bestalde, herritarren parte-hartze mugaturako irekiera, erkidegoko agendako gai nagusiak aldatzeko aukerarik ematen ez zuena (Uncetabarrenechea, 2009: 128). Europako herritarren sektore zabalen artean kritikak areagotu ziren, bereziki mendeko lehenengo hamarkadan zehar, eta oso modu argian islatu zen Europako Itun Konstituzionalaren berrespen-prozesuan zehar Frantzia eta Herbehereetan 2005ean egin ziren erreferendumen emaitza negatiboan.

5. **Europako integrazioaren gobernuarteko izaeratik poli-krisira: duela gutxiko bi krisiei (2009 eta 2020) emandako erantzun ezberdinak**

Europak 2009ko krisiari emandako erantzunak nahigabe sakona utzi zuen, izan ere, ez baitzen demokratikotzat eta eraginkortzat hartu. Hori horrela, Nazioarteko Diru Funtsa (NDF) kanpo-eragileztat hartu zen, zailtasun handiak ziztuzten euroaren periferiako herrialdeen diziplina-prozesuan aktiboki parte hartu beharko lukeena. Troika hitzak jatorriz zuen esanahia galdu zuen Europako integrazioko adituen artean; EBko Kontseiluko txandakako presidentetzarekin lotutako esanahia galdu zuen, eta oinarrizko eragileztat hartzen hasi zen krisiari erantzuna emateko orduan. Horretan Europar Batasuneko funtsezko bi erakundeek ere parte hartu zuten (Europako Batzordea eta Europako Banku Zentrala), eta gerora nazioarteko erakundea batu zitzaien (NDF). Nazioarteko Diru Funtsa ortodoxiaren bultzatzaile zurrunaren papera jokatzera deitua izan zen argi eta garbi. Nolanahi ere, NDFak 80ko eta 90eko hamarkadetan krisiari emandako erantzunak paradoxikoa dirudi, Europako Batzordea eta Europako hainbat gobernuak baino elkarriketarako joera eta malgutasun handiagoa izan zuelako. Honi gehitzen badiogu Cameron-i Brexitaren aurreko garaietan emandako kontzesioak, horrek guztiak nahigabe handia sortu zuen Europako herritarren sektore handi batean, baita Europako Parlamentuaren barruan ere, izan ere, kritika eta aurkakotasuna adierazi zituen argi eta garbi.

Europa eraikitzeko modu horrek (teknokratikoa, neoliberala eta gobernuartekoaren dimentsioaren etengabeko indartzearekin) bere muga guztiak agerian utzi zituen Brexitaren ondoren, eta gako ziren instituzioak (Europako Parlamentua, esaterako) sakoneko aldaketa baten beharra defendatzen hasi ziren 2009ko krisiaren aurrean. Europak euroaren periferiari dagokionez izan zuen jarreraren kritika geroz eta ageriago geratzen hasi zen eta Juncker, 2019ko urtarri-laren 15ean, euroaren hogeigarren urteurrenaren harira egindako Europako Parlamentuko saio bateko diskurtso batean, atsekabetuta agertu zen Greziako

krisiaren aurrean izandako elkartasun «urriagatik» eta azpimarratu zuen Grezia «iraindu genuela»².

Europako krisian berriz pentsatu behar dugu, demokraziaren oinarriko kontzeptuak aldaketa politiko sakonak bizitzen ari diren Europar Batasunaren eta mundu globalizatuaren errealitate berri eta konplexuaren testuingurura egoki daitezzen (Innerarity, 2017: 11-12). Ia ezinbestean demokrazian pentsatzeko joera dugu estatua funtsezko esparrutzat hartuta, baina, krisiak eta ziurgabetasunak markatutako testuinguru globalean, demokrazia beste gako batzuetan oinarritua birpentsatu behar dugu. Era berean, eraldaketa politikoa sustatzeko aldaketa eta ausardia izateko garaia da. Ez da nahikoa pentsatzea Europa eskala egokia dela krisiari erantzun eraginkorra emateko (post)pandemiak markatutako testuinguruan. Demokraziari buruzko eztabaida eraginkortasunaren izenean sakrifikatzeko tentazioak ez bata ez bestea ez dugun errealitate batera eramanez gaitzake.

Ongizate Estatuaren Urrezko Garaiko demokrazia subiranoen idealizatutako testuingurura itzultzea ezin da ekidin arrazoi ezberdinengatik. Puntu honetan, oztopo nagusietako bat da enpresa multinazional handiek eta inbertsio-funts ezberdinek menderatutako mundu batean bizi garela, eta horiek munduko ekonomia politikoa- ren errealitatea eraldatzen dutela beren interesen defentsaren alde (Picciotto, 2011). Horren ildotik, Habermas-ek ohartarazten du arriskutsua izan daitekeela «erregimen teknokratikoak ugaritzen ari direla oraindik ere, gobernantzaren etiketa inozoaren pean, nazioz gairik agintariek ere legitimazio demokratikoaren iturriak arrakastaz aprobetxatzen ez dituzten bitartean. Demokraziaren nazioz gairikotasuna atzeratzen ari da» (Habermas, 2015: 57).

Denboran atzera egiteak, koronabirusaren (osteko) testuinguruan maila guztietan planteatutako erronka, arrisku eta ziurgabetasunen aurrean babesleku gisa balioko duen subiranotasunaren ideian babesa bilatzeak, segurtasun-sentsazio faltsua ematen du. Horrekin guztiarekin, eta hurrengo atalean ikusiko dugunez, ez da nahikoa estatuko subiranotasunetik europarrera pausoa emate hutsarekin; horrez gain, funtsezkoa da subiranotasun europar pluralistaren ingurunea definitzea.

Europar Batasunak zein estatu kideek pandemiaren kudeaketan agerian utzitako ondorioak eta ahuleziak duela urte batzuk pentsaezinak ziren eztabaiden garapena ahalbidetu dute. Europak egungo krisiari eman dion erantzunak ez die gure itxaropenei erantzunik eman (hala nola eurobonuei dagokionez), eta guztiz desberdina izan da, urte anitzeko finantza-esparru berriaren onespenean ikusi dugun bezala (2021-2027), bai eta EB pandemiatik berreskuratzeko tresnan ere (Next Generation EU). Aurrekontu berri horrek guztiz berritzaileak diren elementuak eskaintzen ditu aurrekoekin alderatzen baditugu, eta datozen urteetan erabakigarriak izan dai-

² Discours par le Président Juncker en plénière du Parlement européen à l'occasion de la séance solennelle pour célébrer le 20e anniversaire de l'euro. Ikusgai: https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/fr/SPEECH_19_425.

tezkeen neurri positibo eta solidarioagoak hartzeko oinarri sendoagoa eskaintzen du (Crowe, 2021). Hala ere, ez dugu gutxietsi behar mundu korporatiboak epe labur, ertain eta luzean joka dezakeen papera beren interesekiko mesedegarria den nazioarteko gizartea diseinatzerakoan. Gero eta zalantza gehiago dituen testuinguru batek estatuen ahulezia nabarmendu dezake, eta aipatutako mundu-mailako talde korporatiboaren interesentzat mesedegarriagoa izan daiteke.

Azken finean, etorkizunean aurre egin beharreko funtsezko erronketako bat publikoarena den arren, EB ez da estatuaren itzulerarekin nahastu behar; izan ere, COVID (osteko) testuinguruaren erronka itzeleki erantzuteko estrategia okerra baita. Europako testuinguruan eta geopolitikaren planoan, Europako estatuak (baita handienak eta boteretsuenak ere) txikiegiak dira mundu-mailan rol garrantzitsua jokatzeko.

Hau da, krisi sakoneko testuinguru batean gaude, eta gertatzen diren eraldaketek eta berrikuntzek ez dute zertan positiboak izan demokraziari dagokionez. Ziurgabetasunak eta beldurrak markatutako egoera honek demokrazia-maila globalean termino demokratikoetan atzerakada ekarriko duten ekosistema global bat ematen digu, izan ere, segurtasun eta eraginkortasunaren izenean, horiek sakrifikatuko dituzten «konponbide» autoritarioak garatuko baitira. EBren testuinguruan, arrisku hori txikiagoa da, baina egon badago. Neurri batean, iraganari begiratzeko tentazio bikoitza dago: alde batetik, EBren bazterreko egoera alde batera uztea edo txikitzea estatuan babesteko helburuarekin eta 50eko edo 60ko hamarkadako Mendebaldeko Europara ustekabearen itzultzeko itxaropena izatea; bestalde, metodo teknokratiko zaharra partzialki berreskuratzearen alde egingo litzateke, eraginkortasunaren aldeko apustu garbia eginez, subiranotasunari eta demokraziari buruzko eztabaida gogaikarriak saihesteko. Hurrengo atalean ikusiko dugunez, ez da nahikoa subiranotasun europarrari buruzko eztabaida planteatzea soilik oinarri pragmatikoak kontuan hartuz, izan ere, aipatu berri dugun bigarren tentazio horren formulazio landuagoa eta sofistikatuagoa baita. Gure iritziz, bi jarrerak okerrak eta kaltegarriak dira. Momentu honetan, eztabaida demokratikoari heldu behar diogu eta, hurrengo atalean jorratuko dugunez, subiranotasun europar pluralistaren hausnarketa ezartzen da demokraziaren eta eraginkortasunaren arteko oreka egokia lortzeko formula gisa.

6. Erantzun demokratiko eta eraginkorra: subiranotasun europar pluralistarantz

Krisia beti izan da hausnarketa eta berrikuntza politikorako sustagarri boteretsua. Aldez aurretik ikusi dugun moduan, Europako integrazioaren hasierako oinarria izan zen estatuko subiranotasuna partekatu behar zela. Robert Schumann eta Jean Monneten proposamen frantsesaren oinarritzko ezaugarria zen hori. Zalantzarik gabe ohiz kanpoko berrikuntza izan zen. Gobernu frantsesaren proposamenak

(Schuman Adierazpena) hau da, subiranotasunak partekatzeke proposamenak, Jean Bodinek 300 urte lehenago irekitako zirkulua itxi zuen. Paradoxa gisa, 1648an erlijio-gerrekin amaitzeko sortu zen kontzeptu bera XX. mendeko gerra nazionalisten eragiletzat jotzen da 1948-1950 urteetan (Filibi, 2020: 123).

Alde batetik, Europako integrazioak baimendu zuen subiranotasun europarraren inguruan hitz egitea, hau da, Europako lurralde-estatu modernoetan sortu zen kontzeptua eskala zabalago batean aplikatzea, eraginkorragoa izan zitekeena Europako estatuak bakarrik lantzeko gai ez ziren zenbait arazo konpontzeko orduan: izan bakea bermatzea edo gero eta nazioartekoagoa zen merkatuaren funtzionamendua egoki erregulatzea. Horren haritik, «Europako Estatu Batuei» buruz hitz egiten hasi ziren zenbait autore aipa daitezke, Amerikako Estatu Batuei aipamen argia eginez. Horren adibide argia Albert Dayezen artikuluan ikus dezakegu, zeina *Le Phare Dimanche* aldizkarian 1949ko abuztuaren 7an argitaratu baitzen. Testu horrek, *A quand la «souveraineté européenne»?* (Noizko «subiranotasun europarra»?) izenekoa, adierazten zuen Europako Federazioa sortzeko aukera bakarra zela gobernuak beren subiranotasuna guztien artean partekatzea, Europa mailako subiranotasuna sortzeko (Dayez, 1949). Zalantzarik gabe, berrikuntza handia zen subiranotasunaren testuingurua aplikatzen zuelako; izan ere, ordura arte estatu-esparrura mugatuta egon baitzen Europako eskalan, baina subiranotasunari buruz zegoen ikusmoldea ez zen estatuen artean zegoenarekiko hain desberdina, eskala handiago batean aplikatzea baino ez zen kontua.

Hala ere, integrazio-prozesuak aurrera egiten zuen heinean eta estatuak geroz eta subiranotasun gehiago partekatzen zuten heinean, kezka eztabaidagai berri bat sortu zuen. Estatuetak gobernuak ez zuten erronka askori beren kabuz aurre egiteko gaitasunik, eta ulertzen zuten beren subiranotasuna partekatuz gero, tresna eraginkorragoa bihurtu zitekeela. Europako instituzioen botere gero eta handiagoak Europako herritarren zati handi baten kezka eragin zuen, bereziki Maastrichteko Itunaren onespeneraren ostean. Maastrichteko Itunarekiko Danimarkaren ezak eta Frantziako bai estuak agerian utzi zuten eta gaurkotasunean ipini zuten EBko gabezia demokratikoaren auzia gaiari buruzko literatura espezializatuan. Arazoa mende honetan larritu zen Batasuneko instituzioak beren eraginkortasuna galtzen hasi zirenean, bereziki 2009ko krisiaren ostean. Botere subiranoaren kontzepzio monistaren kritikak ez dira berriak. John Gerard Ruggie-k (1993) adierazi zuen modernitate politikoaren ezaugarrietako bat ikuspuntu bakarra dela, hau da, boterea subjektibotasun bakar baten ikuspegiarekin bat datorrelako ustea. Europako integrazioaren berezko bizipean subiranotasunaren inguruko ikuspuntu kritikoa garatzen lagundu zuen. Beraz, McCormick (1999), Bellamy eta Castiglione (1997), edo Walker (2003) autoreek, besteak beste, 90eko hamarkadan subiranotasunaren berezko oinarri epistemologiko eta kontzeptualak zalantzan jarri zituzten, bereziki Europako integrazioaren eremuan. Orobat, McCormick 1993an adierazi zuen Europar Batasun sortu berriaren estatu kideentzat Batasunaren subiranotasun eksklusiboaren aukera bezain onartezina zela estatu kideentzat subiranotasun bakarra estaturena zela onartzea. Bestalde, su-

biranotasunaren ikuspegi monistak ez ziren 90eko hamarkadako Europako integrazioaren egoera azaltzeko edo ulertzeko gai:

«Agerikoa da Mendebaldeko Europako estatuak ez direla estatu subiranoak. Horietako bat ere ez dago barruan erabiltzen den botere guztia, bai politikoki bai legala, barne-iturri hutsetatik eratorzen den egoeran. Era berean, ez da egia politikoki zein arauz egikaritzen den botere guztia Europako Erkidegoko organo batek edo gehiagok egikaritzen dutela, edo haien bitartez, edo haien emakidaren bidez». (MacCormick, 1993: 16)

Subiranotasunaren ikuspegi monista zalantzan jartzeak, 90eko hamarkadako Europako integrazioaren garapenak ikusita, hortik harago joaten lagundu zuen. Subiranotasunaren ikuspegi tradizionalak bi modutan kontzebitu zezakeen EB: edo nazioarteko erakunde gisa, edo estatu gisa, nahiz eta sorrerako lehenengo faseetan egon arren. Bi ikuspegi horiek amankomunean dute ez dutela estatutik kanpoko subiranotasuna kontzebitzen, izan ere, hori, definizioz, ez da banatzen ezta partekatzen ere (Avbelj, 2004: 349). Dagoeneko aipatutako subiranotasunaren ikuspegi tradizionalen ikuspegitik edo subiranotasunaren beraren kontzeptua alde batera utzi beharko litzatekeela uste dutenen ikuspegitik, Matej Avbeljek azpimarratzen du ikuspegi «post tradizionala» deitzen duen horrek dituen abantailak, izan ere, subiranotasun europarra ikuspegi pluralistatik birdefinitzean datza (Avbelj, 2004: 353-359). Bere kontzeptzioaren arabera, EB «estaturik gabeko federazioa izan zitekeen: batasun bat», «hogeita zazpi Estatu subiranoz osatutakoa» eta «funtzionalki subiranoa dena nazioz gaindiko mailan» (Avbelj, 2020: 301). Antzeko norabide batean, Sophie Heine-k subiranotasun europarraren eta federalismoaren arteko harremanaz hitz egin zuen, eta adierazi zuen bikote hori beharrezkoa zela agentzia politikoa berreskuratzeko, jarduteko gaitasun eraginkorra berreskuratzeko (Heine, 2015). Horregatik, adierazten du «ikuspegi euronazionalista batek banaketa artifizialak sortuko litzukeela «gu» boteretsu baten eta «haiek» debalatu baten artean, eta era horretan, mota guztietako bazterketa eta bereizketei atea irekiko litzaikeela» (Heine, 2015).

2016ko ekainaren 23an Erresuma Batuan egindako erreferendumaren emaitzak baieztatu zuen botoa eman zutenen % 52k EBtik joatea erabaki zutela. David Cameron lehen ministroak aurretik proposatutako kontzesioek ez zuten ezertarako balio izan, eta «Europa nahieran» ideia horrek, gobernuarteko joera gero eta handiagoarekin, bere muga eta gabezia guztiak erakutsi zituen. Instituzio-mailan, Europako Parlamentuak ez zuen rol aktiboa izan krisialditik ateratzeko, eta, ondorioz, Konstituzio Arazoetako Batzordean, 2016ko abenduaren 20an, dokumentu bat onartu zuen Europar Batasuneko arazoaren diagnostikoa eginez eta egin beharreko aldaketan zirriborroa eginez, itunetan aldaketak proposatuz, arazo horiek konpontzeko helburuarekin. Adierazgarria da dokumentu hori Europako Parlamentuko ebazpen gisa onetsi zela 2017ko otsailaren 16ko bilkuran, EBren etorkizuna jorratzen zuten hiru ebazpenen multzo baten barruan: nola atera Lisboako Itunari ahalik eta etekinik handiena,

zer aldaketa egin behar diren itunetan eta EBko finantzaketa-kontuak. Argi eta garbi esaten ez zen arren, esanguratsua da dokumentu horrek subiranotasun europarraren nozio inplizitua aplikatzen zuela.

IX. TAULA

**Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2017ko otsailaren 16koa,
Europar Batasunaren egungo erakunde-konfigurazioaren balizko aldaketei
eta doikuntzei buruzkoa**

(...)

B. Aintzat hartuta Batasuneko instituzioen ezintasuna, geroz eta herritar gehiagoren egungo Europar Batasunaren funtzionamenduarekiko nahigabea areagotzea eragin du; ezintasun hori Batasunak egun krisi larriei eta anitzei (polikrisiei) aurre egiteko arazoetatik, finantza-, ekonomia-, gizarte- eta migrazio-ondorioak barne, eta alderdi populisten eta mugimendu nazionalisten areagotzetik dator;

C. Kontuan hartuta estatu kideek indibidualki ezin dietela Europako erronka garrantzitsu horiei aurre egin, eta soilik Batasunaren erantzun bateratuaren bidez egin dezaketela;

(...)

6. Tamalgarria da Europako Kontseiluak erabakitzen duenean gobernu arteko metodoak aplikatzea eta Itunetan definitzen den «Batasunaren metodoa» saihestea, egoera honek geroz eta eraginkortasun gutxiagoa duten erabakiak hartzera eramaten duen prozesu bat sortzeaz ez ezik, gardentasun, erantzukizun demokratiko eta kontrol gutxiago sortzea eragiten baitu; uste du bide bereizi bat soilik uler daitekeela Batasunean erabaki eraginkorrak eta integratuak hartzeko aldi baterako neurri gisa;
7. Uste du «Batasunaren metodoa» dela legeak egiteko metodo demokratiko bakarra interes guztiak kontuan hartuko direla bermatzea arautzeko, bereziki Europako interes komuna; «Batasunaren metodoa» prozesu legegilea dela ulertzen da, eta horren bidez, Batzordeak, organo betearazle gisa dituen eskumenengatik, ekimen legegileak aurkeztea; Parlamentuak eta Kontseiluak, hurrenez hurren, herritarren eta estatu kideen ordezkari gisa, elkarrekin erabakitzea gehien-goagatik; eta Kontseiluaren aho batezko betebeharrak salbuespen absolutu bihurtzen diren bitartean, Justizia Auzitegiak azken kontrol judiziala gainbegiratzeko eta bermatzen du; «Batasunaren metodoa» presazko kasuetan ere errespetatu behar dela azpimarratzen du;
8. Uste du egoera horretan berretsi behar dela «Europako herrien arteko geroz eta harreman estuagoa» (EBTko 1. artikulua), desintegrazioko edozein joera arintzeko, eta helburu moral, politiko eta historikoa beste behin ere argitzea, bai eta Batasunaren izaera konstituzionala ere;

9. Iradokitzen du lankidetza hobetzeko eta egituratzeko baldintzak ez izatea horren murriztaileak, besteak beste, estatu kideen parte-hartzaileen gutxieneko kopurua gutxitzea;
10. Proposatzen du Tratatuaren hurrengo berrikuspenak desberdintasunen egungo desordena arrazionalizatzea, era horretan, parte hartzeko, borondatez baztertzeko eta Batasuneko lehen mailako zuzenbidean estatu kideentzat salbuespenak egiteko aukerei amaiera eman, edo, gutxienez, praktika hori nabarmen murriztuz;
11. Gomendatzen du elkarte bat definitzea eta garatzea, Batasunaren inguruko kide-zirkulu bat osatzeko Batasunean sartu ezin edo nahi ez duten arren, berarekin harreman estuak izan nahi dituzten herrialdeentzat; uste du harreman horren bidez eskubideekin batera dagozkien betebeharrak bete behar direla, hala nola finantza-ekarpena eta, are garrantzitsuagoa dena, Batasunaren eta Zuzenbide Estatuaren funtsezko balioak errespetatzea;
12. Uste du esparru instituzional bakarra mantendu behar dela Batasunaren helburu komunak lortzeko eta herritar eta estatu kide guztien berdintasun-printzipioa bermatzeko.

2017ko irailaren 26an, Emmanuel Macron Frantziako presidentek hitzaldi garrantzitsua irakurri zuen Sorbonne Unibertsitatean (Paris), «Europaren aldeko ekimena³» izenekoak. Bertan, esplizituki aldarrikatu zuen subiranotasun europarra, eta Frantziako subiranotasunarekin bateragarria zela adierazi zuen. Ia urtebete beranduago, 2018ko irailaren 12an Jean-Claude Juncker Europako Batzordeko presidentek Europar Batasunaren egoerari buruzko eztabaidan, «Subiranotasun europarraren garaia» izena ipini zion bere hitzaldiari⁴.

X. TAULA

Subiranotasun europarraren garaia

(...) Geopolitikak adierazten digu **subiranotasun europarraren garaia iritsi dela zalantzarik gabe**. Europak bere patuaren agintea hartzeko garaia. Europak «Weltpolitikfähigkeit» delakoa garatzeko garaia, hau da, Batasun gisa, munduko gaietan zeregin erabakigarria betetzeko gaitasuna indartu egin behar du nazioarteko harremanetan solaskide subirano gisa.

Subiranotasun europarrak gure estatu kideen nazioko subiranotasunean du jatorria. Ez ditu nazioen berezkoak alderdiak ordezkatzeko. Gure subiranotasuna partekatzeak, hala behar denean, gure estatu-nazioak indartzen ditu.

³ Ikusgai: <https://www.diplomatie.gouv.fr/en/french-foreign-polic-y/europe/president-macron-s-initiative-for-europe-a-sovereign-united-democratic-europe/>.

⁴ Ikusgai: https://ec.europa.eu/info/sites/default/files/soteu2018-speech_es_0.pdf.

«Elkarrekin indartsuagoak» garelako uste hori Europar Batasunaren parte izatea esan nahi duen funtsa da. Subiranotasun europarra ez da besteen alde erabiliko. Europak kontinente irekia eta tolerantia izaten jarraitu behar du. Eta hala izango da.

Europa ez da munduari bizkarra emango dion gotorleku bat, eta are gutxiago sufritzen duen munduaren parte horri. Europa ez da inoiz uharte izango. Europak multilateral izaten jarraitu behar du, eta hala izango da. Planeta guztiona da, eta ez gutxi batzuen.

Hori ere 2019ko maiatzean egingo diren Europako Parlamentuko hauteskundeetan erronka izango da. Europako hauteskundeetarako falta diren 250 egunetan zehar, gure herritarrei frogatuko diegu Batasuna, guztion ahaleginarekin, emaitzak lortzeko gai dela eta momentuko agintaldian bere gain hartutako konpromisoak betetzen dituela.

Hemendik aurrera eta Europako hauteskundeetarako, **Europa desberdintasun guztiei aurre egiteko gai dela erakutsi behar dugu: iparraldetik hegoaldera, ekialdetik mendebaldera, ezkerretik eskuinera.** Europa txikiegia da banatzeko, izan bitan edo lautan. **Erakutsi behar dugu elkarrekin Europa subiranoagoaren hazia zabal dezakegula**

(...)

Buruan izan behar dugu XXI. mendeko patriotismoak bi aurpegi dituela: nazionala eta europarra eta bata ez duela bestea baztertzen.

Blaise Pascal filosofo frantsesak esaten zuen eskutik zihoazen gauzak gustuko zituela. **Egonkor mantentzeko, nazioek eta Europar Batasunak parez pare ibili behar dute.** Europa maite duen orok hura osatzen dituen nazioak maite behar ditu; bere nazioa maite duen orok Europa maite behar du. Patriotismoa bertutea da. Nazionalismo traketsa gezur penagarria eta pozoi zitala da».

(Juncker, Jean-Claude, «2018ko Batasunaren egoerari buruzko hitzaldia: subiranotasun europarraren garaia»; 6. eta 13. orriak)

Momentu hartatik aurrera, kontzeptua gehiago agertzen hasi da literatura akademikoan, *paper*, hitzaldi eta artikulua askotan. Adibide gisa, bi *paper* esanguratsu aipa daitezke: alde batetik, Mark Leonard-ek eta Jeremy Shapiro-k 2019ko ekainean.

Strategic sovereignty: How Europe can regain the capacity to act (Subiranotasuna estrategikoa: Europak nola berreskura dezakeen jarduteko gaitasuna) izeneko artikulua argitaratu zuten. Artikuluan, Sophie Heinek duela urte batzuk azaltzen zuenarekin bat, kontzeptua tresnarik onena dela esaten da Europar Batasunak nazioarteko testuinguru aldakor eta gero eta etsaitasun handiagokoan jarduteko duen benetako

gaitasuna errazteko. Kasu honetan, *subiranotasun estrategikoa* izan zen erabilitako kontzeptua (Leonard eta Shapiro, 2019). Europako estatuek COVID-19aren egoeran izandako erantzun baldarraren aurrean, beste *paper* batek Europako eskalan aplikatutako subiranotasun kontzeptuaren arrakasta eta garapena erakusten du, bai eta «osasunaren subiranotasunaren» garrantzia ere (Hackenbroich, Shapiro eta Varma, 2020).

Horrenbeste adibideren ondorioz, subiranotasun europarraren kontzeptua erabiltzen jarraituko dela dirudi. Kasu guztietan subiranotasun-gaitasuna Europako eskalan aldarrikatzen da, nahiz eta inork ukatzen ez duen estatuek subirano izaten jarraituko dutela (Heller, 2019). Kontzeptu hori defendatzen dutenen lotura komuna da botere publikoek testuinguru konplexu batean ekite-ahalmena berreskuratzeko gaitasuna, krisi handiak eta aldaketa geopolitiko sakonak gorabehera. Aurreko atalean adierazitakoarekin bat, COVID-19aren pandemiak eragindako krisiari emandako egungo erantzuna 2009an emandakoarekiko oso bestelakoa da, eta geroz eta gehiago onartzen da Europa dela ekintza-eskala egokiena zalantzak markatutako etorkizuneko erronkei aurre egiteko.

Europar Batasuna berriz ere aldaketa-momentu bat bizitzen ari da, eta oraindik ez dago argi zein izango den horren garrantzia. Horregatik, duela gutxi Europako etorkizunari buruzko biltzar bat argitaratu zen urtebeteko atzerapenarekin. Horren hasiera 2020ko maiatzean aurreikusita zegoen, baina pandemiaren ondorioz, ezin izan zen hurrengo urtera arte martxan jarri. 2021eko martxoaren 10ean, Europako Etorkizunari buruzko Konferentziari dagokion Adierazpen Bateratua sinatu zuten David Sassoli-k (Europako Parlamentuko presidentea), António Costa Portugalgo lehen ministroak (Kontseiluko Zuzendaritzaren izenean) eta Ursula von der Leyen Batasuneko presidentea. Bertan adierazten da «herritarrengan oinarritutako goranzko iritzi-ariketa dela, eta europarrek Europar Batasunetik espero dutena adierazteko aukera izango dutela». Hala ere, sentsazioak ez dira hasiera batean ziruditen bezain positiboak, eta Europako instituzioen eta gobernuen arteko tirabirek prozesu demokratikoaren emaitza arriskuan jartzen dute, nahiz eta hasiera batean Batasuneko instituzioen, herritarren eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketa gisa aurkeztu zen (Aldecoa, 2021).

Laburbilduz, subiranotasun europarrak estatuetako subiranotasunaren eskasia historikoei aurreko egiteko gaitasuna du, betiere estatuko subiranotasun monistaren eredu zaharra eskala geografiko eta politiko europarrera eramaten ez bada. Horretarako, subiranotasunaren ikuspegi pluralista garatzeko nahia sortu beharko litzateke, eta horrek ez du esan nahi Batasunari jarduteko gaitasun handiagoa emateko estrategia diskurtsibo hutsa denik aldi berean termino demokratikoetan funtsezko aurrerapen bati heldu gabe. Subiranotasun europarrak, maila kontzeptualean, nabarmen irekitzen du Europako demokrazia aberasteko aukera, baina hori soilik posible izango da gai hau agendaren parte bihurtzen bada eta hasiera-hasieratik serio hartzen bada.

Sakontzeko

Aldecoa, F. (Zuz.) (2021). *La Conferencia sobre el Futuro de Europa en Marcha. Una visión desde el Consejo Federal Español del Movimiento Europeo*. Los Libros de la Catarata.

Arias Maldonado, M. (2020). *Nostalgia del soberano*, Los Libros de la Catarata.

Filibi, I. (2008). *Europar integrazioa eta supranazionalitatea* Auñamendi Enziklopedia.

Filibi, I. (2019). Federalismo y regionalismo en Europa: ¿hacia qué camino político camina la UE?. *Cuadernos Europeos de Deusto*, 60 125-156.

Herrien Nazioarteko Biltzarra (HNB): herri-mugimenduak koordinatzeko nazioarteko proposamena

Leire Azkargorta, Unai Vázquez
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena. Mundu-sistema kapitalistan bizi gara; zehatzago esanda, duela bost mende Europa mundu osora hedatzen hasi zen mundu-sistemaren ondoriozko sisteman, globalizazio neoliberallean. Sistema horren arauen arabera, zentroa, periferia eta semiperiferia existitzen dira, modu integratuan funtzionatzen dutenak, eta elkarrekiko menpekotasunarekin; beraz, planetan zenbait eskualdek azpigarapen iraunkorra bizi dute, beste batzuek etekin, pribilegio eta kapital-metaketa handiagoak izan ditzaten.

Bestalde, eskualde horietako bakoitzean klase agintariak beren nahia inposatzen diete menpeko klaseei, eta klase-borrokak forma ugari hartzen ditu, lekuan lekuko errealitatearen arabera. Testuinguru horretan, errealitate horri erantzun nahi izaten dioten eragile gehienek, eta horien artean gizarte- eta herri-mugimenduek, Nazio-estatu ikuspegian zentratu ohi dituzte beren borrokak, eta ohikoa izaten da haien plangintzetan nazioarteko ikuspegi estrategikoa urria izatea.

Edonola ere, azken hamarkadetan ikusten ari gara gero eta herritar eta eragile gehiago hasi dela nazioarteko bizitza politikoan Parte-hartzen. Nazioarteko Foro Ekonomikoen aurrean edota zenbait estaturen arteko gailurretan, finkatzen hasiak dira herritarrek antolatutako gailur paraleloak, eta herri- eta gizarte-mugimenduen nazioarteko egiturek badute dagoeneko 20 urte baino gehiagoko historia. Munduko Foro Soziala, Emakumeen Mundu Martxa edota *La Via Campesina* mugimenduak erreferente esanguratsuak dira zentzu horretan.

Kapitalismoaren etengabeko krisia bizi dugun garaiotan, munduko biztanleen gehiengoak egunetik egunera txiroago bihurtzen delarik, demokrazia liberala zilegitasuna galtzen ari da maila globalean. Horren aurrean, demokraziaren norabidea birbideratzeko beharra azaleratzen da, gizarte-justizia edo berdintasuna bermatzea ipar.

Hari horri tiraka, lan honetan Herrien Nazioarteko Biltzarraren (HNB edo *International Peoples' Assembly*, IPA) kasua aztertuko dugu, kontinente guztietako indar aurrerakoi eta iraultzaileak artikulatzeko proposamen herritar berria. Ikusiko dugunez, HNB hainbat hel-

bururi erantzuteko jaio zen, hala nola subiranotasun herritarra lortzea, borroka antiimperialista eta antikolonialaren bidez; emakumeen eskubideak bermatzea, borroka feministaren bidez; demokrazia herritarra gauzatzea, estatu burgesa salatuz; baliabide naturalak defendatzea, enpresa kapitalistek horiek bereganatzearen aurka eginez; finantza-kapitala, paradisu fiskalak eta enpresa transnazionalak deuseztatzea; lan-eskubide duinen eta giza eskubideen alde egitea; eta abar.

Helburuok betetzeko, HNBk planteatzen du mugimendu eta alderdien arteko aliantzaz eta elkarlanaz harago, beharrezkoa dela masa-borrokak artikulatzea ahalik eta herrialde gehienetan, eta masa-borroka horiek indartu ahal izateko, ideien borrokan arreta berezia jarri beharra dagoela. Azken batean, aldarrikapenak maila globalean bateratzeak, herritarren ahotsa goratzeak eta herrien subiranotasunaren aldeko borroka nazioartera eramateak posible egin dezakete nazioarteko harremanak pixkanaka demokratizatzea.

1. **Eragile berriak nazioarteko sisteman**

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek, hein batean, komunikatzeko botere handiagoa ekarri diete norbanakoei eta gizarte zibilari. Testuinguru horretan, gero eta eragile gehiagok jartzen dute zalantzan *statu quo* kapitalista neoliberalak, estatuak nolabaiteko zentraltasuna galtzen ari dira nazioarteko sisteman eta demokrazia burgesa zilegitasun krisi sakona jasaten ari da.

Beraz, nazioarteko harremanen ikuspegi berri baten aurrean gaude: Herri Mugimendu Transnazionalak (HMT) eta Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE) nazioarteko sisteman eragile berri gisa agertzen dira, Estatu ez diren eragile garrantzitsu gisa. Era berean, nazioarteko antolaketa modu berriak sortzearen lekuko gara, eta ikusten ari gara horietariko asko ez datozela guztiz bat kapitala metatzeko edo nazioarteko egiturak legitimizatzeko logikarekin.

Mundu-sistema kapitalista eta globalizatuan demokrazia da galtzaile nagusietako bat; hori kontuan izanik, nazioartean praktika demokratikoan sakontzeko moduak bilatuko ditugu, eta ikusiko dugu Herri Mugimendu Transnazionalak tresna eraginkorra izan daitezkeela bide horretan. Ildo horretatik, ikuspegi deskribatzailea eskainiko dugu, ikerketa militantetik planteatuta, eta HMTen adibide bat aurkeztuko dugu proposamen zehatz gisa: Herrien Nazioarteko Biltzarra (HNB).

Latinoamerikako eta, oro har, Hegoalde Globaleko herri-mugimendu garrantzitsuetatik datorren ekimena da HNB, eta mundu osoko ezkerren eremu zabal bat artikulatzen du maila globalean, askotariko herri- eta gizarte-mugimendu, sindikatu eta alderdi politikoen artean. Sortu zenetik, nazioarteko esparru politikoan herritarrek parte-hartzeko moduak bultzatu nahi izan ditu, nazioarteko elkartasun-kanpainen bidez edota diskurtsoak eta borrokak bateratzen lagunduko duten tresnak sortuz.

Tresna horien artean ditugu, batetik, mobilizazio bateratuak egiteko proposamenak eta, bestetik, ideien borroka aurrera eramateko ekimenak, hala nola forma-

kuntza politikoa ematen duten herri-eskolak, komunikabide alternatiboak eta ikerketa sozialerako institutu bat, mundu osoko mugimendu herritar eta askatzaileen zerbitzura dagoena. Proposamen horien guztien helburua da, gure ustez, herritarren parte-hartzea kontrabotereko borroka lokaletatik eta partikularretatik artikulatzea eta, horretarako, indar koordinatu eta kontrahegemonikoa sortzeko ahalegina egitea, Gramsciren terminoetan, betiere sistema kapitalista legitimatzen duten diskurtso eta ideologiak ahultzeko eta aldi berean herrien askapenerako prozesuak bultzatzeko.

Ezin da ahaztu zerbait erori ahal izan dadin beste zerbaitek bultzatu behar duela. Horretarako boterea behar da, edo kasu honetan kontraboterea, eta horretarako ezinbestekoa da hegemonia berria sortzea. Horretan, funtsezko zeregina dute gizakiak berak, pentsamendu kritikoak eta pentsamendu hori gizarte zibilaren antolakuntzara bideratzeak. Marxek eta Engelsek (1973) ere nabarmendu zuten gizarte zibila dela historiaren benetako etxe eta agertokia, eta zein zentzugabea den aurretiko ikuskera historikoa; izan ere, harreman errealei kasurik egin gabe, ikuskera horrek Estatuaren ekintzei baino ez die begiratzen, bere muga guztiekin.

Bestalde, lan honetan erabiliko dugun terminologiaren aldetik, *herri-mugimendu* terminoa lehenetsiko dugu *gizarte-mugimendu* terminoaren aurretik, ulertzen baitugu gizarte-mugimenduek sektorekako problematikei erantzuten dietela, hots, borroka sektorial edo puntualak lantzen dituztela (Gil de San Vicente, 2008). Guk, kontrara, ikuspegi integral, estrategiko eta iraunkorra duten mugimenduak aztertuko ditugu batez ere, «unean uneko muga estuak gainditzen dituztenak» (*ibidem*), hots, herri-mugimenduak. Hori dela eta, *Herri Mugimendu Transnazional* edo HMT terminoa erabiliko dugu, ohikoagoa den *Gizarte Mugimendu Transnazional* edo GMT terminoa baino.

Aztertuko ditugunak, gainera, transnazionalak izango dira, hots, «nazioz gaitzak, herrialde edo unitate nazionalak, hau da, giza-taldeak, konektatzean espazio sozial bat osatzen duten horiek. Eremita sozial hori, normalean *transnazional* esaten zaiona, lekuan lekuko, eskualdeetako eta herrialde desberdinetako gizarte-mugimenduen arteko lotura sinboliko eta sozialek osatzen dute» (Bohórquez, 2011).

Izan ere, herri-mugimenduak sortzea eragin zuten egiturazko prozesuak mundu-mailakoak izan dira hasieratik, baina antolakuntza-erantzunak, duela gutxi arte, estatuen mailara mugatu dira (Arrighi, 1999). Hala, gutxi gorabehera duela hiru hamarkada hasi ziren Herri Mugimendu Transnazionalak egituratzen, batez ere globalizazioaren aurkakoak, arazo globalei erantzun globalak eman ahal izateko.

Lan hau termino horietan planteatzeko arrazoia, batez ere, zera da: termino horietako batzuk ez direla oso ugariak akademian. Ikusten dugu, halaber, marxismoak hasiera-hasieratik landu dituela herri-mugimenduak ikuspegi globaletik, nahiz eta ez dituen Herri Mugimendu Transnazionalak kontzeptu gisa garatu.

Autore ugari bat datoz esatean beharrezkoa dela, mundu-sistema kapitalista eta globalizatuan, herri-mugimendu iraultzaileek bat egitea nazioarteko sistemaren egiturak errotik aldatzeko, baina kostatu egiten zaie proposamen horren praktika zehatzak aurkitzea. Guk hutsune horretatik egin nahi dugu ekarpena, iruditzen baitzaigu

Herrien Nazioarteko Biltzarra dela azken urteotan norabide horretan egin den proposamenik esanguratsuenak.

Gauzak horrela, lan honen helburua izango da internazionalismo herritarraren beharra azpimarratzea, eta aldarrikatzea elkertasunean oinarritutako nazioarteko harremanak sortu eta elikatu beharra dagoela, leku bakoitzeko askapen prozesuari babesa emango diotenak. Izan ere, ulertzen dugu mundu-sistema kapitalistari soilik tokian toki edo maila nazionalean erantzuteak ibilbide laburra izan dezakeela.

Hala, ziur gaude nazioarte mailan artikulatutako herri-mugimenduek laguntzen dutela sakontasun demokratikorako agertokia eraikitzeke baldintzak sortzen, edota demokrazia burgesari kontrajarritako demokrazia sortzen laguntzen dutela, *demokrazia erreala* edo *egiazko demokrazia* dei genezakeena, hain zuzen.

Beraz, besteak beste, honako hauei jarriko diegu arreta: gizarte zibilak historia-ren norabidea aldatzeko izan dezakeen zereginari; parte-hartzeko politikak, askatasunek edota interes publikoak nazioarteko sisteman har dezaketek tokiari; eta gizarte zibilak eguneroko bizitzaz kontzientzia hartzeko dituen aukerei, horri buruzko erabaki integralak hartu ahal izateko.

Azken finean, saiatuko gara ikuspegi bat ematen oinarriko lana nazioartean antolatzeak duen garrantziari buruz, eta Herri Mugimendu Transnasionalek (hala nola Herrien Nazioarteko Biltzarrek) herritarrek nazioarteko eremu politikoan parte-hartzeko espazioak eskaintzeko duten aukerari buruz, betiere kontraboteretik eta hege- monia berria sortzeko asmoz.

2. Demokrazia Mundu-Sisteman

Ohikoa da demokrazia nazio-estatuaren terminoetan pentsatzea, herrialde jakin bateko gobernuaren lana balitz bezala estatu horretako erakunde «demokratikoak» egoki erabiltzea herrialde horretako demokraziarako baldintza egokiak bermatzeko. Ikuspegi estatuzentrikotik, Estatuan zehazten dira biztanleen bizitza baldintzatzen duten funtsezko alderdiak.

Halaber, Nazioarteko Harremanen jakintzagaiaren ikuspegitik, Estatuari egokitu izan zaio mendez mendez nazioarteko harremanetan subjektu nagusia izatea; Estatua izan da bere lurraldean bizi den gizartearen nazioarteko ordezkaria eta geopolitikan eragile nagusia.

Hala ere, ondo ezarritako globalizazio neoliberallean bizi garela ulertzen badugu, gero eta interkonektatuago dagoen mundu batean, non estatuak elkarrekiko duten menpekotasuna inoiz baino nabariagoa baita, ikusten dugu Estatuaren subiranotasuna zulatzeak eragin duela Estatuaren boterea haren mugak gaingiditzen dituzten instantzia pribatueta pasatzea, hala nola finantza-merkatua, enpresa transnasionale-tara edota konpainia handietara. Hartara, ikusten ari gara gobernu teknokratak gero eta ohikoagoak direla eta, hauteskunde bidez bideratutako eskaera demokratikoei

erantzun ordez, estatu-legeriak aldatzen ari direla, kapital pribatuaren interesak defendatzeko.

Hori guztia nazioarteko sistema integratu batean gertatzen da, *mundu-sistema* esan dezakegun horretan, Immanuel Wallerstein soziologoaren terminoa erabiliz gero (2005). Izan ere, XV. mendeaz geroztik planeta osora zabaltzen hasi zen mundu-sistema europarraren oinordekoa da gaur egun indarrean dagoen mundu-sistema globala, hain zuzen, eta horixe da pasa den mendeko 90eko hamarkadatik aurrera mundu osoan behin betiko finkatutako globalizazio kapitalista neoliberalaren oinarria (Moghadam, 2019b).

Mundu-sistema kapitalista horren arauen arabera, zentroa, periferia eta semi-periferia existitzen dira, modu integratuan funtzionatzen dutenak, eta elkarrekiko menpekotasunarekin; beraz, planetan zenbait eskualdek azpigarapen iraunkorra bizi dute, beste batzuek etekin, pribilegio eta kapital-metaketa handiagoak izan dituzaten.

Globalizazio neoliberallean, munduak modu integratuan funtzionatzen du, estatu guztiek dute beren rola estatuarteko sisteman, elkarrekiko menpekotasun handia dago eta Mendebaldeko estatuek edo potentzia garrantzitsuek ezartzen dituzten politika ekonomiko neoliberalak dira nagusi (askotan esplizituki Nazioarteko Diru Funtsak, Munduko Bankuak eta munduaren Mendebaldean edo Iparraldean sortutako bestelako erakunde batzuek ezarriak).

Historian zehar, herrialde indartsuenek (erdigunekoek) hainbat akordio politiko sortu dituzte estatu ahulenen (periferiakoen) ustiatze ekonomikoa errazteko, eta modu horretara bertako baliabideak erazteko, lanaren nazioarteko banaketa egiteko eta merkataritza beren arauen arabera antolatzeke. Hala, erdiguneko herrialdeak hierarkiaren goiko aldean mantentzen dira eta periferiako baliabideak ustiatzean irabaziak lortzen dituzte. Bestalde, prozesu ekonomikoak eta politikoak ez dira inoiz bereizten, eta ustiatze ekonomiko global eta neokoloniala indartzeko baliabide gisa erabiltzen da kapital politikoa (Balaev, 2012). Horrela lortzen dute erdiguneko eragileek egiturazko desberdinkeria ezartzea eta mantentzea mundu-sisteman.

Egoera horrek herrialdeen arteko dependentzia harreman sakonak eragiten ditu, eta galarazi egiten du semiperiferian eta periferian kokatuta dauden herrialdeek erabateko garapen ekonomikoa burutu ahal izatea, beren biztanleei bizitza-kalitate hobea eskaini ahal izateko. Ramón Grosfoguel autore puertorricarrak azaltzen duenez, ez dago modurik herrialde bakarrak garapen ekonomikoa bere kabuz lortzen duela irudikatzeke. Izan ere, haren barne-mailako politikek baino garrantzia handiagoa du mundu-sisteman herrialde horrek duen posizioak, edota haren dependentzia edo menpekotasun mailak (Grosfoguel, 2003).

Testuinguru horretan, demokrazia burgesak (komunikabide hegemonikoen eta beste tresna ideologiko batzuen bidez) ideia hau transmititzen jarraitzen du: hauteskundeak direla demokrazia bermatzeko tresna nagusia; eta hauteskundeetatik kanpo funtzionatzen duten zapalkuntza sistematikoak ezkututzen ditu (pobrezia, inperialismoa, patriarkatua edota arrazakeria, esaterako).

Jakina, historian zehar protesta eta proposamen ugari sortu dira hainbat zapalkuntza motari aurre egiteko, nahiz eta «mundu-ekonomia kapitalistako periferiako nazio askapenerako mugimenduek eta erdiguneko mugimendu sozialdemokratek ere ezin izango zuten egin dutena baino aldaketa handiagorik egin, estatuarteko sistemaren *barruan* boterea ziurtatzeko eta erabiltzeko kezka historikoa izan baitute» (Arrighi, 1999).

Benetako sakontze demokratikoa edo, hobeto esanda, demokrazia erreala, zuzena eta herritarra eraikitzea bilatzen bada (demokrazia burgesaren guztiz kontrakoa), ezinbestekoa da nagusi den sistema kapitalista bukatzea, gutxiengo baten (neurrigabeko kapital-proporzioak metatzen dituen) interesa gainjartzen ez duen gizartea eraiki ahal izateko; jendarteak bizitza duina izateko duen eskubide orokorra bermatzeko; jendarteak bere bizitzaren alderdi guztien gainean erabakitzeke duen eskubidea bermatzeko.

Dena den, ezinbestekoa da gure buruari galdetzea nola eraiki daitekeen demokrazia erreal hori, botere- eta erabaki-espazioek estatuen mugak gainditzen ote dituzten eta gaur egun gizarte zibilak ez ote duen horietan eragiteko gaitasunik. Galdera horien aurrean, bistan da ezen, mundu-sistema kapitalistaren oinarriak egiaz eraldatu nahi badira, erantzun eta proposamen guztiak modu multilateralean planteatu behar direla, proposamenok Hegoalde Globalean oinarri sendoa izan behar dutela eta, zalantzarik gabe, klase-borroka izan behar dela giltzarri (genero, arraza, jatorri, erlijio, sexu-orientazio eta ama-lurraren zapalkuntzen aurkako borrokekin batera).

Izan ere, herri-mugimendu modernoak nazio-estatua sortzearekin batera garatu ziren eta, urteetan, nazio-estatua izan da haien protesten jomuga nagusia (Della Porta eta Tarrow, 2005), baina globalizazio neoliberalaren hazkundeak jendearen bizitzan duen eragin zuzena kontuan hartuta, inoiz baino beharrezkoagoa da herri-mugimenduek nazioarteko ikuspegia eta izaera hartzea, egoerari erantzun egokia eman ahal izateko. Hala, «ekonomia globalizatzearen eraginak arrazoï unibertsalak dira eragile ez-estatalak mobilizatzeko» (García Segura, 1993).

Ildo horretan, uste dugu gizarte zibilak nazioarteko errealitatean eragiteko eskura duen tresna interesgarria direla Herri Mugimendu Transnazionalak. Sidney Tarrow ikertzaile estatubatuarrek bi HMT mota bereizten ditu argi eta garbi, horien praktika eta helburuen arabera. Alde batetik, HMT *insiderrak* identifikatzen ditu, sistemaren *barruan* jarduten duten mugimenduak, eta *lobby* gisa edo nazioarteko eliteekin lankidetzan aritzen direnak, kooptatuak izan arte. Beste alde batetik, HMT *outsiderrak* (*kanpotik* jarduten dutenak) nazioarteko erakundeen politikei aurre egin ohi diete, eta erakunde horiek existitzea bera ere zalantzan jar dezakete (Tarrow, 2005).

Tokiko eta nazioarteko burgesien interesen mende ez dagoen demokrazia, demokrazia erreala, eraikitzeaz hitz egitea interesatzen zaigunez, lan honetan HMT *outsiderrak* jarriko dugu arreta, egungo *statu quo*a ezbaian jarri eta indarrean dagoen ordena iraultzeko duten gaitasuna behatzeko. Gainera, Herri Mugimendu Transnazionalak nazioarteko sisteman aritzen diren eragile gisa ikusiko ditugu, balia bideak mobilizatzeko, beste eragile batzuen dinamikan eragiteko eta egiturazko aldaketak

gertatzeko baldintzak sortzeko gaitasuna duten eragile gisa, zeinek maila lokala maila globalarekin lotzen baitute.

Demokrazia burgesa eta ordezkariartzako demokrazia-sistema legitimitate-krisi sakona jasaten ari dira eta, beraz, une egokia da herritarrek nazioarteko politikan parte-hartzeko moduak bilatzeko, emantzipaziorako eta demokrazia sortzeko prozesu herritarrek maila globalean artikulatzeko. Izan ere, «justizia globalak justizia egin nahi zaien pertsonen parte-hartze demokratikoa eskatzen du, pertsona guztien askatasun bera errespetatu nahi badugu» (Gould, 2014).

Herri mugimendu transnazionalak statu quoaren aurka

HMTek zenbait baliabide erabili ohi dituzte nazioarteko sisteman parte-hartzeko, hala nola «gailur paraleloak, mundu mailako eta eskualdeetako kongresuak, mobilizazioak, etab.» (Echart, 2008), baina asko dira haien helburuak planteatzean agertzen diren erronkak, ulertzen baldin badugu eraldaketak esan nahi duela egiazko demokrazia sortzea, jendarteak bizitzako arlo guztietan erabakitzeke duen eskubidea gauzatzea, kapitalaren metaketa mugagabea eta egiturazko desberdinkeria deuseztatzea, zapalkuntza oro (genero, arraza, erlijio, jatorri eta abarren arabera) gainditzea, edota justizia, berdintasuna eta askatasuna moduko kontzeptu abstraktuak egikaritzea.

Bestalde, kontuan hartu beharrekoa da zer nolako erronka suposatzen duen estatuek hainbesteko nagusitasuna izateak nazioarteko sisteman. Gauza jakina da mugimendu eraldatzaile askok Estatuaren boterea eskuratu dutenean horren administrazioa eta baliabideak kudeatzen amaitu dutela, sarritan kapitalismoaren oinarriak zalantzan jarri gabe edo Estatuak mundu-sisteman duen posizioa aldatzeko beste estatu batzuekin aliantza estrategikorik egin gabe. Mugimendu *outsiderrek*, ustez, mundu-sistema kapitalistaren logika mehatxatzen dute, baina zailtasun handiak izaten dituzte alternatiba errealek eraikitzeke.

Horrez gain, askotan sistemak barneratzen dituen hainbat zapalkuntza mota (adibidez, genero zapalkuntza) HMTen baitan ere islatzen da. Besteak beste, «hipermaskulinitasuna funtsezko oinarri ideologikoa da, bai globalizazio kapitalista neoliberalarena, bai “erresistentzia” mota batzuen» (Moghadam, 2012). HMTek, beraz, kanpo- zein barne-mailako erronka eta mugei egin behar diete aurre beren helburuak betetzeko, eta horretarako eskuragarri dituzten tresnez baliatu behar dira *statu quoari* beraren osotasunean aurre egin ahal izateke.

Tresna horien artean, garrantzia berezia eman nahi diogu hegemonia kulturala lortzeko borrokari, hots, ideien borrokari, eta HMTek borroka horretan izan dezaketan rolarri. Antonio Gramsciren lanari jarraikiz, Robert Coxek Nazioarteko Harremanetako teoria berri bat landu zuen, teoria neogramsciarra, hain zuzen. Gramsciren arabera, klase menderatzaileak menderatuen adostasunaz baliatzen dira (indar fisikoaz baino gehiago) gizartearen ordena jakin bat mantentzeko eta zapalduke ere

zapaltzaileen interesak defendatzeko (hainbat mekanismoren bidez, hala nola kulturaren bidez).

Teoria neogramsciarrak azaltzen digu, halaber, posible dela hegemonia kultural eta ideologiko berria sortzea, menderatutako klaseek menderatzaileen nagusitasuna onartzeari uzteko bezain indartsua, eta, hartara, gaur egun indarrean dauden botere-harremanak aldatzeko bezain indartsua. Hau da, teoria horrek azaltzen du posible dela zapalduak bloke historiko berria osatzea, ideien borrokaren bidez kontrahegemonia berria planteatuko duena eta ondoren, indar korrelazioaren arabera, kontrahegemonia hori hegemonia kultural berri bihurtuko duena (Cox, 1981).

Zailtasunak zailtasun, Herri Mugimendu Transnasionalek badute, hortaz, ideien borroka horretan eragiteko aukera eta gaitasuna; batzuen arabera, «mugimenduak gero eta erabakigarriagoak bihurtu dira mundu-sistemaren politikan, eta dagoeneko beren arrakastak lortu dituzte» (Arrighi, 1999).

3. **Herrien Nazioarteko Biltzarra (HNB)**

Atal honetan, sarreran adierazi dugunez, Herrien Nazioarteko Biltzarra (HNB) aztertuko dugu, bost kontinenteetako herri- eta gizarte-mugimendu, alderdi politiko eta sindikatu aurrerakoiak eta ezkertiarak nazioartean artikulatzeko proposamena.

Nondik datorren ulertzeko, joan den mendeko 90eko hamarkadan jarri behar dugu arreta. Izan ere, hamarkada horretan, gizarte-eferbeszentzia garrantzitsua ekarri zuten zenbait faktore metatu ziren.

Sobietar Batasuna erori eta gero, mundu mailako goraldi neoliberalak erantzun sozial sendoa ekarri zuen munduko hainbat txokotan, eta garai historiko horretan bertan sortu ziren gaur egun erreferente diren zenbait Herri Mugimendu Transnazional eta Foro; besteak beste, *La Via Campesina*, Emakumeen Mundu Martxa eta Munduko Foro Soziala. MFS «neoliberalismoari aurre egiteko eremu politikoa izan zen, eta sektore sindikal, herri-mugimenduko antolakunde, intelektual, ikasle, artista, erlijioso, GKE eta alderdi politiko ugari parte hartu zuten» (HNBren Nazioarteko Idazkaritza Operatiboa, 2019).

MFSk Belem-en (Brasil) 2009an egin zuen topaketaren barnean, herri-mugimenduko antolakunde biltzar bat antolatzeko inizatiba egon zen, ordurako zenbait sektore nabaritzen hasiak baitziren MFS nolabait norabidea galtzen hasi zela, neurri batean GKEak prozesu osoa kontrolatzen eta definizio politiko handiagoa izatea saihesten hasi zirelako eta definizio politiko handiagoa izatea. MFSren barnean herri-mugimenduko antolakundeak sendotzeko inizatiba hori «Belem-go gutunean» islatu zen, eta, horren ondorioz, Latinoamerika mailan herri-mugimenduen artikulazio kontinental sortzen hasi zen, gaur egun *ALBA Movimientos* deritzona.

Artikulazio hori sortzeko beharra identifikatu zen, batez ere, honako analisi hau partekatu zutelako: Latinoamerikako azken hauteskunde-garaipenak ez zirela nahikoa egiturazko erreformak lortzeko, «gizarte-desberdinkeriaren aurkako borroka

indartzeko, kontinentean sortutako aberastasunaren eta errentaren banaketa sustatzeko, demokrazia herritar eta parte-hartzailearen mekanismoak bermatzeko eta subiranotasun nazionalak indartzeko» (*ibidem*).

Era berean, herri-mugimenduen artikulazio berri horrek ulertu zuen «formakuntza politikoa, herrien arteko elkartasun aktiboa, komunikazio-estrategiak eta oinarriko lana sendotu eta herri-mobilizazioa indartzeko» (*ibidem*) egiten zuen lana funtsezkoa zela kapitalaren indar suntsitzaileari aurre egiteko baina, aldi berean, ez zela nahikoa amerikar kontinentera soilik mugatuz gero. Hori dela eta, ahalegin garrantzitsuak egin zituen bere mugak zabaltzeko eta kontinente guztietako herri- eta gizarte-mugimendu, intelektual eta ekintzaileengana iristeko, hots, gizarte justu eta berdinzale baten alde mundu osoan lanean ziharduten eragileengana iristeko.

Hala, Brasilgo MST mugimenduak (*Movimento dos trabalhadores rurais Sem Terra*) São Paulo estatuan duen ENFF (*Escola Nacional Florestan Fernandes*) eskolan 2015. urtean antolatutako topaketa batean, Herri Mugimendu Transnazional berria jarri zen abian, zeina Herrien Nazioarteko Biltzarra deitu baitzen, eta Amerikan, Afrikan, Magreben eta eskualde arabiarrean, Asian eta Europan artikulatzen hasi baitzen.

Urte batzuk beranduago, 2019ko otsailean zehazki, HMT berri horrek mundu mailako lehenengo topaketa izan zuen, Caracasen (Venezuela). 87 herrialdetako 181 antolakundetako 500 ordezkari «bildu egin ziren, eztabaidatu eta kantatu egin zuten, kontsignak oihukatu zituzten eta elkartasun iraultzailea sentitu zuten gure planetako herriei itxaropena emateko borroka amankomunean» (Herrien Nazioarteko Biltzarra, 2019).

Herrien Nazioarteko Biltzarrak, bere lana aurrera eraman ahal izateko, hainbat marko eta organo sortu ditu; batzuek funtzio territorialak dituzte, eta beste batzuek, politikoak (nahiz eta, azken finean, elkargune asko egon daitezkeen bi funtzioen artean eta ezin diren erabat bereizi).

HNB egituratzeko dauden organoetz gain, HMT horretan ildo zehatz batzuk ere lantzen dira, beste eragile batzuekin batera. Alde batetik, formakuntza politikoa ematen duten eskolen nazioarteko sare batekin lan egiten da. Mundu osoko hezkuntza-proiektu eta eskola ugari osatzen dute sare hori; besteak beste Brasilen, Argentinan, Haitin, Estatu Batuetan, Tunisian, Ghanan, Hegoafrikan, Nepalen, eta abarretan daude proiektuok, eta sarritan HNBrekin lan egiten dute.

Herri- eta gizarte-mugimenduetako, alderdietako zein sindikatuetao kideei formakuntza politikoa eskaintzeko lan egiten dute eskola horiek, ulertuz formakuntza politikoa prozesu etengabea dela eta hitzaldiez eta tailerrez askoz ere harago doala. Mundua eta haren egiturak sakonean ulertzeko metodo bat eskaintzen dute, ondo baitakite zenbat eta aktibista eta militante formatuagoak izan, orduan eta eraginkorragoak izango direla haien ekintzak, bai maila lokalean, bai globalean.

Beste alde batetik, HNBrekin elkarlanean komunikabide herritar ugari ere aritzen dira. Horien artean daude *Resumen Latinoamericano* (Buenos Aires), *Brasil de Fato* (São Paulo) edota *Peoples' Dispatch* eta *NewsClick* (New Delhi), besteak beste. Hala, HNBk bultzatu egiten du komunikabide herritarrek sortzea, ahalduntzeko bide

gisa, baztertutako klaseek ezarrita dagoen sen onaren aurkako ideia-borroka egin dezaten eta herri-antolakuntza eraikitzeko. Fronte horretan borroka egiteak aukera ematen du, hain zuzen, oinarriko lana indartu eta mundu osoko borroka areagotzeko.

Ikerketa sozialak osatzen du, azkenik, Herrien Nazioarteko Biltzarrarekin elkar-lanean aritzen den beste lan-ildo garrantzitsu bat. *Tricontinental Institute for Social Research* institutuaren barnean, Latinoamerika, Afrika eta Asiako ikertzaileak aritzen dira, «eztabaida eta hausnarketa pentsamendu kritikotik sustatzeko helburuarekin, emantzipazio-ikuspegi batetik» (HNBren Nazioarteko Idazkaritza Operatiboa, 2018). Azaltzen dutenez, ideien borrokan parte hartu nahi dute, eta herri- eta gizarte-mugimenduen eta ezkerreko intelektualeen artean zubiak eraiki nahi dituzte, bi norabideetan elkar elikatu ahal izateko (*ibidem*).

Herrien Nazioarteko Biltzarraren definizio eta praktika politikoa

Herrien Nazioarteko Biltzarra zer den eta nola antolatzen den ikusi dugu, baina oraindik ikusteke daukagu zertan oinarritzen duen bere jarduera politikoa, hots, bere helburu politikoa nola planteatzen dituen eta horiek lortzeko zer jarduera garatzen duen.

Horretarako, hasteko esango dugu HNB herri-mugimenduko antolakundeek elkargune bat dela, txapela, munduko hainbat eta hainbat txokotako zenbait antolakunde motak elkarlanerako duten gunea. Bestalde, Munduko Foro Sozialak ez bezala, Herrien Nazioarteko Biltzarrak atea irekita utzi dio alderdiekin eta sindikatuekin lan egiteko aukerari, betiere horiek masa-borroketan oinarrituta baldin badaude eta HNBren oinarri ideologikoak onartzen baldin badituzte.

Aitzitik, ez dauka, printzipioz, Gobernu Kanpoko Erakundeekin lan egiteko asmorik, egiten duen analisia baita, sarritan, GKE-ek ez dutela mundu-sistema kapitalista eta haren antolamendua zalantzan jartzen, baizik eta, areago, sistema horren hutsuneak betetzera soilik mugatzen direla. Hau da, analisi horren arabera, GKE gehienak (handienak, behintzat) erakunde *insiderrak* izango lirateke, sistema kapitalistaren akatsen ondorioak kudeatzen dituztenak eta egoera iraultzeko perspektibarik ez dutenak. HNBk planteamendu iraultzaileagoa duen heinean, hortaz, ez du interes berezirik GKE-ekin lan egiteari dagokionez.

Hala, HNB gabezia argi bat betetzeko jaio zen. Haren sortzaileek ere identifikatu zuten, Samir Aminek adierazi bezalaxe, «mundu mailako fronte batua» (Moghadam, 2019a) osatu beharra zegoela, dogmatismo eta barne-gatazka handirik gabea; Munduko Foro Sozialak ez bezala, ekintza zuzena bultzatuko zuena, eta Foroak baino manifestu politiko esplizitu eta erradikalagoa izango zuena, eraldatzaileagoa, sistema kapitalista erroto deuseztatu eta sistema berri bat sortu ahal izateko.

Horren ildotik, hainbat planteamendu egiten ditu, bere ekintza guztiak, modu batera edo bestera, honako helburu hauek betetzera bideratuta egon daitezen: su-

biranotasun herritarra lortzea, borroka antiinperialista eta anticolonialaren bidez; emakumeen eskubideak bermatzea, borroka feministaren bidez; demokrazia herritarra gauzatzea, estatu burgesa salatuz; baliabide naturalak defendatzea, enpresa kapitalistek halako baliabideak berenganatzearen aurka eginez; finantza-kapitala, paradisu fiskalak eta enpresa transnazionalak deuseztatzea; lan-eskubide duinen eta giza eskubideen alde egitea; migratzaileen, errefuxiatuen eta diasporen eskubideak defendatzea eta horiek existitzea eragiten duten arrazoen kontra egitea; munduko preso politiko guztiak elkartasuna adieraztea; eta fundamentalismo guztien aurka egitea, emantzipazio perspektiba baten alde (HNBren Nazioarteko Idazkaritza Operatiboa, 2019).

Helburu horiek guztiak betetzeko, HNBk planteatzen du herri-mugimenduko antolakundeen eta alderdi politikoen arteko aliantzaz eta elkarlanaz harago, beharrezkoa dela masa-borrokak artikulatzea ahalik eta herrialde gehienetan, eta masa-borroka horiek indartu ahal izateko, ideien borrokan arreta berezia jarri behar dela. Horren adibide, aurreko atalean ikusi ditugun lan-ildo guztiak (eskolek, komunikazioak eta ikerketak), hain zuzen ere, ideien borrokan ekarpen garrantzitsua egiten dute, hegemonia kultural berria sortzearen alde.

Horrez gain, HNBk garrantzi handia ematen dio elkartasun internazionalista artikulatzeari. Hori dela eta, hainbat kanpaina antolatu ditu herrialde, prozesu edota pertsonekin elkartasuna adierazteko, hala nola Palestinako herriarekin, Venezuelako prozesu bolivartarrarekin edota Ola Bini eta Luiz Inácio Lula da Silva militante politikoekin.

Azpimarratu beharreko beste elementu bat da Herrien Nazioarteko Biltzarrak Hegoalde Globalari ematen dion garrantzia. Aipatu berri ditugun lan-ildo guzti horiek, esaterako, mundu-sistemako periferia edota semiperiferiako herrialdeetan daude oinarrituta, eta hori ez da kasualitatea. Hain zuzen ere, inperialismoa eta kolonialismoa dira eta izan dira munduan egiturazko zapalkuntza basatienetariko batzuk, eta ezinbestekoa da zapalkuntza hori jasan duten herriak eta pertsonak izatea lehen lehen kokatzen direnak, mundu mailako egiturazko aldaketak gauzatu nahi baldin badira.

Jackie Smith ikertzaileak eta bere kideek nabarmendu dutenez, Hegoalde Globalan oinarria duten gero eta mugimendu gehiago daude, bai eta neoliberalismoa salatzen eta ikuspegi alternatiboak eskaintzen dituzten talde politiko eta ekintzaileak ere (Smith, Plummer eta Hughes, 2016). Zalantzarik gabe, HNB joera horren adibide argia da.

Era berean, joera horri jarraikiz, Herrien Nazioarteko Biltzarraren ildo nagusietako bat antiinperialismoa da. Izan ere, 2019ko Caracaseko topaketan hartu zen erabaki nagusia izan zen hurrengo urtea edo urteak ardaztuko zituen lan-ildo komuna inperialismoaren aurkako borroka izango zela, eta horretarako Aste Antiinperialista bat antolatuko zela, aldi berean, mundu osoan. Hau da, erabaki zen antiinperialismoa landu egingo zela, ez soilik kontzeptu teoriko gisa testu idatzietan aipatzeko,

baizik eta jendartea aldarri horrekin kalera ateratzeko eta inperialismoaren eraso zuzena jasaten duten herriekin elkartasuna adierazteko¹.

Horretarako, Aste Antiinperialistaren ekimenaren barruan, HNBtik espazio zabalago bat sortu da, Biltzarretik kanpo dauden hainbat eragilerekin ere lan egiteko ildo horretan (São Pauloko foroa, *La Via Campesina*, Emakumeen Mundu Martxa eta Europako Ezkerraren Alderdiarekin, besteak beste). Aste Antiinperialistaren marko berri hori, ideien borroka duen garrantziaz oso jakitun, bere ekarpena egiten ari da arlo kulturaletik ere, besteak beste mundu osoan posterrak diseinatu eta argitaratzeko ekimenaren bidez².

Oro har, Herrien Nazioarteko Biltzarrarekin ikus daiteke «aurkakotasuna eta sorkuntza egiteko kultura politiko berriak» (Foran, Gray eta Grosse, 2017) sortzen ari direla, eta ez dela nahitaez egin behar *iraultza* eta *mugimendu sozial*en arteko bereizketarik, HNBren kasuan, behintzat, argi ikusten baitugu bi joerak edo jarduerak elkarrekin bizi direla, «zenbaitek gizarte zibil globala esaten dioten horren barneko jarduera antisistemiko gisa, eraldaketa sozial erradikal edo sistema-aldaketa baten alde» (Modhadam, 2019b).

Horrela, aldarrikapenak maila globalean bateratu eta herritarren ahotsa goratzek, eta herrien subiranotasunaren aldeko borroka nazioarteko bihurtzek, horrek guztiak ekartzen du nazioarteko harremanak pixkanaka demokratizatzea. Alde horretatik, HNBk eta HMTek garrantzi handia daukate, tokian tokiko askapen borroka bateratzea lortzen baitute (beren egituretan ordezkaturik dauden antolakundearen bidez), proposamen ugariaren arteko loturak sortzen baitituzte eta ikuspegi globala ematen baitiete arrazoi globalek eragindako borrokei.

Ezin dugu pentsatu demokrazia globalik eraikiko denik tokiko alternatibarik gabe eta, era berean, tokian tokiko alternatibek ez dute zentzurik isolatuta mantentzen badira, ez baldin badago indar horiek guztiak biltzen dituen eragilerik, funtsezko aldaketak bultzatuko dituen mundu-sistema kapitalistaren egituren barnean.

4. Azken hausnarketak

XXI. mendearen hasiera honetan, orain arte ezagutu dugun zibilizazioaren krisi sakona ikusten ari gara. Kapitalismoaren krisi ekonomikoa sakona da, baina ez soilik ekonomikoa; baita ekologikoa, soziala, etikoa... ere. Ez da erantzun erraza duen krisia. Gramsciren esaldi ezagunak dioten bezala, mundu zaharra hiltzen ari da eta berriak denbora behar du agertzeko.

¹ Aste hori 2020ko maiatzerako antolatzea zegoen aurreikusita, baina Covid-19 birusa dela eta, atzeratu behar izan zen.

² Ikus <https://antiimperialistweek.org/en/exhibitions/capitalism/> eta <https://antiimperialistweek.org/en/exhibitions/neoliberalism/> estekak.

Baina, zein da mundu berria? Mende honen hasieran hedatu zen esaldi ezagunari jarraikiz, zein da posible den beste mundu hori? Nola antolatu behar da beste mundu hori? Testuinguru horretan, herri-mugimenduek ez dute erabat argi nondik jo behar duten erantzunak aurkitzeko eta, era berean, erantzukizun handia dute beren gain.

Eraldaketarako subjektua norik osatu behar duen oso argi ez badago ere, garbi dagoena da multilateralak izan beharko duela (arazo globalei erantzun globalak emateko), herritarra (egiazko demokraziaren bidean), eta Hegoalde Globalean oinarri sendoa izan beharko duela (erdigune-periferia egiturazko banaketari errotik heltzeko).

Klase-borroka ere aldatetarako oinarri sendoetako bat izango da, betiere nazioarteko ikuspegi batetik planteatuta eta, ahal den heinean, borroka antikapitalistak eta antiimperialistak borroka sektorial ugarien elkarlanerako abagunea eskaini beharko du. Hori bai, borroka batzuk besteen gainetik jarri gabe, eta ulertuta egiturazko zapalkuntza ororen aurkako borroka zilegi dela mundu-sistemako egiturak aldatzerako orduan.

Bestalde, emakumeak gakoa izango dira etorkizuneko edozein iraultzatan (Moghadam, 2019b). «Mugimendu hori sortzea ez da lan erraza izango, eta “horizontal” askoren eragozpenak egongo dira, baita identitate eskusiboko proiektuetan dihardutenenak ere. Baina, orduan, sakabanatze eta zatiketa horrek indartu egingen du, hain zuzen, mundu-sistema kapitalista. Helburu politiko argiak eta helburu horiek lortzeko estrategia bateratua dituen antolakuntza-egitura formalago batek, mundu osoan antzeko ideiak dituzten alderdi politikoekin aliantzak eginez, erronka serioagoa ekar diezaioke gaur egungo mundu-sistemari, eta eskuin muturrak hegemonia hartzea galarazi lezake. Hemen proposatzen den mundu-mailako iraultza feministak, azkenean, beste mundu bat posible egitearen ametsa egia bihurtu lezake» (Moghadam, 2019b).

Lan handia gelditzen da aurretik, eta HMTek erronka nabarmenak dituzte aurrean, baina aukera handiak ere bai. Elkarri inoiz baino konektatuago gauden garai honetan, mugimenduek zubi horiek elkartasunean oinarrituta eraikitzen asmatu beharko dute, eta munduaren ulerkera eraldatzaileak hedatzen jarraitu beharko dute, ideien borrokaren bidez. Ez dakigu zer-nolako neurria duen zehazki gizarte zibilak mundu-sisteman aldaketak gauzatzeko duen ahalmenak, baina ahalmen hori egon badago, munduko biztanleen gehiengoa gizarte zibilak, txiroek, zapalduak... osatzen duten heinean. Potentzial hori biltzea dagokie HMTei.

Iraultzaren gakoa, berez, ez dauka gizartearen sektore jakin batek ere ez, eta konponbidea ez du borroka-ildo bakar batek ekarriko (soilik borroka feministak, edo klase-borrokak, eta abarrek). Txinparta non eta noiz sortuko den aurreikustea ia ezinezkoa da, edonon piztu baitaiteke, edozein unetan. HMTek, berriz, malgutasun nahikoa izan beharko dute txinparta sortzen denean, horri eusteko, tentsioa iraunarazteko eta, ahal den neurrian, txinparta horiek ekarritako aldaketak gizartearen ondo finkatzeko.

Kapital-metaketa amaigabea bilatzen duen mundu-sistema kapitalista ez da betierekoa, sistema politiko bat bera ere ez baita betierekoa. Agian gure belaunaldiak ez du haren amaiera ikusiko, baina sistema ez da estatikoa, etengabe ari da mugitzen; hortaz, aldaketa edozein kasutan gauzatuko da eta amaiera lehenago edo beranduago iritsiko zaio. Hori horrela dela ulertuta, gizarte zibilak eta, zehazki, Herri Mugimendu Transnazionalek aldaketa behartzeko, bizkortzeko eta finkatzeko aukera izan dezakete eta, funtsean, postkapitalismoa pentsatzen hasteko gakoa izan daitezke.

Herrien Nazioarteko Biltzarrari dagokionez, esan daiteke marko berria eskaintzen duela munduko esfortzu eraldatzaile eta iraultzaileak beren osotasunean pentsatzeko, eta zentzua eta koordinazioa eskaintzen dizkiela aldi berean maila lokalean garatzen ari diren borrokei. Dena den, ikusi dugunez, aldaketa handiak ez daude soilik HMTen esku eta, beraz, Biltzarraren esku ere ez. Garrantzitsua da ulertzea horiek tresnak besterik ez direla eta, horien atzean pertsona kontzientziatu eta antolatutako ugari egon ezean, ez dutela ezertarako balio.

HNBk bere alde duena da, besteak beste, proiektu integrala irudikatzen duela, ez arazo zehatzak konpontzeko, baizik eta munduaren egiturak berak eraldatzeko. Orobat, malgutasuna izango du koitunturaren arabera fokua non jarri behar den erabakitzeko eta malgutasunez jokatzeko, betiere gizarteak hartzen duen norabidearen arabera.

Bere erronka nagusietako bat izango da bere burua gehiago ezagutarazi behar duela, eta horretarako tresna komunikatibo hobeak diseinatu beharko dituela. Horri lotuta, definizio politiko handiagoa ere egin beharko du, hori egin ezean, benetan erraza baita horrelako proiektu handi eta jendetsuak desbideratzea eta antolakunde *insiderrak* izaten amaitzea.

Definizio politiko horren barruan, berebiziko garrantzia izango du ikuspegi kontrahegemonikoan sakontzen jarraitzeak, ez soilik diskurtsoaren mailan, baizik eta baita praktikan eta alternatiba zehatzetan ere. Horretarako, bere alde du bi ikuspegi garrantzitsu bateratzen dituela: alde batetik, ikuspegi global eta multilateral, munduan hegemoniko diren joerak ondo aztertu eta horren alternatiba globalak pentsatzeko; eta aldi berean, ikuspegi lokala, jendearengandik hurbila, proiektu eraldatzaileak haiena ere badela senti dezaten eta, nolabait, alternatibak jendearen bizitzetara irits daitezten (edo haiengandik hasten denak dimentsio globala har dezan).

Egiazko demokrazia lortze bidean, funtsezkoa izango da, bestalde, *ordezkaritza* kontzeptua bera birplanteatzea. HNBren indarguneetako bat da jende asko ordezkatzeko duela, baina hori ezin dugu indargunetzat hartu era mugagabea. «Ordezkatua» den jende horrek inizatiba propioak abiatu ezean, HNBk ere gaurko demokrazia burgesaren akats bera egin lezake, jendearen izenean ustez haientzat onenak diren erabakiak hartuz. Biltzarrak zilegitasuna galduko luke, pragmatismoaren izenean, jendartearen planteamendu erradikal eta iraultzaileak gehiegitan baztertuko balira.

Gizarte utopiko, bidezko, berdinzale, ez-zapaltzaile, ekologiko, feminista... lortzera baldin bagoaz, argi izan beharko dugu, une batean edo bestean, proiektu des-

zentralizatuak indartu beharko direla, botereguneak jendearengandik ahalik eta hurbilen egon daitezen eta jendarteak egiazko demokrazia batean parte hartu ahal izan dezan, betiere ikuspuntu globala galdu gabe. Lana ondo egiten badu, Herrien Nazioarteko Biltzarra tresna paregabea izan daiteke gizarte berri hori eraikitzeke bidean.

Sakontzeko

- Amin, S. (2018). Toward a Fifth International?. In J. Sen (ed.), *The movements of movements: Rethinking our dance*. (465-483). OpenWord eta PM Press.
- Arrighi, H.T. K. eta Wallerstein, I. (1999). *Movimientos Antisistémicos*. Ediciones Akal.
- Braudel, F. (1985). *La dinámica del capitalismo*. Fondo de Cultura Económica.
- Del Arenal, C. eta Sanahuja, J. A. (2015). *Teorías de las Relaciones Internacionales*. Tecnos.
- Echart, E. (2008). *Movimientos sociales y relaciones internacionales: La irrupción de un nuevo actor*. Catarata.
- Wallerstein, I. (2005). *Análisis de sistemas-mundo. Una introducción*. Siglo Veintiuno Editores.

Herri-boterea, eraldaketa demokratikorako subjektu gisa.

Demokrazia komunala eraikitzeko subjektua, proiektua eta prozesua

Saul Curto-López, Luis Miguel Uharte Pozas

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena. Egungo krisi sistemikoaren barruan, demokrazia liberalaren krisi politiko sakona ere aipatu behar dugu. Egoera horren aurrean, munduan zehar dinamika sozial disruptiboak eta komunitarioak sortzen ari dira, demokrazian sakontzeko modu berriak proiektatzen dituztenak. Testu honetan, ikuspegi teorikotik, herri-boterea eraldaketa politikorako subjektu komunitario gisa aztertu nahi dugu, eredu liberalaren alternatiba gisa demokrazia komunaleko eredu bat sustatzeko. Herri-boterea aztertzea metaprozesu konplexua da, eta bere barnean hartzen ditu ekintza eta antolaketa kolektiboko hainbat eremu. Herri-boterearen agerpen historikoa eta kontzeptua bera berrikusi ondoren, herri-boterearen sorrera aztertzen da, hiru dimentsioko prozesu dinamiko gisa. Lehenik eta behin, ezarritako botereari aurre egiten dion botere-mota berri baten eraikuntza mailakatua aztertzen dugu. Bertan, posizio teoriko ezberdinak planteatzen dira kontraboterearen, botere dualaren eta herri-boterearen ideien aurrean, baita herri-boterearen botere kargugabetzailearen, eratzailerearen eta konstituziogilearen arteko erlazio dialektikoa ere. «Boterea hartzetik» eraikuntzara igarotzeaz gain, botere berriaren eta Estatuaren boterearen arteko harremanak ere aztertzen dira, baita nagusitasun sozial eta kulturalaren aldeko borrokarekin duten harremana ere. Ondoren, herri-boterea aztertzen dugu, demokrazia liberalaren aurkako proiektu demokratiko gisa, non komunitate-dinamiken praktika demokratizatzaileei buruzko ezaugarri batzuk planteatzen diren. Azkenik, herri-boterea aztertzen dugu, ez modernitatearen subjektu indibidualetik abiatuta, baizik eta subjektu kolektiboaren eraikuntza gisa. Subjektu horrek mendeko hainbat sektore artikulatzen ditu, eta gaur egun antolamendu-modu aurreratuagoak proiektatzeko antolatzen ari diren gizarte-espazioak ditu abiapuntu. Subjektu kolektibo hori eraikitzeko, denbora-, espazio-, eskala- eta artikulazio-logika berriak planteatzen dira. Amaitzeko, herri-boterea eraldaketa-subjektu berri baten eraikuntza dinamikoko prozesu gisa aurkezten dugu, partaidetza politikoa, dinamika demokratizatzaileak eta aldaketa politikoko prozesuak garatzen dituen, bere autoeraikuntza- eta artikulazio-dinamiketarik abiatuta.

Sarrera

Azken bi hamarkadetan, demokrazia liberalaren krisi sakon baten aurrean gaude, eta krisi horren ezaugarriak honako hauek dira: parte-hartzerik eza, legimitaterik eza, ordezkarritasunik eza edo biztanleria-geruza zabalaren interesik eza (Crouch, 2004; Rosanvallon, 2007; Hermet, 2008; Wolin, 2008; Posner, 2012; Harvey, 2012; Mair, 2013; Orti, 2015; Castelle, 2017). Demokrazia liberalaren krisiaren aurrean, azken urteotan eredu liberala zalantzan jartzen duten eta demokraziaren ideien karakterizazioan ikuspegi desberdina planteatzen duten dinamika komunitarioak eta komunalak sortu dira munduko hainbat tokitan (Ayboga, Flach eta Knapp, 2017; Fernández, 2015; Akuno, 2018; Ruggeri, 2017; Kode Libreak, 2016; Öchalan, 2012). Demokrazia komunalaren ideiekin batera, indar handiz agertzen da herri-boterearen nozioa ere (Knapp eta Jongerden, 2017; García Linera, 2016; Bookchin, 2019; Iglesias, 2017; Mazzeo, 2006, 2007). Izan ere, herri-boterea taupadaka eta taupadaka ari da hainbat eragilek sortzen dituzten dinamika komunal askotan: batzuetan modu espezifikoa, beste batzuetan zeharka, eta baita dinamika komunitarioetan giltzape-tutako potentzia gisa ere. Herri-boterea eta herri-demokrazia ez dira eredu amaitu eta definitu gisa aurkezten, baizik eta etengabe eraikitzen ari den aukera alternatibo gisa. Horrela, praktika hauek gordetzen duten potentziak beste logika dinamikoago bati jarraitzen dio. Era horretan, sistema alternatiboak imajinatu eta problematizatu egin daitezke, baina «ez dira aplikatzen», baizik eta «azaleratzen» (De Angelis, 2019, 99. or.). Beraz, demokrazia komunalaren ideia etorkizun posible baterako aukera gisa ulertu behar da, praktika eta dinamika askotan ezkututzen dena, eta aniztasuna eta aberastasuna dituen formetan zein edukietan, intentsitateetan, garapen-heldutasu-nean edo planteamendu estrategikoetan. Etorkizuneko aukera horiek, egungo larrialdi gisa, utopia zehatzaren ideietara (Bloch, 2007), Benjamin-en aldi mesianikora (2009), Wallersteinen utopistikara (1998), Wright-en utopia errealetera (2014) edo Santosen Larrialdien Soziologiara (2006) garamatzate.

Demokrazia komunalaren subjektu politiko kolektibo gisa, herri boterea inguratzeko duen errealitate sozialak baldintzatzen du, eta aldi berean herri botereak dialektikoki baldintzatzen du errealitate hori bera. Laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik, gizarte-protesten ziklo berri batean gaude, 2007-2008 aldian lehertu zen krisi sistemikoarekin sakonduta. Orduz geroztik, hainbat lurraldetan herri-dinamikak eta dinamika sozialak garatzen ari dira, eta dinamika horiek agerian uzten ari dira komunitatearen sorrera, subjektibotasun neoliberalaren indibidualizazio gero eta muturrekoagoaren kontrapuntu gisa agertzen den gizarte-pultsio berri gisa (Laval eta Dardot, 2013; Ortiz, 2014). Hala, bada, komunitatea berriz ere agertu da, protesta eta aldarrikapen gune gisa ez ezik, baita krisiaren ondorioz sortzen diren arazo eta premia askori irtenbideak aurkitzeko gune gisa ere (Úcar, 2012; Torres, 2013; Curto-López, 2019). Baina komunitatearen kontzeptua ez da berria eta ez da zehatza. Komunitateari buruzko ikuspegi asko daude (Agamben, 2006; Augé, 2011; Bauman, 2003; De la Peña, 1998; Tönnies, 1947; Esposito, 2003). Komunitate-mailako

subjektuen artean forma, gai eta jarrera ideologiko kontrajarri ugari aurkitu ditza-kegu. Hemen kontuan hartu nahi ditugu demokrazia komunalaren ideia indartzeko gai diren subjektu komunitarioak, eta, beraz, ikuspegi emantzipatzaile alternatiboa garatzen duten subjektuak, liberalaren ordeztu, eta mendeko klaseen interesetatik hur-bil daudenak. Ikuspegi horretatik, subjektu kolektibo ugari aurkitzen ditugu: koope-ratibak, sindikatuak, alderdi politikoak, kultura- edo gizarte-elkarteak, auzo-komuni-tateak, nekazaritza-mugimenduak, indigena-komunitateak, herri-mugimenduak, eta abar (Negri; Hardt, 2011; Patzi, 2009; Fabbri, 2013; Escalante, 2013; Ruggeri, 2017; Uharte, 2019). Erkidegoko subjektuen engranaje horretan guztian, zeharka eta kua-litatiboki berritzailea da herri-boterearen ideia, subjektu politiko eraldatzaile berriak sortzeko espazio politiko gisa.

Baina zertaz ari gara herri-botereaz ari garenean? Zer subjektu mota da eta zerk ezaugarritzen du? Zer ekarpen egiten du sakontze demokratikoan liberala ez den beste logika batetik? Zer alderdi dira garrantzitsuak haren garapenean? Zein eska-latan garatzen da? Horretarako, aztergai dugun gaia landu duten autore eta mugimendu ezberdinengana jo dugu. Herri-botereak, herriaren botere gisa, politikoki adiera desberdinak izan ditzake. Azken mendeetan konstituzio ezberdinek herriaren boterea erabili izan dute subiranotasun nazionalaren gordailu gisa erabiltzeko. Ideia hori nazio-estatu konstituzioek modu teoriko eta ezin hobean erabili dute estatu li-beral modernoaren garapenerako (Sartori, 2003; Rosanvallon, 2015). Guk herri-bo-terearen forma zehatz eta erreala hitz egin nahi dugu, borondate kolektibo baten egitate erreala eta zehatzaz. Marxek ere hitz egin zuen kooperatibaren benetako bo-rondateaz (Mendez, s.f.: 7). Ideia horretan oinarrituta, Mazzeok dioenez:

Herri botereaz hitz egiten dugunean, oro har, mendeko klaseek (langi-leak, pobreak, marjinalak, periferikoak) kontrola eta boterea modu zuzena-goan edo ez zuzenagoan egikaritu zituzten esperientzia historiko guztietaz ari gara. Hauek mugatutako lurraldeetan edo erakunde multzo zabal batean ga-ratzen dira, esparru libertarioen eta berdintasunezko harreman-patroien bila-keta bultzatuz, eta era gutxi gorabehera kontziente eta deliberatu batean egi-nez; kualitatiboki, inposatutako patroik hegemonikoen gainetik egongo lirarteke. (Mazzeo, 2006: 64)

Herri-boterearen ideia hori, kontzeptu gisa azken hamarkadetan argiago erabil-tzen bada ere, ez da berria bere esentzian, eta, hala deitu ez bazaio ere, lehenagotik praktikatzen da. Ildo horretan, Marxek jada adierazi zuen Parisko Komunak, 1871n, jauzi kualitatibo bat suposatu zuela, bai klase zapalduen zuzeneko autogobernua-ren antolaketan, bai ikuspegiaren: *la Commune*, funtsean, langile-klasearen gobernu bat zen, klase ekoizleak klase jabedunaren aurka egindako borrokaren emaitza, eta, az-kenean, forma politikoa aurkitu zen, lanaren emantzipazio ekonomikoa gauzatzeko (Marx, 2003). Orduetik aurrera, XX. mendearen erdialdera arte, hainbat une, prozesu sozial eta lekutan, esperientzia orokor edo partzialak garatu dira, mendeko klaseen

kudeaketa eta administrazio zuzen eta komunalaren ideian oinarrituta. Esperientzia handiago horietako batzuek egitura-aldaketak izan dituzte helburutzat, eta beste batzuetan, txikiagoak eta partzialagoak, premia espezifikoerantz aldatzeko alternatiba zehatzagoak bultzatzea proposatu da (Azzellini eta Ness, 2017). 1960ko hamarkadatik aurrera, deskolonizazio- eta independentzia-prozesuekin, gizarte-mugimendu berrien sorrerarekin eta askapen nazionalen mugimenduekin, herri-boterearen ideia esperientzia praktiko eta teoriko berrietan bistaritzen da. Txileko industria-lokarriak, *Pantera Beltzak* AEBn, Vietnamgo independentzia-prozesua, Hegoafrikako *apartheidaren* aurkako borroka, Kubako iraultza, 68ko maiatza. Azken bi hamarkadetan, herri-boterearen ideia mahai gainean jarri da berriro, dinamika eta ekintza kolektibo disruptibo kontrahegemonikoarekin batera, demokrazia komunalaren ideiarako indarra diren prozesuekin batera.

XI. TAULA

Bideoa Raul Zibechi: Poder Popular

<p>Raul Zibechi: Poder Popular.</p>	
<p>Raul Zibechiren Pentsamendu Marxistaren Bideotekarako hitzaldi honetan, uruguaitar intelektualak herri-botereari buruzko gogoeta egiten du eta Latinoamerikan eta haratago eraikitzeko saiakeretan zehar ibilbide bat egiten du, tematizazioaren premia argudiatuz.</p> <p>Zibechiren arabera, herri-botereak harreman desberdinak izan ditzake Estatuarekin, kasu batzuetan harmonia erlatiborantz eta beste batzuetan gatazkarantz joz, baina tentsio hori ez da inoiz desagertzen, herri-boterea funtsean Estatuaren autonomia baita.</p>	

Herri-boterearen ideia bere bi kontzeptuengatik muga daiteke. Alde batetik, «boterea» ez da berez objektu bat, subjektuen arteko harreman bat baizik, eta, nor-

malean, nagusitasun-egoerak erreproduzitzen dituzten botere-patroi bihurtzen da (Sánchez, 1989; Foucault, 1979; Castells, 2009; Bourdieu, 2000; Villoro, 1997). Boterea dutenek pribilegioak izaten dituzte menderatuekiko. Herri-boterea botere bihurtu nahi da, menperatzen duen klaseari boterea bera lehiatu nahi diolako, ez menperatzeko, baizik eta menderatzearekin amaitzeko. Horrela, herri-botereak ezin du menderatzerik gabeko gizarte bat beste helbururik izan, eta botere-harremanak alderantzikatu (Mendez, d.g.: 7); emantzipatzeko eta dominazioak ezabatzen proiektu baterako boterea, ez dominaziorako (Casviasca, 2011). Beste aldetik, «herri edo herrikoia» izateak herriari, jendailari, behekoiei, bazterkeria-, marjinazio- edo zapalkuntza-egoeretan lan egiten duen gehiengo sozialari egiten dio mesede. Baina baita bazterkeria gutxiagoko edo pribilegio handiagoko egoeretan egonik, emantzipazio-helburuaren alde herri-masarekin konpromisoa hartzen duten kontzientziadun sektoreei ere (Strata y Barrera, 2009; Romero, 1991; Gómez, 2011; Errejón, 2015; Cobo, 2002). Langileen errealitate soziala gero eta zaituagoa eta heterogeneoagoa da, Bourdieuk (2002) aipatzen zituen dominazio-eremuen irudikapen multidimensionalean botere-kapitalizazioei bide emanez. Horrek esan nahi du eremu herrikoiak esplotazio- eta zapalkuntza-ardatz desberdinen inguruan ematen diren adierazpen, errealitate, balio eta jarrera konplexu eta desberdinetara garamatzala.

Herri-boterea, emantzipaziorako proiektu eta subjektu herrikoi artikulatzaile gisa ez ezik, prozesu gisa ere argi eta garbi bereizten da. Prozesu konplexua da, eta bere baitan hartzen ditu elkari eragiten dioten hainbat prozesu mota: autoantolaketa prozesuak, demokratikoak, deliberaziozkoak, produkziozkoak eta erreproduktiozkoak, baliabideen kudeaketakoak, borrokakoak, eraikuntzakoak, iraingarrienak, defentsakoak, ezagutzak transmititzekoak, kontzientzia politikoa garatzekoak, eta abar. Mazzeori jarraikiz:

Herri-boterearen bidez, mendeko klaseen biziguneak (lanekoak, ikastekoak, birsortzekoak, etab.) gizarte-botere alternatibo eta eskatzaile baten zelula era-tzaile bihurtzen dira, posizioak irabazteko eta boterearen kokapena eta indar-harremanak aldatzeko aukera ematen diona, eta, jakina, eremu kontrahegemoniko baten sendotzean aurrera egiteko aukera ematen diona. (Mazzeo eta Stratta, 2007: 11)

Herri-boterea, demokrazia komunala bezala, esperimantazio-espazio eta -prozesu bizia da, eta gizarte berriaren formak eta edukiak aurrefigura ditzake (Casviasca, 2007: 46). Marxek eta Gramscik Parisko Komunaren eta Fabrikako Kontseiluen potentzia azpimarratu zuten, hurrenez hurren, etorkizuneko gizarteek gaur egun izango dituzten politika prefiguratioben irismenagatik (Ouviña, 2007: 166). Herri-boterearen esperientziak gizartearen eta politikaren aurrerapenerako gune gisa agertzen dira, eta bertan ahalik eta errealena bizi da, irekiera berriak ahalbidetuz (Mazzeo eta Stratta, 2007: 12). Horrela, herri-boterea Larrialdien Soziologiaren zati gisa azter daiteke; izan ere, Soziologia horrek esperientzia posibleak sortzen ditu, eta esperientzia horiek ez daude emanda, horretarako alternatibarik ez dagoelako, baina

posible dira eta larrialdi gisa existitzen dira. Ez dugu etorkizun abstrakzionatu batez hitz egiten, baizik eta etorkizun batez, zeinu eta arrastoak dauzkagularik; badugu jendea tartean sartuta, ekimen horiengatik beren bizitza —askotan hiltzen— eskaintzen. Horrela, Larrialdien Soziologiak aukera ematen digu mugarik gabeko etorkizunaren ideia hori alde batera utzi eta larrialdietan oinarritutako etorkizun zehatz batekin ordezkatzeko: hortik eraikitzen ari gara etorkizuna (Santos, 2006: 31). Horregatik, herri-boterea *berria* eraikitzeko prozesu gisa

Gizarte berriaren espazio aurrefiguratibo eta inauguratzaile gisa ulertzen da, eta zehaztapen historikoaren une gisa —beti partziala, beti utopia absolutuaren amaitu gabea—. Nozio honek aitortzen du utopia ez dela ezer «hemen eta oraintxe» seinalatzen ez badu. Horrela, oraina hausturan metatzen da, oraindik ez denaren ernaldiaren eta aurrerapenaren unean. Subjektuaren eta objektuaren arteko distantzia murrizteko lan egiten duen orainaldi utopikoa da. (Mazzeo, 2006: 79)

Aurrefiguratiboa ez da edozein herri-dinamikarekin bat datorrena; aitzitik, berria eraiki nahi izateko erabaki politiko bati lotuta dago, eta, beraz, herri-boterearen lan kontziente bat da, eta ez hainbeste berezko printzipioekin edo determinismoaren egitura-formekin (Mazzeo, 2006: 154). Beraz, Blochek utopia konkretua deituko lukeenaren parte da, «Oraindik ez dena, gauzen muinean bere baitara bultzatzen duena» bezala identifikatua (Bloch, 2007: 507). Horrela, herri-botereak utopia libertarioa ahalbidetzen du, eta ez alderantziz. Izan ere, herri-boterea da etorkizuneko gizarteranzko joera onartzen duen modua. Larrialdi honek etorkizunaren eta orainaren arteko denbora laburtzen du (Santos, 2006). Bide horretan, herri-boterea eraikitzen duten praktikak erakundetze berri baten eramaileak dira, etorriko den gizarteren formak iragartzen dituen (Mazzeo eta Stratta, 2007: 13).

Herri-botereari begiratu nahi diogu, sortzen ari den prozesu gisa, egiturari eta garapenari lotutako hiru alderditan: botere-mota berri bat eraikitzeko prozesua, herri-boterea proiektu gisa eta herri-boterea subjektu gisa.

Prozesua: botere politiko berri baten sorrera

Herri-boterea, sortzen ari den eta ezarritako botereari kontrajartzen zaion botere berri baten eraikuntza den heinean, fase desberdinetatik igarotzen den prozesu mailakatu gisa ere ikus daiteke. Modonesik boterearen hiru dimentsio eta ibilbide bat planteatzen ditu, non herri-boterea, larrialdi gisa, forjatuz eta garatuz joan daitekeen. Lehen dimentsioa boterea da, menderatze-harremanak diren aldetik, bigarren dimentsioa aurkako boterea da antagonismo-praktikei dagokienez, eta hirugarren dimentsioa, berriz, sortzeko gaitasun kolektibo eta autonomo gisa egin ahal izatea da (Modonesi, 2009). Ideia hori bat dator dominaziotik dominazioaren aurkako gataz-

kara eta gainditze emantzipatzaileara igarotzeko ideiarekin. Horrela, proiektu eman-
tzipatzaile baten formulazioaren barruan, herri-boterea mendekotasunetik —gain-
ditu beharreko estatu gisa— antagonismora —beharrezko pasarte gatazkatsu eta
borrokalaria— eta, azkenik, autonomiara —zehaztapen, xede edo iritsiera-puntu
gisa— igaroko litzateke (Modonesi, 2010: 171).

Kontraboterearen ideari dagokionez, hainbat posizio daude. Modonesiren es-
keman, kontraboterearen ideia botere-aurkakoaren eta ezarritako boterearen anta-
gonismoaren ideiekin ondo egokitzen den bitartean (baina eraikitzen ari den botere
propioaren botere-egitearekin edo autonomiarekin lotutako urrats mailakatu gisa),
Rodríguezentzat kontraboterea estatuaren nagusitasun-boterearekin amaitzeko ideia
erradikalarekin lotuko litzateke. Zentzu horretan, botere dualaren ideiatik bereizten
du, botere dualaren ideia estatuko botere berriarekin lotuz. Bere planteamenduaren
arabera, kontrabotereak bere gain hartuko luke bai aurkako boterearen dimentsioa,
bai ahalordearena, kontraboterea autodeterminaziotzat jotzen baitu: subjektu sozial
eta politikoen eraketa, bizi-segmentuen autoantolaketa forma politiko propioekin.
Botere sozial antolatu baten berehalako forma litzateke, eta, definizioz, bitarteko-
tzarik onartzen ez duen botere politikoa da (ordezkaritza, alderdia, etab.). Kontra-
boterea baieztapen hutsa da, autodeterminazio positiboa, (Rodríguez eta Fernán-
dez, 2017: 98). Adiskidetzaren ideiatik urruntzen da, behetik botere berrien ideia
fundatzailea azpimarratuz (Rodríguez, 2018: 198).

Negriren kontraboterearen ideia ondo lotzen da orain ikusten diren bi posizioe-
kin. Harentzat, kontraboterearen ideiak hiru esanahi hartzen ditu barnean: «Botere
zaharraren aurkako erresistentzia»; «matxinada», «Masa-mugimendu baten forma»
gisa, zeinak erresistentzia-modu desberdinak eta gertaera gisa bateratzen dituen; eta
«botere berri baten botere eratzailea». Horrela, matxinada etsaiaren bizimoduak
suntsitzen dituen arma den bitartean, botere konstituziogilea bizimodu berriak po-
sitiboki antolatzen dituen indarra da (Negri, 2001: 83-84). Hemen erresistentziaren
eta matxinadaren nozioak nagusitasunaren gaineko boterearen eta boterearen ideie-
kin erlazioatuko lirateke, eta botere eratzailearen nozioa indar eraikitzaile gisa egin
ahal izatearekin. Bat dator Rodríguezekin, eta azpimarratzen du herri-boterearen bi-
dez ez dela bilatzen botere zaharra konkistatzea eta geureganatzea, baizik eta bizi-
tza-, antolakuntza- eta ekoizpen-potentzia berri bat garatzea (Negri, 2001: 88). Atilio
Boronek kritika egiten die Negriren kontrabotereari buruzko argudioei (2001) eta
Negri Hardtekin batera Inperioa liburuan azaldu zituenei. Boronek irakurketa kriti-
katzen du, modernitatearen prozesu matxinatuen ezaugarri bakarra kontrabotereari
(matxinada) esleitzen dizkioten hiru nozioetako bat baita, eta postmodernitatean
izaera insurrekzionalaren ilusio-izaera planteatzen baitu, prozesuen nazioarteko-
tze-maila txikia dela eta (Borón, 2003: 6). XX. mendeko eta XXI. mendearen hasie-
rako esperientzien errepasoa eginez, Boronek argudiatzen du borroka ezberdinetako
izaera insurrekzionala beti egon daitekeela ezkutuan hainbat egoeratan, baldin eta
horretarako baldintzak betetzen badira. Eta, gainera, planteatzen du kontraboterea-
ren ideiarekin barruan proposatzen dituzten hiru nozioak ez daudela oso urrun bol-

txebikeek 1917ko otsaila eta azaroa bitartean garatu zuten estrategiatik, baina baita Gramsci-k aipatzen zituen lantegien kontseiluaren estrategiatik ere.

Eztabaida horietan kontraboterearen ideia botere propioa eraikitzeko prozesu baten ideiatik aldentzen da, botere dualeko egoera bat emanez, Leninek eta Trotskik garatu bezala (Caviasca, 2007). Horrela, eztabaida bat planteatzen da, alegia, ezin dela soilik estatu-aparatua hartu hura eraldatzeko, baizik eta haren aurka borrokatu besterik ez dela egin behar. Autonomismoaren eta marxismo ortodoxoaren muturren artean gertatzen diren eztabaida horiek gainditu egiten dira bi bideak ukatzen dituzten planteamenduetatik, eta, aldi berean, planteamendu handiago batean integratzen dira: kontua ez da *Estatuaren kontra* ala *Estatuarekin*; aitzitik, herri-boterearen eraikuntzan, beharrezkoa eta osagarria dira *Estatuaren aurkako* borroka, Estatuaz haratagoko borroka eta *Estatuarekin(-tik)* egin beharreko lana, beste modu batean esanda, *Estatuaren kontra*, *Estatutik harago* eta *Estatuarekin* garatu beharreko borroka prozesuak elkar osagarrituz (Rodríguez, 2007). Horregatik, herri-boterea Estatutik pentsatzea soilik, Estaturik gabe soilik pentsatzearen pareko infantilismoa da (Mazzeo eta Stratta, 2007: 12). Estatuak eta Estatuaren aurka aldi berean lan egin daiteke eta egin behar da, masen autogobernu-ahalmena handitzen den heinean. Ikuskera horretatik, botere dualaren ideia ez zaio kontrajartzen kontrabotereari, ez Modonesiren (botere) egitearen-gaitasunaren ideiarekin, ez Rodriguezen autodeterminazio gisa kontraboterearen ideiarekin, edo ezta Negriren botere konstituziogilearekin. Baina autobaiez-tapen hori ertzetatik soilik planteatu beharrean, paraleloan eta eraikitzen ari den etorkizuneko gizartearen egituren bihotzera begira planteatzen da. Hori dela eta, botere bikoitza erakunde berri baten existentzian gauzatzen da, antzinako instituzionalitate burgesaren funtzioei aurre egiten diena, eta «etorkizuneko egituren bihotzera begira» diogu, erakunde berri horiek zaharrak desagerrarazteko eta jaiotzen ari den gizartearen osotasuna barneratzeko joera dutelako. Horregatik, botere dualaren aurrerapenak estatu zaharra eta gizarte zaharra ahultzea dakar (Caviasca, 2007: 46). Ikuspegi dinamiko horretatik, botere dualaren ideia ez dago kontraesanean kontraboterearekin eta herri-boterearekin, baizik eta botere propioaren eraikuntzaren prozesuan biek elikatutako eta beharrezkoa den estadio/fase gisa baizik.

Aurreko hausnarketei jarraituz, herri-boterearen ahalmen sortzailea handitu egiten da, bere boterea (gaur egungoaren aurkako antagonismoa) eta bere botere-egitea (berriaren ahalmen sortzailea) uztartzeko gaitasunean modu prozesual eta progresiboan sakontzen duen heinean. Horrek botere kargugabetzaile, izendatzaile eta konstituziogilearen nozioen interakziora garamatza. Potentzia izendatzailearen boterearen ideien aurrean (Castoriadis, 1989; 1997), Aganbenekoak (2013; 2018) edo Komite Ikusezinarrenak (2015; 2017) bezalako planteamendu kolektiboak daude, potentzia kargugabetzailea azpimarratzen dutenak eta horren aldeko apustua egiten dutenak mugimendu alternatiboen egiturazko ezaugarri gisa, potentzia eratzaile edo izendatzailearekin kontrajarriz. Negrik proposatzen du botere konstituziogilearen irakurketa ez izatea interpretazio klasiko eta estatikoa, estatu modernoaren prozesu konstituzional sortzaileekin soilik identifikatzen duena. Horrela, botere konstituziogile bat planteatzen dute, be-

rez eratutako boteretik haratago dagoena eta autoeraketarako gaitasuna duena (Negri, 1994). Autoeraketa gisa herri-boterea eraikitzekeo ideia horrek boterea eraikitzekeo prozesuaren ideia indartzen du, norberaren gaitasunetan, autoeraikuntzan oinarrituta.

I. Boterea gizarte-harreman gisa

Hasteko, garrantzitsua litzateke argibide batzuk ematea botere gisa ulertzen dugunari buruz; kontzeptu hori funtsezkoa da teoria eta praktika politikoetan, anbiguitasunez eta kontraesanaz beteta dago, eta historiako *paleta* ideologikoan korrante politiko adina adiera eta interpretazio aurkitu daitezke.

Bai generoen arteko harremanen diagnostikoa egiterakoan, bai pentsatzerakoan —konfigurazio hori aldatzeko joera duten proposamen politikoak egitean— boterea kontzeptualizatzeko modua estrategiko bihurtzen da.

Bizi garen gizartearen erabateko eraldaketaren aldeko borroka politiko eta sozialan pentsatzen dugunean, boterearen egikaritzea asimetrikoaren modalitateen aurrean mendekotasun-egoeran dauden gure biztanleriaren sektore ugariak osatutako subjektu sozial plural eta heterogeneo baten eraikuntzan pentsatzen dugu.

Modalitate horiek boterearen izaera polimorfoaren berri ematen dute; aitorten horri esker, boterearen analisiak saihesten dira dimentsio bakarrek adierazpen gisa, eta harreman-sare konplexua —oro har, baina ez soilik— izaera ekonomikoko harremanetara murrizten da. Ana Sojori (1988) jarraikiz, honako hau planteatu genuen:

«Botere-harreman asimetrikoari buruz dugun ikuspegiak proposatzen du eremu ekonomikoa ez izatea boterearen oinarri nagusia; politika, ideologia, kultura eta beste arlo asko aztertzea eskatzen du, bertan agertzen diren botere-moduak gizartearen antolaketa ekonomikoari buruzko ustezko funtzionaltasunera murrizten saiatu gabe, nahiz eta ekonomiarekin izan ditzaketen artikulazioak ulertzeko interesa mantendu».

Campioneek dioten bezala

«Zapalkuntza ekonomikoari, klasekoari eta aurrekoaren beso errepre-sibo gisa soilik ikusten zen estatu batek eragindakoari emandako lehentasun osoak beste zapalkuntza-modu batzuei buruzko ikuspegi oztopatzen zuten, eta, ondorioz, zuzenean, benetako ekintza kontrahegemonikoa artikulatzeko aukera oztopatzen zuten. Aldarrikapen etnikoen, generokoen, ingurumenekoen edo bestelakoen defendatzaileek arriskua zuten beren indar objektiboak desbideratzeko eta, aldi berean, zeuden ordenaren aurkakotzat hartzeko». (Acha, Campione, Mazzeo eta beste batzuk, 2007)

Boterea arlo ekonomikoarekin identifikatzen dutenengandik aldentzen garen bezala, esan behar dugu, halaber, boterea nonbait gauzatuta dagoen zerbait bezala ulertzen dutenen antipodetan aurkitzen garela, norbaiten jabe dela. Boterearen fetitxizazio horren ondorioz, muturreko analisiak sinplifikatzen dira, eta badirudi/balirudike alternatiba iraultzaile baten eraikuntza boteredunari boterea ateratzeko bezain handia izatearen mende dagoela. Boterearen ikuspegi hain instrumentalak, ezinbestean, politikaren eta antolaketaren ikuskera instrumentala dakar. Bi analisi erredukzionistetatik, sinplistetatik eta dialektikoen kontrakoetatik urrunduz, boterearen ikuspegi erlazional baten alde egiten dugu, gizonen arteko harreman oro (*sic*) botere-harreman bat dela ulertuz, subjektua gizarte-harremanen bilgarri bat den heinean (Acha, Campione, Mazzeo eta beste batzuk, 2007).

Aurrerago ikusiko dugunez, boterearen ikuskera horrek ere zailtasun handiak dakarkio politikaren eta antolaketaren kontzepzioari. Gure ustez, boterea eraikuntza bat da, eta, sektore hegemonikoez egikaritzen duten heinean, menderatzeko balio du; era berean, emantzipaziorako baldintza hobek sor ditzake, baldin eta mende sektoreek sortzen, ekoizten eta gauzatzen badute.

Campionek dioen bezala, «horrek esan nahi du boterea ez dela hartu beharreko erakundeen multzo bat, baizik eta goitik behera aldatu beharreko gizarte-harremanen sare konplexu bat; horregatik, mende klaseen kontraboterea eraikitze beharra, herri-boterea. Bide zailagoa eta garestiagoa da, esku hartzen duten faktoreei dagokienez askoz konplexuagoa» (Acha, Campione, Mazzeo eta beste batzuk, 2007).

Harreman-multzo horren barruan, genero-harremanei erreparatzen diegu bereziki, eta ez dugu gutxiesten harreman horiek menderatze-harreman sozialekin duten lotura.

Fabbri, Luciano. 2013. Apuntes sobre feminismos y construcción del poder popular. 55-58. or.

Herri-boterearen ideiak zalantzan jartzen du botere-estrategia ulertzeko modu ortodoxo eta estatikoa. XX. mendean zehar, ezkerreko mugimendu ezberdinek ia erabat onartu zuten boterea ezarritako estatu-erakundeetan kokatzen zelako ideia, eta, beraz, botereari aurre egitea eta irabaztea estatu-aparatuaren boterea hartzetik pasatzen zen, dela bide insurrezionaletik, dela hauteskundeetatik (Mazzeo, 2007; Rauber, 2004). Jarrera libertarioetatik zein marxistetatik garatu den ikuspegi heterodoxoago eta dinamikoago batetik, botere-estrategia bat planteatzen da, boterea hartzetik boterea eraikitzaera igarotzen dena. Ikuspegi horren arabera, iraultza sozial bat ez da elite politiko batek diseinatutako eta zuzendutako «boterea hartzea» (bi-tarteko erreformisten edo politiko iraultzaileen bidez), baizik eta beste botere-modu baten benetako ekoizpena, zeina, beraz, gizarte zaharraren «desegiteari» baitagokio (De Angelis, 2019: 98). Horregatik, boterea hartzetik boterea eraikitzaera igarotzea borrokaren modalitateak agertoki politiko bihurtzearen parekoa da. Kontua ez da

gizarte-sektoreak antolatzea gerrilla-borrokan edo hauteskunde-borrokan parte har dezaten; aitzitik, subjektu politikoak sortzen dira, eta subjektu horien helburua da tokiko eta lurraldeko botere-metaketa gero eta handiagoa izatea, demokrazia berri batean oinarrituta gizartea eta estatua eraikitzen doazenak (Medina, 2015: 161). Ikuspegi horretatik begiratuta, herri-boterearen instantziek edo guneek, hala nola, botere eraikiak, gizaki sortzailearen egitetik sortutako botereak eta subjektu solidarioen ekin-tza erradikalek testuinguru egokia sortzen dute.

Gizarte-harremanak gizabanakoengandik independenteak ez direla eta gizarte-mugimendu osoaren adierazpena ere ez direla hautemateko gaitasuna duen kontzientzia garatzeak kapitalaren loturatik (materialeetik) kanpoko gizarte-bizitzarako baldintzak sortzen ditu, aldaketa-balioetik kanpo (pertsonek arteko harremanak gauzen arteko harreman bihurtzen ditu). Era berean, mendeko klaseak beriz elkartzea errazten dute, haien batasun organikoa eta kapitalarekiko antagonista izaera eraikitzen edo indartzen dituzte (Mazzeo, 2007: 3).

Estatua eta gizarte-hegemoniaren aldeko borroka herri-boterearen eraikuntzarekin lotuta daude. Boterearen ideia eta Estatuaren ideia banaezinak dira modernitatean; beraz, ezin da botereari buruzko eztabaidarik (kasu honetan, herri-boterea) izan Estatuaz hitz egin gabe (Acha, 2007: 31). Estatuak osotasun sozial konplexu baten boterearen zati bat osatzen du, eta, boterea eraikitzekeko estrategia batean, kontuan hartu behar da; gainera, ikuspegi zabalarekin, Estatu bera, klase dominatzaileen nagusitasuna erreproduzitzeko egitura multzo gisa ulertu behar da (Caviasca, 2007: 40). Horregatik, mendeko klaseek estatuaren boterea erabiltzea une instrumentala litzateke, bloke hegemoniko berri bat sortzeko prozesuan (Mazzeo eta Stratta, 2007: 12). Herri-boterearen eraikuntza estatuaren kanpotik eta barrutik egindako jatorrizko boterearen metaketa gisa planteatzen da, klase zapalduetako Estatuaren boterearen (Estatua zentzu zabalean) zati handi bat beren eskuetan uztea erraztuko liekeena, botere duala eratzeko eta hegemonikoa bihurtzen saiatzeko. (Caviasca, 2007: 48). Botere dual horrek estatalitate alternatibo bat ekarriko luke, zeinean herri-botereak gobernuaren funtzioak betetzeko gaitasuna adierazi bailezake, estatu burgesarekin lehian, berriaren eta zaharraren arteko borrokan (Caviasca, 2011: 66). Dominatzaile klasearekin garatu beharreko lehia argiaz ari gara (Mazzeo eta Stratta, 2007: 14). Bere proiektuarekin, herri-botereak zalantzan jartzen du klase nagusiek gizarte osoarekiko hegemonia garatzeko duten gaitasuna, eta ez soilik Estatuaren boterea (Caviasca, 2011: 25).

Proiektua: herri-boterea alternatiba soziopolitiko gisa

Herri-boterearen ideia zuzenago lotzen zaio subjektuaren ideiarekin, baina gizarte-proiektu gisa gaintzen du. Herri-botereak askapenaren etika eratzen duen oinarria izendatzeko modu gisa eraikitzen du bere proiektua, hau da, proiektu emantzipatzailearen euskarri eta helburu gisa (Mazzeo, 2006: 38). Zapalkuntzak gaintzeaz gain, aro aldaketa baten aurreikuspena adierazi behar du, eta, beraz, erabatekoa

izan behar du, produkzio-harremanen aldaketa eta munduaren ikuspegiaren aldaketa, klase zapalduen balio berriak unibertsalizatzeko joera adieraziko lukeena (Caviasca, 2011: 19). Askapen-etika horretatik, zibilizazio kapitalistaren zapalkuntza-sistema anizkoitzaren zapalkuntza-forma historiko desberdinei kontrajartzen zaie: esplotazio ekonomikoa eta gizarte-bazterketa; zapalkuntza politikoa demokrazia formalaren esparruan; diskriminazio soziokulturala (etnikoa, arrazakoa, generokoa, adinetakoa, eskualdeetakoak, besteak beste); eta naturaren gaineko bidegabekeria ekologikoa (Valdés, 2001: 49). Beraz, menderatzeak gainditzeko praktikari eta espazioari dagokienez, gizartearen eraikuntzan ikuspegi antiklasista, antipatriarkala eta antirrazista integratzea planteatzen du. Hori dela eta, kokatuta dauden feminismoen barruan (amerikarrak, deskolonizatzaileak, arrazakeriaren aurkakoak, antiheterosexistak eta antikapitalistak) ekarpen teoriko zein praktikoak egin daitezke, gizarte-aldaketaren aldeko borrokan ari diren gizarte- eta herri-mugimenduek gorpuztutako bilaketa emantzipatzaileak erradikalizatzeko ahalmen handiarekin (Fabbri, 2013: 139). Herri-boterearen proiektua beti sortzen da intersubjektibitate horizontaletik eta altruismoa, elkartasuna eta lankidetzaren nagusi diren gizarte-harreman berrietatik. Horregatik, kapitalaren gizarte-harreman kritikoen eta alternatiboen eraikuntzan oinarritutako proiektua herri-boterearen eraikuntza da (Mazzeo, 2006: 73), gizarte-metabolismo berri baten proiektua, aldi berean emantzipazioaren tresna eta azken helburua den eraikuntza (Mendez, d.g.: 11), herri-boterea helburu eta bitarteko izanik. Horrela, bada, klase zapalduen beren kabuz forma politiko, sozial, kultural, ekonomiko eta militarren garatzeko duten aukerarekin lotzen da (Caviasca, 2011: 25), eta, zentzu horretan, herri-boterearen proiektu holistiko eta integralak igortzen du bizi-baldintza sozialen gaineko boterea erabiltzera eta kapitalaren ordezkari ordena sozial metaboliko eraginkor eta demokratikoa kontrolatzera (Mazzeo, 2006: 194).

Herri-botereari buruz

Herri-boterearen bidez, mendeko klaseen biziguneak (lanekoak, ikastekoak, birsortzekoak, etab.) gizarte-botere alternatibo eta askatzaile baten zelula eratzaile bihurtzen dira, posizioak irabazteko eta boterearen eta indar-harremanen antolamendua aldatzeko aukera ematen diena, eta, jakina, eremu kontrahegemoniko baten sendotzean aurrera egiteko aukera ematen diena. Aurrerapen sozial eta politikorako espazioak dira, eta bertan ahalik eta errealena bizi da (herri-botereak eraldaketa bat kontsumitzen du eta, aldi berean, eraldaketa berrietara irekitzea ahalbidetzen du). Espazio horien moduak politika burgesaren ardatz nagusiei kontrajartzen zaizkie, bai eskuineko bertsioetan, bai «aurrerakoietan»: emandakoa administratzea eta funts utopikorik gabeko lageztatzea.

Herri-boterea Estatutik pentsatzea bera gabe pentsatzea bezalako infantilismoa da. Herri-botereak herriaren gobernu-kontzientzia zabaltzeko beharra onartu behar du; bestela, kontzientzia hori eliteen ondare eksklusiboa izan dadin edo gutxieneko unita-

teen gobernuan soilik ager dadin lagundu dezakegu. Herriaren gobernu-kontzientzia, ikuspegi sozialistatik, Estatuaren abolizioaren aldeko borrokaren lehen unea da.

Botere nozioaz dihardugunean, aldendu beharra dago giza espeziaren korrosiorako pizgarria ikusten duen edozein kontzepziotatik. Gizonen arteko harreman oro botere-harreman bat da, subjektua gizarte-harremanen bilgarri bat den heinean. Gizarte-harremanen izaera desberdina ukatzea giza eduki oro kentzea da.

Herri-botereak aginte-moduak garatzea eskatzen du. Baina aginte horizontala, demokratizatua, heterarkikoa. Bide horretan, herri-boterea eraikitzen duten jardunbideek erakundetze berri bat dakarte, etorriko den gizartearen formak iragartzen dituen.

Botere popularra botere bat da objektibatzen, manipulatzeko eta ustiatzen dituzten potentziak desaktibatzeko, herriari bere akordioez, kohesioaz, gauzapenez gozatzeko aukera ematen dion boterea, finean, «bizitzeko» aukera ematen diona.

Estatu oro nazioaren ideian oinarritzen den bezala, boterea pentsatzea harreman sozial jakin batzuk gauzatzen diren lurraldea pentsatzea da. Herri-botereak gizarte-lurraldetara erazten du, non mendeko klaseen autoemantzipazio-gaitasunak adierazten diren.

Herri-boterea gure izaera periferikotik pentsatzeak pentsarazten du subjektu plurala dela, sektore anitzekoa, gizarte-sektore ugari artikulatzeko gai den gizarte-subjektu anitza. Subjektu herrikoa ez da errealitatearen datu bat; aitzitik, proiektuan adierazten den eraikuntza bat da. Subjektu anitz hori artikulatzeko konplexutasunean datza herri-botereko instantziak sortzeko aukera. Hala ere, artikulazioa ez da gertakari magikoa. Burgesiak oztupoak jartzen dizkio bere interesei kalte egin diezaikeen guztiari. Nagusitasun kapitalista ez da zuzenean bere egitura sozialetatik eratorzen, ahuldu beharreko hegemonia burges bat dago.

Ezin da boterea behetik pentsatu herri borrokei zentzua ematen dien narrazio bati forma eman gabe, klase menderatuen sentimendua eta pentsamendua aitortzen duen istorio propio bat sortu gabe?. Herri-boterea pentsatzeak berekin dakar, Walter Benjamin parafraseatuz, Historia indarrez orrazteko ahalegina.

Herri-boterea ez da populista. Herri-boterearen eraikuntzan, mendeko klaseen berzko proiektu baten oinarriak ikusten dira, eta nagusi diren sektoreei nagusitasuna ematen die.

(Miguel Mazzeo eta Fernando Stratta. 2007. Reflexiones sobre poder popular. 11.-14. orr.).

Herri-botereak, proiektu gisa, demokrazia komunalaren ideia eta praktika dakartzu berekin, demokrazia liberaletik bereizten dena, bai proiektuaren ideian, bai subjektuaren ideian. Proiektuari dagokionez, demokraziaren ideia modernitatean eraikitzeko hipotesiak zalantzan jartzen ditu. Demokrazia liberala jabetza pribatua, merkatu-ekonomia eta balio indibidualistak defendatzeko eta garatzeko modu politiko gisa eraiki

bada (Mises, 1996; Laval eta Dardot, 2014; García Linera, 2016), demokrazia komunalak kontrajartzen ditu jabetza sozialaren edo komunalaren ideiak, merkataritzakoa ez den ekonomia bat eta balio komunitarioak, eta zalantzan jartzen ditu patriarkatuaren sustraiak, egiturazko arrazakeria edo lurraren gaineko abusua (Bookchin, 2019; Federici, 2019; Patzi, 2009; Fabbri, 2013; Zabala, 2015; Negri, Hardt, 2011). Demokrazia komunalaren ideia planteatzen duen proiektua XIX. mendeko tradizio anarkista eta komunistarekin lotu daiteke, baina baita XVIII. mendeko langileen proiektu kooperatiboekin, eta sindikatuekin edo gremioen borrokekin, ere, edo XVII. mendeko herri lurren edo indigenen herrien defentsarekin ere (Bookchin, 2019; Azzellini eta Ness, 2017; Vargas eta Sanoja, 2017). Demokrazia komunalaz hitz egiteak gizarte antolatzeke moduz ikuspegi holistiko batetik hitz egitea esan nahi du, barruan bizitza ekoizteko, erreproduzitzeko, dinamizatzeko eta hedatzeko moduen integritasuna onartuz: administrazioa, kudeaketa, ekonomia, kultura, osasuna, hezkuntza, informazioa, komunikazioa, eta abar. Gizarte-harremanez, ekoizpen-harremanez, kontsumo-harremanez, banaketa- eta kudeaketa-harremanez eta abarrez ari gara. Horregatik, logika komunalak demokrazia ikuspegi liberalarekiko guztiz desberdina den modu batean ulertzen du, bai formetan, bai edukietan.

Alta, autodeterminazio-eskubidearekin pareka daitekeen kontzeptu horren lehen erabileretako bat Euskal Herrian egin zen (López, 2013A). Izan ere, Europan eratu ziren estatu berrien eraginpean, 1989an Alemania berriz elkartu ondoren, eta Irlandako bake-prozesuak lagunduta, XX. mendeko azken hamarkadan giro aproposa sortu zen euskal nazionalismoaren familietan euskal arazoari irtenbide berriak elkarrekin bilatzeko. Hori 1998an gauzatu zen, Euskal Herriko eragile politiko, sozio-ekonomiko eta kultural nagusiek lortu zuten ekintza-akordioarekin, *Lizarra-Garaziko Akordioa* deitutakoarekin.

Aldeko testuinguru horretan, nazioarteko jurisprudentziak zekarren oztupoa gaindi zezaketen formula emantzipatzaile berriak aztertu ziren, betiere irizpide demokratikoari lotuta. Horrela, bada, autodeterminazio eskubidea teorizatu zen, aldatetarako prozesu politiko eta demokratiko gisa (Zubiaga, 1999), edo hura demokratikoki gauzatzeko bideak eta tresnak proposatuz (Zubiaga, 2002). Ekarpene horiek guztiak oinarri gisa erabili ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutu Politikoa erreformatzeko ekimenerako, Juan Jose Ibarretxe orduko lehendakariak aurkeztua, eta Eusko Legebiltzarrak 2004an onartua. Bere ibilbide instituzionalean inolako arrakastarik izan ez bazuen ere (berehala blokeatu zuten Espainiako Parlamentuan), haren irizpide teorikoez balio izan zuten gerora Kataluniatik etorriko zen estatutu-proposamen teoriko baterako, eta, batez ere, Kataluniako *procés* delakoaren aberaste teoriko eta praktikorako.

Erabakitzeko eskubidearen definizio baterantz

Erabakitzeko eskubideaz hitz egitean sortzen den lehen zalantzetako bat autodeterminazio eskubidearekin duen harremana da. Iritzi bat baino gehiago dago horretaz: sezesioa erabakitzeko (edo ez erabakitzeko) eskubidetzat hartzen dutenak (Zubiaga, 2014); kontzeptu berrian «bilakaera estrategiko-diskurtsiboa» ikusten dutenak (Vilaregut, 2011); edo kategoria politiko berri gisa, hau da «neologismo» gisa (López, 2013B; Rida, 2014), ikusi eta autodeterminazioaren teorikiko desberdintasunak handitu nahi dituztenak. Interpretazio guztiek, ordea, badute zerbait komun: garrantzitsuena prozesuaren legitimazio demokratikoa da (Urrutia *et al.*, 2012), erradikalismo demokratikoaren printzipiotik abiatzen baita beti (López, 2011).

Horrela, erabakitzeko eskubidea ez da ulertzen aldarrikapen independentista edo sezesionista gisa soilik, demokraziaren kontzeptzio zehatzari lotua baizik. Testuinguru demokratikoetan agertzen da, eta esparru politikoan sortzen den eskaera orori

erantzuteko formula izan nahi du, demokraziak horretarako duen potentzialtasunetik abiatuta, independentzia eskaria barne (Vilajosana, 2015). Horrela ulertuta, argi dago erabakitzeo eskubideak lotura kontzeptualak dituela autodeterminazio-eskubidearekin, sezesio-teoriekin eta gutxiengoaren eskubideekin. Ikus dezagun nola azaltzen dituen Lópezek (2015).

Autodeterminazio eskubidearekin duen harremanari dagokionez, lehenik, erabakitzeo eskubideak bide bat eskaintzen die herriei gatazkak kudeatzeko, demokraziaren joko-arauen esparruan askatzeko. Izan ere, oinarrizko bi ideia biltzen ditu: herrien askatasun-nahia betetzea (autodeterminazio-eskubideak aitortua), eta borondate hori bide demokratikoetara ekartzea. Nolabait, Lópezek uste du (2015) erabakitzeo eskubideak autodeterminazio-eskubidea demokratizatzen duela.

Sezesioarekin duen harremanari dagokionez, bigarrenik, erabakitzeo eskubideak harreman estua sortzen du sezesioaren eta demokraziaren artean, hau da, sezesioaren teoria plebiszitarioetatik abiatuta, ikuspegi juridiko berria sortzen du. Horrela, sezesioa askatasun indibidualaren bidetik justifikatzen da, hau da, komunitate politiko bat osatzen duten norbanakoen borondatezko erabakitik. Erabakitzeo eskubideak, beraz, sezesioa legitimatzen du irizpide demokratikoaren hedapen gisa, eta irizpide hori edozein erabaki politikoren muinean agertu behar da, baita lurralde-mugei buruzko erabakietan ere.

Eta hirugarrenik, gutxiengoaren eskubideekiko harremanari dagokionez, erabakitzeo eskubidea desberdintasun-egoera baten aurrean ere gauzatzen da, Estatuak bere lurraldearen zati batekiko duen desberdintasun-tratamenduaren aurrean. Erabakitzeo eskubidearen helburua, tratu pribilegiatua eskatzea baino, konponbide demokratikoa lortzea da, estatuz azpiko lurraldeen desberdintasunak eta zehaztasunak kontuan hartuta. Egitura instituzionala berreraiki nahi da, berdintasun-egoera baten bila. Kasu honetan, desberdintasun edo diskriminazio-egoera ez da hizkuntza edo kulturabaldintzetatik sortzen, borondate demokratikoen talkatik baizik (López, 2015).

Testuinguru kontzeptuala azalduta, hurbil gaitezen orain erabakitzeo eskubidearen definiziorantz. Hiru ezaugarri garrantzitsu aipatuko ditugu:

- Irizpide demokratikoaren adierazpen erradikala da. Hau da, nahi diren gai guztiei buruz mugarik gabe erabaki ahal izatea aldarrikatzen da, baita funtsezkotzat jotzen den egitura instituzionalaz ere, adibidez (López, 2011).
- Subjektuari dagokionez, eskubidearen titulartasuna *demosarena* da, lurralde zehatz eta demokratikoki antolatu batean kokatutako erkidegoarena, alegia. Eskubide indibiduala da kolektiboki egikaritzen dena (Barceló, 2015).
- Bi gaitasun elkartzen ditu. Batetik, adierazpen gaitasuna: *demosaren* (hau da, komunitate jakin baten) borondatea ezagutzera zuzendua. Bestetik, berme gaitasuna, erabakitzeo eskubideak adierazitako borondatea bermatzera dator, gauzatze gaitasuna dei genezakeena. Izan ere, bigarren gaitasun honen gauzatzearekin bakarrik hartzen du erabakitzeo eskubideak zentzua eskubide autonomo gisa, eta orduan garatzen da eskubidearen eduki zehatza (Barceló, 2015).

Azken atalean itzuliko gara bi gaitasun horietara. Orain, berriz, gu lurralde gatazkak konpontzeko dimentsioan zentratuko garen arren, erabakitze eskubidea osotasunean ulertzeko, mereziko luke bere alde erradikal-demokratikoan ere momentu batez gelditzea.

Erabakitze Eskubidearen ikuspegi erradikal-demokratikoa

Bere bilakaeran, oso eremu eta une desberdinetan erabil daitekeen tresna erradikal demokratiko gisa osatuz joan da erabakitze eskubidea. Hori dela eta, zuzenbidearen ikuspegitik, ezinbestekotzat jotzen da subiranotasun kontzeptua berriz kontzeptualizatzea, gutxienez hiru zentzutan.

1. Alde batetik, beharrezkoa da botere konstituziogile bat, subiranotasuna modu dinamikoan eta ez dogmatikoan ulertuko duena. Botere konstituziogile instituzionalizatu batez ari gara, zuzenbide-estatuarekin batera iritzi publikoaren askatasuna eta parte-hartzearen printzipioa jasoko dituen (Arendt, 1990), eta ez, ordea, botere absolutu eta ez-instituzionalizatu batez, hutsune legal batean kokatua, erabateko haustura dakarten iraultza handien bidez bakarrik gauzatu daitekeena. Ezinbestekoa da esparru juridikoak ideien eta aldarrikapenen etengabeko fluxua islatzea batzar eratzaileren, botere instituzionalen eta gizartearen artean (Pisarello, 2014).
2. Bestalde, subiranotasuna ez da ulertu behar botere bakar gisa, batasun banaezina eta betierekoa dakarrena, baizik eta botere praktikoa gisa, eskala askotan eta subjektu-aniztasun baten alde egikaritu daitekeena. Botere konstituziogilea botere ireki eta dinamiko gisa ulertzen badugu, zalantzan jarri behar dugu subjektu eratzaileren existentzia subjektu iraungiezin gisa. Hau da, aukera ematen da komunitate politiko jakin baten garapenean subjektu konstituziogilearen legitimitatea zalantzan jartzeko eta berri bat sortzeko. Federalismo plurinazionalaren teorietatik errealitate berri horiek egokitzeko modu bat aurkitzen dugu, *demos* bakarraren ideia zalantzan jarriz, eta nazio anitzen arteko artikulazioa eta botere konstituziogile berri baten sorrera legitimatuz (Máiz, 2008).
3. Azkenik, erabakitze eskubidea tresna erradikal-demokratiko gisa ulertu ahal izateko, kontuan izan behar dugu nola garatu duten teoria feministek subiranotasun kontzeptua, lurralde kontzeptuarekin batera. Horrela, feminismoak subiranotasuna edo autodeterminazio-eskubidea birpentsatzeko beharra ezarri du, bizitza erdigunean kokatuz. Hau da, subiranotasuna gure bizitzetara buruz erabaki ahal izateko gaitasun gisa ulertzen da: bizi nahi ditugun bizitzetara, eta horretarako behar ditugun baliabideen (sexualitatea, identitatea, zaintzak, ekonomia) gaineko gaitasuna (Verge, 2018). Horrela, subiranotasuna lurraldearekin lotuta egoteaz gain, bizitza erdigunean jartzean, feminismoak gorputzak gurutzatzen dituen subiranotasunaz hitz egiten du, baita horien gainean erabakitze gaitasuna izateaz ere (Gabriel, 2018).

Horrela ulertuta, erabakitzeko eskubideak gaitasuna luke hainbat gatazka desberdini irtenbidea eskaintzeko, baina hemen bere zentzu klasikoenarekin jarraituko dugu, lurralde gatazkei dagokienarekin, alegia.

Erabakitzeko eskubidea eta lurralde-gatazken soluziobidea

A. ESTATU BERRIAK SORTZEKO BIDEAK

Autodeterminazioak ez du zertan sezesiorako eskubidea bakarrik izan. Aitzitik, ulertzen da herriak estatus politikoa modu askean determina dezakeela, eta sezesioa estatus posibleetako bat izan daitekeela (Álvarez, 2006). Hala ere, ukazina da autodeterminazioaz aritzean estatu berrien sorrera aipatu behar dela nahitaez.

Estatu berrien sorreraren historiari erreparatuz, esan daiteke independentziarako aukerak bolada edo olatu-kolpe gisara gertatu direla munduko sisteman, botere-harremanen berrosaketari loturik normalean. Une hauek gerrate edo maila unibertsaleko oihartzuna zuten erregimenen deskonposizio momentuetan gertatu dira (Letamendia, 1997). Are gehiago, sezesioak gerra testuinguruetan gauzatzen dira gehienetan, «salbuespenak gutxi eta ia denak eztabaidagarriak» izanda (Blas, 2015: 260). Edo urrunago joanda, Fontanak (2013) independentzia gerra batekin soilik lor daitekeela dio. Horrelako berrosaketa, krisi edo gerra bat izan arte (hau da, sezesiorako aukera politikorako egitura aproposa lortu arte), askapen nazionaleko mugimenduek egonkortasun edo erreforma prozesu egoeretan autonomismoa bultzatzeko joera dute, burujabetza esparruak irabazteko (Sorens, 2012).

Gure testuingurura ekarriz, egun Europar nabarmendu diren mugimendu sezesionistak (Eskozia eta Katalunia, bereziki) krisialdi ekonomikoagatik indartu dira, 2008tik gaur egun arte (Letamendia, 2013). Zenbait kasutan, gainera, krisialdi hori liberalizazio prozesuei loturiko berzentralizazio prozesuekin lagunduta agertu da, erakunde funtzionamendua hobetzeko bikoizketekin amaitu behar delako aitzakiapean (Letamendia, 2013: 156).

Krisi eta zentralizazio prozesu horiei aurre egiteko, Estaturik gabeko nazioek zein burujabetzaren aldeko komunitate politikoek bide demokratikoetan oinarritutako diskurtsoetan jarri dute fokoa, eta erreferenduma izan da askotan mintzagai nagusia. Azal dezagun zerbait.

B. ERREFERENDUMAK ESTATU BERRIEN SORRERAN

Praktikan, independentzia erreferendumak oinarritzko arau bihurtu dira gaur nazioartean estatu berriak aitortzeko (Requejo eta Sanjaume, 2019: 2). Erreferendum horiek modu desberdinean antolatzen dira: Ama-Estatuekin eginiko itunen bidez gara daitezke, eta kasu gutxi batzuetan prozedura horiek konstituzionalki jasotzen dira; edo, aldebakartasunez bultza daitezke, eta nazioartean zilegitasuna bilatzea

da helburua. Erreferendum adostu eta ez adostuak aurkitu ditzakegu, hortaz. Lehenengo ildoari jarraituz, nolako garapena eduki dezaketen ikusiko dugu.

Erreferendumen konstituzionalizazioa

Autodeterminazioaren konstituzionalizazioa aipatutako *prozedura teoriak* garatzen dute, eta autodeterminazio eskubidea arautzeak nolako onurak dakartzan azaltzea du helburutzat. Hala ere, prozedura teoriaren barnean ere ikuspegi ezberdinak aurkitu daitezke: batzuk bidezko kausen teoriari lotuago daude (bidezko kausa bat eskatzen da sezesioa egikaritzerako); eta besteak, berriz, urrundu egiten dira, eta alde batera uzten dute bidezko kausa bat egotea edo ez.

Lehenengo joerari lotuta, Normanek (2002) sezesioaren konstituzionalizazioa proposatzen du, era horretara, bidezko kausa bat aurkeztu dezaketenez erraz izango baitute sezesioa lortzea; eta bidezko kausarik aurkeztu ezin dutenek, berriz, oztopo argia edukiko baitute aurrera egiteko. Hortaz, sezesioa egitura demokratikoekin bateragarri bihurtzea da helburua. Modu horretan, «sezesioa demokraziaren ondorio da, edo demokraziarekin bateragarria da, baldin eta sezesiorako arrazoizko prozedura bat ezarri ahal badugu ordena konstituzional justu eta demokratiko batean» (Norman, 2002: 90). Are gehiago, sezesio konstituzionalerako klausula batek Estatu kontsentsuz batua dagoela irudikatuko luke, eta ez soilik indarrez (*ibidem*: 95). Era berean, «prozesu legal batek ziurtatuko luke ez legokeela inoiz zuzenbide-estatuarekin hausturarik» (*ibidem*: 96). Arauketaren aldeko teoria hauek, beraz, arautzeak berak Estatuaren legitimazio maila handitzen duela argudiatzen dute, sezesiorako eztabaida berme formalekin garatzen bada, eragile guztiek alde aurretik ezagutzen dituzten joko arauak izango baitituzte (Moreno, 2019: 319).

Prozedura teoriaren bigarren ikuspegian, ordea, ez da bidezko kausarik eskatzen autodeterminazioa egikaritzeko. Weinstockek (2000) kasurako, ikuspegi *rawlsiar* batek garatzen du bere teoria, eta sezesioaren arauketa estatu multinazionaletan gertatzen diren gatazkak konpontzeko modurik bidezkoena dela defendatzen du. Izan ere, uste du nazio gutxiengoeigutxiengo nazionalen sezesiorako eskubidea aitortzeak sezesiorako aukerak gutxitzen dituela; are gehiago, batasun politikorako sentimenduak indartuko lituzkeela defendatzen du: «Estatu handiago batean geratzearen edo harrengandik banatzearen abantaila erlatiboen kostu/irabazien zentzuzko analisi batek seguruenik geratzearen alde egingo luke» (Weinstock, 2000: 262). Ildo beretik, Dignonnek (2013) uste du sezesio eskubidearen errekonozimendu konstituzionalak zailduko lukeela Estatuak gobernatzen dutenek nazio gutxituen aldarrikapenei muzin egitea, haiek normalean nazio nagusi eta menderatzailearekin lerrokatuta egoten dira eta.

Mancinik (2008) ere gutxiengoen eskubideen defentsarekin lotzen du sezesioa: «zentzuzko sezesio klausula batek ez du sektore aberats edo sendoagoen alde jokatuko, eta era berean, ez du banatzekoak ez diren azpiunitateak banatzera bultzatuko, bidezko dibortziorako lege batek ezkontide aberatsenaren alde jokatzen ez duen bezala, edota elkar maite duten bikoteak dibortziazera bultzatzen ez dituen bezala» (Mancini, 2008: 584).

Hala ere, autodeterminazioa konstituzionalki jasota duten herrialdeak oso gutxi dira mundu osoan. Saint Kitts eta Nevis, eta Etiopia dira prozedura argiak konstituzionalki jasotzen dituzten herrialde bakarretakoak (Moreno, 2019; Requejo eta Nagel, 2017). Bietan ala bietan erreferendumak eginkizun(?) zentrala jokatzeko du sezesiorako prozeduran. Saint Kitts eta Nevisen kasuan, Konstituzioak egitura federal baten bidez antolatzen ditu Saint Kitts eta Nevis uharteak, eta autogobernu maila handia aitortzen dio bakoitzari. Halaber, Saint Nevis uhartearen sezesiorako prozedura ere arautzen eta garatzen du. Beste aldetik, Etiopiako Konstituzioa ere oso aztertua izan da, arlo honetan dituen berritasunengatik. Hurrengo koadroan zehatzago jasotzen da

XIII. TAULA

Autodeterminazioa eta sezesioa munduan

Etiopiak autodeterminaziorako eta sezesiorako eskubideak jasotzen ditu 1994ko Konstituzioaren 39. artikuluan:

39. artikulua. Nazioen, nazionalitateen eta herrien eskubideak

1. *Etiopiako nazio, nazionalitate eta herri orok determinazio askerako baldintzarik gabeko eskubidea du, sezesiorako eskubidea barne.*
2. *Etiopiako nazio, nazionalitate eta herri orok eskubidea du: bere hizkuntza propioan hitz egiteko eta idazteko, eta hura garatzeko; bere kultura aditzera emateko, garatzeko eta sustatzeko; eta bere historia zaintzeko.*
3. *Etiopiako nazio, nazionalitate eta herri orok autogobernu maila gorenerako eskubidea du. Horren barruan sartzen da bakoitzaren lurraldean gobernu instituzioak ezartzeko eskubidea, eta bidezko ordezkariak izateko gobernu federaletan eta estataletan.*
4. *Nazio, nazionalitate eta herri ororen autodeterminaziorako eskubidea, sezesioa barne, indarrean sartuko da:*
 - a) *Interesa erakutsi duten Nazio, Nazionalitate edo Herrien Kontseilu Legegileko kideen bi herenen gehiengoak sezesio-eskaera onartu duenean;*
 - b) *Gobernu federalak erreferenduma antolatu duenean, dagokion kontseiluaren sezesiorako erabakia eman eta hiru urtera bete behar dena*
 - c) *Sezesiorako errebindikazioa erreferendumean gehiengo osoz bozkatu denean*
 - d) *Gobernu federalak bere eskumenak transferitu dizkionean sezesiorako botoa eman duen nazio, nazionalitate edo herriaren Kontseiluari.*
 - e) *Baliabideen banaketa legez ezarritako moduan egiten denean.*
5. *Konstituzio honen xederako, «nazioa, nazionalitatea edo herria» pertsona multzo bat da, neurri handi batean partekatzen duena: kultura komun bat edo antzeko ohiturak, hizkuntzaren elkar-uler-garritasuna, identitate komuna edo erlazioatua, egitura psikologiko komuna, eta bereizgarria den lurralde batean bizi dena, fisikoki banatu gabekoa gehienbat.*

Etiopiaren eta Saint Kitts eta Nevisen kasuez gain, beste zenbait konstituziotan ere jasotzen da sezesio klausula, hala nola, Liechtensteineko, Eslovakiako, Hegoafrikako, Sudango eta Afganistango konstituzioetan (informazio gehiagorako, Requejo eta Sanjaume, 2019). Halaber, Sobietar Batasuneko konstituzioak ere jasotzen zuen Errepublika federatuen sezesiorako eskubidea. Beste maila batean, zenbait uharte autonomok ere jaso du autodeterminazioa gauzatzeko erreferedumen inguruko klausula espezifikorik: Groenlandia, Faroeak, Bougainville, Malvinak eta Kaledonia Berria, kasu (Ellis, 2018).

Adibide apurretakoak dira, diogunez, estatu gehienek lurralde-osotasuna konstituzio-ordenako elementu definitzaile gisa ezartzen baitute. Are gehiago, konstituzio-zuzenbiderako esparrua ere izan daiteke, edo baita oinarriko eskubideak erabiltzeko muga (Requejo eta Sanjaume, 2019).

Erreferendumak azken mendeen

Erreferendumak estatu berrien sorreraren legitimaziorako babes garrantzitsu izaten dira, baina tipologia desberdinak agertzen dira, testuinguru geopolitikoak eta beste faktore batzuen arabera moldatuak (Requejo eta Sanjaume, 2019).

Estatu berriak sortzeko erreferendumen erabilera orokortua Bigarren Mundu Gerraz geroztik gertatu zen. Tresna politiko eta legalki aproposa ikusi zen orduan nazioartean Ama-Estatutik banatzeko (Qvortrup, 2014). Era horretara, egun 193 estatuk osatzen dute Nazio Batuen Erakundea; I. Mundu Gerrako garaian, berriz, 50 bat ziren (Requejo eta Sanjaume, 2019: 2). Baina esanguratsua da tarte horretan (1945-2019) sortutako estatuen erdia inguruk erreferenduma erabili duela independentzia aitortpenaren aurretik edo ostean, eta guztira ehun bat erreferendum egin direla orduetik (Requejo eta Sanjaume, 2019). Epe horretan, Berlingo Harresiaren erorketak, 1989an, mugarría markatu zuen independentzia erreferendumen erabileran (Requejo eta Sanjaume, 2019; Qvortrup, 2014).

Izan ere, 1989az geroztik gertatutako erreferendumak aztertuta, hiru estatu multzo ikus ditzakegu. Lehenik, deskolonizazio prozesuari lotutakoak. Hauetan, nahiz eta gatazka gradu ezberdinetako biolentzia mailak bizi, erreferendumak potentzia kolonialaren oniritziarekin egin ziren, eta kasu askotan, nazioarteko onepenarekin edo/eta ikuskapenarekin. Bigarren multzo batean, hogeí kasu inguru daude, Sobietar Batasunaren eta Jugoslaviaren desegiteari lotuak, baina baita estatu horietako federazioen desegitetik sortutako lurralde-gatazka berriek ere. Eta azkenik, hamazortzi kasu daude itsasoz haraindiko lurraldeek lotuak (Requejo eta Sanjaume, 2019).

XIV. TAULA
Independentziarako erreferendumak, *de iure eta de facto*,
1945-1980 tartean

Kasua ¹	Estatua	Urtea	Parte-hartzea (%)	Independentziaren aldeko botoa (%)
Kanbodia	Frantzia	1945	80,3	100,0
Mongolia	Mongolia	1945	98,5	100,0
Faroe Uharteak	Danimarka	1946	67,6	50,7
Nagaland	India	1951	—	99,0
Aljeria	Frantzia	1961	73,8	75,0
Mendebaldeko Samoa	Zeelanda Berria	1961	77,6	85,4
Aljeria	Frantzia	1962	91,9	99,7
Malta	Erresuma Batua	1964	79,7	54,5
Rhodesia	Erresuma Batua	1964	61,9	90,5
Puerto Rico	AEB	1967	63,9	0,6*
Ekvatore Ginea	Espainia	1968	91,7	64,3
Anguilla	Erresuma Batua	1969	75,0	99,7
Iparraldeko Mariana uharteak	AEB	1969	65,3	0,6*
Komoreak	Frantzia	1974	93,3	94,6
Iparraldeko Zipre	Zipre	1975	70,0	99,4
Mikronesia	AEB	1975	52,6	59,1*
Marshall uharteak	AEB	1975	35,2	5,2*
Palau	AEB	1975	42,2	34,4*
Guam	AEB	1976	—	6,0*
Aruba	Herbehereak	1977	70,1	95,2
Djibouti	Frantzia	1977	77,2	99,8
Nevis	Erresuma Batua	1977	58,0	99,7
Quebec	Kanada	1980	85,6	40,4
Ciskei	Hegoafrika	1980	59,5	99,5
Palau	AEB	1983	78,6	44,4*
Mikronesia	AEB	1983	63,2	58,0*
Marshall uharteak	AEB	1983	83,0	4,41*
Cocos uharteak	Australia	1984	100,0	3,5*
Palau	AEB	1984	78,6	44,4*

¹ * Aukera anitzeko galdeketa.

** Lurralde argirik gabea: Paraná, Río Grande eta Santa Catarina.

*** Proposatuko autonomiari ezetza emateko babesa.

Oharra: Erreferendumen emaitzen datuen baliozkotasuna baxua da kasu batzuetan.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA: ESTATU BERRIAK SORTZEKO BIDE DEMOKRATIKOEN BILA

Kasua ¹	Estatua	Urtea	Parte-hartzea (%)	Independentziaren aldeko botoa (%)
Iparraldeko Zipre	Zipre	1985	78,4	70,2
Rehoboth	Namibia	1990	—	84,1
Estonia	Errusia	1991	83,0	78,4
Letonia	Errusia	1991	97,6	74,9
Georgia	Errusia	1991	90,6	99,5
Kroazia	Jugoslavia	1991	83,6	93,2
Mazedonia	Jugoslavia	1991	75,7	96,4
Armenia	Errusia	1991	95,1	99,5
Kosovo	Jugoslavia	1991	87,0	100,0
Turkmenistan	Errusia	1991	97,4	94,1
Gagauz Errepublikak	Moldavia	1991	85,1	95,4
Transnistria	Moldavia	1991	78,0	98,0
Ukraina	Errusia	1991	84,2	92,3
Nagorno-Karabakh	Azerbaijan	1991	82,2	100,0
Azerbaijan	Azerbaijan	1991	95,3	99,8
Uzbekistan	Uzbekistan	1991	94,1	98,3
Bosnia-Herzegovina	Jugoslavia	1992	63,7	63,4
Eritrea	Etiopia	1993	93,9	99,8
Virgin uharteak	AEB	1993	27,5	5,0*
Palau	AEB	1993	64,4	68,4
Puerto Rico	AEB	1993	73,5	4,5*
Curaçao	Herbehereak	1993	56,8	0,4*
Moldavia	Moldavia	1994	75,1	97,92
Saba	Herbehereak	1994	—	0,5*
San Eustakio	Herbehereak	1994	44,0	0,2*
San Martin	Herbehereak	1994	65,2	6,3*
Bonaire	Herbehereak	1994	66,5	0,2*
Bermuda	Erresuma Batua	1995	58,8	25,7
Hego-mendebaldeko Kamerun	Kamerun	1995	66,0	100,0
Quebec	Kanada	1995	93,5	49,4
Anjouan	Komoreak	1997	94,8	99,7
Nevis	St Kitts and Nevis	1998	58,0	61,8
Puerto Rico	AEB	1998	71,1	2,6*
Abkhazia	Georgia	1999	87,5	85,6
Ekialdeko Timor	Indonesia	1999	98,6	78,5***
San Martin	Herbehereak	2000	55,7	14,4
Chuuk	Mikronesia	2000	—	90,0
Hegoaldeko Osetia	Georgia	2001	—	60,0

Kasua ¹	Estatua	Urtea	Parte-hartzea (%)	Independentziaren aldeko botoa (%)
Somaliland	Somalia	2001	99,9	97,1
Bonaire	Herbehereak	2004	57,1	0,5*
Saba	Herbehereak	2004	77,8	0,8*
Kurdistan	Irak	2005	—	100,0
Curaçao	Herbehereak	2005	55,0	4,8*
San Eustakio	Herbehereak	2005	56,0	0,6*
Montenegro	Jugoslavia	2006	86,5	55,5
Transnistria	Moldavia	2006	78,6	96,6
Hego Osetia	Georgia	2006	94,6	99,9
Nagorno-Karabakh	Azerbaijan	2006	87,0	99,3
Hego Sudan	Sudan	2011	97,6	98,8
Puerto Rico	AEB	2012	78,2	5,5*
San Eustakio	Herbehereak	2014	45,4	0,4*
Eskozia	Erresuma Batua	2014	84,6	44,7
Krimea	Ukraina	2014	83,0	97,5
Donestk Oblast	Ukraina	2014	74,9	89,8
Luhansk Oblast	Ukraina	2014	75,0	96,2
Hego Tirol	Italia	2014	15,0	92,2
Hego Brasil	Brasil	2016	2,9	95,7
Katalunia	Espainia	2017	43,0	90,2
Puerto Rico	AEB	2017	22,2	1,5*
Kurdistan	Irak	2017	72,2	92,7
Kaledonia Berria	Frantzia	2018	80,6	43,3

Iturria: Requejo eta Sanjaume, 2019: 15-17.

Zeintzuk dira estatu berriak sortzeko tartean agertzen diren faktoreak? Gaian gehiegi sakondu barik, aipa ditzagun batzuk. Batetik, faktore legalak daude. Aipatu ditugu honezkero sezesioa legeztatuta egotea, erreferendumak, edo baldintzen negoziatio-prosezuak. Bestetik, faktore politikoak daude, adibidez, deitutako erreferendum batean parte-hartze masiboa izatea. Eta azkenik, inportanteena Qyortrupen (2014: 33) ustez, nazioarteko komunitatearen babesia eta, zehatzago, «Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluaren hiru kide «demokratikoren» babesia». Laburbilduz, ikusi dugunez, aitortza da gakoa.

Independentzia erreferendumen orokortasuna aztertuta, ikus daiteke horietako oso gutxi gertatu direla demokrazia liberaletan. Izan ere, testuinguru horretan garrantutako erreferendum bakarrak izan du independentzia ondorio modura: Montenegrokoa, 2006an. Gainerako kasuetan, emaitza independentziaren aurkakoa izan da,

bai independentziarako babesia ez zelako nahikoa izan, edo baita baldintza konstituzionalak bete ez zirelako. Kasu bat aipatzearen, Neviseko uhartean baiezkoaren aldeko % 61,8 ez zen nahikoa izan independentzia gauzatzeko, Konstituzio federalak markatzen zituen bi herenak gainditu ez zituelako.

XV. TAULA

Independentziarako erreferendurak demokrazia liberaletan

Kasua	Estatua	Urtea	Sezesioa	Parte-hartzea (%)	Independentziaren aldeko botoa (%)
Quebec	Kanada	1980	Ez	85,6	40,4
Quebec	Kanada	1995	Ez	93,5	49,4
Nevis	St Kitts eta Nevis	1998	Ez	58,0	61,8
Montenegro	Serbia eta Montenegro	2006	Bai	86,5	55,5
Eskozia	Erresuma Batua	2014	Ez	84,6	44,7
Puerto Rico	AEB	1967	Ez	63,9	0,6
Puerto Rico	AEB	1993	Ez	73,5	4,5
Puerto Rico	AEB	1998	Ez	71,1	2,6
Puerto Rico	AEB	2012	Ez	78,2	5,5
Puerto Rico	AEB	2017	Ez	22,2	1,5

Iturria: «Democracies and Independence Referendums. The Case of Catalonia» txostena (1/2010), Institut d'Estudis de l'Autogovern, Bartzelona, 2019.

Erreferendurak eta erabakitze eskubidearen prozedura

Lurralde gatazkak, sezesio aukerak, eta erreferenduma irtenbide demokratiko gisa aztertu ditugu orain arte. Azken puntu honetan hori dena erabakitze eskubidearen prozedurarekin lotuko dugu: zeintzuk izan daitezke eskubidea egikaritzeko tresna legal eta demokratiko egokienak? Izan ere, azken urteotan, erabakitze eskubidearen kontzepzioa garatzearekin batera, ugariak dira hura gauzatzeko bide, prozesu edota tresnen inguruan sortu diren eztabaidak. Lehenago esan dugunez, erabakitze eskubideak bi gaitasun dakartza, bi momentu edo fasetan gauzatuak: adierazpen fasea eta egikaritze fasea (Barceló, 2015: 116). Gaiari sartzeko, bi fase horietan sakonduko dugu.

Batetik, adierazpen fasean, erabakitze eskubideak bi betebeharrak ezartzen dizkie botere publikoei. Lehena, ez oztopatzea, mugatzea edo eragozteia ideia edota proiektuaren adierazpena eta formulazioa. Horrek esan nahi du posizionamendu kolektiboaren traba eta eragozpenik gabe heldu beharko litzatekeela botere publikoen eskuetara. Eta bigarren betebeharrak, herritargoari beharrezkoak izango dituen beste

tresna legal eskaintzea, bai borondatea adierazi ahal izateko, eta baita adierazi nahi diren borondateen batuketan batasunez eta zentzu politiko horritu ahal izateko ere, batik bat erreferendum baterako deia eginez, edota bestelako tresna politiko kolektiboak proposatuz (Barceló, 2015: 112-113).

Bestetik, egikaritze faseari dagokionez, berriz ere betebeharrak ezartzen dizkie botere publikoei. Izan ere, prozesua errazte aldera, proiektuak oztoporen bat aurkituko balu konstituzionalki ezarritako lurralde antolamenduan, gehiengo bidez adierazitako borondatea aintzat hartu beharko da. Horretarako, negoziatzeko beharra ezartzen die bai subiranotasunaren jabearen ordezkariari zein proposatzaileari (*ibidem*: 114-115).

Zeintzuk dira, ordea, botere publikoek eraiki ditzaketen legezko bideak, bete-behar hauek betetzeko? Hau da, zeintzuk dira prozedura edota tresna demokratiko zehatzak?

Erabakitze eskubidearen adierazpen fasean esan dugunez, komunitate bateko kideek, parte-hartzeko tresna demokratiko baten bidez, estatus politikoa eta oinarritzko marko instituzionala birdefinitzeko borondatea adieraziko lukete. Mekanismo edo tresna demokratiko hori erreferenduma izan ohi da².


Erreferendum bat, beraz, instituzioek deitutako bozketa bat da, herritarrek sufragio unibertsal eta sekretuaren bidez egikaritzen dutena. Helburu bat baino gehiago eduki dezake: iritzia ematea politika zehatz baten eraldaketa edo aldaketa instituzional baten inguruan; edo arauketa bat mantentzearen inguruko; edo ordezkari bat karguan jarraitzeari buruzkoa. Galdeketaren emaitza loteslea izan daiteke, hau da, botere publikoak derrigortu ditzake, edota soilik kontsulta asmoa duena izan daiteke. Gure kasuan, bereziki interesgarria da Tierneyk (2012) proposatutako *erreferendum era-tzaileen* bidea³, hau da, konstituzio berria edota estatu berriak eratzerako bideratutako erreferendumak.

Bestalde, erreferendum prozesu guztiek erabakira zuzendutako hiru aurrefase ditzutela esango dugu: 1, erreferendum prozesua abiarazteko erabakia; 2, erreferendumaren edukia edota agenda zehaztea; eta 3, bozketara zuzendutako kanpaina, hots, erabakia hartzeko arauak zehaztea. Hala ere, lurralde gatazkak ebazteko eraikitzen diren erreferendum prozesuen kasuan, aurretik beste eztabaida bat sortzen da: *demosa*, hau da, subjektu erabakitzailerako zehaztea. Izan ere, erreferendum prozesuek,

² Zentzu honetan, Lópezen (2015: 36) arabera: «*Demosaren borondate demokratikoa lortzeko tresnarik arrazoizkoena, erreferenduma izango litzateke, baina horren zuzenak ez diren beste aukera batzuk ere baliatu daitezke, hala nola, ordezkari legitimoen erabakia (Kosovo) edo irakurketa plebiszitariarioa egiteko asmo esplizituarekin deitutako hauteskundeak (Katalunia)*».

³ Stephen Tierne, y-k (2015: 19) modu honetan bereizten ditu erreferendum konstituzionalak: «*Estatu berriak sortzeko erreferendumak, (...); konstituzioak aldatu edo berriak sortzeko erreferendumak (...); estatu azpiko autonomia eredu berri konplexuak ezartzeko erreferendumak, batez ere Espainia eta Britainia Handia bezalako estatu multinazionaletan; eta botere subiranoa estatutik nazioarteko erakundeetara transferitzeko erreferendumak, Europar Batasuneko tratatuen atxikitze eta berritzearekin zerikusia dutenak*».

beste edozein erabaki eta ekintza politikoren modura, komunitate politikoa edota *demosa* adieraztea dakarte berekin, eta bestelako erreferendum prozesuetan eztabaidarik ez badakar ere, lurralde gatazketan gai korapilatsua bilakatzen da, subjektu erabakitzailearen identifikazio esplizitua elementu zentrala baita, saihestu ezina den eztabaida, alegia (Tierney, 2012: 58). Beraz, honela laburtu genitzake lurralde gatazkek ebazteko helburua duten erreferendum prozesuen faseak:⁴



Iturria: Alvarez, 2020: 327.

VIII. GRAFIKOA

Erreferendumak eta Erabakitze eskubidearen prozedura atzerritar jatorriko biztanleen ehunekoa

⁴ Proposatutako prozesua eta fase bakoitzean sortzen diren eztabaidak zehatzago ezagutzeko kontsulta daiteke: Alvarez, Amalur. *Erabakitze Eskubidea. XXI. mendeko eskubide baten genesis. Doktorego Tesia.* (2020). Leioa: UPV/EHU. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/50223/TESIS_ALVAREZ_ORTIZ_AMALUR.pdf?sequence=1&isAllowed=y,

Erreferenduma ospatuta, eta gehiengoak aldaketaren aldeko hautua egin ostean, adierazitako borondatearen gauzatze fasean sartuko ginateke, hau da, aldebiko eta fede oneko negoziazio politikoaren esparruan, eta ez, nahitaez, Konstituzioaren erreformaren esparruan, Espainiako Konstituzio Auzitegiak adierazi moduan. Izan ere, azaldu dugunez, erabakitze eskubideak muga bikoitza dakar: marko konstituzionalan kokatzen denez, subiranotasun formalaren titularrak —estatu zentralak— aldaketa prozesuan parte-hartzea ezinbestekoa da, eta, aldi berean, honek ezin du ukatu estatuz azpiko *demosak* adierazitako borondatea, hau da, aintzat hartu behar du derigorrez⁵. Horrek, bada, fede oneko eta aldebiko negoziazio politikora garamatza, gutxieneko batzuen barnean gauzatu beharko dena⁶.

Negoiazioa beraz, bi gehiengoren arteko negoziazioa izango da, fede onez, hau da, demokratikoki adierazitako borondatearekiko errespetuz gauzatuko dena. Ondorioz, ez dira onargarriak ez jarrera oztopatzaileak, ez aldeen arteko harremana baldintzatu dezaketenak, ezta adierazitako borondatea aintzat hartuko ez dutenak ere (Barcelò, 2016: 386). Finean, negoziazio prozesua alde bikotasun eraginkorrek gidatutako hitzarmen batean gauzatu behar da, bermeak eta elkarrekiko leialtasun baldintzak ezarriko dituen, era horretara hitzartutakoaren interpretazioa eta gauzatzea bietako alderen baten erabakimenaren eskuetan gelditu ez dadin (Álvarez, 2019). Horrez gain, gatazka konpontzeko modu eraginkor eta zilegiak topatu nahi badiugu, modu horiek ezinbestean prozedurazkoak izan beharko dute eta inplikaturako alde guztien gutxieneko batzuk asebeteko duten akordioak bilatzera zuzendu behar dira (Martí, 2019).

Horrela, ahalik eta inklusiboena den hitzarmen batean, negoziazio prozesuak erreferendum bidez gehiengoz adierazitako borondatea errealitate bilakatzeko asmoa izango du. Horretarako, prozesu osoan zehar benetako alde bikotasuna eta elkarriketa eta fede ona eta adierazitako borondatearekiko errespetua bete beharreko gutxieneko baldintzak izango dira. Modu berean, aldaketa prozesua garatzeko hitzartzen diren bide instituzionalek ahalik eta argienak eta segurtasun juridiko zabalena eskaini beharko dute, herritarrek haien eskubideak eraginkorki gauzatu ditzaten. Izan ere, gatazkaren egonkortzea eta blokeoa ekidin nahi badugu, ezinbestean negoziazioa eta elkarriketa izango dira hartu beharreko bideak, eta alde guztientzat onuragarria izango den akordio bat sustatu beharko dugu, Martík (2019) dioenez, gatazkak konpontzea ez baita desberdintasunak ezabatzea, horiek modu eraikitzaile batean kudeatzea baino.

⁵ Kanadako Gorte Gorenaren Kontsulta Iritziak, 150. paragrafoak, zehazki, honako hau dio: «*Sezeshio aldatetari buruzko galdera argi baten aurrean, Quebecen gehiengo argi batek zilegitasun demokratikoa emango lioke sezeshio ekimenari, konfederazioko gainerako kideek aitortu beharko luketena*». Quebecen sezeshio eskubidearen inguruko Kontsulta Iritzia ondorengo estekan dago eskuragarri: <https://scc-csc.lexum.com/scc-csc/scc-csc/en/item/1643/index.do>.

⁶ Interesgarria da, zentzu honetan, Brexit-aren negoziazio prozesua aztertzea: <https://www.consilium.europa.eu/es/policies/eu-uk-after-referendum/>.

Azkenik, azpimarratu behar dugu azaldutako tresnak elite politikoen kontrola saihestuko duten eta horien egikaritzan egonkortasuna eta argitasuna ekarriko duten printzipio batzuen barruan garatu behar direla, hala nola, parte-hartzea, eztabaida publikoa, aukera-berdintasuna, adostasuna eta erabaki-hartzea kolektiboa izatea (Tierney, 2012: 45). Hau da, honako baldintza hauek bete beharko ditu prozesuak:

- Erabakiak hartzeko prozesuan kaltetuak izan daitezkeenak aintzat hartzea, eta emaitzan eragiteko aukera eskaintzea.
- Eztabaida publikoa bermatzea, hau da, gardentasunez, erantzukizunez, abegikortasunez eta errespetuz parte hartzaileek haien iritzia elkarri publikoki justifikatzea ahalbidetzea.
- Azkenik, erabaki hartze kolektiboa bermatzen duen prozesu deliberatzaile batez ari garenez, erreferendum prozesu baten azken helburuak, erabaki kolektibo zilegietan parte har dezaten, norbanakoek kolektiboaren kide izatearen zentzu nahikoa garatzea izan beharko du.

Epilogo

Lurralde politikoak errege-erreginen jabetza ez, baizik herriarenak zirela ulertzen hasi zen unetik, lurraldeen arteko auziek bestelako bilakaera bat hartu zuten. Lurralde bat bereganatzeko edo aldarrikatzeko, gerra edo indarkeriazko jarrerak erabili behar zirela pentsatetik, XX. mendetik aurrera herritarrei kontsulta egiteko formula demokratikoak ere onartzen hasi ziren, eta nazioarteko komunitateak ere hala onartuko zuen, autodeterminazio eskubidearen bidez. Hala ere, eskubide horrek oso baldintza murriztaileak ezartzen zituen koloniak ez ziren kasuetarako, eta azkenean ezegoki erakutsi zen bestelako aldarrikapen batzuetarako.

Egoera horretan zeuden errealtateetatik teorizazio berriak sortzen hasi ziren, hain zuzen, autodeterminazioaren baldintza gero eta murriztaileagoen aurrean, juridikoki autodeterminazio eskubidea gauzatzea ezinezko zitzairen herrialdeetan. Autodeterminazioaren bidea itxita, mugimendu berri haiek bestelako formulak bilatzen eta aldarrikatzen zituzten lurralde auziak konpontzeko, edo estatu berriak sortzeko, beti erreferendumean edo kontsultan oinarrituak. Modu horretan, plebiszito teorie-tatik abiatuta, eta demokrazia kontzeptuan sakonduz, XXI. mendean erabakitze eskubidearen aldarria agertu zen. Neologismo edota kontzeptu berri gisa definitu da berau, parte-hartze politikoari eta demokraziari lotua, eta ez autodeterminazio eskubidearen barruko bestelako plebiszito teoria modura.

Autodeterminazioa eta erabakitze eskubidea sezesiorako bide bat baino gehiago direla ikusi dugu. Hala ere, ezinezkoa da kontzeptu horiek aipatu, eta estatu berriez ez gogoratzea. Estatu berrien sorreran, bide demokratikoaren bidea zelan in-

dartu den ikusteko gai izan gara azken mendean, demokratizazio horretan erreferendumak rol zentrala jokatu duelarik.

Autodeterminazio eskubidearen eta erabakitzeko eskubidearen arteko lehia erdi-akademikotik eztabaida ugari sortu dira (edo, zenbait kasutan, berpiztu egin direla esan genezake) orain arteko Zientzia Politikoaren kontzeptu handiei eragiten dietenak, hala nola lurraldetasunari eta subiranotasunari edo parte-hartze demokratiakoari:

- Lurralde kontzeptua, erabakitzeko eskubidearen subjektu titularra eta subiranotasuna. Nazioaren ideari lotutako lurralde kontzeptu klasikoagoen aurrean, *demos* kontzeptua zabaltzen da, komunitate demokratiko instituzionalizatu gisa. Subjektuari dagokionez, lan honen helburua izan ez bada ere, kontuan izan behar dugu hainbat gizarte mugimendu lurralde terminoa birkontzeptualizatzen ari dela azken urteetan. Horren arabera, lurraldea modu lausoago batean aldarrikatzen da, ez hain geografikoa, eta aldiz, eskala lokalagoko lurraldea (eskualdea edota udalerrria) ere erabakitzeko subjektu gisa izendatzen da, eta are gehiago, esparru edo eremu zehatz bati lotuta ez dauden elementuak ere bai (gorputza, eskubide bat). Zentzu horretan, subiranotasun kontzeptuak ihes egiten du lurralde markotik. Subiranotasuna, estatu mailako marko espazial jakin baten gaineko erabakitzeko ahalmena edo botere gaitasuna ez ezik, esparru txikiagoetara ere zabaltzen da.
- Parte-hartze demokratikoaren kontzeptua. Talka sortzen da bi ikuskera desberdinen artean. Batetik, nazioartean oso homologatuta dagoen demokraziaren ikuskera ordezkatzaila; eta bestetik, ikuspegi erradikalagoa duen ikuskera, gure bizitzako hainbat arlotan gaiak erabakitzeko parte-hartzea aldarrikatzen duen eta herritarrei galdetzea ardatz duena. Modu horretan, demokrazia deliberatzailean ikuskera sortzen da. Hau da, deliberazioa demokraziaren hiru dimentsioak —demokrazia ordezkatzaila, parte hartzailea eta zuzena— eragiten dituen zeharlerro moduan agertzen da (López, 2017: 15). Hala, zuzeneko demokrazia eta zehatzago, erreferenduma, demokrazia ordezkatzailaren osagarria litzateke, hau da, odezkaritzako sistema ahuldu baino, hura indartzen duena.

Sakontzeko

- Beobide, I. M. (2008). Las teorías democráticas de la autodeterminación y secesión. *Estudios de Deusto: revista de la Universidad de Deusto* 56(1), 63-112.
- López, J. (2015). El derecho a decidir: el principio democrático. In M. Barceló i Serramallera; M. Corretja; A. González Bondia; López eta J. M. Vilajosana (ed.), *El derecho a decidir. Teoría práctica de un nuevo derecho*, (19-40). Atelier Libros Jurídicos.

- Requejo, F. eta Sanjaume, M. (2019) . Independence referendums. *Catalonia in perspective. Catalan Social Sciences Review*, 9, 1-18.
- Urrutia, I.; Iñarritu, J.; Nikolas, Z. (2012). Euskal Estatuaren eraikuntzaren alde juridikoa: sezesioa eta trinkotze-juridiko-politikoa. In M. Zubiaga (ed.), *Euskal Estatuari bidea zabaltzen. Herrigintza eta erakundeak*, (55-88). Ipar Hegoa Fundazioa.

«Zer da guretzat parte-hartze politikoa?»

Euskal gazte aktibisten herritartasun-praktika performatiboak

Ane Larrinaga Renteria, Mila Amurrio Vélez, Iker Iraola Arretxe,
Onintza Odriozola Irizar

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena. Zalantzarik gabe, aro modernoan estatua izan da Mendebaldeko gizarteak arautu dituen instituzio politiko nagusia, eta haren ertzen barruan definitu da demokrazia ordezkatzailerak, hain zuzen ere, alderdi politikoak, hauteskundeak eta parlamentuak ezinbesteko tresnatzat hartu dituen demokrazia horren herri osagaia bermatzeko. Herritartasuna ere, hau da, norbanakoa esparru politikoarekin lotzen dituen harremanen multzoa, estatu-mugetan ulertu da gaur arte.

Halaz ere, azken hiru hamarkadetan aldatu egin da agertoki politiko hori. Gaur egungo analisiek berresten dutenez, globalizazio neoliberalak birkokatu egin ditu estatuak botere-sare zabalagoen barruan. Elite politikoak eta gizarte zibila gero eta aldenduago daude elkarrengandik. Besteak beste, alderdi politikoek ez dituztelako eraginkortasunez betetzen ordezkatzeko funtzioak; hartara, herritarrak lehen baino urrunago sentitzen dira ohiko instituzio politikoetatik. Urrutiratze hori nabarmenagoa da belaunaldi gazteenetan. Hala, demokrazia bera herri osagaia galduz joan da, eta instituzio politikoak deslegitimazio-prozesu gero eta sakonagoan murgildu dira.

Hemen aurkezten den Hego Euskal Herriko gazte aktibista batzuen inguruko azterketak gai horiei guztiei buruzko gogoeta egiteko parada ematen digu, baita aktibismo eraldatzailetik politikak, parte-hartze politikoak eta herritartasunak trantsizio testuinguru honetan hartzen ari diren esanahi berriak aztertze ere.

1. Sarrera

Gazteen parte-hartze politikoari buruzko azken urteetako azterlanek bat egiten dute Mendebaldeko gazteen joera komun batzuk aipatzean. Batetik, gazteek politikan parte-hartzeko moduak aldatu egin direla nabarmendu dute. Modu horiek as-

kotarikoagoak, zatituagoak eta noizbehinkakoagoak dira gaur egun, gazteen trantsizioak luzatuz eta linealtasuna galduz joan diren heinean. Bestetik, berretsi egin dute esparru politikoa inbaditzen duten *indibidualizazio*- eta *desinstituzionalizazio* prozesuek berekin ekarri dutela belaunaldi berriek organizazio politiko instituzionalei buruzko lotura ahulagoa izatea eta, ondorioz, sistema politikotik urruntzea. Euskal Herriko gazteak ez dira salbuespen joera orokor horiei dagokienez.

Eusko Jaurlaritzak EAEn egiten duen *Gazteen Argazkiak* izeneko txostenak datu esanguratsuak eman ditu 2020an lurralde horretako gazteek politikari buruz dituzten jarrerren inguruan: 18 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean, % 29k soilik du interes handia edo interes nahikoa politikan, % 71 ez da inolako alderdi politikotik hurbil sentitzen, eta alderdiak gazte horiei konfiantza gutxien eskaintzen dieten erakundeen artean daude (Gazteen Euskal Behatokia, 2020). Hala ere, ez ditugu ezagutzen euskal gazteek, beren aniztasunean, politikari egozten dizkioten zentzuak. Era berean, ez dugu informaziorik politikoki konprometituta dauden gazteen kolektiboek eta, zehatzago, erakunde politiko konbentzionaletatik kanpo, esparru aktibistaren barruan jarduten duten gazteek gauzatzen dituzten praktikei buruz.

EAEko eta Nafarroako gazteen aktibismoaren adierazpen garrantzitsuenetako bat —ez soilik, baina batez ere— ezker abertzaletik gertu dauden eremuetan garatu da. Euskal politikak baditu Europako gizarte demokratikoetatik aldentzen duten berezitasun batzuk. Ildo horretan, Espainian nahiz Europan ere gertatu diren aldaketa orokor batzuk bizi izan ditu Hego Euskal Herriko esparru sozio-politikoak azken urteotan, baina baita bestelako aldaketa espezifikoak ere, besteak beste, ETA erakunde armatuaren desagertzea, indarkeria politikoaren pixkanakako jaitsiera eta sistema demokratikoaren instituzionalizazio progresiboa. Egoera berriak euskal esparru politiko orokorraren eta gizartearen beraren birmoldaketa ekarri du. Bereziki, ETAREN kide politiko izan diren ezkerreko indar abertzaleen berrantolaketa eragin du. Frankismoaren garaitik gaurdaino gizarte sektore esanguratsuetan errotutako kultura eta praktika parte-hartzaileak sortu dituzte erakunde politiko horiek, zeinek eratutako ordenari zilegitasuna kentzeko asmoz aktibismo *kontra-hegemoniko*, gatazkatsu eta deslegitimatzailerik ezaugarritzat izan baitute.

Ezkerreko indar horiek beren diskurtso eta praktika politikoak berriz formulatu dituzte gaur egun, eta beren praktikak gero eta instituzionalizatuago eta integratuago agertzen dira indarrean dagoen esparru politikoaren egiturari, hala Hego Euskal Herriko bi erkidego autonomoetan nola estatuan. Aldi berean, euskal gizarteak nahiko gizarte politizatua izaten jarraitzen du, konpondu gabeko gatazka nazionalaren iraunkortasunari buruz biztanleriaren sektore esanguratsuetan sustraituta dagoen pertzepzioaren ondorioz. Ildo horretan, *nation building* eta *state building* proiektuei lotutako biritza komunitario trinkoa du, baita frankismoaren garaitik jasotako autoantolaketa tradizio handia ere, azken hamarkadetan oraindik iraun duena. Modernitateak eta

tradizioak bat egin dute euskal errealitatean, gizarte sozial eta ekonomikoki garatua izanik ere, aipatutako proiektu politikoek elikatzen duten bizitza komunitarioari eta lankidetzak kolektiboari lotutako ondare garrantzitsua mantentzen baita bertan.

Ikuspegi historikotik, autoantolaketa- eta errebindikazio-gaitasun horrek herri-oinarriko herrikuntza sozial garrantzitsuak ekarri ditu, kulturaren alorrean —ikastolen sorrera, euskara batua, herri-ekimenez sortutako eguneroko prentsa, eta abar— alor sozioekonomikoan, —kooperatiba-enpresen sorrera (Heales, Hodgson eta Rich, 2017)—, baita arlo sozialeko beste gai batzuetan ere. Esaterako, aldaketara irekita dagoen gizartea da, Europako politika publikoaren abangoardian kokatzen dena genero-berdintasunaren arloan, mugimendu feministen indarrari esker (Esteban Galarza, Hernández García eta Imaz Martínez, 2017).

Euskal esparru politikoaren instituzionalizazioa *mobilizazio-ziklo* zabalarekin batera gorpuztu da frankismoaren garaitik joan den hamarkadara arte. Eraikuntza nazionalaren *leitmotivean* inspiratuta egon den arren, sektore-aldarrikapen ugari bateratzea ahalbidetu du ziklo horrek, eta eduki zabal eta konplexuen benetako protesta-zikloa eratzea (Zubiaga, 2014). Izan ere, estatuz azpiko nazionalismoak, hala nola euskal nazionalismoak, testuinguru historiko aldakorretara eraldatuz eta egokituz joan dira (Odrizola, Iraola eta Zabalo, 2020). Ildo horretan, balio alternatibo neoidentitarioak txertatzen dituzten diskurtsoak eta praktikak gauzatu dituzte nazionalismo horiek, esate batera, ekologismoa, feminismoa, antimilitarismoa eta beste batzuk (Letamendia, 1997). Horrela, azken hamarkadetako euskal mobilizazio eta aldarrikapen nazionalaren zikloaren berezitasuna ere ezkerreko balio unibertsalistak eta mugimendu sozial berrien aldarrikapenak artikulatzean oinarritu da. Ezkerreko estrategia nazionalistak ezberdinen arteko artikulazioa bilatu du, hegemoniaren aldeko borrokan, esparru politiko eta soziala berrantolatuko duen zentzu edo legitiimitate berria instituzionalizatzeko (Laclau eta Mouffe, 1985). Horren emaitza gizarte zibil oso aktiboa izan da, askotariko herri-ekimenak eta talde sozialak dituen (Zubiaga, 2014), non gazte aktibista askok beren ikaskuntza politikoak hasi eta garatu dituzten.

Gaur egun aktibismoari lotutako gazteen gutxiengoaren artean, ezkerreko aktibista nazionalisten nukleo esanguratsu bat nabarmentzen da, autoantolaketa-tradizioan, balio kontrahegemonikoetan eta *politika liskartsuaren* erreperitorioetan sozializatu dena. Ikasle-erakunde eta gazte-erakunde konbentzionaletan ez ezik, gaztetxeetan, gazte asanbladetan, mota guztietako gazte-mugimenduetan eta euskal geografia osoan zabaldu diren gazte feministen talde ugarian ere isla dauka gazteen *agentzia* nazionalistak. Iraganean gazte horiek kale borrokaren protagonistatzat jo dira (Van der Broek, 2004; Ferret, 2014), baina beste politika liskartsu mota batzuk ere burutu dituzte, besteak beste, desobediencia zibila, okupazioak eta manifestazioak.

Luzaroan nagusi izan den politika liskartsuaren karakterizazioak desitxuratu egin du gazte horien aktibismoaren sormen-dimentsioa kultura eta praktika politiko kontrahegemonikoaren eraketan: jai errebindikatiboak, mugimendu etnolinguistikoak, mugimendu musikalak, protesta modu berriak, autoantolaketarako kulturak, talde feministen ugaltzea, proposamen kultural eta komunikatibo alternatiboak, eta abar.

Halaber, hein batean, ikusezin bihurtu ditu gazteen *errepertorio* parte-hartzaileetan azken urteetan izandako aldaketak (Letamendia, 2018) eta aldaketa horiek berekin eka-ritako politikari buruzko bestelako harremanak. Horregatik, aktibista gazteen talde horretan jarriko dugu arreta gure azterketan. Jarraian garatzen den testuaren helburua bikoitza da. Lehenik eta behin, euskal ezker abertzalearen kultura aktibistan soziazatutako gazte-talde zenbaiten egungo praktika politikoen zentzuak identifikatu eta ulertu nahi ditugu —jasotako tradizioarekiko jarraitutasun- eta haustura-ildoak barne—, EAEko eta Nafarroako tokiko eskalako egungo baldintza sozial eta politikoen barruan. Bigarrenik, herritartasunaren ikuspegi tradizionalak berriz definitu eta zabaldu nahi ditugu, eta belausaldira gazteen aktibismo hori *modernitate berantiarreko* esparru politikoan garaturiko herritartasunaren aldeko borrokan testuinguruan txertatu.

Esparru politikoa modu dinamikoan ulertuta

Gazteen kolektiboaren parte-hartze politikoa alde askotariko errealitatea da gaur egun (Gozzo eta Sampugnaro, 2016; Rainsford, 2017), eta horren ulermenak parte-hartzearen beraren analisiaren muga zorrotzak gainditzen ditu. Bada, sistema demokratiko liberaletako esparru politikoaren konfigurazioari buruzko gogoeta teoriko eta metodologikoa egitera garamatza parte-hartzeak, ezinbestean. Demokrazia moder-noek gai eta oinarri sozial berriak txertatzeko izan dituzten irekiera instituzionalak gorabehera (Forbrig, 2005), Europako eta munduko gazteen parte-hartze politikoa gero eta lotuago dago errepertorioen aniztasunaren gehikuntzarekin; gainera, gero eta gehiagotan, errepertorio horiek parte-hartzeko modu instituzionalizatueta jasotzen ez diren praktikak hartzen dituzte barnean, baita errepertorio hibrido edo mistoak ere (Hustinx, Meijs, Handy eta Cnaan; Sloam, 2016; Monticelli eta Bassoli, 2016).

Gazte jendeak gaur egun garatzen dituen praktika politikoak ulertzeko egungo *demokrazia liberaletako* esparru politikoaren izaerari eta mugei buruzko hausnarketa egin behar da, bai eta bertan legitimatutako parte-hartze moduei buruzkoa ere. Hori egitean, ikusten dugu parte-hartzeko gazte-moduak alderdietatik eta hauteskunderetatik aldentzen direla askotan (Quintelier, 2007), eta parte-hartze horietako jardunbide batzuk ez dituztela politikatzat hartzen ez gizarteak (Bhavnani, 2014; Quintelier, 2007), ez eta, zenbaitetan, tartean dauden gazteek ere (Svenningsson, 2016). Hain zuzen ere, mundu kolektiboarekiko inplikazioa eta interesa izan arren, gazte konprometitu batzuek zailtasunak izaten dituzte beren jarduerari zentzu politikoa egozteko (Mackinnon, Pitre eta Watling; 2007; Stolle, Quintelier, Harell eta Nishikawa, 2008; Rainsford, 2017), batetik, oharkabean *sen oneko ezagutzaren* kategorien bidez hautematen dutelako mundu soziala eta, bestetik, mundu horren esanahia eskuratzeko egitura asimetrikoa dagoelako indarrean.

Egia esan, egungo esparru politikoan *borroka sinbolikoak* daude parte-hartze politikotzat ulertu behar denaren inguruan, esan nahi baita, izen hori modu legitimoan jaso dezaketen praktiken norainokoa bera dagoela auzitan. Azterketa soziologikoa ez dago kontzeptua errealitate berrietara egokitzeak sortzen dituen eztabaidetatik kanpo. Ildo horretan, orainsu arte eskura egon diren parte-hartze ereduak azken aldiko hedapen progresiboak erakusten du parte-hartze politikoak demokraziarako eta demokratizaziorako duen garrantzia (van Deth, 2014). Aldi berean, baina, parte-hartze politikorako aukerak areagotzeak sortutako eztabaidekin batera, gero eta anbigualentzia kontzeptual gehiago sortzen da. Hooghe (2014) adierazten duen bezala, erabaki politikoak hartzea prozesu lauso bihurtu den garaiotan —maila geografiko eta eskala ezberdinetan kokatutako eragileen arteko elkarrekintza konplexua eskatzen duelako— eta aktibismo politikoak beste espazio batzuetara migratzen duen garaioan, azterketa soziologikoa ere behartuta daude beren arreta norabide berrietara bideratzen.

Zalantzarik ez, jauzi kontzeptual handia gertatu da parte-hartze politikoaren ikuspegi minimalistatik —instituzio politikoetan zentratua eta gobernuaren, estatuaren edo elite politikoen azterketara bideratua— gaur egun gizartean garatzen diren partaidetza-modu indibidualizatuagoetara arteko bilakaeran. Norris-en (2002) proposamen goiztiarretan ikus daitekeenez, eragin zibila edo soziala bilatzen duten jarduerak, edo portaera sozialaren eredu sistematikoak aldatzen saiatzen direnak parte-hartze politikoaren adierazpentzat har daitezke. Ondorioz, horrelako jarduerak ohiko jardunbide parte-hartzaileen kategorian sartzeak parte-hartze politikoaren kontzeptua hedatzea dakar, *de facto*.

Testuinguru horretan, partaidetza politikotzat jo daitekeenaren kontzeptu-mapa eguneratua ezartzeko ahaleginak egin dira, hainbat kontzeptualizazio barne hartu ahal izateko. Ezagunenetako bat van Deth-en (2014) berrikuspena da. Lau parte-hartze politiko mota proposatzen ditu berak. Lehena parte-hartze instituzionala, konbentzionala edo formala litzateke. Bigarrena, parte-hartze ez-konbentzionala, ez-instituzionala, edo politika liskartsuari lotutakoa. Hirugarrenak, konpromiso zibikoaren, sozialaren edo komunitarioaren motak biltzen ditu. Azkenik, parte-hartze politiko indibidualizatu eta adierazkorra jasotzen duen eredu legoke. Sailkapen hori eztabaidagai izan da (Hooghe, 2014; Hosch-Dayican, 2014; Moor, 2016). Baina, eztabaida bera gaur egun kontzeptua modu zabalagoan berriz definitzeko eta azaltzeko dagoen beharraren erakusgarri da. Bada, gero eta gehiago ugaltzen ari dira praktika sortu berri askotariko eta aldakorrek, baita logika parte-hartzaile desberdinen arteko elkarrekintzak ere, zeharka hainbat esparrutan gauzatzen direnak —pribatuan, publikoan, politikoan, sozialean nahiz ekonomikoan—.

Esparru politikoa zedarritzeko eta parte-hartze politikoa kontzeptualizatzeko moduak ondorioak ditu sistema demokratikoetan gertatutako aldaketen interpretazioan. Azken urteotan, eskala desberdinetan egindako inkestek erakutsi dute gazte askoren politikari buruzko desilusia edo interesik eza. Irudikapen horretatik abiatuta, gazteen apatia eta deskonexio politikoari buruzko diskurtso nagusia naturalizatu da sen oneko ezagutzan eta mundu akademikoan (Carmouché, 2012; Manning, 2014). Halaz ere, berriki egindako ikerketen arabera, azterlan kuantitatiboek erakutsitako gazteen desengainu zantzuak eta hauteskundeetako partaidetza-tasa baxuak gizartean eskuarki onartzen den esparru politikoaren ikuspegi nagusi murritzaleegiaren ondorio ere badira (Quintelier, 2007; Manning, 2014). Izan ere, demokrazia liberalen esparru politikoan hegemoniko izaten jarraitzen duen politikaren nozioa Eskoziar Ilustrazioan formulatutako lehen pentsamendu liberalean oinarritzen da (Manning, 2013). Politikaren eredu liberal horrek publiko/pribatu kategorien zatiketean hartzen du oinarri, parte-hartze politikorako modu instituzionalizatuak lehenesten ditu eta alderdi politikoen jarduerak eta hauteskunde-politika mantentzen ditu bere muinean (O'Toole, Lister, Marsh, Jones eta McDonagh, 2010; Manning, 2013; 2014).

Eredu hegemoniko horren ildo errebisionista batean, ikerketa kualitatibo batzuek gazteek politikari buruz zer pentsatzen duten eta konpromiso zibikoa nola ulertzen duten argitzen lagundu dute, modu horretan, gazteen apatia politikoaren mitoa zalantzan jarrita (O'Toole, Lister, Marsh, Jones eta McDonagh, 2010; Carmouché, 2012). Ikuspegi aldaketa horrek zerikusia du gazteen egungo errealitatea aztertzeke planteamendu teoriko eta metodologiko berriak txertatu dituzten zientzia sozialen bilakaerarekin. Estrategia metodologiko berriei esker, gazteen diskurtsoek eta narrazioek garrantzi handiagoa hartu dute ikerketan (Benedicto eta Morán, 2015). Horrela, gazteen ustezko apatia normalizatu beharrean, aktibisten narraitibek ikuspegi konplexuagoa ematen dute gazteen deskonexio politikoa etnia-, klase- eta genero-ildoen arabera zelan eraiki daitekeen ulertzeko, eta boterearen eta pribilegioaren ardatz nagusiek gazteen deslotura politikoaren konfigurazioan betetzen duten zereginaz ohartzeko (Gordon eta Taft, 2011).

Halatan, azken azterlan horiek iradokitzen dute gazteak ez direla erabat apatikoak eta ez daudela beti konpromisoari bizkar emanda. Aitzitik, erakusten dute gazte askok uko egin diezaieketela politika tradizionalaren jardunbideei, sentitzen baitute ohiko instituzio politikoetan ez dituztela beren premiak aintzat hartzen eta ez dutela haietan ez ahotsik ezta eraginik ere (Harris, Wyn eta Younes, 2010; Cammaerts, Bruter, Banaji, Harrison eta Anstead, 2014; Chryssoschoou, 2017). Ikuspegi horren arabera, ustezko apatia beste zerbaiten seinaleztat interpretatu beharko litzateke. Halaber, azterketa horiek azpimarratzen dute gazteen partaidetza ohiko erakunde politikoetatik kanpo dauden beste leku batzuetan garatzen ari dela gaur egun, hain zuzen ere, pertsonen autonomia- eta kontrol-zentzu handiagoa duten gunetan (Harris, 2001); horiek dira gazteei beren printzipioen arabera bizitzeko aukera ematen dieten «esperientzia-espazioak» (Pleyers, 2019), beren sub-

ranotasuna egikaritu dezaketen praktika eta mundu sozial alternatiboentzako tokiak (Riley, Morfin 2013).

Horren harira, parte-hartze politikoa eta soziala gertatzen ari dela erakusten duten ebidentziak daude, baina ez dira adierazten analistek oraintsu arte ikertu ohi dituzten formetan eta lekuetan (Rainsford, 2017). Egia esan, politika konbentzionaletik urrun sentitzen diren gazte asko politizatuta daude, egon, baina, askotan ikerketa kuantitatiboek aztertzen ez dituzten bestelako moduetan (Quintelier, 2007; Varela, Martínez eta Cumsille, 2015; Quéniart, 2016). Norrisek duela zenbait hamarkada ebatzi zuen bezala, gazteen aktibismo politikoa «deialtasun-politika» alde batera uzten joan da «hautapen-politikaren» alde, eta, aldi berean, kausa jakin batzuetara bideratutako gero eta herritar gehiago agertu dira (Norris, 2004). Hain zuzen ere, alderdi politikoen gainbeheraren testuinguruan gertatu da desplazamendu hori, alderdiek gizarte zibilaren eta erakunde politikoen artean egiten zuten bitartekaritza-funtzioa krisian baitago gaur egun (Mair, 2013).

Ildo beretik, politikaren eredu liberalaren aurrean, ekintzaile gazte batzuk ekintza politikoaren mugak birdefinitzen ahalegintzen dira. Nola egiten dute hori? Bada, espazio pribatuak, *eguneroko bizitzako* guneak eta esparru politiko kolektiboak zeharkatzen dituzten ekintzak burututa; areago, parte-hartze politikoaren erregistro-kopurua handituta eta konpromiso-saiakuntzak egiteko hartzen dituzten eszenatokiak desinstituzionalizatuta. Horrela, esparru politikoa zabaltzeko saiakerak ikusten dira sarri. Aktibismoaren eraginez, praktika eta erreperitorio politiko ez-instituzional horiek zabaltzen direnean, «*politikoa*» gailentzen zaio «politikari». Izan ere, horrelakoetan, ezarritako boterearen aurrean botere eratzailea azaleratzen da, eta ageri-agerian gertatzen da gizartea botere-, gatazka- eta antagonismo-gune dela (Mouffe, 2005). Gaur egunean, praktika politikoa gizartearen eta esparru politiko konbentzionalaren arteko muga lausoetan mugitzen da, eta orientazio eta adierazpen politikoak pertsonen eguneroko bizitzan ere ikusten dira gero eta gehiago (Bang, 2004). Izan ere, pertsona askorentzat «beste mundu posible bat» aldaketa lokal eta pertsonalen bidez hasten da (Pleyers, 2019). Horrek esan nahi du pertsonen dagozkien arazo eta praktika politikoak dibertsifikatzen ari direla, eta ez datozela beti bat banaketa politiko tradizionalekin (Soler i Martí, 2012).

XVI. TAULA

Esparru politikoa ulertzeko moduak

Ulerkerak	Lehen modernitatean sortutako sistema demokratiko liberala	Aktibismotik azaleratzen ari den esparru politikoa bigarren modernitatean
Esparruaren mugak	Konfigurazio egonkorra, estatuak eta bere instituzioek zedarritua. Instituzionalizazio sendoa eta arau-emaita. Instituzio politiko legitimatuak.	Konfigurazio aldakorra. Estatuaren zentraltasunaren galera. Eskala eta botere-kokapen desberdinetako bestelako eragileen arteko interakzioak. Desinstituzionalizazio prozesua. Ohiko instituzio politikoen legitimazio arazoak.
Esparruaren funtzionamendu-logika	Instituzioen bitartez bideratutako lehiakortasun arautua.	Lehia gatazkatsua, arautze-maila gutxikoa edo ezarritako arauetatik at ere gauzatzen dena.
Esparruaren jardun-gune nagusiak	Gune mugatuak, estatu liberaleko instituzioek osatutakoak. Esparru publikoaren adiera murriztailea.	Gune malguak. Gune publikoak irekitzeko borrorak. Ohiko esparru politiko instituzionalaz gain, gizarte zibila, esparru komunitarioak, esparru pribatuak eta indibidualizatuak politikarako jardun gune dira.
Parte-hartze politikoaren modu nagusiak	Partaidetza instituzionalizatua- ren eragile nagusiak: alderdi politikoak, presio taldeak, instituzio politikoetatik ezarritako gobernantza guneak.	Parte-hartze modu instituzionalak eta ez-instituzionalak, formalak eta ez-formalak, kolektiboak eta indibidualizatuak.

Iturria: artikulua-aren egileek moldatua.

Herritartasun praktika berriak sortzen belaunaldi gazteen artean

Esparru politiko liberalaren bazterretan diharduten gazte aktibistak huts egin duten herritarrak al dira? *Herritartasunaren* kontzeptua estatuarekin formalki ezarritako harremanetara mugatu behar al da gaur egunean? Gai horiek jorratzeak eska-

tzen du, lehenik eta behin, onartzea herritartasunaren hiztegiak eta esanahiak aldatu egiten direla testuinguru politiko eta kulturalaren arabera, eta hainbat ondare historikoren ondorio direla (Saraceno, 1997; Bussemaker eta Voet, 1998; Carens, 2000; Siim, 2000). Gainera, esanahi horiek pertsonen «bizitako herritartasunean» gauzatzaren dira (Hall eta Williamson, 1999), hain zuzen ere, mundu politikoarekin izandako harremanetan esperimentatukoaren ondorioz.

Tradizioz, «haurtzarora» eta «gaztarora» deritzeten kategorietan sailkatutako pertsonak «herritartasunaren zain» dauden kolektibotzat hartu izan dira. Era horretan, nerabeei eta gazteei etorkizuneko herritartasuna lortzeko ikastun estatusa egotzi zaie behin baino gehiagotan. Alabaina, ikuspegi horren kontra, bat gatoz Theisekin (2010) haxe dioenean, alegia, herritartasunaz ari garela, analisiaren fokua ez dela hainbeste pertsonen formalki aitortutako eskubideetan jarri behar, haien praktika sozial eta politikoetan baizik. Horrek aukera ematen digu gazteak herritar aktibo gisa aitortzeko, gazteok familiako eta komunitateko eguneroko esperientzien bidez ikasten eta jarduten baitute etengabe (Theis, 2010).

Ildo horretan, gazteek politikan parte-hartzeko dituzten modu alternatiboak herritartasun emergenteak eraikitzeak aukerekin lotuta daude. Hain zuzen ere, gazteriaz, parte-hartze politikoaz eta herritartasunaz azterlan klasikoetan nagusitutako ikuspegiari egindako kritiketako bat da goitik beherako ikuspegia hartzen dutela, eta parte-hartze politikoak konpromiso-modu tradizionalen arabera ulertzen dutela, hala nola, botoa ematea edo alderdi politiko batekin bat egitea. Parte-hartze politikoak hain modu mugatuan definitzean, esparru nagusiaren logika horrek ondorioztatzen du gazteek bozkatzaren ez badute alferrik galdutako herritarrak direla.

Baina, deslotura politikotzat hartu dena, agian instituzioei buruzko desafekzio gisa (Soler i Martí, 2012) eta politikarekin erlazionatzeko modu berri gisa (Parés, 2014) formulatu beharko litzateke. Izan ere, herritartasunari buruzko ohiko teoriak ez dute egoki azaltzen gazteek, are gutxiago gazte aktibistek, sare sozialak eta auzi politikoak ulertzeko eta haietan jarduteko dituzten moduak. Belaunaldi berrietako pertsonen harreman desorekatuan daude egitura politiko tradizionalekin. Gazte askorentzat, indarrean dagoen sistemarekin konprometitzea asebetetzen ez dituen eredu politikoak babestea da eta harekiko kokapen subordinatuan jartzea (Harris, 2001).

Horrenbestez, zentzuzkoa da gazteen kolektibo askok beste gune batzuetara bideratzea beren energia politikoak, zertara eta, partaidetza- eta herritartasun-guneak esparru politiko liberalaren bazterretan eraikitzen. Gainera, sistema demokratikoak gazteei zuzenean eragiten dieten gaietan erakutsitako eraginkortasunik ezak —edo eraginkortasunik ezaren pertzepzioak— indartu egiten du lekualdaketa hori (Riley, Griffin eta Morey, 2013). Mugimendu hori egungo instituzioekiko eta gobernantza-jardunbideekiko mesfidantza orokorraren testuinguruan ulertu behar da, eta herri-

tarrek estatuen eta merkatuen gaineko kontrola pixkanaka galtzarekin batera etorri da. Bada, Bauman-ek zioenez (2001), gaurko instituzio politikoak gero eta ahulagoak dira sufrimendu pribatuak arazo publiko bihurtzeko. Desengainuaren sentimendua bereziki bizia da tradizio politikoaren pisua sentitzen ez duten belaunaldi gazteen artean. Hainbat aztertzaileen iritzitan, herritarren eta gobernuen arteko hausturaren ondorioz, hustu egin da Europako demokrazia ordezkatzailerak (Mair, 2013); beste modu batean adierazita, areagotu egin da demokrazia liberalaren beraren egungo legitimitate-krisia (Castells, 2018).

Bai *globalizazio neoliberalak* bai estatuak hartutako kokapen berriak botere globalaren esparru konplexuetan, herritartasuna eraikitzeke bestelako praktikak ekarri dituzte, estatuari buruz definitutako herritartasun formaletik aldentzen direnak (Sassen, 2003). Paradigma liberalean herritartasuna instantzia indibiduala eta estatuko ordenamendu politikoa erlazionatzen dituen elementuen artikulazio moduan deskribatu bada, goitik behera eraldatu da gaur egun eredu hori. Hainbestearino eraldatu ere, non, eskubide formaletatik harago —eta eskubide horien gainbeheraren ondorioz—, formalizaturik ez dauden hainbat dinamikak eta herritar aktorek hartu duten garrantzia. Horiek praktika eta eraikuntza alternatiboak garatzen dituzte. Ohiko herritartasunean sarbide mugatua izaten jarraitzen duten emakumeak, legezko herritartasunetik kanpo dauden migratzaileak, prekarietate-egoera masiboak bizi dituzten gazteak eta langileak, mendekotasun politikoko edo bazterketa sozialeko egoeretan definitzen diren talde etnikoak edo nazionalak, besteak beste, praktika horien protagonistetako batzuk dira.

Aldaketa horien ondorioz, bi ereduren arteko tentsioak sortzen ari dira egungo esparru politikoaren barruan. Batetik, legezko egoera formaltzat hartutako herritartasuna dago, bestetik, proiektu edo aspirazio moduan ulertutakoa (Sassen, 2003). Lehenengoak estatus gisa definitzen du herritartasuna. Bigarrenak, berriz, praktika modura (Isin, 2009; Morán eta Benedicto, 2016). Herritarren definizio legitimoa inposatzeko esparru politikoan gauzatzen diren borroka eta lehia horiek gero eta konplexuagoak eta askotarikoagoak diren errealitateak ulertzeko tresna kontzeptual landuagoak eraikitzen behartu dute azterketa soziala ere (Isin, 2009), tartean, politikarekiko harreman-modu tradizioaletatik gero eta urrunago dagoen gazte batzuen aktibismoa. Tresna berri horiek inklusibitatearen eta dibertsitatearen printzipioei erantzuten saiatzen dira.

Halatan, herritarren praktiken dimentsio anitzak izendatzeko kontzeptu-erreperitorio gero eta ugariagoak izateak herritartasunaren instituzioaren izaera jariakorra eta dinamikoa erakusten digu. Hartara, instituzio hori instituzioa bera osatzen duten borroka sozial eta politikoei loturik teorizatu behar da, ezinbestean (Isin, 2009). Horrela, «herritartasun-guneak» aldi berean eskala desberdinetan (Yuval-Davis, 2008) gauzatu daitezkeen borroka esparruak dira. Gune horietan gai-agenda, interes eta apustu berriak ez ezik, subjektu politiko bilakatzeko asmoz diharduten aktore berriak ere biltzen dira. Ildo horretan, ez da ahaztu behar aldaketa esanguratsuak izan dituen arren, herritartasunak dominazio- eta ahalduntze-instituzio izaten jarraitzen

duela. Era berean, herritartasun-ekintzak izendatzaileak dira, ekintzek berek sortzen dituzte subjektuak, baita sortu ere, legea zalantzan jarrita eta esparru politikoa arautzen duten praktikak eta arauak alderantzikatuta. Herritartasun-ekintza horiek politiko izateko moduak eraldatzen dituzte, aktore berriak «herritar ekintzaile» gisa sortzean. Bada, Isinek (2009) dioenez, esparru politikoan agindutako gidoien arabera jarduten duen «herritar aktiboak» ez bezala (botoa ematen duenak, zergak ordaintzen dituenak, eta abar), «herritar aktibistaren» agentziak esparru politiko jakin baten izaera zalantzan jartzera bultzatzen du, haren mugak irekitzera eta gidoiaren idazketan eta eszenaren sorkuntzan parte-hartzera, hitz batean, une horretara arte esparru politikoan indarrean zegoen logika legitimoa berriz definitzera.

XVII. TAULA

Herritartasuna ulertzeko moduak

Eredu mota	Herritartasunaren ohiko ereduak mendebaldean	Aktibistotik sortzen den herritartasunaren eredu jarioak eta dinamikoak
Irudikapena	Kategoria estatikoa.	Etengabeko prozesu dinamikoak, aldakorra eta performatiboa.
Zer da	Estatuak legeak eta formalki norbanakoei onartutako eskubideak eta obligazioen multzo iraunkorra. Pertsona helduen estatus indibiduala. Gazteak: etorkizuneko herritarrek baino ez dira.	Norbanakoen, gizarte-taldeak eta kategoria sozial desberdinen pertenezia soziala eta politikoa, eta horien guztien inklusioak eta bazterketak eztabaidan jartzen dituen praktika gatazkatsuen multzoa.
Zelan gauzatzen da	Hauteskundeetan parte hartu. Alderdi politikoetako eta elkarte zibikoetako kide edo aldeko izan. Legesak ezarritako eginbehar zibikoak bete (zergak ordaindu, eta abar).	Askotariko partaidetza sozio-politikoak burutu (zibikoak, ekonomikoak, kulturalak, komunitarioak eta indibidualizatuak barne hartuta). Praktika prefiguratuak gauzatu.
Gune nagusiak	Estatuak.	Eskala desberdinetako guneak: tokikoak, estatu barneko bestelako guneak, estatuz gaindiko guneak.
Legitimitate mota	Legesak ezarritakoak.	Legitimitate berriak irabazteko borroka politikoak eta sinbolikoak.

Iturria: artikulua egileek moldatua.

Argudiatze ildo horri jarraikiz, aktibista izateak eta esparru politikoan legitimitate berriak eraikitzen saiatzeak *performatibitatearekin* (Isin, 2017) eta herritartasunaren barruan «bizitako» praktikarekin du zerikusia. Horrek esparru politikoan legez ezarritako kontzeptuak eta definizioak baino harago joatea ekar lezake —esparruan arau iraunkor gisa hartzen diren arren—. Aitzitik, herritartasuna etengabeko prozesu gisa ulertu behar da, praktika sozial eta jardun kultural gisa, eta ez kategoriatik estatiko modura (Isin, 2017). Isinek iradokitzen duen bezala, herritartasunaren ikuspegi horrek borroka sinboliko konplexuak eta, askotan, kontraesankorrak eskatzen ditu pertenezaren definizioari buruz, inklusioaren eta bazterketaren kategoriatik eta praktikatik buruz, eta bizitza publikoan parte-hartzeko modu desberdinei buruz. Izan ere, herritartasunaren praktika multzoa etengabe negoziatzen diren eguneroko pertenezaren praktiken barruan kokatzen da; hartara, aldarrikapena, protesta eta konfrontazioa ere inplikatu ditu, eta ez soilik eskubideen egikaritzea. Horrela, herritartasun performatiboan hainbat prozesu teulatzen dira. Lehenik eta behin, subjektu gisa nork jardun dezakeen edo ez jakiteko borroka politikoak eta sozialak burutu ohi dira; bigarrenik, borroka horiek herritarrak ez ezik, herritarrak ez direnak ere inplikatu dituzte, den-denak erlaziozko aktoreak diren aldetik; eta, azkenik, pertsonak herritar gisa jarduten dutenean, herritartasunaren esanahiak eta funtzioak eralda ditzakete, sormenez (Isin, 2017).

Neoliberalismoa, indibidualizazioa eta gazte aktibismoa

Gaur eguneko inklusio- eta baztertzeko-dinamikek eragindako tentsioek etengabe astintzen dute esparru politikoa. Alde batetik, esparru hori modernitate berantiarreko indibidualizazioaren joera kulturelek zeharkatzen dute eta, bestetik, gero eta indar handiagoz diharduten politika ekonomiko neoliberalak. Hala, bi indarrek bat egiten dute, areago, elkar elikatzen dute esparru politikoan. Hain zuzen ere, gazteen parte-hartzean argi-argi ikusten da azken hamarkadetan esparru politikoa berregituratzen ari diren indibidualizazio- eta desinstituzionalizazio-prozesuen eragina (Touraine, 1997; Bauman, 2001; Beck, 1996; Beck eta Beck-Gernsheim, 2002; Furlong eta Cartmel, 2007). Indibidualizazio-prozesu horiek aldaketak eragin dituzte politikagintzaren norabidean, Beckek eta Beck-Gernsheimen *self-politics* izendatzen duten ereduaren alde (2002), edo Giddensek *life-politics* deitutakoaren alde (1991). Hain zuzen ere, eredu horiek ekintza politikoko forma berriak dira, agentzia demokratikoarentzat kapitalismo neoliberalaren aurrean gero eta murriztagoak diren aukerei erantzuten saiatzen direnak, eta aisia, kontsumoa eta eguneroko bizitza politizatze moduak bultzatzen dituztenak, pertsonen agentzia politikoa eta haren auto-errealizazioa baieztatze bitarteko gisa (Riley, Griffin eta Morey, 2013; Kyroglou eta Henn, 2017).

Hala, esparru politikoaren berregituraketarekin batera, belaunaldi gazteenei dagokienez, hauteskunde-ekitaldiari derrigorrez lotuta ez dauden bestelako herritarta-

sun formak sortu dira, zehazki, orain arte «ez-politikotzat» hartutako bizimoduekin lotzen diren konpromiso indibidualizatuak: bizimoduak, elikadura- eta birziklatze-errutinak, interneteko jarduerak, kontsumo-ohiturak eta kultura-aukerak (Amnå, Ekström, Kerr eta Stattin, 2009). Praktika horiek jarduera eta identitate-nitxo berrietara dagoen migrazioa erakusten dute. Horrenbestez, kultura aktibista bera ere aldatzen ari da. Gero eta modalitate indibidualizatuagoak hartzen ditu abiaburu, instituzionalizatutako gizarte zibileko eragile konbentzionaletatik urrutiraturik daudenak, erronka globalekiko sentsibilitate handia eta konpromisoaren dimentsio subjektibo indartsua uztartzen dituztenak (Pleyers, 2016).

Bestalde, politika konbentzionaletik eguneroko bizitzako erreperitorio indibidualizatueta egindako bira hori (Manning, 2014) koherentea da politika neoliberalak bultzatzen duen herritartasun ereduarekin. Ildo horretan, erretorika neoliberalak inplikazio esanguratsua ditu, bai pertsonen subjektibotasunaren eraketan, bai parte-hartze soziopolitikoan. Aukeratzeko askatasunari eta erantzukizunari buruzko diskurtsoen bidez, argudio neoliberalak autokontrolleko, kudeaketako eta ekintzaitzako balioen barruan ulertzen ditu herritarrak, eta horrek herritar autonomo, arrazional, arriskuen kudeatzaile eta norako propioaren arduradun bakarra den banakoaren ideal jakina sortzen du (Ong, 2006). Horrela, herritartasunaren kontzeptua aldatu egiten da, estatuak herritarrei ematen zien eskubide-multzo bat izatetik herritarrek beren gain hartu beharreko erantzukizunen multzo bat izatera. Erantzukizun horien artean, jakina, norbanakoaren ongizatea ere badago, merkatuaren bidez lortzen dena (Riley, Griffin eta Morey, 2013). Subjektibotasun neoliberalaren logikak, beraz, baldintza mesedegarriak sortzen ditu gazteen aisiari (Pfaff, 2009; Riley, Griffin eta Morey, 2013), kontsumoari (Kyroglou eta Henn, 2017) eta eguneroko bizitzari lotutako jarduera informal sorta oso bat jarduera politikorako gune bihurtu dadin.

Halaz ere, gazte-bizitzaren indibidualizazioak eta aukeratzeko ustezko askatasunak badaukate, eduki, iruntzi iluna. Gaur egunean, gazte asko bere biografia instituzioen babeslekutik kanpo diseinatzen eta eraikitzen behartuta egon ohi da, bere baliabide eta trebetasun hutsez baliatuta (Beck, 1996). Sarritan, baliabide horiek ez daude denentzako eskuragarri. Horrela, gazte gehienentzat egungo gazte-trantsizioak prekaritate laboral eta ekonomikoan gauzatzen dira (Santamaría, 2018), bizi-ziurtasunik eta linealtasun biografikorik gabe (Furlong, Cartmel eta Biggart, 2006; Furlong eta Cartmel, 2007). Izan ere, gazte-trantsizioen konplexutasuna hautaturiko biografia gisa hartzeko joerak lan-merkatu malguek eragindako desabantaila- eta urrakortasun-egiturak ezkututzen lagundu du (Furlong, Cartmel eta Biggart, 2006). Tes-tuinguru horretan, bizi izandako segurtasunik ezak, arriskuak eta indibidualizazioak jarduera politikotik urruntzera bultzatzen dute, behin baino gehiagotan, gazte asko. Gazteen praktika parte-hartzaile iragankorrek eta autoespresiboak ere sortzen dituzte, herritar biografia berriak diseinatzen dituztenak, eta dinamika ahulak eta konpromiso arin eta iraupen laburrekoak dauzkatenak (Harris, Wyn eta Younes, 2010).

Pirnik eta Raffinik (2016) adierazten duten bezala, norbanakoa gehiegi azpimarratzen denean eta dimentsio kolektiboa erabat saihesten azterketatik, falazia episte-

mologikoa sustatzen ari gara, indibidualizazio prozesuak egituren eragina desageretzea dakarrela beste barik ontzat emanda. Izan ere, estratifikazio sozialaren forma tradizionalak bizi-aukerak ulertzeko giltzarria dute oraindik, nahiz eta egitura horien eraginaren kontzientzia subjektiboa murriztu egin den bizi-esperientziak indibidualizatuago bihurtu ahala (Furlong eta Cartmel, 2007; Gozzo eta Sampugnaro, 2016). Ildo horretan, gazteen aktibismoa sormenarekin, hausnartzeko gaitasunarekin eta agentzia izateko ideiekin lotu izan da askotan. Esate baterako, Bang-ek eguneroko bizitza sortzen duten herritarrek aipatzen ditu, «everyday makers» modura (2010). Baina, gazte aktibistei egotzitako izaera sortzailea egiturazko faktoreek gazteruari ezartzen dizkioten hertsapenen esparruan ulertu behar da.

Izatez, gazteek ez dute talde homogeneoa osatzen; alde batetik, botere-baliabideak dakartzaten bereizketa sozialeko elementuak dituzte ezaugarri, hala nola, adina, maila soziala, generoa, etnia edo migrazio-egoera, eta, bestetik, testuinguru partikularreko tradizio politikoak eta instituzio-baldintzak. Halatan, gazteriaz baino, gazteek hitz egin beharko litzateke, «gazte politizatu» izateko modu konplexuak aztertzeke eta subjektu horietan eragiten dituzten era askotako zapalkuntzak ulertu ahal izateko (Ballesté eta Feixa, 2019). Ondorioz, familia-desberdintasunak, baliabide ekonomiko, erlazional eta kognitiboak eskuratzeko aukerak, baita esparru politikoaren aukera instituzionalizatuak edo informalak ere, hartu beharko dira aintzat, eta horien guztien eraginak aztertu gazteen partaidetza-praktikak eta haien politizazio-mailak ikeritzeko. Hari horretatik, hainbat ikerketaren arabera, generoa, klase soziala eta *kapital* kulturala dira oraindik ere parte-hartze politikoaren iragarlerik onenak, bai instituzioetan, bai haietatik at (Quintelier, 2007; Hustinx, Meijs, Handy eta Cnaan, 2012; Mascheroni, 2015).

Gazte jendeak *habitus* moduan gizartean barneratutako disposizioak eta trebetasunak (Bourdieu eta Wacquant, 1992; Bourdieu, 1994), baita parte-hartzeko eta esperimentatzeko eskuragarri dituen aukerak ere, esparru politikoaren barruan kapital gisa funtzionatzen duten baliabideak dira. Horrela, parte-hartzea nahiz kontrako gelditasuna baldintzatzen dute. Bestalde, gazteen apatia ez da sortzen esparru politiko orokorrean soil-soilik, bazterketa sozialeko mekanismo ugariaren ondorioz (Gordon eta Taft, 2011). Aitzitik, bazterketek eta desberdintasunek partaidetza aktibistan bertan ere badituzte eraginak. *Interseksionalitateak* eta antzeko tresna analitikoek aukera eman dute dominazio- eta subordinazio-sistemak modu artikulatuan aztertzeke eta harreman horiek aktibismo politikoaren esparruetan ere identifikatu ahal izateko. Horrela, gazte aktibisten azpiesparruan segregazio eta zapalkuntza kategoria ugari aurkitzen ditugu: ekintzaile helduen aurrean «profanoen» funtzioa betetzen duten gazteak (Ballesté eta Feixa, 2019), beren trebetasunez eta esperientziaz baliatzen diren parte-hartzaile «adituak», politikariekin, eliteekin eta interes-taldeen lankidetzan aritzeko gai direnak, adituak ez diren beste parte-hartzaileen aurrean (Bang, 2010), zapalkuntza maskulinoak (Larrinaga eta Amurrio, 2017), etorkinen izenean hitz egiten duten aktibista autoktonoak (Dunezat, 2017), eta abar. Sailkapen-kategoria horiek guztiek osatzen dituzten bilbe trinkoek erakusten dute,

batetik, esparru aktibistan diharduten botere harremanen konplexutasuna eta, bestetik, ekintza aktibistaren zailtasunak eta desafioak, hura osatzen duten eragileen dibertsitatea jasotzeko, eta eragileon partaidetza, ikusgaitasuna eta adierazpena bermatzeko.

Partaidetza politikorako eta aktibismorako beharrezkoak diren baliabideen banaketa diferentzialari dagokionez, Bourdieuren formulazio kontzeptual batzuetatik abiatuta egindako azterketek agerian utzi dute beharrezkoa dela gazteen parte-hartzearen azpian dauden aukeren eta oztopoen egitura argitzea, ikusteko partaidetza hori zergatik den egingarri pertsona edo kolektibo sozial batzuentzat soilik (Mascheroni, 2015). Hala, analisi horiek «kapital parte-hartzailea» (Wood, 2014) edo «kapital militantea» (Matonti eta Poupeau, 2004) eskuratzeko gizartean dauden baldintza asimetrikoak azpimarratu dituzte. Era berean, erakutsi dute zer-nolako oztopoek mugatzen duten «*habitus* erradikal» bat eratzeko aukera, hau da, sozializazioan eskuratu-tako disposizio inkontzienteen multzo bat, mundua hautemateko eta ulertzeko modu berezi bat, ezagutza bat eta borrokatzeko joera jakin bat berekin dakartzana. Disposizio bereizgarri horiek guztiak kritikan eta protesta aktiboan parte hartuta (Crossley, 2003) eta gune sozial aktibistetan sozializatuta eskuratzen dira. Gune sozial horiek, jakina, ez daude gazte guztien eskura.

Abiapuntu metodologikoa

Ezker abertzalearen Hego Euskal Herriko guneetan sozializatutako zenbait gazte-kolektiboren parte-hartze politikoari buruz egindako ikerketa enpirikoan, analisi kualitatiboaren alde egiteko bi gogoeta metodologiko hartu ditugu abiapuntutzat. Lehenengoa hauxe da: *azterketa kuantitatiboekin* alderatuta, *metodologia kualitatiboak* aukera handiagoak ematen ditu aktibista gazteek politikarekin dituzten erlazioak identifikatzeko eta, beren praktiken kontakizunaren bidez, berentzat politikak hartzen dituen esanahiak azaleratzeko (O'Toole, Lister, Marsh, Jones eta McDonagh, 2010; Carmouché, 2012); izan ere, herritartasuna ez da pertsona gazteen eguneroko hizkeraren parte izaten (Lister, Smith, Middleton eta Cox, 2003). Bigarren gogoeta metodologikoa ikertu nahi den egoera bereziari lotzen zaio. Hala, aintzat harturik «herritartasun disidentearen» formak (Sparks, 1997) aztertuko direla, politikoki nagusi diren narratiben eta kultura kontra-hegemonikoen arteko tentsio-testuinguru batean, uste izan dugu metodologia kualitatiboa egokiagoa dela diskurtso heretikoak atzemateko.

Ondorioz, gure azterlanak metodologia kualitatiboa hartu du oinarri, Hego Euskal Herriko lurralde ezberdinetako gazteei 2018an eta 2019an egindako elkarrizketa sakonetan oin harturik. Hasiera batean, beren burua ekintzaile gisa edo politikoki konprometitutako pertsona gisa definitu zuten 18 eta 35 urte bitarteko 22 gaztek osatutako laginetik abiatu ginen. Hala ere, parte-hartze zibiko-politikoan konprometi-

tutako gazteen narratibetan atzeman genuen praktika parte-hartzaileek orientabide desberdinak dituztela beren gaitasun berritzaileari dagokionez. Ildo horretan, ikusi dugu esperimentazio politikoa ez dagokiela alderdi politikoetan edo sindikatuetan afiliatutako gazteei, erakunde zentralizatuak eta burokratizatuak baitira horiek, nahiko zurrinak aldaketei dagokienez, eta militanteentzat aurrez ezarritako jarduera-patroi batzuk dituztenak. Hori dela eta, jarraian egingo den azterketarako hautatu den azken *lagina* 18 eta 35 urte bitarteko 17 gaztetara murriztu da (8 emakume gisa eta 9 gizon gisa sozializatuak). Gazte horien inplikazio politikoa alderdi politikoaren esparrutik kanpo hezurramitu da.

Diskurtsoetan ahalik eta aniztasunik handiena lortzeko asmoz, aintzat hartu dira, jatorri geografikoaz gain, bizilekuaren tamaina, elkarrizketetan zeharka aitortutako jatorri soziala (9 familia langileetatik datoz eta 8 klase ertainetatik), eskola mota (publikoa, pribatua, erlijiosoa edo ikastola) eta lan-jarduna (10 gaztek lan egiten dute edo lan egin dute inoiz, jarraian edo aldika, eta prekarietate maila desberdinekin). 13 elkarrizketa euskaraz egin dira eta 4, gaztelaniaz. Elkarrizketatutako pertsona guztiek goi-mailako ikasketak dituzte edo gaur egun ikasten ari dira.

Kausa desberdinekin konprometitutako pertsonak dira, erakunde sozialetan, komunitarioetan eta era askotako mugimenduetan dihardutenak: sozioekologian, mugimendu feministan, euskara indarberritzeko taldeetan, gune autogestionatu eta okupatuetan, gazte-asanbladetan, ikasle-erakundeetan, errefuxiatuei harrera egiteko organizazioetan, ekonomia sozialerako kooperatibetan, aktibismo digitalean, estatus politikoa erabakitzeke eskubidearen aldeko herri ekimenetan, arrazakeriaren aurkako mugimenduetan, bazterketa sozialaren aurkako taldeetan, LGBTIQ+ mugimenduetan eta herri-jaietako erakundeetan, besteak beste. Hala ere, komeni da adieraztea multiaktibismoak definitzen dituela elkarrizketatutako pertsona asko eta, beraz, horietako batzuk kausa batean baino gehiagotan inplikaturik daudela, hau da, erakunde edo mugimendu batean baino gehiagotan parte-hartzen dutela gaur egun edo parte hartu dutela iraganean. Hartutako lagin horren ezaugarri nagusienetako bat da politikan oso goiz sozializatutako gazteek osatzen dutela, eta ikasketa politiko hori batez ere ezkerreko esparru komunitario eta abertzaleetan gauzatu dela. Horrez gain, gazteok esperientzia handia dute aktibismoan, ez bakarrik instituzioetan, baita partaide-tza-esparru informaleko eta anitzagoetan ere, non erakundearen erregulazio txikiagoak sormen- eta esperimentazio-espazioak zabaltzeko aukera eskaini dien. Esperientzia luze horren ondorioz, gaur egun jarduera aktibistak garatzen dituzten esparruak ez datoz bat, nahitaez, ikasketa politikoa hasi zutenekin.

Aukeratu diren elkarrizketak ikerketa zabalago baten parte dira. Ikerketa horretan 31 elkarrizketa sakon eta 4 eztabaida-talde egin dira EAEn eta Nafarroan, konpromiso zibiko-politikoaren forma eta maila desberdinak dituzten gazteen artean. Guztira 63 pertsonaren ahotsak jaso dira aipatu ikerketan (Larrinaga, Zabalo, Epelde, Iraola, Odriozola eta Amurrio, 2020; Larrinaga, Iraola, Odriozola, Amurrio, Zabalo eta Epelde, 2021).

Herritartasun performatiboak: gazte-aktibismo abertzalea esperimentazio politikorako esparru Euskal Herriko testuinguruan

Hego Euskal Herrian aktibismo kontrahegemonikoa garatzen duten gazteek lehenetsitako partaidetza moduek *eguneroko bizitzaren* eta *bizitza komunitarioaren* politizazioan sakontzen dute, nabarmen. Pertsona horiek eguneroko jardueretan zentratzen dituzte batik bat beren kezkek eta interesak, uste baitute indarrean dagoen sistema politikoak ez diela aukerarik ematen beren premiak eta interesak asetzeko. Estatu esparrua ez da gazte aktibismorako marko nagusizat jotzen. Ildo horretan, ekintzarako hartzen diren esparru pribatuen eta komunitarioen politizazioa lehenagoko euskal aktibismotik jasotako kultura politikoaren osagaia da, frankismo (garai)ko klandestinitateari eta azken hamarkadetakako eraikuntza nazionalako politikei loturik egon dena. Oraintsu arte, politika liskartsuaren barruan kokaturiko kultura hori ezker abertzaleko alderdiek eta beste mugimendu sozial eta komunitario batzuek partekatzen dute —besteak beste, gazte-mugimenduek— baita ETA erakunde armatuak ere. Haatik, erakunde armatua desagertu eta ziklo politikoa aldatu ondoren, oinordeztan hartutako kulturak eta hari lotutako praktika politikoak adierazpen indibidualizatuagoak izaten hasi dira, bereziki gazteen artean. Horrela, aurreko tradizio politikoari buruzko haustura-elementu jakin batzuk azaleratu dira praktika horietan azken hamar urteetan.

Hari horretatik, aktibista gazte batzuek aktibismo abertzalean erreferentzialak izan diren alderdi eta erakunde politikoetan afiliazio organikoa formalki mantentzen duten arren —izatez, erakunde horietan sozializatu dira—, belaunaldi berrien ekimenek, *de facto*, erakunde horien lidergoa ahultzea ekarri dute. Gazte aktibistek zikloaldaketatzat hartu dute gatazka politikoaren makaltzea. Eta zuzenean inplikaturik sentitzen dira aldaketa horretan. Izan ere, beren jarduera aktibistak hain araututa ez dauden espazioetara lekualdatu dira pixkanaka, eta auzien ohiko praktika liskartsuekin batera —manifestazioak, kontzentrazioak, okupazioak, eta abar.—, bizitza pribatuaren eta komunitarioaren esparruetan gauzatutako beste ekintza mota batzuei ere eman diete garrantzia.

Era horretan, beste testuinguru sozial batzuetan hauteman daitezkeen joerekin bat eginez, zentzu politikoa egotzen diete itxuraz garrantzi txikikoak diren jarduera eta hautu arruntei eta, neurri batean, haietara bideratzen dute beren ekintza: zein hizkuntzatan komunikatzen diren, nola eratzen dituzten pertsonen arteko harremanak eta horiek zeharkatzen dituzten menderatze- eta subordinazio-indarrak, zer enplegu mota aukeratzen duten, kontsumo-moduak, naturarekiko harremanak, sexualitatea garatzeko askatasuna, identitate indibidualak nahiz kolektiboak eraikitzeak aukerak... Gune horietan guztietan hezurmamitutako ekintzak ekimen etiko-politiko bilakatzen dira gazte aktibisten begietan. Ondorioz, esanahi politikoaren esleipen horrek zabaltzen ditu gazte aktibisten errepertorio parte-hartzaileak tradizioz erreferen-

rentzialak izan diren alderdi eta erakundeetatik harago eta, horrela, esparru politikoa ohiko mugetatik kanpo hedatu dute —hau da, alderdietako parte-hartzetik, hauteskunde partaidetzatik, eta abar—.

Nik militantzian egiten dudan bira hori (...) Eta gero, eragin du nire ustez ziklo politikoaren aldaketa horrek, ez da izan bakarrik ETAk armak utzi dituela, nik uste dut ere XXI. mendeko eraldaketa prozesuekin bat datorrela (...) gatazka politikoa orain ez izatea hain bizi, nahiz eta gatazka oraindik dagoen, uste dut horretan oso lagungarria izan dela. (Emakumea, 27. Talde feminista)

Nik uste dut politika egin daitekeela edozein lekutatik; politika egin dezakezu zure koadrilan, zure lanpostuan, ikasten duzun lekuan... eta ez zara zertan egituratuta egon edo antolatuta egon (...) gero eta indartsuagoa da hori, nire inguruan ikusten dudanagatik. (Emakumea, 26. Ezker abertzaleko gazte erakunde)

Oro har, aztertutako ezkerreko abertzaletasunaren inguruko aktibistek agentzia politikoaren zentzu nabarmena dute, eta *erreflexibitate* gaitasun handia. Sozializazio politiko goiztiarrari esker, *habitus* aktibista barneratu ahal izan dute, hau da, inguratzen dituen mundua betaurreko kritikoekin ulertzeko ahalmena eta mundu hori eraldatzeko asmotan haren gainean jarduteko gaitasuna ematen dien trebetasun eta dispozizioen multzoa. Ikuspegi horretatik, haurtzarotik eta lehen gaztarotik beren herritartasun aktiboa «herritartasun esperimenteratu» izan da, gorputzez bizi izandakoa. Horrenbestez, nahiz eta herritartasunaren kontzeptua ez den hitzez adierazten beren diskurtsoetan, kontatutako praktika performatiboen gauzatze gisa ulertzen da zeharka. Ondorioz, gazte-estatusari buruz ikusmolde klasikoek planteatzen dutenaz bestera, gazte ekintzaileak ez daude herritar bihurtzeko zain, eta ez dute beren burua herritar ikasletzat hartzen. Aitzitik, beren begietan, beren erreferentziatzko komunitate politikora bideratutako praktika zibiko-politiko sozialki konstruktiboak garatzen dituzte.

Ikasten duzu (...) gazteak ez garela etorkizuna, oraina ere bagarela, eta gure iritzia orain ere entzun behar dela. (Emakumea, 25. Gure Esku Dago plata-forma)

Agentziari lotutako gaitasunek eta erreflexibitateak badaukate, eduki, pribilegio-osagai argia. Haatik, gazte ekintzaileak ez dira jabetzen eragile gisa eratzea ahalbidetu dieten pribilegio-ardatzek, politikatik urrunduta bizi izan diren beste gazte batzuk ez bezala: esparru oso politizatueta gauzaturiko familia- eta komunitate-sozializazio goiztiarra bizi izana, beren partaidetza-aukerak biderkatu dituzten antolaketa-sareak eta sare informalak eskura eduki izana, nerabazarotik aurrera partaidetzarako trebetasun gisa metatutako kapital politikoa, eta, sarri askotan, jatorri

sozialari eta heziketa mailari lotutako baliabide kognitibo bereizgarriak, besteak beste. Ildo beretik, gazte horietako asko —batez ere mutilak— ez dira ohartzen ezta genero-araugintzak esparru aktibistarako sarbidean dituen ondorioez ere. Salbuespena dira subjektu feminista gisa eratuz joan den zenbait neska gazte aktibista, belaunaldi eta genealogia feministetako oinordeko direnak. Pribilegio/zapalkuntza ardatzean mendeko jarrera aktibistatik abiatuta, bai generoan bai adinean oinarritutako menderakuntzaren eta bazterketen bizipena berresten dute beren esperientzien kontakizunaren bitartez, batik bat ikasketa politikoaren hastapen garaietan.

(...) Ni nahiko gaztea nintzen, neska..., ni sartu nintzen ia sarerik gabe (...) Gogoratzen ditut urte horiek interesgarriak, emankorrek izan zirela, baina baita ere uste dut pasa nituela nire lotsak eta nire momentuak (...) Orduan, uste dut garai horretan ni hasi nintzela garatzen pertsonalitate bat eta itxura bat... «txukuna naiz, badakit gauzak egiten, lengoaia batzuk ere asumitzen eta nireak egiten», leku horietara egokitzeko. Eta igual ere autoexijentzia bat ere izan nuen. Nik militantzian autoexijentzia handia izan dut (...) Gainera, ziren garai batzuk klandestinitate hutsean ibiltzen ginena, eta denak ziren gizonak (...) eta ni baino helduagoak. (Emakumea, 27. Talde feminista)

Agentzia-estatus horretatik abiatuta, gazte ekintzaile batzuek alde batera utzi dute gaur egun lehen ikaskuntza politikoan babesleku izandako erakunde politiko nagusien bitartekaritza. Zenbaitetan, belaunaldien arteko haustura politikoan onartzen dute interes eta agenda politikoei dagokienez. Lan-merkatuaren prekaritatea eta horrek bizi-proiektuetan dituen ondorio ezegonkortzaileak, ingurumenari lotutako gaiak, genero-araubidea, norbanakoen eta taldeen identitateak, autoerrealizaziorako, autonomiarako eta emantzipaziorako espazioen bilaketa, adibidez, beren kezka nagusien artean daude. Bestalde, indarrean dagoen eredu sozioekonomikoak sortutako asegabetasuna partekatzen dute, eta ez dira fidatzen *top-down* izeneko eredu politikoen bidez egin daitezkeen aldaketek. Joera antikapitalista batzuek eta norbere bizitzaren autoantolakuntzaren aldekoek ere erakusten dute jasotako kontakizunetan gazteen belaunaldi-ondoeza.

Ildo horretan, uste dute edozein aldaketa sozial norberaren eraldaketatik eta ekintzetatik hasten dela, hizkuntzari, sexualitateari, kontsumo- eta elikadura-ohiturei edo bizitza- eta lan-aukerei dagokienez. Gazteon ustetan, politika ez da eguneroko bizitzatik eta komunitate-bizitzatik bereizitako kanpo-esparrua, non pertsonak integratu behar duten beren interesak lortzeko. Aitzitik, ikusmolde horretan, publikoa eta pribatua, nia eta eguneroko bizitza, oso lotuta agertzen dira ekintza politikoan. Aktibista gazte horiek subjektu politiko bihurtu nahi dute, ez eliteek eta erakunde politikoek herritartasun formala aldarrikatzean hartutako ildotik, beren bizitzak beren erara eraikiz baizik. Jakina, norbanakoan eta egunerokotasunean oinarritutako praktika politikoak areagotzean, jarduteko logika horrek errepertorio politikoak indibidualizatzea dakar berekin, eta, aldi berean, eredu instituzionalak ahultzea. Hori hala

da, nahiz eta, hein handi batean, gazteok eredu instituzional horien oinordekoak diren partaidetza-trebetasunak eskuratzeari dagokionez.

Eta nik uste dut, oro har, badagoela nahiko apurketa edo bereizketa handi bat belaunaldi zaharren eta berrien artean (...). Uste dut sektore zaharrak bizi duela bere borroka, bere borrokan eraman duten jende bat, eta orduan beraiek identifikatzen dira jende horrekin. Sektore gazteak ari dira beste bide bat jorratzen (...). Ikusten dut era argian beste bizi eredu baten aldeko borrokan murgilduago gaudela, ezberdintasun askorekin; batzuk egongo dira bizitza justuago baten alde, beste batzuk lan esplotazioa amaitzeko diskurtsoarekin (...). Nik militatu dut gurasoak Ezker Abertzalekoak zirelako eta herrian nengoelako..., esan nahi dut, ez dut ikuspegi historiko hori ukatzen eta kriston ekarpena egin duela eta horregatik gaudela hemen, bestela igual ez litzateke kezka militanterik egongo Euskal Herrian (...). Baina, zentzu batzuetan sentitzen dut distantzia pixka bat (...), gazte bat ez da gaizki bizi Euskal Herriak ez duelako independentzia (...), gazte bat gaizki bizi da ikasketarako dirurik ez daukalako (...). Errekalear adibide bat baino ez da (...). Eta horregatik nago okupatzen (...) Bagaude batzuk kapitalismoak behartzen gaituen eredu horretatik ateratzeko prest (...), nik garrantzi gehiago ematen diot horri etnizitateari baino. (Gizona, 20. Ikasle erakunde)

Nik laranjak non erosten ditudan hori politika da, edo nori erosten diodan esnea ere politika da, ze guk egiten ditugun gauza txiki horiekin eragiten dugu (...) Eroskin erosten badut esnea, Eroskin edo beste supermerkatu batean, multinazionalen politikari jarraipena egiten diot (...), horregatik esaten dut dena dela politika, guk hartzen ditugun erabaki txiki guztiak politika dira. (Gizona, 35. Trantsizio sozio-ekologikorako taldea)

Horiek horrela, norantz bideratzen dituzte gazte ekintzaileek beren energia politikoak? Aipatu dugun bezala, ez dira gehienbat politika instituzionalizatuaren esparruetara bideratzen, batzuek oraindik ere alderdiei buruzko atxikipen organikoak mantentzen duten arren. Apurka-apurka, indibidualizatutako kultura-testuinguru batean, haien parte-hartze politikoa kontraboterea, autokudeaketa eta kontrola gartzeko aukera duten guneetan errotzen ari da. Izan ere, gazteek beren subiranotasuna gauzatu dezaketen esparruetara bideratzen dute jarduera; espazio sozial eta bizi-modu alternatiboak eraikitzen saiatzen dira gune horietan. Horregatik, beren herri-tartasuna eraikitzeko aldarrikatzen dituzten balio nuklearrak autonomia, subiranotasuna eta antzekoak dira.

Ildo beretik, gazteen praktika politikoez balioen eta ekintzen arteko koherentzia bilatzen dutela erakusten dute. Premisa horretan oinarritzen da beren konpromisoa, elkarrizketetako adierazpenetako askok azaltzen duten bezala. Horrela, norberaren ekintzen bidez, gazte aktibistek beren sinesmen, balio eta idealak gauzatu ditzakete, eta, ondorioz, pentsatzen dutenaren eta egiten dutenaren arteko adostasuna ezar de-

zakete. Berdintasuna, lankidetzeta, elkartasuna, justizia, ekologia, elikadura-subiranotasuna, bidezko merkataritza, hizkuntza-ekitatea, feminismoa, askatasuna, antikapitalismoa, eraldaketa soziala eta elkarrizketetan aipatutako beste balio asko ez dira gazte aktibistentzat printzipio hutsalak eta edukirik gabekoak, baizik eta bizitzan aurrera bultzatzen dituzten ekintzetarako gidak, eta, aldi berean, bizitza hori aurreirudikatzen dutenak. Hortxe azaltzen da aktibismo mota batzuen asmo *prefiguratio*na, hain zuzen ere.

Egin genuen balore zerrenda bat eta horren gainean eraiki genuen gure lana (Gizona, 33. Aktibista digitala. Herri jaietarako erakundea).

Hasieran 0 km-a zen zelako Astra [kultur gune autogestonatu] nahi genuen. Eta hor ere bai finkatu ziren ideologikoki zelakoak izan behar genuen: interkulturala, feminista, antimilitarista... (Emakumea. 30. Kultur gune autogestonatu).

Bizitza pertsonala eta ekintza politikoa uztartuta agertzen diren bizi-ikuskerak horretan, lanaren eta aisialdiaren munduak ere aktibista gazteen konpromisoaren atalak dira, ezinbestean. Gaur egun sortzen ari diren herritartasunaren praktikek ez dituzte aintzat hartzen publiko/pribatu eta politiko/sozial aurkakotasun klasikoak. Egiazki, inplikazio ekintzailea bizitzaren espazioan eta denboran kokaturiko arnas luzeko *continuum* modura ulertu behar da. Halako moldez, non, aisia eta harreman sozialak eta, zenbaitetan, lanbide jarduera bera ere, konpromiso politikoan txertatuta agertzen diren. Ildo horretan, lanaren hautaketari zentzu etikoa itsatsita, ordaindutako lanaren esanahia birdefinitzen dute gazte heldu batzuek. Azken horien esperientzietan, lana iraunkortasunari, besteen zaintzari, justiziarri eta antzeko balioei lotuta agertzen da. Baita sormenezko autoadierazpenaren aukerei ere. Horrenbestez, parte-hartzea ez da mugatzen dagoeneko denboraren eta espazioaren dimentsioetan, eta konpromisoa ez da gauzatzen ekintza politiko jakin baten eta hurrengoaren arteko denbora hausturretan. Aitzitik, parte-hartzea sakon txertatzen da eguneroko jardueran, eta konpromisoa zabaldu egiten da, maiz, bizitza pertsonaleko esparru eta une guztiak inbadituta.

Niretzat ez dago mugarik, edo ez dakit muga jartzen lanaren eta gizarte konpromisoaren artean. Esan nahi dut, noiz ari naiz lanean eta noiz ari naiz militatzen? Dena bat da gaur egun. Orduan... esango nuke ez dela lana, pasioa dela, eta niri nire pasioa egiteagatik ordaintzen didatela. (Gizona, 27. Euskara biziberritzeko elkarte)

Politikoki aktibismo organiko hori utzi dut, orain ez nago inongo egituratan baina ulertzen dut nire bizitza askoz ere politizatuago dagoela, ze, adibidez, nire janari dena kontsumitzen dut kontsumo saskitan edo labore kontsumo elkartetan. Nire aisialdiaren aldetik askoz ere buelta gehiago ematen dizkiot zer, nola eta horri guztiari, saiatzan naiz nire harreman guztiak interpretatzen be-

taurreko politikoagoetatik eta horren arabera ere eraikitzen, eta gero lana; nire lanak ematen dit aukera, nire lana politikoa da, politika egiten dugu ere zerbitzu bat eskaintzen dugunean edo laguntzen diogunean beste kooperatiba bati. Eta lana bera da tresna bat [enpresa] barruan politika egiteko. (Emakumea. 25. Ekonomia sozial eta eraldatzaileko kooperatiba)

Bestalde, gazteen aktibismo experimental eta performatiboaren konpromisoak eragina du niaren garapenean eta identitate individual zein kolektiboen eraikuntzan. Bada, norbanakoaren inplikazioa beste pertsonengana ez ezik norbere buruarengana ere zuzentzen da. Hala, parte-hartzeak gazte jendearen identitatea eraikitzen laguntzen du. Zalantzarik gabe, aktibismo performatiboan, pertsonaren eraikuntza hori bere buruaz eta bizi ibilbideaz egindako prozesu erreflexibo baten parte da, egungo gizartearen desinstituzionalizazio progresiboaren ondorioekin bat datorrena. Hain zuzen ere, prozesu horretan kokatu behar da herritartasunak barne hartzen dituen nortasun politikoen hornitzaile gisa euskal alderdi politikoek izan duten eraginaren galera ere. Horiek horrela, politizatutako gazte askori, konpromiso politikoak lagundu egiten dio bere irudia osatzen eta finkatzen, autoestimua garatzen eta bere buruaren irudikapen positiboa eta ahaldundua indartzen. Horren guztiaren ondorioz, prozesu paraleloak ikus ditzakegu gazte aktibisten konpromiso politikoan, bai jarraitutasunekoak, bai hausturakoak, euskal esparru politikoan transmititu zaizkien tradizio politikoei dagokienez. Batetik, oinordetzan jasotako nortasun eta leialtasun politikoen sendotasuna galdu dute, oinordekotza horren jasotzaile direla aitortzen dutenean ere. Era berean, aurrez eraikitako *pack* politiko-ideologiko osoen gaitzespena erakusten dute. Bestetik, norberaren eta norbere ekintzen gaineko erreflexibitate ahalmena garatu dute, gainerako pertsonekin batera egindako jardueretan.

Liga elkarte ez-partidista da. Bai, bagara antikapitalistak, feministak eta abar, baina ez dugu inoren [erakunde politiko baten] alde egiten. Gure interes nagusia gure identitateei buruzkoa da, gure orientazioei eta haien aitortza sozialari buruzkoa. (Emakumea, 21. LGBTIQ+ Taldea)

Zuk badituzu zure kezkek, zergatik egiten ditugun gauzak eta abar, eta denborarekin joaten zara zure burua ordenatzen, eta galdetzen diozu zure buruari ea zer egiten ari garen (...) eta zer egin beharko genukeen. (Gizona, 33. Aktibista digitala. Herri jaietarako erakundea)

Ni neu ere nire identitateaz eta kokalekuaz hausnartzen hasi nintzen. (Emakumea. 27. Talde feminista)

Ildo horretan, esperientzia berriei esker, parte-hartze politikoak aukera eman die kapital politiko handiena duten pertsoneri gizartearen nagusi diren balioak eta harremanak zalantzan jartzeko eta bizi aukerak zabaltzeko. Esperientzia aktibistek, gainera, aurretik zituzten jarrerak atzera ere pentsatzera bultzatu dituzte gazteak, beren

buruarengan konfiantza izatera, esparru politikoan birkokatzer, baita, zenbaitetan, beren aurreko mugak gainditzera ere. Horixe bera gertatu zaie printzipio berrituetan oinarrituta ahaldundu eta birsozializatu diren feminista gazteei, modu erreflexiboan beren biografia berridazten ikasi baitute. Zalantzarik gabe, ekarpen feministak eragin nabarienetako bat izan dira egungo euskal gazte-aktibismoaren berrikuntzan, ekarpen horiek gero eta gehiago txertatu baitira gazte berritzaileen *habitus* ekintzailean.

Gazte mugimendua zegoen «en un momento de...» goazen gure burua birpentsatzera, goazen harremanetan fokoa jartzera, goazen saretzera... eta apur bat ateratzen de una fase de respuesta... ez dakit, beste klabe batzuetan zegoen, fase eraikitzaileago batera pasatzeko. Orduan, nahiz eta momentu hartan ez deitu hitz hauekin, oinarri inportante bat izan zen feminismoa, eta ez jartzea horrenbeste begirada mundua aldatzeko kanpoan zer egin behar genuen, baizik eta gure baitan guk zer nolako rol, zer nolako botere harremanak erreproduzitzen genituen gazteen artean (...), topatu nintzen egitura patriarkalarekin (...), identifikatu nituen botere harremanak, gizonen nagusigoa eta emakumeok izan ditugun zailtasun ezberdinak. (Emakumea. 27. Talde feminista)

Ikusi dugunez, norberaren buruan lan egitea, norberaren balioetan oinarrituta bizitzea eta prozesu horretan ikasiz joatea gazte aktibisten nahitaezko zereginak dira gizarte indibidualizatuan. Instituzio sozialek pertsonen bizitza arautzeko lehen baino zailtasun handiagoak dituzten garai batean —euskal gizartean ekintza kontrahegemonikoaren protagonismoa izan duten alderdi eta organizazioak ere egoera horretan daude gaur egun—, politikoki jardutea ez da aldaketa sozial eta politikoaren aldeko ekintza indibidual edo kolektiboa soilik. Bada, izan, emantzipazio pertsonaleko esperientzia bat ere, norberaren ezagutzan eta identitatearen eraikuntzan modu erabakigarrian esku hartzen duena. Are gehiago, behin baino gehiagotan, ikaskuntza aktibistak lagundu egiten die gazteei gogobetetzea eta plazera ematen duen identitatea eraikitzen.

Izan ere, frankotan, aktibisten adierazpenek parte-hartze politikoak ahalbidetzen duen integrazio sozialari egiten diote erreferentzia, bai eta parte-hartzen dutenek jasotzen dituzten sari sinbolikoei ere. Zalantzarik gabe, elkarrizketek agerian uzten dute errealizazio pertsonaleko eta sozialeko sentimenduek zentzua ematen diotela parte-hartzeari, eta lortu nahi den kausak berak bezainbeste indartzen dutela hura. Hala, gazteen trantsizioetan, frustrazio-uneak eragiteaz gain, aktibismoak hainbat taldetan integratzeko atea ireki dizkie parte-hartzaileei; beste gazte batzuekin elkarreaginean soziabilitate-sareak antolatzeko aukera emateaz gain, haiekin beren emozioak partekatzeko beta eskaini die, bidezkoztat jotzen dituzten borroketan gogobetetasun-sentimenduak jasotzeko aukera, eta, azken batean, komunitate- eta «familia»-kideak sortzeko bidea, gero eta indibidualizatuago dauden testuinguruetan. Egia esan, parte-hartze politikoa zentzua sortzeko mekanismoa da, gazte konprometituaren bizitzaren esparru guztiak blaitzen dituena. Ondorioz, sari sinbolikoak, as-

kotan, motibazio-iturri bihurtzen dira ekintzan aurrera egiteko, kontuan harturik aktibismo molde batzuk gutxiengo baten jardun esparruak direla edo indarrean dagoen ordenaren aurkako proiektuak aldarrikatzen dituztela.

Ni lehenengo momentutik motibatu nintzen pila bat, berehala ikusi nuen hori zela nire lekua (...). Eta apur bat giza-kateari begira dena zen ilusioa eta poza, dena zen zoragarria, jendea ikusten zenuen motibatuta, lanean kriston gogoekin (...). Izan zen oso gogorra ere (...). Baina, (...) nire lekua topatu nuen, ikusten nuen Baliagarritasun bat zeukala eta ikusten nuen egiten genuenak emaitzak zituela (...). Ordura arte nik harremana ez nuen jendearekin harremana izaten hasi nintzen. Momentu horretan lagunak egin ziren, eta beraiekin hainbat denbora pasatzen nuen, eta ekintza bakoitzak ahalduntzen zuen apur bat gehiago, kapazak ginen, eta oso polita izan zen. (Emakumea, 25. Gure Esku Dago plataforma)

Indibidualizazioa eta zentzu kolektiboa elkarturik agertzen dira aztertutako aktibisten diskurtsoetan. Izan ere, parte-hartzean eta beren konpromiso politikoa gauzatzean, elkarrizketatutako gazteek beste pertsona batzuekin batera jarduteko asmoa adierazi dute. Ekintza kolektiborako aukerak ahultzen dituen indibidualizazioaren kontzeptuaz sarritan egin den interpretazioaren aurrean, politikan esperimendatzen duten gazteek elkarrizketetan aitortutakoak pentsarazten digu praktika politiko indibidualizatuak ez dutela erabat baztertzen alderdi kolektiboa. Aitzitik, indibidualizazioak eta kolektibismoak loturiko bi ardatz ezartzen dituzte euskal gazteen aktibismoan: bata, gaur egun arte euskal gizartearen zati handi batean indarrean egon den politika komunitario eta parte-hartzailearen tradizioaren jarraipena dena, eta, bestea, tradizio horrekin hautsi duena.

Izan ere, gune abertzaleetako ikasketa politikoan jasotako *habitus* parte hartzaileak jarraitutasun zubi bat mantentzen du aurreko tradizio horrekin, hain zuzen ere, belaunaldi aktibista gazteei helarazitako partaidetzaren eta konpromisoaren aldeko bulkadan hezurramitu dena. Baina, *habitus* parte hartzaile hori dagoeneko gaur egungo esparru politikoaren egiturazko baldintza berrietara doituta agertzen da (Larrinaga eta Amurrio, 2022). Zehazki, erregulazio kolektiboak ahuldu egin dira. Egoera soziopolitikoa aldatu egin da. Kolektiboak ez du jadanik sendotasun finkorik, lehen baino adierazpen desberdinagoak ditu orain. Halatan, egoera berrirako portaera-patroirik ez dagoenez, *habitus* aktibistaren jabe diren gazteek bestelako pertenezia loturak eraiki behar dituzte besteekiko elkarrekintzan, talde batean aitortuak izan ahal izateko, interes komunitateetan lokarriak sortzeko, eta hainbat kausaren aldeko ekintza kolektiboetan parte hartu ahal izateko.

Bestalde, jarduera armatuaren desagertzea eta ezker abertzaleko indar politikoaren instituzionalizazio progresiboak euskal gizartearen lehen zeuden mobilizazio mailak apaltzea eragin dute. Ondorioz, instituzionalizazio politikoak praktika politikoaren egokitzapenari buruzko eztabaida piztu du, eta gatazka politikoaren pertzepzioa gi-

zartean arindu izanak ere kezka sortu du tradizio aktibistan sozializatutako gazteen artean.

Nire belaunaldia izango da azkenetarikoa pixka bat gatazka egoeran aktibatu dena. Nire ustez, bai dago erreferente falta bat, eta lehen oso agerikoak eta errazak ziren kontraesan horiek hor zeuden. Orduan, errazagoa zen posizionatzea eta aktibatzea. Egun gatazka oso espliziturik ez dagoenez, ba gatazka ezak dakar ez posizionatzea eta, horren ondorioz, ez politizatzea. Orduan, bai ikusten dut erronka moduan mantentzea erreferente eta kontraesan azaleratze bat ze, bestela, geroz eta zailagoa izango da jendea aktibatzea. Lehen, errepresioa oso agerikoa zen. (Gizona, 26. Etxegune okupatuen komunitatea)

Baina, beste alde batetik, aurrez bizi izandako gatazka eta banaketa soziala arintzeak erraztu egiten du desberdinen arteko elkarrekintza eta erreperitorioen nahiz antolaketa-moduen dibertsifikazioa. Eraikuntza komunitario eta lotura berrietarako aukerak irekiz, konpromiso aktibistak kolektibo bateko kide izatearen sentimendua ematen die parte-hartzen duten era honetako gazteei. Alde horretatik, parte-hartzea egituratzailea da, beren nortasun-premia indibidual eta kolektiboak asetzeko aukera ematen die, eta munduan «beren lekua» aurkitu dutela hautemateko abagunea. Oro har, kide izate horrek gaur egunean ez dio estatuari erreferentziarik egiten, ezta, batzuetan, euskal esparru politiko instituzionalari ere. Esan gabe joan arren, euskal marko politiko lauso bat jotzen da jakintzat gazteen diskurtsoetan. Modu esplizituagoan, aktibistek marko horren barruko komunitate informalei eta tokiko komunitatei egiten diete erreferentzia, edo, besterik gabe, tokiko esparruan gauzatzen diren baina ekintza-logika globalei lotuta dauden mikropolitikei.

Inoiz ez dut inolako kolektibotan parte hartu, ez nintzelako ehuneko ehunean ados ez idealekin ezta defendatzen zuten horrekin ere. Baina, hemen bai. Eta egiatan, elkar osatzen ari gara. Eztatbaida talde bat dugu. Orduan, nik zerbaiti buruzko zalantzarik izanez gero, modu egokian galdetzen dut. Izan ere, badaude min eman dezaketen identitateari buruzko gaiak. Eta gu eztabaidatzen ahalegintzen gara. (Emakumea, 21. LGBTIQ+ Taldea)

Batez ere nik uste dut lehen urte horretan izan zela alde batetik hori, auzoaren kontrola poliki, eta gero etxean, zortzi gaztez okupatutako etxe bat, oso trinkoa, oso politizatua etxea, oso laguntasun erlazio polita garatu, komunitate bizitza oso polita eramán eta sortu oso nukleo fuerte bat, eragin zuzena eduki zuena auzoaren garapenean. (Gizona, 26. Etxegune okupatuen komunitatea)

Ildo horretan, esparru komunitarioaren eta kolektiboaren dimentsio berriak bigarren modernitatearen baldintza sozial eta politikoen pean sortu eta birsortu behar dituzte aktibistek berek, nahiz eta euskal gizartean alde aurretik antolakuntza- eta kultura-oinarria izan. Horretarako, biografien linealtasuna galdu duten gazte horiek

parte-hartzeko trebetasunak eta baliabideak eduki behar dituzte, horiek laguntzen baitiete sareak sortzen, aliantzak egiten eta beste batzuekin hainbat eskalatan negoziatzen. Era berean, egungo agertoki sozialean, ekonomikoan eta lanekoan sortutako egonkortasunik ezari eta ziurgabetasunari aurre egiteko aukera ematen diete sareek. Horren adibide izango lirateke antolaketa-modu malguak, askotarikoak eta deszentralizatuak aldarrikatzen dituzten proposamen feministak, lankidetzak kolektiboak eta, aldi berean, nortasun aktibisten konplexutasuna bateragarri egin nahi dituztenak.

Nire ustez, asko dago ikasteko, adibidez mugimendu feministatik, ze mugimendu feministan belaunaldi gazteak ari gara atxikitzen eta antolatzen. Eta nik uste dut hor dagoela permeabilitate bat edo margen gehiago probatzeko eta asmatzeko (...). Beste zerbaitekin eta zure identitate propiotik ekiteko eta zure arazo propioak nolabait erantzuteko eta hausnartzeko, zugandik abiatuta. Nik uste dut feminismoak eskaintzen dituela horretarako tresna teorikoak; nola zeharkatzen diren esplotazio eta dominazio sistema ezberdinak, eta hor ze kokaleku daukagun emakumeok, gazteok, beltzok... Eta gero, behar ditugu beharbada artikulazio formula lausoagoak, hau da, gune askotarikoak elkartzeko eta gero berriz aldentzeko, eta egitura zurrin bat bezala funtzionatu beharrean, olagarro bat bezala funtzionatzea, ramifikazio ezberdinak dituen eta unean uneko beharren arabera funtzionatzen duena. (Emakumea, 27. Talde feminista)

Nolanahi ere, alde zuzenetik ezkerreko kultura politiko abertzalean zegoen substratu komunitarioak antolaketako eta autokudeaketako esperientzietan aberatsa den kapital batez hornitu ditu oraingoz belaunaldi berrietako aktibistak; kapital hori egokitzen eta moldatzen ari dira gaurko gazteak. Ildo horretan, uste dugu ekintzaile berriak egungo esperientzia politikoetan identifikatutako indibidualizazio-moduak lankidetzazko indibidualizazio-moduak direla. Hain zuzen ere, beste pertsona batzuekin batera jarduteko borondateak ezaugarritzen ditu haien identitateak modu autosufizientean definitzeko ahaleginak, betiere besteekin lankidetzan. Eta zeregin hori, jakina, erraztu egiten da komunitate bizitza oso trinkoa eta sendoa den testuinguru sozialetan — dimentsio ertain edo txikiko herrietan, hiri handietako auzo oso mobilizatuak... — eta autoantolakuntzako tradizio politikoak irauten duen lekuetan.

Okupazio bat egon zen gazteok leku bat behar genuelako. Izatez, Gernika oso aktiboa izan da beti, pila bat elkarte eta mugimendu sozial egon da beti hemen (...). Baina, baldintzak ziren herriak gestionatzea hori, hau da, udalak ez sartzeari eskua, autogestionatua izatea. Orduan, hori dela eta prozesu bat sortu zen, parte-hartze prozesu bat herrian. (Emakumea, 30. Kultur gune autogestionatua)

Oro har, esan dezakegu euskal gazte aktibisten artean aztertutako praktika politikoak esperimentaziorako eta berrikuntza sozialerako laborategiak direla; gune ho-

rietan, esparru politikoaren ertzetatik, indarrean dauden herritartasun moldeak zabaltzeko eta eraldatzeko lehiatzen dira gazteok, politikarekin erlazionatzeko moduak bestelako alternatiba batzuekin ordeztzeko asmoz. XX. mendeaz geroztik indarrean dagoen herritartasun mota nagusia estatuarekin eta haren instituzioekin lotuta eratu da eta, funtsean, hauteskundeetan parte hartuta gauzatzen da gaur egun ere. Eredu horren aurrean, gazteen parte-hartze aktibista dibertsifikazio parte-hartzailerako bideak irekitzen ahalegintzen da, praktika politiko bizitza sozio-komunitariora eta pertsonalera eraman duten formula alternatiboen etengabeko esperimenzioaren bidez. Eraldaketaren eta emantzipazioaren bila, hain esparru desberdinetan eta hainbeste adierazpenetan gauzatzen diren praktika esperimenzional horiek, elkargune batzuk erakusten dituzte, baina baita bidegurutzeko ugari ere. Sormenerako tailerrak diren aldetik, etorkizuneko eredu aurrea hartzeko funtzio prefiguratiboa garatzen dute esparru sozial eta politikoaren bazterretan; horrela, ezagutzak eta esperientziak sortzeko eta elkar trukatzeko balio dute, autoantolatzen dituzten moduak probatzeko, proiektu sozioekonomiko eta kultural berriak abian jartzeko eta beste harreman modu batzuk saiatzeko.

Gu ere kanpora joaten garenean bizitzen gara komunak, bizitzen gara denok batera, eta denon artean antolatzen dugu dena, beharren arabera. Eta hori oso guapo egoten da, ze beste bizitza-eredu bat posiblea dela ikusten duzu bertan. (Gizona, 18. Hainbat herri ekimen)

Egun bizi gara ehun eta piko pertsona etxe horiek okupatzen, nahiz eta berrez mila pertsonentzako kapazitatea daukan auzoa izan. Eta, bueno, gure asmoa da produkzio bitartekoak apropiatuz, poliki-poliki, geroz eta dependentsia gutxiago izango dugula merkatuarekiko. Orduan, alde batetik, komunitatea indartu, planteatuz harreman sozial sanoak, eta beste aldetik erakutsi eredu berri bat posiblea dela. Bizi garen gehienok gara gazteak, zati handi bat Ezker Aibertzaletik pixka bat txinatuak atera garenak, nahiz eta kultura politiko horri esker ari garen lortzen egun daukagun eragina eta zentralitatea. (Gizona, 26. Etxegune okupatuen komunitatea)

Ondorioak

Testu honetan aktibismo kontrahegemonikoan aritutako gazteek demokrazia liberaletako esparru politikoaren bazterretan gauzatu dituzten esperimenzio- eta berrikuntza-praktika politikoak aztertuta ditugu. Praktika horiek herritartasun-ekintza aktibistatzat hartu ditugu. Izan ere, «politikoa» denaren zentzua zabaltzen dute eta auzitan jartzen orain arte ezarritako herritartasun moldea. Hari horretatik, eguneroko bizitzako eta komunitate-bizitzako esparruetara lekualdatu dute parte-hartze politikoak, hein handi batean, eta herritartasun performatiboaren toki bilakatu dituzte esparru horiek.

Berritzailea izan litekeen gazte aktibisten parte-hartze politikoa garatu ahal izateko testuinguru soziopolitiko jakin batek duen garrantzia ere erakutsi digu analisiak. Gazte parte hartzaileak subjektu herritar gisa era daitezen euskal esparru politikoak egitura politiko egokia eskaini die aktibistei: tradizio luzeko kultura politiko komunitarioa, kontrahegemonikoa eta ekintzailea, orain arte *nation building* proiektuei lotua. Adin oso goiztiarretan sozializatu dira kultura horretan; zehatzago adierazita, kultura horretan murgilduta hazi dira. Horrek aukera eman die parte-hartze sortzaile eta eraldatzailearen aldeko *habitus* politikoa berenganatzeko, baita esparru politikoak eskaintzen dituen aukerak identifikatzen eta interpretatzen lagundu dieten disposizio egokiak ere eskuratzeko.

Tradizio politiko horren oinordekoak direla onartu arren, aktibistetako asko antolaketaren aldetik hain araututa ez dauden esparruen esplorazioan murgildu dira, eta esperimentazio politikoak garatu dituzte logika indibidualizatuago baten barruan; autoerrealizazioa eta konpromiso soziopolitikoak, eguneroko mikropolitika eta aktibismo kolektiboa bateratzen dira espazio horietan. Ildo horretan, bigarren modernitatearen gizarteek berezko dituzten baldintza estruktural, kultural eta politikoe-tara moldatu da haien *habitus* parte-hartzailea.

Hala, indibidualizazioa eta kolektibotasuna elkar baztertzaitzat jo dituzten planteamendu batzuen aurka, uste dugu bi dimentsio horiek presente daudela ikerketa honetan parte hartu duten euskal gazteen praktika aktibista performatiboetan. Beren esperientziak aztertu ondoren, ikusi dugu politika indibidualizatua eta bizi-proiektu pertsonalak berdinen arteko lankidetzara orientaturik egon daitezkeela; areago, berdinen arteko lankidetzaren eta elkarlanaren premia dutela, gauzatu ahal izateko. Halaz ere, orientazio kolektiboa ez da *per se* existitzen. Aitzitik, inplikaturako gazteek baliabide kognitiboen eta harremanezkoen jabe izan behar dute, baliabide horiek beharrezkoak baitira partaidetza-praktiketan sareak eta lankidetzazko loturak eraikitzeko, aztertutako pertsonen kasuan gertatzen den bezala.

Ildo horretan, beste ikerketa askotan erakutsi den ebidentzia berrets dezakegu gazteen parte-hartzea baldintzatzen duten egiturazko murrizketei eta herritar aktibisten aukerei dagokienean. Izan ere, gure ikerketaren aktibista berritzaileek gutxiengo bat osatzen dute gizartean, kapital politiko handiaren jabe den gutxiengoa, are gehiago, «kapital aktibista» nabarmena metatu duena, bai oinordekotzan hartua bai banakoan bizi esperientzietan irabazitakoa. Kapital hori klase kokapen jakin batekin eta kultura-baliabideekin lotuta dago —elkarrizketatutako pertsonak jatorri soziofamiliar desberdinak dituzten arren, unibertsitate-ikasketak dauzkate edo ikasten ari dira elkarrizketa egiten den unean—, baina baita bizi izandako sozializazio esperientziekin ere. Ziurrenik, maila kulturalarekin batera, txikitatik izandako sozializazio politiko komunitario biziak jatorri sozialaren hasierako balizko desberdintasunak berdintzeko balio izan du, kapital aktibistaren metatze prozesuari dagokionez. Nolanahi ere, elkarrizketaturiko gazteek ez dute horrelako desorekarik aintzat hartu. Beren narraitibetan gazteok genero zapalkuntzak baino ez dituzte hauteman bazterketa-ar-datz gisa, esparru aktibistaren beraren barruan. Halaber, gaitasun kritiko jakin ba-

tzuen jabe izan arren, ez dute zalantzan jarri beren praktika politikoetan atzematen den indibidualizazio progresiboak epe luzera izan ditzakeen ondorioak, ezta praktika horiek egungo erretorika neoliberalarekin eta haren herritartasun-molde idealekin duten lotura zuzena ere —norberaren bizitzaren diseinuan, autokudeaketan, eta antzeko balioetan oinarritua—.

Argitzeke dago, oraingoz, aktibismo-eredu horren etorkizuneko bilakaera. Alde batetik, eguneroko bizitzan modu progresiboan indibidualizatutako errepertorioen aldeko joera, etorri ere, bat dator politika neoliberalak bultzatzen duten herritartasun ereduarekin. Beste aldetik, neoliberalismoaren eraginaz gain, indarkeriazko gatazka desagertzean, mobilizazio liskartsuaren kultura ahultzen doa euskal testuinguru sozialean, eta horrek baldintzatu egin dezake etorkizunari begira euskal ezker abertzalearen inguruko gazte aktibismoak orain arte izan duen bizitasuna eta izaera kontra-hegemonikoa. Horri dagokionez, ezkerreko gazte abertzale batzuek hasierako ikasketa politikoan eskuratutako disposizio aktibistak berreraikitzen ari dira, tokiko errealitate berriarekin harremanetan ez ezik modernitate berantiarreko gizarteen baldintza kultural eta politikoekin interakzioan ere. Hartara, une honetan herentziak eta esperimentazioak bat egin dute zenbait gazte aktibistaren praktiketan. Jarraitasuna ala iraunkortasuna modu baztertzailan lehenesten duten aldebakarreko azalpenetatik harago, eta egituren eragina ala gazte agentziaren protagonismoa aurkakotasun batean planteatzen duten tesietatik harago, ikerketa honek agerian uzten du gazte aktibisten ikaskuntza eta esperimentazio politikoak norabide antzeko etengabeko transakzio konplexu eta iraunkorrak direla, praktika politiko dinamikoen eta eskala desberdinetako testuinguru aldakorren artean gauzatzen direnak. Hain zuzen ere, transakzio horiek ezarriko dituzte, modu dinamikoan, etorkizuneko herritartasunaren mugak.

Sakontzeko

- Larrinaga, Ane, Iker Iraola, Onintza Odriozola, Mila Amurrio, Julen Zabalo eta Maddalen Epelde (2021). Oraingo gazteak axolagabe? Gazteen eta politikaren arteko harremanak aztergai. *Jakin* 243, 11-65.
- Letamendia, Arkaitz (2018). Las transformaciones de la movilización social en Euskal Herria: del posfranquismo a la década de 2010. *Anuario de Movimientos Sociales 2018*. Betiko Fundazioa.
- Mair, Peter. 2013. *Gobernando el vacío. La banalización de la democracia occidental*. Alianza Editorial.
- Parés, Marc. 2014. La participación política de los jóvenes ante el cambio de época. *Metamorfosis. Revista del Centro Reina Sofía sobre Adolescencia y Juventud* 0, 65-85.
- Pleyers, Geoffrey. 2019. *Movimientos sociales en el siglo XXI. Perspectivas y herramientas analíticas*. Icaria.

Gizarte-zerbitzuen dimentsio komunitarioa: demokratizaziorako aukera Parte-hartzearen bidez

Nerea Zubillaga-Herran, Noemi Bergantiños Franco
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena. Esku artean daukagun lan honek gizarte-zerbitzuek aurrez aurre dituzten erronketara hurbilketa bat egiten du. Horien aurrean, partaidetza eta DIMENTSION KOMUNITARIOA ardatz dituzten proposamenak aurrera eramatea proposatzen da eta horrela, sakontze demokratikoaren printzipioekin estrategikoki bat egitea ahalbidetzen duten tresnatzat hartzen dira. Gizarte-zerbitzuei buruzko hausnarketa hau gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren kasua adibidetzat hartuz bukatzen da, bertan, komunitate dimentsioak duen presentziaren eta garapenaren hurbilketa eta ebaluazio labur baten bidez aurrez teorikoki aipatutakoaren adibide praktikoa eskaintzeko asmoz.

Garrantzitsua da azpimarratzea planteamendu hau gizarte langintza komunitarioaren ikuspegitik gauzatu dela, ulertzen dugulako gizarte-zerbitzuak funtsean gizarte langintzaren diziplinak eskaintzen dituen esku hartzeko printzipioez eta ereduaz elikatzen direla. Gizarte-zerbitzuak ongizate kolektiboa eta gizarte babesa defendatzeko funtsezko zutabe gisa ikusten dira, horregatik, gizarte-zerbitzuen harremanezko, partaidetzako eta ondorioz, komunitateko ikuspegiak aukera ematen du gizarte desberdintasunak planteatzen dituen erronken aurrean sakontze demokratikoaren ikuspegitik jarduteko.

Gizarte-zerbitzuak

Estatu demokratikoetan, hezkuntzarekin, enplegu politikekin eta osasunarekin batera, gizarte-zerbitzuak ongizate-estatuaren funtsezko zutabeetako bat dira. Helburuen artean, gizarte babesa eta gizarte beharizanen estaldura bermatzea nabarmendu daitezke, baita pertsonen promozioa eta autonomia garatzea. Horretaz gain, errealitatearen eraldaketa ere aipatu daiteke zeharkako helburu bezala. Autonomia pertsonalarekin zein mendekotasunekin eta integrazio zein bazterketa erlazionalarekin lan egiten da, hainbat administrazioetan eta eskumen mailatan zabalduetako pres-

tazio eta zerbitzuen bidez. Hala ere, bere proiektzioa historikoki beste babes sistema batzuen bano txikiagoa izan da, eta, ongizate-estatuarekin berarekin batera, bere gaitasuna eta jatorrizko helburuak murrizten dituen nolabaiteko ahultzea jasan dute (Fantova, 2014).

Ongizate-estatu. Batez ere, II. Mundu Gerraren ondoren, Europak estatu askotan dagoen estatu eredua da. Gizarte politika ezberdinen bitartez, pertsonen bizi kalitatea bermatzeko baita ezberdintasunak ezabatzeko ere, egiten den ekintza multzoei ematen zaizen izena da.

A. *Gizarte-zerbitzuak krisi demokratikoaren aurrean*

Krisi testuinguruak agerian uzten du lehen ere aitortu izan den krisi demokratikoaren ezaugarrietako bat: ezberdintasunen etengabeko eta balizko larriagotzea gertatzen dela (Ibarra eta Bergantiños, 2018, 19. or.). Are gehiago, demokraziaren gabeziari buruzko eztabaida, demokraziak barne hartzen dituen gizarte bazterketa modu anitz eta agerikoei buruzkoa ere bada (Subirats, 2018, 44. or.). Ildo horretan, esan daiteke aurreko finantza-krisiak eta beste gizarte aldaketa batzuek ziurgabetasun testuinguru bat sortu dutela, eta zalantzan jartzen zela ongizate-estatuak (SIIS, 2019) desberdintasun eta bazterkeria egoera horiei aurre egiteko duen gaitasuna. Horrenbestez, marko horretan kokatzen da gizarte-zerbitzuetan sakontze demokratikoari buruzko gogoeta.

Krisi testuinguruari emandako erantzunen arabera, austeritatearen printzipioetan (zorpetzea murriztea eta gastu publikoan inbertsio txikiagoa egitea) eta neoliberalismo berantiarrean (Rolnick, 2013) oinarritutako erantzunek nolabaiteko tentsioa sortzen dute estatu sozialaren printzipioei dagokienez (Gordillo, 2013). Hala, langabeziak, pobrezia eta desberdintasun sozialek gora egin izanak (Intermón-Oxfam, 2016; EAPN, 2019; Foessa, 2019) zalantzan jartzen du austeritate ereduaren eraginkortasuna krisiaren irtenbide gisa (Flores eta Nieto, 2013; Bergantiños *et al.*, 2017) eta agerian uzten ditu norbanakoa gizarte mehatxu anitzen aurrean bakarrik dagoelako ideia (Torres eta Garzón, 2010, 221.or.) eta bere gain dituen orientazio neoliberalen ongizate politika batzuen ahuleziak (Morales-Villena, 2020).

Gauzak horrela, birsortzeko erantzunen eta alternatiba demokratikoen beharra funtsezkoa da gizarte-zerbitzuen eremuan ere. Gizarte-zerbitzuak gizarte arazoak konpontzen dituen laguntza tresna gisa duten ikuspegi tradizioaletik haratago joan behar da (Hernandez-Echegaray, 2019), izan ere, gizarte politikak termino demokratikoetan eraikitzeko estrategian, agente eta ekintza eremutat har daitezke. Alegia, gizarte-zerbitzuek pertsonen elkarrekintzatik eta komunikaziotik abiatuta ulertzen dute errealitatea, eta hori bera botere demokratikoaren iturri da (Bouverne-De Bie *et al.*). Hori dela eta, uste dugu parte-hartzea eta, zehazki, komunitate-partaidetza funtsezko tresna bihurtzen dela gizarte errealitatea zein demokrazia eraldatzeko.

Horren inguruan sakontze aldera, gizarte-zerbitzuen arloko arau garapen autonomikoak aditzera ematen du herritarren parte-hartzea dela gakoetako bat gizarteratzean, hots, aukera berdintasuna edo justizia soziala lortzeko prozesuetan. Gainera, esan daiteke joera hori antzekoa dela Europako beste herrialde batzuetan (Pestoff, 2009), herritarrak gizarte-zerbitzuen horniduran eta gobernantzan inplikatzeko hainbat modu bilatzen ari baitira, sistemak aurre egin behar dien erronken inguruan lan egiteko.

Gizarte-zerbitzuen arloan, parte-hartzea hainbat ikuspegitik jasotzen da: (i) Alde batetik, pertsonak gizarte politikaren diseinuan, betearazpenean eta ebaluazioan parte-hartzea dago, hainbat gizarte eragileren parte-hartzea ahalbidetzen duten egituren bitartez. (ii) Bestalde, herritarrek zuzenean parte-hartzen dute beren esku hartze sozialeko prozesuan. Gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileen parte-hartzearen dimentsio hori jorratu da gehien zientziaren eta lanbidearen ikuspegitik, diagnostikoak eta esku-hartze plan partekatuak edo gidatuak eginez profesionalaren eta artatutako pertsonaren artean (Zamanillo, 2008; Santos, 2012). (iii) Azkenik, gizarte-zerbitzuetako parte-hartzeak, oro har, ikuspegi komunitario eta erlazional bati heldu behar diola uste da. Hala nola, babes sareak eta gizarte harremanak, testuinguruen eraldaketara zuzenduz, testuinguru justuagoak lortzeko. Azken hau da lan honetan landuko den parte-hartzearen perspektiba.

Gainera, gizarte-zerbitzuetan parte-hartzeak badu berezitasun bat: sarri, zaurgarritasun-egoeran edo gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonekin lan egitea. Ildo horretan, parte-hartzea funtsezko bihurtzen da, gizartearen edo kolektiboaren parte sentiarazten duelako (Arenas, 2016). Hala, zenbait lanek etorkizuneko ongizatearen definizioan eta ongizate-estatuari eusten dioten politika eta gizarte-zerbitzuetan pertsonak parte hartu ahal izateko prozesuak eta egiturak sortzearen garrantzia lantzen dute (Truell, 2019, 756. or.).

Aurrekoari dagokionez, Espainiako testuinguru autonomikoetan onartutako gizarte-zerbitzuen azken legeek esplizituki aipatzen dute parte-hartzearen garrantzia esku hartze sozialeko maila eta espazio guztietan garatu beharreko elementu nagusi gisa (Valentziako Generalitatea, 2019; Andaluziako Junta, 2018; Aragoiko Gobernua, 2009; Eusko Jaurlaritza, 2008; Kataluniako Generalitatea, 2007 eta Aleman, 2010). Aurrerago sakonduko dugun Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak partaidetza sustatzeko beharra jasotzen du herritarren inplikazioarekin, eta, are gehiago, parte-hartzea sistemaren beraren printzipioetako bat da, bere helburuak lortzeko hiru mekanismoetako bat izateaz gain:

Komunitateak gizarte-zerbitzuen esparruan arreta jaso dezaketen gizarte-beharrizanei erantzuten parte har dezan sustatzea, bereziki erabiltzaileek eta gizarte-zerbitzuen eremuan jarduten diren erakundeek banaka eta elkartuta parte har dezaten sustatzea. (Eusko Jaurlaritza, 2008, 6.2b)

B. *Gizarte-zerbitzuen bilakaera eta testuingurua*

Espainiako estatuaren kasuan, ongizate-estatuaren sorrera diktadura frankistaren abagune politikoak zeharkatzen du. European ongizate-estatua forma hartzen hasi zen bitartean, Espainian, karitatean oinarritzen den ongintzak eta orientazio asistentzialistak funtsezko rola betetzen zuten (SIIS, 2019; Santos, 2012), eta ondoren gizarte laguntza sortu zen. Hala, hamarkada batzuk beranduago, hots, 80ko hamarkadan, gizarte-zerbitzuak oraindik ere gizarte segurantzaren esparruan hartzen ziren kontuan, eta gainerako babes sistemetatik kanpo geratzen ziren pertsonentzat gizarte laguntza zegoen (Aguilar, 2017). Garapen horretatik abiatuta, eta hainbat arrazoi-rengatik (sistema gaztea, eskumen eta erakunde ugari, eta abar), esan liteke gizarte-zerbitzuek ez dutela gainerako sistemen finkatze maila bera lortu (Hernandez-Echegaray, 2019; Jaraíz, 2011).

Karitatea. Jatorri kristaua eta erlijiosoa duen gizarteko esku-hartze mota. Historian garrantzi handia izan du, eta elizak bultzaturiko esku-hartzea izan da. Gaur egun marko juridikoak ez du karitatea hobesten, eta haren eremua arlo pribatura mugatzen da (Zabalo eta Moreno, 2011, 20. or.).

Ongintza. Gizarte-beharrizanak dituzten pertsonen zuzentzen zaizkien prestazioak. Esku-hartze publikoa izaten da, eta gehienetan bizirauteko behar diren baliabideetara mugatzen da. Ongintzaren barruko prestazioak ez dira eskubidetzat jotzen, bostere publikoen nahietara baldintzatuta gelditzen baitira. Askotan aurrekontu zehatzik ez da egoten, eta diskrezionalitate-maila handia izaten dute. XVI. mendean du jatorria, eta XIX. mendean zehar indartu zen. Gaurko marko juridikoan, inplizituki bada ere, ez da onartzen, eta bere esparrua arlo pribatura ere mugatzen da (Zabalo eta Moreno, 2011, 20. or.).

Laurogeiko hamarkadan, European, politika neoliberal indartsuak sartu ziren eta ongizate-estatua kritikatzeko zuten beren planteamenduetan, kosturik eta eraginkortasunik ezaren ideari lotuta (Del Pino eta Rubio, 2013). Ordura arte, ongizate-estatuak, keynestar izaera politiko-ideologikokoak edo zeregin desmerkantilizatzaileak zuten, non elkartasuna eta birbanaketa ziren herritarrak babesteko sarearen ardatzak (Inza-Bartolome, 2015, 391. or.). Aldiz, postulatu neoliberalak ongizatearen erantzukizuna gizabanakoarengan jartzen hasten da. Aldi berean, arlo publikoaren kudeaketa merkantil eta pribatua defendatzen da, ordura arte, ordea, merkantilizatzaileak ez ziren printzipioekin kudeatzen ziren (Inza-Bartolome, 2015, 386. or.).

Ongizate-estatuak, izenak berak dioen bezala, eta hedaduraz gizarte-zerbitzuak, ongizatea lortzen saiatzen dira. Esping Andersenren proposamenak (1993) ongizatea eta segurtasuna hornitzen dituzten hiru egitura bereizten ditu: estatua, merkaturia (enplegua) eta familia, eta horrela osatzen du berak *welfare triangle* deritzona. Bauman (2000) bezalako autoreek egitura horiek segurtasunaren eta ongizatearen hornitzaile

gisa dituzten zailtasunak adierazten dituzte modernitate likidoa bezalako kontzeptuekin. Enpleguari dagokionez, gero eta ezegonkorragoa eta prekarioagoa da eta horrek, zalantza jositako lan ibilbideak eragiten ditu (Aznar eta Azorín, 2010). Prekarietatea lan merkatuaren ezaugarri nagusietakoa da, eta, beraz, nekez jardun ahal izango du segurtasunaren eta ongizatearen hornitzaile gisa.

Welfare triangle. Esping Andersenek (1993) egindako proposamena da. Gizartean, segurtasuna eta ongizatea eskaintzeaz arduratzen diren hiru estrukturei (Familia, merkatua/enplegua, estatua) emandako izena da.

Modernitate likidoa. Teoria horrek aurretik gizartean zeuden errealitate eta egitura sendoak (enplegu egonkorra eta beharrak betetzeko gai diren diru-sarrerak bermatzen dituena, familia eta bere forma tradizionala, etab.), egonkortasuna eta babesa emateaz arduratzen zirenak, lehen bezain sendoak ez direla azaltzen du, likidoak eta hauskorrak direla. Adibidez, lan-ibilbide prekarioak eta aldakorrak, familia ereduak, eta abar. ondorioz, gizartean sekulako ezegonkortasuna sortzen da horrek dakarren guztiarekin (Bauman, 2000).

Bigarrenik, familia ere ez da gai orain arte, bereziki premia handiko egoeren aurrean, eskaini duen segurtasuna eta ongizatea bermatzeko. Familien ahalmen ekonomikoak nabarmen egin du behera (Foessa, 2019), eta emakumeak lan merkatuan duen partaidetzaren ondorioz, familiak garrantzia galdu du segurtasun eta ongizate egitura nagusi gisa (Moreno, 2002). Horri lotuta, individualismoaren ondorioz, lehen mailako babes iturriek (sareak, komunitatea edo, azken batean, gizarte antolatua) ere, ongizatea hornitzeko eragile gisa zuten gaitasuna galdu dute (Hernández, 2009).

Azkenik, estatuak gizarte babeserako zuen rola ere, beherantz doa. Estatuak ekonomia arautu, doitu eta bertan esku hartzeko zailtasun handiak ditu, logika merkantilen eta globalizazioaren aurrean. Esku hartzeak ez dira esaterako, enpleguaren, osasunaren eta hezkuntzaren bidez, babes publikoa zabaltzera bideratzen, baizik eta lan merkatu baztertzailak sortutako bazterketak konpentsatzera bideratzen dira (Cabeza, 2006).

Oinarrizko egitura hori ezagututa, esan liteke ongizate-estatuak garapen aukera ezberdinak ematen dituztela aurreko egitura hornitzaileetako bakoitzak duen pisuaren arabera eta hori horrela, eredu ezberdinak identifika daitezke. Espainiako estatuaren kasuan, Grezian, Italian edo Portugalen bezala, eredu mediterranearra dagoela esan daiteke, eta eredu horren bereizgarri nagusia, familiak ongizate eta segurtasun hornitzaile gisa duen funtsezko eginkizuna da. Gainera, prestazioak eta zerbitzuak laneratzearekin lotuta egon ohi dira; kasu askotan, sistema selektiboa da, unibertsala izan beharrean, eta birbanatzeko ahalmen txikia du. Ondorioz, gizartean duen inpaktua desberdintasun sozialak errepikatzearena da. (Moreno eta Mari-Klose, 2016).

Eredu mediterranearra. Europako OE ereduaren artean egiten den sailkapenean ere ez dago modu bakar bat. Lau eredu nagusi daude, nordikoa, liberala/anglosaxoia, erdialdekoa/bismarkena eta mediterranearra edo hegoaldekoa. Eredu mediterranearrak ezaugarri-ñabardura garrantzitsuak ditu: ardura eta erantzukizun nagusia familiak dauka; baliabide eta zerbitzuak inklusio laboralarekin erlazionatuta daude; sistema selektiboa izan ohi da, unibertsalaren ordean, zenbait kasutan, eta, ondorioz, gizartean eragiten duena ezberdintasun sozialen birproduktzioa da (Moreno eta Mari-Klose, 2016).

C. *Gizarte-zerbitzuen erronkak*

Gizarte-zerbitzuek politika neoliberalen eragin nabarmena izan dute, eta hori are garrantzitsuagoa izan da krisi ekonomikoaren testuinguruan (Pastor, Verde eta Lima, 2019). Ildo horretan, lan batzuen arabera, gizarte langileak, gizarte-zerbitzuetako profesional nagusiak direnak, ideologia marxista/sozialistetatik (estatuaren esku hartzea zabala zen eta erantzukizun handiagoa zuen) ideologia neoliberalagoetara igaro direla aipatzen da (Boryczko, 2020), norbanakoak bere ongizatean duen erantzukizuna sustatuz eta, aldi berean, estatuak hornitzaile gisa duen zeregina murriztuz. Joera neoliberalerak, beraz, azterlan horien arabera, gizarte-zerbitzuek gizarte politiketan duten influentzia gaitasuna eta eraldaketa agente bezala izan ditzaketen boterea murrizten dutela dirudi (Lzar *et al.*, 2019). Gizarte-zerbitzuak, justizia soziala eta gizarte eraldaketa sustatzeko sistema bezala ulertzen baditugu, garrantzitsua da, bide horretan, gaur egun dituzten erronkak identifikatzea eta ezaugarritzea.

Ildo horretan, gizarte-zerbitzuen sorrera, aipatu bezala, egoera politikoak markatzen du, zalantzarik gabe. Sistema ez da sendotzen (sistema gaztea, hainbat eskumen eta erakunde, eta abar), eta, horren ondorioz, gizarte-zerbitzuen sistemaren objektua zehazteko zailtasunak dute (Jaraíz, 2011; Aguilar, 2017; Fantova, 2017).

Objektua. Gizarte-zientzien eta gizarte-langintzaren objektua da identifikatu dugun lehenengo elementu korapilatsua. Hiztegien arabera, zientzia batek ezagutzea edo eraldatzea helburu duen materia edo gaia da objektua. Erabilera, ordea, testuinguru askotan gauzatzen da: ezagutzaren alorrean ez ezik, baita praktikarenean edo ekintzarenean ere. Gehientsuenetan, dena den, objektua errealitate fisikotik bereizten den eraikuntza zientifiko abstraktua izan ohi da, eta ez da beraz, zentzumenek hauteman dezaketen hori, baizik eta objektu sentikorraz harago dagoen eraikuntza teorikoa. Hala ere, praktika produktibo, profesional edo sozial batetik abiatuz eraikitzen denaren kategoriari erreferentzia egiteko ere erabiltzen da, lanbide edo subjektu batek objektuaren gainean eraikitzen baitu bere identitatea. Finean, objektua diziplina edo sistema bati berariaz dagokion errealitatearen zati bat legez uler dezakegu, diziplinari ezagutza materia sortuz eta sistemari berriz, ekintza edo interes esparrua (Zubillaga-Herran eta Berasaluze, 2021, 45.or.).

Lege esparruek oso esplizituki jasotzen duten arren, zalantzak daude ea gizarte-zerbitzu horiek sistema gisa definitzeko adina zume dituzten (Arrieta, 2019; Roland, 2010). Gizarte-zerbitzuei buruzko azken legeetan adierazten da horiek beste edozein babes sistemaren parekoak direla, unibertsalak direla eta, beraz, herritar guztientzat direla. Hala eta guztiz ere, gizarte-zerbitzuetako arreta profila aztertzerakoan, funtsean, errenta txikiagoa duten pertsonak, pertsona zaugarriak edo gizarte estratifikazioan maila baxuenak okupatzen dituztenak agertzen dira eta horrenbestez, profesionalen lana, batez ere, biztanleria oso espezifikokoaren oinarritzko premiak asetzea da. Ondorioz, hondakin sistema bihurtzen da, sistema unibertsala izan beharrean. Horregatik, Fantovak (2000, 2. or.) dioten bezala, gero eta arduragabeagoa, ez eraginkorragoa eta arriskutsuagoa da gizartearentzat gizarte-zerbitzuak azken sare orokorra izan daitezkeela dioten fikzioari eustea, eta, ezinbestekoa da gizarte-zerbitzuen unibertsaltasunaren ildoan lan egitea.

Aurrekoari dagokionez, ezinbestekoa da arreta ereduari dagokion erronka adieraztea. Berretsi egiten da ezin dela Zamanillok eta Gaitanek (1991) planteatutako eskaera-baliabidea binomioan oinarrituta kutsu asistentzialista alde batera utzi (Arenas, 2016), gaur egun ere gizarte-zerbitzuak mugatzen baititu. Binomio horrek esku hartze urgentearen eta puntualaren nagusitasunari egiten dio erreferentzia, banakako eta familiako esku hartzeen bidez egiten denari, batez ere, pertsona edo familia planteatzen duen premia bati, gutxieneko iraupena bermatzeko, erantzuten baitiote bulegotik eta *a posteriori*. Zamanillok eta Noguesek adierazten dute modu horretan neoliberalismoa eta desberdintasuna bultzatzen direla (2020, 4. or.). Aitzitik, erabakigarria da ongizate-estatuan eta garapen demokratikoan performazio gaitasuna duten gizarte-zerbitzuak berrasmatea, sortzen ari diren premiei erantzuteko eta arreta eredu eraldatzeko. Pertsona eta kolektiboekin, lehenengo edo hasierako momentuan lan egiten saiatuko diren gizarte-zerbitzuak behar dira, egoera larriago ez dadin, era proaktibo eta prebentiboan lan egiten dutenak (Dominguez eta Esperanza, 2017).

Esan genezake, beraz, ekonomia eta kudeaketa printzipio pribatuek gizarte-zerbitzuen egiteko moduak kolonizatu dituztela (Spolander, Engelbrecht eta Pullen, 2016) eta alde batera utzi dela ikuspegi komunitario eta kolektiboarekin egiten den esku hartzea (Carbonero *et al.*, 2012). Merkantilizazioaren ideiatik abiatuta, eta aurrekoarekin lotuta, Beckek (2006) indibidualizazio prozesuez hitz egiten du, hau da, harremanak babes ondasun primario bezala ulertuz, pairatzen ari diren kalteaz eta suntsipenaz. Gizarte-zerbitzuek ulertzen badute premia horien oinarria egiturazko gizarte arazoetan dagoela (gizarte bazterketa, desberdintasuna, pobrezia, migrazio-fluxuak, indarkeria matxista eta abar), nekez aurre egin dakieke erantzun indibidual eta asistentzialista hutsekin. Hala, gizarte-zerbitzuetatik gizarte langintzaren dimentsio kolektiboa eta egiturazkoa berreskuratzea funtsezkoa dela uste da, ekintza kolektiboan sakonduz, interes orokorrak norbanakoen interesen aurretik jarriz eta inplikaturako guztien parte-hartzea bultzatuz (Rodriguez, 2015).

Gizarte-ongizate eta -babesaren ikuspegi kolektiboaren (ez-indibiduala) ardatza falta da, eta horren isla da herritarrek gizarte-zerbitzuen sistemari berari buruz duten pertzepzioa. Herritarrek ez dituzte gizarte-zerbitzuak sistema unibertsal edo, are gehiago, funtsezko gisa ikusten, hezkuntza sistemarekin edo osasun sistemarekin gertatzen den bezala, baizik eta hondar sistematzat eta asistentzialistatzat hartzen dira. Pertsona guztientzako eskubide sozialaren ikuspegia txertatzea beharrezkoa da justizia soziala sustatzeko, izan ere, herritarrek gizarte-zerbitzuetatik jaso dezaketen babesetik harago, sistemaren iraunkortasunerako ezinbestekoa da gizartearen legitimazioa, sistema publiko batek gizarteak babestea behar baitu eta beharrezkoa bada, babestu, zaindu edo aldarrikatzea behar du (Santos, 2012).

Unibertsaltasuna. Unibertsaltasuna «gizarte-zerbitzuen antolakuntza-printzipio operatiboetako bat da, eta, haren arabera, zerbitzu horiek guztionak eta guztiontzat dira. Hori horrela, bazterketa-egoeran edo gizarte-maila ahulenetan dauden pertsonen prestazioak eskaintzen dizkien zerbitzu asistentzialetatik harago, herritar guztiak izan beharko lukete, herritar izate hutsagatik, gizarte-zerbitzuetara jotzeko aukera, eta horrek ikuskera asistentziala gainditzea ekarriko luke» (Zubillaga-Herran eta Berasaluze, 2021, 45.or.).

Laburbilduz, gizarte-zerbitzuen ikuspegi horrek aukera ematen digu gutxienez honako erronka hauek identifikatzeko:

1. Sistemaren benetako unibertsalizazioa, objektuaren mugaketaren bidez.
2. Arreta eredu erreaktibo eta indibidualista batetik, prebentzio eta komunitate izaerako eredu batera igarotzea, ez soilik asistentzialista (arreta puntualekoa eta premiazkoa).
3. Herritar guztiak gizarte-zerbitzuetara hurbiltzea, benetako eskubide gisa.

Bestalde, pandemiaren egungo testuinguruak, gizarte-zerbitzuei dagokienez, aurretik aipatutako erronka horietako batzuk berretsi besterik ez du egin. Fantovak (2020) adierazten du testuinguru horrek aukera ematen duela gizarte-zerbitzuak birpentsatzeko eta berrasmatzeko, zerbitzu horiek berreraikitze helburuarekin. Ildo beretik, Zamanillok eta Noguesek adierazi dute bidegurutze baten aurrean gaudela, eta, beraz, ezinbestekoa dela bide berriei ekitea, gehienek aldaketa erradikalak eskatzen dituztela (2020, 8. or.).

Idea eta balio neoliberalak, zalantzarik gabe, gizarte lanaren balioak berak desafiitzen dituzte (Marthinsen, 2019), baita gizarte-zerbitzuenak berenak ere, eta gizarte-zerbitzuak berrasmatzeko beharra adierazten dute, aurrean dituen erronkei aurre egin ahal izateko.

Dimentsio komunitarioa

Dimentsio komunitarioa da komunitatea bera edo testuingurua, norbanakoen artean sortutako dinamikak, elkarrekintza, sareak, mugimenduak, tokiko errealitateak eta abar. kontuan hartzen dituen dimentsioa. Gizarte-zerbitzuetatik pertsonekin lan egitean, indibidualetik haratago doana kontuan hartuko duen jardun profesionaletan egitea ahalbidetzen duen dimentsioa da. Kolektibotasunean jartzen du garrantzia eta pertsona bere testuingurua osoan ulertzea dakar. Komunitatean bertan egon daitezkeen baliabideak erabiliz, pertsonen ongizatea bilatu, ongizate kolektiboa azpimarratuz eta horretarako, gizarte arazoan erroan eragitea da asmoa. Komunitatea bera, egoerak aldatzeko baliabide bezala ulertzen duen dimentsioa da, arazoak kolektibizatuz.

A. *Dimentsio komunitarioa gizarte-zerbitzuetako erronken aurrean*

Orain arte, gizarte-zerbitzuek ongizate-estatuaren zutabe gisa duten garrantzia argudiatzen saiatu gara, eta gizarte-zerbitzuek erantzun beharreko erronka batzuk identifikatu ditugu. Horretarako, sakontze demokratikoaren garrantzia azpimarratzen dugu, baita arlo honetan ere. Hori egin ahal izateko, atal honetan (i) gizarte-zerbitzuen esku hartzeetan gizarte langintzaren dimentsio komunitarioaren aldeko apustuaren garrantzian eta (ii) gizarte-zerbitzuei buruzko legeek arauz jasotzen duten bezala, gizarte-zerbitzuak ikuspegi erlazional eta parte hartzailetik ulertuz lan egiteko aukeran sakonduko dugu, hain zuzen ere. Asistentzialismoaren aurrean prebentzio eta garapen komunitarioko ekintza batean oinarrituko den gizarte ekintza eraldatzaile baterantz aurrera egitea ahalbidetuko duen estrategia defendatzen dugu (Subirats, 2007).

Gure irakurketaren arabera, gizarte-zerbitzuek zailtasun handiak dituzte hasierako ataletan aipatu ditugun justiziarekin eta gizarte eraldaketarekin lotutako helburuei bete-betean erantzuteko. Egoera horren aurrean, uste dugu beharrezkoa dela gizarte-zerbitzuen eremuan sakontze demokratikoaren aldeko apustua egitea. Dimentsio komunitarioan eta parte hartzailean oinarritutako estrategia aurrera eramatea, hain zuzen ere, zerbitzu horien ezaugarri diren printzipio eta helburu arauemaitan ageri dena.

Gizarte-zerbitzuetan dimentsio komunitarioarekin lan egiteak, aurrez aipatu ditugun erronkei aurre egiteko aukera eskaintzen du eta hori sakontze komunitarioaren proposamenarekin gauzatzea da planteatzen duguna. Horrenbestez, gizarte-zerbitzuen demokratizazioa ere eman daiteke, pertsonen parte-hartzeak rol/eginkizun/X garrantzitsua jokatuko baitu.

Adituen hainbat lanek ere egungo gizarte-zerbitzuen ereduaren gabeziak aipatzen dituzte (Jaraíz, 2011; Roldan, 2010; Arenas, 2016), eta hori herritarren gizarte egoerei eta premiei erantzuteko gaitasunik ez dutelako da (Navarro, 2015), are gehiago

krisi testuinguruetan. Ideia honekin batera, gizarte-zerbitzuak berrasmatzeko uneaz hitz egiten dute eta proposamenak egin izan dira (Fantova, 2020; Zamanillo eta Nogué, 2020 eta Navarro, 2020). Guztiek indartu nahi dute gizarte-zerbitzuetatik lan desberdina egiteko ideia, beste egiteko modu batzuekin jardutekoa, alegia. Proposamen horiek komunitateko dimentsioaren garrantzian egiten dute azpimarra: gizarte ekintza kolektiboan, komunitatea bere lurraldeak ingurune demokratikoago bihurtzeko ezinbesteko eragiletzat hartuz, komunitatea ehunduz, herritarren partaidetzarekin, kolektiboki eta elkarlanean egitea planteatzen da (Blanco, 2019 eta Pastor, 2017).

Rodriguezek dioen bezala, gizarte-zerbitzuek egiturazko arazoetan esku hartzeko, beharrezkoa da herritarrek partaide egitea, gizarte zibila gotortzea, komunitaterako gaitasuna baitago edonon (2015, 6. or.). Zentzu horretan, komunitatean sakontzearen aldeko apustuak aurreko atalean planteatutako erronkak gainditzen laguntzen du.

Lehenik eta behin, asistentzialismotik haratago doazen gizarte-zerbitzuak defendatzeko aukera ematen du, zaurgarritasun edo gizarte bazterketa egoerak era indibidual edo familiarrean arintzean oinarritu ordez, komunitate osoari begiratzean oinarrituz. Asistentzialismoaren zantzuetatik ihes egiteak, gizarte-zerbitzuen benetako unibertsalizazioa eta normalizazioa lortzen lagundu dezake, ezaugarri jakin batzuk dituzten pertsonekin bakarrik lan egin beharrean, bertako lana gizarte osoari zuzentzen bada. Esku hartze mota ezberdinak egiteak iruditegi kolektiboa ere alda dezake eta gizarte-zerbitzuen sistemarekiko gertutasuna eta haien behararen gizarte errekonozimendua ekar dezake. Era berean, gure gizartearen bereizgarri den indibidualismoaren aurrean, harremanezko lana dakar, arreta eredu proaktiboago, prebentiboago eta kolektiboagoa aldatzea, gizarte kohesiora eta pertsonen arteko elkar-tasunera bideratutako esku hartze moduetarantz joango den esku hartzea, alegia.

Azkenik, ondorengo atalean azalduko dugun sakontze komunitarioaren estrategian, komunitatea subjektu politikotzat hartzen da, eta, abiapuntu horretatik, Welfare triangle delakoaren ahultzearen aurrean, ongizatearen eta segurtasunaren hornitzaile gisa ere ulertzen da, gainerakoen osagarri. Triangeluaren hiru hanketatik lautara pasatuko litzateke eta komunitateak, beste hornitzaileen gainbeheraren aurrean, bere funtzioa bete lezake.

Hurrengo atalean zehaztuko dugu zertan datzan sakontze komunitarioaren estrategiak, baina asistentzialismoaren aurrean prebentzio eta garapen komunitarioko ekintza batean oinarrituko den gizarte ekintza eraldatzaile baterantz aurrera egitea ahalbidetuko duen estrategia defendatzearen beharra ikusten dugu (Subirats, 2007) eta egun, hori egiteko momentu aproposa da.

B. *Sakontze komunitarioaren estrategia*

Lehen esan dugun bezala, gure planteamendua gizarte langintzaren dimentsio komunitariotik egingo da. Esan genezake gizarte lan komunitarioaren helburu na-

gusia pertsonen zein gizarte testuinguru desberdinen baliabideak bultzatuz, gizarte sostengua eta sare sozialak eraikitzekeko estrategiak sustatzea dela (Rodríguez eta Ferreira, 2018, 1. or.). Ildo horretan, Pastorrek adierazten duenez, gizartearen parte-hartzea gizarte langintzaren dimentsio komunitarioa definitzen duen elementua da, komunitatean parte-hartzeko gaitasuna giza garapenerako funtsezkoa delako (2004, 107. or.).

Gizarte langintza komunitarioak, parte-hartzearen bidez, herritartasuna eraikitzeke duen gaitasunean jartzen du arreta (Gimeno-Monterde eta Alamo-Candelaria, 2018), eta inklusibotasuna, deliberazioa eta hurbiltasuna azpimarratzen ditu, horiek etorkizuna eraikitzekeko gaitasuna eta aukera duten herritar eta komunitateak eraikitzean laguntzen duten elementuak baitira (Pastor, 2004, 132. or.). Beren errealitatearen bilakaera definitzeke eta eraikitzekeko gai diren herritarrek eta komunitatearekin lan eginez, komunitatearentzat edo komunitatean lan egin beharrean (Marchioni, 2004, edo Pastor, 2015).

Planteamendu horretan, harremanek, sareek, kapital sozialak zeregin garrantzitsua dute desberdintasun sozialak zuzentzeke eta justizia soziala defendatzeko gaitasun potentzialean, beraz, sare komunitarioek eta parte-hartzeak, gizarte bazterketa eta injustizia egoerak iraultzekeo aukera ematen dute (Morales-Villena, Martín-Martín eta Maestre-Miquel, 2020, 1. or.). Komunitatearen prebentzio ahalmenari dagokionez, Fantovak (2017) adierazten du gizarte babesaren iturri diren gizarte kapitala eta sarea zenbat eta handiagoak izan, gizarte bazterketa egoera bat pairatzeko aukerak murrizten direla. Rodríguez eta Ferreiraren lanak, hain zuzen ere, sare sozialekin esku hartzearen garrantzia eta ekintza ahalduntzera bideratzeko beharra erakusten ditu, herritartasun osoak sortzekeo estrategia gisa (2018, 1. or.).

Ildo horretan, gure proposamenak sakontze komunitarioaren kontzeptua du ardatz, sakontze demokratikoaren erronkan behar beste aurrera egitekeo estrategia gisa. Are gehiago azpimarratu nahi izan dugu pandemiari lotutako egungo krisi testuinguruan, gizarte-zerbitzuen ikuspegi politiko eta komunitario nahikoa izateak soilik ahalbidetzen duelako demokratizazio proiektuetan aurrera egitea. Gizarte-zerbitzuek justizia sozialean eta guztion ongian oinarritutako demokrazia baten garapenean duten rolari begiratzen diote. Planteamenduaren ustez, arazo zein egoera indibidualetan zentratuta dagoen esku hartze baten pisuak, modu erreaktiboan eta asistentzialean, dimentsio komunitarioa urruntzen du, baita sakoneko eraldaketa sozialak gertatzea zaildu ere. Horrela, gizarte eraldatzeko baldintza gisa, gero eta gehiago dira gizarte-zerbitzuen esku hartze erlazionalagoa aldarrikatzen dutenak, sarean eta modu proaktiboan lan egingo duten gizarte-zerbitzuak.

Hori horrela, gizarte-zerbitzuetan komunitatean sakontzekeo beharra azpimarratzeak aukera ematen du bide horrek demokraziarako eskaintzen dituen aukeretan oinarritutako praktika profesional baterako beharrezkoak diren aldaketa eta berasmaketa gauzatzeko. Aukera eskaintzen du, alde batetik, esku hartze eta praktika profesionalak planteatzen duen hurbiltasunagatik, lurraldean eta komunitateetan

oso zentratuta dagoenez, pertsonak berek parte har dezaten premici buruzko hausnarketan eta komunitatean dauden baliabideen sustapena egiten dutelako. Eta, bestetik, erabakiak hartzean presente egongo den herritartasun sozial aktiboa eraikitzaera bideratutako parte-hartze komunitarioko estrategiak sortzeko duen eginkizun nagusiagatik.

Ildo horretan, eta sakontze komunitarioaren planteamendutik abiatuta, parte-hartzean oinarritutako gizarte langintza komunitario baterantz aurrera egitea premiazkoa eta lehentasunezkoa da: boterea partekatzea, pertsonak beren bizitzen protagonista izatea, eta horrenbestez, harremanek sortutako sare sozial eta babesaren bidez, ongizatea bermatzea, hau da, lankidetzan lurralde bidezkoagoak eta demokratikoagoak eraikitzea.

Aurrekoa oinarri hartuta, ondoriozta dezakegu udal eremua eta lehen mailako arreta direla esku hartze eta lan komunitarioko praktikak garatzeko hurbiltasun handieneko erreferentzia eremuak (Llobet, 2004; Carbonero *et al.*, 2012). Horrela, oinarritzko gizarte-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuetara sartzeko atea izanik, herritarrentzat hurbiltasun handienekoak dira. Ondorioz, behatoki pribilegiatua dira ikertzeko eta herritarrekin batera lan egiteko, herritarrek kontraboterea gauzatzeko eta aktore politiko bilakatzean, gizartean eta politikan eragiteko. Tokiko eremua funtsezkoa da politikariak eta herritarrak elkartzeko, eta testuinguru pribilegiatua eskaintzen du herritarren ongizatean eragin zuzena duten gizarte politikak garatzeko (Rodríguez, 2015).

Udal mailan (herri txikien kasuetan oinarritzko gizarte-zerbitzuen unitate bakarra eta handietan, auzo/distrituetan banatutako oinarritzko gizarte-zerbitzuen unitate ezberdinak), gizarte-zerbitzuen lehen mailako arreta dago, eta haien printzipioek (unibertsitatea, berdintasuna eta ekitatea) ikuspegi komunitarioa garatzeko aukera eskaintzen dute. Bestalde, eremu legalean ere, gizarte-zerbitzuetako lege ezberdinek parte hartzea izaten dute zutabetzat (Alemania, 2010), eta esplizituki planteatzen dute ikuspegi komunitarioa edo COMMUNITY CARE, oro har, beren ingurunean jendea artatzeko eta babesteko gaitasun gisa ulertuta (Fantova, 2014, 104. or.). Gure ikuspuntutik begiratuta, dimentsio komunitarioa *continuum* bat bezala ulertzen dugu, *continuum* komunitarioa. Mutur batean, ikuspegi komunitario hori edo *community care* delakoa aurkituko genuke, dimentsio komunitarioaren adiera baxuena bezala; beste aldean, berriz, garapen komunitarioaren bertsiorik sakonena izango litzatekeen gizarte langintza komunitarioa kokatuko genuke, zenbait egilek defendatzen dutena, hala nola Marchioni-k (2004) edo Pastor-ek (2015). Azken hau, era puru batean, hau da, teorikoki planteatzen dena egungo gizarte-zerbitzuen sisteman planteatzea utopikoa bada ere, jomuga gisa ulertzen dugu. *Continuum*aren bi muturren arteko alde nagusia parte-hartzea izango litzateke, bigarrenean ezinbestekoa baita. Ideia horrekin bat etorritik, sakontze komunitarioaren terminoa planteatzen dugu, hau da, *continuum* ahalik eta gehien aurrera egitea gizarte langintza komunitarioaren aldera, edo gizarte langintzaren dimentsio komunitarioago baterantz, noski, parte-hartzearen ideian sustraituta.

Kontua da komunitatea subjektu politikotzat hartzea, lurralde jakin bateko gizarte ekintzako eragiletzat. Interes kolektiboak norbanakoen interesen aurretik jartzen dira, eta komunitatea bera, bere berezitasun guztiakin, baliabide nagusia da edozein zailtasun egoeraren aurrean (Marchioni, 2004). Premisa horretatik abiatuta, komunitatea berreskuratzeko eta gobernantza klabeen boterea partekatzeko erronka aitortzea dakar, proiektu komunitarioak garatzea, pertsonen parte-hartzea sustatzea eta pertsonak bizi diren ingurune, auzo eta espazioen errealitatea benetan hobetzen duten proiektuak sortzea (Zamanillo eta Nogués, 2020).

Gizarte-zerbitzuetatik komunitatean sakontzeko, administrazioak eta komunitateak elkarrekin lan egin behar dute, eta, horretarako, politikaren, teknikaren eta gizartearen arteko oztopoak gainditu behar dituzte, partaidetzazko ekintza komunitarioko prozesuak garatzeko premisa gisa (Blas eta Ibarra, 2006, 41. or.).

Horrek, ordea, udal eremuko gizarte-zerbitzuen aldeko apustu politiko eta tekniko argia eskatzen du, inbertsio ekonomiko handiagoa eginez eta ongizate-estatua- ren benetako zutabe gisa duten garrantzia eta pisua aitortzea, alegia (Santos, 2012). Sakontze komunitarioak berekin dakar gizartearekiko, komunitatea osatzen duten pertsonetikiko, hirugarren sektore sozialeko erakundeekiko, gizarte mugimenduekiko, auzo mugimenduekiko eta abarrekiko koordinaziorako eta baterako lanerako ahaleginak bideratzea. Komunitatearen parte diren pertsonak dira lan komunitarioenaren baliabide nagusia, herritarren ongizate kolektiboarekiko konpromiso aktiboa, eskubi- deen sustapena, salaketa eta, azken batean, eraldaketa soziala bultzatzen dituztelako (Escartín, 2012).

Gizarte-zerbitzuen praktika ezaugarritzen duen egungo lan egiteko eredutik urrun, izaera kritikoagoa duen gizarte langintzak gizarte konpromiso handiagoa eskatzen du, justizia soziala, elkartasuna edo ekitatea bezalako balioekin. Gizarte arazoak egiturazkoak eta sistemikoak direla kontuan hartuta (Velasco, 2019), ulertu behar da arazo horiek eraldatzeko beharrezkoa dela agente politikoek (Carbonero *et al.*, 2012) ikuskera kolektiboa ere izatea, eta ez soilik indibiduala.

Pandemiaren egungo testuinguruak, hain zuzen ere, irakurketa batzuk eskaintzen ditu, planteamendu komunitarioen garrantzia berresteko eta horren aldeko apustua egiteko aukera gisa. Azken hilabeteotan auzoetako elkartasuna, artikulazioa, autoantolaketa eta autokudeaketa azaleratzen ikusi ditugu. Sare sozial eta komunitarioek sare gisa funtzionatu dute eta zaurgarritasun egoeren aurrean erantzukizun kolektiboa badago, eta horiek guztiak gizarte ekintzaren funtsezko eragile bihurtu dira. Herritarren erantzunek agerian uzten dute harreman inpersonalek eta profesionalek ordezkatu zituzten lotura pertsonal eta komunitario batzuk berreskuratzeko beharra. Eta gizarte-zerbitzuak agertoki bikaina dira esleituta duten gizarte ekintza garatzen den komunitatearen ekarpen guztiak josi ahal izateko (Zamanillo eta Nogués 2020, 6. or.).

Dimentsio komunitarioa errealitate batean aztertzen: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren adibidea

Atal honetan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako hurbilketa labur bat egingo dugu. Oraingoan, EAEko egungo gizarte-zerbitzuen sisteman dimentsio komunitarioak duen presentziaren eta garapenaren berri eman nahi da. Helburua orain arte egindako planteamendua errealitate jakin batera hurbiltzea da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak komunitatean sakontzearen arloan duen egoera, azaletik ikusi eta dituen erronkak identifikatzeko.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak komunitatean sakontzeko sortzen dituen aukerei erreparatzen badiegu, argi dago Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea garrantzitsuenetako bat dela. Gizarte-zerbitzuak eskubide subjektibo eta unibertsal gisa planteatzeaz gain, lege horrek arreta komunitarioaren ereduaren alde egiten du, arreta prozeduraren funtsezko pieza gisa. Legeak jasotzen dituen printzipioen artean, komunitatearentzat interesgarriak diren kontzeptuak agertzen dira, hala nola, unibertsaltasuna, berdintasuna, ekitatea, hurbiltasuna, prebentzioa, integrazioa, normalizazioa, koordinazioa eta lankidetzaren edo herritarren parte-hartzea.

Komunitarioaren defentsa baldintza gisa aurreikusten da herritarrek herritartasuna baliatzeko, justizia soziala sustatzeko eta gizarte bazterkeriaren arrazoiei aurre egiteko; eta hori egiteko, lankidetzan aritzeko beharra aitortzen da:

Parte-hartze antolatua sustatzea, sistemen arteko lankidetzaren eta koordinazio-esparru batzuk (hala nola, gizarte eta osasunaren, gizarte eta lanaren, gizarte eta etxebizitzaren, gizarte eta hezkuntzaren, gizarte eta justiziaren, gizarte eta kulturaren artekoak) eratzea eta politika sozial bat garatzea, herritar guztiek herritartasun osoa irits dezaten, justizia soziala susta dadin eta bazterketaren egiturazko kausei ekin dakien. (Zioen azalpena)

Bestalde, legea hainbat tresnaren bidez garatzen da, hala nola zorroaren dekretua (Eusko Jaurlaritza, 2015), gizarte-zerbitzuen plan estrategikoa eta gizarte-zerbitzuen mapa (Eusko Jaurlaritza, 2015). Horiek guztiek esplizituki jasotzen eta egiten dute parte-hartzearen, eredu komunitarioaren, gobernantzearen edo beste sistema batzuekiko lankidetzaren aldeko apustua. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparru legal eta teoriko nagusiek parte-hartzeari eta komunitateari buruzko erreferentziak behin eta berriz jasotzen dituztela baieztatu daitezke eta azken elementu hori gizarte-zerbitzuen sistemaren beraren zuzeneko apustu bihurtzen da horrela.

Aurrekoaren osagarri, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistikak (HEE-Eusko Jaurlaritza, 2018) ematen dituen datuek aukera ematen digute ikuspegi komunitario horren garapen praktikoaren zantzuak identifikatzeko: gizarte-zerbitzuek dituzten zerbitzuei eta prestazioei dagokienez,

egin den gastuari dagokionez eta azkenik, sisteman lan egiten duten langileei dagokionez. Datu garrantzitsu batzuk baino ez ditugu aipatuko, nolabaiteko testuingurua ahalbidetzeko, eta aitortzen dugu azterketa sakonago bat eskaintzen duen komplexutasuna ezagutu beharko genukeela, baina hurbilpen txiki bat egiteko baliagarria izango da.

Lehenik eta behin, gizarte-zerbitzuetako prestazioei eta baliabideei dagokionez, etxez etxeko laguntza zerbitzuak, arreta jasotzen duten pertsonen dagokionez ikuspegi komunitario eta hurbileneko zerbitzu gisa ulertuta, etengabe behera egin du 2014ra arte. Biztanleria zahartzen ari den testuinguruan, zerbitzuaren estaldurak eta intentsitateak behera egin du adinekoren populazioak gora egin arren eta, beraz, mendekotasun handiagoa izan arren, zerbitzuak intentsitate bera izaten jarraitzen du. (OEE-Eusko Jaurlaritza, 2018). Ikus daitekeenez, behera egin du sistemak duen ikuspegi komunitario handieneko prestazioaren estaldurak eta intentsitateak (Erkidegoko Contiumeko mailarik txikiena). Bestalde, zerbitzu eta prestazioen artean honako hauek daude: egoitzak, eguneko arreta zentroak, etxez etxeko arreta zerbitzua, telelaguntza edo gizarte larrialdietarako prestazioak. Funtsezko zerbitzuak dira, baina joera asistentzialista nabarmena dute. Gizarte-zerbitzuetan dimentsio komunitarioa garatzeko baliabide nagusia gizarte langileak dira. Gizarte langile horiek ez dira baliabide edo prestazio gisa ere aipatzen, eta arau esparruek jasotzen duten komunitate arloa sustatzeko estrategiarako hutsunea dela uste dugu.

Bigarrenik, gastuari dagokionez, ikus daiteke gizarte-zerbitzuetako gastu publikoaren % 50 foru-aldundiarena dela, % 30 autonomikoa eta % 10 soilik udal mailakoa. Gainera, 2008an eredu komunitarioa defendatzen hasi zirenetik, kopurak behera egin du, eta gastu forala eta gastu autonomikoa % 100 eta % 70 baino gehiago handitu dira, hurrenez hurren; udalen gastua, berriz, % 16tik % 10era murriztu da (OEE-Eusko Jaurlaritza, 2018). Gastu publiko guzti horretatik, udal gastua % 12,5 da, eta zenbateko hori ia bi puntu jaitsi da 2012tik. Udalerrria, lehen esan bezala, erreferentzia baldin bada sakontze komunitarioarako praktika profesionalerako, zaila da pentsatzea inbertsio ekonomikorik eta teknikaririk gabe esparru teorikoez eta legalek adierazten duten bezala garatu ahal izatea.

Azkenik, gizarte-zerbitzuetan lan egiten duten pertsonen dagokionez, ia % 25eko hazkundea ikusten da 2006tik hasita (HEE-Eusko Jaurlaritza, 2018). Hala ere, udal-letako gizarte-zerbitzuetako langileak, ikuspegi komunitarioa garatzeko erreferentzia izanik, ia ez dira hazi 12/2008 Legea onartu zenetik (HEE-Eusko Jaurlaritza, 2018); beraz, legearen apustu sendoa izan arren, gauzatu behar den eremuan baliabide profesionalak ez handitzeak zaildu egiten du aurrera egitea eta indartzea.

Bestalde, Arartekoaren txostenak (2016) aukera ematen du planteatutako udal-letako gizarte-zerbitzuen dimentsio komunitarioaren ahultasuna berresteko.

Lehenik eta behin, gizarte kohesioa eta pertsonen bizi kalitatea bermatzeko funtsezkotzat jotzen diren zerbitzuak emateko lankidetzan aritu beharraz hitz egiten du. Gizarte ekintza publikoa osatzen duten eta tokiko mailan soilik gertatzen diren komunitatearen autoantolaketarako ekimenei bultzada ematearen garrantzia adie-

razten du txostenak (2016, 171-172. or.). Era berean, txostenean jasotzen diren proposamenen artean, proposatzen da lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen in-guruko udal politika diseinatzeko eta garatzeko prozesuetan eta zerbitzuetan pertso-nen parte-hartze aktiboa sustatzea, herritarren parte-hartzeari lehentasuna emanez. Udaletako gizarte-zerbitzuek garatu beharreko programei eta zerbitzuei dagokienez, komunitate-garapeneko eta bitartekaritzako programak abian jartzea planteatzen da (174. or.), eta nabarmentzen da (i) lan komunitarioak (banakako lanaren osaga-ria) parte-hartzeko aukera ematen diela komunitatea osatzen duten pertsona askori; (ii) ikuspegi komunitarioak dibertsitatearen kudeaketa dakarrela berekin; (iii) komuni-tatearen harreman eta parte-hartze dinamikak ere, dimentsio komunitarioarekin lan-tzen direla (iv) dimentsio honek hurbiltasuna eta sare lana txertatzen laguntzen duela iruditegi kolektiboan.

Azkenik, txostenak adierazten du garapen komunitarioko programek herrita-rreren garapen sozial eta ekonomikoari laguntzen diotela, horiek biziberrituz, indartuz eta autolaguntza sareak edo bestelako ekimen sozial eta/edo ekonomikoak sortuz, proiektu kooperatiboen eta kolektiboen bidez (Ararteko, 2016).

Ikuspegi komunitarioaren lehen argazki honek, Gizarte Zerbitzuen Euskal Siste-mak praktikan duen ahuleziaren berri ematen digu, nahiz eta arau garapen garran-tzitsua izan. Nolanahi ere, testuinguru globalak aukera ematen du horiek lantzean eta garatzean, gizarte politiken erantzun eskasaren aurrean, ekimen autogestiona-tuak eta ekimen komunitarioak eta harreman loturak berraurkitu direla aitortzeko (SIIS, 2019, 6. or.). EAEn ere aurkitu daitezke autoantolaketa komunitarioko hain-bat esperientzia eta ekintzarako modu berriak. Esperientzia horiek, adinekoen espa-rruan ematen dira batez ere eta komunitate zerbitzuak diseinatzeko parte-hartzearen aldeko apustua egiten dute (SIIS, 2019, 7. or.). Horrela, lan honetan planteatzen den ildotik, are gehiago Covid-19 pandemiaren garaian, ikusi dugu ekintza bateratu eta komunitarioak sortzen ari direla herritarren eta udal mailako oinarrizko gizarte-zer-bitzuen artean (Naiz, 2020).

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari buruzko datuen errepeaso labur eta esplora-tzaileak agerian uzten du esparru legalean komunitateari emandako garrantziak ez duela behar adinako islarik izan jardute profesionalean eta inbertsioari eta testuingu-ruarekiko egokitzapenari buruzko baldintzetan. Bestalde, dokumentuen berrikuspe-nari esker, identifika daiteke ongizate-estatua eta demokrazia garatzeko gizarte-zer-bitzuak eragile nagusi gisa hartzen dituen ikuspegia lekua hartzen hasia dela maila teoriko akademikoan eta maila globalean dimentsio komunitarioa txertatzen hasten diren esperientzien multzoan. Erronka bat da, beraz, gizarte langintzaren diziplina-ren dimentsio komunitario horrek gizarte-zerbitzuen eremuan demokratikoki sakon-tzeari eskaintzen dizkion bideetan sakontzen jarraitzea.

Sakontzeko

- Ararteko. (2016). *Udal Gizarte Zerbitzuen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan*. Ararteko.
- Arenas, M. (2016). ¿Usuarios o ciudadanos? Intervención y participación en las políticas y servicios sociales. *Comunitania* (11) 27-43.
- Gimeno-Monterde, C. and Alamo-Candelaria, J. M. (2018). Trabajo Social Comunitario: Hacia unas políticas públicas sostenibles. *Global social Work-Trabajo Social Global*. (14) 167-194.
- Hernandez- Echeagaray, A. (2019). Retos de los Servicios Sociales en España según la opinión experta en *Trabajo Social. Alternativas, Cuadernos de Trabajo Social*. (26) 123-150.
- Jaraíz, G. (2011). *Intervención social, Barrio y Servicios Sociales Comunitarios*. Fundación Foessa.
- Pastor, E. (2015). *Trabajo Social con Comunidades*. Universitat.
- Zamanillo, T. eta Nogués, L. (2020). Carta abierta a profesionales u políticos de los Servicios Sociales en tiempos de la Pandemia del Covid-19. *Asociación Foro SERVSOCIAL*.

Etorkinen integrazio pertzepzioa eta Parte-hartze soziopolitikoak

Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe, Gorka Moreno Marquez

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena. Atal honetan, parte-hartzearen eta etorkinen integrazioaren artean dagoen erlazioa landu eta aztertuko dugu. Etorkinek beren integrazio mailaz duten pertzepzio subjektibotik abiatuta, parte-hartze mota desberdinek (elkarteen, maila sozial zein politikoan) pertzepzio horretan duten eraginaz arituko gara. Erlazio hau aztertzeko lehenik eta behin bi dimentsio hauek erlazionatzen dituzten teoria desberdinak aztertuko ditugu, ondoren, parte-hartzen duten etorkinen profila zehaztuko dugu eta azkenik parte-hartzen dutenen integrazio subjektiboan zentratuko gara. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako Etorkin Atzeritarrei Buruzko Inkesta (EABI) erabiliko dugu. Emaidza orokor bezala, azterketa honek erakutsiko digu parte-hartzeak duen eragin positiboa etorkinek bere integrazioaz duten pertzepzioan .

Sarrera

Migrazio prozesuek berebiziko garrantzia dute gizarte eraldaketa dinamiketan. Historian zehar, migrazioak izan dira eraldaketa sozial nagusien faktore garrantzitsuenetarikoak eta aldaketa sakonak eragin dituzte helmuga herrialdeetako demografian, soziologian, ekonomian, desberdintasun sozialetan zein hirigintzan. Hala ere, migrazio prozesuak migratzaileengan du eragin nagusia, beren bizitza proiektua aldatuz doa eta helmuga herrialdeetan integrazio prozesu bati ekinez(doa?). Nolako da integrazioa prozesua? Zer da integrazioa? Nola ezaugarritu eta definitu dezakegu? Migrazioei buruzko literatura akademikoak ez die erantzun bakarria eman galdera hauei, integrazio eredu eta prozesu desberdinak daude eta definizioak ere anitz dira (Godenau *et al.*, 2014).

Atal honetan integrazioaren eta parte-hartze soziopolitikoaren arteko erlazioa eta loturak aztertuko ditugu. Horretarako, integrazioa ulertzeko modu zehatz bati erreparatuko diogu, integrazioaren pertzepzio subjektiboan zentratuko gara, etorki-

nak bere integrazio mailari buruz duen pertzepzio subjektiboan. Bestalde parte-hartzea funtsezko elementua da etorkinen integrazio prozesuan, besteak beste dimentsio hauekin erlazionatua dagoelako: herritar garapena (De Lucas, 2007), eskubideen hedapena (Schuck, 2018) eta gizarte integratuagoak eta kohesionatuagoak indartzea (Odmalm, 2005) aniztasun testuinguruetan (Kymlicka, 1995).

Parte-hartzea, immigrazioa eta integrazio pertzepzioa

Integrazio pertzepzio subjektiboa etorkinek helmuga herrialdean izandako bizi esperientziaren emaitza erakusten duen adierazlea da.

Integrazio pertzepzio subjektiboa etorkinek helmuga herrialdean izandako bizi esperientziaren emaitza erakusten duen adierazlea da. Adierazle hau bizi esperientziaren ebaluazio subjektiboan oinarritzen da, eta besteak beste, gizarte hartzailean bere bizi proiektua abian jartzeko lortutako aukerak, oztopoak, arbuioa eta laguntzak kontuan hartzen ditu. Gainera, etorkinak berak lehenik zituena itxaropenek eta migrazio prozesuaren aurreko bizipenek ere eragina dute (Amit eta Riss, 2014).

Parte-hartzeari eta parte hartzeak? integrazioarekin duen loturari dagokionez, kontuan izan behar dugu gizarte batean parte-hartzea funtsezko elementua dela bai herritarren gizartearen zein bazterketan (Subirats *et al.*, 2004). Aldi berean, parte-hartzea praktika demokratikoaren funtsezko dimentsioa da. Hala ere, haren definizioa askotarikoa da, eta posizionamendu teorikoaren araberrakoa. Partaide-tza-azterlanek honako hauek aztertzen dituzte: araudiaren dimentsioa (partaide-tza prozedurak eta boterea birbanatzeko borondatea), parte-hartzearen ondorioak (ahalduntzea eta kapital soziala handitzea), parte-hartzeko gailuen diseinu teknikoa eta inplementazioa (eztabaida eta partaidetza prozesua), bai eta partaidetza ere ikuspegi sektorialetik (genero arloko parte-hartzea, iraunkortasuna edo intersektzionalitatea, besteak beste) (Martínez Palacios, 2018). Dimentsio anitzeko testuinguru horretan, parte-hartzearen eta immigrazioaren azterketa hainbat alderditatik azter daiteke, hala nola, sufragio aktiborako eta pasiborako eskubidearen gaia (arau dimentsioa), parte-hartzearen eta gizarteratzearen arteko harremana (parte-hartzearen ondorioak) edo immigrazioaren eta parte-hartzearen azterketa sektoriala bera.

Joan den mendeko 80ko hamarkadatik aurrera, etorkinen parte-hartze politiko eta sozialeko prozesuen azterketak gero eta garrantzi handiagoa hartu du migrazio azterketetan (Rex *et al.*, 1987) eta bereziki azken urteetan nazioartean (Zapata *et al.*, 2013; Vermeulen, 2010; Martiniello, 2005). Estatu mailako migrazioei buruzko lan akademikoak ez dira errealitate horretatik kanpo geratu, eta gai hori ere landu dute, batez ere azken 25 urteetako migrazio fluxuen goraldiarekin eta garapenarekin (Bermudez eta Escrivá, 2016; Pérez Carames, 2018). Esparru horren barruan, parte-

hartze politikoarekin lotutako gaiak aztertu dira batez ere; alde batetik, honako alderdi hauek nabarmendu dira: sufragioa eta hauteskundeetan parte-hartzea (González-Ferrer eta Morales, 2013); eta, bestetik, parte-hartze politiko eta soziala gizarte zibileko elkarten eta erakundeen bitartez (Moya, 2005; Aparicio eta Tornos, 2010; Lacomba eta Aboussi, 2017).

Urte askoan, etorkin langileak aldi baterako gonbidatuztat hartu ziren harrera herrialdeetan, eta ez politikoki aktiboak izatea espero den herritar potentzialtzat; hau da, gizartean zuten rola, ekoizpenera eta lanera mugatzen zela uste izan zen (Martiniello, 2005). Horregatik, etorkinak gizartean parte-hartzeko eskubidea duten herritartzat hartzen diren ala ez kontuan hartuta, immigrazioaren integrazio prozesuan, gizartean eta politikan parte-hartzeak duen garrantzi maila desdeberdina da, eta, ondorioz, integrazio politikan parte-hartzeak duen garrantzia ere desberdina izatea suposatzen du (Ahokas, 2010).

Integrazioari dagokionez, parte-hartzea etorkinak gizarte hartzaileetan politikoki txertatzeko lau dimentsioetako bat da. Beste hirurak, eskubideak aitortzea, harrera gizartearekiko identifikazioa eta arau eta balio demokratikoak onartzea izango liratezke (Zapata *et al.*, 2013, Martiniello, 2005). Ildo horretan, immigrazioaren integrazio politikoaz hitz egitean, hiru elementu hartu behar dira kontuan: lehenik eta behin, harrera herrialdeko sistema politikoarekiko autoidentifikazio maila; bigarrenik, parte-hartze aktiboaren maila, botoaren eta eremu publikoan parte-hartzearen bidez; eta, hirugarrenik, agintariengandik entzuna sentitzearen pertzepzioa (Zapata *et al.*, 2013). Ildo horretan, Entzingerrek honako hau adierazten du: «The basic principles of democracy implies that all members of a political community have a share in the decisionmaking processes that decide on that community, its governance and its future (1999: 9)». Parte-hartzea etorkinen integrazio prozesuarekin lotzeko moduetako bat, erabakiak hartzeko prozesuei lotutako parte-hartze sozialean oinarritzen da (Entzinger, 1999).

Etorkinen parte-hartze sozial eta politikoaren maila baldintzatuta dago, bai etorkinaren ezaugarriengatik, bai gizarte hartzailearen testuinguruagatik. Migrazio eta integrazio politikek etorkinen parte-hartze sozial eta politikorako aukeraguneak sortzen dituzten harrera testuinguru batean, parte-hartzearen maila handiagoa izango da. Besteak beste, lege esparruaz, partaidetza programen diseinuaz, diskurtsoez, kontsultaren eta erabakiaren xede diren gaiez eta parte-hartze konbentzionala (hauteskundeak, erakunde politikoak, parte-hartzeko prozesuak, eta abar) eta ez-konbentzionala (mobilizazioak, grebak, manifestazioak, desobedientzia zibila, etab.) eskuratzeko aukeraz hitz egingo genuke. (Zapata *et al.*, 2013). Harrera testuinguru hori, alde batetik, arau eta erakunde elementuek definitzen dute, eta bestetik, gizarteak berak ere bai, maila indibidualean zein kolektiboan, aniztasuna gizarte errealitate eta prozesuetan zenbateraino sartzen duen kontuan hartuta. Etorkinen ezaugarri dagokienez, hainbat azterlanek agerian utzi dute etorkinaren jatorri sozialak eta profil soziodemografikoak eragina dutela parte-hartzean, baita aurretiko sozializazio politikoak, kapital sozialak, hizkuntzak, migratzeko moduak,

egonaldiak eta gizarte hartzailearen posizio sozioekonomikoak ere (Ruedin, 2016; Zapata *et al.*, 2013).

Parte-hartze eremuak: elkarteak, gizartea eta politika

Elkarte sarea gaur egungo gizartea ezaugarritzen duen oinarritzko elementua da. Sare honek, bere tipologia, forma, funtzio eta ezaugarriekin, rol garrantzitsua jokatzen du komunitatearen artikulazioan eta bere kapital sozialean (Fernández eta Cano, 2018). Alde horretatik, kultur elkarteak eta erakundeak, aisialdikoak, kirol klubak, erlijio erakundeak, hezkuntza taldeak eta abar gizarteak parte-hartzeko guneak dira, komunitatearen bizitza egituratzen dutelako eta gizarte harremanetarako espazioak direlako.

Elkarte sare zabala eta askotarikoa duen gizarte bat, bizitza komunitario bizi eta aberatsa duen gizarte batekin erlazionatzen da (Pena eta Sánchez, 2018; Ariño 2004). Ildo horretan, garrantzitsua da etorkinen integrazio prozesuen ikuspegitik, kolektibo horrek elkarte sarean duen parte-hartze sozialaren maila ezagutzea (Vecina, 2010).

Bestalde, gizarte hartzailearen bizitza politikoan parte-hartzea integrazio prozesuaren funtsezko alderdia da ikuspegi demokratikotik (Entzinger, 1999). Etorkinak erabaki politikoak hartzean eta gizarte bizitzaren oinarri diren politikak diseinatzean sartzea funtsezko alderdi demokratikoa da. Hala ere, garrantzitsua izan arren, haien parte-hartzea baldintzatuta eta mugatuta dago; besteak beste, sufragio eskubidea eskuratzeko legezko baldintzek eta migrazio prozesuaren berezko faktoreek, hala nola migrazio etapek eta etorkineek gai materialak politiketatik lehenesteko mugatzen dute (Adamson, 2007; Zapata *et al.*, 2013, OSCE, 2017).

Parte-hartze politikoa hainbat modutan gauzatu daiteke. Modu indibidualean, kolektiboan edo antolatuan, parte-hartze arautu eta instituzionaleko bideen bitartez, mugimendu sozial, politiko edo sindikalen bitartez. Hala ere, parte-hartze mota desberdin hauek helburu komun bat dute, erabaki politikoetan eragitea, bai modu zuzen batean botere politikoa lortuz, edo zeharka, presio- eta kontrabotere-estrategien bidez (Soysal, 1999).

Gizarte kohesioaren ikuspuntutik, talde sozial desberdinen parte-hartze politikoa funtsezko elementua da, parte-hartze honek aukera ematen baitu haien interes eta beharrek, erabaki politiko eta politika publikoetan isla izatea (Subirats *et al.*, 2004). Hala ere, parte-hartzea baldintza bat bada ere, parte-hartze soila ez da horretarako bermea. Herrialdearen kultura demokratikoa eta parte-hartzeak kultura horretan duen rola ere kontuan izan beharreko elementuak dira, horrek baldintzatuko baitu parte-hartze politikoak (zentzu zabalean ulertuta, erakunde eta hauteskunde arloz harago) gizarte kohesioan izan dezakeen eragina. Gizartearen parte-hartze politikoan inplikazioa, neurri handi batean, kultura parte hartzailea egotean eta hura ezartzeko bide eraginkorrak egotean datza (González, 2011).

Integrazio pertzepzio subjektiboa eta Parte-hartzea EAEn

Aurreko ataletan zehaztutako esparru teorikoa oinarri hartuta, hurrengo atalean Euskal Autonomia Erkidegoko kasua aztertuko dugu. Honetarako, ikerketa metodologia kuantitatiboa erabiliko dugu, Eusko Jaurlaritzak 2010etik lau urtean behin egiten duen Etorkin Atzerritarrei Buruzko Inkestaren (EABI) ustiaketaren bitartez. Analisi honetan gaiarekin erlazionatutako hiru dimentsio aztertuko ditugu, etorkinek elkarte sarean duten parte hartzea, parte-hartze soziopolitikoa eta hauteskundeetan duten parte-hartzea. Hiru dimentsio hauek, parte hartzaileen profil eta integrazio pertzepzio subjektiboraren arabera aztertuko ditugu.


Parte-hartzea elkarteetan

EABIk ez du aukerarik ematen atzerritar jatorriko biztanleen parte-hartze maila euskal gizarte osoan dagoen parte-hartze mailarekin alderatzeko. Konparazio hori Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) Kapital Sozialari buruz egindako Inkestaren datuekin egin dezakegu. Estatistika eragiketa horretatik abiatuta, Eustatek elkarteetan parte-hartzearen adierazlea kalkulatu du, eta adierazle hori biztanleriaren jatorriaren arabera bereizteko aukera ematen du. 2017ko emaitzek erakusten dute elkarteetako partaidetza maila antzekoa dela biztanleria osoaren eta atzerritar jatorriko biztanleriaren kasuan. Zehazki, biztanleria osoaren % 98,3k parte-hartze maila baxua du, % 1,6k maila ertaina eta % 0,1ek maila altua; atzerritar jatorriko biztanleriaren kasuan, berriz, % 98,7k parte-hartze txikia du, % 1,3k maila ertaina eta % 0k maila altua.

EABIk ematen dizkigun emaitzei erreparatuz, 1. grafikoan, elkarte eta erakunde mota desberdinetan parte-hartzen dutela dioten 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen ehunekoa jasotzen da. 2010eko datuei erreparatzen badiegu, ikus dezakegu kirol elkarteetan (% 9,5) edo erakunde erlijiosoetan (% 7,9) gertatzen zela parte-hartzerik handiena, eta ondoren hezkuntza eta/edo kultura taldeetan (% 4,4) eta etorkinen talde informaletan (% 3,5). Ikusten dugunez, beraz, XXI. mendearen hasieran hasi zen lehen migrazio boladan iritsitako immigrazioaren parte-hartzea, kirol eta erlijio arloko elkarteetan oinarritu zen nagusiki.

2018an, emaitzek erakusten dute parte-hartze mota aldatu egin dela; hezkuntza eta kultura taldeetan (% 6,9) eta etorkinen erakunde informaletan (% 4,1) parte-hartzeak gora egin du eta kirol elkarteetan (% 6,9) eta erakunde erlijiosoetan (% 4,3) aldez, behera. Dirudienez, migrazio prozesuen egonkortzeak eragina izan du parte-hartzean, bereziki sozializazio gune nagusi diren hezkuntza eta kultura espazioetako parte-hartzearen gorakadan.

Erakunde erlijiosoen beherakadaren kasuan, beherakada hori integrazio mailaren hobekuntzarekin lotuta egon liteke, migrazioaren hasierako etapetan, jatorri baturaren kasuan, erakunde erlijiosoek laguntza funtzioa betetzen baitute.



Iurria: Etorकिन Atzerritarrei Buruzko Inkesta.

IX. GRAFIKOA

Elkarte eta taldeetan parte-hartzen duten EAEko 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen portzentajea

Etorकिन profilak eragina du parte-hartzean? Galdera hau egitea egokia gizar-tean joera orokor bat dago etorकिन kolektiboa osotasun homogeneo gisa edo, gehienez ere, jatorriagatik eta hizkuntza, erlijio eta kultura ezaugarriengatik berezitateko osotasun gisa hartzeko. Hala ere, etorकिनak aniztasun eta barne desberdintasun handiko populazio taldea dira. Aniztasun hori zenbait aldagaik islatzen dute, hala nola genero, adina, egonaldi denbora, egoera sozioekonomikoa edo legezko egoera.

Lehen taulan ematen dut elkarte mota bakoitzean parte-hartzen duten 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen profila deskribatzeko aukera. Lehenik eta behin, geure buruari egiten diogun galderari erantzunez, hauxe da erantzuna: aldagai bakoitzak atzerritar jatorriko biztanleria osoarentzat duen emaitza eta parte-hartzen dutela dioten pertsonena alderatzen baditugu, ikusiko dugu parte-hartzean ezaugarri espezifiko batzuk daudela, eta ezaugarri horiek ere aldatzen direla parte-hartzen den elkarte motaren arabera.

Oro har, 2018ko emaitzei erreparatuta, premia egoera gailentzen da erakunde informalean eta erakunde erlijiosoetan parte-hartzen duten etorकिन profilean. Talde eta erakunde mota horiek talde eta etnia barruko laguntza komunitarioko guneak izaten dira, eta haietara jotzen dira premia egoeran dauden etorकिनak beren sare soziala zabaltzeko eta laguntza informala lortzeko. Erakunde erlijiosoen kasuan, gainera, komunitatearen elementua eta praktika erlijiosoa gehitzen zaizkio. Etorकिन

erakunde informalen kasuan, profileen nagusiki nabarmentzen dira zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonak (% 61,3), legezko egoera prekarioan daudenak (% 10,9 irregularra eta % 17,9 aldi baterako bizitegi egoera), egonaldiaren batez bestekoa orokorra baino txikiagoa dutenak (10,7 urte), batez besteko adina txikiagoa dutenak (38,3 urte batez beste) eta afrikar jatorriko eta munduko gainerako herrialdeetako biztanleak. Erakunde erlijiosoen kasuan, honako hauek nabarmentzen dira: zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen ehuneko handia (% 71,7), egonaldiaren batez bestekoa orokorra baino txikiagoa da (11,4 urte), ikasketa maila ertaina baxua da eta kontzentrazioa gainerako Latinoamerikako, Magrebeko eta Errumaniako jatorrietan eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetan dago.

XVIII. TAULA

Elkarte eta taldeetan parte-hartzen duten EAEko 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen profila (% bertikalak)

		2010					2018				
		Etorkinen erakunde informaleak	Kirol taldeak	Hezkuntza eta kultura elkarteak	Erakunde erlijiosuak	Guttria	Etorkinen erakunde informaleak	Kirol taldeak	Hezkuntza eta kultura elkarteak	Erakunde erlijiosuak	Guttria
Sexua	Gizona	62,2	62,8	37,6	46,1	46,8	51,2	56,2	45,2	35,4	42,7
	Emakumea	37,8	37,2	62,4	53,9	53,2	48,8	43,8	54,8	64,6	57,3
Adina (16atebestekoa)		36,1	33,2	35,9	38,2	35,6	38,3	37,6	40,5	41,4	41,3
Ikasketa Maila	K. titulazio esangraturik ez	9,4	3,0	5,9	11,6	8,3	14,3	7,0	6,0	16,3	12,2
	Lehen maila	21,0	20,2	10,6	28,6	26,7	23,4	15,0	18,4	23,7	26,3
	Bigarren maila	35,9	31,9	32,1	29,3	35,9	24,8	31,1	28,7	38,6	30,5
	Lehiaketa Heziketa I / II	6,9	9,3	5,2	11,1	10,3	16,3	20,7	14,7	10,1	15,2
	Goi maila	26,8	35,5	46,3	19,5	18,8	21,1	26,1	32,2	11,4	15,8
Jatorria	Merdeberdako EB	1,6	15,9	12,9	7,0	12,5	3,8	15,1	13,2	3,8	8,4
	Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialdeak	1,6	5,2	6,1	8,5	10,5	5,0	6,4	6,9	12,5	9,8
	Magrebtarrak	15,8	9,8	9,4	26,2	13,8	14,2	10,9	12,3	24,4	15,1
	Argentina, Txile, Uruguai	4,6	9,5	10,1	3,4	4,9	2,2	8,4	6,7	2,1	4,1
	Columbia, Ekuador, Peru	14,0	14,2	10,6	9,6	18,9	7,8	19,4	24,5	14,8	17,3
	Bolivia	14,1	14,5	13,4	6,8	7,4	9,9	6,6	5,5	6,4	6,5
	Pangaiak	6,4	3,8	1,8	3,0	3,2	2,1	1,3	1,5	2,9	3,5
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	4,2	8,4	6,7	11,2	8,3	8,7	8,3	13,9	4,8	7,8
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	4,0	7,8	7,1	5,3	5,7	7,6	9,6	5,3	16,8	9,8
	Txina	1,6	1,3	1,6	1,1	2,6	1,9	3,1	0,8	0,7	2,3
	Senegal	14,6	2,0	0,9	4,6	1,9	11,9	2,2	0,6	0,7	2,5
	Afrikako gainerako herrialdeak	12,7	2,3	13,0	7,6	4,3	11,0	3,6	2,2	4,9	5,6
	Besteak	4,7	5,4	6,4	5,6	5,9	14,1	5,1	6,6	5,2	7,4
	Urteak Euzkai Autonomian Erriklageira hitzi zineteki (batez bestekoa)		7,1	9,0	9,5	8,6	8,5	10,7	13,7	15,8	11,4
Legelako egoera	Espainiar nazionalitate	8,6	25,1	15,1	16,4	18,4	35,9	44,3	48,1	39,1	37,4
	Bizirik inaktiboak	45,5	45,1	50,9	44,2	52,6	34,4	41,7	42,0	46,0	48,6
	Aldi baterako biztanleak	28,9	19,2	26,6	27,4	21,7	17,9	10,2	5,0	11,1	8,3
	Irregularrak	17,1	10,6	7,4	12,0	7,4	10,9	3,7	4,2	3,9	5,1
Arazo Ekonomikoak	Arazorik	75,6	56,1	61,9	64,6	57,1	61,3	44,1	41,7	71,7	55,0
	Arazorik gabe	24,4	43,9	38,1	35,4	42,9	38,7	55,9	58,3	28,3	45,0
	Guttria	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Etorkin Atzerritarrei Buruzko Inkesta.

Kirol, hezkuntza eta kultura elkarteetan parte-hartzen dutenen kasuan, profila desberdina da: premia egoera batean ez dagoen etorkina da eta bere migrazio prozesua egonkortua duena. Elkarte mota horiek ere sare komunitarioaren parte dira, eta laguntza gune gisa balio dezakete; hala ere, izaera zeharkakoagoa, irekiagoa eta orokorragoa dute. 2018ko emaitzei erreparaturik gero, kirol elkarteetan kasuan gizonen parte-hartzen dute gehien (% 56,2); kultura eta hezkuntza taldeetan, berriz, emakumeek gehiago (% 54,8). Hala ere, gainerako aldagaietan emaitzek antzekotasun han-

diagoa erakusten dute. Bi kasuetan, ikasketa maila ertain-altua da, eta jatorri nagusiak EBko mendebaldea, Kolonbia, Ekuador, Peru, Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublika dira. Egonaldiari erreparatzen badiogu, urteen batez bestekoa guztizkoa baino handiagoa da; horrek adierazten du denbora gehiago daramatela EAEn bizi-tzen, eta hori bat dator legezko egoerarekin; izan ere, elkarte edo talde mota horretan parte-hartzen dutenen ehunekoa % 44tik gorakoa da eta espainar nazionalitatea dauka. Azkenik, egoera ekonomikoari dagokionez, bi kasuetan gehienak dira arazo ekonomikorik ez dutela diotenak.

2010eko datuekin alderatuta, profileen zenbait aldaketa izan dituzte, baina ez dituzte ezaugarri nagusiak aldatu. Etorकिन erakunde informalen kasuan, zortzi urte hauetan emakumeen parte-hartzeak gora egin du eta jatorri latinoamerikarra dutenen parte-hartzeak behera. Erakunde erlijiosoen kasuan, aldaketa nagusia da Errumaniako eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetako biztanleria kolektibo garrantzitsu gisa agertu dela, eta Espainiako nazionalitatea eskuratu duten pertsonen kopuruak gora egin duela nabarmen. Kirol elkarten eta kultura eta hezkuntza taldeen kasuan ere profila ez da asko aldatzen, eta nabarmentzekoak dira emakumeen parte-hartzearen gorakada, lege egoeraren hobekuntza eta baldintza ekonomikoak.

Parte-hartze soziopolitikoak


Parte-hartze soziopolitikoari dagokionez, alde batetik, beren misio edo izaeragatik esparru politikoan eragitea edo eragile politikoak izatea ezaugarri duten erakundeetan izaten den parte-hartze maila aztertuko dugu, hala nola etorkinen aldeko erakundeak, auzo taldeak, sindikatuak eta alderdi politikoak. Bestalde, nazionalitate espainiarra duten atzerritar jatorriko pertsonen hauteskunde autonomikoetan duten parte-hartzea aztertuko dugu.

2. grafikoak erakunde horietan parte hartu dutela dioten 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen ehunekoa erakusten du. 2010eko datuei erreparatzen badiogu, % 3,7k etorkinen aldeko erakundeetan parte hartu du, eta, ondoren, sindikatuen parte-hartzean, % 2,3k; auzo taldeetan, % 2,1k; alderdi politikoetan, berriz, % 0,4k parte hartu du, eta ia oso gutxi.

2018an datuen bilakaerak erakusten du erakunde horietako parte-hartze mailak behera egin duela oro har, baina ordena berari eutsi zaio. Parte-hartzea handiagoa da oraindik etorkinen aldeko erakundeetan (% 2,7); ondoren daude sindikatuen parte-hartzea (% 1,9), auzo elkarteak (% 1,1) eta alderdi politikoak (% 0,4).

Datu horiek adierazten digute atzerritar jatorriko biztanleek, batez ere, beren interes sozial eta politikoak lantzen eta babesten dituzten erakundeen bitartez bideratzen dutela beren parte-hartze politikoa, hau da, etorkinei laguntzeko erakundeen bitartez. Bestalde?, parte-hartze politikorako bigarren esparrua lan eremuan dago, sindikatuen parte-hartzearen bidez, hau da, lan eskubideak bermatzeko lan egiten duen erakunde mota baten bidez. Aitzitik, parte-hartzea txikiagoa izan ohi da esku-

bideen babescan hainbeste zentratzen ez diren erakundeetan, hala nola auzo elkar-tectan eta alderdi politikoetan. Erakunde mota hauen bokazio sozial edo politikoak orokorragoa da.



Iturria: Etorकिन Atzerritarrei Buruzko Inkesta.

X. GRAFIKOA

Gizarte-erakundeetan eta erakunde politikoetan parte-hartzen duten 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen portzentajea

Zein da atzerritar jatorriko biztanleen parte-hartze sozial eta politikoaren maila, euskal gizartearen parte-hartzearekin alderatuta? EAEko Kapital Sozialaren Inkesta-ren emaitzek aukera ematen digute galdera horri erantzuteko. Parte-hartze sozial eta politikoaren adierazleari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu atzerritar jatorriko biztanleek, oro har, parte-hartze osoaren mailarekin alderatuta zertxobait gutxiago dutela. Bi kasuetan, gehienek parte-hartze txikia dute (biztanleria osoaren % 88,6k eta atzerritar jatorriko biztanleriaren % 93,4k), eta bi kasuetan parte-hartze handia dutenen garrantzia oso txikia da. Alde nagusia batez besteko parte-hartze dago: atzerritar jatorriko biztanleen % 6 eta biztanleria osoaren % 10,1.

Profilarri dagokionez, erakunde soziopolitikoaren kasuan ere aldeak eta antzekotasunak aurkitu ditzakegu. Hala ere, kasu honetan ikusten dugu etorkinei laguntzeko erakundeetan parte-hartzen dutenen profila gehiago bereizten dela gainerakoetatik; gainerako erakundeetako parte hartzaileen profila, berriz, antzekoagoa da.

2018an, etorkinei laguntzeko erakundeetan parte-hartzen duten etorkinen profilaren ezaugarria da sexuen arteko oreka (nahiz eta banaketa osoarekin alderatuta, oreka horrek profil maskulinizatua adierazten duen), 42 urteko batez besteko adina (gutzizkoa baino handiagoa), ikasketa maila ertain-altua (% 47,5 LHko edo goi mailako ikasketekin) eta jatorri nagusiki afrikarra (% 47,4 Magreb, Senegal edo Afri-

kako gainerako herrialdeetatik dator). Migrazio aldagaiei dagokienez, batez besteko egonaldia 12 urtekoa da (gutzizkoa baino laburragoa), eta legezko egoera ona da, % 80,8k egoitza baimen iraunkorra edo nazionalitatea baitu. Azkenik, gehienek (% 63,5) diote zailtasun ekonomikoak dituztela. Profilak 2010az gerotik izan duen bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu parte-hartzearen feminizazioa gertatu dela (emakumeen parte-hartzea ehuneko 12 puntu hazi da), eta batez besteko adina, hala nola ikasketa maila, igo da (LHko edo goi mailako ikasketak dituztenak ehuneko 10 puntu inguru igo dira). Jatorriaren kasuan, ez da funtsezko aldaketarik gertatzen. Migrazio aldagaien kasuan, egonaldiak gora egin du, baina gutzizkoaren azpitik; hala ere, lege egoeran aldaketa handia gertatu da. 2010ean, % 53,5 egoera irregularrean edo aldi baterako egoitza baimenarekin zegoen; 2018an, datu horiek nabarmen hobetu dira, eta % 17,6ra jaitsi dira. Egoera ekonomikoari dagokionez, hamaika puntu inguru jaitsi da zailtasun ekonomikoak dituztela diotenen ehuneko.

XIX. TAULA

Gizarte erakundeetan eta erakunde politikoetan Parte-hartzen duten 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen profila, aldagai demografiko, sozioekonomiko eta migratzaileen arabera (% bertikalak)

	2010					2018					
	Etorkin aldeko erakundeak	Auzo Elkarteak	Sindikatuak	Alderdi Politikoak	Guztira	Etorkin aldeko erakundeak	Auzo Elkarteak	Sindikatuak	Alderdi Politikoak	Guztira	
Sexua	Gizona Emakumea	62,9 37,1	54,7 45,3	71,9 28,1	77,2 22,9	46,8 53,2	50,9 49,1	40,0 60,0	50,4 49,6	38,0 62,0	42,7 57,3
	A dirua (8 batzbestekoa)	36,0	44,5	43,0	43,2	35,6	42,0	49,7	45,4	53,7	41,3
Ikasketa maila	Kualifikazio esanguratsurik ez	8,7	4,4	8,9	0,0	8,3	12,6	2,9	0,0	6,1	12,2
	Lehen maila	22,5	23,6	12,2	17,3	26,7	14,2	23,3	27,8	5,5	26,3
	Bigarren maila	31,2	32,9	16,0	2,1	35,9	25,9	18,1	27,0	0,0	30,5
	Lehen Heziketa I / II Goi maila	9,9	5,9	10,9	33,9	10,3	22,2	6,6	14,9	11,0	15,2
Jatorria	Mendebaldeko EB	2,9	33,1	33,1	0,0	12,5	0,0	20,1	4,5	14,8	8,4
	Eurumantia eta EBko ekialdeko beste herrialdeak	1,6	15,8	9,2	7,7	10,5	8,1	12,6	9,2	10,3	9,8
	Magrebtarrak	20,0	6,5	12,4	30,1	13,8	18,6	11,1	15,3	0,0	15,1
	Argentina, Txile, Urugai	5,5	1,8	8,0	25,0	4,9	3,7	4,5	1,1	0,0	4,1
	Columbia, Ekuador, Peru	6,4	13,0	14,0	31,5	18,9	5,8	20,8	23,7	21,9	17,3
	Bolivia	10,8	9,6	1,9	3,6	7,4	6,8	0,0	14,6	0,0	6,5
	Paraguai	6,9	0,0	1,4	0,0	3,2	1,9	0,0	2,6	1,6	3,5
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublikak	6,3	3,4	6,3	0,0	8,3	8,3	6,7	11,4	46,5	7,8
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	3,8	5,1	2,6	0,0	5,7	9,6	6,4	5,1	0,0	9,8
	Txina	1,9	1,2	0,0	0,0	2,6	1,1	0,0	0,0	0,0	2,3
	Senegal	17,0	2,1	3,9	2,1	1,9	16,4	0,5	0,0	0,0	2,5
	Afrikako gainerako herrialdeak	12,5	6,8	7,3	0,0	4,3	12,3	3,7	9,0	0,0	5,6
	Besteak	4,5	1,5	0,0	0,0	5,9	7,4	13,5	3,6	5,1	7,4
Urteak Euskal Autonomia Erkidegora iritsi zirenetik (batez bestekoa)	8,0	14,5	14,9	9,3	8,5	12,0	19,6	16,4	30,6	12,8	
Legezko egoera	Spanish nationality	10,5	27,5	36,4	25,0	18,4	38,0	54,9	80,8	94,9	37,4
	Permanent residence	36,0	66,9	58,6	71,4	52,6	42,8	37,4	14,8	5,1	48,6
	Temporary residence	33,4	4,1	4,6	3,6	21,7	9,3	5,9	2,2	0,0	8,3
	Irregular	20,2	1,6	0,4	0,0	7,4	8,3	1,9	2,2	0,0	5,1
Ekonomikoak	Arazo	74,4	37,6	38,3	67,5	57,1	63,5	29,2	41,2	28,8	55,0
	Arazorik gabe	25,6	62,4	61,7	32,7	42,9	36,5	70,8	58,8	71,2	45,0
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iurria: Etorkin Atzerritarrei Buruzko Inkesta.

Lehen adierazi dugun bezala, auzo taldeen, sindikatuen eta alderdi politikoaren kasuan, profilek antzekotasun dezente dituzte, baina baita desberdintasunak ere. 2018an, profil feminizatua du auzo talde eta alderdi politikoaren kasuan, aldiz gizonez-

kotua sindikatuen kasuan. Hiru kasuetan batez besteko adina biztanleria osoa baino dezentente handiagoa da, eta ikasketa maila nagusia hirugarren mailako ikasketak dira (% 30etik gora), profil sindikala izan ezik, hor derrigorrezko ikasketek ere garrantzi handia baitute. Jatorriari dagokionez, auzo taldeetan eta alderdi politikoetan jatorri europarra eta latinoamerikarra dira nagusi, eta sindikatuetan, berriz, jatorri latinoamerikarra eta afrikarra. Migrazio aldagaiei dagokienez, hiru profiletan guztizkoa baino egonaldi luzeagoa dugu (batez bestekoa 16 urtetik gorakoa da hiru kasuetan), eta legezko egoera oso ona da, % 80tik gorako nazionalitatearekin sindikatu eta alderdi politikoaren kasuan, eta % 92,3koa bizileku iraunkorarekin eta nazionalitatearekin auzo taldeen kasuan. Azkenik, hiru profilen ezaugarria da zailtasun ekonomikorik ez dutela dioten pertsonak gehiengoa izatea. 2010aren aldean, profilen bilakaerak zenbait aldaketa erakusten ditu; aipagarrienak dira emakumeen parte-hartzearen gorakada, jatorri latinoamerikarra dutenen parte-hartzearen gorakada eta parte-hartzaileen legezko egoeraren hobekuntza.

Hauteskunde prozesuetan Parte-hartzea


Hauteskunde prozesuetan, etorkinen parte-hartzea baldintzatuta dute estatuen artean daude elkarrekikotasun-akordioek eta nazionalitatea lortzeko lege esparruek. Oro har, naziotasuna eta herritartasun osoa lortzea funtsezkoa da hauteskunde prozesu guztietan botoa emateko eskubidea eskuratzeko (Ruedin, 2016).

Ildo horretan, nazionalitatea lortzea arautzen duen lege esparrua da atzerritar jatorriko biztanleriaren parte-hartze maila baldintzatzen duen faktore nagusia. Gainera, sartzeko baldintzak desberdinak direlako herrialdeen arabera; kasu batzuetan, legezko bizilekua izateko behar den urte kopurua handiagoa da, eta, beste batzuetan, txikiagoa. Oro har, Latinoamerikako herrialdeetatik etorritako biztanleek 2 urteko legezko egonaldia behar dute, eta gainerakoek, berriz, 10ekoa, araudiaren arabera. Beraz, atzerritar jatorriko pertsonen parte-hartze maila aztertze orduan, ezinbestekoa da Espainiako nazionalitatea lortu duten pertsonen pisua zein den jakitea eta haien parte-hartze maila elementu horren arabera ebaluatzea.

Horri dagokionez, 3. grafikoan ikusten da Espainiako nazionalitatea eskuratu duten 18 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen ehunekoa. 2018an, % 36,3k eskuratu zuen nazionalitatea, 2010eko % 18,3arekin alderatuta. Hala ere, 2010ean alde handiak zeuden jatorriaren arabera, eta 2018an are handiagoak dira alde horietan.

2018an, jatorri latinoamerikarreko pertsona gehienek % 50etik gora nazionalitatea zuten, eta % 60tik gorakoa da Bolivian, Kolonbian, Ekuadorren, Perun, Argentinan, Txilen eta Uruguain. Gainerako jatorrien nazionalitatearen garrantzia askoz txikiagoa da: % 25,7 EBko mendebaldearen kasuan, % 22,8 Magreben kasuan eta % 20tik beherakoa gainerako kasuetan. Gainera, 2010arekiko bilakaerak argi eta garbi adierazten du nazionalizazioen hazkundea askoz ere handiagoa izan dela ja-

torri latinoamerikarrekoen kasuan, eta neurri txikiagoan gainerakoetan. Beraz, boto eskubidea duten atzerritar jatorriko biztanleen artean latinoamerikar jatorria da nagusi.



Iturria: Etorikin Atzerritarrei Buruzko Inkesta.

XI. GRAFIKOA

Espainiar nazionalitatea duten >18 urteko atzerritar jatorriko biztanleak (%)

Parte-hartze mailari dagokionez, azken urteotan izan diren hauteskunde prozesu guztietan antzeman da etorkinen parte-hartze txikia —sufragio pasibo edo aktiborako eskubidea duten pertsonena— (Godenau *et al.*, 2014) eta haien ordezkari-tza instituzionala argi eta garbi azpiordezkaturata dago (Bermudez eta Escrivá, 2016). EABIren emaitzek antzeko emaitzak erakusten dituzte. 2010ean, Espainiako nazionalitatea zuten 18 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 34k soilik adierazi zuen hauteskunde autonomikoetan parte hartu zuela (aztertuko dugun hautapen mota); 2018an, berriz, ehuneko horrek gora egin zuen, eta % 41,6ra iritsi zen.

XX. TAULA

Hauteskunde autonomikoetan parte hartu duten 18 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen profila (% bertikalak)

		2010		2018	
		Autonomikoak	Guztira	Autonomikoak	Guztira
Sexua	Gizona	56,3	45,0	35,5	34,1
	Emakumea	43,7	55,0	64,5	65,9
Adina (Batezbestekoa)		45,7	41,7	48,5	45,6
Ikasketa Maila	Kualifikazio esanguratsurik ez	3,1	4,0	3,2	7,2
	Lehen maila	19,4	23,4	19,0	22,3
	Bigarren maila	18,3	31,2	29,6	31,1
	Lanbide Heziketa I / II	11,1	11,8	21,5	19,1
	Goi maila	48,3	29,6	26,6	20,3
Jatorria	Mendebaldeko EB	19,6	12,4	7,3	7,2
	Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk	14,0	5,9	0,8	0,4
	Magrebtarrak	9,7	11,3	6,6	9,9
	Argentina, Txile, Uruguai	15,6	12,1	10,1	7,0
	Columbia, Ekuador, Peru	7,1	27,0	35,1	32,2
	Bolivia	0,7	1,4	8,4	10,2
	Paraguai	0,3	0,3	0,6	2,1
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	15,1	13,4	12,1	11,8
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	5,5	7,5	12,2	11,2
	Txina	1,4	1,1	0,3	0,3
	Senegal	0,1	0,2	0,4	1,1
	Afrikako gainerako herrialdeak	3,3	3,5	2,3	3,3
Besteak	7,6	3,8	3,7	3,2	
Urteak E uskal Autonomia Erkidegora iritsi zirenetik (batez bestekoa)		19,8	15,3	20,4	17,4
Ekonomikoak	Arazo Arazoekin	21,6	38,3	44,5	50,5
	Arazorik gabe	78,4	61,8	55,5	49,5
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Etorikin Atzerritarrei Buruzko Inkesta.

3. taulako emaitzek hauteskundeetan parte-hartzen duen atzerritar jatorriko pertsonen profila islatzen dute. 2018ko datuen arabera, profil hau honela ezaugarritzen da: emakumezkoa (% 64,5); 48,5 urteko batez besteko adina; ikasketa maila ertain-altua (% 48,1 LHko edo goimailako ikasketekin); nagusiki latinoamerikarra (% 78,6); EAEn 20,4 urteko batez besteko egonaldi eta zailtasun ekonomikorik ez duten pertsonen (% 55,5) eta zailtasun ekonomikoak dituztenen (% 44,5) arteko nolabaiteko oreka. Profil orokorrarekin alderatuta, desberdintasunak nabariak dira, ikasketa maila altuagoa, egonaldi luzeagoa eta egoera ekonomiko hobearen kasuan. Sexuaren eta jatorriaren kasuan aldiz, profilakantzekoak dira.

2010ko datuekin alderatuta aldaketak ere nabarmenak dira. 2010ean, boto emalearen profilaren honela ezaugarritzen zen: gizona (% 56,5); batez beste 45,7 urte; hezkuntza maila altua (% 48,3 hirugarren mailako ikasketekin); batez ere jatorri komunitariokoak (% 33,9) eta Argentina, Txile, Uruguai, Brasil, Venezuela

eta Dominikar Errepublikakoak (% 30,7), hogei urte inguruko batez besteko egonaldiarekin eta gehienak zailtasun ekonomikorik gabekoak (% 78,4).

Ildo horretan, bi profilen alderaketak erakusten du boto-emaile feminizatua goranzko bilakaeran dagoela, ikasketa maila askotarikoagoa, latinoamerikarragoa eta egoera ekonomiko orekatuagoa duena, zailtasun ekonomikorik ez dutenen artean. Laburbilduz, ikusten dugu, 2010eko boto-emailearen profila Espainiako nazionalitatea duten atzerritar jatorriko pertsonen profil orokorretik nahiko desberdina bazen ere, 2018an profil horretara hurbildu dela eta profil orokorretik hain desberdina ez den boto-emaile bat erakusten duela.

Partaidetza soziala eta politikoa eta integrazioaren pertzepzio subjektiboa

Atzerritar jatorriko biztanleriaren parte-hartze sozial eta politikoaren maila sakon aztertu eta profilak zehaztu ondoren, orain aztertuko dugu parte-hartze horren eta pertsona horien integrazio-pertzepzio subjektiboaren artean erlaziorik dagoen.

Lan hau deskribatzen duen metodologiak ez digu aukera ematen aldagai horien artean kausazko edo azalpenzko erlazioak ezartzeko, baina bai zenbait gertaera identifikatzeko. Taulak integrazioari buruzko pertzepzio subjektiboaren batez besteko haztatua erakusten du; izan ere, 1 ez da batere integratua eta 5 oso integratua da, lan honetan aztertu ditugun elkarte, erakunde eta hauteskundeetan izan dugun parte-hartzearen arabera. Emaitzek erakusten dute, oro har, integrazioaren pertzepzio subjektiboaren maila nahiko handia dela item desberdinetan.

Datuek harreman positiboa erakusten dute parte-hartzearen eta integrazio pertzepzioaren artean, nahiz eta desberdintasunak ikusten diren parte-hartzen den erakundearen arabera. 2018an, batez besteko haztatuak erakusten du integratuen sentitzen diren atzerritar jatorriko pertsonak hauteskunde prozesuetan parte-hartzen dutenak direla (4,49). Erakunde eta elkarteek dagokienez, integrazio pertzepzioa handiagoa da alderdi politikoetan (4,38) eta sindikatuetan (4,35) parte-hartzen dutenen artean, eta horien atzetik datoz etorkinei laguntzeko erakundeak (4,32), auzo-taldeak (4,30), hezkuntza eta/edo kultura taldeak (4,30) eta kirol elkarteak (4,29). Integrazioaren pertzepzioa txikiagoa da etorkinen erakunde informaletan (4,21) eta erakunde erlijiosoetan (3,89) parte-hartzen dutenen artean. Bestalde, kasu guztietan, erakunde erlijiosoetan parte-hartzean izan ezik, integrazio pertzepzioa handiagoa da parte-hartzen dutela dioten artean, parte-hartzen ez dutela dioten artean baino. Bestalde, 2010etik aurrerako bilakaerak erakusten du integrazio pertzepzioak gora egin duela, bai parte-hartzen dutenen artean, bai parte-hartzen ez dutenen artean. Igoera hori handiagoa da etorkinei laguntzeko erakundeetan (+0,38), etorkinen erakunde informaletan (+0,31) edo hezkuntza eta/edo kultura taldeetan (+0,21) parte-hartzen dutenen artean. Bestela, integrazio pertzepzioa 0,17 puntu jaisten zaien era-

kunde erlijiosoetan parte-hartzen duten pertsonak ditugu. Gainerako kasuetan, batez besteko haztatuak gora edo behera egiten du, baina ez hain nabarmen.

XXI. TAULA

16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen integrazio-pertzepzio subjektiboaren batez besteko haztatuak Parte-hartze motaren arabera (15 eskala)

	Parte-hartzen du	2010	2018
Etorkinen erakunde informalak	Bai	3,90	4,21
	Ez	4,01	4,14
Etorkinen aldeko erakundeak	Bai	3,94	4,32
	Ez	4,01	4,14
Kirol Taldeak	Bai	4,22	4,29
	Ez	3,98	4,13
Hezkuntza eta kultura elkarteak	Bai	4,09	4,30
	Ez	4,00	4,13
Erakunde Erlijiosoak	Bai	4,06	3,89
	Ez	4,00	4,16
Auzo Elkarteak	Bai	4,32	4,30
	Ez	4,00	4,14
Sindikatuak	Bai	4,29	4,35
	Ez	4,00	4,14
Alderdi Politikoak	Bai	4,35	4,38
	Ez	4,00	4,14
Hauteskunde Autonomikoak	Bai	4,56	4,49
	Ez	4,11	4,20

Iturria: Etorkin Atzerritarrei Buruzko Inkesta.

Datu horiek adierazten dute integrazio pertzepzioa handiagoa dela hauteskunde prozesuetan eta erakunde sozial eta politikoetan parte-hartzen dutenen artean, eta zertxobait txikiagoa elkarteetan parte-hartzen dutenen artean. Parte-hartze politikoak harrera-gizartearen erabakiak hartzeko prozesuan parte-hartzea edo eragitea dakar, eta, beraz, integratuta sentitzen den eremu publikoarekiko konpromiso handiagoa eskatzen du. Hori dela eta, pentsatzekoa da egonaldiak eta sustraitzeak ere

eragina dutela dinamika horretan eta integrazio pertzepzio handiago batean. Horrela, denbora gehiago daramaten pertsonak gehiago parte-hartzen dute alderdi eta sindikatuetan, eta gutxiago daramatenek, aldiz, etorkinen elkarte erlijioso eta informaletan. Aldi berean, sistema politikoarekiko identifikazioak eta legezko egoera onak dinamika horretan eragiten dute, eta integrazio pertzepzio handiagoa ahalbidetzen dute.

Ondorioak

Kapitulu honetan, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztaleen parte-hartze sozial eta politikoa landu dugu. Egindako analisiak, talde honen parte-hartzea nola eta non ematen den eta parte-hartzen duten pertsonen profila ezagutzea ahalbidetu digu. Bestalde, zehaztu dugu parte-hartze honek eta etorkinek gure gizartean duten integrazio pertzepzio subjektiboaren arteko harremana. Laburpen gisa, ondoriozta dezakegu, alde batetik, etorkinek biztanleria osoaren maila berean parte-hartzen duela bai sozialki eta bai politikoki (hauteskundeetan parte-hartzearen kasuan izan ezik). Bestetik, atzerritar jatorriko pertsonen profil desberdinak daudela parte-hartze motaren arabera, eta, azkenik, integrazio subjektiboaren pertzepzioa handiagoa dela parte-hartzeko joera duten etorkinen artean.

Parte-hartze sozial eta politikoa modu desberdinean izaten da. Elkarteen kasuan, nagusiki hezkuntza, kultura eta kirol elkartetan parte-hartzen dut, eta neurri txikiagoan, etorkinen talde informaletan eta erakunde erlijiosoetan.

Parte-hartze handiagoa dago orotariko eta askotariko elkarte sareetan (hezkuntza, kultura eta kirola); horrek eragin positiboa izan dezake elkarte horietan parte-hartzen duten pertsonen harreman sarean eta kapital sozialean. Argudio hori indartzen da integrazioaren pertzepzio subjektiboari buruzko datuekin; izan ere, kirol, kultura edo hezkuntza elkartetan parte-hartzen duten atzerritar jatorriko pertsonak integrazio-pertzepzio subjektibo handiagoa dute, etorkinen talde informaletan edo erakunde erlijiosoetan parte-hartzen dutenekik alderatuta.

Erakunde sozial eta politikoei dagokienez, emaitzek erakusten dute etorkinek joera handiagoa dutela beren eskubideen eta interesen defentsa helburu duten erakundeetan parte-hartzeko. Hala, parte-hartzea handiagoa da etorkinei eta sindikatuei laguntzeko erakundeetan, eta txikiagoa auzo taldeetan eta alderdi politikoetan. Kasu horretan, ez dago korrelaziorik bereizketa horren eta integrazio pertzepzioaren artean. Hauteskundeetarako dagokienez, beste lan batzuek erakutsi dutenaren ildotik, parte-hartzearen maila txikia da nazionalitate espainiarra duten jatorri atzerritarreko pertsonen artean. parte-hartze txikiago horrek, beren interesak agenda politikoan eta instituzionalean eragin txikiago izatea ekar dezake.

Profilei dagokionez, oro har, bi profil mota bereizten dira: batetik, etorkinen erakundeetan parte-hartzen dutenena, eta, bestetik, aztertutako gainerako erakundeena.

Etorkinen erakundeen edo etorkinei laguntzeko erakundeen kasuan, profilak lotura handiagoa du migrazio prozesuaren hasieran dauden etorkinekin, zailtasun ekonomikak dituztenekin, legezko egoera prekarioan daudenekin eta jatorri afrikarrekoak direnekin. Gainerako erakundeetan, aldeak badaude ere, profila erabat finkatuta dauden etorkinetan oinarritzen da nagusiki, ikasketa maila altuarekin, lege egoera onarekin, zailtasun ekonomiko txikiagoekin eta jatorri latinoamerikarrekin. Laburbilduz, ikusten dugu etorkinen erakundeetan edo etorkinei laguntzeko erakundeetan parte-hartzea premia eta laguntza egoeran dagoen etorkin baten profilarekin lotzen dela, eta gainerako erakundeen kasuan, berriz, finkatuta dagoen eta egoera sozioekonomiko hobea duen etorkina dela parte-hartzen duena. Hauteskundeetan parte-hartzearen kasuan, profila egoera sozioekonomiko hobean eta finkatuta dagoen etorkin batekin ere lotzen da.

Lan honen hasierako ideiarra itzuliz, parte-hartzea, gizartearen eta sistema politikoaren funtsezko elementu demokratikoa da. Immigrazioaren kasuan, gainera, faktore garrantzitsua da integrazio prozesuan, eta lan honetan berretsi egin dugu parte-hartzearen eta integrazioaren arteko lotura hori. Gainera, migrazio prozesuaren eta parte-hartzearen arteko harremanari esker, egiaztatu ahal izan dugu, migrazio etaparen arabera, parte-hartze mota alda daitekeela; hasierako fasean parte-hartzea premien eta eskubideen babesarekin lotutako auzira bideratzen da; finkatze fasean, aldiz, integrazio politiko eta sozial handiagoari lotutako parte-hartze orokorrago batera bideratzen da. Ildo horretan, emaitza hauek mahai gainean jartzen dute integrazio politiken esparruan partaidetza politikoi pisu espezifikoak emateko beharra, parte-hartzearen eta integrazio politikoaren dimentsioak kontuan hartuta.

Azkenik, etnokulturalki askotarikoa den euskal gizartearen kohesio sozialaren ikuspegitik, garrantzitsua da, agenda politikoan eta erabakitzeko guneetan, atzerritar jatorriko pertsonen interes espezifikoek lekua izatea. Besteak beste, atzerritartasunari buruzko legeria, herritartasunari lotutako arazo legalak, diskriminazio mota desberdinak (arrazak, jatorri erlijio, instituzionala, lanekoa) edo, bereziki, haiei eragiten dieten hauskortasun eta prekarietate sozialak dira, atzerritar jatorrikoak izateagatik, jasaten dituzten berezko arazoetariko batzuk.

IV. atala

**Mendebaldeko demokrazia(k)
aztertzeko metodologiak eta esparru
epistemologikoak**

Transdukzioko estrategietarako metodologiak¹

Tomás R. Villasante

CREASVI Fundazioa, CIMAS Sarea, GT CLACSO Partaidetzako Prozesuak
eta Metodologiak, Sentitu-pentsatu Sarea
Madrilgo Unibertsitate Complutenseko ohorezko irakaslea

Laburpena. Hasierako ataletan, duela 50 bat urtetik hona gizarte zientzietan izan diren hainbat eztabaidaren gaineko berrikusketa egingo dugu, egile askoren aipamenak bilduta: 68ko maiatzetik hasi, eta, besteak beste, lehian zeuden marxismoak, sozio-analisia, analisi instituzionala, konstrukzionismoaren eztabaidak, ekarpen feministak eta jakintzen ekologia. Testuaren azken zatian soziopraxia azaltzen da (azken 30 urtetan eraikia), ekarpen horien artean egiten ari garen artikulazio gisa, ez bakarrik ikuspegi horietatik ikasitakoa aplikatuz, baizik eta gailu praktikoko berriak planteatuz. Era horretara, erakutsi nahi dugu nola egin sareetan, prozesuetan eta mugimenduetan egiten dugun urrats edo «jauzi transduktibo» bakoitza.

Historia eta kritika metodologiko apur bat

Gizarte-zientzietan aspaldikoa da partaidetzako metodologiei buruzko eztabaida. Eztabaida hori premia-koago bihurtu du, ordea, une honetan hainbat krisi elkartu izanak: ekologia- eta osasun-krisi globalizatuek, ekonomia- eta enplegu-krisiak, demokrazia formalen krisiak eta populismoen berragerpenak, baina baita gizarte-zientzien eta partaidetzako metodologiaren erabilgarritasunari buruzko krisiak berak ere.

¹ Artikulu hau eguneratu dugu: «Una articulación metodológica: desde textos del socio-análisis, I(A)P, F. Praxis, Evel, yn F. Keller, Boaventura S. Santos, etc.» (*Política y Sociedad*, 2007, 44 (1), 141-157). 2007an Komplexutasunari eta Partaidetzako Metodologiei buruzko monografikoa argitaratu genuen Unibertsitate Complutenseko *Política y Sociedad* aldizkarian; han sartu genuen testu batean du oinarria orain berridatzita aurkezten dugun artikulu honek. Era berean, testu horrek «Desbordes Creativos» (2006) liburuko ideiei heltzen die batik bat; han, luze eta zabal bildu genituen egindako saiakuntzen oinarriak eta gaur oraindik ere lantzen jarraitzen dugun «soziopraxiari» buruzkoak, hau da, partaidetzako prozesuetara ekarritako metodologia berriko buruzkoak.

Duela 40 edo 30 urte, fedea «historian» edo «ikerketa (ekintza) parte-har-tzaileetan» jartzen zuten «basismoan» oinarritutako militantzia molde aktibistak zi-ren nagusi, soziologia, antropologia, psikologia... konbentzionalen gainetik. Urte haietan leku handia zuten boluntarismoak, esperimentazioak, autokritikak eta baita oinarrizko zenbait ekarpenek ere. Ekarpene horiek paradigma berrietatik, konplexuta-sunetik, gizarte konstruksionismoetatik eta abarretatik berrazter litezke gaur egun.

Georges Lapassadek honako adierazpen hauek egin zituen 1968ko matxinada ospetsuaren ondoren: ‘...1968ko martxoaren 22ko egun hori sonatua izango da, egun horretan abiatu baitzen egiazki Maiatzeko Iraultza. Martxoaren 22ko gertaera ho-rrek, gure tesiak berretsi eta ezereztu egiten ditu aldi berean; berretsi, Nanterreko ikasleentzat egun horretako ekintza jauntxoan diktaduraren gune nagusia zen Batzar Aretoa okupatzea izan zelako, dekanook bere inguruan zituela erakunde osoaren bo-tere guztiak bidegabeki zituzten katedren titularrak (oraindik ere hala dituzte). Bere-biziko eragin sinbolikoa izandako ekimen miresgarri hori asmakuntza kolektibo baten ondorio izan zen. Beharbada zehaztu beharra dago, Daniel Cohn Benditek (haren adimen politikoak markatu zuen matxinada-aldi osoa) ez zuela Nanterreko «Dorre» administratiboa okupatzerik nahi; horren orde, soziologiako departamentua okupa-tzea proposatzen zuen. Baina haren burkideak, sen iraultzaile sendokoak izaki, jabetu ziren irakasleak baino harago heltzeko gai zirela, Nanterre euren zela... Arratsalde hartan Rene Lorauk oraindik ere pentsatzen zuen Daniel Cohn Bendit eta haren la-gunak «erakundeen azterketarako taldera» agertu ez izana, eta ondoren «Dorrean» era aktiboan eta matxinoan parte hartu izana, analisia baztertu eta «ekintzara pasa-tze» bat besterik ez zela izan. Oker zegoen. Ondorengo egunetan ulertu zuen egiazko analisia okupazio-ekintza bera izan zela. Egiazko eraginkortasuna zetzan unibertsita-teko agintaritzaren leku sakratu eta itxietan eginiko esku-hartzearen eraginkortasun sinbolikoan. Labur esanda, ekintza eredugarria analisia baino egiazkoagoa gertatu zen, eta mundua aldatu zutenak ez ziren erakundearen analistak izan, martxoaren 22ko militanteek gidatutako ikasleak baizik. Izan ere, militante horiek beren sozio-logiako irakasleek baino hobeki ezagutzen zituzten Marx, Bakunin, Lenin eta Rosa Luxemburg, baina batez ere ongi zekiten haien ideiak garaian praktikan nola jarri... Bai, halaxe da, psikologoa kultur jazarpenaren eragile da. Ospe handiko mintegi ho-riek, sarritan, gizarte-kontrolerako enpresak besterik ez dira... Adi ibili behar da lan-tegietako medikuekin, psikiatrekin, eta, oro har, gure gizartean hurkoari lagundu, en-tzun, ulertu eta are, «sendatzeko» lana bere egiten duten horiekin guztiekin.

«Azken hitz bat talde murriztuen gaineko esperientzia praktikoei dagokie-nez. Oro har, behaketa arruntak taldeen arazoei buruz erakusten digunari egin behar diogu jaramon, psikologia esperimental oren printzipioari, alegia. Prin-tzipio horren arabera, behatutako eta laborategietan manipulaturako gizakiak objektu bihurtzen dira beste gizaki batzuentzat. Gizakia ikerketa eta saiakuntze-tarako gai gisa tratatzea bide arriskutsua da; galbidera eraman dezake gizata-suna. Horixe iragartzen digute dagoeneko menderakuntzarako enpresa totalita-

riok... Hala, maiatz hartatik aurrera ez zen ezertxo ere geldituko guk 1962tik hedatu genuen psikosoziozia politiko hartatik (Royaumonten Solasaldia eta Eztabaida)... Soziologiako ikasleak beren irakasleak baino lehenago jabetu ziren... Izatez, soziologia ofiziala (Ekintzaren, Antolakundeen edo Kontsentsuaren soziologia) maiatza baino aurrerago ere hilda zegoen dagoeneko Nanttereko soziologia departamentuan. Maiatzeko gertaerek guztiz ezereztu zuten: Nanterre 68k sozioanaliaren amaiera ekarri zuen, eta Marxen Praxira itzultzea, ez besterik».

Europa erdialdean mintegi hauek egiten ziren bitartean, Latinoamerikan, besteak beste, Orlando Fals Borda (Kolonbia) edo Rodrigues Brandão (Brasil) gizarte-zientzialariek gizarte-zientzia konbentzionalek laborarien mugimenduentzat, eta, oro har, «herri» eraikuntzarentzat duten baliagarritasuna zuten eztabaidagai. PIE, Partaidetzazko Ikerketa Ekintza, alde batetik bestera zabaldu zen hirugarren mundua deiturikoan; indarrean ziren sistemekin kritikoak ziren gizarte-zientziak praktikan jartzea zen helburua eta oso eraginkorra izan zen baztertuta zeuden komunitate jakin batzuetan. Herritik zetorren orok akademiatik zetorrenak bezainbesteko balioa zuelako sinesmen basistak mundu osoan irauli zituen gizarte-zientziak. Intuiziozko artisau-lan hori European nola hartu zen iradokitzeke balio dezake PIEren Espainiako aitzindariak emaniko testigantzak. Paloma López de Ceballosek (1989) honako hau adierazi zuen:

«Orduan, ezusteko atsegin bat jaso nuen: ikerketa partekatu honek balio zientifikoa zuen itxura guztien arabera. Londresko Unibertsitateko *London School of Economics* eskolak eta Sorbonako Goi Ikasketetako Eskolak, Kultur Antropologiako eta/edo Soziologiako Lizentziatura eta Masterra egin ordez, argitaratuta genituen liburuak baliozkotzeko eskaintza egin ziguten. Parisko Sorbona aukeratu nuen, hurbiltasun kulturalagatik, eta uda iristean, *British Museum*-era joan nintzen hango dokumentazio zoragarriaz baliatzera. H. Desroche nire ikerketaren zuzendariak eta haren lankideek nire ezagutzari buruzko ahozko azterketa osagarri bat egin ostean, Sorbonako Goi Ikasketen buruak zuzenean onartu ninduen doktoretzako bigarren urtean.

Ikerketek egiaztapen berriak ekarri zituzten: 1. Oso molde frantsesean deskubritu nuen edozein ikerketatan *argitaragabea* eta *logikoa* kategoriek duten garrantzia. 2. Ildo beretik, Singapurren abiatutako gauza bat ikasi nuen: nire intuizioak deseraikitzen eta garapen logikoen arabera birmoldatzen. 3. Ikerketan trebatu nintzen, maila zientifikorik gorenean praktikaturako artisau-gintza gisa ulerturik ikerketa. Levi Straussek ahaidetasunari buruzko bere konbinazio matematiko ospetsuak eraikitzeke, familiako pertsona bakoitzaren egoera papertxoe-tan idazten zuen eta sabaitik eskegitzen zituen papertxook; gero, hariz lotzen zituen bata bestearekin, amaraun moduko bat eratuz. Pierre Bordieuk Aljeriako mitoen esanahia deskubritu zuen, bat zetozen kategoriak launaka jarrita lau zirkulu biratzaile kontzentrikotan... Eta, ikerketa artisau-gintza dela behin betikoz

frogatu zen, Pabeko laborari taldeek haien berezko keinuak eta nekazaritzako lanetan darabilten mendeetako ezagutza ikertu zituztenean eta kexu garratza agertu zutenean Frantziako Ikerketa Zientifikoko Zentro Nazionalako ikertzaile talde batek haien aurkikuntzak “lapurtu” eta argitaratu zituelako».

Mendebaldeko gizarte-zientziei egiten zitzaizkien kritikaren hirugarren iturria marxismoetatik zetorren. Partaidetzazko metodologietan, «txinoek» esaterako, «masen ildoan» jartzen zuten azpimarra; hau da, «herri-masaren» esperientziatik ikasteari ematen zioten garrantzia. Beste modu batera esanda, ezagutzaren ekuazioa praktika-kontzientzia-praktika, edo materia-kontzientzia-materia zen. «Nondik datoz ideia zuzenak?» idatzian, (1963ko maiatza), Maok honela laburbildu zuen:

«Praktikaren proba egin ondoren, jendeak jauzi bat egingo du ezagutzan; jauzi hori aurrekoa baino are garrantzitsuagoa da. Izan ere, bigarren jauziaren bitartez soilik froga daiteke ezagutzaren lehen jauzia zuzena edo akastuna zen; hots, gogoeta objektiboan zehar sortutako ideiak, teoriak, norabideak, plangintzak eta ebazpenak zuzenak ala akastunak ziren. Ez dago beste metodorik egia ziurtatzeko. Langileriak munduari buruz duen ezagutzaren xede bakarra hura eraldatzea da. Askotan, ezagutza zuzena soilik lor daiteke materialtik kontzientziara eta kontzientziatik materiara, hau da, praktikatik ezagutzara eta ezagutzatik praktikara daraman prozesua behin eta berriz errepikatuz. Honetan datza Marxen ezagutzaren teoria; ezagutzaren teoria materialista dialektikoa da. Gure burkideetako askok oraindik ez dute ulertzen ezagutzaren teoria hori. Beren ideiak, iritziak, norabideak, metodoak, plangintzak, ondorioak, hitzaldi joriak eta artikulu luzeak nondik datozen galdetzen zaienean, arrotz egiten zaie galdera, eta ez dute erantzuten jakiten. Ulergaitzak egiten zaizkie ohiko bizimoduan maiz gertatzen diren jauziak, non materia kontzientzia bilaka baitaiteke eta kontzientzia materia».

Aurrerago, Adolfo Sánchez Vázquezek (1987) askotariko marxismoen balantze eguneratu eta kritikoago bat egin zuen, Antonio Gramscik «praxiaren filosofiaz» duen jarrera zabalduz:

«Bistakoa denez, egungo marxismoan joera bat baino gehiago daude. Honako hauetan bat egiten dute guztiek: Marxi egiten dizkioten aipamenetan, eta Marxen pentsamenduaren alderdiren bat azpimarratzean —modu egokian, deformatuta edo hura absolututzat hartuz—. Lehenik eta behin, bada objektibista den joera bat, neurri batean ekonomizista ere badena; Bigarren Internazionaleraino atzera egiten du, Hirugarrenean jarraitzen du, eta bukatzeko egungo marxismo sobietarrean egonkortzen da. Joera horrek garapenerako faktore objektiboak, Marxek egiazki adierazitakoak, absolututzat jotzen ditu, baina haien mesedetan sakrifikatzen du jarduera subjektiboa, praktikoa. Arlo filosofikoan Engelsen, Anti-Dühringen eta Leninen materialismoak eta enpirokritizismoak elikatzen dute, eta, batez

ere, dialektikaren lege unibertsalen (naturaren dialektikarena barne) kosifikazio estalinistak. Historia horien aplikaziorako eremu espezifikoak litzateke. Bigarren norabide bat agertuko da hogeita hamarrek hamarkadan, Marxen 1844ko Es-kuizkribuak argitaratzean, 50eko eta 60ko hamarkadetan loratuko diren interpretazio “humanistetaraino” iraungo du, eta gaur egunera arte iritsiko da; absolututzat joko du Marxen pentsamenduaren osagai ideologikoa (humanista), haren izaera zientifikoaren eta, neurri batean, klase-eduki iraultzailearen bizkar bada ere. Hirugarren joera batek alde batera utziko ditu aurreko bi joeretako arazo ontologiko eta antropologikoak, eta Marxen irakurketa epistemologikoan jarriko du arreta. Marxismoa bere “zientifikotasunak” definituko du batez ere, eta, ondorioz, “praktika teoriko” beregaina jarriko da erdigunean. Teoria eta benetako praktika bereizi egingo dira, eta alderdi ideologikoa alderdi zientifikotik alden-duko da horrela. Horixe da Althusserrek eta haren jarraitzaileek bultzatuko duten jarrera, eta 60ko hamarkadan Europako mendebaldeko herrietara eta Latinoamerikara zabalduko da haren eragina. Hiru joera horiek Marxen pentsamenduaren alderdi batzuekin duten lotura ukazina bada ere, lehen planoan jartzean, hurrenez hurren, arazo ontologikoak, ideologikoak (zentzu humanistan betiere), edo epistemologikoak, ahaztu edo bigarren planora alboratzen dute gure ustez funtsezkoa den zerbait: praxia jarduera teoriko eta praktikoa subjektibo eta objektibo moduan. Horixe ekartzen du lehen planora hain zuzen ere “praxiaren filosofia” deitu dugun joera horrek, eta gure ustez horixe da Marxen pentsamenduaren oinarria sakonen aztertzen duena».

Goranzko sistemak eta konplexutasuna

Gure gizarte-zientzietan eragin handia duten bi metodologok dei esplizitua egingo dute berriz ere sozio-analisia sakoneko norabide modura praktikatzeko, uste baitute gainerako metodologiak sozio-analisiaren «tresna» edo «endekapen» hutsak direla. Baina, egia esan, haien ikerketa bikainek inoiz ez zuten lortu partaidetzazko metodologia hauen nondik norakoa argitzea eta gomendio horiei erantzungo zieten bitartekoak eta artikulazioak sortzea. Hona Pierre Bordieu-ren (1980-1991) planteamenduak:

«Laburbilduz, lan zientifikoan eta horrek sortu nahi dituen praktiken teorian teoria bat sartu beharra dago — ez baitugu esperientzia teorikoaren bidez soilik aurkituko — indigena izateari buruz; hau da, teoria bat azalduko duena zer den “ezjakintasun jakituna” harremana, berehalako ulermena ahalbidetzen duen arren, bere hartan itsua dena, baina, hala ere, munduarekiko harreman praktikoa definitzen duena... Jokoan dagoena egiazki honako hau da: objektibatzen duenak zenbateraino onartzen duen bere objektibatze jardunean kateatuta gelditzea... Baina seguruenik, praktikaren logikan, logika aurrelogikoaren

pentamolde bereizgarrienak hautematea eragozten zidaten azken oztopoak ez nituzkeen saihestuko, baldin eta, zundaketak egiten dituen institutu batek 1975ean galdekatu zituen frantziar batzuek beren politikariei buruz ematen zizutzen iritzietan logika “basati” hori, berriz ere ustekabea, familiaren ingurumarian bertan aurkitu izan ez banu... Mota horretako eragiketa askotan, ohiko pentsaera gidatuak, aurrelogiko deituriko pentsamendu guztiek bezala, hau da, pentsamendu praktikoak bezala, aurkaritzaz “aurkakotasun sentimendu” hutsagatik jokatzeko duela deskubritzea, eta funtsezko bereizte modu horrek ekarriko duela, adibidez, zenbat erlazio praktiko ezartzen diren hainbat aurkakotasun ematera termino berberari... Azken adibide hori, besteak bezalaxe, ez dut jarri soziologiaren zailtasun partikularrak (errealak direnak) edo soziologoaren meritu partikularrak ikusarazteko edo balioesteko, baizik eta sentiarazteko, edo praktikak dakarren ulermenarekin hobeki ulertarazteko, egiazko lan soziologiko oro, sozio-analisi bat dela ezinbestean, eta haren emaitza, aldi berean, beste sozio-analisi baterako tresna izan dadin ahalegintzeko».

Jesús Ibáñezek (1988) batez ere alderdi kualitatiboa garatu zuen bere lanetan, baina alderdi kuantitatiboa, kualitatiboa eta dialektikoa (sozio-analisia) artikulatzen saiatu zen konplexutasunaren kritikari erantzuteko xedez:

«Von Foersterrek (Von Foerster, 1960) ordena sortzeko hiru modu bereizten ditu: ordenatik abiatzen dena —mekanikotasuna—, sistema dinamikoeetan edo sinpletasun antolatukoetan; desordenetik abiatzen dena —erregularitasuna—, sistema estokastikoetan edo antolatu gabeko konplexutasunekoetan; eta, zaratatik abiatzen dena —sormena—, sistema linguistikoetan eta konplexutasun antolatukoetan... Gizarte-efektuaren genotipoak (zer egiten den) erakundeak dira: legearen barruan aukeratzeko gailuak dira. Subjektu bakoitzaren euskarria espazioa/denbora soziala ildaskatzen duen sare bat da: espazio ildaskatu bat kate bertikal finko baten (organigramen edo kidetzen kateak) eta bilbe horizontal aldakor baten (soziogramen edo kidetzen bilbeen) arteko gurutzaketa da. Baina sare horiek etengabe gainezkatzen eta eraldatzen dira; mugimendu instituzionalek eratutako egoerak zartatzen dituzte. Erakunde bat ezin da testuingurutik at aztertu: egoeraren azterketa instituzionalak (sozio-analisiak) baka-rik eman dezake prozesu instituzionalei buruzko informazioa (Lourau, 1970)... Ongi eginda badaude, inkesta *etic* da: bikaina, kuantitatiboa, klasikoa; eztabaida taldea, aldiz, *emic* da: generatiboa (formazioaren berri ematen du), kualitatiboa (alabaina, ezaugarrien eduki positiboa ezaugarrien arteko ezberdintasun eta antzekotasunen negatibotasunean galtzen da), erlatibista (ikertzaileak bere kontratransferentzia aztertzen du, baina taldetik kanpo dago); sozio-analisia *etic-emic* da, generatiboa (produktzioaren berri ematen du), kualitatiboa (bizitako tasunen eduki positiboa berreskuratzen du), erreflexiboa da (ikertzailea taldean integratzen da). Ikerketa sozialeko teknika guztiak sozio-analisiaren endekapentzat har ditzakegu. Sozio-analisiak testuinguru existentzial osoa (gizarte-efektua) eta testuinguru konbentzional guztia hartzen ditu».

Zientzietan, oro har, eta gizarte-zientzietan bereziki, eztabaida hori E. Fox Kellerrek eta Barnet Pearcek Von Glasersfeldkin nolabaiteko gizarte-konstruktibismo eta konstrukzionismo batzuen harira izandako eztabaida batean laburbil dezakegu.

«Irekita uzten dut nire galdera, eta Von Glasersfeld irakaslea gonbidatu nahi nuke norabide honetan esploratzera: zein dira kognizioaren, ezagutzen helburuak? Norenak dira asmoak, nola bihurtzen dira asmo horiek egokitzen, eta norentzat egokitzen dira?»...

Iruditzen zait ezagutza zientifikoaren dimentsio argi bat izaten hasi dena kanpoan uzten ari garela; ezagutzaz ari naiz, munduan esku-hartzeko ezagutzaz, alegia. Zientzia modernoaren helburuak eta asmoak inoiz ez dira irudikazaila hutsak izan; aitzitik, esku-hartzeko helburu sorta batekin artikulatu ziren.

Pearce: “Argudiatu nahi dut modu zabalagoan eta barne hartzaileagoan dugula besteen beharra, baina hori egin aurretik galdetu nahi dizut zure interesa kognitibo eta indibidual moduan hartzen badut karakterizazio hori baliagarria iruditzen zaizun ala ez”.

Von Glasersfeld: “Bai, jakintzaz ari da, ez beste ezertaz”.

Pearce: “Orduan, horrek konstruktibismo sozialaren eta konstrukzionismo sozialaren artean bereizten laguntzen dit”...

Hori horrela, iradoki nahi nuke zibernetikaren erabileran urrats bat gehiago eman litekeela. Ezagutza autorregulazio gisa ulertzeaz gainera (nork bere burua bere funtzio kognitiboak —eragiketazkoak— behatuz begiratzea), zer gertatuko litzateke egoera horri testuinguru sozialak lehenagokotzat jotzen dituen ikuspegi batetik begiratuko bagenio, edo gerta daitezkeen eragiketa motei eta lor daitezkeen helburuei aurrez ezartzen dituztela iritziko bagenie?»...

Pearce: “Denok bat gatoz, lehenik, hizkuntzak mundua eraiki eta ez ‘irudikatu’ egiten duela esatean. Bat gatoz mundua irudikapenaren aurretik den bezala irudikatzea ezinezkoa dela esaten dugunean, hizkuntzak egiaz alderdi eraizaila baitauka...”

Paradigma berriko guztiok batzen gaituen komunikazioaren bigarren ezaugarria da hizkuntzaren funtzio nagusia gizakien mundua eraikitzea dela, mezuak leku batetik bestera transmititzeaz harago. Komunikazioa, beraz, prozesu eraikitzaile bilakatzen da, ez mezuak edo ideiak transmititzeko bide huts, ez eta kanpoko munduaren irudi ere.

Adostasuneko hirugarren puntua da komunikazioa lehen mailako gizarte-prozesua dela. Prigoginek adierazi zuen bezala, paradigma berriko zientzialariek naturarekin harremanean jartzeko bidetzat hartzen dute beren lana. Gizarte-zientziak beren burua ikertzailetzat izendatzen duten gizabanako talde baten eta subjektu deituriko beste batzuen arteko komunikaziotzat hartzen dira. Horrelako topaketak komunikazio-gertaeratzat hartzen dira, eta ez informazioaren transmisio soiltzat...

Nire laugarren puntuak, ordea, albo batera uzten du kontsentsuaren erosotasun eremua: ... paradigma berriaren barruan bi jarrera daude komunikazioa-

ren izaerari dagokionez: bata hizkuntzan zentratzen da, eta bestea jardueretan, jarduera horiek eraikuntzarako bitarteko gisa hartuz... (Azken) jarrera horrek dio gizarte-jardueretan murgilduta bizi garela, hizkuntza gure munduetan dagoela, baina hizkuntza ez dela mundu horien parametroa. Zehazkiago, haren “zati” bat da, osotasunean eragiten duen heinean, baina ez du osotasun horrekin bat egiten; ez da osotasuna. Ikuspegi horri konstrukzionismo soziala deitzen diot. ... Estatu Batuetako pragmatistetan oinarritzen da batez ere; William James, John Dewey eta George Herbert Meadengan. Wittgensteinen azken garaiko lanak ere aintzat hartzen ditu, eta batez ere hizkuntz jolasetan jartzen du azpimarra, arauak jardueratik beretik ez direla bereizten nabarmenduz. Konstrukzionismo sozialaren hirugarren euskarria Sistemen Teoria da. Sistemen teoriarik sartzen dira Gregory Bateson eta sistemikoki pentsatzeko duen gaitasun zoragarria, eta Ludwig von Bertalanffy eta sistemez pentsatzeko duen gaitasun zoragarria —bata eta bestea ez baitira gauza bera—».

Eta Tomas Ibañezek, orainsuago (2003), gogorarazten digu konstrukzionismo sozialetan ere autokritika batzuk egin beharra dagoela «diskurtsiboa ez denaren» gabeziari dagokionez (gorputza, erakundeak, teknologiak, eta abar) eta zeregin sozial horren guztiaren ondorio diren praktika eta politiken inguruan.

«Egia esan, ez da argudiorik falta gizarte-konstrukzionismoaren gaur egungo mugak modu kritikoa aztertzeke, eta horri dagokionez, bi argudio-lerro nabarmendu nahi nituzke.

Lehenbizikoak gizarte-konstrukzionismoak hizkuntzaren garrantzi ukaezinean jarri zuen enfasiarekin du zerikusia, baita desnaturalizatzea, desesentzializatzea eta gizabanakoaren ustezko “barnekotasuna” erauzteko komeni ziren entitate eta fenomeno psikologiko batzuen izaera diskurtsiboan jarritakoarekin ere. Formulazio soziokonstrukzionista batzuek nolabait ere hizkuntza-idealismoa egozteko bidea eman badezakete ere, ez dut uste hori analisi konstrukzionista gehienetara orokortu daitekeenik, ezta arazo garrantzitsua denik ere. Arazoaren muina da, diskurtsiboak ez diren jardunbideen eremuari (oso eremu zabala) ez zaiola diskurtsibitatearen esparruari halabeharrez eman zaion bezainbesteko garrantzia eman. Ondorioak funtsean linguistikoak ez diren bitartekoen bidez eragiten dituzten objektuak albo batera utzi dira, horien artean gorputza, teknologia jakin batzuk, eta baita gizarte-egitura eta gizarte-erakundeak ere.

Bigarren argudio-lerroak zerikusia du soziokonstrukzionismoak bere aurresteetatik ondorio politiko esplizituak ateratzeko duen ezintasunarekin, edo agian oztopoekin, eta maila teorikoan eta praktikoan gure gizarte-ereduak gizaki gehienei ezartzen dizkien bizi-baldintza jasanezinekin eta bestelako mundu bat eraikitzeko premia saihestezinekin bat letorkeen esku-hartzea garatzearekin».

Ikuspuntu feminista berriak

«Balorerik gabeko eta aztergaiarekiko neutrala eta axolagabea den ikerketaren postulaturik partzialtasun kontzientzarekin ordeztu behar da. Hori aztergaiarekin partzialki identifikatuz erdiesten da.

1. Ordeztu egin behar da ikertzailearen eta aztergaiaren arteko goitik beherako lotura, goitik beherako ikuspegia behetik gorakoarekin, ikerketa zientifikoa eta etiko-politiko aplikatzeko.
2. Ordeztu egin behar da begira dagoen ezagutza kontenplaziozko eta ez parte-hartzailea, gizon-emakumeen bizi-baldintzen aldeko ekintza, mugimendu eta borroketan modu aktiboan parte-hartzearekin.
3. Ekintza eta gizarte-borroketan parte-hartzeak eta ikerketa-prozesu horietan txertatzeak esan nahi du, halaber, *statu quo*a bera aldatzea ikerketa zientifikoaren abiapuntu bilakatuko dela. Ikuspegi honen leloa honako hau izan liteke: zerbait nahi baduzu, zerbait hori aldatu egin beharko duzu.
4. Ikerketa-prozesuak kontzientzia hartzeko prozesu bilakatu behar du, bai aztergaiei dagokienez, eta baita aztertutako lagunei dagokienez ere, hau da, ikerketak zapalketaren baldintzak aztertutik abiatu behar du, aztertutako lagunen esku uzteko bere bizi-kalitatea hobetzeko behar beste tresna.
5. Azken batean, norbanakoaren historia sozialaz lagunduta joan behar du, bere bazterketa- eta zapalketa-egoera zorrotz aztertzeko» (Mies eta Shiva, 1993: 59-83).

Gizarte-mugimenduen artean, Evelyn Fox Kellerrek, bulkada politiko feministek bere planteamenduetan izan duten eragina azpimarratzen du. Horregatik (adibide gisa) mugimendu hauek zientziaren bortizkeriari egiten dioten kritika eta «botere sortzaileari» egiten dizkioten ekarpenak hartu ditugu:

«Ni neu zorretan nago teoria feministarekin... Teoria feminista bulkada politiko batetik sortutako ekimen intelektuala da. Bulkada politikoaren helburua zen genero-markak eta hertsadurak diskurtso barruko sistema gisa zalantzan jartzea. Eta bulkada politiko horrek bide eman zion generoak nola lan egiten duen ulertzea helburu duen programa intelektualari...

Beraz, teoria feministaren helburua da, gizarte-esparruan, eta esparru kognitibo eta sinbolikoan generoak egiten duen lana aztertu eta deseraikitzea. Teoria feminista lupa bat zen, eta munduari begiratzen zion genero-markak non zeuden edo non lan egiten zuten identifikatu eta ikusteko helburuarekin, ondoren iraultzeko. Lan horretatik hainbat aldiz honako lelo honekin deskribatu izan den metodoa eratorri zen: “Politikoa dena pertsonala da eta pertsonala dena politikoa da”. “Politikoa den horren elementu pertsonalak” eta “pertsonala den horren elementu politikoak” sistematikoki identifikatzen eta agerian uzten saiatu zen,

objektiboa den horren dimentsio ezkutu eta isila; afektiboa den horren dimentsio arrazionala eta arrazionala den horren dimentsio afektiboak».

Maria Miresek (1993) zientziaren bortizkeria salatu du, teorikoa eta praktikoa den horri buruz egiten duen definizio eta banaketa, zientzia berri batean «subjektu-subjektuaren arteko elkarrekikotasuna» aldarrikatzeko:

«Bioetikan espezialista direnentzat teknologia genetikoak eta ugalketa-teknologiak planteatzen duten arazoa, definizio-kontua baino ez da. Zientzialariaren bortizkeria definitzeko boterean datza batez ere. Bortizkeria zuzena egiturazko bortizkeria bilakatu da, itxura batean garbia eta aratza...

“Banatu eta irabaziko duzu” hautazko logika hori bera aplikatzen zaio oinarrizko ikerketaren eta aplikatutako ikerketaren edo ikerketako emaitzak aplikatzearen arteko bereizketari. Funtsezko edo oinarrizko ikerketa ez da, ikuspegi moraletik, aplikatua baino hobea edo aratzagoa, oinarrizko ikerketan onartuta baldin badago tabu guztiak urratzea, gizartean oro har indarrean dauden irizpide moralak alde batera uztea. Beste horrenbeste gertatuko da ikerketa horren emaitzak aplikatzerakoan. Ez dago beste irtenbiderik; patriarka berrien paradigmaren arabera: egin daitekeena, egin egingo da...

Aipatutako etika-batzordeetan inoiz ukitzen ez den tabua da zientziaren eta indarraren, zientziaren eta militarismoaren, zientziaren eta patriarkatuaren arteko sakoneko uztarketa ez-morala.

Zientzialariak bere buruari egingo ez liokeen hori, ez lioke beste inolako iza-kiri egin behar...

Zientzia berri horretan erdigunean egon beharko luke subjektuaren eta subjektuaren arteko elkarrekikotasun printzipioak. Horrek esan nahi du aztergaia izaki biziduntzat hartuko dela berriro, bere duintasun/arima eta subjektibotasun propioa dituen. Zientzia berriak ez luke inoiz ahaztu beharko naturako atal bat garela, gorputz bat daukagula, Ama Lurraren baitakoak garela, emakumearengandik jaiotzen garela, eta hil egiten garela...

Itxaropenerako bide ematen du feministen artean sortu eta gaur egun garatzen jarraitzen duten zientziaren kritika erradikalak, hainbat gizon bultzatu izana haiei buruz gogoeta egitera. Bai eta Gizon Zuriaren irudi patriarkalari buruz ere, Mendebaldeko zibilizazioko kultur heroia, eta batez ere, berezko zientzialaria, konplizitate maskulinoarekin batera esparru militarrean, politikan eta ekonomian... hainbat gerra eta hondamendi pairarazi diguna».

Vandana Shiva (1995) subjektua-subjektua harremanaren ikuspuntuari «kognizio altuagoko» maila eman dio, guztiak baikaude dialektika berean atzitura:

«Ezin dira egiatan maskulinoa eta femeninoa bereiztu, pertsona naturarengandik. Purusha Prakritirengandik. Desberdinak diren arren, banaezin eusten diote batasun dialektikoan, izate baten bi aldeek bezala».

Horrela, printzipio femeninoa berreskuratzea kategoria ez-patriarkalarekin lotzen da, generorik gabea, ez-bortizkeria sortzailearekin, edo «botere sortzailea bakean», Tagorek zuhaitzari egindako otoitzean adierazi bezala...

Printzipio femeninoa berreskuratzea erantzutea da, ez bakarrik emakumeek, baizik eta naturak eta mendebaldekoak ez diren kulturek ere pairatzen dituzten menpekotasun eta gabezia anitzei emandako erantzuna hain zuzen. Susperaldi ekonomikoa eta naturaren askapena irudikatzen dituzte, emakumearen askapena eta gizonarena. Izan ere, natura eta emakumea menpean hartuta, uko egin dio bere gizatasun propioari. Ashis Nandyk dio esklaboaren ikuspegia hautatu behar dugula, ez bakarrik zapalduta dagoelako, kognizio-maila altuagoa irudikatzen duelako baizik, ezinbestean jotzen baitu nagusia gizakitza. Aldiz, nagusiaren kognizioan esklaboa “gauza” bat den heinean, bazterrean utzi beharra dauka. Beraz, askapenak kolonizatuan hasi behar du eta kolonizatzailean bukatu. Gandhik bere bizimoduarekin garbi adierazi zuen bezala, askatasuna banaezina da, ez bere ohiko adieran bakarrik, hau da, munduko zapalduak bat diren horretan, baizik eta ezohikoa den beste adiera batean ere bai, alegia, zapaltzailea bera ere, zapalketaren kulturaren atzitura dagoen horretan».

Ikerketa-ekintza eta jakintzen ekologiari buruzko autokritikak

Boaventura S. Santosekin izandako eztabaidatik Brasilgo Hezkuntza Sail berriaren aurrean erabili zituen argudioak azpimarratuko nituzke. Garai hartan Tarso Genro zegoen ministerioan (2004). Arreta berezia jarri zuen «ikerketa-ekintzan» eta «ikerketa komunitarioan», baina batez ere «jakintzen ekologian» eta «zientzia-taliretan» «bidegabekeria kognitiboari» aurre egiteko.

«Ikerketa-ekintza eta jakintzen ekologia unibertsitatea legitimatzen duten esparruak dira, hedapenetik harago baitoaz, ikerketaren eta prestakuntzaren eremuan unibertsitatearen maila berean ari baitira. Ikerketa-ekintza ikerketa-proiektuak definitzean eta modu parte-hartzailean gauzatzean datza. Horretarako, komunitateak eta gizarte-erakundeak sartzen dituzte ikerketako emaitzen bidez konponketa erraztu dezaketen arazoetan. Ikerketa-ekintzan gizartearen interesak ikertzaileen interesekin artikulatuta daude, eta jakintza zientifikoaren ekoizpena estu lotuta joaten da ezagutza teknikoa eta espezializatua merkatari-tza-bidetik beren zerbitzura jartzeko ahalmenik ez duten gizarte-taldeen beharrak asetzearekin. Ikerketa-ekintza ez dagokio gizarte-zientzien alorrari bakarrik, eta, oro har, ez da lehentasuna izan unibertsitatearentzat. Nolanahi ere, tradizio handia du Latinoamerikan, 1960-1970 urteetan indartsuagoa izan bazen ere. Hedapen-jarduerekin gertatzen den bezala, ikerketa-ekintzari eman

behar zaion zentraltasun berri hori goi-mailako hezkuntzaren transnazioalizazioaren ondorioa da, unibertsitatea kapitalismo globalaren zerbitzura dagoen ikerketa- eta ekintza-zentro bihurtzeko proiektua baitakar. Hemen ere funtzionaltasunaren aurkako borroka unibertsitatearen erabilgarritasun soziala sozialki markatuko duen aukera eraikiz baino ez da egingarri, eta erabilgarritasun hori modu kontra-hegemonikoan formulatuta.

Jakintzen ekologia ikerketa-ekintzan sakontzeko modu bat da. Unibertsitatearen baitan iraultza epistemologikoa eskatzen duen zerbait da; beraz, ezin da legez dekretatu. Erreformak horrelakoak erraztu eta sustatuko dituzten gune instituzionalak sortu baino ez du egin behar. Jakintzen ekologia da, nolabait esateko, aurkariarengana hedatzeko modu bat, unibertsitate kanpotik unibertsitate barrura. Unibertsitateak sortzen dituen jakintza zientifiko eta humanistikoaren arteko elkarriketak sustatzean datza, eta gizartean harat-honat dabil-tzan ezagutza laikoak, herritarrak, tradizionalak, hiritarrak, landa aldekoak, abarkadunak, kultura ez-mendebaldarretakoak (indigenak, afrikar jatorrikoak, eta abar). Euforia teknologikoarekin batera, gaur egun ez dago konfiantza epistemologikorik zientziarako, aurrerapen zientifiko batzuen ondorio makurrak gero eta ikusgarriagoak direlako eta zientzia modernoaren promesa sozial asko oraindik bete ez direlako. Sozialki antzematen hasi gara unibertsitatea ezagutza zientifikoan espezializatu dela eta ezagutza mota hori hartu duela ezagutza baliagarri bakartzat. Hori horrela eginda, ezagutza ez-zientifiko handia deskalifikatzen eta suntsitzen lagundu zuen, eta baita, ezagutza modu horiek baino ez zituzten giza taldeak baztertzen ere. Esan nahi da, gizarte-bidegabekeriak bidegabekeria kognitiboa daukala bere baitan. Hau bereziki argi ikus daiteke maila globalean. Periferiako herrialdeak aberatsak dira ezagutza ez-zientifikoetan eta pobreak ezagutza zientifikoetan. Azken honetarako bidea zientzia ekonomikoaren eskutik egiten ari dira, baina honek haien harreman ereduak, ekonomiak, komunitate indigenak, nekazari(tza)-komunitateak eta ingurumena suntsitzen ditu².

Oso eite desberdinetan baina antzeko zerbait gertatzen da garapen zientifikoaren ingurumen- eta gizarte-inpaktu negatiboak deliberazio publikoan sartzen hasi diren herrialde zentraletan, ezagutza zientifikoari presioa egiten ari baitzaio beste ezagutza batzuekin aurrez aurre jar dadin: besteak beste, ezagutza laikoak, filosofikoak, zentzuzkoak eta erlijiosoak. Aurrez aurre jartze horrek herritar aktibo kritikoak sustatzeko prozesuak dakartza.

² Justizia sozialaren eta bidegabekeria kognitiboaren arteko elkarrekiko lotura izango da unibertsitatearen barnean eragozpen handiena izango duen ideietako bat, historikoki ezagutza lokalen, laikoen, indigenen, herrikoien aurka zientzia modernoaren izenean egindako epistemizidioaren eragile nagusia izan baitzen. Litekeena da eragozpena handiagoa izatea Brasilen, unibertsitateko elitea erraz bereganatu baitzuen herrialde berri baten ideia autopozgarri/pizgarriak. Historiarik gabeko herrialde horretan XIX. eta XX. mendeko migratzaileen seme-alabez bakarrik osatutako herrialdea izango balitz bezala, antzinako herri indigenarik eta esklaboen ondorengorik gabe.

Jakintzen ekologia jakintzen arteko beste bizikidetzatza aktiboa sustatzen duten praktiken multzoa da, elkarriketa horretan guztiak aberastu daitezkeelakoan, jakintza zientifikoa barne. Balioespen-ekintzen aukera zabala eskatzen du, bai ezagutza zientifikoa dagokionez, bai baliagarritzat jotzen diren beste ezagutza praktiko batzuei dagokienez ere, ikertzaileek, ikasleek eta herritarren taldeek partekatzen dutena. Unibertsitatea ezagutza-arte gune publikoa bihurtzen duten komunitate epistemikoak sortzeko oinarri dira. Gune horietan herritarrek eta giza-taldeek parte har dezakete, baina ez ikasle gisa soilik.

Ikerketa-ekintzak eta jakintzen ekologia birkokatze solidarioaren bila dabilza unibertsitatea-gizartearekin harremanari dagokionez. Hori da “zientzia tailerren” kasua (*science shops*). Ikerketa esperientziak eta 1970eko urteetako zientzialari eta ikasleen bizipenak oinarritzat hartuta, zientzia-tailerak Europako hainbat herrialdetan dinamismo esanguratsua izan zuten mugimenduetan sortu eta eratu ziren. Hala-moduzko gainbehera aldi baten ondoren, mugimendua berpizten ari da gaur egun Europan, Europako Batzordearen laguntzarekin, eta baita munduko beste leku batzuetan ere. Estatu Batuetan antzeko mugimendua dago, nahiz eta beste ezaugarri batzuk dituen, “ikerketa komunitarioa” (*community-based research*). Nazioartean “ezagutza bizia” (*living knowledge*) sarean antolatutako mugimendu honek jakintzen gune publikoa sortu nahi du, unibertsitateak bidegabekeria kognitiboari aurre egin ahal izateko bere funtzioak joera solidarioan birkokatuta.

Ikerketa-ekintza eta jakintzen ekologia elkartzen dituen hibridoa dira zientzia tailerak. Zientzia-tailerra unibertsitate bati lotutako unitatea izan daiteke eta unibertsitatearen barnean departamendu bati edo unitate organiko zehatz bati. Herritarrek, herritar taldeek, elkarteek, mugimendu hiritarrek edo hirugarren sektoreko erakundeek egindako eskaerei erantzun diezaiakete, bai eta batzuetan, interes publiko nabarmena duten proiektuak garatuko dituzten sektore pribatuko enpresen eskaerei ere (gizarte- eta ingurumen-arazoak identifikatzea eta konpontzeko proposamena egitea, enpleguaren, osasun publikoaren, energiaren eta abarren arloan, interes sozial komunitarioko erakundeak eta elkar-tekatek eratzea, deliberazio publikoa sustatzea, eta abar).

Eskaera elkarrekin aztertzen da, interesdunen eta zientzia-tailerraren arduradunak parte-hartzen duten prozedura parte-hartzaileen bidez.

Arduradunek unibertsitateko departamenduak edo espezialistak jartzen dituzte harremanetan eta, noizbehinka, zientzia-tailerretako unibertsitate-arte gune sarean proiektu jakin batean parte-hartzeko, balizko interesdunak. Interesdun guztiak biltzen dituen taldea osatzen da, orduan eta proiektua eta esku-hartzeko metodologia parte-hartzailea diseinatzen ditu.³ Herrialde batzuetako unibertsiti-

³ Parte-hartzea egiazkoa da soilik benetako eragina baldin badu emaitzetan, bitartekoetan eta harengana iristeko metodoetan. Parte-hartze izenarekin edo antzeko beste batzuen atzean, kontsulta, esate baterako, izaera neo-koloniala ezkatutu ezin duten Iparra-Hegoa «laguntza» proiektuak gauzatzen dira.

tateetan (Danimarkan, esaterako) zientzia-tailerak hainbat ikasturtetako ekintza kurrikularretan txertatzen dira. Prestakuntza-mintegiak eskaintzen zaizkie zientzia-tailerretan parte hartu nahi duten ikasleei eta ikasturte amaierako lanak lotuta egon daitezke parte-hartze horretako emaitzekin. Gauza bera gertatzen da gradu-ondoko tesiekin; zientzia tailer baten eskaerari erantzuteko proiektuak izan daitezke.

Zientzia tailerrek zientzia demokratizatzeko eta unibertsitatearen joera solidarioaren inguruko esperientzia interesgarriak dira. Dena den, unibertsitate batzuk —merkatuan diru-sarrerak aurkitzeko presioak eraginda— ordaindutako zerbitzuak emateko unitate bilakatzeko asmotan sartu dira proiektuan. Eredu solidarioek potentzial handia dute joera zibiko eta solidarioko nitxoak sortzeko ikasleen prestakuntzan eta unibertsitateak gizartearekin duen harremanean, eta elkartasunaren eta herritartasun aktiboaren “inkubagailu” gisa funtzionatzen dute⁴.

Zientzia-tailerrek, beste adibide batzuen artean, erakusten dute unibertsitateak, erakunde publikoa den heinean, joera solidarioa har dezakeela ikasleen prestakuntzan eta ikerketa- eta hedatze-ekintzetan. Zientzia-tailerrez gain, beste ekimen batzuek ere ezagutza zientifikoa testuinguruan jartzea dute helburutzat. Antzekoak dira prozesuak, ikerketa-lehentasunak erabiltzaileengandik abiatuta birkontzeptualizatzen dituztelako eta horiek ere ezagutza-sortzaile bihurtzen dituztelako. Ikus adibide gisa HIESa duten gaixoek proba klinikoei egin dieten ekarpena, eta Brasilen eta Hegoafrikan gaixotasuna sendatzeko ikerketa-agan- dan izan den antzeko joera».

Artikulazio sozio-praxikoaren berrikuntzak

Aipatutako ekarpen interesgarri horiez guztiez gain, CIMAS sarean eta Santi-pensante sarean metodologia desberdinekin ari gara aurrerantz, mugimendu, kooperatiba, udalerrri eta abarrekin osatzen eta lantzen ari garen bide praktikoen bidez. Hainbat herrialdeetako esperientziekin ari gara ikasten: Mexiko, Honduras, Kolonbia, Ekuador, Peru, Txile, Uruguai, Brasil, Kanariar uharteak, Andaluzia, Madril, Euskal Herria eta Katalunia. Toki bakoitzean daude sozio-praxia erako lanak egiten ari diren taldeak. Erreferentzia metodologikoei Paulo Freire eta «pedagogia herrikoia» izan dituzte abiapuntutzat; beste batzuetan Fals Bordaren IAPa «ikerketa (ekintza) parte-hartzailea»; beste batzuetan, «baterako ikerketa militantea»; edo DPRetan «landa-guneetako diagnostiko parte-hartzaileak»; edo feminismoen ekarpenak, eta abar. 2011ko matxinada suminduen ondoren orokortu dira, batez ere, metodologia hauek.

⁴ Zientzia-tailerrei buruzko azterketa irakur daiteke in Wachelder, 2003.

XXII. TAULA
Bereizketak eta Artikulazioak, azken hamarkadetan jaso diren ekarpen praktikoa eta teorikoen artean, inplikazio-uhin edo -eremu desberdinak erabiltza, sozio-praxia eraikitzeke

Eremuak	Uhin laburra: taldeak <i>Etika soziopolitiko-transduktiboak</i>	Uhin ertaina: erkidegoak <i>Jauziak multzo «auto-ko-antolatuen»</i>	Uhin luzea: gizartea <i>Estrategiak «hasten ari den praxietatik»</i>
Fasceak	«Analista finkatuetatik» haratago, erakundearen sozio-analisaren EGOERA ETA EZARTZE ANALIZATZAILEAK. (G. Debord, J. Jacobs, D. Haraway F. Guatari, R. Lourau, etab.).	«Subjektu-objektu distantziatik» haratago, ikerketa (ekintza) parte-hartzailearen, militantearen, eta abarren SUBJEKTU-SUBJEKTU ESTRATEGIAK. (K. Lewin, O. Fals Borda, C. R. Brandao, M. Montero, S. Rivera, Colectivo IOE, O. Jara, etab.).	«Ikusi, epaitu eta jardutetik» haratago, praxiko filosofien EKINTZA-HAUSNARKETA-EKINTZA INPLIKAZIOA. (R. Luxemburg, H. Lefebvre, P. González Casanova, M. Barnet Pearce, E. Fox Keller, J. Riechmann, etab.).
Ikastegien gauezka praktikokoak	Deribak, sozio-dramak, denboraleroak, etab.	Gizarte oinarrietatik abiatuta, asanblada eta tailer parte-hartzaileak.	Prozesu eta mobilizazio kokatu eta eraldatzaileak.
Jauziak komplexutasunean eta hasten ari den sistemetan zehar	«Ereduzko lege eta etikatik» haratago, hasten ari diren sistemen paradigmei buruzko IKUSPEGI KOLABORATZAILAK ETA TRANSDUKTIBOAK. (H. Von Foerster, H. Maturana, F. Varela, R. Braiddotti, F. Capra, G. Simondon, J. Ibáñez, etab.).	«Agingte organigrama eta egituretatik» haratago, «konfigurazio-sareetan» «harreman sortzaileen» eta sareen analisaren ESTRATEGIAK EKINTZA-MULTZOEKIN. (N. Elias, E. Bott, P. Freire, L. Lomnitz, M. Granovetter, etab.).	«Dialektika determinista soiltzetik» haratago, Gatazkaren Pragmatikatik eta Teoriatik, ekialdeko dialektikak baliatuta, PARADOXAK ETA TERA-LEMAK EKOIZARAZTEA. (Bajin, J. Galtung, F. Jameson, R. Reguillo, G. Abril, etab.).
	Hasierako auto-hausnarketa, talde anitzek negoziatutakoa.	Aktoreen mapatze estrategikoak (eskemak 4 aldagairekin).	«Gizarte sormeneko» tailerretarako multi-lemak».

Eremuak	Uhin laburra: taldeak <i>Etika soziopolitiko transdaktiboak</i>	Uhin ertaina: erkidegoak <i>Jauziak millzo «auto-eko-antolaketa»</i>	Uhin luzea: gizartea <i>Estrategiak «hasien ari diren praxietatik»</i>
Fasceak	«Ekiporen familia-trianguluetatik» haratago, PROZESU IREKIAK eta TALDE ERAGILEAK, HEKE (talde eragileak) eta Eskizo-analisi eta KEHOTIK abiatuta. (E. Pichón-Rivière, J. Kristeva, F. Guatari, M. Sorin, A. Lans, etab.).	«Garapena sustatzen duten adierazleetatik» haratago, BALIABIDE INTEGRALEKIN IRAUNKOR IZATEA , Nekazaritza-ekologiatik Landa Diagnostiko Parte-hartzailearekin (LDP). (R. Chambers, V. Shiva, A. Acosta, M. Ardón, Y. Herrero, etab.).	«Kausa-efektua determinismo linealetatik» haratago, ASETZAILLEAK ETA EKONOMIA SOLIDARIOA EPEarekin (egocaren plangintza estrategikoa). (H. Henderson, Max Neef, C. Matus, J. L. Coraggio, C. Carrasco, A. Pérez Orozco, etab.).
XX. mendeko mugimenduak	Talde eragileak eta «talde motor zaintzaileak». «Baliobalioakide nagusien» aurrean IT-ZULERAK HERRI-GAINDITZEKIN , Herri Pedagogia Komunikazioaren Prestakuntza-ekintza erabiltuta. (C. Núñez, J. Matos Mar, D. Juliano, J. Martín Barbero, etab.).	Baliabideak ikusgai egitea eta «Bizi-didatza Onerako» trantsizioak. «Estilo patriarkalen» eta «Kainen sektarismoen» aldean, EGUNEROKO BIZITZATIK MUGIMENDU INKLUSIBOAK , Eko-feminismo eta mugimendu indigenekin. (Mov. Sin Tierra, Mov. Chipko, Chiapas, etab.).	Fluxugramak eta «bizitza erdian izateko» lehentasuna. «Esplotazio eta neokolonizazioaren» aldean, ZEHARKAKO IDEIAK-IN-DARRAK langileen mugimenduekin eta deskolonizatzeke fronteekin. (F. Fanon, A. Davis, A. Escobar, S. Foderici, B. S. Santos, etab.).
	Sormenerako eremuak prestakuntza-ekintzaren bidez.	Auto-eko-antolaketa tailer eta asanblada zainduekin.	Estrategia parte-hartzaile integral eta inklusiboak.

<p>Eremuak</p> <p>Faseak</p>	<p>Uhin laburra: taldeak <i>Eitika soziopolitiko «transdukzioak»</i></p> <p>Hedabideen «egia-oste» eta haien zirkulazio biralaren aurrean, «BIZIKIDETZA ONAREN» ETA IRAUNKORTASUNAREN FROGAK. (Trantsizioan dauden komunitateak, Kooperatiba integralak, Ondo Bizitzera Roy, R. Zibechi, etab.).</p> <p>Elkar-lanez gozatzeko talde adimendunak.</p>	<p>Uhin ertaina: erkidegoak <i>Jauziak multzo «auto-eko-anilatuak»</i></p> <p>«Gutxieneko demokrazien» eta «behe-intentisitatearen» aldean, TALDE MOTORREKIN OINARRIZKO EKIMENAK DITUZTEN DEMOKRAZIAK. (I. Thomas, Kerala, H. Wainwright, M. Harnecker, Arrunten aldeko protesta-proposamen mugimenduak, Ch. Laval, P. Dardot, etab.).</p> <p>Eztabaida-talerrak, zereginen taldeak eta zirkuitu demokratikoak.</p>	<p>Uhin luzea: gizartea <i>Estrategiak «hasien ari diren praxietatik»</i></p> <p>«Finantzazio eta espekulazio globaleko diktaduren» aldean, MOBILIZAZIO INKLUSIBOAK. (Munduko Foro Sozialetik, udalerritara, Latinoamerikako mobilizazioak eta matxinada suminduak, R. Gutiérrez A, etab.).</p> <p>Monitorizatzea gainezka egiten duten erresistentzia anitzekin.</p>
------------------------------	--	---	---

Izurria: berriz egina, T. R. Villasante, 2006.

Ikuspegi hauetatik abiatutako artikulazioa aurkezten dugu, haien arteko aldeak eta elementurik sortzaileenak kolektibo bakoitzak aukeratu eta bere nahasketa propioa egin dezan, eta ez dadin ekarpen bakarrean atzitura geratu. Esan gabe doa hau aukeretako bat dela eta besteekiko eztabaidan erreferentzia izatea baino ez duela helburutzat. Baina «jauzi sortzaileak» egiteko aukera ere badagoela erakutsi nahi du, mugimendu praktiko batzuetatik eta ekarpen teoriko batzuei buruzko gogoetatik abiatuta.

Gu elikatu gaituzten eta aplikatuz joan garen metodologiak aplikatu ditugun hurrenkeran agertzen dira laukian. Zutabeetan nagusiki zer esparrutan aplikatzen diren azalduko da. «Mikroagoa» den pertsonal horretatik eta taldekoa den horretatik, komunitarioa den horretara, gizartean «makroagoa» den horretaraino. Emakumezko autoreak bistaritzen ere saiatu gara, eta ez bakarrik gizonezko aitortuenak. Halaber, saiatu gara nahasten natur zientzietako ekarpen batzuk gizarte-zientziekin, ekarpen sozialistak libertarioekin, oinarrizkoenak adituenekin, eta abar. Erreferentziazko 15 posizioek zehaztasun-maila ezberdina dute, guri horrela iritsi baitzaizkigu eta horrela erabili baititugu. Erakusten dena bata bestetik bereizteko eta beren artean lotzeko balio dezakeen koadroa da. Horrela bakoitzak bere erreferentzia-eskema propioa osa dezake: beste zientzia tradizio batzuk, militanteak, artistikoak, tokikoagoak diren autoreak, eta abar.

Lehenengo bereizketan lehenetsuna eman behar zaie «Egoera eta Ezartze Analizatzailei» analista akademiko finkatuaren aldean. «Analizatzailea» egintza edo gertakari bat izan ohi da, eta edozein «analista» bere testu akademikoekin baino konplexutasun eta errealitate handiagoa ematen du. Analisi sakonagoa dakarten «egoeretatik» abiatzea edo horiek sortzea da lehenetsuna. Horiek erakutsiko dute edozein taldetan edo egoeratan zer dagoen ezarrira eta zer den instituzionala. Ezartze-prozesuak gradu desberdinetan izan daitezke eta elkarriketan ez datoz bat ezarritakoarekin. Dena den, definizio akademikoa alde batera utzita, prozesu horietan kokatuta eman ditzakegu aurrerapausoak errealitatea eraldatu eta ulertzeko. «Gertakari analizatzaileak» bereiztea eta haiei analisten testuei baino garrantzi handiagoa ematea ez du esan nahi irakurri eta eztabaidatuko ez ditugunik. Hala, praktika teorikoa egiten dugu edozein hausnarketarako erreferentzia gisa eratze-egoeraren batean kokatu ostean.

Halaber, bereizketak egiten ditugu gizarte-prozesu edo -ikerketaren batean subjektutik eta objektutik urruntzen direnekin. Ikertzaileak ezin daitezke baldintzatzailerik gabeko subjektu osoak izan, ez eta ikertuak behatzeko objektu hutsak ere. Pertsonak eta taldeek galdetzen dietenen aurrean beren estrategiak dituzte, eta elkarriketa berezi edo sozial bakoitza zertarako interesatzen zaien azter dezakete. Emozioez eta azpi-kulturez egiten dugu aurrera, bai beren esanetan prozesu bat daramatenak, bai eramanak sentitzen direnak. Subjektu-objektu loturaren aldean («zientifikoki objektibo» diote), beti daude subjektu-subjektu norbanakoaren eta taldearen estrategiak, eta alderdi bakoitzari interesatzen zaizkion ekintzak eta azalpenak eraikitzeke lehian dihardute. Ikerketak betiere ekintza «parte-hartzaileak» dira, onartu nahi izanaren

kalterik gabe. Inkesta edo eztabaida-talde batean pasibotasunez jarduten duena baliteke iruzurrean aritzea, egiten dizkioten galderak gogoko dituen, horren arabera edo ikertzaileak janzteko edo hitz egiteko duen moduari jarraikiz.

Duela urte asko hirugarren gainezkatzeko praktikoa bizi izan genuen, hain zuzen ere, edozein ezagutzatarako «inplikazioaren» garrantzia. Lehenik eta behin, beti zaudelako inplikaturik. Horrez gain, jakitun ez bazara, are eta okerrago, ez baituzu kontrolatzen non zauden. Ezin daiteke gizartetik kanpo «ikusi edo epaitu», gizarteko kide baikara. Baina, modu berean, ez gara gelditzen urrutze eza dela eta. Egiten dugun edo egiten ez dugun edozer gauzak praktikaren ikuspegitik inplikatzeko gaitu, eta, hain zuzen ere, horregatik hausnarketa beti kokatzen da bi ekintzen erdian. Inplikazio-prozesu horien jakitun izanik hausnarketa hau egiteari deritzogu «praxia». Mugimendu militanteen tradizioekin lotuta dago. Jakina da «pasioak ez duela eza-gutzarik kentzen». Are gehiago, nor sartu den ez dakienari eta norberaren baldintzatzaileekiko gutxieneko distantziari hartzen ez duenari kentzen dio. Adibidez, jarraunspen marxista ezagutzen badut, egiaz dauden esperientziekin historian zehar izandako akatsetatik urrundu naiteke, baina «non gabiltzan» ez badakigu, zailagoa da prebenitu ahal izatea.

Gerora, gauzen eta harremanen «konplexutasunera» jauziak iritsi ziren. Bideratzeko «guztia azaltzen duen legea» edo «ereduzko etika» aurkitzen saiatzearen aldean, xumeagoa eta errealistagoa iruditzen zaigu «konplexutasunaren paradigmak» onartzea. Grabitazio unibertsalaren legeak edo espezieak hautatzeari buruzkoek beren aplikazio zehatzak dituzte eta betetzen dira; beste arlo batzuetan, ordea, logika konplexuagoak behar dituzte. Merkatuen edo giza eskubideen logika ez da legea enuntziatzea bezain sinplea; kulturetan motibazioak oso aldakorrek dira, bai eta estilo kooperatiboak ere. Natur zientzietan sinbiotikoa eta sinergikoa dena lehiakorra den hori bezainbeste edo gehiago azaltzen dira, eta, batzeari esker, jauzi «transduktiboak» emateko ikuspegiak ahalbidetzen dira. Hau da, energia batzuetatik besteetarako jauziak, batetik, gure begietan argiaren eta neuronen arteko konexioak ikusteko eta, bestetik, entzimen ekintzaz landare bat hazteko. Estilo transduktiboak jauzi egitera ohitzeko erabiltzen dira, baina gizarte-harremanetan ere gertatzen dira, eta metodologia parte-hartzaileen bidez ikas daitezke.

Boterearen analisiak maiz sinplifikatzaileak izan dira, eta «sare sozialen zenbait analisi» sartu dituzte. Boterea toki edo erakunde batean edo pertsona batengan aurkitzeko saiakeraren aldean, harreman edo estrategien joko modura zehazteko aukera dago. Hala, posizioak kasu bakoitzean zehaztutako loturen motaren eta intentsitatearen arabera azaltzen dira. Egoera bakoitzean ohiko bizitzan jokoan dauden klase- edo ideologia- baldintzatzaileak zehazteko horiei «Ekintza multzoak» (Eliassen «sareak eta konfigurazioak» bezala, 1994) esaten diegu. Harremanak posizioen arteko konfiantzaren eta mesfidantzen artean, beldurraren eta esker onen artean eraikiz doaz, baina ez banako ikuspegi psikologistatik, baizik eta «egoera zehatz bakoitzaren analisi zehatzaren» egiaztapen kolektibo eta parte-hartzailetatik. Horrela, harremanen «mapa estrategikoei» esker (Freire, 2008), historikoki eraiki diren interes ekonomi-

koek, sozialek edo emozionalek bultzatuta, une bakoitzean aurrez aurre jarri edo antolatzen diren estrategiak uler ditzakegu.

Konplexutasunerantz hirugarren jauzia prozesuetan inplikaturako subjektuen berezko azalpen paradoxikoak lantzean eman dugu. Jendearen hitzek eta keinuek ez dizkigute posizio bakarrak eta desberdinak adierazten. Halaber, ez dago argi guztia bi gai kontrajarrien dialektikara mugatzen denik. Gainera, tarteko posizioak daude, bai eta aldi berean bata eta bestea direnak ere, eta alboratzen diren posizioak, ez bata ez bestea alegia. Hizkuntza-analisiak dilemetatik urrunago joan dira, eta «tetralemak» edo dilema bikoitzak planteatzen dizkigute. Guztiok erabiltzen ditugu, nahiz eta ez konturatu. Kritika pragmatikoa ez da azalpenak nola diren adierazteko «semantikan» gelditzen. Testuinguruetan, harreman praktikoetan eta egoera-harremantetan komunikazio-moduak eta keinuak sartzen dira. J. Galtungekin (2004), «pentalemetan» zehar aurrera egingo dugu. Halako planteamenduek sakontze handiagoak eta aukera berriak ekartzen dizkigute. Ez programa batek edo besteak ala bitartekoak irabazteko bakarrik, bai eta biak ukatu eta bide eta konponbide berriak irekitzeko ere. Are gehiago, estrategiak jokoan jar daitezke, itxuraz kontrakoak direnak batzeko.

Hori da elkarlanean «multilemetatik» abiatuta eraikitzen duguna. Lehenengo dilemen azaletik lehen usteez aparte eraiki ditzakegun sakontasunetara iristean datza. «Gizarte-sormena» eraikuntza kolektiboa da, eta bere kezka da tailerretan, bilernetan eta praktiketan dilemen espetxetik irtetea beste pertsona eta talde batzuekin batera. Gizarte-sormenak hobeto bizitzea ahalbidetuko diguten emozioak eta pentsamenduak sentitzeko aprobetxatzen du. Norberaren interesa eta interes orokorra ez ditu kontrajartzen. Biak eraikitzen ditu, eta azalpen berritzaileenetan egituratzen ditu.

90eko hamarkadaz gero, eskema kolektibo berriak eraikiz joan gara. Pentsa dezagun eskemekin, eta askotan prozesu «endogamikoetan» giltzapetuko gara, erreferentziazko eztabaida taldeak eztabaidatzen duenetik irten ezinik. Ez badugu gehiago ikusten, ez gaude trebatuta aldeztatik aurretik ikusi nahi dugunarekin bat datorrena baino gehiago ikusteko. Helburua da hezi gaituen «segurtasunari» eustea. Dena den, teoria kognitibo («enakzioa»), «loturaren» gizarte-psikologiatik edo HEKEtik («harreman-eta eragiketa-kontzeptuen eskema»), eta abarretik ez da pentsatzen bakoitzak introspekzioarekin edo jakitun izanik bakarrik arazoak konpon ditzakeenik. «Talde eragileekin» batera, bizikidetzan jarduteko inplikazio-prozesuak irekitzea planteatzen da, beste lotura- eta egoera-jardunbide batzuk beren gain hartzen baitituzte. «Kontzeptuen eskemen gainean jarduten duten harreman operatiboak» (KEHO) (Villasante, 2014).

Zenbait teknika eta metodologia erabili ditugu oso kontzeptu abstraktuak lehorreratzeko, batzuetan zentzurik gabeko hitzontzikeria hutsean galdu arren. Adibidez, prozesuen «iraunkortasunak» ia edozein esanahi izan dezake, interpretazioa nork egiten duen kontuan hartuta. Gure estatistiketako «adierazle nagusi» batzuk hartuta ere, zeri buruzkoak diren zehazteko, beti arrazoi izateko hauta dezakegu, baldin eta

zuhurtasunaz baliatzen bagara. Hala eta guztiz ere, nekazarien mugimendu batzuek erakutsi digute «landa-diagnostiko parte-hartzaileak» (LDP) iraunkortasuna eraikitzea baino askoz modu praktiko fidagarriagoak eta operatiboagoak direla. Esaterako, «mekazaritza-ekologiak» erkidego bakoitzak eskura dituen «baliabide integralekin» eraikitzen du eta froga dezake, metodologia parte-hartzaileetatik abiatuta, «hobeto bizitzea» modu ekologikoak eta ekonomikoak daudela.

Iraunkortasuna ez da justifikatzen aditu batzuek eman ditzaketen zifra makroekonomikoekin; bai, ordea, une jakinean erkidego bakoitzak eman nahi dituen «bizi-kalitateko» irizpide eta adierazleekin. Hala, bere bizimoduen erritmoa markatzen da. «Plangintza estrategikoaren» analisi konbentzionaletan «kausa-efektu» prozesuak azaltzen dira, eta aditu egiaztatuak diseinatzen ari direna arrakastaz aurreratzeko erabiltzen dira. Hala ere, egiaz gertatzen dena bestelakoa da, iritzia eman behar duenaren ziurtapena mugatua eta agintzen duenaren interesen arabera alboratua izan ohi baita. Horrez gain, ustekabeak daude, eta ez dira egokitzen esku-hartu ahal izan dutenek beren premisetatik abiatuta esandakoarekin.

«Determinismo» interesatuen aurrean, hobe da «kausalitate errekursiboak» onestea. Elkarren artean gurutzatutako baldintzatzaileak dira, ez hain linealak, baina bai parte-hartzaileagoak, herri-interesen ikuspegitik bidean prozesuak zuzenduz eta aztertuz joateko. «Garapen endogenoak» betiere kanpoko inguruabar aldakorrek kontuan hartu behar ditu, bai eta abian jarritako politiken «ondorio ez-desiragarriak» ere. Abiapuntua «goera-plangintza estrategikoak» (EPE) planteatutakoa da, eta ortzimugan «asetzaileak» ditugu. Jendaurrean eraiki dira, eta elementu garrantzitsuak dira «bizitza erdian jartzeko», besteak beste, mugimendu feministek erreklamatzeko duten bezala. Hau da, ekonomia sozialen politika eraginkorrek egitea jendearentzat eta jendearekin.

XX. mendeko eta gaur egungo mugimendu alternatibo batzuek beste modu askatzaile batzuei eusteko jarraibideak ematen dizkigute. «Balio nagusien» aldean, «erkidego zientifikoak» definitu behar du zer dagoen ondo eta zer gaizki. Interesgarriak iruditzen zaizkigu beti «eraldatzeko ikasi eta ikasteko eraldatu» mugimenduak (Nuñez, 1989, eta abar). Hasierako planteamenduak «itxuli» eta gainezkatzen dituzten mugimenduak, sormenari esker ezin baitira aurretik iragarri, ezin diote aurretik ezarritako programa bati eutsi. «Itzulera» ez doa berariaz ezarrita dagoenaren aurka. Dena den, neurri handiagoan datoz bat agintariak gainezkatzen dituzten adierazpen formalekin, eta beste batzuek esan bai baina egiten ez dutena praktikan jartzen du. Praktika horietan ikasten dugu eskuartetik joaten zaigun horretaz, zer konplexua diren bizitza eta hasten ari diren prozesuak. Horregatik, lehen adierazlea da talde eta pertsona orok eraikiz goazen sormen-berrikuntzatik ikas dezakeguna, eta, horretarako, ezin daitezke jarraitu aurretiaz ezarritako moldeak edo bideak. Forma hierarkizatu eta autoritarioetan funtsean «estilo patriarkalak» daude, eta gizadiaren sormena azalera blokeatzen dute. Halaber, ideologikoegiak diren sektarismoaren aurka, gehiago saiatzen baikara batera bidea egiteaz, programak idazteaz baino, ez baitakigu egingo diren.

Pertsonen arteko harremanetatik etengabe sortzen diren ekimenak aprobetxatzeko gai izan behar dugu, taldeen eta pertsonen energia konstruktibotik egin ditza-kegulako «demokrazia parte-hartzaileak». Ez bakarrik demokraziarekin, bozkatzan duten gehienak ordezkaturik sentitzeko, bai eta egunerokoan auto-antolatzen diren taldeek beren ekimenekin bizitza hobetzen lagundu dezaketela ikusteko ere. Demokrazia «auto (eko) antolatuak», hau da, ekosistemen antzera osatzen duten izakien ekarpenak (handiak eta txikiak) aprobetxatzen dituztenak. Kide guztien artean harreman-sistemen auto-antolaketa ekologikoa oso erreferentzia ona da hauteskunde-sistema burokratizatuen delegazioak dakarrenaren aldean. Mundu osoan emakumeen mugimendu askok erakusten digute eguneroko bizitzatik, hau da, txikia den horretatik, estilo demokratikoekin nola borrokatu eta mikroik makrora nola eraldatu mundua. Langileen mugimenduak eta deskolonizazioaren aldekoak erreferentziak dira zeharkako Ideia-Indar inklusibo eta eraldatzaileak eraikitzeke orduan. Ez bakarrik sistemaren barruko dilemak, bai eta hasten ari diren beste plano batzuetan eraikitzea ere, Ideiak-Indarrak parte hartuta eratzeko. Mugitu eta koordinatzeko gai diren Ideiak-Indarra, prozesuaren «osotasuna» eskainita.


Taula osatzeko, gaur egungo mugimendu «alter-mundialistekin» parte-hartzen dugu (oso desberdinak elkarren artean), «hasten ari diren» potentzialtasunak eraikitzen baitituzte, balio nagusien aldean. «Egia-oste» eta beldurtzeko kontuen aldean, «ondo bizitzeari» buruzko esperientzia zehatzen ziurtasunak, mugimenduetan orokortuz doazenak. Eta «oinarrizko ekimenen demokraziak» eta «finantzatuta dagoen globalizazioaren» diktaduren aurkako gizarte-mobilizazio inklusiboak.

Ez dakigu zer aukera aterako den aurrera, baina eraikitzen ari gara kapitalaren zirkulazioari buruzko kritika erradikaletik, hierarkia patriarkaletik edo zalantzan jartzen ez diren dogmetatik abiatuta «beste mundu batzuk ahalbidetzeko». Munduko toki batzuetako eta besteetako «oihuak» «eraldatzea» planteatzen dugu, hasten ari diren «bideak egiten» ikasteko, «inperioa» narriatzen ari baita. «Balio-baliokide nagusien» aldean «gainezkatze errebertsiboen» pluraltasuna egotea, «hasten ari diren» bide anitzi ekitzeko moduak saiatzeta, bai egunerokoan, bai eraldaketa globalaren il-dotik.

Aplikazio praktikoetarako eskemak

Lehenengo eskeman ohiko «ekintza-multzoekin» (Kudeatzailea, Populista, Herriarrena) balizko «mapatze estrategikoa» aditzera ematen da. Ekintza horiek elkarri lotzen zaizkie klase sozialen baldintzatzaileekin eta gizarte-sareetan inplikatzearrekin batera. Gizarte-sareetan, herriz, eragina dute bereganatutako ohiturek, patriarkalek, klientelistek, eta abarrek.

TRANSDUKZIOKO ESTRATEGIETARAKO METODOLOGIAK




XII. GRAFIKOA

Finantzatzeko erreferentziazko esparruak

Eguneroko bizitza erreproduktiboak

Gizarte konplexuetan komunikazio-analisiak egitean ez dira nahikoak klase sozialetan baldintzatzaileak. Eguneroko bizitzak erabiltzen dituen «sareek» ere beren zeregina dute. Eskema honetan ezkerreko zutabeetan kokatzen ditugu. Gure ikerketetan oinarrituta, ondoko bi talde hauen arteko komunikazioa nola gertatzen den zehazteko, ehuneko batzuk planteatzera ere ausartuko gara: alde batetik, «aktibistak» eta «jarraitzaileak» (bileretara joateko edo Interneten bidez jarraipena egiteko prest daudenak), eta bestetik, zabalagoak diren «korapiloak» edo «modo berri-emaileak». Bigarren multzo hau ez da bileretara joaten ohi eta ez da jarraitzailea, baina oinarrian «ekintza-multzoen» aldaketetarako benetako komunikatzaileak dira.



XIII. GRAFIKOA

Estrategia sozio-praxikoetarako matrize transduktiboa

Sormen ebolutiboen ekosistemak eta denbora luzeak

«Aktoreak mapatuta» «nodo berri-emaleak» sartuta, eta inplikaturako sektoreak modu elkarrengilean entzunda, «baterako sormen-tailerretara» pasatu daiteke. Multikausalitatean funtsatuta eta prozesu parte-hartzailean inplikaturak eztabaidatu eta adosten dituzten gainditze-eremuaren proposamenei lehenta-

sunak emanda, aurretiazko dilemak gaindi daitezke. Prozesu inklusibo hauek iraunkorrak eta eraginkorrak izan daitezzen, autoantolatze moduren bat ezinbestekoa da, eta erabiltzen dituen baldintzatzaile ekologikoak (naturalak eta sozialak) izango ditu kontuan. Ondoren, ordezkari trebatuetan delegatu gabe, erabakiak hartzeko «bozketa haztatuen» sistema doa. Asanbladan talde misto txikietan banatuko gara, eta talde bakoitzak bere proposamenak egingo ditu osoko bilkurari aurkezteko. Osoko bilkuran pertsona bakoitzak puntuak eman diezazkioke edozein proposameneri, bere taldekoari izan ezik, eta horrek proposamen guztiak aintzat hartzea dakar. Gertatu ohi da talde desberdinetako hainbat proposameneri eskuratzen dituztela puntu gehienak eta, gainera, elkarren artean antola daitezkeela adosteko eztabaida batean.

XXIII. TAULA

Bozketa haztatuetarako eskema

	Puntuak	Arduradunak
Presazko proposamena		
Lehenengo proposamen tematikoa		
Bigarren proposamen tematikoa		
Hirugarren proposamen tematikoa		
Idea-Indarraren proposamena		

Teknika hauek osatzeko, CREASVI fundazioaren webgunean sar daitezke. Hamar bat bideok praktikan nola egin azaltzen dute. Bereziki, ASMAMENAK erlaintzean joko bat deskarga daiteke. Prozesua gidatuagoa izateko 4 teknika ditu. Beste joko batek, berriz, 9 teknika ditu Miro arbelean, aplikazioa moldakorragoa izan dadin. www.fundacioncreasvi.org

Gainbegiratzea: jardun profesionala hobetzeko eta ezagutza sortzeko tresna

Maddalen Epelde-Juaristi, Ainhoa Berasaluze, Miren Ariño-Altuna,
Charo Ovejas-Lara

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena. Gainbegiratzea, era laburrean esanda, gainteko ikuspegia bereganatuta gure eguneroko jardun profesionalari buruz hausnartzeko parada hartu eta hori hobetzea bilatzen duen tresna izango litzateke. Berasaluze eta Ariñori (2014) jarraikiz, etimologikoki, gaztelaniako «supervisar» aditzari egingo lioke erreferentzia gainbegiratzeak, latineko *super* (gaintek) eta *videre* (ikusi) hitzetatik datorrena. Beraz, gaintek izaten den ikuspegiari dagokio, gertatzen ari dena kanpotik begiratzeko eta hausnarketa garatzeko aukera ematen duen jarduerari. Jardun profesionalan agertzen diren zailtasun-egoeren aurrean kanpo-azterketa eta orientazioa ahalbidetzen ditu jarduera horrek, egoerak perspektiba eta argitasun handiagoarekin behatzea, berriro horien gainera itzultzea eta ikuspegi berriak eraikitzea.

Esku artean darabilgun testu honen bidez, harago joan eta ezagutza garatzeko ikerketa-tresna ere izan daitekeela erakutsiko da. Prozesu horretatik sortutako ezagutza berriak, gainbegiratu izan den profesionalaren jarduna ezezik, diziplina beraren parte diren profesional guztien jarduna hobetzeko bidea ere eman lezake; gainbegiratze-talde batean antzemandako zailtasunak eta horiei aurre egiteko bideak guztien eskura jartzen badira.

Gainbegiratzea, gizarte-langintzaren esparrura ekarrita, eta aipaturiko bi helburuak lortzeko asmoz (norbere jarduna hobetzea eta beste profesionalen jarduna hobetzeko ezagutza teorikoak sortzea), ikertzeko teknika gisa ere planteatu dezakegu beraz. Eta ez edonolako ikerketa teknika gisa, baizik eta ikerketa-ekintza-parte hartzailearen (IEPH aurrerantzean) baitan kokatua, izan ere, ikerketa burutzeko eredu honek bat egiten du gainbegiratzearen izaerarekin, ikertzearekin batera ikertutakoa eraldatzea bilatzen duen neurrian.

Hori erakusteko asmoz, gainbegiratzea IEPH egiteko tresna gisa kokatzeko epistemologikoki eta metodologikoki testuinguratuko da lehenik eta behin; eta bigarrenik, burututako esperientzia praktikoko baten berri emango da, gainbegiratzeak IEPHri batuta ikerketa teknika gisa duen erabilgarritasuna irudikatze balioko diguna, ezagutza sortzeko tresna bezala.

Gainbegiratzea eta ikerketa uztartuz

Gaur egun gizarte-zerbitzuetatik artatzen diren egoerak gero eta konplexuagoak dira, ziurgabetasunez beteak, Zygmunt Bauman (2000) soziologo eta filosofo poloniarrek «modernitate likidoa» kontzeptuarekin barnebiltzen dituen horien antzekoak. Errealitate horren kontzientzia izanik, Helmut Willke soziologo alemaniarrek estatuetan gobernantza-modu berriak martxan jartzeko dagoen beharraz hitz egiten du, «jakintzaren gizartea gainbegiratzearen interesa» planteatzen duelarik (2012: 3); zentzu horretan, politika publikoen testuinguruetan gainbegiratzailen elkarte profesionalak eta gizarte-langileek duten zeregin garrantzitsua ere nabarmentzen du.

Modernitate likidoa edo gizarte likidoa Zygmunt Bauman-ek garatutako kontzeptua da, XX. mendearen bukaeratik aurrera mendebaldeko gizartearen joera azaltzeko (Bauman, 2000). Haren arabera, egungo gizarteak likidoak dira, printzipio, balio, instituzio eta egoera egonkor eta finkorik gabekoak diren heinean, kontsolidatu aurretik dena aldatzen baita etengabe, likidoek erakusten duten jariakortasunaren antzera.

Gure aitona-amonek bizi izan zituzten errealitate egonkor eta «solidoak» gaurko errealitate ezeگونkor eta «likidoek» ordezkatu dituzte, eta bizitza gutzirako enplegua eta bikotekidea bertan behera geratu dira. Gaurko agertokia, beraz, prekaritateak eta probisionaltasunak ezaugarrituta irudikatzen zaigu, hainbatetan nekagarria suertatzen dena. Izan ere, horren ondorioak larriak izan daitezke, subjektuak erreferentziarik gabeko gizarte batean bizitzera kondenaturik legoke, etengabe egoera berrietara moldatuz eta arriskuei behin eta berriaz aurre eginez, errutinek sortzen dituzten erro sendo eta ziurrak suntsituz.

Behar horiei erantzun bat emateko, ikerketa eta gainbegiratzea batzea interesgarria suertatzen da. Gainbegiratzeak, IEPH modalitate gisa erabilia, hausnarketa sozial eta politikoa egiteko bidea ahalbidetzen digu, gure jardun profesionalak eraldatzen lagunduko duten estrategiak detektatu eta martxan jartzeko bidea ematen digu, eta gure gizarte-testuinguruetan herritarren bizitza eta bizikidetzeta-baldintzak hobetzeko aukera.

Hurrengo atalean ikusiko dugun modura, gainbegiratzea IEPH trensa gisa planteatzerako orduan oinarri izango diren erreferentzia epistemologiko garrantzitsuenak pentsamendu konplexuari eta sistemen teoria orokorrari lotutako paradigma eraikitzailea dira. Eta, aldi berean, ikuspegi kritiko eta gogoetatsu bat hautatzen da.

Metodologiari dagokionez, eta jadanik aurreratu den moduan, IEPH proposatzen da ikerketa-ekintza modu gisa, eta, aldi berean, esku hartzeko eta gizarte eraldatzeko metodologia gisa. Alderdi horretan, analogia bat aurkitzen dugu gizarte-langintzako gainbegiratzearekin: ekintzatik abiatzen den ikerketa delako IEPHa (gainbegiratzea bezala) eta ezagutza eraikitzeko bidea ematen duelako prozesu gogoetatsu eta parte-hartzaile bat egitearen bidez (gainbegiratzeak bezala).

Testuinguraketa epistemologiko eta metodologikoa egin ostean, eredu hori erabiliaz burututako ikerketa zehatz baten berri emango da, aurkeztutakoaren aplikagarritasuna erakusteko asmoz. Honek, gizarte-zerbitzuen baitan burutzen den gizarte-langintzaren zailtasunak hauteman eta horiek gainditzeko estrategiak proposatzen ditu. Elkarlanaren bitartez burutzen den lanketa bat da, hausnarketarako eta ezagutza eraikitzeke gune bat eskaintzen duena, eta honako helburu hauek dituen:

- Ikuspuntuak partekatzea.
- Gizarte-langintzaren ekintza profesionala hobetzea.
- Gizarte-politikak bideratzea.
- Jarraitu beharreko prozesuak zehaztu eta balioestea.
- Gizarte-desabantaila egoeran dauden pertsonen gizarte-errealitatea eraldatzea.

Eredu honek gizarte-langintza parte-hartzailea eguneratzen du, eta elkarlaneko praxia legitimatzen du. Praxi horren azken helburua gizarte-ekintzako eragileen eta ikertzaileen artean eraikitako ezagutza-moduak bilatzea da.

Oinarri epistemologikoak

Ikerketa eredu honen oinarri teorikoak hiru dira, funtsean: 1) gizarte-konstruksionismoa, 2) pentsamendu konplexua eta 3) ikuspegi kritiko-gogoetatsua. Jarraian, bakoitza azalduko da.

A. *Konstruksionismo soziala*

Konstruksionismo soziala, gizarte eraikuntza edo eraikuntza soziala izenez ere izenda dezakeguna. Ildo honen arabera, jakintzak eraiki egiten dira truke soziokultural batek ezaugarritutako prozesuetan, eta, horrenbestez, jakintza, komunitate batek partekatutako kultura eta istorioek baldintzatzen dute. Kenneth J. Gergen psikologo estatubatuararen arabera, inguratzen gaituen mundua ulertzeko erabiltzen ditugun hitzak «artefaktu sozialak» dira, historikoki kokaturiko pertsonen arteko elkartrukeen ondorioa. Komunitate baten baitan izaten diren akordioen ondorioz, ulertzeko modu bat beste baten aurrean gailendu daiteke momentu jakin batean, zeren ulerkera bat sostengatzean eta babestean, beste batzuk baztertzen baitira (1985: 271).

Kenneth J. Gergen psikologo estatubatuarrek «artefaktu sozial» kontzeptua darabil gizarte-konstruksionismoa delako teoria soziologikoa azaltzerakoan (Gergen, 1985). Izan ere, ildo honen baitan, gizarte-eraikuntza bat, hori onartzen edo partekatzen duten pertsonen begietan naturala edo berezkoa diru-

dien kontzeptu edo praktika bat izango litzateke; baina errealitatean asmakuntza (edo artefaktu) sozial/kultural bat litzateke, gizarte konkretu batek sortu eta partekatzen duena.

Funtsezko bi elementurekin egiten dugu topo ildo honen baitan: truke-espazioa batetik, eta epistemologia edo ezagutza eraikitzailea bestetik. Etengabeko elkartrukearen ondorioz eraikiak izan diren espazioetan kokatzen gara, horrek argi uzten digu etengabeko eraikuntza eta berreraikuntzak gertatzen direla elkartrukeetan lortutako adostasunei esker. Egoera desberdinei egotzen dizkiegun esanahiak gizarte-elkarrenginetatik sortzen diren eraikuntza eta berreraikuntza dialogikoak dira. Kapitulu hau erdiratzen den gizarte-langintza eta haren hobekuntza aintzat hartzen baditugu, kultura profesional jakin baten hizkuntzak eta adostasun zein desadostasunek baldintzatutako egongo lirateke eraikuntza eta berreraikuntza dialogiko horiek. Horrenbestez, errealitate desberdinak eraiki egiten gaituzten eraikuntzak dira. Gainbegiratzeak, horrelako espazio gisa planteatuta, eraikuntzak hausnartu, deseraiki eta berreraikitzeke aukera ematen digu.

Gainbegiratzea IEPH teknika gisa planteatuta, besteak beste, gizartean eta kulturen zailtasunak, erantzunak eta proposamenak nola eraikitzen diren ulertzeko interesatzen zaigu; izan ere, gizarte-langintzaren lankidetzako praxian ekintzarako ulermen eta alternatiba bihurtzen dira aspektu horiek. Natalio Kisnerman, gizarte-langintzaren aitzindari argentinarra adierazten duen bezala, deseraikitzea, lehenik eta behin arazo-egoera nola eraiki den ulertzea da, eta baita oztopo gisa diharduten aurrekontzeptuak, irudikapenak, aurreiritziak eta suposizioak hautematea ere; eraikitako egoeratik abiatuta, praktika berrien bidez egoera gaitzaitzaile bat berreraikitzen saiatzeko (1998: 148).

Paradigma eraikitzailetik abiatuta, testuinguru konplexuetan eraikuntza dinamiko, kritikoa, gogoetatsu eta kolaboratibo gisa ulertutako ikerketa burutzeko aukera bermatzen digu IEPH teknika gisa ulertutako gainbegiratzeak. Gizarte-langintzaren objektuekin, helburuekin, estrategiekin, balioekin eta printzipioekin koherenteagoak diren etika, filosofia, ezaugarriak eta prozedurak barnebiltzen dituen ikerketa parte-hartzaile bat, hain zuzen ere.

B. *Pentsamendu konplexua*

Pentsamendu konplexua Edgar Morin filosofo eta soziologo frantsesaren eskutik sortu zen. Horrek erreferentzia egiten dio errealitateko dimentsio desberdinak elkarren artean erlazionatzeko duten gaitasunari; zentzu horretan, gaurko gizartea gero eta osagai gehiago eskuratuz joan dela azpimarratzen du, gizateriak izan duen bilakaera eta aurrerapena direla eta (Morin, 2005). Autore honen arabera, errealitatea geruza desberdinez osatutako egitura batekin konpara liteke, eta, beraz, benetan konplexua den zerbait litzateke.

Errealitatea zenbat eta konplexuagoa izan, orduan eta xehetasun gehiago izan beharko ditugu kontuan aztergai dugun gizarte horren baitan. Morinen arabera, pertsonak ez lukete pentsatu behar bizitzen ari direna era murriztuan, eta ez lukete egoera baten aurreko posizionamendua agertu behar gertaera gutxi batzuetan soilik oinarrituta. Gaur egungo gizartearen ezaugarriak direla eta, beharrezkoa da pertsonak eskuratzen duten informazio guztia ondo hausnartzeko aukera izatea, ondo funtsatutako iritzi bat izatera iristeko. Hausnarketarako gaitasun hau Morin-ek «pentsamendu konplexu» gisa definitzen du.

Argi dago gainbegiratze-espazio batek pentsamendu konplexu hau burutzeko aukera ahalbideratuko lukeela, eta elementu anitz kontuan hartuz hausnarketa partekatua burutuko litzateke bertan.

C. *Ikuspegi kritiko-gogoetatsua*

Ikuspegi kritikoa eta gogoetatsua bereganatzea ere beharrezkoa izango da, erai-kia (eta berreraikia) izan den gizarte bere konplexutasun osoz hausnartu eta horren berreraikuntza hobe batera iristeko. Zentzu horretan, errealitatea problematizatzearen beharra azpimarratuko luke ikuspegi kritiko-gogoetatsuak. Izan ere, Kenneth J. Gergen (1999) psikologo estatubatuarraren hitzetan, ezer ez da irudikapen zehatza edo zuzena, eta objektibotasuna testuinguru jakin batean jarduten duten konbentzio, sinesmen, kasu eta aukera multzo bat objektibizatzeo ekintzaren emaitza baino ez da.

Edozein aldaketaren abiapuntua litzateke *problematizatzea*, hau da, hausnarketa (eta autohausnarketa) eskatzen duen prozesu gisa definituko litzateke, zeinaren bidez ordura arte naturalizat, ezarritzat edo aldaezintzat jotzen zen errealitatearen alderdi bat desnaturalizatu egiten dugun. Hau da, zerbait, errealitate bat, auzitan jartzea litzateke, gero aztertu ahal izateko. (Gergen, 1999)

Gizarte-langintzatik eta gainbegiratzea IEPH teknika gisa erabiliz, elkarlanean oinarritutako jarduera profesionala pentsatu eta berreraiki nahi da. Harlene Anderson (1997) psikologo estatubatuarrak «elkarrizketa dialogikoak» deitzen dituen eta Tom Andersen (1987) psikiatra norbegiarrak «talde gogoetatsuak» deitzen dituenaren bidez, «esanahi berriak irudikatu eta txertatu ahal izateko kontakizun alternatiboak sortu nahi dira, horiekin aukera desiragarriagoak eraikiz, pertsonak baliagarriagotzat eta gogobetegarriagotzat biziko eta nabaritutako dituzten esanahi berriak adostuz» (White eta Epston, 1993: 31).

Bestearekin hitz egitean datza *elkarrizketa dialogikoak*, elkarrizketa monologikoak (edo bakarrizketak) besteari hitz egitera mugatzen diren bitartean, elkarrizketa dialogikoek bestearen inplikazioa bilatzen dute (Anderson, 1997). Bi-

laketa partekatu batek ezaugarrituko luke, joan-etorriko prozesu baten bitartez burutzen dena, eman eta jasotzea ahalbidetzen duena. Psikologiatik sortutako kontzeptua izanik, terapeutaren eta bezeroaren arteko elkarrizketan ideiak, iritziak eta galderak partekatzeari dagokio, horren bitartez eraldaketa lortzeko asmoz. Izan ere, Harlene Andersonen iritziak, elkarrizketaren bitartez gure bizitza-esperientziak osatzen eta birrosatzen ditugu, zentzua emateko eta ulertzeko erak sortu eta birsortzen ditugu, gure errealitateak eta gu geu eraikitzen eta berreraikitzen ditugu/gara.

1985ean, Tom Andersen psikiatraren talde profesionalak familiekin lan egiteko modu original bat aurkitu zuen, ordura arte erabilitako eredu estruktural eta estrategikoetatik aldentzen zena, eta horri egiten dio erreferentzia *talde gogoetasuak* (Andersen, 1987). Andersen eta haren taldea familiaren aurrean hitz egiten hasi ziren eta emaitza garrantzitsuak lortu zituzten. Ordura arte, familia eta terapeuta gela batean aritzen ziren eta Andersen talde profesionalak ondoko gela batetik jarraitzen zuen prozesua (famiaren gelan ispi-lua kokatzen zen tokitik). Behaketa-prozesua noranzko bakarrekoa izateko alde-bikoa izatera igarotzeko ideiare esker, saioa zuzentzen zuen terapeutak eta familiak ondoko gelan terapeuta taldeak egiten zituen iruzkinak eta gogoetak zuzenean entzuten zituzten. Deigarria izan zen familiako kideen artean sortu zuen interesa eta ustekabea. Entzute-prozesua alderantzizkatu eta alde-biko bihurtzeko, eta adituen gogoetak entzuteko aukera izateak, aldaketa bultzatu zuen eta hainbat ikuspuntu eman zituen, bai talde terapeutikoarentzat eta bai familiarentzat.

Harrez gero, modu horretan lan egiten jarraitu zuten, terapian murgilduta zeuden terapeuta eta bezeroek terapeuta taldearen gogoetak entzuten zituzten eta horien aurreko erreakzioa agertzen zuten. Horregatik, talde gogoetasuak deitzen ziren.

Donald A. Schön (1983) filosofo estatubatuarren arabera, praktika gogoetasu batek gidatutako ezagutzak amaitu gabeak dira beti; izan ere, praktikaren eta hausnarketaren bidez etengabeko berreraikitze-prozesuan murgilduta daude. Lan honetan, elkarrizketaren bidez errealitatea ezagutzera eta aldatzera bideratutako elkarlaneko praxi gisa ulertzen dugu gainbegiratzea eta horretatik eratorritako ezagutzak.

Oinarri tekniko-metodologikoak

Ikerketa-Ekintza-Parte hartzailearekin eta gainbegiraketarekin koherentea den metodologia kualitatibo baten aldeko hautua egin da. Atal honetan, horietariko baikoitza definituko da

A. *Ikerketa-Ekintza-Parte hartzailea (IEPH)*

Lan honetan, IEPH Gizarte Langileen Nazioarteko Federazioak (International Federation of Social Work, IFSW) 2018an zehatutako Gizarte-langintzaren definizioa, haren helburu, funtzio sozial eta printzipio etikoetara ondoen egokitzen den ikerketa-modalitatea dela uste da.

Hilary Bradbury IEPH metodologian aditua den autore irlandarrak ikerketa eta praktika batzeko hautua egiten du, gaur egungo krisi sozioekologikoaren aurrean erantzun eraldatzaile bat sortzeko beharrezkoa ikusten duena. Eraldaketarako ikerketa-ekintza da hain justu berak proposatzen duena. Zenbait kiderekin burututako lan batean adierazten dutenez, IEPHko ikertzaileek abangoardiako profesionalekin bat egiten dute zientzian oinarritutako ezagutza arazo praktikoei aplikatzerakoan eta ordena sozial demokratiko eta berdintasunekoak sustatzerakoan (2008, 78). Horri gehitu behar zaio IEPHak teoria-praktika eta ikertzaile-ikertua binomioak gainditzeko aukera, lanbide-ekintzatik bertatik burututako ezagutza kolektiboen eraikuntza ahalbidetzen baitu. Ikertua ikertzaile bihurtzen da, praktikatik eratorritako ezagutza teoria bihurtzen da.

Gizarte-langintzaren baitan, IEPH, *laguntza* profesionalean oinarritutako ikusmolde lineal positibista alde batera uzteko modu bat ere bada, dauden arazoei aurre egiteko profesionalen eta herritarren arteko lankidetzaren harremanean oinarritutako praxi bati bide ematen diona.

B. *Gainbegiratzea*

Jadanik aipatu den moduan, lan honetan gainbegiratzea IEPH egiteko teknika gisa aurkeztu nahi da. Teresa Zamanillo gizarte-langintzan katedradunak defendatzen duen bezala, gainbegiratzea «ikertzeko modu berezi bat da, ikerketa-ekintzarako metodo osagarri bat, esparru kontzeptualari buruz hausnartzeko eta esperimendatzeko modu bat, teoria-praxia aplikatzeko metodo bat (2008: 322-323).

Carmina Puig gizarte-langintzako irakaslea eta gainbegiratzailerak denak aipatzen duenez, gizarte-langintzan, gainbegiratzailerak, lanbide-jardunari buruzko hausnarketa-metodologia gisa «aukera ematen die gizarte-zerbitzuetako taldeetako profesionalei lanbide-trebetasunak hobetzeko, hausnarketaren, pentsamenduaren eta autozainketaren bidez» (Puig, 2011: 48). Gainera, Teresa Aragonés gizarte-langile eta gainbegiratzailerak gehitzen duenez, prestakuntzarako, analisirako, hausnarketa partekaturako eta ezagutzak eraikitze espazio bat ahalbidetzen du, praxi profesionalak dakarren konplexutasunari heltzeko aukera emanez (Aragonès, 2010). Beraz, gainbegiratzea praxi profesionalari buruzko hausnarketa kritiko eta eraikitzailea burutzeko gune gisa ulertu daiteke; kokaturiko ezagutzak berreraikitze leku gisa; Harlene Anderson eta Susan Swim-ek (1995) izendatutako elkarlaneko elkarriketetan oinarritutako topaketa gisa eta ikertzeko espazio partekatu gisa.

Harlene Anderson eta Susan Swim autoreek 1995an publikatutako artikulu batean gainbegiratzea *elkarlaneko elkarrizketa* gisa proposatzen zuten, gainbegiratzaillearen eta gainbegiratuaren ahotsak entzunez, partekatuz eta aintzatetsiz burutzen zena.

Interesgarritzat jotzen da gainbegiratzearen funtzioak azpimarratzea IEPH burutzeko teknika gisa testuingurutzerakoan. Honako hauek lirateke:

- Hausnarketa kritikoa burutzea.
- Ezagutzak (deseraiki eta) eraikitzea.
- Elkarlaneko elkarrizketak bermatzea.
- Akonpainamendua egitea.
- Zaintza eta autozaintza sustatzea.
- Eta ikerketa-ekintza-parte hartzailea gautzatzea.

Ainhoa Berasaluze eta Miren Ariño gizarte-langile eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakasleek honela definitzen dute gainbegiraketa: «jardunbide profesionalaren inguruko hausnarketa-prozesu gisa, jardun profesionalaren aurrean hartzen dugun metaposizioa da, egoerak perspektiba eta argitasun handiagoarekin behatzea ahalbidetzen diguna, esandakoaren gainera itzuliz eta ikuspegi berriak erakiz, ikasteko eta ekintza-estrategiak sortzeko helburuarekin» (2014: 106). Ildo horretan, gure ikerketak gainbegiraketa elkarlaneko elkarrizketarako, ikaskuntzarako eta eraikuntza partekatuetarako gune gisa azpimarratzen du, mutualitate eta horizontaltasun harremanetatik abiatuta.

C. *Teknika kualitatiboak*

GAINBEGIRATZE-SAIOAK

Gainbegiratzea burutzeko talde-saioek eztabaida-taldeekin zenbait alderditan antzekotasunak dituzte. Hain zuzen, eguneroko testuinguruak eta errealtate hurbilak hizpide dituzten elkarrizketak sortzen saiatzen dira biak; nahiz eta «talde artifizial» bat izan, egoera sozial jakin bat berrantolatzen dute testuinguru baten baitan testu bat sortuz (hitz egindakoa grabatu eta transkribatu ostean). Peter Reason eta Hilary Bradbury IEPH metodologian adituak direnen arabera (2008) testu hori edukiaren eta diskurtsoaren analisiaren bidez aztertu eta aintzat hartuko da, bai eztabaida-taldeetan eta bai gainbegiratze-saioetan; kolektiboki identifika daitezkeen zentzumenak deskubritzera bideratuta daude; parte-hartzaile bakoitza prozesu baten zatitzat ulerzen dute, eta harreman simetrikoak bultzatzen dituzte.

Beharbada, alderik nabarmenena gainbegiratze-saioetan taldeak modu espontaneoan eta librean hitz egiten duela izango litzateke, komunikazioa eta informazioa

era askean sortu nahian eta ez horrenbeste zerbait konkretua lortu nahian. Eztabaida-taldeetan, ostera, elkarrizketa planifikatua da, informazioa lortzeko diseinatua. Horri gehitu behar zaio gainbegiratze-saioak pertsona-talde berarentzat planteatzen direla (6-12 pertsona), hainbat saiotan (6-9 saio) eta denbora-tarte batean (6 hilabete eta urtebete bitartean); eztabaida-taldeak aldiz talde desberdinekin burutu ohi dira, eta gai baten inguruko informazioa pertsona-talde desberdinetan bilatzen da, antzekotasunak eta desberdintasunak ikusteko.

Beraz, gure ereditutik abiatuta, gainbegiratze-saioan taldea elkarlaneko elkarrizketa bihurtzen da, zinetan azterketa bat egin nahi den, kontzientzia kritiko eta gogoetatsu batetik abiatuta, diskurtsoak berreraikitze eta ekintzak hobetzeko eta horrenbestez eraldatzeko asmoarekin. Gainbegiratze-saio horiek osatzeko eta laguntzeko, interesgarria da metagainbegiratze saioak txertatzea, gainbegiratze-saioetan egindako lanari buruzko ikuspegi analitikoak eskuratzeko aukera ematen dutenak. Saio horietan, gainbegiratzearen gainbegiratzea burutuko litzateke.

EDUKIAREN ANALISIA

Dokumentuak aztertzeko metodo eta prozedura multzo bati dagokio, testuaren zentzuan arreta jartzen duena. Edukiaren azterketa kualitatiboa, lan-esparru honen barruan, metodologikoki kontrolatutako komunikazio espazioetako testuen azterketarako hurbilketa gisa definitzen du Philipp Mayring psikologo alemaniarrek (2000). Aztergai dugun materiala kategoria analitikoan laguntzaz interpretatzea da helburua, haren berezitasunak azpimarratuz. Horrela, edukiaren analisisa datuen sistematizazioari, birlanketari eta murrizketari aplikatu dakiogeen teknika gisa erabiltzen da.

Gainbegiratzea IEPH egiteko teknika gisa defendatzerakoan, teknika honen funtsezko interesa informazioa sistematizatu ahal izateko kategoria analitikoak sortzeko ematen duen aukera da, alderdi semantikoak eta pragmatikoak oinarritzekoak izanik.

DISKURTSOAREN ANALISIA

Teun Adrianus van Dijk linguista eta diskurtsoaren analista holandarraren arabera (1977), diskurtsoaren analisiak prozesua du ardatz, hitzez adierazteko praktika soziala. Hark hizkuntza ez du munduaren isla edo irudikapen gisa ulertzen, gizarte-ekintza eta gizarte-erakuntza gisa baizik. Diskurtsoaren analisiak, ezagutzaren erakitzailerik eta aldaketa-prozesuen parte gisa ulertuta, diskurtso-praktikak gizarte-egiturekin lotzen ditu Jesús Ibáñez soziologiako katedratikoa izan zenaren arabera (2000); gizarte-praxi gisa, beste zentzu edo esanahi posible batzuk berreraikitzen saiatzen den erakuntza konplexu eta erlazionala izango litzateke Gregory Bateson biologo, antropologo, gizarte zientifiko, linguista eta zibernetikoaren hitzetan (1972).

Kategorien arabeko analisisa eta analisi kritikoa egitea da helburua. Testuak testuinguruan aztertzen dira, behatutako errealitatera hurbilketa burutzea ahalbidetzen duten kategoria analitikoan edo kodeen arabera. Horien bidez, kontzeptualiza-

zio bat lortu nahi da, testuaren azalpen eta eraikuntza teorikoa ahalbidetzen duena. Eta horrek Funtzaturako Teoriara eta Kathy Charmaz soziologo eta irakasle emeritu estatubatuarrek (2005) teoria horren inguruan burutzen duen interpretazio berrira hurbiltzen gaitu, kategoriak eta teoriak ikertzaileak eraikitzen dituela kontsideratzen duen teoriara. Horrenbestez, hark gizarte-konstruksionismoaren barnean kokatu eta izendapen berria proposatu zuen: «constructivist grounded theory».

Ikerketa kualitatiboa egiteko metodologia bati dagokio *Funtzaturako Teoria*, Barney Glaser eta Anselm Strauss soziologo estatubatuarren eskutik sortua izan zena (Glaser eta Strauss, 1967). Metodo kualitatibo gisa, testuinguru naturalean jasotako datuetatik teoria sortarazi nahi du, eta errealitatearen formulazio teorikoak ahalbidetu. Hau da, gizarte gertaerak testuinguru naturalean ikertzearen bidez, aztergaia den gertaera hori azaltzen duten teoriak sortu nahi dira, horretan parte-hartzen duten gizabanakoen elkarrekintzetatik abiatuta. Azken helburua munduak nola funtzionatzen duen ulertzea da, gizadiaren ulertzeko erara sarbidea izatea. Zentzu horretan, ikertzailea ikasitako guztia desikastera behar-tzen du, eta soilik eskuratutako datuetan erdiratzen.

Geroago, Kathy Charmaz-ek *constructivist grounded theory* edo *funtzaturako teoria konstruktibista* proposatzen du (2005). Aurrekoarekin alderatuz, ikertzaileak pertsona parte-hartzaileekin batera ezagutzaren eraikuntzan duen inplikazioan jartzen du honek enfasia, eta, horrenbestez, ikerketan zehar ikertzailearen sinesmen eta balioetan arreta jartzearen garrantzia mahaigaineratzen du.

Gainbegiratzea IEPH teknika gisa aurkezterakoan, edukiaren analisiaren eta diskurtsoen analisiaren arteko batuketa egitea proposatzen da.

Gizarte-zerbitzuetan burututako ikerketa baten adibidea


Gainbegiratze-saioak ikerketa teknika gisa erabilia IEPH-an oinarritutako ikerketa martxan jarri da. Ikerketak 15 hilabeteko iraupena izan du, 2018ko irailean hasi eta 2020ko martxoan amaitu da, aurretik azaldutako prozesu metodologikoari jarraituz. Bederatzi gainbegiratze-saio burutu dira, eta horietan parte hartu duten profesionaletariko bakoitzak gainbegiratu beharreko egoera bat aurkeztu du, bere jardun profesionalean nolabaiteko zailtasuna, zalantza, dilema, gatazka edo galdera eragin diona. Saio guztiak grabatu eta transkribatu egin dira, profesionalek beren eguneroko praxian sentitu eta adierazitako zailtasun nagusiak errazago detektatzeko eta hobetzeko proposamenak izendatzeko helburuarekin.

Gainbegiratze-saioek zailtasunei eta hobetzeko aukerei buruzko hausnarketa egitea ahalbidetu dute. Tokiko gizarte-zerbitzuen testuinguruetan gizarte-langintzaren jardun profesionala hausnartzeko eta aztertze-ko aukera, diziplina bereko akademiko

eta profesionalak osatutako taldeen baitan. Helburua izan da jardun profesional hori hobetzea, zailtasunak modu eraikitzailean landuz eta esanahi berriak bilatuz, eta horretatik abiatuta ekintza-ildo estrategikoak proposatuz. Edukia zein diskurtsoa aztertzeko teknikak aplikatuz horien sistematizatzea lortu da, eta horrek proposatutako helburua lortzen lagundu du: jardun profesionala eraiki eta berreraikitzea.

Jadanik aurreratu den moduan, ikerketa honen objektua edo aztergaia lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuetan burutzen den gizarte-langintzaren praxi profesionala izan da. Hain zuzen, praxi horri buruzko hausnarketa egitea bilatu da, eguneroko lanean aurkitzen diren zailtasunak nabarmendu eta horiei esanahi berriak emateko; eta horiek gaingintzeko ekintza alternatiboei buruz hausnartzeko, horrela, lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuetatik burututako gizarte-langintza hobetzea lortzeko asmoz.

Gainbegiraketa-saioetan aurkeztutako «zailtasun-egoera profesional» horiek dokumentu batean idatziz ere islatu dira, profesional bakoitzak saioan aurkeztu aurretik idatziz landu baitu bere egoera. Dokumentu hori saio bakoitzaren ondoren berrikusteko eta eguneratzeko eskatu zaie, eta saioan planteatutako ikaskuntzak, kontzeptu berriak, hausnarketak eta/edo ekintza-estrategiak jasotzeko. Dokumentua berreraiki egin dute, erreferentziatzat kode batzuk hartuta. Kode horiek analisi-hausnarketako sei ardatzetan egituratuta daude, ikerketa honen aurre-analisi kategorია gisa (Berasaluze eta Ariño 2014: 109):



Iturria: egileek egin.

XIV. GRAFIKOA Analisi-hausnarketarako ardatzak

- *Testuinguruaren eta erakundearen ardatza.* Gure dilema edo zailtasunaren eta testuinguruaren (kulturala, ekonomikoa, politikoa, legegilea...) zein erakundearen edo gizarte-zerbitzuen testuinguruaren aldagaien arteko harremana islatzen du, dilema gainditzeko aukera edota oztopo gisa eragina izan dezaketenak. *Nola eragiten du testuinguruak eta profesionalaren erakundeak, bertako proiektuek, helburuek, egiturak, araudiak eta abarrek aurkeztutako egoeran?*
- *Ardatz tekniko-metodologikoa.* Kontuan hartzen ditu planteatutako zailtasunean eragiten duten alderdi teknikoak eta metodologikoak, era positiboan zein negatiboan eragin dezaketenak. *Zein metodologia mota eta teknika erabiltzen dira zeregin profesionalean planteatutako zailtasuna areagotu edo hori konpontzen lagundu dezaketenak?*
- *Ardatz intrapertsonala edo pertsonaren baitako ardatza.* Funtsean, aurkezten dugun zailtasunak edo gatazkak pertsonalki eta gure jardunbidean, gure funtzio sozialean zein identitarioan nola eragiten digun adierazten du. *Zein alderdik ahalbidetzen diguten aurrera egitea eta zeintzuk ez. Nola eragiten dio pertsonalki profesional bakoitzari aurkeztutako egoerak? Ondoez pertsonalik sortzen al dio? Ansietatea, beldurra, tristura, frustrazioa...*
- *Ardatz interpertsonala edo pertsonen arteko ardatza.* Pertsona erabiltzaileekin edo horien erreferentzia testuinguruekin izandako interakzioan zein lan taldeetan, egoerei buruzko analisisa egiterakoan edota horiei aurre egiteko estrategiak planteatzerakoan sortzen diren ikuspuntu desberdin eta konfrontazioei egingo lioke erreferentzia. *Erabiltzaile zein lan taldeekin ezartzen ditugun harremanek, planteatutako dilemari heltzeko sinergiak sor ditzakete, edo horretarako akordioak eragotzi. Nolakoak dira aurkeztutako egoeratik eratorritako interakzioetan jokoan jartzen diren harreman motak? Profesionalen artean, erakundearekin, artatutako pertsonekin...*
- *Ardatz epistemologikoa.* Behar ditugun ezagutzei dagozkien alderdiak (kontzeptuak, teoriak, ereduak) islatzen eta balioesten ditu, aurkeztutako zailtasuna hobeto ulertu eta gainditzeko eskura ditugunak. *Ba al dago aztertzen ari zaren egoera hobeto ulertzen lagunduko lizukeen teoria, egile edo esperientzia kontrastatu edota argitaraturik?*
- *Ardatz etiko-ideologikoa.* Planteatzen dugun egoera hobetzeko eta aldatzeko estrategiak ulertzeko, aztertzeko eta planteatzeko orduan, agertzen diren gure printzipio etiko-filosofikoei eta ideologiaren alderdiei egiten die erreferentzia. *Planteatutako zailtasunak badu zerikusirik lanbidearen printzipio etikoekin edo kode deontologikoari lotuta dago?*

Ikerketatik eratorritako emaitza nagusiak

Jarraian aurkezten den taulan ikerketatik eratorritako emaitza nagusiak jasotzen dira, aurreko atalean azaldu berri diren ardatzei jarraikiz. Bakoitzaren barnean zailtasun nagusiak eta aurre egiteko estrategiak adierazi dira:

XXIV. TAULA

Ikerketaren emaitzak

Testuinguruaren eta erakundearen ardatza	
<ul style="list-style-type: none"> — Ikuspegi protekzionistako gizarte-politikak. — Gizarte-zerbitzuen burokratizazioa. — Lan-gainkarga. — Erakundeen onarpen eta babes eskasa. 	<ul style="list-style-type: none"> ⇒ Lan komunitarioa berreskuratzea. ⇒ Administrazio-prozedurak sinplifikatzea. ⇒ Arreta-ratioak eta lan-kargak egokitztea. ⇒ Lehen mailako arreta eta horrek ematen duen prestazio teknikoa balioan jartzea.
Ardatz tekniko-metodologikoa	
<ul style="list-style-type: none"> — Erreferente teorikoen erabilera urria. — Gizarte-langintza gizarte-zerbitzuen sistemarekin parekatzea. — Gizarte-langintzaren berezko metodologia ezarri eta erabiltzeko oztopoak. 	<ul style="list-style-type: none"> ⇒ Esparru teoriko-metodologikoak erakitztea. ⇒ Gizarte-langintzaren funtsa eta metodologia berreskuratzea.
Ardatz intrapertsonala	
<ul style="list-style-type: none"> — Ondoez emozionala. — Mandatu instituzionalaren eta aukera profesionalaren arteko desadostasunak. — Eremu pertsonalaren eta profesionalaren arteko interferentziak. — <i>Burnout</i>¹ edo neke profesionalaren sindromea (erreta egotea) jasateko arriskua. 	<ul style="list-style-type: none"> ⇒ Autozainketa ahalbidetzea. ⇒ Identitate profesionala indartzea. ⇒ Hausnarketarako eta elkartruke profesionalerako guneak sortzea. ⇒ Gainbegiratze-prozesuetan parte hartzea. ⇒ Lanpostuen mugikortasuna erraztea. ⇒ Emozioak eta gatazkak kudeatzeko lanbide-prestakuntza ahalbidetzea.
Ardatz interpertsonala	
<ul style="list-style-type: none"> — Profesionalen eta herritarren arteko aintzatespen falta. — Lan-taldeen kohesio eta koordinazio mugatua. — Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-babeserako beste sistema batzuen arteko koordinazio-zailtasunak. 	<ul style="list-style-type: none"> ⇒ Pertsonetikiko harremana lantzea. ⇒ Lankidetzako praxia garatzea. ⇒ Taldeen zainketa sendotu eta hobetzea. ⇒ Talde-gainbegiratzean parte hartzea. ⇒ Diziplinartekotasuna sustatzea.

¹ Euskalterm Terminologia Banku Publikoak definitzen duenez, *burnout* sindromea: «neke fisikoa, emozional eta intelektualeko egoera da, lanbidearen eskakizunei erantzuteko gai ez izatera iritsi den langileak nabari duen estresaren ondorioz sortzen dena».

Ardatz epistemologikoa	
— Gizarte-langintzaren diziplina ahultasuna	<ul style="list-style-type: none"> ⇒ Gizarte-langintzari buruzko eta gizarte langintzarako ikerketak burutzeko hautua egitea, eta horretarako IEPH prozesuak hobestea. ⇒ Diziplinarteko etengabeko prestakuntza aldarrikatzea. ⇒ Gainbegiratze prozesuak bultzatzea. ⇒ Irakurri, idatzi eta argitaratzearen aldeko hautua. Ezagutzak partekatzea, sistematizatzea eta transferitzea bilatzea.
Ardatz etiko-ideologikoa	
— Dilema etikoak era egokian kudeatzeko zailtasunak.	<ul style="list-style-type: none"> ⇒ Oinarrizko prestakuntza eskatzea. ⇒ Esku-hartzearen erantzukizunak argitzea. ⇒ Etika Batzordeetara jotzea. ⇒ Gizarte-eskubideen urraketa egoerak agerian uztea.

Iturria: Berasaluze, A.; Ariño-Altuna, M.; Ovejas-Lara, C. eta Epelde-Juaristi, M., 2020.

Dena den, zailtasunen artean badira batzuk garrantzia berezia dutenak. Hori dela eta, hurrengo atalean lau zailtasun nagusi sakonki aztertuko eta landuko dira, eta ondoren, horiek gaingintzeko estrategiak proposatzera pasatuko gara:

Zailtasun nagusiak

Ikerketaren bidez identifikatutako zailtasun nagusiak berresten dituzte taldeko kideek, eta positiboki baloratzen da zailtasun horiek identifikatzea, lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuetatik burututako gizarte-langintzaren eguneroko praxiarekin lotutako zenbait ondorez hobeto ulertzen laguntzen baitute. Horrela, lau zailtasun nagusi identifikatu eta nabarmendu dira, gainbegiratze-saioetan eta ondorengo analisi-bileretan landutako elkarrizketa eta materialetatik abiatuta burututako hipotetizazio-lana oinarritzat dutenak. Jarraian, horietako bakoitza aurkeztuko dugu:

GEHIEGIZKO ARAUGINTZA ETA BUROKRATIZAZIOA

Gehiegizko araugintza eta burokratizazioa, oro har, administrazio publikoaren eta, bereziki, gizarte-zerbitzuen egiturazko joera da. Objektuaren konplexutasuna-

ren aurrean ziurgabetasunez betetako sistema bat erakusten dute gizarte-zerbitzuek, boterea, segurtasuna eta kontrola lortzeko arauak eta burokrazia oinarritzko tresna gisa erabiltzen dituen, horien gehiegizko erabilera eginez. Arau, protokolo eta prozedura horiek profesionalen esparru instrumental bihurtzen ari dira, esparru teoriko-metodologiko propioa eta herritarrekin lankidetzan aritzeko berezko praxia bertan behera uztearekin batera. Gure jarduera profesionalean parte-hartzeak eta ezagutza zientifiko-diziplinarrek gidatzen ez bagaituzte eta arauak eta burokrazia zientziaren kategoriara igotzen baditugu, behartuta gaude gizarte-langintza deskalifikatu eta desprofesionalizatzerara eta gizarte-zerbitzuetako edo esku-hartze sozialeko langile tekniko bihurtzerara, interbentzionismoan erorita, elkarlaneko praxitik urrun.

Ikerketan hainbat hipotesi eztatuidatu eta aztertu ditugu, beste egile batzuek aurkitu dituzten ekarpen batzuei jarraipena ematen dietenak, gizarte-zerbitzuetako gizarte-langile gisa arriskuan jartzen gaituztenak eta garrantzia eman eta aurre egin behar zaienak.

Honi dagokionez, ondorio nagusiek erreferentzia egiten diete asistentzialismoan oinarritutako jarrera protekzionistatik eta jarrera teknokratikoetatik abiatutako kudeaketa zein izapidetze burokratiko egoerei, desprofesionalizatzea dakartenak. Izan ere, Arantxa Hernandez-Echegaray gizarte-langileak dienez, egoera horietan «ezintasunaren, ikasitako babesgabetasunaren, konformismoaren eta immobilismoaren sentimendua sortzen da, eta horrek berekin dakar lanbide gisa autokontzeptu kaskarra eta anbizio baxua izatea» (2019: 17).

Zailtasun honi lotuta, ikerketatik eratorritako eta elkarlanean egindako eraikuntza hauek aipatu behar dira:

- Erakundearen ikuskera protekzionistegia bada eta gastuaren kontrolean oinarritzen bada, funtzio asistentzialen garapena bultzatzen du, baliabideen kudeaketa eta izapidetzea lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen zeregin nagusi gisa zehaztuz.
- Baliabideak izapidetzea gizarte-zerbitzuen funtsezko zeregina da, gizarte-ekintzaren zati bat; hala ere, zeregin horri ematen zaion neurritz gaineko garrantzia eta espazioa, eta burutzen den koordinazio, antolaketa eta plangintza desegokia, azkenean, zama desmotibatzaile bihurtzen dira profesionalentzat.
- Burokratizazioak lan-prozesu neketsuak eta errutinazkoak dakartza berekin, gainkarga eragiten dutenak eta sormena eta hausnarketa kritikoa galarazten edo kaltetzen dutenak. Gainera, gehiegi arautuz gero, esku hartzeko prozesuak protokolizatu egiten dira, eta administrazio-prozedura gizarte-langintzaren berezko praxi profesionalarekin nahasten da.
- Gizarte-langileek bigarren sozializazio profesionala esperimintatzen dute gizarte-zerbitzuen sistemaren eskuetan. Kasuen/baliabideen kudeaketan oinarritutako sozializazio *sasi-konduktista*, «bizirauteko» trebakuntza baten antzekoa.

GIZARTE-LANGINTZA ETA GIZARTE-ZERBITZUAK BERDINTZAT JOTZEA

Gizarte-zerbitzuen bilakaerarekin eta garapenarekin, gero eta «ordenatuagoa» eta arautuagoa den sistema baten aurrean aurkitzen gara, malgutasunerako eta sormenerako marjina gutxi duena. Horrek zaildu egiten du gizarte-langintza kritiko, dinamiko eta herritarren zein *gizarte-auziaren* aukera eta egoera aldakorretara egokitzen dena burutzea. Horrela, eta Salvador Minuchin eta H. Charles Fishman psikiatreek diotenari jarraikiz (2004), gizarte-langintzako sistema, *sistema bateratu* baten ezaugarri nagusiak dituen sistema bihurtzen da, hots: muga lausoak, bi sistemen arteko identifikazioa, askatasunik eta autonomiarik eza, nortasun-galera, gehiegizko mende-kotasuna, *gizarte-auzia* alde batera uztea, objektuen, helburuen, rolen, funtzioen eta zereginen nahasketa. Hori dela eta, antropologian doktorea den Xavier Pelegrí kataluniarrak azpimarratzen du «gizarte-zerbitzuek ezartzen duten lan egiteko moduak gizarte-langintzarentzat ezartzen duen morrontza» (Pelegrí 2014: 12) ekarri duela.

Gizarte-auzia, Europan XIX. mendean sortutako adiera da, garai hartako kezka politiko, intelektual eta erligiosoak barne-hartzen zituena, industria iraultza ostean sortu ziren arazo eta problematiken aurrean, besteak beste, txirotasun maila altuak eta langileriaren bizi baldintza eskasak.

Garai hartako gizarte kapitalista eredu liberalak ezaugarritzen zuen, aurreko garaietako eredu absolutistekin alderatuta aurrerapauso itzela izan zen. Eredu hau gizabanakoaren askatasunean oinarritzen zen, baina horrek bere egoera moral zein materialaren erantzule bakar ere bihurtzen zuen norbanakoa. XIX. mendean zehar, industrializazioaren garapenak agerian utzi zituen bere alderik ilunenak: gizarte-arloan langileen lan-baldintza txarrak eta horien familien bizi-baldintza gogorak azpimarra daitezke. Horrenbestez, gero eta nabariagoa zen liberalismoak erakusten zuen gaitasunik eza langileriaren bizi-baldintzak hobetzeko.

Horren aurrean, beharrezkoa ikusi zen Estatuaren esku-hartzea, «gizarte-auzia» deitzen hasiak ziren hori konpondu ahal izateko. Langileak eratzten eta eskubideak aldarrikatzen hasi ziren, eta egoera berri horretatik ideologia oso bat sortu zen, aurrekoa (eredu liberala) kolokan jartzen zuena: sozialismoa, oro har esanda (haren barruan sozialismoa bera eta anarkismoa sartzen ziren) (Zabalo, 2008: 19).

Labur esanda, beraz, garaiko problematikei eta horiei aurre egiteko aukerei egingo lioke erreferentzia *gizarte-auziak*.

Gure ikerketarekin atera ditugun ondorioek *morrontza* hori indartu baino ez dute egiten, eta erantzun beharreko egoera posible batzuk errepikatzen dituzte, hala nola: gizarte-zerbitzuen sistemak gizarte-langintza asimilatzea; erakundeen enkargutik ideologikoki, teknikoki eta prozesualki baldintzatutako praxia, eta horrek eragin dezakeen botere-abusua, bai eta harreman asimetrikoak ere (up-down), izan ere, ez da kontuan hartzen elkarrekiko lankidetzak erabiltzaile eta profesionalaren artean. Ho-

rren aurrean, Libertad González soziologian doktorea eta gizarte langilea eta Alfonso Rodríguez gizarte-langintzan doktoreak dioskute norbera (eta, beraz, erabiltzailea) bere bizitzaren aditua dela onartu behar dugula, subjektuak ezjakinak direla uste izatea ezezagutzaren isla baita (2020: 147). Horri buruzko beste ondorio batzuk honako hauek liriateke:

- Gizarte-zerbitzuen sistemak gizarte-langintza asimilatzeak arriskuan jartzen ditu kalitatezko arreta eta hausnarketan zein lankidetzan oinarritutako gizarte-langintza. Horrek gizarte-langintzaren itxura distorsionatua eta askotan negatiboa erakusten du, kontrol figura gisa agertuz, lankidetzaren eta laguntza oinarritzat dituen figura gisa agertu beharrean (Zubillaga-Herran eta Berasaluze, 2021).
- Aipatutako morrontzak are zaugarriago bihurtzen gaitu berez egoera hauskorrean dagoen gure estatus sozio-profesional feminizatuaren ikuspegitik; izan ere, Belen Lorente gizarte-langilea eta antropologian doktorea denak eta Natalia Luxardo gizarte-langilea eta gizarte-zientzietan zein kulturaren eta gizartean doktorea denaren arabera «gizarte-zaintza eta laguntza, ezinbesteko funtzio ekonomiko eta soziala betetzen duten arren, gizartean eta lanean aurrera egiteko arrakastatsutzat jotzen diren jardueretatik kanpo daude» (2018: 105).
- Lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuetan ez dago gizarte-langintzako esparru teoriko-metodologikorik, partaidetzaz eraikia, aitortua eta partekatua denik. Metodologiek sistemaren tresnei eta araudiei erantzuten diete, estrategia profesionalak erabakitzeari eta lantzeari baino lehen.
- Biztanleriaren etiketek eta «adituaren» diagnostikoez (aldebakarrekoak direnak, parte-hartzaileak izan beharrean) eragotzi egiten dute elkarlanaren bidez hobetzeko eta aldatzeko estrategiak eraikitzea.

GIZARTE-LANGINTZA DIZIPLINAREN AHULTASUNAK

Argi dago gizarte-langintza diziplina gisa ahulduta eta profesionalki arinduta dagoela, eta sakontasun epistemologikoa zein ekintza profesionala behar dituen *ezagutza-corpus* bat duela. Ahulezia eta hauskortasun horren ondorio negatiboak agerian geratu dira gainbegiratze-saioetan. Gizarte-zerbitzuen sistemari dagokionez, eta eguneroko lanbide-jardunerako baliagarriak diren ezagutza urriak ikusita, gizarte-zerbitzuen sistemak zehazten du zer eta nola egin behar den lan profesionala. Herritarren eskaerei dagokionez, eta esparru teoriko-metodologiko eta tekniko adosturik ez dagoela kontuan izanik, praxi profesionala, lehen adierazi dugun bezala, administrazio-izaerako lan-prozesu bat da, funtsean baliabideak kudeatzera edo izapidetzera mugatzen dena.

Diziplinaren ahultasun hori hainbat elementutan zehazten da: hala nola, objektuaren konplexutasunean; gizarte-langintzaren parametroei eta erabiltzaileen parte-hartzeari erantzuten dion diagnostiko baten garapen eskasean; gure lanbideak

erakunde-sistemaren barruan duen posizio ahulean; diziplina-tresna eta tekniken garapen eskasean; gehiegi mugatutako hizkuntzan; gizarte-langintzatik burututako ikerketa eskasean; unibertsitateen eta lanbide-baliabideen arteko lankidetzaren faltan. Teresa Zamanillo gizarte-langintzako katedradunak (2008), adibidez, gizarte-langintzaren ondare teoriko-praktikoaren egoera ezegonkorrari egiten diote erreferentzia, alde bate-tik, praktikan egiten den enfasiatatik, eta, bestetik, praxiarekin alderatuta egiten den ikerketa eskasagatik.

Herritarren eskaeren aurrean dagoen hauskortasunari dagokionez, ikusi dugu banakako edo familiako esku-hartzeetan zentratutako gizarte-langintzak, berehalakotasunezko izaera duenak, ikusezin bihurtzen duela *gizarte-auzia*, gizarte desafiliazio eta desabantaila egoeren azterketa kritikoa itsutzen duelarik. Teresa Zamanillo eta Maribel Martin gizarte langileen hitzetan, «ekitate eza, pobrezia eta gizarte-bazterkeria sortzen dituzten egiturazko faktoreei buruzko isiltasuna, kezagarria da, uste dugu banakako eta familiako gizarte-langintzak duen zentraltasunak ezin duela komuniteko gizarte-langintzaren kalterako edo ordezkapenerako izan» (2011: 111). Hauskortasun hori azpimarratzen duten beste gako batzuk honako hauek dira:

- Praxi profesionaletik abiatutako ekoizpen teoriko eta ikerketa epistemologiko eskasa, eta gizarte-langintzako ereduaren garapen urria; horrek administrazio protokoloetan oinarritutako diagnostikoak egitea dakar, irizpide profesionalean oinarritutako diagnostikoak egin beharrean.
- Egoerak edo arazoak definitzeko kontzeptu «kristalizatuak» (finkoak, aldaezinak) erabiltzeak zaildu egiten ditu elkarlanean eta askatasunean oinarritutako elkarriketak eta mutualitate harremanak, eta horrek zailtasun handiagoak dakartza praxi profesionalean pertsonekin/herritarrekin lankidetzan eraikitako prozesuak eta emaitzak ebaluatzeko.
- Profesionalak *erresistentzia*-posizio batean kokatu behar dira, baliabide jakin bat lortzeko eskaera «tuneatu» baten berehalakotasunari ez erantzuteko, eta gizarte-langintzaren parametroetatik abiatuta eskaera parte-hartzean oinarrituta berreraikitzea planteatzeko.
- Hainbatetan agertu diren ondorez emozionalak, frustrazioak, segurtasunik ezak, beldurrak eta abarrek zerikusi handiagoa izan dezakete gizarte-zerbitzuen sisteman duten posizioarekin eta diziplina zein estatus sozialaren nolabaiteko ahultasunarekin, profesionalen hauskortasun pertsonal edo emozionalarekin baino.

GEHIEGIZKO INPLIKAZIOA LANBIDE-JARDUNEAN

Gainbegiratze-saio desberdinetan agerian geratu da profesionalek, beren lana garatzeko, lotura edo harreman bat eraiki behar dutela pertsonekin, familiekin, taldeekin eta/edo komunitatearekin. Enpatian, konfiantzan, onarpenean, elkarrekiko-

tasunean eta horizontaltasunean oinarritutako harremana, hain zuzen. Harreman hori sortzeko, trebetasun profesionalaz edo gaitasun teknikoetz gain, benetakotasuna behar da, profesionalaren inplikazioaren bidez. Horrek lan intrapertsonala, barnekoa eskatzen du, identitate pertsonal-profesionalaren garapena eta eraikuntza, hausnarketaren, autoezagutzaren, autokritikaren eta sakontze etiko-epistemologikoaren bidez.

Horri guztiari erantzun ahal izateko, profesionalaren inplikazioa behar da, baina baita bere lanbidea burutzen duen erakundearena ere. Profesionala ez da beti jabetzen, edo ez du nahi edo ezin du, bere zati hori artatzearen garrantziaz eta beharraz. Erakundeak, berriz, begirada utilitarista eta epe laburrekoarekin, ez dio jaramonik egin nahi izaten. Hausnarketa horretatik abiatuta, beste zailtasun batzuk planteatzen dira:

- Harremana, pertsona erabiltzaileak nahiz profesionalak eraldatzen duten prozesua da. Harreman horrek askatasunean, konfiantzan, mutualitatean eta osagarritasunean oinarrituta egon behar du, eta, horrenbestez, gizarte-langintzaren praxiaren ardatz gisa ulertu behar da.
- Premisa horiei erantzuten dien harreman batek ez ditu bere gain hartzen ez dagozkion erantzukizunak, ordezkaritza instituzionalaren edo praktika asistentzialista eta asimetrikoen arabekoak direnak.
- Egiatzatutako ondoez emozionalak (frustrazioa, segurtasunik eza, beldurra, bakardadea, sufrimendua, eta abar) profesionalen zaintza pertsonala burutzearen beharra ere agerian jartzen digu. Ahaztu gabe, askotan, lan-baldintzek, baldintza pertsonal eta profesionalek (isolamendua, laneko estresa, bakardadea, «partekatua ez den» erantzukizuna, espazio desegokiak, aintzatespen eskasa, mendekotasun hierarkikoa, eta abar) ez diotela mesederik egiten ez oreka pertsonalari, ez eta garapen profesionalari ere.
- Esparru pertsonaleko alderdiak, hala nola, norbere balioak, esperientziak, bi-zipenak eta abar, harreman profesionalean agertzen dira, eta horrek, askotan, balio-gatazka (profesionalak hobesten dituenak erabiltzaileak hobesten dituenarengandik ezberdinak direnean), laguntza-harremanaren kontrola (gizarte-langileak bere irizpide profesionala erabiltzaileen autonomiaren eta erabakimenaren gainetik ezarriz), transferentziak eta kontratransferentziak eta abar eragiten ditu, bai eta printzipio desberdinen arteko dilema etikoak ere. Horren adibide bat izan daiteke autonomia eta askatasuna mendekotasunaren eta protekzionismoaren balioekin kontrajartzen direnean.

Zailtasunei aurre egiteko estrategiak

Zailtasun nagusiak detektatzeak, gizarte langileek lehen mailako arretako gizarterbitzuetan bizi duten egoera eta gaur egungo praxi profesionalaren baldintzak eta

ondorioak hobeto ulertzen lagutzen du. Hurbilketa diagnostiko horretatik abiatuta, ikerketa talde osoa bildu da ekintza-eraldaketarako ildo estrategiko batzuk lantzeko. Horrela, gizarte-zerbitzuetako lehen mailako arretan gizarte-langintza hobetzeko oinarrizko hiru ildo estrategiko edo arlo identifikatu dira. Era berean, ildo horietariko bakoitzaren barnean ekintza batzuk azpimarratzen dira, horiek gauzatzea bideratzeko. Jarraian hiru ildoak eta dagozkien ekintzak jasotzen dira.

PROFESIOALEN AUTOZAINTZARAKO ESPAZIOAK AHALBIDETZEA

Planteatutako ekintza-ildoetako bat zaintza pertsonal-profesionalari lotuta dago, horrek aldaketa eta hobekuntza lortzeko duen garrantziagatik, zailtasunen azterketan egiaztatu ahal izan dugunez. Hona hemen gauzatzeko proposatzen diren zenbait ekintza:

- Hausnarketa eta truke profesionalerako guneak sortzea, autoprestakuntzarako eta ezagutzak elkarrekin eraikitzeko bidea ematen dutenak.
- Erakundeen urteko planetan gainbegiratze profesionala sartzea, parte-hartzea borondatezkoa eta txandakakoa izanik (zailtasun-egoeren aurkezpena kide desberdinen artean txandakatuz burutuko da).
- Lantaldeen funtzionamendua eta kohesioa hobetzea, profesionalarentzako laguntza gisa ulertuta. Talde-arduradunei lidergoari buruzko prestakuntza emanez eta taldeko bilerak birdefinituz, izaera informatiboaz harago, irizpideak adostea, ekintzak ebaluatzea eta taldearen harreman-dinamikak lantzea ahalbidetuko dutenak.
- Gizarte-langintzako profesionalen inplikazioa lortzea erantzukizuneko lanpostuetan.

GIZARTE-LANGINTZA DIZIPLINA GISA INDARTZEA

Bigarren ildo honetan, gizarte-langintzaren diziplinari eta hura indartzeko beharri lotutako alderdiak lantzen dira. Beharbada, hori da ahalegin eta dedikazio handiena eskatzen duen lan-ildoetako bat, baina baita diziplinaren barnean aldaketa edo hobekuntza handienak ekar ditzakeena ere. Ekintza posible batzuk identifikatu dira:

- Gizarte-langintzaren marko teoriko-metodologiko eta tekniko burutzea lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuetan (dena arau eta protokoloen esku utzi beharrean).
- Gizarte-langintzaren diziplinara bideratutako etengabeko prestakuntza egokitzea.
- Gizarte-langintzako profesionalak prestatzea, gainbegiratzailer gisa jarduteko.
- IEPH metodologietan oinarritutako ikerketak garatzea, akademia-jardunbide lankidetzan (hau da, unibertsitatean ezagutza sortzen eta zabalitzen dihardu-

- ten eta egunerokoan gizarte-langintzako praxia burutzen dabiltzan profesionalen artean), gizarte-langintzari buruz eta gizarte-langintzarako.
- Ezagutzak eta lanbide-praxia transferitzea.

GIZARTE-AUZIA IKUSGARRI EGIN ETA ARRETA ESKAINTZEA

Hirugarren estrategia *gizarte-auzia* alde batera ez uzteko beharrari buruzkoa da; izan ere, hausnarketa- eta analisi-prozesuan zehar, behin eta berriz agerian geratzen da desberdintasun sozialen sorrera eta izaera estrukturala. Hona hemen proposatutako zenbait ekintza:

- Herritarrek parte-hartzeko guneak sortzea, horiek direlako *gizarte-auzia* lehen pertsonan bizi dutenak eta, beraz, horren berri eman dezaketanak.
- Eskubide sozialak urratzen dituzten egoerak ikusaraztea, erantzukizunak argituz eta helaraziz.
- Gizarte-zerbitzuetako eta gizarte-langintzako sistemak bereiztea, honako gai hauek argituz: funtzio soziala, xedea, helburuak, metodologiak, teknikak, mugak, gaitasunak, eta abar.
- Zerbitzuen eta prestazioen kudeaketaren antolaketa eta plangintza hobetzea, eta prozedura burokratiko-administratiboak sinplifikatzea.
- Arreta-ratioak, lan-kargak eta erantzukizunen banaketa egokitzea lan-taldeen, arreta kalitatezkoagoa izan dadin.
- Gizarte-zerbitzuen arloko legedia betetzea eta beharrezko baliabide ekonomikoekin inbertsioa bermatzea.

Ondorio nagusia: gainbegiratzea elkarlaneko ikerketa burutzeko aukera

Ulertzen dugu gizarte-langintzan ez dagoela partaidetzarik gabeko ikerketarik eta testuinguruak elkarriketa partekatuaren bidez eraikitzen direla. Paulo Freirek pedagogo eta filosofo brasildarrak esango lukeen bezala, benetako ekintza dialogikoak «ulermena, kultur sorkuntza eta askatasuna sustatzen dutenak» (1975: 67) izango dira; edo Mikhail Bakhtin historialari, literatur kritiko eta hizkuntzaren teoriko zein filosofo errusiarra parafraseatuz (1993), pertsonen arteko elkarriketetan eraikitzen dira hausnarketa kolektibo batetik eratorritako esanahiak.

Ikuspegi horretatik begiratuta, aurkeztu berri den ikerketa-eredua hobetsi nahi da, ikerketaren eta ekintzaren arteko konbinazioa bilatuz, lankidetzeta eta berreraikitze positiboko irizpideetatik abiatuta, ikerketa positibistari alternatiba bat eskaintzeko helburuarekin. Gainbegiratzea, abiapuntu horiek bateratzen dituen aukera bat dela uste da, gizarte-langintza diziplina gisa eta gizarte-zerbitzuetako praxi gisa hobetzen laguntzen duena.

Eredu honen helburua da behatu eta autobehatu beharreko hainbat alderdiri eta konpromisori buruzko azterketa kritiko-gogoetatsu bat lortzea: hala nola, nor-tzuk gauden inplikaturak, zer erantzukizun partekatzen ditugun eta testuinguruek nola eragiten duten; nola izendatzen eta berrizendatzen ditugun zailtasunak edo dilemak, eta zer erreferente teoriko-praktikorekin; nola eragiten dieten gure aukerei, emozioei eta erabakiei, eta nola eragiten dieten artatzen ditugun pertsoneri; nola elkartzen diren gizarte-langintzaren berezko metodologia eta teknikak; zer balio eta printzipiok esku hartzen duten erabakiak hartzean eta ekintza-estrategiak lantzean; zein araudi eta prozedurak arautzen eta/edo mugatzen duten lanbidea; nola hartzen dugun kon-tuan *gizarte-auzia* edo indibidualetik kolektiborako jauzia; eta abar.

Gainbegiratzearen bidez burututako IEPH ereduak tokiko gizarte-zerbitzuetako gizarte-langintzaren hobekuntzari buruzko ikerketa batean aplikatzeak agerian utzi du metodologia horren potentziala. Bai prozesuaren ikuspegitik, ikerketa horretan parte hartu duten pertsona guztientzako ezagutzak ikastea eta berreraikitzea ekarri baitu; eta bai gizarte-langintzako testuinguru jakin batzuetako lankidetzak eraikitzailearen ikuspegitik. Ezagutzaren ikuspegi indibidualaren ordezkari perspektiba bat bereganatuz, elkarrekin lortu dugu jarduera profesionalean beharrezkoak diren aldaketan aldeko zentzumenak nabarmentzea, balio orokortzaileak eta transhistorikoki ez dutenak, baizik eta jakintza partekatu eta testuinguru historiko eta geopolitiko batean oinarrituta daudenak.

Dena den, kontziente izan behar dugu ikerketa neketsuak direla, parte-har-tzaileen konpromiso handia eskatzen dutenak. Hala ere, gure aukera berresten dugu, eta, elkarlanean aritzen garen testuinguruekiko analogian, badakigu gure egitekoa etengabeko «eraikuntzan» egotea dela.

Sakontzeko

- Alonso, L. E. (1998). *La mirada cualitativa en sociología: una aproximación interpretativa*. Fundamentos.
- Andersen, T. (1987). The Reflecting Team: Dialogue and Meta-Dialogue. *Clinical Work. Family Process* 26(4), 415-428.
- Anderson, H. eta Swim, S. (1995). Supervision as Collaborative Conversation: Connecting the Voices of Supervisor and Supervisee. *Journal of Systemic Therapies*, 14, 1-13.
- Anderson, H. (1997). *Conversation, language, and possibilities: A postmodern approach to therapy*. Basic Books.

Interseksionalitatea sakontze demokratikorako ikerketa-tresna gisa: teoria eta adibideak

Idoia del Hoyo Moreno, Miriam Ureta García, Uxue Zugaza Goienetxea
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena. Interseksionalitateari buruzko narratiba akademikoek Feminismo Beltzaren ibilbidean kokatzen dute haren sorrera eta genealogia, Kimberlé Crenshaw legelari afroamerikarrak (1989) gurutzaketaren metafora proposatzen duenean, hain zuzen (Collins eta Bilge, 2016; Collins, 2019). Hasierako ekarpen horretatik abiatuz, interseksionalitateak izandako ibilbide, erabilera, ikuspegi eta berrikuspen ugari, haren izaera heuristikoa azalerratu dute, gure inguruko errealitatea ezagutzeko eta ikertzeko tresna edo disposizio analitiko gisa aurkeztuz (Cho, Crenshaw eta McCall, 2013: 786-8). Interseksionalitatea, beraz, «desberdintasuna, diferentzia, eta hauek boterearekin dituzten harremanen inguruan hausnartzeko modu bat» dela esan genezake (*ibid.*, 2013: 795); justizia soziala ardatz duen leiar analitikoa, beraz (Martínez-Palacios eta Martínez, 2019: 9). Posizio epistemologiko kritiko batetik abiatuz, kapitulu honetan, nondik eta noren tresnekin pentsatzen eta ikeretzen dugun problematizatzea eta birpentsatzea ezinbestekoa dela defendatzen dugu, eta interseksionalitatea horretarako ezinbesteko tresna dela. Horrela, eta interseksionalitatea aurkezteaz gain, horrek gure ikerketetan izan ditzakeen bi erabilera posible aztertzen dira hurrengo lerroetan, sakontze demokratikorako prozesuen diseinuan, inplementazioan eta garapenean aurrera egingo duen ezagutza lantzeko helburuarekin.

Sarrera: interseksionalitatea eta sakontze demokratikoa

1989. urtean, Kimberlé Crenshaw-k *gurutzaketaren metafora* proposatu zuen emakume afroamerikarrek generoaren eta arrazaren arteko gurutzaketan oinarritutako zapalkuntzaren inguruko bizipenen heterogeneotasuna nola gorpuzten zuten azaltzeko (1989: 149). Ariketa honekin, eta emakume afroamerikarrek pairatzen zituzten zapalkuntza-egoera eta esperientzien konplexutasuna agerian uzteaz gain (Collins eta Bilge, 2016: 65), Crenshaw-k zapalkuntza pentsatzeko erabili ohi diren marko monistek eragiten dituzten gabeziak ere salatu zituen (1989: 140; 1991). Interseksionalita-

tea premisa nagusi batetik abiatzen da, beraz: testuinguru jakin batean, desberdintasuna modu *gurutzatuan* bizi eta pairatzen dela, generoa, klasea, jatorria, arraza, adina, hizkuntza, erlijioa, etnia, sexualitatea eta/edo kapazitismoa bezalako ardatzak oinarritzat hartuta (ik. Martínez-Palacios eta Martínez, 2017, 2019).

Gurutzaketaren metafora: nahiz eta interseksionalitatearen ideia ez zuen Kimberlé Crenshaw-k asmatu, bera izan zen *interseksionalitate* hitza erabili zuen lehenengo pertsona. Hitzaren esanahia azaltzeko, errepide-gurutzaketaren analogia erabili zuen. Berak azaltzen duenez: «diskriminazioa, interseksio edo bidegurutze batean gurutzatzen den trafikoaren antzera, norabide batetik zein bestetik joan-etorri daiteke. Bidegurutzean istripu bat gertatzen denean, noranzko askotatik joan-etortzen diren autoetako batek sor dezake, baita guztietatik datozen auto guztiek ere» (1989: 149). Analogia honekin Crenshaw-k zera erakusten du: diskriminazioa (baita agentzia eta erresistentziarako gaitasuna ere) inoiz ez dela bide edo ardatz bakar batean gertatzen, ardatz edo bide horien artean gertatzen diren gurutzaketa eta nahasketetan gertatzen baita. Emakume afroamerikarrek sakonki teorizatutako ideia da interseksionalitatea: generoaren eta arrazaren arteko gurutzaketan kokatzen baitira bizitako zapalkuntza zein erresistentziak.

Gurutzaketaren metaforak, beraz, interseksionalitatearen oinarritzko premisa honi egiten dio erreferentzia: boterea interseksionalki gertatu eta egikaritzen dela, hain zuzen.

Zapalkuntza aztertzeako marko monistak: aurreko ideiare lotuta (gurutzaketaren metafora), zapalkuntza aztertzeako marko monistak edo unidimentsionalak, diskriminazio-egoera bakar bati arreta ematen diotenak dira; hau da, botere-harremanak eta zapalkuntza-egoera hauek elkarrekiko independenteak balira bezala ulertzen dituztenak (May, 2015). Crenshaw beraren hitzei eta lanari jarraituz, beraz, «arrazak eta generoa elkarrekiko baztertzailleak diren esperientzia zein kategoria analitiko bezala tratatzeko joera» dute marko monistek (1989: 139).

Crenshaw-ren hasierako ekarpenetik abiatuz, ugariak izan dira interseksionalitateak izan dituen erabilerak, aurrerapenak eta berrikuspenak (ikusi Bilge, 2010a; May, 2015; Carasthesis, 2016; Hancock, 2016; Collins eta Bilge, 2016; Collins, 2019). Baina horien guztien artean, interseksionalitatea *gurutzaketatik* haratago pentsatzen duten ekarpenak azpimarratu nahi ditugu lan honetan; boterearen «dinamika kokatuak» antzeman eta horien azterketa kritikoa (Cho, Crenshaw eta McCall, 2013: 786-8) ahalbidetzen duten lanak, hain zuzen.

Ildo horretan kokatzen da 2000. urtean Patricia Hill Collins soziologo afroamerikarrek berrargitaratutako *Pentsamendu Feminista Beltza*. Lan horretan, AEBko emakume beltzen ezagutza-modu bereziak azaltzen ditu Collins-ek, Gizarte Zientzietan erabiltzen ditugun ohiko tresnekin «azpiratutako ezagutzak» ikertzeko dauden zailtasunak erakutsiz (2000: 525). Collins-en lanak, gure ikerketak burutzeko erabiltzen ditugun tresna eta posizio teoriko zein epistemologikoez birproduzitzen dituzten baz-

terketen eta botere-harremanen inguruko kezka partekatutik abiarazten da (ikusi Anzaldúa, 1987; Lorde, 1988; Harding, 1993; Quijano, 2000; Tuana, 2006; Lugones, 2008; Cabnal, 2010; Bidaseca, 2011; Ciriza, 2015). *Pentsamendu Feminista Beltza*, beraz, ezagutza sortzeko eta balioztatzeko *bestelako* praktikak sortu eta erabiltzearen aldeko aldarri kolektibo honetara batzen da.

Baina Patricia Hill Collins eta gainerako pentsalariak identifikatutako bazterketa eta botere-harremanak, pentsatzeko zein sortzeko erabiltzen ditugun tresnetatik eratorriak direnak, sakontze demokratikoa helburu duten proiektu eta ikerketetan ere birproduzitzen dira (Young, 2000; Martínez-Palacios, 2017). Sakontze demokratikoa helburu duten prozesu eta dispositiboek, beraz, horiek ekoiztu eta garatzen dituzten pertsonen posizio sozialarekin bat egiten dute, mundua pentsatzeko erabiltzen ditugun kategorietan txertatuta dauden logika dominanteekin bat eginez (Martínez-Palacios, 2017: 54). Prozesu eta dispositibo hauek, orduan, ez dira neutroak genero, klase sozial, arraza zein jatorri aldetik, sortzen dituztenen posizioak horietan txertatu eta horien arabera birproduzitzen baitira.

Sakontze demokratikoa eta interseksionalitatea «justizia sozialaren aldeko proiektua elikatzeko duten interesarengatik hertsiki lotuta» dauden heinean (Martínez-Palacios eta Martínez, 2019: 9) eta «*praxi* kritikoaren bidez egituratzen diren eta justizia soziala helburu duten proiektuak» direnez gero (Collins, 2017: 21), kapitulu honetan, bien arteko loturaren potentzial erradikala dagoela defendatzen dugu. Horrela, ezagutza kritikoaren sorreran *praxi* interseksionalak daukan eta izan dezakeen irismena aztertuko dugu hurrengo lerroetan, interseksionalitatearen heuristikak izan ditzakeen *erabilera* batzuen inguruan hausnartuz. Helburua, beraz, bikoitza da: alde batetik, interseksionalitatea «sentsibilitate analitiko» gisa defendatzea (Cho, Crenshaw eta McCall, 2013: 795); eta bestetik, sakontze demokratikoko prozesuen diseinu eta garapen kritikoan sakontzeko duen ahalmena erakustea, desaktibatu nahi ditugun zapalkuntza- eta pribilegio-harremanen konplexutasuna kontuan hartuz.

Interseksionalitatea *gurutzaketatik* haratago: funtsezko dimentsioak eta premisak

Arestian esan bezala, lan honek interseksionalitatea disposizio edo sentsibilitate analitiko bezala teorizatzen eta erabiltzen dituzten lan eta autoreak ditu oinarri (ikusi Cho, Crenshaw eta McCall, 2013; Collins eta Bilge, 2016; Collins, 2019). Interseksionalitatea *pentsatzeko modu* gisa hartzen duen hurbilketa bat da; errealiterara hurbiltzeko eta hura irakurtzeko modu bat, «luzaroen pentsamendu eta politika feminista eta antiarrazistak eragotzi dituzten ideia, estrategia politiko, araudi eta errotutako ohitura mental» guztien problematizazio kritiko eta erradikalaren alde egiten duena (May, 2015: viii). Interseksionalitatea *gurutzaketatik* haratago pentsatzeko aldarriarekin, beraz, boterearen dinamiken konplexutasuna aztertzeko konpromisoa hartzen

duen «analisiak egiteko» modu gisa (Cho, Crenshaw eta McCall, 2013: 786-8) pentsatzearen beharra babestu nahi dugu.

Pentsatzeko modu interseksional hori (*pentsamolde interseksionala* ere dei dezakeguna), *boterearen zerbitzura* dauden tresnek sortutako bazterketei aurre egiteko helburua duen begirada kritiko eta erreflexiboan oinarritu eta gorpuztu egiten da. Baina horretarako, ezagutza forma justuagoak eraikitzeke aukera eskaintzen duen interpretazio-marko bat sortzea ezinbestekoa da; gure ikerketa-praktikak gidatuko dituzten elementu eta premisen multzoa, hain zuzen. Horrela, eta Patricia Hill Collins-en lana oinarritzat hartuz, honako hauek lirarteke interseksionalitateki abiarazitako edozein ikerketa kritikok kontuan hartu beharko lituzkeen «zimenduak» (2019: 45).

XXV. TAULA

**Interseksionalitatearen interpretazio-markoa:
funtsezko dimentsioak eta premisak**

Funtsezko dimentsioak	Premisak
Erlazionaltasuna Boterea Gizarte-desberdintasuna Testuinguru soziala Konplexutasuna Justizia soziala	<ol style="list-style-type: none"> 1. Arrazak, klaseak, generoak eta antzeko botere-sistemek elkarren mendekotasuna dute, eta elkar eraikitzen dute. 2. Botere-harreman interseksionalek desberdintasun sozial konplexuak sortzen dituzte, arraza, klase, genero, sexualitate, nazionalitate, etnizitate, kapazitismo eta adinaren mende daudenak. 3. Taldeek eta gizabanakoek botere interseksionaleko harremanetan duten posizio sozialak eragina du gizarte-munduari buruzko esperientzietan eta ikuspegietan. 4. Tokiko, eskualdeko, nazioko eta nazioarteko testuinguru jakin batean gizarte-arazoak konpontzeko, analisi interseksionalak egin behar dira.

Iturria: Collins, 2019: 44.

Taulan ikus dezakegun moduan, sei dira interseksionalitateak bai metodologikoki bai ikerketa-gai gisa mugiarazten dituen funtsezko dimentsioak: erlazionaltasuna, boterea, desberdintasun sozialak, testuingurua, konplexutasuna eta justizia soziala (*ibid.*: 44). Burutzen ditugun analisiak zorrotzen dituzten dimentsioak dira, biolentzia epistemikoari aurre egin eta tradizioz alteritatera eta *bestetasunera* baztertuak izan diren esperientzia, ahots eta gorputzen boterea eta legitimotasuna aitortzen dituztenak. Horrekin batera, autoreak zehazten dituen premisek ikuspegi interseksionalaz baliatzen diren lanek partekatzen dituzten printzipio axiomatiko gisa funtzionatzen dute.

Intersekzionalitatea Collins-ek proposatutako funtsezko dimentsioak eta premisak gain-hartzen dituen ikuspegi analitikotzat hartzea, beraz, garatzen ditugun ikerketetan ikuspegi hau txertatzen duten estrategia epistemologiko zein metodologikoak praktikan jartzeko aukera iradokitzailea suertatzen da. Horrek, baina, esan nahi du intersekzionalitatea klasismoaren, sexismoaren, arrazismoaren edo/eta inperialismoaren arteko gurutzaketetan kokatzen diren emakumeen ibilbide pertsonal, aktibista eta intelektualetatik abiarazten den praxian eta ezagutzan kokatua izan behar duela; beraz, sarritan baliogabetutako eta ez-baliatutzat hartutako ezagutza azpiratuak aitortzea eta legitimatzea (Collins, 1998). Intersekzionalitatea «aurkikuntzarako ibilbide-orri» gisa ulertuta (Collins eta Bilge, 2016: viii), ideia hauek guztiak ikerketa kritikoaren bideari jarraitzen dioten erreferentziak dira. Premisek eta oinarriko dimentsioek, orduan, ez dute soilik intersekzionalitatearen izaera «multifazetiko» agerian uzten (May, 2015: 33), ikuspegi teoriko, estrategia metodologiko eta tresna analitiko ezberdinen bidez mobilizatutako dimentsioetan dagoen sentsibilitate analitikoa ere badela azpimarratzen dute.

Intersekzionalitateak pentsatu eta ikertzeko proposamenak

Hurrengo ataletan aurkeztuko ditugun adibideetan, intersekzionalitatea *gurutzaketatik* haratago pentsatu eta aplikatzeko bi eredu ikusiko ditugu. Lehenengo adibidean, *Zumarragako emakumeen zapalkuntzak eta erresistentziak azaleratuz: demokrazia parte-hartzailean justizia sozialetik sakontzeko analisia* (aurrerantzean, *Zapalkuntzak Azaleratuz*), Zumarragako emakumeek mobilizatzen dituzten zapalkuntza-logiken eta erresistentzien analisi konplexu bat argiztatzeko da, industria desegiteko testuinguru sozioekonomikoan (Ahedo eta Ureta, 2019). Bigarren adibidean, *Estigma boterearen zerbitzura: zapalkuntza eta erresistentziak intersekzionalitateak aztertzen* (aurrerantzean, *Estigma*), estigma soziala problematizatu, birkontzeptualizatu eta aztertzeko intersekzionalitatea erabiltzen da, leiar analitiko gisa eskaintzen dituen aukeretan sakonduz (Del Hoyo, 2019).

Intersekzionalitateak ikerketa horietan hartzen duen zentzua erakutsi aurretik, baina, aurreko atalean aurkeztutako interpretazio-markoa nola gain-hartzen duten azaltzea ezinbestekoa da, ikerketetako bakoitzean erabiltzen diren tresnak eta ikuspegiak zehazteko asmoz. Izan ere, eta nahiz eta intersekzionalitateak ikerketa hauek erabilera eta zentzu ezberdinak dituen, desberdintasunaren eta errealitatearen ikuspegi erlazional batetik abiatzen dira biak, marko analitiko monistak baztertuz eta botereari erresistentziaren ikuspegitik begiratuz. Horrela, begirada intersekzionala gain-hartzen duten posizio epistemologiko, teoriko eta analitikoetatik abiatzen dira, eta hurrengo proposamen analitikoetan oinarritzen dira:

- A. *Erresistentzia epistemikoa* Instituzionalizatutako ezagutzaren arloan gertatzen diren kanporaketak eta horien oinarrian dauden dinamika epistemikoekiko

kezka erakustea. Horrela, eta botere epistemikoa problematizatuz, isilaraziak izan diren esperientziak eta problematikak ikerketaren erdigunean kokatzen dira, horiei eta horiek pairatzen dituzten agenteei ahotsa eta legitimotasuna ematen die interpretazio-marko interseksionalak.

- B. *Boterearen gaineko ikuspegi produktiboa*. Boterearen indar zanpatzaileaz gain, erresistentzia-praktikak eta estrategiak onartzen eta azpimarratzen dituen begirada aitortzen du interpretazio-marko interseksionalak. Boterearen ontologia dual hau (Dhamoon, 2010; Baca, Zinn eta Dill, 1996), *praxira* bideratuta dago eta ikuspegi interseksionalaren eraldaketarako eta justizia sozialerako orientazioarekin (Hancock, 2016) bat egiten du.
- C. *Gurutzaketaren heuristikaz* baliatzen da interpretazio-marko interseksionalak, interseksionalitatearen oinarriko heuristika delako (Collins eta Bilge, 2016: 194). Testuinguru jakin batean, menderakuntza-egituren artean gauzatzen diren harreman interseksionalei men egiten die; hau da, desberdintasun-egiturak zein gizarte-arazoen inguruko pentsamendu matritziala (May, 2015) garatzen du.
- D. *Botere domeinuen heuristika* (Collins, 2000, 2017; Collins eta Bilge, 2016) tresna gisa erabiltzea testuinguru jakin batean zein fenomeno jakin baten baitan gertatzen diren botere-harremanen antolaketa eta operazioak aztertzeke. Domeinuak, botereak eta erresistentzia-praktikak jarduten duten espazioak dira: estrukturala, diziplinarioa, kulturala eta pertsonen artekoa, hain zuzen.
- E. *Komunitate-politikak*. Erresistentzia-dinamika eta -strategietara hurbiltzeko eta horiek aztertzeke marko analitikoak da. Collins-en lanean, komunitatea, mendeko taldeen jakintzak eta ekintza politikoa sustatzeko elkargunerako epizentroa da, mundu politikoaren ulerkera garatzeko funtsezko espazioa (Collins, 2017: 27-28).

Botere domeinuen heuristika eta komunitate politikak: *Botere domeinuen heuristika* eta *komunitate politikak*, *dominazio-matrizearekin* batera (ikus 5. atalean bigarren mailako testua), Patricia Hill Collins-ek sortutako hiru tresna heuristiko espezifikoa dira (ikus Collins, 2017). Collins-ek esan bezala, *botere domeinuen heuristika*, botere-harremanak aztertzeke tresna bat da, botere-harremanak nola antolatzen diren eta egikaritzen diren aztertzeke tresna analitiko bat hain zuzen. Heuristikak lau domeinu ezberdintzen ditu: estrukturala (politika publikoak eta erakundeek osatutakoa); diziplinarioa (legeak, eguneroko norma eta erregulazio-mekanismoak); kulturala edo hegemonikoa (ideiak, ideologiak, errepresentazioak eta diskurtsoak) eta interpersonalak (eguneroko esperientziak). Collins-en esanetan, botere-harremanak ez dira bakar batean gertatzen, lauretan baizik. Horrela, lau horiek aztertzeak, boterearen azterketa sakonagoak eta konplexuagoak egitea ahalbidetzen du.

Komunitate politikei dagokionez, komunitatea ekintza kolektiboa garatzeko esparru gisa ulertzea esan nahi du; hau da, erresistentzia-esparru gisa.

Lehenengo adibidea. Zumarragako emakumeen zapalkuntzak eta erresistentziak azaleratuz

Ikuspegi intersektionalarekin lan egiteak, elkarren artean erlazionatuta dauden botere-sistemen konplexutasuna eta dinamismoa aitortzea esan nahi du. Ikuspegi honek erakutsi digunez, sistema horiek elkarren artean gurutzatzen dira, hurbilketa mono-kategorikoetatik antzeman ezin diren zapalkuntza eta erresistentzia-logikak eraikiz. Ideia honetatik abiatu egiten da Igor Ahdok eta Miriam Uretak garatutako ikerketa (2019). Ikerketa horretan, eta aurreko atalean aipatutako interpretazio-tresna intersektionalak erabiliz, Zumarragako emakume langile eta arrazializatuak aurrez aurre pairatzen dituzten problematiken inguruko diagnostikoa egiten da, betiere demokrazia eta justizia soziala helburu eta oinarri izanik. Horretarako, botereari egindako begirada konplexu batetik abiarazten dira, aurretik ikusezinak ziren zapalkuntza zein erresistentzia-estrategien inguruko ezagutzak eta esperientziak legitimatzeko. *Zapalkuntzak Azaleratuz* ikerketak, boterearen ontologia duala dela onartzearekin konprometituta dago: ez da soilik talde pribilegiatuetara mugatzen, baizik eta talde pribilegiatua ahalduntzaile ere bihurtzen da, marjinetatik erantzunak aktibatze eta mobilizatzeko (Dhamoon, 2010: 239; Collins, 2017: 44).

Boterearen inguruko ikuspegi produktiboa onartzen den heinean, *Zapalkuntzak Azaleratuz-ek*, interpretazio-marko intersektionalaren hirugarren premisara hurbiltzen gaitu, epistemologia feministaren parte den *ikuspuntuaren teoriarekin* bat datorrena.

Horrela, ikuspegi sexistak, arrazistek edo klasistek (Collins, 2000: 221-228) ezarritako joerei uko egiten dieten narrazioen bidez, ezagutzaren eremu instituzionalizaturako sarbidea eta kanporatzeak kontrolatzen dituen botere epistemikoari aurre egiten zaio. Ezagutza, beraz, Zumarragako emakumeen jakintzen eta esperientzien aitorten epistemikoaren bidez demokratizatzen da. Emakume hauek gorpuzten dituzten zapalkuntzak eta erresistentziak agerian uzten ditugunean, botere-sistema ezberdinen arteko interakzio formen inguruko ikuspegi askoz zehatzagoa lortzen dugu (Guzmán eta Pérez, 2005: 116). *Zapalkuntzak Azaleratuz* lanean txertatutako begirada intersektionalak —bere dimentsio epistemologikoan— bazterketak jasaten dituzten pertsonen esperientziak eta kontakizunak kokatzen ditu ikerketaren erdigunean (Martínez-Palacios, 2017: 44), lekukotza horiek sortutako ezagutza baliozkotuz (Collins, 2019: 131-142).

Epistemologia feminista eta ikuspuntuaren teoria edo Standpoint Theory: Epistemologia feministak, epistemologiari feminismotik heltzen dio, genero-harremanek ezagutzaren balioarritasun zein legitimotasunean izandako eragina problematizatuz eta ezagutzeko markoen androzentrismoa salatuz. Epistemologia feministaren paradigmaren artean, Sandra Harding-ek teorizatutako *ikuspuntuaren teoria* edo *Standpoint Theory* dago. Honek, emakumeen esperientziei autoritate epistemikoa ematearen alde egiten du, «emakumeok gure esperientzia propioekiko ditugun

ikuspegiak, ikerketa feministak burutzeko informazio iturri enpiriko eta teoriko garrantzitsuak» baitira. (Harding, 1987: 31)

Testuinguru epistemologiko honetatik abiatuz, aurretik aurkeztutako *botere domeinuen heuristikaren* parte diren domeinu estruktural eta diziplinarioa, baita *komunitate-politiken* tresna ere, erabilgarriak izan dira Zumarragako emakumeen zapalkuntza-esperientziak eta erresistentzia-estrategiak azaleratzeko.

Arestian esan bezala, domeinu estrukturalan, politika publikoen erregulazioa eta instituzioen antolakuntza integratzen da (Collins, 2017: 26). Domeinu honetan ez dira soilik politika publikoak botere publikoen zuzeneko jarduerak kontuan hartzen, baizik eta erabakirik gabeko ezkutuko dinamikak; hots, politika publiko gisa hartzen ez diren erabakiak (Dye, 1984: 3) eta ez-erabakitze horren kausak (Hoogwood eta Gunn, 1984: 21; Walt, 1994: 41; Platero, Lopez, eta Peterson, 2014). Zentzu honetan, politika publikoak, administrazioak hartzen dituen zein hartzen ez dituen erabaki guztiek osatzen dituzte. Osagarri gisa, domeinu estrukturalak, gizarte-talde ezberdinek espazio publikora iristeko eta agertzeko duten gaitasunarekin harremana dauka (Young, 2000).

Horrela, eta domeinu estrukturalaren azterketatik abiatuz, ezagutza demokratizatzeak aukerak eta ahalmenak irekitzen dira, Zumarragako emakumeen esperientzia azpiratuei botere epistemikoa aitortzen diegunean. Espazio publiko ofizialean gertatzen diren bazterketak eta kanporatzeak argitzeko aukera emateaz gain, gizarte-arazoak gehien eragiten dieten pertsonen ikuspegiak nola isiltzen diren ere antzeman dezakegu (Collins, 2017: 23). Horrela, enplegurik eta gizarte-baliabiderik ezaren testuinguruan, genero eta klase-zapalkuntzen arteko gurutzatzeak errealitate konplexuak dakartza, non emakume langileek eremu pribatura mugatzen dituen lanmerkatua aurkitzen duten: soldatapeko lanaldi prekarioak eta feminizatuak jasaten dituzte, kasu askotan gizarte-segurantzian kotizatu gabe, eta, beraz, langabezia-prestazioak jasotzeko eskubiderik gabe. Horrela, lan-merkatura sartzea eta haien gain jarritako zaintza-lanak bateragarri egin behar dituztenen karga (absentzia/presentzia bikoitzak) areagotu egiten da. Egoera honi gehitzen zaio etxean *gatibu* mantentzen dituen zantza-lanen gaineko ardurak, denboran zehar izandako gatazken eta udalerriko gizarte-bizitzan integratzeko ezintasunaren ondorioz, ondoezak eta sufrimenduak sortuz.

Egoera hau gehiago zailtzen badugu genero, klase eta arraza botere-sistemak korapilatuz, emakume langile arrazializatuen bizi-esperientziak konplexuagoak direla ikusten dugu. Haien ustez, zaintza-lanetan aritzea da bizirauteko duten aukera bakarra. Egoera honetan, baina, paradoxa bat gertatzen da: zaintza-lanak bere gain hartu behar izaten dituzte etxetik kanpo gutxieneko soldata lortzeko, eta bien bitartean, etxe barruko eta beren seme-alaben zaintza-lanak burutzeko denbora edo tartetik gabe geratzen dira. Halako egoerak, gainera, migratzaile izatearen ondorioz pairatu beharreko berezko oztupoekin gurutzatzen dira: hizkuntzarekin zailtasunak eta/edo salbuespenezko egoerak, legezko herritartasuna ez izateagatik edo familiaren

presentziak dakarren laguntza afektiboa ez izateagatik. Zapalkuntza-multzo honek, zaintza-lanetara kateatuta mantentzen ditu, —berriro ere— espazio publiko ofizialetik kanpo utziz eta politika publikoen diseinuan eta inplementazioan parte-hartzeko aukera murriztuz.

Bizipen zapaltzaile hauek guztiak elkarren artean bizi dira udalerrian, baina bige degurutze konplexu batean, non genero, klase, adin eta mugikortasun botere-sistemek, zapalkuntza-esperientzia multidimentsionalak sortzen eta ikusarazten dituzten. Horrela, eta adineko emakumeen kasuan, hauek ere eremu pribatuak harrapatuta geratzen dira, eta askotan lotsa sentitzen dute, aukerarik ez dutelako oinarritzko produktu zein zerbitzuen faktura eta kosteei aurre egiteko. Euren bizipen zapaltzaileak ezkututzen dituzte. Errealitate espeziifiko horri, emakume horietako askok dituzten osasun-arazoak edota mugikortasun-arazoak gehitu behar dizkiogu, erdigunetik gertu bizi ez direnentzat distantzia bera hesi fisiko zein sinboliko erantsia bihurtzen delako, administrazioarekiko lotura eragozten duena. Emakume hauek ere espazio publiko ofizialetik kanpo utzi eta kanporatzearen ondorioz, haien esperientziak ezkutu eta estigmatizatzekeo logikak sortzen dira.

Bestalde —eta bigarrenez— domeinu diziplinarioa daukagu. Zumarragako emakumeen kasuan, botere-diziplinarioa, kualifikazio baxuko profila duten eta langabezia dauden emakumeen kolektiboetan gauzatzen da. Talde horrek porrot-sentimenduak jasaten ditu, eta sentimendu horiek, beren buruari eta etorkizunari begirako itxaropenari buruzko autopertzepzio negatiboan proiektatzen dira. Baliabide urriek (enplegua zein gizarte-laguntzak) eragiten duten elkarren arteko lehia egoera batean daudenez, (auto)zentsura- eta gainerako emakumeekiko bigilantzia areagotzen dira; bereziki emakume langile arrazializatuekiko, non mesfidantza eta estereotipoak nagusi diren. Beste hainbat diskurtsoren artean, laguntza gehiago jasotzen dutela leporatzen zaie, baita seme-alaba gehiago izaten dituztela ere, genero-estereotipoak indartuz. Emakume arrazializatuekiko kontrola eta bigilantzia bereziki gogorak dira, botere-diziplinario, susmo zein aurreiritzi bilakatuz. Horrek, berriro ere, sakontze demokratikoko prozesuak zaildu egiten ditu, eremu politikotik kanpo uzten direlako komunikazio, gorputz eta jokatibide-arau unibertsaletan sartzen ez diren pertsonak, erabakitze-prozesu politikotik erabat baztertuz (Pateman, 1970: 42).

Hirugarrenik, eta behin Zumarragako emakumeen zapalkuntza-esperientzia konplexuak argitu ditugula, Collins-en *botere-domeinuen heuristikaren* parte diren domeinu estruktural eta diziplinarioa aztertuz, autoreak proposatutako *politika komunitarioen* tresnak, emakume hauek mobilizatzen dituzten erresistentzia-logika eta estrategiak azalertzeko aukera ematen digu. Horrela, emakume hauek erresistentzia-prozesuak garatu dituzte: lan eremuan, adibidez, emakume askok beren burua berrasmatzera bideratutako etengabeko prestakuntzan ari dira. Gaikuntza-prozesu horiek, ahalduzte pertsonal eta komunitarioari dagokionez, gainera, inplikazio handiak dituzte: errealitate bera partekatzekeo espazioak eraikitzen dira, non, enpatia lantzeaz gain, aurretiaz zituzten mesfidantzak eta prejuizioak gainditzeko aukera dagoen.

Genero- eta klase-ardatzak arraza-ardatzarekin gurutzatzen direnean, gainera, hizkuntza ikastea —batez ere gaztelania— eta komunitateko tradizioetara ohitzeko helburuak gain-hartzen dituzte horrelako ekimenek, eta horrek integrazioarako tresnak ematen dizkie emakumeei. Ildo honetan, genero-, klase- eta adina-ardatzen gurutzaketatik ateratzen den beste kolektibo interesgarri bat, seme-alabak eskolan dituzten amak, komunitatea eraikitzen duen artekaritza eta gune multikultural gisa eratzen dena. Collins-en (2017) ideiei jarraituz, zeinak *komunitatea* jokabide politikoa ulertzeko esparru gisa hartzen duen, elkarren arteko sostenguan eta euren problematikaren auto-antolaketa oinarritutako erresistentzia-mekanismoak ehuntzeko joerak gertatzen dira, eta politizazio-prozesuak ere aktibatzen dira. Hala, hainbat emakume bereizi gabeko guneak sortzea sustatzen ari dira, ez jatorriagatik, ez generoagatik, gu-rasoentzako eskola bat bezala.

Adibide honek erakutsi bezala, azpiratutako edo subalternizatutako ahotsen lekukotza aitortuz, *botere-domeinuen heuristikak* eta *komunitate politikek* interpretazio-marko interseksionala abiarazteko aukeretako bat hezurramamitzen dute. Esparru horrek, beraz, zapalkuntza/erresistentzia esperientzia askotara iristeko aukerak ematen ditu. Horrela, eta ikuspegi konplexu batetik abiatuta, protagonisten ahotsetatik adierazitako *presentziak* ikusarazten dira lan honetan.

Ildo horretan, eta zapalkuntzak azalduz, Zumarragako emakumeek mobilizatzen dituzten erresistentzia-estrategien aukera emantzipatzaileak hedatzen ditu, eta horretarako, posizionamendu epistemologiko kritiko batetik abiatzen da —epistemologia feminista—, eta amaitzen da emakume hauen guztien esperientzia aitortzen eta pribilegiatzen duen ezagutza sortzeko helburua duen prozesu batean. Interseksionalitateak aukera ematen du Justizia Soziala helburutzat daukaten sakontze demokratikoko prozesuetan sakontzeko, zern eta emakumeen esperientzia subalternizatuak ikusarazi eta erresistentzia-narratibei autoritatea ematen baitie.

Bigarren adibidea. Interseksionalitatea estigma birpentsatzeko eta aztertzeke begirada gisa

Kapituluaren hasieran aipatu bezala, Kimberlé Crenshaw-k interseksionalitateaz hitz egiten zuenean, praktika inklusibo erradikal batetik abiatutako horizontea marrazten zuen: «Haiek sartzen direnean, denok sartzen gara» (1989: 167; Platero Mendez eta Martínez-Palacios, 2018: 218) ideian oinarritzen dena. Baina ideia honek, askotan ahaztu edo alde batera utzitako ariketa bat dakar: *bestelako* kategoria horiek sortu eta ulergarri egiten dituzten marko normatiboak zalantzan jarri eta birpentsatzea, horietan birproduzitzen diren dominazio-harreman konplexuak desegiteko helburuarekin. Hurrengo lerroetan, dispositibo horietako batera hurbilduko gara: estigma sozialera, eta hurbilketa horretan, interpretazio-marko interseksionalak eskaintzen dizkigun tresna ezberdinez baliatuz, estigma birpentsatu eta aztertuko dugu.

Estigma sozialari buruz mintzatzen den lehenengo lana Erving Goffman soziologoak idatzi zuen 1963. urtean, *Estigma: nortasun hondatua* izenburua duena. Goffman-ek horrela definitzen du estigma: «atributu guztiz deskreditatzailea da, zeinaren bidez bestea ezberdina den norbait bihurtzen den» (2012: 13). Harrezkerotik mende erdi baino gehiago igaro da, eta nahiz eta estigmari buruzko ikerketen hazkundea handia izan den (Hinshaw, 2009: 25; Link eta Phelan, 2001: 363), haren inguruko gogoeta soziologiko orokorrek ez dute definizio hori gainditerik lortu (2004: 29, jatorrizko enfasia), estigmari buruzko literatura mugatuz. Estigma sozialari buruz hitz egiteak, orduan, Goffman-ek sortutako kontzeptualizazio hegemoniko bat birproduzitzea esan nahi du; indibidualista, ahistorikoa eta politikoki anestesiatutako kontzeptualizazio bat birproduzitzea, hain zuzen (Tyler, 2018: 764). Hari buruzko gogoeta eta ikerketetan gertatutako paralisi edo etenaldi honek, beraz, estigmaren irismen eta potentzialitate analitikoak ilundu ditu (Link eta Phelan, 2001; Parker eta Aggleton, 2003; Tyler, 2018). Hala ere, eta nahiz eta Politika Zientzian estigmari buruz mintzatzen diren lanak aurkitzea zaila izaten den, estigma kontzeptua birpentsatzeko beharra aldeztu duten ahotsak ugariak izan dira, betiere estigmatizatutako populazio eta taldeen oihartzun erresistente eta publikoek elikatutakoak (ikusi Oliver, 1999; Parker eta Aggleton, 2003; Farrugia, 2009; Tyler eta Slater, 2018).

Estigma kontzeptuaren eboluzioa eta testuinguratzea: lan hau estigmari buruzko literatura eta teoriaren inguruko diagnostiko zehatz eta partekatu batetik abiarazten da: estigma *catch all* kontzeptu bat bihurtu dela eta, ondorioz, bere potentzial analitikoa galdu duela. Goffman-en lanetik aurrera, estigma «marka» indibidualizat ulertua izan da, distantzia soziala eta praktika diskriminatzaileak eragiten dituen marka bat, hain zuzen. Testu honetan eta beste hainbat autoreren proposamenei jarraituz (ikusi Parker eta Aggleton, 2003; Farrugia, 2009; Tyler eta Slater, 2018), interseksionalitateaz baliatzen gara estigmaren irakurketa estruktural eta politikoa garatzeko helburuarekin.

Ildo honetan, interseksionalitateak, estigmaren problematizazio eta birkontzeptualizazio kritikoan sakontzeko tresna erabilgarriak eskaintzen ditu, haren konplexutasuna landu eta gizarte-estigmatizazioak bestelako zapalkuntza-ardatzekin dituen harremanei arreta jarritz. Horrela, eta estigma naturalizatu ohi duten perspektiba akritiko eta atomistak zalantzan jartzearen aldeko gonbitea luzatzeaz gain, begirada interseksionalak, perspektiba kritikoek botere epistemikoarekin dituzten loturez ohar-tarazten gaitu (Collins, 2019: 126). Izan ere, badaude perspektiba kritikoetatik estigma birpentsatu duten lan batzuk, hura gizarte-diskriminazioaren prozesu zabalagoaren barnean teorizatu eta kokatu izan dutenak (ikusi Link eta Phelan, 2001). Baina zapalkuntza-boterearen kokapen pribilegiatuetara mugatzen duten postulatatu eta lan hauen aurrean, begirada interseksionalak boterearen logika produktiboa onartu (3. atalean txertatutako hirugarren proposamena) eta «beti ez garela zapaldu ez zapaltzaile» gogorarazten digu (Severs, Celis eta Erzeel, 2017: 47). Boterea da-

goen lekuetan erresistentzia ere badagoela onartzeak, beraz, (Foucault, 2019: 88) eta estigma premisa horretatik irakurtzeak, estigmatizatutako subjektuen agentzia aitortu eta estigmatizazioari aurre egitera mugiarazten dituzten erresistentzia-estrategiak ikusaraztea ahalbidetzen du, agentzia hori esperientzia pribatu eta indibidual gisa aurkezten duten lanen aurka (Siegel, Lune eta Meyer, 1998).

Estigma leku honetatik pentsatzen dugunean, gainera, mekanismo kognitibo indibidual eta automatiko gisa ikusteari uzten diogu, eta gobernu-dispositibo bat bezala pentsatzera pasatzen gara (Tyler, 2014); balio ez duten populazioak (Tyler, 2014) eta gorputz markatuak (López eta Platero, 2019) kontrolatzera eta zigortzera zuzendutako gobernu-dinamika neoliberalen produktu eta tresna gisa, hain zuzen (Tyler eta Slater, 2018: 723). Ikuspegi interseksionalak eransten duen boterearen ontologia dual honek, beraz, estigma, elementu emozional zein pertzepziozkoen menpe da goen erantzun kognitibo indibidual bat baino *zerbait gehiago* dela iradokitzen du (Stan-gor eta Crandall, 2000; Link eta Phelan, 2001; 2008).

Estigma, beraz, botere-teknologia zehatz baten esparruan, portaeraren inguruan zehazten diren arau-mugetatik abiatuz, gorrotoaren ekoizpen-prozesu historiko adostu baten ondorio da, helburutzat bizitza kontrolatzea eta arautzea duena (Foucault, 2001). Horrela, eta arestian aipatu dugun *gurutzaketaren heuristikak* praktikan jartzen duen ikuspegi matrizial eta ez-gehigarritik abiatuz (ikusi Jones *et al.*, 1986; Crocker, Major eta Steele, 1998; Link eta Phelan, 2001; Panchakis *et al.*, 2018), estigmatizatutako figurak neutroak ez direla ikusten dugu. *Put* edo *yonkia*, estigmatizatutako ohiko figurak bezala, ez dira klase-, genero-, arraza- edota sexualitate-ardatzei dagokienez neutroak, horien arteko gurutzaketan kokatzen dira; hau da, botere-matrize zehatz batean posizionatutako figurak dira. Estigma, beraz, botere-sistema konplexuen elkartugunetan, eta horien bidez, eratzen eta jarduten da.

Dominazio matrizea eta botere-matrizea: Botere domeinuen heuristika eta komunitate politikekin batera, Patricia Hill Collins-ek garatutako hirugarren heuristika da *dominazio matrizea* (2017). Proposamen honen bidez, autoreak testuinguru bakoitzean zapaltzen gaituzten egiturei buruz gogoeta egitera gonbidatzen gaitu. Honi esker, gizarte-taldean eta gizabanakoen esperientzietan gurutzatzen diren ardatz anitzen artean da goen konplexutasuna azter daiteke.

Interseksionalitateak, orduan, estigma zer den birpentsatzeko tresnak eskaintzen dizkigu. Baina estigma kontzeptualizatzearekin ez da nahikoa, estigmak berak zer eta nola egiten duen, horri erreparatzea ezinbestekoa baita. Zentzu honetan eta Patricia Hill Collins-ek esan bezala, «nola garatu dezakegu ahalduntze-politika bat boterea nola antolatu eta jarduten den ulertu gabe?» (2000: 274). Horregatik, eta gizarte-ordena hegemonikoa (ber)sortzen eta legitimatzen duten jakintzak alde batera uzteko eta ezagutza-modu alternatiboak garatzeko aukera eskaintzeaz gain, interseksionalitateak erabiltzen duen pentsamendu matrizial eta produktiboak bat egiten du sozialki eraldatzaileak diren tresna analitikoak sortzeko konpromezuarekin (Montenegro, Purool eta Monargas-2015). Horrela, eta laburbilduz: estigmatizatutako subjektuen esperientziak zeharkatzen dituen estigma-egitura desaktibatutako gabe,

gizarte justuagoak eta demokratikoagoak lortzea ezinezkoa dela ikusarazteko tresnak behar ditugu.

Hala, eta *Zapalkuntzak Argituz* lanean *botere domeinuen heuristika* erabiltzen bazen Zumarragako emakumeak zeharkatzen dituzten zapalkuntzen konplexutasuna identifikatzeko, *Estigma* lan honetan, heuristika bera erabiltzen da estigmaren sorrera-prozesuak eta funtzionamendua arakatzeko. *Botere domeinuen heuristikatik* abiatzeak, beraz, estigmatizazioa matrize jakin baten barnean antolatzen, kudeatzen, justifikatzen eta subjektibatzen duten diskurtso, praktika eta erakundeak, espazio- eta denbora-tes-tuinguru zehatzetan kokatzea eta problematizatzea esan nahi du, baita domeinu horietako bakoitzean eta zeharka, estigmari aurre egiteko mobilizatutako estrategiak nola sortzen diren ulertzea ere (Collins, 2017: 27). Proposamen honen garrantzia eta aplikazioa ikusteko, estigma zehatz bati begiratuko diogu: *puta* estigmari, hain zuzen (Pheterson, 1993); eta zehazki, espazio publikoan kontaktua egiten duen prostituzioari atxikitako estigmari.

Zentzu honetan, eta nahiz eta estigma gorputzetik pasatzen den, pertzepzio edota emozio abertsibo (nazka, beldurra, higuina) batek motibatutako erantzun indibidual gisa gauzatu arte (Stangor eta Crandall, 2000; ikusi *Estigma kontzeptuaren eboluzioa eta testuingurutzeara* bigarren mailako testua), prostituzioaren jardunari atxikitako estigmari interseksionalitatetik heltzerakoan eta haren dimentsio estrukturalari begiratzerakoan (legeak, politika publikoak, zehaztapen formal zein informaleko mekanismoak, marko diskurtsiboak zein eguneroko interakzioei jarraiki), abertsio sentimendu horiek «xedapen psikologikoak ez ezik, arau sozialetan txertatuta daudela» ikusten dugu (Ahmed, 2014: 56). Estigmak, beraz, botere zehatz baten arrazionaltasun politikoari erantzuten dion funtzio estrategikoa dakarrela sumatzen dugu. Horrela, estigma, urruntasun-premisa gisa (domeinu interpersonal) somatizatu egiten bada ere, diskurtso eta irudi batzuetan oinarritzen da: hirien ordena normalaren eta zibikoaren aurkako arriskua gorpuzten duten prostituzioan aritzen diren emakume arrazializatuen inguruko diskurtsoa, adibidez (domeinu kulturala). Ordena eta segurtasun publikoaren aldeko diskurtso honek, espazio publikoan prostituzioan aritzen diren subjektuak kutsatzailatzat hartu eta figura inzibikotzat aurkezten ditu, desiragarriak diren segurtasunaren, ordenaren eta ohiko bizikidetasunaren idealak mehatxatzen dituzten figurak balira bezala. Hala ikusten da, adibidez, espazio publikoaren edota herritarren segurtasunaren inguruko ordenantza eta legeetan (domeinu estrukturala), zeinetan, espazio publiko lasai, seguru, irisgarri eta zibikoaren berme-emaile gisa, prostituzioaren jarduera eta hartan jarduten duten pertsonak zigortzen diren, horretarako, kontrol informal komunitarioko sistemetan oinarritutako polizia-sistema formalaren indartzea sustatzen delarik (domeinu diziplinarioa).

Atal honen hasieran esaten genuen moduen, estigmatizatutako populazioen inklusio-prozesuak eta, ondorioz, estigmari eusten dioten zapalkuntza- eta pribilegio-harremanen desaktibazioa lortzeko, ezinbestekoa da populazio horien bazterketen egituraketa konplexua ulertzea. Interpretazio-marko interseksionaletik abiatuz, estigma, bizitza gobernu-dinamika neoliberalaren zerbitzura antolatzeke helburua

duen deshumanizaziorako gobernu-dispositibo normatiboa dela ikus dezakegu (Tyler eta Slater, 2018); dominazio-matrize zehatz baten arabera konfiguratuta dagoena (Collins, 2017). Horrela, eta lanak erakutsi duenez, begirada interseksionala ezinbesteko tresna da bazterrak okupatzen dituzten subjektu eta populazioen esperientziak nola egituratzen diren izendatzeko, ikusarazteko eta ulertzeko justizia sozialarekin eta sakontze demokratikoarekin konprometitutako proiektuetan birproduzitzen diren logika eta inertzia zapaltzaileak desaktibatu nahi ditugunontzat.

Amaierako oharak

Kapitulu honetan aurkeztutako ikerketek eta galdera konplexuek argi erakutsi dute erantzun eta estrategia metodologiko konplexuak behar dituztela (Collins, 2019: 47). Gure helburua izan da interpretazio-marko interseksionalak bi problematika ezberdinen inguruan egon daitezkeen hutsuneak betetzeko eskaintzen dituen tresna eta aukerak erakustea. Helburu honek, beraz, bazterketetara hurbildu gaitu, isilarazita eta ezkutatuta dauden subjektu, diskurtso eta praktikei botere epistemikoa aitortu eta horien presentzia eskatzeko. Ideia horrek, behin eta berriz esan bezala, ezagutza- eta ikerketa-prozesuak demokratizatzea garamatza, Justizia Soziala helburu izanda.

Lan hauen artean sortutako elkarrizketak, beraz, interseksionalitateak gure ikerketetan izan ditzakeen aplikazioak unibertsalak ez ezik, partikular, konplexu eta unean unekoak izan behar dutela erakusten digu, interpretazio-marko interseksionalaren malgutasuna eta izaera ireki eta porotsua jasoz. Zapalkuntza eta erresistentzia-dinamikak bere konplexutasun osoz eta sakonean ulertzeko ezinbesteko begirada da interseksionalitatea, eta, horregatik, ezinbestekoa da praxi politikoan eta sakontze demokratikoko prozesuetan txertatzea.

Hasieran aipatu bezala, demokrazia, inklusioa eta justizia soziala erlazionatzen dituzten prozesuak eta tresnak lortzeko konpromisoa ezinbestekoa da, bereziki sakontze demokratikorako helburua duten prozesu hauetan sortzen eta birproduzitzen diren inertzia zapaltzaileetako batzuk desaktibatu nahi baditugu. Premisa honetatik abiatuz, gizarte-emantzipazio zein eraldaketara bideratutako proiektuek, interpretazio-marko konplexuak behar dituzte zapalkuntza eta desberdintasuna irakurtzeko erabiltzen ohi diren marko monistak problematizatzeko eta gaingintzeko. Horrela, eta kapitulu honetan aurkezten diren bi ikerketek interpretazio-marko interseksionalaz egiten duten erabileraren puntu komun zein tirabiretatik, gure ikerketetarako iradokitzailea izan daitekeen teoriaren eta praxiaren arteko tentsio sortzailea ondorioztatzen da (Collins eta Bilge, 2016; Cho, Crenshaw eta MacCall, 2013). Interseksionalitatea begirada analitiko gisa txertatzearen aldeko apustu honek, beraz, beste era batera pentsatzeko aukera ematen digu, tresna eta ezagutza komunek isilarazten eta ezkututzen dituzten leku ilunetan argia piztuz, betiere kritikotasunez eta arduraz aplikatzen badugu.

Hala ere, ezinbestekoa da kontuz ibiltzea, interseksionalitatearen erabiltze hutak ez duelako dominazio-harreman epistemikoak desaktibatzen aukera magikorik eskaintzen. Aurkeztutako lanek, aitzitik, ikerketa bakoitzean interseksionalitateak har ditzakeen forma eta mugen kontingentzia erakutsi digute, interpretazio-marko horren artisaun-izaera zein izaera malguaren berri emanez. Collins-ek eta Bilge-kesan bezala, interseksionalitatea ezin da unibertsalizatu, hari hobeto heltzen baitzaio «ikerketa eta praxia dimentsio bereizgarri baina interdependente gisa lotzen dituen tentsio sortzailea mantenduz» (2016: 192). Interseksionalitatea, beraz, testuinguru bakoitzetik eratorritako ezusteko elementu bat da; tentsio sortzaile hori mantenduz eta ezagutzaren demokratizazio zein justizia sozialarekin konpromisoa hartuz, aurrera egitea ahalbidetzen duena.

Sakontzeko

- Bilge, S. (2013). Intersectionality undone: Saving intersectionality from feminist intersectionality studies. *Du Bois Review: Social Science Research on Race* 10 (2), 405-24.
- Bilge, S.(2014). Whitening intersectionality. Evanescence of race in current intersectionality scholarship. In W. D. Hund, A. Lentin (ed.), *Racism and sociology. racism analysis yearbook 5-2014* (175-205). Lit Routledge Verlag.
- Bilge, S. (2016). Plaidoyer pour une intersectionnalité critique non blanche. In F. Fassa, E. Lépinard y M. Roca i Escoda (Koord), *L'Intersectionnalité: enjeux théoriques et politiques* (75-102). La Dispute.
- Carbin, M. eta Edenheim, S. (2013). The intersectional turn in feminist theory: A dream of a common language? *European Journal of Women's Studies* 20 (3), 233-48.
- Farinaz, F., Roca i Escoda, M. eta Lépinard, E (koord.) (2016). *L'intersectionnalité: Enjeux théoriques et politiques*. La Dispute.

Parte-hartze politikoa eta ekintza kolektiboa: herri-ekimenaren eta administrazio publikoaren arteko harremanak

Zesar Martinez, Izaro Gorostidi, Andere Ormazabal

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Laburpena. Euskal Herrian, herri-mugimenduen eta tokiko egitasmokomunitarioen esperientzia batzuek aldaketa handiak eragin dituzte administrazio publikoarekin eta haren arduradun politikoeekin negoziatzeko eta harremanak izateko moduetan. Guk, unibertsitateko ikerketa- eta ekintza-talde gisa, esperientzia horietako batzuetan laguntzeko aukera eduki dugu eta, horrenbestez, Astraren (Gernika) eta Karmelaren (Santutxu, Bilbo) kasuetan ikasitakotik abiatuta, erakunde publikoak herri-mugimenduekin eta haien egitasmoekin erlazionatzeko dauden bestelako ereduak aztertzea da testu honen helburua; bai eta unibertsitateak eta gizarte-zientziek egin ditzaketen ekarpen garrantzitsuetako batzuk aurkeztea ere, herri-ekimenak barne-mailan indartzeari begira edota euren legitimitatea handitzeari begira erakunde publikoen nahiz beste eragile batzuen aurrean. Horri loturik, sormen politikoa handitzen duten herri-ekimen eta-esperientziak aztertzea eta ikusgai egitearen garrantzi epistemologikoa azpimarratu nahi dugu; izan ere, ekimen horiek ekarpen sozial eta politiko garrantzitsuak egiten dituzte, hala nola: erabiltzen ez diren tokien kudeaketa komunitarioa; doako aisialdi-, trebakuntza- eta kultura-jarduerak; herritarren elkargune eta entsegurako edo esperimentaziorako espazioak eskaintzea; trukerako, birziklapenerako eta kontsumo arduraturako dinamikak; baztertuentzako laguntza material eta emozionala; eta abar. Berrikuntza sozialerako eta sormen politikorako esperientziak dira, bai ardura soziala eta politikoa zabaltzeari dagokionez, bai eta sozialki litekeena eta egingarria denaren koordenatu ideologiko-politikoak zabaltzeari dagokionez ere.

Hori dela-eta, testu honetan, politikaz ikasteko balio diguten erreferentzia enpiriko gisa hartuko ditugu esperientzia horiek, eta labur-labur aurkeztu eta testuinguruan jarri ondoren, honako hau ekarri nahi dugu eztabaidara: elkarbizitza politikoak berez duen proiektu politiko ezberdinen arteko aurkakotasuna ukatu barik, herri ekimenaren eta administrazio publikoaren artean elkarriketa zaindua eta oinarrizko akordioak lortuz gero, herrigintzan behetik parte-hartzeko dinamika, gune eta sareak indartu daitezke. Eta, horrela, premia material eta kulturaleri herri-ekimenez eta auzolanaren logika komunitarioekin erantzunez, gaur egun nagusi diren erantzun merkantilistak (merkatu kapitalistarenak) eta burokratiakoak (administrazio publikoarenak) bestelako erantzun komunitarioa eraikitzea, nolabaiteko des-merkantilizazioa eta des-burokratizazioa sustatuz.

Herri-mugimenduak eta administrazio publikoa

Lehenik, ekintza kolektiboaren eta mugimendu herritarren eremuaren kontzeptualizazioa eta karakterizazio orokorra aurkeztuko ditugu. Herri mugimenduak hainbat modutan definitu izan dira, eta, Larañak (1999) adierazi moduan, eragile politiko horien definizioa edo mugaketa teorikoa oso eztabaidatua izan da; beraz, mugimenduak aztertzeke egin den hurbilketa bakoitzak alderdi eta dimentsio ezberdinak azpimarratu ditu. Zibechiren (2007) ustez, adibidez, gizartearen inertzia auzitan jarri eta mugitu nahiko du mugimendu herritar orok, eta uko egingo dio ordena nagusiak gizarte-sektore jakin batzuei esleitzen dizkien harreman-dinamikak eta posizio sozialak onartzeari. Riechmann-ek (2001), bestalde, gizartearen eraldaketan esku hartzen duten agente kolektibotzat jotzen ditu mugimenduak, eta honako hau planteatzen du: «badirudi adostasuna dagoela adierazten dugunean gizarte-mugimenduek eremu publikoa indartzen eta gizartea suspertzen dutela» (Riechmann, 2001: 46).

Literatura espezializatuak nabarmentzen duenez, mugimendu herritarrek zalan-tzan jartzen dituzte indarrean dauden botere-harremanak, eta errealitatearen irakurketa kritikoa egiten dute, askotariko asimetriak errotik aldatzeko. Martínez, Casado eta Ibarra (2012) egileen esanetan, berriz, herri-mugimenduek, gizarte-ordenaren eta hango asimetrien nahiz bidegabekerien aurrean jarrera kritikoa erakutsi ez ezik, bizitza beste logika batzuen arabera birsortzen saiatu ere egiten dira; hau da, harremanak edukitzeko, antolatzeko eta elkarrekin bizitzeko beste eredu batzuk sustatzen saiatzen dira, praktika politikoaren bidez.

Nolanahi ere, askotariko ikuspegiak edo korronteeak ia aho batez onartzen dute Dianik proposatzen duen definizioa: «Gizarte-mugimenduak prozesu sozial bereziak dira; hau da, ekintza kolektiboan konprometituta dauden aktoreek honako hauek egiteko mekanismoak: a) argi eta garbi identifikatutako aurkariak dauzkaten harreman gatazkatsuetan sartzen dira; 2) sare informal zabaletara lotzen dira; 3) identitate kolektibo berezia partekatzen dute» (Della Porta eta Diani, 2011: 43). Definizio horretan, hiru kontzeptu nabarmentzen dira: ekintza kolektibo gatazkatsua, sare informal trinkoa eta identitate kolektiboa. Egileek azpimarratzen dutenez, ekintza kolektibo gatazkatsuaren dimentsioan, mugimendu herritarrek gatazka politiko eta kulturaletan sartuta egoten dira, gizarte-aldaketa sustatzen dute, eta/edo gatazkari aurre egiten diote. Identitate kolektiboaren inguruan planteatzen dutenaren arabera, sareak ehuntzeko gaitasunagatik bereizten dira mugimenduak; hots, jarduera eta ekintza zehatzak garatu ahala, harremanak zabaltzen eta atxikipen berriak sortzen dituzte. Eta bultzatzen dituzten konpromiso partekatuek identitatea eratzen dute, bai eta helburu komun bat finkatu ere.

Bestetik, sare informal eta trinkoak ere agenteon ohiko ezaugarria dira. Honela jaso dute Della Porta eta Diani (2011: 44) egileek: gizarte-mugimendua gertatzeko, aktoreek —banakoek nahiz antolatuek— baliabideen truke jarraituetan eta jomuga

komunen bilaketan konprometitu behar dute, beren autonomia eta independentzia galdu gabe.

Aurrerago azalduko ditugun bi kasuei testuingurua jartzeko, ezinbestekoa da, batetik, gizarte-mugimenduek erakundeen aurrean izaten dituzten jokabideak karakterizatzea eta, bestetik, eremu instituzionalean nagusi den logika deskribatzea.

A. Herri-mugimenduak eremu instituzionalaren aurrean

Ondoren, arreta berezia jarriko diogu gizarte-mugimenduek erakunde publikoen eta sistema politikoaren eremuan gauzatzen duten interakzioari. Horretarako, mugimenduek erakundeen aurrean izaten dituzten askotariko jarrereri buruzko eskema analitiko bat laburbilduko dugu.

Jarrera finkoak baino gehiago, bitarteko jarrera ugari dituen *continuum* batean koka litezkeen bi begirada edo joera jaso nahi izan ditugu (begirada edo jarrera batzuek polo baterantz jotzen dute gehiago, eta besteek kontrakorantz). Batetik, erakundeek birjabetzeko ikuspegia dugu. Jarrera horretan, mugimenduek lehentasunezko elkarrizketa eta protagonismoa eduki nahi dituzte, eta, zentzu horretan, gobernantza instituzionalaren eredu berriak ezarri beharko lirateke. Norabide horretan formulatzen diren proposamenek barruan biltzen dituzte gizarte zibila eta herritar antolatuak protagonista izango dituzten gobernu-sareak.

Kontrako begiradatik abiatuta, ordea, herri-mugimenduen autonomia azpimarratzen eta aldarrikatzen da. Estatuaren gidaritzapean sutatutako demokrazia partehartzailearen eredu kritikatzeko da, eta ekintza kolektiboa behetik eraikitako eremu autonomoen sortzaile gisa aldarrikatzen da. Komunitateak bere burua antolatu behar duela eta gizarte zibil antolatuak eremu propio eta autonomoak sortu behar dituela defendatzen da.



Iturria: egileek egina.

XV. GRAFIKOA

Gizarte-mugimenduek eremu instituzionalaren aurrean izaten dituzten jokabide politikoak

Bigarrenek garrantzi handiagoa emango diote modu autonomoan sortutako estrategia emantzipatzaileak eraikitzeari; hau da, autoantolakuntza komunitarioa sortzen duten planteamendu eta prozesuak abiatzeari. Merkatuaren eta estatuaren logika liberaletik urrundu behar dela azpimarratuko dute, eta hitz egiteko aukeren aurrean uzkur agertuko dira. Ikuspegi horretatik abiatuta, Zibechik (2007) planteatu bezala, eremu eta egitura instituzionalek muga handiak dauzkate prozesu emantzipatzaileak eraikitzeko. Pentsalari uruguaitarrak era berean azpimarratu duenez, indar aurrerakoiek gobernuan gora egiteak mugimenduak ahuldu ditu herrialde batzuetan, sektore batzuk kooptatu eta beste batzuk isolatu direlako. Horrenbestez, borroka-sektoreak desantolatzea saihesteko ikaskuntzak ateratzen saiatu da esperientzia horietatik. XXI. mendearen lehenengo hamarkadan, ezkerreko indar aurrerakoiak gobernuan sartzearen ondorioz, koiuntura nagusi bat sortzen ari da, eta hori, egilearen arabera (Zibechi, 2007: 25), erronka berria da gizarte-mugimenduentzat.

Azken batean, bigarren kontzeptioak lehentasuna ematen dio elkartasun-harremanak eraikitzeari, mugimenduek ekiteko eta pentsatzeko autonomia izaten jarrai dezaten. Beraz, gizarte-antolaketa orokortutik kanpo guneak eratzen dituzten sareez ari gara (Ibarra, Martí eta Gomá, 2002: 252); azken batean, kontsumo-, aisialdi- eta ideologia-gune propioak eratzen dituzten sareez.

Bestetik, eremu instituzionalarekin lankidetzan ibiltzearen aldeko ahotsen ustez, eragiteko eta eraldatzeko elkarlaneko lan hori legitimoa bezain beharrezkoa da. Gobernantza partekatuaren alde daude, eta *policy making* deiturikoarekin bat egiten dute (Ibarra, Gomá eta Martí, 2002). Hala, erakundeen logika eraldatzeko xedez hartuko dute parte deliberazio-guneetan, eta hedapenerako nahiz agente sozialek protagonismoa izateko bidetzat joko dituzte prozesu parte-hartzaileak.

Alabaina, ikuspegi batean zein bestean, erakundeen eremuan nahiz hortik kanpo, mugimendu herritarren eginkizun demokratizatzailea nabarmentzen da. Hots, mugimenduek erakundeen logika birsortzeko asmoz egiten duten lana azpimarratzen da.

Nolanahi ere, eta erakunde publikoen inguruko begiradak modu dikotomikoan planteatzetik hara, *continuum*aren ideia hartu nahi dugu. Hau da, azalpen xedez, elkarren kontra dauden bi jarrera polarizatu ditugu, baina, gure ustean, testuinguru eta errealitate guztietan aurkitu ditzakegu, zorionez, eskema hori zailtzen eta aberasten duten bitarteko jarrerak edota jarrera ñabartuak.

B. Eremu instituzionalaren karakterizazioa

Estatua, García Lineraren (2016: 12) arabera, sare instituzional bat da, eta hiru dimentsio hauek ezaugarritzen dute: 1) Estatua, eragiteko gaitasuna duten blokeen eta klase sozialen arteko indar-korrelazio politiko gisa; 2) Estatua, erabakiak, arauak, burokraziak, hierarkiak eta abar gauzatzen dituen makineria gisa; 3) Estatua, ideia kolektibo gisa edo gobernatzaileen eta gobernatuen arteko adostasun moralak bermatzen duen garaiko sen on gisa.

Santos (2005), Ibarra (2011) edo García Linerak (2016) berak azpimarratzen dute estatua birpentsatu egin behar dela, eta, norabide horretan, mugimenduek egin dezaketen ekarpena nabarmentzen dute. Estatua berrasmatzeko hainbat proposamen egin dituzte, antolaketa-egiturak, baliabideen kudeaketa eta erabakiguneak eraldatzeko. Horretarako zailtasunen artean, baina, estatuen eta horien erakundeen burujabetza gero eta mugatuagoa nabarmentzen da, parlamentuen eta gobernuen eskumenak murriztuz joan direlako, merkatuen eta nazioarteko erakundeen mesedetan.

Bestetik, burokratizazioaren eta administrazioaren barne-logikaren ondorioz eremu instituzionalak dauzkan gabeziak aipatzen dira maiz. Joera burokratizatzaileak, departamentalizazioak eta administrazioaren elitismoak izugarri zailtzen dute erakundeak politikoki nahiz administratiboki birsortzea. 70eko hamarkadatik aurrera, eredu weberiarren krisiak atek ireki zizkion «gerentzia publiko berriari», zeinak inspirazio neoliberal markatua zuen. Merkatuaren logika, beraz, eredu burokratikoetan ezarri zen: Santosen (2005: 315) arabera, estatuaren ahuldadea ez da ekonomiaren globalizazioaren albo-ondorio edo ondorio zital bat, estatuari bestelako indar mota bat eman nahi dion prozesu politiko baten emaitza baizik, indar hori mundu-mailako kapitalismoaren eskakizun politikoetara egokituago baitago, zinez. Santosek testuinguru horretan kokatzen du estatuaren eta gizarte zibilaren artean lankidetzan aritzeko premia, logika neoliberalari aurre egiteko. Hori dela-eta, estatua ekintza kolektiboko sareekin elkarlan estuan arituz erreformatu behar dela adierazten du.

Alabaina, honako hauen artean tentsio gatazkatsua dagoela azpimarratu nahi dugu: 1) mugimendu sozialak: finkatuta dagoena bere mugetatik hara mugitu nahi duten indar eta praktika politiko irruptiboak dira, eta, hortaz, zentzu eraldatzailea daukate —konbentzionalak ez diren proposamenen eta ekintzen erreperitiodun mugimenduak sortzen dituzten indarrak dira—. 2) ezarritako instituzionalitatearen barruan joera arautzailea duten betekizun juridiko, prozedimental eta administratiboetan eta normatibitateetan kokatuta dauden indar eta praktika politikoak.

Hala, erakunde ezarriak «behetik» (hainbat baldintza sozialen ondorioz behertuta dauden herri-sektoreetatik) gainezkatzeko demokratikoa eragiten duten indartzat har daitezke gizarte-mugimenduak. Horrek hasieratik iradokitzen du gizarte-mugimenduek tentsio gatazkatsua dutela ordezkari politiko-estatalarekin, baina baita alderantziz ere.

Gainera, gaur egungo gizarte-mugimendu askok (antikapitalistek, subiranistek, feministek, ekologistek, elikadura-subiranistek...) jomugatzat dauzkaten eraldaketa emantzipatzaileak ez dira dekretu, lege edo politika publikoen kontu hutsa, egunero harreman sozialen eta bizi-eredu nagusien eraldaketekin ere zerikusia dutelako. Mugimendu horientzat, arreta eta borroka bizitzaren eremu ugarietan daude, eta ez gobernu-boterearen inguruko tirabiran bakarrik. Boterearen eta eraldaketa emantzipatzailearen ikuspegia ez zaio mugatzen arlo politiko-instituzionalean eragiteari —eta, are gutxiago, arlo politiko-instituzionalaren gaineko *boterea hartzeari*—; hortaz, boterearen iruditeriatik eta ezker alderdikoiaren eraldaketa sozialetik urruntzen da.

Aldi berean, gizarte-mugimenduak, indar-korrelazioen eta gatazka politikoaren garapenaren arabera, sistema politiko instituzionalizatuaren eskema egituratzaileak mugitzera irits daitezke. Are, demokratizazio-prozesuak eztabaida politiko handia sortzen duten prozesuak izaten dira: prozesuotan, sektore hegemonikoez lehen eztabaidaezintzat jotzen zituzten gaietara ireki behar izaten dute, eta lehen baztertzeko zituzten subjektu politikoekin eztabaidatu.

Gizarte-mugimenduak esperientzia askoren bidez sartu izan dira engranaje sistemikora, eta, horren ondorioz, testuinguruaren araberako erronka ugari eta askotarikoei heldu behar izan diete. Hala ere, joera gutxi gorabehera komun bat dagoela esan genezake: engranaje sistemikora sartuta, mugimenduek parte-hartze politikoko eremuak konkistatzen dituzte (esate baterako, politika publikoen irismenak, norabideak eta edukiak negoziatuz), baina instituzionalitateak emandako esparru baten barruan beti; hots, gehien-gehienetan mugimenduen aldarrikapen eta borroka integralak biltzen ez dituen esparru baten barruan. Zalantzarik gabe, prozesuok esparru demokratikoa irekitzen dute, eta bertako botere- eta hegemonia-harremanak asaldatzen; alabaina, prozesu horietan, sektore nagusiak kontrola doitzen saiatzen dira gailentzen jarraitu ahal izateko eta, horri begira, ahalmena murrizten dieten testuinguru instituzionalean txertatzen dituzte susperraldian dauden subjektu politikoak, esparru horretan zeuzkaten botere- eta hegemonia-harremanak iraunarazteko.

Desbideratze kooptatzaile horiek arrisku politikotzat har daitezke, eta, era berean, aurkako hautu politikoa eginez gero, bakartzeko, ikusezin bihurtzeko edo politikan ezdeusa izateko arriskuak sor daitezke. Hau da, norberarenak ez diren logika politikoetan ez erortzeko edo logika horiekin ez «kutsatzeko» xedez instituzionalitateari eta bere agente politikoei uko egitea oinarritzat hartzen denean, nor bere burua bakartzeko joerari eta ageriko eraldaketa-prozesu iraunkorrak sortzeko edota gizartearen sektore politikoki garrantzitsu bat mobilizatzeko dauden zailtasunei lotuta egongo litzateke arrisku politikoa; hots, gizartearekin osotasun gisa lotzeko gaitasuna galduko litzateke. Horrek guztiorrek beren ahuldadearen biktima edo kontrolaren nahiz errepresioaren biktima bihurtzeko mugimenduak, edota talde kapsulatu bihurtu, inpaktu politiko urriko talde ia, nahiz eta eraldaketa emantzipatzailea sormenaren bidez bilatzeak dakartzan legitimitatea eta duintasuna eduki.

Aurreko paragrafoetan, gizarte-mugimenduen eta instituzionalitatearen arteko harreman beti zail eta tirabiratsua ulertzen lagundu diezaguket elementu batzuk azaldu ditugu, baita mugimenduek instituzionalitatearen eta bertako agente politikoen aurrean agertzen dituzten arbuioa, distantzia edo konfiantzarik eza ulertzeko elementuak ere. Distantzia hori kalkulatu izaten da beti, eta aldakorra, koitunturen zein gatazken arabera; izan ere, indar-korrelazioek eta mugimenduek instituzionalitatearen aurrean duten legitimitatea aldatzeko aukera ematen du mobilizazio herri-tarrak.

Hori dela-eta, gure ustez, instituzionalitatearekin autonomian oinarritutako harremanak eraikitze gaitasuna edukitzeak lagundu egin dezake gizarte-mugimenduen izaera emantzipatzailea indartzen, instituzionalitatean —tirabiran dagoen ar-

lotzat hartuta — nahiz gizartean oro har politikoki eragiteko gaitasuna ahultzen duen auto-bazterketan edo integrazio kooptatzaileetan erori ezean.

Jarraian, gure analisiari bide eman dioten bi esperientziak azalduko ditugu labur-labur.

Elkarlaneko eremuak

Ekimen komunitarioen eta unibertsitateko ikerketa-taldeen artean abiatu diren elkarlaneko bi esperientzia hauetan, Parte Hartuz (UPV/EHU) ikerketa-taldeak mota ezberdineko ekarpenak egin ditu: kasu batzuetan, antolakunde eta aktibista ezberdinen artean antolatzeke eta hausnartzeko prozesu parte-hartzaileetan bidelagun aritu gara; aurrekoarekin lotuta, prozesuon asanblada, bilera eta lan-saioen metodologian eta dinamizazioan lagundu dugu; bestetik, eremu komunitarioen irismena eta eremuotako parte-hartzea hobetzeko azterlan espezifikoak egin ditugu eta, azkenik, beste kasu batzuetan erakunde publiko eta lurraldeko beste agente (auzokideen komunitateak) batzuekiko dialogoan eta negoziazioan lagundu dugu.

Horrenbestez, ondoren ikusiko dugun bezala, unibertsitateak emandako laguntzak bi alderdi ukitu ditu. Alderdietako batek hainbat aktibistaren eta gizarte-antolakunderen artean antolatzeke, hausnartzeko eta lan egiteko prozesuak indartzearekin izan du zerikusia, eta besteak erakunde publikoekiko eta bestelako agente sozialekiko harremanetan laguntzea izan du xede, harremanok legitimatzearekin batera.

A. Aztertutako esperientzien testuingurua: Astraren kasua

1998an itxitako arma-fabrika berreskuratzeko eta erabilera soziala zein kulturala emateko asmoz, Gernikako kolektibo eta elkarteek gidaturiko esperientzia auto-gestionatua da Astra. 2005aren amaieran eta 2006an, eraikina hainbat aldiz okupatu, desalojatu eta berriz okupatu ondoren, eta herritarren hainbat mobilizazio eta aldarrikapen tarteko, kolektibo sozialek deitutako parte-hartze prozesuen bitartez egin du aurrera prozesu herritarrak. Parte-hartze prozesu horietan Euskal Herriko Unibertsitateko Parte Hartuz lantaldearen laguntza izan dute eta gaur egun Astra Koordinadorak autogestionatzen duen eremu publiko eta komunitarioa da, eta hainbat kolektibo eta aktibista antolatzen dira han.

Hain zuzen ere, elkarte eta taldeen koordinadora horixe izan da esperientziaren motorra, eta babes- eta laguntza-maila ezberdinak eskatu zizkien unibertsitateari eta erakunde publikoei. Hortaz, intereseko hainbat elementu uztartzen dituen esperientzia soziopolitiko da: kolektibo sozialen ekimenetik abiatu zen, kolektibo horiexek zabaldu zuten ekimena gainerako herritarrei (eta elkarte-ehundura osoari) parte-hartze prozesuen bitartez, sare sozial zabal eta anizkoitzagoa antolatzeari eta indartzeari

begira; bada, sare horiekin, erakunde publikoekiko elkarrizketa ezarri ahal izan da, egitasmo herritarra errespeta eta babestu dadin.

Erakundeek egiten utzi dute —zailtasunak eta tentsioak ere badituen erlazio batean—, eta diruz lagundu dute, eraikinaren birmoldaketa- eta mantentze-lanak finantzatzuz. Hala Gernikako Udalak, nola Eusko Jaurlaritzak (eta kontuan izan hizpide dugun aldian, 2005etik 2020rakoan, alderdi politiko ezberdinak egon zirela bi erakunde horien gobernuetan) onartu dute kolektiboek ekiteko gaitasunaren bidez —eraikinaren okupazioa, mobilizazio soziala eta abar— eta proposamenak nahiz proiektuak egiteko gaitasunaren bidez erakutsitako aurrea hartzeko gaitasuna. Hain juxtu ere, egindako bidea eta ikasitakoak aztertzeko orduan Astrako aktibistek azpimarratzen dituzten gakoetako batzuk honako hauek dira: erakundeei aurrea hartzeko gaitasuna, bai erabiltzen ez zen toki bat okupatu eta eraikinari erabilera soziokulturala emateari dagokionez, bai Gernikako gizarte-ehundurari eta herriari irekitako proiektu bat zehazteari dagokionez; mobilizatzeko eta erreferentziazko pertsonen babesa eta atxikipena biltzeko gaitasuna eta, aurrekoari lotuta, parte-hartze prozesuak lan-politikoak egiteko metodologia gisa garatzeko gaitasuna. Izan ere, metodologia horri esker eta unibertsitateko talde laguntzailearen babesarekin, prozesu ireki eta heterogeneoen bidez gauzatu ahal izan dira proiektuak, lan egiteko modu bateratzaileak eta ahalduntzaileak garatuz.

Horrela, jendartearen mobilizazioa, ekimena are gehiago legitimatzeko kanpoko babesak sendotzea, eta proiektua modu ireki eta herritarrean eraikitzeko parte-hartze prozesuak erdigunean jartzea, giltzarriak izan dira erakunde publikoek proiektua onartu, egiten utzi eta, azkenik, eraikinaren birmoldaketak zuen gastu handia bere gain har dezaten. Halaber, babes horrek ez du proiektua baldintzatu, egitasmoaren izaera autonomo eta autogestionatua errespetatzen duelako eta ez duelako izaera autonomo eta herritar hori urardotuko lukeen ordain ideologiko edo arautzailearik (burokratikorik) planteatu.

Unibertsitateko taldeak aktibatu dituen tresnei eta baliabideei dagokienez, Astra Koordinadoraren eta Euskal Herriko Unibertsitateko lantaldearen arteko elkarlana, funtsean, koordinadorak deitutako parte-hartze prozesuen metodologia elkarrekin pentsatzea eta prozesu horien asanbladetan bidelagun edo erraztaile-lanak egitea izan da. parte-hartze prozesuetara deitzen ziren taldeen eta pertsonen aniztasuna hain zen handia —nork bere ikuspegiak eta lan-moldeak—, ezen Koordinadorak unibertsitateko lantalde honen laguntza eskatu baitzuen gauzak errazteko, lantalde unibertsitarioek esperientzia baitzuten Euskal Herriko herri eta hirietan prozesu komunitarioak edota ikerketa-ekintza prozesuak dinamizatzen.

B. Aztertutako esperientzien testuingurua: *Karmelaren kasua*

Karmela Bilboko Santutxu auzoan (34.083 biz., 2019) finkatutako proiektu komunitarioa da, eta 2015ean ekin zion ibilbideari, hainbat kolektibok erabiltzen ez

zen hezkuntza-zentro baten instalazioak (Karmelo Ikastolarenak) funtzionamenduan jartzea erabaki zutenean. Karmelak guztion ongizaterako proiektu komunitariotzat dauka bere burua, eta, publiko-pribatu dikotomia gaindituz, eremu publikoen jabetza kolektiboaren eta kudeaketa komunitarioaren alde egiten du, Santutxu eta Bilboko herritarren premia soziokulturaleri erantzuteko.

Proiektuaren helburuak eta jarduera adosteko orduan, hainbat antolakunde eta taldetako aktibistek egindako hausnarketak eta dinamikak izan dira abiagunea. Horren emaitza gisara, askotariko jarduerak eta ekimenak garatzen dira eremu autogestionatu horretan: liburutegia eta ikasteko gelak; euskarako doako eskolak; kirol-jardueretarako gimnasioa eta rokodromoak; jardunaldi eta ekitaldi kultural zein politikoak; bilerak eta topaketa ludikoak (herri-bazkariak auzoko jaietan, haurren urtebetetzeak...); bidean dauden migratzaileen aldi baterako harrera eta abar.

Eskola zaharreko instalazioak (patioa, frontoia, ikasgelak, jantokia, sukaldea, zinema eta abar) elkartzeko eremu publikoa bihurtu dira, bai eta berdinen eta desberdinen?? bizikidetzarako eta loturak sortzeko espazioak; egitasmo nahiz aldarrikapen sozial ugari egiteko gune bihurtu ere. Azken batean, honako hauek indartzen ditu: gizarte-ehundura, belaunaldiarteko eta kulturarteko topalekuak eta baliabide guxtiago dauzkatentzako kultur jardueren doako eskaintza. Horregatik, komunitatearen kohesioa eta elkarri laguntzeko sareak areagotu dituen ondasun soziala da, eta ekonomia-, kultura- eta genero-desberdinkerien ondoriozko diskriminazio eta bazterketei aurre egiteko asmoa dauka.

Karmelaren asanbladak zehazten ditu proiektuaren zutabeak eta erronkak, honela:

1. Aniztasuna eta irekitasuna. Karmela proiektuaren barruan, hainbat adin, sexu, jatorri, kultura, hizkuntza eta sentsibilitateko herritarrak elkartzen dira. Hortaz, elkarren ezagutzan eta errespetuan oinarritutako bizikidetzak da funtsezko gakoa. Tokian-tokian jardunez eta globalki pentsatuz, Karmelak parte-hartze izugarri baten eredu bihurtu nahi du Bilboren eta Euskal Herriaren aurrean (Santutxurekiko loturari eutsita, betiere).
2. Alternatiba eraldatzaileen eraikuntza. Karmela auzokideen benetako premiei alternatiba bat eskaintzeko xedez sortu da. Karmelan, guztiona eraiki eta kudeatzeko eredu herritarrak sustatzen dira, nagusi den eredu eta logika merkantilistaren gainetik, askotariko ekimenak antolatu eta eraikitzeko. Proiektuak erakutsi duenez, gehienengoz ongizaterako behar den zerbait eraiki daiteke, eta egingarria da komunitateko lanaren bidez proiektuak eraikitzea. Karmela proiektuaren oinarriek balio askatzaileak biltzen dituzte, eta ez soilik eskaintzen dituen ekintza eta planengatik, baizik ekiteko moduak ere eraldatzaileak direlako. Karmelan, interes partikularrei interes kolektiboa gailentzen zaie. Auzokideen eta herritarren ardura eta lana dira proiektuaren kapitala, baina baita partikularren eta taldeen arteko harremanetik eta lankidetzatik sortzen den onura kolektiboa ere.

3. Herritik eta herrirako. Proiektuak auzokideen parte-hartzea sustatzen du, baina ez antolatzen dituen ekimen edo jardueretan bakarrik. Karmelan, auzokideak subjektu sortzaileak dira, eta, horrenbestez, ez ditu ikusle edo kontsumitzaile hustzat hartzen. Karmela egunero eraikitzen da, norberaren gaitasun eta nahiekin. Halaber, sortzaile partikularrek garatu nahi dituzten proiektu herritarrak abiatzeko eta sortzaileen artean sinergiak sortzeko tokia da. Pertsonok gure artean sareak eraikitzeko premia dugu; Karmela, beraz, prestakuntza eta balio ezberdinekin elkar aberasteko gunea da. Ereku fisiko bat baino gehiago, agenteak elkartzeko eta beren arteko sareak eratzeko proiektua da, eta lan egiteko toki erosoak sortzeko gaitasuna dauka. Gainera, beste ereku batzuetan gizartea eraldatzeko lan egiten duten hainbat talderekin lankidetzan aritzen da, eta lotura estuak eraikitzen ditu.

C. *Unibertsitateak egin dezakeen ekarpena*

Erakunde publikoen eta ekintza kolektiboko sareen arteko antolaketa birpentsatzeko orduan erreferentzia gisa balio diguten bi esperientziak labur aurkeztu eta tesuinguruan jarri ondoren, unibertsitateko taldeak bi kasu horietan egin dituen ekarpenak zein izan diren zehaztuko dugu. Hemen aurkeztu ditugun egitasmo herritar eta komunitarioekin lankidetzan aritzeak lau lan edo ekarpen mota sorrazazi ditu:

1. Bilerak eta batzarrak erraztea, talde-dinamiken eta herri-hezkuntzatik datozen metodologia parte-hartzaileen bidez; eta gogoeta edota antolaketaren prozesuetan laguntzea. Asanblada handi eta heterogeneoetan (adinari, ibilbideari, ideologiari, lan-kodeari eta abarri dagokienez) lana erraztu eta kohesionatzeko orduan, talde-dinamika eta tresna baliagarri ugari daude. Berdintasuneko parte-hartzea bermatzeko lan-moldeak eta metodologiak dira, eta errazten dute asanbladako kideek egunerokotasunean sentitzen dituzten premietatik abiatuko diren diagnostikoak, estrategiak eta egitasmoak modu kolektiboan eraikitzea. Lan-molde horiek arreta berezia jartzen diote begirunezko, onarpenezko eta konfiantzazko giroa sortzeari; eta kide guztiak gustura sentitzeko moduko lan-dinamika kolektiboki eraikitzei: 1) Kide guzti-guztiok hitz egiteko eta ekarpenak egiteko aukera berberak edukitzea; 2) Elkarri errespetuz eta berdintasunez entzutea; 3) Ekarpene guztiak (nahiz eta bakoitzak bere estiloa eta adierazpidea eduki) garrantzitsuak direla sentiarazi, eta bateratze-lanean edota erabakiak hartzeko prozesuetan ekarpen guztiak aintzat hartzea; 4) Aurreko guztiak onarpena eta legitimitatea sentiarazten die kide guztiei; 5) Elkarlanak behar duen konfiantza, konplizitatea eta adostasuna sortzen laguntzea.
2. Gogoeta eta ezagutza kolektiboen erregistroa eta sistematizazioa: eztabaidak eta hartzen diren erabakiak aktetan, audioetan eta beste euskarri gra-

fiko batzuetan jasotzea. Bileretan eta asanbladetan ateratzen diren ideiak eta proposamenak dokumentuetan eta eskemetan ordenatzea, prozesuei modu iraunkor eta etengabe jarraitutasuna eman ahal izateko. Horrek barne hartzen du tentsioak eta desadostasunak identifikatzea eta desakordio horiek jorrazteko proposamenak formulatzea; dimentsio arrazionalak (premiak, interesak, nahiak...) eta emozionalak (ilusioak, zalantzak, beldurrak...) kontuan hartuz, ez-adostasun, talka edota pertsonalismoek hausnarketa- eta antolaketaprozesu komunitarioa blokea ez dezaten.

3. Egitasmoen irismena eta hedapena hobetzeko azterlan espezifikoak: egitasmo komunitarioak gizarte-ehundurako sareetatik urrunen dauden herritarrengan sortzen dituen pertzepzioak aztertzea, inkesten, eztabaida-taldeen edota tailer parte-hartzaileen bidez. Eremu komunitarioaren irekitasuna hobeto helarazteko eta komunikatzeko, inertzia endogamikoak saihesteko eta askotariko gizarte-sektoreen aktibazio-aukerak areagotzeko lanak dira, baita hainbat gizarte-sektorek jarduera sozial, kultural eta politikoetan duten protagonismoa aktibatzeak ere.
4. Administrazio publikoarekin eta auzokideen komunitateekin egiten diren bilerak eta negoziazioak erraztea. Zenbaitetan, erakundeen aitortzarik ezaren, tentazio errepresiboen, egitasmo irruptibo horiek legearen barruan sartzeko zailtasunen edo lagun asko biltzen dituzten jarduerak eta ekitaldiak antolatzeko eguneroko bizikidetzan sor ditzakeen eragozpenen ondorioz, erakundeekin eta lurraldeko beste agente batzuekin (finka-administratzaileekin, auzokideen komunitateekin eta abarrekin) eraikitzen diren harremanak zailak eta tirabiratsuak izaten dira, bai desadostasun ideologikoengatik, bai interes kontrajarriengatik edo bai onarpen- eta bizikidetzaz-esparru bat zehazteko orduan elkar ez ulertzeagatik. Gure eskarmentuaren arabera, unibertsitateak egitasmo irruptiboekin laguntzen dienean, beste agente batzuek legitimitate edo aitortza handiagoa ematen diete ekimenoi, eta horrek hitz egiteko baldintza simetrikoagoak sortzen ditu, elkar entzuteko eta elkar ulertzeko baldintza hobek. Gainera, elkarriketaren esparrurako proposamen egokia egiten bada eta elkarriketak ordenatzeko eta moderatzeko orduan metodologia zaindua erabiltzen bada, errazagoa da negoziazioaren bidez ados jartzea eta erantzukizunak elkarrekin zehaztea.

Egitasmo komunitarioetan buru diren aktibistekin eta kolektibo sozialekin lankidetzan arituz garatzen diren lan eta jarduera mota horiek erakusten dutenez, unibertsitatea agente bat da, zeinak, zerbitzu publiko gisa eta gizarte-erantzukizuneko zerbitzu gisa dituen eginkizunak betetzen baditu, paper garrantzitsua bete dezakeen ekintza kolektiboko sareak eta egitasmoak indartzeko orduan. Baita administrazio publikoaren aitortza eta harekiko elkarriketa hobetzeko orduan ere. Gure ustean, lankidetzaz- eta laguntza-harreman hauek bi norabidetako trukea da. Izan ere, kolektiboetan eta egitasmoetan dabilzanen lan aktibista ezagutza-iturria inportantea da,

eta horrek ikastea, ezagutzak trukatzea, hausnarketa teorikoa praxiarekin integratzea eta gure irakasle- eta ikertzaile-lana elikatzea ematen digu unibertsitarioc; prozesu sozial eta politikoen kontraesanetatik eta zailtasunetatik hurbil mantentzen gaituzten esperientziak dira, ezinbesteko jakintza iturria.

Alabaina, unibertsitatea eta ikerketa-mundua «bikaintasunaren» lehian murgilduta dagoen garaiotan, badakigu ebaluazio-agentzia instituzionalek multinazional gutxi batzuen kontrolpeko rankingen esanetan «inpaktu handia» eragiten duten al-dizkari orokorretan egindako argitalpenen arabera aitortzen dutela ikerketa-lana. Hala, merkatuaren liberalismoa eremu akademikoan hedatzeak lehiakortasun handia ezarri du gizabanakoaren artean, eta curriculum-arloko meritokrazia-dinamikak, autoerreferentzialtasuna eta nartzisismoa elikatzen ditu. Ondorioz, baliabide gutxi dauzkaten agenteekiko lankidetzan oinarritzen diren eta, protagonismo kolektibo eta ez-indibidualarekin, tokiko transferentzia eta inpaktua lantzen dituzten lanak eragozten dira, lanok huskeria profesionalean barreiatzeaz gainera.

Horrela, unibertsitateak pentsamendu kritikoa, baliabide analitikoak eta gizarte kohesionatu eta bidezkoagoa sortzeko tresna eragileak eskaini eta hedatzen dituen zerbitzu publiko gisa daukan betebeharra oso zokoratuta geratzen da. Unibertsitate publikoek, baliabide publikoekin finantzatzen diren irabazi-asmorik gabeko erakundeak diren heinean, interes orokorrari zerbitzu emateko betebeharra daukate, curriculumeko interesen mende edo merkatuaren eta etekinen inguruko interes partikularrak dauzkaten erakunde pribatuekiko lankidetzaren mende egon gabe. Lehentasunezko lankidetzak, hortaz, honako hauek eduki beharko lituzke jomugan: oro har biztanleen bizi-baldintzak eta, zehazki, baliabide gutxiago, aukera gutxiago eta gizartean eragiteko botere gutxiago edukitzeagatik bizi-baldintza kaskarragoak dauzkatenen bizi-baldintzak hobetzeko xedea duten interes sozial orokorrek gidatutako prozesuak eta agenteak.

Alabaina, lan honetan aurkeztzen ari garen gizarte-transferentzia motak aitortza akademiko eta instituzionalik ez edukitzea sobera konpentsatzen da gurekin elkarlanean aritzen diren eta gurekin batera ikasten duten antolakundeek, aktibista sozialen eta arduradun politikoen esker on eta aitortzarekin. Hain zuzen ere, gure lanak gizarte-inguruneari egiten dizkion ekarpenek nolabaiteko zentzu sakoanagoa ematen diote gure lanari, enplegua izatetik askoz ere harago baitoa. Gainera, lan eskertua da, ordaina ematen digulako, bai ezagutzari dagokionez, prozesu soziopolitikoaren eta beren konplexutasunaren errealitatearen lokatzetan sartzen gaituelako, bai irakas-kuntzari dagokionez, prozesuotan lan eginez ikasitakotik —argi-itzal guztiekin— elikatzen baita ikasgeletako transmisioa.

Unibertsitateak ekintza kolektiboko sareen eta erakunde publikoen arteko antolaketa eta lankidetzan izan dezakeen paperari buruzko atal honen muinari helduz, testu honetan aurkeztu ditugun bi esperientzietan ikasitakoak honela laburbil daitezke: egitismo herritarren eta administrazio publikoen arteko dialogoak eta lankidetzak ahalbidetu egiten dute interes orokorreko premia sozialak asebetetzeko espazio eta dinamika komunitarioak eraikitzea. Hau da, elkarlanean aritzeko dinamika

komunitarioak indartzeko aukera. Arlo publikoaren eta arlo komunitarioaren arteko lehentasunezko lankidetzak horretatik abiatuta, gizarte-premiak asebetetzeko bidea merkatuetatik eta burokraziatik aldeni daitezke, irabazi asmorik gabeko lan-eremu ez-lehiakorrek indartuz. Izan ere, ondo egindakoak, hutsegiteak, zailtasunak eta kontraesanak gorabehera, gizarteko sektore guztiei irekitako espazioak dira, bazterketak edo elitismoak eragiten dituzten betekizun formal edo materialik gabeak.

Era berean, matxismoaren, klasismoaren eta arrazakeriaren ondoriozko desberdinkeria sozialak eta indarkeriak gora egiten ari diren testuinguru honetan, garrantzitsua da espazio komunitarioak herritarren eskubide zibil eta politikoak gauzatzeko gune estrategikotzat hartzea, eta ezberdinen arteko harremanei bide ematen dieten eta gizarte-kohesioari laguntzen dieten eremutzat hartzea.

Administrazio publikoaren papera

Arestian aipatu bezala, Euskal Herrian badira publikoaren eta komunitarioaren artean erlazionatzeko modu berriak eraikitzen ari diren esperientziak, oraindik orain nagusi den eredu publiko-pribatuari alternatibak eskaintzen dizkioten esperientziak dira. Gernikako Astraren eta Bilboko Karmelaren kasuak horren adibide dira.

Gorabidean dauden praktikez ari gara, demokratizazio sozialaren kontzeptuarekin lotura duten eta gizartearen premiak modu autogestionatuan asebetetzeko xedez parte-hartzea eta autoantolaketa lotzen dituzten praktikez. Behetik gora gauzatzen dira, modu espontaneoan, baimenik edo gonbidapenik itxaron gabe. Helburuak eta aldarrikapenak partekatzen dituzten gizarte zibileko agenteak elkartu egiten dira, bai arazo kolektiboek erantzuteko, bai gobernatzaileen eta gobernatuen arteko botere-harremanak eraldatzen laguntzen duten eta ahaldundu egiten duten praktika demokratizatzaileak sortu eta bultzatzeko.

Kasuotan, baina, erakunde publikoak betetzen ari diren eta bete dezaketzen papera da berritzailea. Katalunian, adibidez, Bartzelonako Diputazioak (2017) ekarpen interesgarriak jasotzen dituen lana argitaratu zuen, administrazio publikoak prozesu parte-hartzaileetan duen paperari buruzko hausnarketetan oinarrituta. Liburu horretan, bost erronka handi planteatzen zaizkie erakundeei, herritarrek tokiko eremuan parte-hartzeari dagokionez. Honela laburbil daitezke (Bartzelonako Diputazioa, 2017: 22):

1. Herritarren parte-hartzearen kontzeptua birdefinitu behar da, erakunde publikoetatik kanpo sortzen diren prozesuak ere aintzat har daitezzen eta prozesu horiek aktibatu, erraztu eta babestu daitezzen, administrazioa komunitatean inplikatzen.
2. Politikak elkarrekin sortzeko jarduera berriak abiatu behar dira, eta administrazio publikoaren eta gizarte zibilaren arteko lankidetzak bermatu.

3. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak txertatu behar dira. Teknologia berriak gardentasuna bermatzeko erabili behar dira, bai eta politika publikoak ekoitziko dituen eremu berri bat sortu ahal izateko ere.
4. Parte-hartzeko gaur egungo arkitektura instituzionalak birformulatu behar dira, formatu malgu eta ez hain burokratikoak sortuz.
5. Tokiko administrazioa barne-mailan berrantolatu behar da, eta, horretarako, prozesuen araberrako kudeaketa mota bat proposatzen dute, zeinaren bidez jarduera parte-hartzaileak koordinatuta garatzen direla ziurtatuko den.

Euskal Herrian ere horrelako hausnarketak egin dira, baina eskala txikiagoan. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin batera egindako Bherria programa aipa dezakegu. Bherria programa 2017an abiatu zen, eta harreman publiko-sozialak eraikitzekeko modu berriak esploratu eta sustatzeko helburua dauka. Horri begira, lehenengo erronka modura, eremu publikoen kudeaketa komunitarioa jorratzea proposatzen du. Bestalde, lan-kidetzeta publiko-soziala gauzatzeko eta administrazio publikoek herritartasun aktiboa nahiz boluntarioria sustatzeko 10 gakotan laburbildu dituzte programaren oinarritzko ondorioak. Administrazio publikoaren paperari dagokionez, honako puntu hau nabarmendu nahi dugu (BHerria Ikaskuntzak 2017: 11):

«Herri Administrazioetik gero eta gehiago hurbiltzen ari gara herritarren-gana parte-hartzeko prozesuen bitartez. Hurbiltzeko era hori ikasten eta hobetzen dugu, baina egiturazko lan bat egin behar dugu, parte-hartzearen logika, prozesu zehatzetatik haratago, publikoa denaren funtzionamenduaren logika bihurtzeko. Horrek esan nahi du erosotasun-zonetatik irten behar dugula, elkarriketak aktibatu, boterea partekatu eta zenbait arrisku hartu».

Parte-hartzearen logika publikoa denaren funtzionamenduaren logika bihur dadin, esandakoaz gainera, guztion ongizateari lagundu ahal izateko baliabideak jarri behar dira herritarren eta elkarte-ehunduraren esku (Adams eta Hess, 2008: 3-4). Horretarako, funtzio publikoa jorratu beharra dago, baina ez kudeaketaren alderditik, betetzen duen funtzio sozial eta politikotik baizik. Herritarren eskubideak eta askatasunak bermatu eta garatzea izan beharko luke helburu eta, horrela, demokrazia indartzeko duen egitekoa beteko luke. Beraz, OCDk berak jasotzen duenez (2018, 18. or.), beharrezkoa izango da funtzio publikoak «*gizartearekin duen harremana birdefinitzea; legitimitate berri bat eta arlo publiko plural eta integratuaren kontakizun berri bat eraikitzea; gizartearen premia eta eskaera berriei aurre egiteko ezagutza, gaitasun eta baliabide berriak eskurtzea (...)*». (hemen aipatua: Arenilla eta Delgado, 2019, 37. or.).

Azken batean, herritarrek eremu komunaren gainean erabakitzekeo duten gaitasuna eta herritarrak berak ere erdigunean jartzeaz ari gara, bizitzaren eta politikaren arteko harremana berreskura dadin (Federici 2010). Demokrazia sakontzeko prozesuak praktikan jartzeaz ari gara, bai eta prozesuok guztiona den hori modu zabal,

partekatatu eta parte-hartzailean kudeatzeko praktiken bidez garatzeaz ere. Horretarako, Innerarityk esan bezala, administrazio integratzaile bat jarri behar da martxan, «*administrazio demokratikoaren kontzepturik egokientzat jo ahalko den, gizarte zibilak beregan izan dezakeen eragina bere logikaren barruan txertatuko duen sistema ireki bat izango den neurrian*» (2020: 186).

Ondorioak

Karmelaren eta Astraren kasuetan izandako esperientzian, administrazio publikoak prozesu mota horietan duen paperari buruzko gako batzuk identifikatu ditugu. Hona hemen gakoak laburpena:

Batetik, administrazio publikoak ez ditu behar bezala aitortzen herri ekimena edota prozesu parte-hartzaile irruptiboetan buru diren eragile sozialak. Horregatik uste dugu benetan garrantzitsua dela, batetik, eragile sozial horien protagonismo legitimoa aitortzea eta, bigarrenik, agente horiekiko elkarriketari eta baterako lanari lehentasuna ematea.

Gure ustean, parte-hartzea gero eta gehiago ari da birdefinitzen prozesu irruptibo horien bidez eta, hori dela-eta, administrazio publikoek prozesuok babestu, onartu eta erraztu behar dituzte.

Aztertu ditugun bi kasuetan, lan handia egin da administrazioak ikus dezan prozesu mota horietan parte-hartzen duten eragile sozialei protagonismoa eta zentralitate eman behar diela eta lehentasuneko kolaboratzaile gisa onartu behar dituela. Bilboko Udalak akordio bat sinatu zuen Karmelo Ikastolaren lokala erabiltzen lagatzeko, Karmela proiektua bertan garatu zedin; bada, lagapen-akordioaren bosgarren eranskinean (2020), honako hau irakur daiteke:

«Udalaren eta Karmela proiektuaren arteko harremana errespetuan oinarrituko da, eta, beraz, proiektua bera, antolaketa-moduak, premiak eta erritmoak errespetatuko dira, hitzen eta ekintzen bidez. Zentzu horretan, sor daitezkeen arazoen aurrean, jarrera paternalista eta inposatzaileak saihestuko dira. Udalaren eta Karmelaren arteko harreman-ereduan, egitasmo herritar horren antolaketa-moldeek aginduko dute».

Honako hau litzateke bigarren gakoa: eragile sozialek erabakitzen duten bezala garatu beharko lukete proiektuek, administrazioak oztoporik jarri gabe. Horrelakoe-tan, administrazioak herri ekimenari egiten utzi behar dio, eta babes juridiko nahiz ekonomikoa eman, hala eskatuko zaionean. Esperientzia horien bidez egiaztatu dugunez, agente sozialek hala eskatzen dutenean (horixe gertatu da Astran), administrazioak baliabide ekonomikoen bidez lagundu behar die prozesuoi, eta onartu egin behar du ekintza kolektibo eta komunitarioko sare horietako eragileak direla eremu

komunitario horien kudeatzaileak, betiere modu ireki publiko eta herritar guztiei zabalik. Proiektuetan parte-hartzen dutenek erabakitzen dute Astra eta Karmela nola kudeatu behar diren, eta ez administrazioak, proiektuoi bide ematea eta eragozpenik ez jartzea baita haren papera. Karmelaren kasuan, honako hau irakur daiteke erabilera lagatzeko akordioaren lehenengo eranskinean (2020):

«Karmela proiektua proiektu komunitarioa da, auzoan errotuta dagoena eta bere burua guztion ondasuntzat jotzen duena. Proiektuaren helburuak eta jarduketak adosteko, hainbat dinamika eta hausnarketa parte-hartzaile egin dira herritarren eta auzokideen artean 2015etik hona, komunitatearen oinarrizko premiak identifikatu eta asebetetzeko proiektu alternatibo herritzaileak eraikitzeari begira».

Gure hirugarren ondorioak azpimarratzen du administrazio publikoaren beste zeregin edo ekarpen baliotsua prozedura burokratikoak erraztu eta haien gaineko arduraren hartzea izan daitekeela. Astraren nahiz Karmelaren kasuetan, garrantzitsua izan da administrazio publikoak kode burokratikoak soiltzeko eta, horrela, funtzionamendu-logika horren gaineko ezagutza errazteko xedez egin duen lana. Bestetik, oreka bilatu behar izan da zorrotasun formalaren eta lasaitasun informalaren artean, prozesuen bideragarritasunaren mesedetan. Izan ere, administrazio-prozedura burokratikoaren konplexutasunak eta zurruntasunak orokortasun-printzipioa eta arbitrariotasunik ez onartzeko printzipioa baliozkotzen dituzte baina, era berean, administrazio-prozedurak izan ditzakeen eragozpenak ikusarazten dituzte; bereziki, moldatzeko edo beharrezko eraldaketak egiteko ezintasuna.

Landu ditugun bi kasuetan, oso ona izan da administrazioak berak prozedura burokratikoak bere gain hartu izana; batez ere, administrazioaren eta proiektu komunitarioen arteko akordioak eta erabilera-lagapenak formalizatzeko orduan.

Espazio publikoen kudeaketa komunitarioa ahalbidetzeari begira, funtsezkoa izan da, halaber, administrazioak protagonismoa eta boterea lagatzea. Nahiz eta, logika neoliberal batetik abiatuta, egitasmo komunitarioari egiten uzteko nolabaiteko tentazioa egon daitekeen, hau da, administrazioak eremu publikoen kudeaketa lagatzea erabaki dezakeen arren, berari dagozkion baliabide eta zerbitzu publiko batzuk gutxitu eta aurrezteko, aztertu ditugun bi kasuetan logika horrek ez du funtzionatu, kolektibo sozialen sareena izan baita ekimena eta, gainera, erakundeek erresistentzia eta oztopo ugari jarri baitzituzten hasieran. Egitasmo herritar eta komunitarioa tematu izanaren ondorioz lortu da aipatutako eremu publikoak autogestionatzea, eta une oro borrokatu behar izan da bai herritarrek zuzeneko protagonismoa izan dezaten, bai publikoa dena are gehiago demokratiza dadin, Gernikako Udalaren eta Astraren arteko hitzarmenaren laugarren puntuan ikus daitekeen bezala:

«Astrak bultzatu egiten du jendeak ondare publikoaren kudeaketan zuzenean parte-hartzea. (...) Hor barruan sartzen dira ekoizpen artistikoa, egitasmo

sozialak, pentsamendu kritikoa eta esfera publikoa demokratizatzea bilatzen duten ideia eta ekintzen hedapena».

Azkenik, nabarmendu nahi dugu herritarren parte-hartzea modu herritzailean birpentsatu ahal izateko beharrezkoa dela administrazio publikoan kultura berri bat sortzea, maila tekniko nahiz politikoan. Herritarrek protagonizatzen duten parte-hartzeko esperientzia politiko horiek, premiei berehalako erantzunak emateko logika inplementatzailea daukate, eta administrazioak ematen ez dituen egitasmo eta irtenbide alternatiboak sortzen dituzte. Eremu hutsen autogestioa, baratzte komunitarioak, kontsumoko kooperatibak eta elkarlaneko beste esperientzia batzuk gizartearen premiei eta arazoei irtenbidea aurkitu nahi dieten herritarren dimentsio proaktibo horren etsenplua dira. Erakundeek eta administrazio publikoek beti lagundu diezaiekete lan horiei; betiere, beren burua sistema bizitzat hartzen badute, hobetzeko, ikasteko eta laguntzeko prest badaude eta zabalik agertzen badira gizartearen sentitzen diren premien bilaketaren eta erantzunen aniztasuna are gehiago zabaltzen duten egitasmo komunitarioen aurrean.

Sakontzeko

- Della Porta, D. eta Diani, M. (2011). *Los movimientos sociales*. Ikerketa Soziologikoen Zentroa.
- Diputació de Barcelona. Àrea d'Atenció a les Persones. Gerència d'Igualtat i Ciutadania. Servei de Convivència, Diversitat i Participació Ciutadana (2017). *Repensar la participación de la ciudadanía en el mundo local*. Bartzelonako Diputazioa.
- Riechmann, J. (2001). *Redes que dan libertad: introducción a los movimientos sociales*. Paidós.
- Santos, B.S (2005). *El milenio huérfano. Ensayos para una nueva cultura política*. Trotta/Ilsa.
- Zapata, R., Gabrielli, L., Sanchez, E., eta Jaulin, T. (2013). The political participation of immigrants in host countries: An interpretative framework from the perspective of origin countries and societies. *Technical Report, Migration Policy Centre, INTERACT*, 2013/07 <https://cadmus.eui.eu/handle/1814/29565> Accessed 27 November 2020.
- Zibeche, R. (2007). *Dispersar el poder*. Traficantes De Sueños. Zibeche, R. (2018) *Movimientos sociales en América Latina. El «mundo otro» en movimiento*. Zambra-Baladre.
- Zubiaga, M. (1999). La autodeterminación como cambio político. In *Propuestas para un nuevo escenario. Democracia, cultura y cohesión social en Euskal Herria*. Gomez Uranga, M.; Lasagabaster, I.; Letamendía, F. eta Zallo, R, 63-83, Manu Robles-Arangiz Insitutua.
- Zubiaga, M. (2002). *Hacia una consulta popular soberanista*. Manu Robles-Arangiz Insitutua.

- Zubiaga, M. (2014). El ciclo de protesta en Euskal Herria: Hegemonía y radicalización democrática. In *La rebel·ió basca. Una historia de l'Esquerra Abertzale*, ed. Ricard Vilaregut, Daniel Gómez, Pedro Ibarra, eta Mario Zubiaga, 2-35. Icaria.
- Zubiaga, M. (2014). La decisión democrática como fundamento del derecho a decidir. Txostena, Kataluniako Parlamentuko erabakitzeke eskubidearen inguruko azterketa batzordea. https://www.academia.edu/8397755/Informe_Comisi%C3%B3n_de_estudio_del_derecho_a_decidir_del_Parlament_de_Catalu%C3%B1a.
- Zuboff, S. (2019). *The Age of Surveillance Capitalism: The Fight for a Human Future at the New Frontier of Power*. Profile.

V. atala

Funtsezko kontzeptuak Demokrazian eta Parte-hartzean hainbat eskalatan murgiltzeko

Iñaki Zaldua-Calleja

Soziologia eta Gizarte Langintza Sailean kontratatutako ikertzailea¹
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)²

Hariari heldu eta tira! Jarraitu tiratzen! Korapiloa osatzen duten loturen nondik norakoak gainbegirada batez ulertzea ezinezkoa den arren, tiratuz, korapiloa osatuko duen hariak zer daraman ere ezagutzea lortuko dugu. Dinamikoa da, estatikotasunean ez dago aurrera egiterik, ezta liskar dialektikorik gauzaterik ere. Eta guk hariaren korapiloaren zergatia bilatzen dugu. Korapiloa, korapilo gisa utzita, nahaste-borrastea bere horretan utzi eta korapiloa jarraituko luke izaten, baina haririk ezingo genuke erabili. Horretan datza, zalantzarik gabe Gizarte Zientzien xedea. Alegia, korapilatsua, liskartsua eta konplexua den gizartearen hariari heldu eta korapiloaren *izana* zergatik den ulertzean.

Hariari helduta, konturatuko zinen, hari-zati kapitulu bakoitzak bere terminologia propioa erabili duela. Diziplina ezberdinek marko teoriko eta kontzeptual propioak eraiki eta erabiltzen dituzte. Honek, korapiloaren balioa aberasten duen neurrian, askatze eta ezagutzaren ulermena zailtzen du. Horregatik, apaltasunez korapiloko loturak askatzeko tresna gisa aurkezten dizugu kapitulu hau.

Zenbat buru hainbat aburu diren bezala, zenbat ikuspegi horrenbeste ondorio, eta horrek ematen dio zalantzarik gabe bizitasuna aurrean duzun dokumentuari. Taldean eraikitako liburutik komunean adostutako termino zientifikoak azaltzen saiatu gara. Helburua korapiloa ulertzea bada, akademiak, hura zehazteko beste adierazpen izan beharko dituelako. Zalantzarik gabe, autore guztiek eztabaidarako eskaintako proposamen eta irizpideak ezinbestekoak izan dira. Izan ere, korapiloak hainbat hari bata besteari loturik zituela ohartu bagara, zein da haria? Korapiloa bera.

¹ Eusko Jaurlaritzako Doktoretza Aurreko 2022ko dirulaguntzaren onuraduna.

² Kapitulu hau egiteko oso garrantzitsua izan da liburu honetan elkarlanean aritu diren gainerako idazleen lankidetzeta eta laguntza. Zinez, eskerrik asko.

Eta deskorapilatzean, **demokraziaz** askatu dugu eta **demokraziaz aritzeko balio izan digu**. Baina, bateragarriak dira demokraziazko hari anitz horiek? Eztabaidaren parte dira, eta gizarte ikertzaileok, egunerokoa erabiltzen ditugun terminoak dinamismo horretan ulertu behar ditugu. Orduan, jakingo zenuke demokrazia definitzen? Zer da demokrazia? Nork bultzatzen du demokrazia?

Askatu berri duzun hariak korapiloa egin du argitutako zatian. Kapitulu hone-tako edukiak hura konpondu, eta antolatzeke euskarri interesgarri gisa izan dezazun espero dugu.

Jarraitu iezaiozu Gizarte Zientzietako tresnen hariari!

Administrazio publikoa

Sistema soziologikoan, gizartea eta merkatuaren arteko loturan diharduen eragile-a. Estatuaren izenean, parlamentutik udaletxera, bizitza kudeatzeko erantzukizuna duen egitura.

Administrazio publikoaren bitartez, Europako demokrazia liberaletan, legedia termino exekutiboetan betetzen da, eta era horretan kudeatzen da XXI. mendean ditugun gizarte konplexuen bizitza.

Agentzia

Egiturak gizarteko jarraibide egonkor eta errepikakorrak dira, eta gizarteko ki-deek eskura dauzkaten hautu eta aukerei eragiten diete eta horiek mugatzen dituzte. Agentzia, aldiz, gizabanakoek beren kabuz jarduteko eta beren hautuak askatasunez egiteko duten gaitasuna da. Egitura/agentzia eztabaida norbanakoen edo talde so-zialen autonomiaren eta sozializazioaren arteko dialektikan uler daiteke, pertsonak eragile aske gisa edo gizarte-egiturak emandako jarraibideen menpe jarduten duten zehazterakoan. *Ikus* Bordieu, 1997 eta Giddens, 1984.

Altermundialista

Globalizazio neoliberalaren aurka mundu mailan antolatutako eragile sozialen arteko askotariko aktibisten mugimendua.

80ko hamarkadaz geroztik, batik bat gerraren, eskubide urraketen eta bizi bal-dintzak okertzearen aurka agertu ziren, epe luzera begira antolatutako estrategiak proposatzeko asmoz. *Ikus* Massiah, 2012.

Asistentzialismoa

Asistentzia burutzeak berez behar duenari laguntza emateari dagokio, eta gizarte langileen funtzioetariko bat da (Gizarte Langintzako Kode Deontologikoa, 2012). Baina jardun profesionala asistentzian oinarritzen denean, asistentzialismoan edo eredu asistentzialaren aurrean gaude. Eredu asistentziala, artatutako pertsona gizarte-baliabide baten hartzaile huts bihurtzen duen gizarteekintza da. Ez du pertsonaren autonomia eta autodeterminazioa helburutzat, beraz, artatzen den problematika edo premia-egoera ez da aldatzen, aitzitik, mantentzen eta ugaltzen laguntzen du. *Ikus* Berasaluze, 2011.

Atzerritarra

Estatuko identitate nazionala ez duen pertsonari egozten zaion izena. Gehiengotan etorkina kategoriarekin bat egin dezake baina ondo bereizi behar dira. Izan ere, **Atzerritar** hitza kategoria juridikoa den bitartean, **etorkin** terminoa leku batetik bestera egin duen pertsonaz ariko litzateke. Horrela izanik, etorkin batek ez du zertan atzerritarra izan (lurralde horretako nazionalitatea badu), eta atzerritarra izan daiteke etorkina izan gabe (lurraldean jaio baina atzerritar nazionalitatea izanez). *Ikus* Moreno eta Aierdi, 2015.

Atzerriarekiko kodependentzia

Edozein modutako lurralde-antolakuntza kapitalistak, bere garapen maila mantentzeko, premiazkotzat joko du kanpoaldeko edo atzerriko beste herrialdeak, hiriak, eta abar (beste lurralde-antolakuntza bat azken finean) jazarri. Honek, beste herrialderi, munduko merkatuan jarraitzeko eta nazioarteko politikan aritzeko aukerak emango dizkio; beste lekuan ordea, estruktura, lege, dinamika kapitalistak eraikitzeko aukera zabalduko da, harreman kapitalistak bestelako lekuekin ezartzeko aukerak zabalduz.

Aulki Hutsaren krisia

1965ean, Walter Hallstein alemanak zuzendutako Europako Batzordeak erabakiak hartzeko prozesuan araudi aldaketa egiteko proposamena onartu zuen. Ordura arte beharrezkoa zen aho batezko adostasuna baztertu, eta aurrerantzean nahikoa izango zen gehiengoa izatea erabakiak hartzeko, subiranotasuna nolabait partekatuz

horrela. Charles de Gaullek, orduko Frantziako presidentea, erabakiarekiko desadostasuna adierazteko, sei hilabete eman zituen EBko bozketetara joan barik.

Austeritate hirigintza

Austerity urbanism edo austeritate hirigintza Jamie Peck geografia ekonomialari britainiarrak asmatutako kontzeptua da. Honen iritziz, 2008ko krisiarengatik maila nazionaletan gertatutako murrizketen ondorioz, hiriguneez jaso zuten hauei aurre egiteko zama, baliabiderik eta politika publikoak aurrera eramateko berme legalik gabe. Erregulazio ahalmen hutsune horrek austeritate politikak burutzera eramanez zituen administrazio lokal askori, zerbitzuak pribatizatuz, azpikontratazioak bultzatuz eta, oro har, egitura publikoa murriztuz.

Autodeterminazio eskubidea

Luze eta hainbat ikuspegitatik (sozialismoa, liberalismoa) landutako terminoa. *Herrien Autodeterminazio Eskubidea* Nazio Batuen Erakundearen Sorrera Gutuneko lehenengo artikuluan aitortutako eskubidea da. Han, II. Mundu Gerraren ostean, Europako estatu batzuek Afrika, Amerika eta Asiako herrialde batzuetan zituzten koloniei beren etorkizun politikoa bide demokratikoetatik erabakitzeko eskubidea aitortzen zitzaizkien.

Eskubide hori abiapuntu izanik, kolonia ez diren estaturik gabeko hainbat nazio herri guztiak egitura politikoak erabakitzeko duten gaitasuna aldarrikatzen dute, nazio gatazkak konpontzeko bide demokratiko gisa (*Erabakitzeko Eskubidea*).

Autodeterminazioa

Oro har, erabaki propioak hartzeko ahalmena. Politikan, nazio edo herrialde batzuek estatu egitura propioak eraiki ahal izateko herritarrei kontsulta egitea. Beste estatu batetik banantzeko prozedura demokratikoa.

Autoritarismoa

Latineko *autoritas*etik eratorria, etimologikoki botere legitimoari egiten dio erreferentzia. Autoritarismoak boterearen kudeaketaz dihardu: pluralismo mugatua du;

hau da, elitean joera ezberdinak aurkitu daitezke eta haien artean botere banaketa mugatua egongo da. Bereizi beharra dago **totalitarismotik**, hemen eliteak zirrikitu ideologikorik gabe eragiten baitu boterea (Hitlerren Alemania nazia da adibide argia). *Ikus* Arendt, 1959.

Azpiratutako ezagutzak

Tradizionalki baztertutako eta marginalizatutako subjektuek sortutako ezagutza edo jakintzak dira, alor akademikotik kanpo sortu direnak, eta, beraz, aitorten zientifikorik edo akademikorik ez dutenak. Subjektuen bizipenak eta esperientziak informalak azpiratutako ezagutzen parte ere badira.

Balio garaikideak

Momentu historiko bakoitzak bere balioak produzitzen ditu, testuinguruaren arabera. Balioen bidez, gizarte harremanak nola burutuko diren azaltzen dugu; alegia, gizarte jakin batean elkar ekintzak jorrazteko (erakundeen zein aktoreen artean) marko kognitiboak eraikitzen ditugu ideiak edo baloreak definitzeko. Zentzu horretan, balioak aldatuz doaz pertsonon bizi esperientzian zehar, baita garaien joan-etorrietan ere.

Horregatik, balio garaikideak, beren orokortasuna dela eta (gaur egungo? garaia mundu mailan azaltzen den gertakaria delako), zentzu oso egozentrikoan izenda gennitzake soilik; izan ere, testuinguru kultural, erlijioso, historiko eta koiunturalak aldatetarako eragin diezaizkiekete gizarte jakin bateko balio orokorreari.

Batik bat, balio garaikidetzat har ditzakegu produktibitatea eta abiadura (*Ikus* Concheiro, 2016). Alegia, bizitzen azkartzeak etengabeko produktibitatea eskatzen du, eta, mundu mailan antolatutako sistema kapitalistan bizi garen heinean, neurri batean, termino hauek garaiko gizarte ordezka dezaketela aurreikus genezake. Google-ri galdetuz gero, bestelakoak agertuko zaizkigu.

Bazterketa soziala

Oro har, eta arrazoi asko direla medio, gizartearen ohiko ildotik at geratzen dena adierazten du, gehienetan gizarteak berak hala onartuta. Bazterketa soziala jasaten duenari ez zaio herritartasun osoa betetzeko aukerarik ematen (Navarro 2018; Eubanks, 2021).

Gai delikatua izanik, hainbat adierazle erabiltzen da pertsona bat bazterketa egoeran dagoen edo ez zehazteko. Hauek erabiltzen dira, adibidez, Europa 2020 estrategian:

- a) Pertsona edo familia unitateko gastu orokorren aurreko urteko mediana, diru sarrera guztien % 60koa baino gutxiago denean.

Eta, honako baldintza hauetatik lau betetzen dituztenean.

- a) Urtean behin oportretan joateko aukerarik ez dagoenean.
- b) Bi egunetan behin haragi edo arrainik jaterik ez dagoenean.
- d) Etxebizitzarako konfort tenperaturarik mantentzeko aukerarik ez dagoenean.
- e) Ezusteko gastuei aurre egiteko aukerarik ez dagoenean.
- f) Azken 12 hilabeteetan etxebizitzako gastu orokorrak ordaintzeko arazoak izan dituztenean (alokairua, argindarra...).
- g) Autorik izan ezin denean.
- h) Telefonorik izan ezin denean.
- i) Telebistarik izan ezin denean.
- j) Garbigailurik izan ezin denean.

Berlurralderatzea

Reterritorialization ingelesez. Neil Brennerrek, beste askoren artean, erabiltzen duen terminoa. Berreskalamendu prozesuaren ondorioa da. Kapitalaren eta boterearen finkapen berriak lurralde-antolakuntza berrietan (hirietan edo Estatuetan) ezartzen direnean gertatzen den prozesua da.

Biolentzia epistemikoa

Indarkeria epistemikoa maila epistemologikoan gertatzen diren praktika zapaltzaileei egiten die erreferentzia. Subjektu jakin batzuek sortutako ezagutza eta jakintza isilarazi eta ezagutza zientifikoa eraikitzeko, eztabaidatzeko eta zabaltzeko egiten duten ekarpena deslegitimatzen duten praktika zientifiko zein akademikoek multzoiari deritzogu.

Bizitza komunitarioa - komunitatea (eu.) / vida comunitaria - comunidad (ga.) / community life - community (in.) / vie communautaire - communauté (fr.)

Eskuarki, komunitatearen kontzeptua gizartearen kontzeptuari kontrajarrita erabili da soziologian. Komunitatea eskalaren arabera eta taldea osatzen duten loturen nolakotasunen arabera definitu izan da. Izan ere, kontzeptu hori eskala txikiko talde soziala izendatzeko erabili da edo/eta barneko harremanak oinarritzeko, afektiboak eta tribalak dituen taldea ezaugarritzeko. Aitzitik, gizarteak barnean hartzen ditu bestelako harremanak ere, zabalagoak, inpersonalagoak eta instrumentalagoak.

Borroka sinbolikoak

Pierre Bourdieu-ren adieran, errealitate sozialaren zentzu edo interpretazio legitimo jakin bat ezartzeko asmoz gizarteko eragile indibidualen nahiz kolektiboen artean egon ohi diren botere lehiak dira.

Botere faktikoa

Sistema politikotik at dagoen eragile pribatua, baina sisteman eragiteko ahalmena duena.

Boterearen mikrofisika

Michael Foucault (1926-1984) frantziar soziologo eta filosofoak erabilitako terminoa. Foucaultek hein batean sen arrunta deituko diogun hori aztertu zuen. Alegia, naturaltasunez jorratzen ditugun dinamikak, estatuak (botere hertsiztaile legitimoaren monopolioa duen egitura gisa ulertuta) sortutako diziplina mekanismoen ondorioak zirela frogatuko zuen.

Sistema psikiatrikoa, irakaskuntza eta kartzela aztertuz, autoreak, gizarte jakin bateko joerak baldintzatuko dituen prozesu doktrinatzailak azalarazi zituen. Autoritatearekiko errespetua, denboraren kudeaketa, identitatearen sortze prozesua, dena testuinguru batengatik eratorria izango zaio gizakiari, eta, hortaz, gizarteratzeko beharrezkoak dituen joerak produzitzeari, estatuagatik era ezkutuan ezarriko direnak, boterearen eragite mikroak deituko dizkio; hau da, boterearen mikrofisika.

Botere-harremanak

Gizakion bizitza sozialaren oinarrian gauzatzen diren harreman guztiek daramaten erlazio konplexua, eta koiunturaren, adinaren edo kapital metaketa ezberdinen arabera aldatu egingo dena.

Boterea, nor bere borondatea inposatzeko aukeren arteko probabilitatea bezala definitu zuen Max Webber (1864-1920) Alemaniako soziologoak. Baina definizioa zabalegia dela adieraziko zuen; eta ondorioz, zehatzagoa zelakoan, menderatzea terminoa hobetsi zuen.

Finean, boterea bestearengan eragiteko ahalmena da. Hau da, A eta B izanda, A norbanakotik B norbanakoak zerbait beharko balu, A-k boterea izango luke B-rengan. Are gehiago, eskuratu beharrekoa premiazkoa bada eta aldagai hau gero eta garrantzitsuagoa bada, A-k B-rengan botere handiagoa izango duela ondorioztatuko genuke. A eta B elkarrekiko trukean diharduen edozein pertsona, agente edo erakunde izan daiteke.

Boterea, noski, ez da aldebakarrekoa, eta, askotariko aldagaien metaketan oinarritzen denez, orekatuago edo desorekatuago egon daiteke.

Botere-matrizea

Patricia Hill Collins-ek proposatutako *dominazio matrizean* oinarritutako kontzeptua da. Botere matrizeaz mintzatzen gara, dominazioaz gain erresistentziak kontuan hartzen baditugu.

CCPA

California Consumer Protection Act.

Community care

Komunitate ikuspegiari erreferentzia egiten dion terminoa da. Esku hartzea, pertsonaren testuinguruaren baitan kontuan hartua izatea. Adibidez, pertsona bat, bere auzoan zahartzeko eskubide eta beharraz mintzo da. Bere baliabide komunitarioetan sinesten da, modu batera edo bestera.

Datafikazioa

Datafikazioa dataismoarekin eta *dataveillance*ekin nahasten da sarri. Datafikazioa pertsonen bizitzan datuek hartu duten espazio osoarekin lotzen da. Datafikazio-prozesuak gertatzen ari dira, beraz, gizakiaren bizitzaren inguruan etengabe. Gizakiaren edozein jarduera datu bihurtuz, eta datu hori kode eginez.

Datu kooperatibak

Datu kooperatibak datuekin kudeaketa ereduak egitean dautza. Alegia, datuak izanik lehengaita eta kooperatibak izanik suertatzen den kudeaketa ereduaren emaitza. Datuak erabiltzaile/jabeen artean kudeatzen dira kooperatibak eratuz horretarako. *Ikus* Calzada, 2021 eta Scholz eta Calzada, 2021.

Datu-subirautza

Hiritarren datuak lurralde-mailan kokatzearen ondorioz sortutako kontzeptua. Alegia, datuen kokaguneak inporta du, eta horrek eratzen du datu-subirautzarako aldarria. *Ikus* Hummel *et al.*, 2021.

Demokratizazioa

Erradikalizatzeko demokratiko gisa ere defini dezakegu. Hau da, sistema kapitalistaren ondorioei aurre egiteko zuzeneko parte-hartzean oinarrituko den prozesu kolektibo antikapitalista, antinperialista, antirrazista, antisexista... *Ikus* Zubiaga, 2017.

Demokrazia liberala

Oinarritzat ordezkari bat duen gobernu modu bat da, non hautatutako ordezkariak erabaki politikoak hartzeko duten gaitasuna zuzenbide estatuaren mende dagoen. Gehienetan, eskubide eta askatasun indibidual eta kolektiboaren babesa arautzen duen konstituzio batek moderatzen du, nahiz eta praktikan askatasun demokratikoak mugatuta egon ohi den. Demokrazia liberalaren ezaugarri formala aniztasun politikoa izan ohi da, baina aniztasun hori ezarritako ordena sozio-ekonomikorako arriskurik ez dakarten aukeretara murrizturik egoten da. Beraz, pluralismoak ez ditu baz-

terketak saihesten. Bazterkeria horien neurria kalitate demokratikoaren adierazletzat hartu ohi da. *Ikus* Castels. 2018; Claus Offe eta Schmitter, 1995 eta Mair, 2013.

Demokrazia modernoa

Estatu Batuetako eta, bereziki, Frantziako Iraultzaren ostean sortu ziren sistema demokratikoez hartu zuten izena. Grezia klasikoaren garaiko *demos* eta *kratose*tik bereiziko da; izan ere, *zoom politicum*ak ez du zuzenean erabaki politikoetan parte hartuko.

Orain, hiritar gisa, mendebaldeko gizakiak bere burua ordezkatzeko duen hautagai politikoetan lagako du erabaki politikoaren ardura.

Demokraziaren pribatizazioa

Demokrazia pribatizatzeke, komunitate politikoei beren burua gobernatzeko gaitasun territoriala eta politikoa kendu behar zaie.

«Demokraziaren pribatizazioa» terminoak oximoron bat eman dezake; izan ere, demokraziaren bitartez esparru publiko-politikoak zabaltzen da, eta pribatizazioak, berriz, kontrako norabidean jotzen du, eta esku pribatuetan (ez direnak hautatu, ez direnak arduradun eta ez dutenak herriaren zilegitasunik) jartzen ditu eskubideak, erabakiak hartzeko ahalmena eta erakunde publikoak, bai eta ondasun kolektiboa, jakintza, osasungintza, hezkuntza, baliabide naturalak eta autoritate politikoak ere.

Demokraziaren pribatizazioa kapitalismo neoliberalaren helburua da, Goikoe-txearen arabera. Kapitalismo globalak herriak boteretzen eta politikoki gaitzen dituzten mekanismoak eta egiturak pribatizatzen ditu herritarren autogobernua neutralizatuz eta hori guztia estatutik egiten da korporazio pribatuen bidez. *Ikus* Goikoe-txea, 2018.

Desinstituzionalizazio prozesua

Desinstituzionalizazioa Modernitate berantiarreko prozesua da. Lehenago, norbanakoek beren bizitza diseinatuta zeukaten, eta bizitzako erabakiak instituzionalki ezarritako rol eta arau batzuei jarraiki hartzen zituzten. Alabaina, lehen modernitatetik datozen gizarteko egiturak eta instituzioak beren sendotasuna eta indar arauemailea galduz joan dira. Ondorioz, norbanakoen aldetik instituzio eta egitura horiei buruzko deskonexio gero eta handiagoa gertatzen da gaur egun, eta instituzioek —politikoez, sozialez, ekonomikoez, eta abar—, bizitza soziala arautzeko ahulduta

egotean, legitimatzeko gero eta arazo handiagoak dituzte. *Ikus* Beck, Giddens eta Lash, 1994; Bauman, 2001.

Desnazionalizazioa

Gaur egungo sistema ekonomiko eta politiko neoliberalaren eraginagatik, demokraziaren pribatizazioa bide dela, nazioartean erabakiko diren ekintzek estatu eta nazio barnean eragina izango duten heinean, estatu egituren subiranotasunaren gutxitzeari egiten dio erreferentzia. *Ikus* Beck, 1998 eta Maiz, 2016.

Dialektika

Filosofian eta Gizarte Zientzietan oso erabilia den terminoa, esangura konplexukoa. Funtsean, eztabaida batean, aurkako iritzia adierazten dutenen argudioen arteko kontraesanen bidez egia aurkitzean datzan *arrazoitze teknikatzat* uler genezake. Ondorioz, kontraesanez edo aurkako arrazoinamenduek ez lukete zientzia oztopatu; baizik eta eztabaida dinamizatuko luketela ulertuko genuke.

Digitalizazioa

Gizarteko alor guztietara heldu den teknologia digitalaren ondorioz, botere harreman orotan gertatu diren aldaketak barnean biltzen dituen prozesua. Munduaren geopolitika digitalizazioaren baitan dabil kulunkan, batetik bestera, norgehiagoka etengabe bat marrazten ari delarik. Digitalizazioak datafikazioa dakar bere horretan. *Ikus* Calzada, 2021; Calzada, 2022 eta Scholten *et al.*, 2021.

Dimentsio komunitarioa

Gizartea bera, erakunde politikoetatik edo merkatu logiketatik at, baina haiekin hartu-emanetan dagoen dimentsio soziologikoa.

Eguneroko bizitza

Eguneroko bizitzako soziologiak aztertzen du nola eratzen eta bideratzen diren aktore sozialen bizipenak, egoera eta testuinguru komunitarioen aurrean gai-

tasuna duten subjektu gisa. Hala, ikuspegi hori norbanakoen eguneroko errealtate hurbilean zentratzen da, aktore sozialek berek hautematen duten eran arre jarrita.

Oro har, egunerokoan jorratuko ditugun erritu, taktika, estrategia edo bestelako joera inkontzienteak (denboraren kudeaketa, etxeke lanen antolaketa, lan banaketak...) aintzat hartuko dira. Alegia, indibidualak diruditen, baina marko kognitibo orokor bat adieraziko duten praktika komunak azterketari egingo lioke erreferentzia. *Ikus.* De Certau, 2001).

Epistemologia feminista

Bell Hookskek (1952-2021), era laburrean, sexismoari, esplotazio sexistari eta zapalkuntzei amaiera emateko mugimendu gisa definitu zuen feminismoa. Beraz, abiapuntu modura, honela defini dezakegu epistemologia feminista: emakumearen aurkako indarkeria aintzat hartzen duen ikuspegia. Hau da, ezagutza sortzean, generoak ezartzen dituen logikak agerian utzi, eta hauek irauli nahi duen korrante teorikoa da. *Ikus* Martinez-Palacios, 2018.

Epistemologia

Epistemologia, «episteme» (egia gisa justifikatutako ezagutza) eta «logos» (ikas-keta), grekotik hartutako, eta ezagutza zientifikoa, bere izaera, posibilitatea, irismena eta oinarriak aztertzen dituen filosofiaren adarra adieraziko duen kontzeptua da.

Adierazten du zientzian ikerketa objektua nondik izango den aztertua. Gizarte zientzietan, ikerketa objektuarekiko hurbilpenak ezberdinak izan daitezke. Azterketa termino positibistetan egin daiteke, non, objektuarekiko distantzia erabatekoa den. Ikuspegi hau, makro ikerketak jorratzeko erabiltzen da, eta erabat deskribatzailea da. Gizarte zientzietan ibilbide luzekoa ere baden bestelako ikuspegia hermeneutikoa dugu. Honek gizarte lagin txikiagoa aztertu ohi du, eta era kualitatiboan jorratzen du bere azterketa. Ikertzailearen subjektibitateak eragin handiagoa izan dezake zientzia jorratzeko esparru honetan, emozioak, barne zergatiak eta, oro har, inkontzienteki jorratzen direnak aztertu eta ulertzea xede duen heinean, ikerketarako subjektuekin harremanak eta loturak jorratzea ezinbesteko aldagaia izaten da. Hirugarrenik, askoz ere berriagoa den epistemologia dialektikoak, gizarte prozesu parte hartzaileen bidez, objektuen testuingurua aztertu eta ulertzeaz gain, haien logikak iraultzea du xede. Azken hamarkadetan bestelako ikuspegiak ere bere esparrua aldarrikatu dute, batik bat epistemologia feminista (*aurretik azaldua*).

Erljio Gerrak

Erreforma protestantearen hasieratzat Luterok 1517an Wittenbergeko elizako atean bere 95 tesiak iltzatu zituenan jotzen da. Gerora alemaniar nekazariak egin-dako matxinadak giro gorabeheratsua ekarri zuen Europara. Testuinguru hartan, 173 urteko (1524-1697) gerra-aldi amaigabea hasi zen Eliza ofizialaren (katolikoak) eta Erreforma protestantearen artean, *Erljio Gerrak* izenez ezagutzen direnak. Gerra bereziki bizia izan zen Frantzian eta 1562 eta 1598 urteen bitartean. Aldi horren barruan *Hugonoteen sarraskia* gertaera larria izan zen.

Anabasa testuinguru horretan, Jean Bodinek *Errepublikako sei liburuak* izeneko liburua argitaratu zuen. Han, gerora eragin handia izango zuen kontzeptu berria sortu zuen: subiranotasuna.

Bodinek, lurraldean ordena eta bakea ziurtatzeko asmoz, baita fakzioen arteko bitartekari gisa jardun zezan, erregearen autoritatea indartzeko sortu zuen subiranotasuna terminoa. Subiranotasuna Errepublika baten botere absolutu eta betierekoa zen, eta gobernutik bereizi zuen arren, Bodinek nabarmendu zuen autoritate subira-noak absolutua, betierekoa eta zatiezina izan behar zuela. *Ikus* Shilling, 1999.

Erreflexibitatea

Modernitate berantiarra tradizioetik aldentutako testuingurua da; hala, testuinguru horretan, norbanakoak gizarte-egituratik eta erakundeen eraginetik gero eta deskonektatuago daude. Beraz, etengabe hausnartu behar dute beren bizitzei eta identitatei buruz. Ulrich Beck-ek, adibidez, «modernitate erreflexiboaz» hitz egiten du, lehen modernitate industrialetik harago doan bigarren modernitatea ezaugarritzeko. Testuinguru horretan, ikerketa zientifikoaren emaitzak ere gizartearen ezagutzaren parte bihurtzen dira, eta pertsonak bereganatu egiten dute ezagutza hori erabakiak hartzean eta beren bizitza bideratzean, amaigabeko gogoeta-ariketen bitartez. *Ikus* Beck, Giddens eta Lash, 1994; Lamo de Espinosa, 2015.

Errepertorioak

Komunitate baten barruan (identitateak, interes solidarioak eta komunikazio-kanal partekatuak daudenean), ekintza-jarraitibideak ezartzen dira, gizabanakoei zein taldeei gida edo erreferentzia gisa balio dietenak kolektiboki jarduteko. Jarraitibide horiek ekintzarako eta parte-hartze politikorako errepertorioak edo ekintza-bildumak dira, eta eskuragarri egon ohi dira une historiko eta testuinguru kultural eta politiko jakin batean.

Eskubide digitalak

Eskubide digitalak, adimen artifizialaren erabilera utilitarista eta datuen monopolioaren aurrean eratu den mundu mailako aldarria da. Nazio Batuen erakundeak hauspotua zenbait hiri eta aditurekin orainartean. Eskubide digitalen taxonomia anitz daude eta geroz eta erabilera nabarmenagoa du, herrialde, erregio, eta hirien arautegietan. *Ikus* Calzada, 2019; Calzada eta Almirall, 2020; Calzada, Perez-Batlle eta Batlle-Montserrat, 2021.

Estatua

Lurralde jakin bateko populazioarengan indarkeria legitimo hertsitzailearen monopolioa eskuratzen duen egitura multzoa. Funtsezko hiru elementu ditu: lurralde bat, lurralde horretako biztanleak eta lurraldearen eta biztanleen gaineko subiranotasuna.

Indar hertsitzailea ez da soilik indarkeria fisikoan (armadan edo polizian) oinarritzen, botere sinboliko oso baten ezarpena ere bai baitakar berekin. Estatuak hainbat erabaki eta prozedura hartzen du: nor den herritarra, zer den legala eta ilegala (zuzenbidea), herritarren hezkuntzaren ardura, espazio publikoaren erabilera, eta abar.

Hori dela eta, estatuak bere gizartean arketipoak eta joerak sortzeko ahalmena du. Alegia, besteak beste, adierazitako diziplinatze erakunde horiek erabilita, herritarrek estatuak markatzen dizkien ezagutzak produzitzen dituzte era inkontzientean (Billig, 2014). Ondorioz, mundu ikuskera zehatza ezarriz, herritarrek eta nazioarteko eragileek legitimaturik izango duen marko kognitibo oso bat osatzen du. *Ikus* Billig, 2014; Tilly, 1992.

Estatu absolutista

Europar Aro modernoarekin hasten den estatu-forma. Haren ezaugarriak nabarmenena botere subirano mugagabea izatea da, edozein autoritatetatik berezita. *Ikus* Maquiavelo, 1982.

Estaturik gabeko nazioa

Estatu egiturarik ez daukaten nazioei esaten zaie. Nazioa komunitate bat da, estatua baino estuagoa. Hori dela eta, XVIII. mendean geroztik, estatuak nazio izaera ere hartu zuten (*nazio-estatu*), estatuko herritar guztien batasuna irudikatze, eta horretarako kultura jakin bat aukeratu zuten herritarren arteko kohesioa indartzeko.

Mugimendu horrek, ostera, estatuko beste herrialde batzuen protesta ekarri zuen, eta haiek ere *nazio* zirela (komunitate bat) aldarrikatu zuten, lurralde propioaren jabe.

Hortaz, nazioa kontzeptu subjektiboa den heinean, beste estatu batetik banatu nahi den herrialde bateko mugimendu nazionalista nazio gisa identifikatzen da, eta bere burua estaturik gabeko nazio modura aurkezten du. *Ikus* Azkune, 2021; Iraola, 2014; Letamendia, 1997; Mira, 1985; Nuñez, 2019 eta Zabalo eta Odrionzola, 2017.

Estatuen gaitasun arautzailea

Fordismo keynessiarrean Estatu nazionalak zenbait baldintza onuragarri bermatzen zituzten gizartearen eta langileen mesedetan zenbait mekanismoren bitartez: gizarte-segurantza zerbitzuak, lan-baldintza duinak, sindikatzeko eskubideak... modu honetan Estatuak merkatuaren esku hartzea kontrolatzen zuten. Baina ekoizpen sistemaren aldaketarekin suntsipena maila honetaraino ere ailegatu zen, Estatuaren ahalmenak eta gaitasunak ahulduz merkatuaren mesedetan.

Estatu liberala

Aro Garaikidearen hasieran sortu zen, Iraultza liberalaren ondorioz, eta Monarkia absolutua ordezkatu zuen.

Estatu multiklasea eta estatu monoklasea

Estatu monoklasea: erakunde sozial homogeen, egonkor eta zurruna daukan lurralde mugatu bateko gizartea ordezkatzeko lukeen estatua. Alegia, modernitatean eraikitako marko kognitiboaren ondorioz, nazio estatuak izan behar zutena.

Estatu multiklasea: estatu batean izaten diren askotariko errealitateak aintzat hartuko lituzkeen markoa. Osteantzean, estatuaren baitan, erakundetze prozesu anitzak egon daitezkeela aitortuko da. *Ikus*. (Cossuta, 2017).

Estatu soziala

Jatorriz Alemaniako kultura politikoan sortu zen kontzeptua, von Bismarcken Prusian. Liberalismo kontrolatuko proiektu bat da. Hau da, kapitalismoa erregulazio-esparru batez hornitzen du, non kapitalismoaren onurak justizia sozialaren osagai batzuekin osatu nahi diren.

Estigma

Estigmaren bidez normatiboa ez dena sailkatzen dugu, «bestea» umilduz. Umiltze hori, bi bidetatik abia daiteke: arruntasuna, osasun terminotan ulertuko badugu, fisikoki edo psikologikoki gizartearen marko arketipikoa beteko ez duten horiek sartu dira estigmaren baitan.

Era berean, termino sozialetan aztertuz gero, marko normatiboa, elite ekonomiko, politiko eta kultural batek eraikiko du; gure kasuan, gizon heldu, zuri, burges eta heterosexuala. Bestea hainbat aldagaik gurutzatuko dute, apalduaren identitatean gutxipen bat sorraraziz. *Ikus* Goffman, 2006.

Estrukturalismoa

XX. mendearen hasieran Europan abiatu zen korrante teorikoa.

Komunitate jakin bateko norbanakoez jasaten dituzten gertaerak ezagutu eta hauek zein estrukturan menpe dauden aztertzean datzan praktika metodologikoa da. Ondorioz, aztergaien orokortasuna ikusteko eta ezagutzeko aukera emango duen teoria da. Alegia, osotasuna bere zati guztien gehiketa baino zerbait gehiago dela antzemanda, metatuz gero, zati bakoitza konbinatu eta bilakaerak jasoko dituen osotasun bat bezala eraikiko da. Banatuz gero, bata besteari eragiten ziola eta hortaz, dinamismo hori aintzat hartu beharra zegoela adierazteko baliagarria da.

Etorkinak

Ikus Atzerritarrak.

Europar Batasuna

Europar Batasuna europar kontinentearen integrazio-prozesuaren emaitza da. Nahiz eta Maastrichteko Itunak 1992an formalki ezarri, 1950eko hamarkadan sortutako Europako komunitateen bilakaeraren ondorioz jo dezakegu.

Europar Batasuna da estatuen subiranotasuna hainbat arlotan (Europako Batzordearen ekimena, erabakiak gehiengoz hartzea eta EBko Justizia Auzitegiaren nahitaezko gainbegiratzea) partekatzean oinarritutako nazioz gaindiko erakundearen konbinazioa. Izan ere, Estatuko gobernuak aho batez jarduten duten gobernu arteko beste lankidetzaren arlo batzuekin batera. Gaur egun, Europar Batasuna 27 estatu kidek osatzen dute. *Ikus* Borchardt, 2017.

Federalismoa

Hainbat herrialde edo erakunderen batuketa proposatzen duen sistema politikoa. Herrialdeek edo erakundeek beren subiranotasunaren zati bat uzten diote haien gainean sortzen den entitate berriari, baina boterea ez da zentralizatzen.

Fordismoa

XX. mendearen hasieran Henry Ford enpresaburuak diseinatu zuen katea-sistemari egiten dio erreferentzia. Fordek lanaren banaketa (lanpostuen berebiziko espezializazioa) bilatu zuen bere lantegietan.

Lanak gero eta zehatzagoak izanda, langilea produktuaren egilea izatetik prozesuko beste tresna bat izatera bideratzen zuen. Ondorioz, langilea *ez-ez-inbesteko* bilakatzen zen, eta lan harremanetan ziren botere harremanak are gehiago desorekatzen ziren horrela.

Era berean, lan mekanikoak, automatikoak eta denbora jakin batean egin beharrekoak izanda, prozesu alienatzailezat ere hartu izan da. Hau da, langileak automata bilakatzen zituen, sistema kognitibo oso baten logikak ezarritz.

Sistema honek bilakaera izan du, eta XX. mendearen amaieratik hona sistema postfordistaz hitz egiten da. Funtsean, aurreko sistemak zeuzkan ezaugarriak muturrera eramateaz gain, eta bere krisiari aurre egiteko asmoz, postfordismoan, globalizazioaren paradigmaman sartuta, mundu mailako lan katea espezializatua eta estatuz gaidikoa proposatzen du. *Ikus* Coriat, 2000 eta Coriat, 2001.

GDPR

General Data Protection Regulation, euskaraz Datuak Babesteko Erregulamendu Orokorra (DBEO).

Gerra Hotza

II. Mundu Gerra ostetik eta Berlingo harresia jausi (1989) arteko garaian ematen zaio izen hori. Funtsean Estatu Batuek gidatutako Mendebaldeko blokearen eta Sobietar Batasunak gidatutako bloke sozialistaren arteko talka orokor eta ezkutua (ideologikoa, ekonomikoa, politikoa) izan zen. Horregatik deitu zitzaion horrela.

Bi blokeak ez ziren heldu zuzenean liskar armatuetara, baina zeharka munduko hainbat gatazkatan agertu zen tentsioa, finantzazio militarra eskainiz normalean, berziki Afrikako estatuetan.

Konfrontazio zuzenik egon ez arren, gerraren testuinguruak etengabeko beldur, ezinegon eta mesfidantza eragiten zuen gizartean, besteak beste, bi blokeek arma nuklearren biltegitazeari ekin ziotelako, gerra nuklear baterako arriskua handituz horrela. *Ikus* Villares eta Bahamonde. 2012.

Gizarte-erreprodukzioa

Pierre Bourdieu (1930-2002) aintzat hartuz, gizarteko talde bakoitzak bere gertuko komunitateko zantzeko ezaugarriak inkontzienteki birproduzituko ditu. Diskurtsoak, joerak, estetikak, musikak, baliabide kulturalak, kapital ekonomikoak, kapital sozialak eragina izango dute komunitateko parte hartzaileen marko kognitiboaren garapenean.

Gizarte-langintza

Gizarte-langintza lanbide bat da, gizartearen aldaketa eta garapena, gizarte-kohesioa eta pertsonen indartzea eta askatzea sustatzen dituen jardunbidean eta diziplina akademikoan oinarritzen dena. Justizia sozialaren, giza baliabideen, erantzukizun kolektiboaren eta aniztasunarekiko errespetuaren printzipioak ezinbestekoak dira gizarte-langintzan. Gizarte-langintzaren, gizarte-zientzien, humanitateen eta sorterriko ezagueren teoriak oinarritzat hartuta, gizarte-langintzak pertsonen eta egituren parte-hartzea sustatzen du, bizitzaren erronkei aurre egitea eta ongizatea areagotzea helburutzat hartuta. (Gizarte-langintzaren Nazioarteko Federazioa, 2014; Zubillaga eta Berasaluze 2021: 50 or.-etik hartua).

Gizarte-langintza komunitarioa

Interes eta beharizan komunak partekatzen dituen komunitatearen garapena sustatzera bideratuta dago. Komunitatearen ahalduntzearen bitartez, komunitateak berak bere potentzialtasunak aprobetxatuz, premia eta beharizan sozialak era autonomoa kudeatzea izango litzateke jomuga eta prozesu horretan akonpainamendu lana egitea izango litzake helburu nagusia.

Gizarte-zerbitzuak

Gehienetan, gizarte-politiken adar bat osatzen duten ekintza, baliabide eta programa multzo bat osatzen dute, eta, beste batzuekin lankidetzan (osasun-zerbitzuekin, hezkuntza-zerbitzuekin, errentak bermatzearekin eta abarrekin), herritarrei, bizitzako etapa guztietan, gizarte-ongizatea lortzea eta gure gizartearen garapen estandarrekin bat datozen bizi-kalitatearen baldintzak lortzea ahalbidetzen duten gizarte-premien asetzea sustatzea edo bermatzea helburutzat duten zerbitzu bezala definitzen dira (Fernandez, de Lorenzo eta Vaázquez, 2012, 464.or). Baina zehaztasunera joz, gabeziak estaltzeko eta potentzialtasunak garatzeko, autonomia (edo mendekotasun) pertsonalarekin eta integrazio (edo bazterketa) orokor eta komunitarioari lotuta, laguntza eta babesa eskaintzen duten prestazio tekniko eta jarduerak bezala definitu daitezke, batez ere erlazioanalarak eta hurbiltasunezkoak direnak (Fantova, 2008, 35. or).

Gizarte zibil globala

90eko hamarkadaz geroztik mundu mailan antolatutako norbanako, Gizarte Mugimendu Berri, elkarte, Gobernu Kanpo Erakunde eta abarrek hartuko duten izena. Estatuaz haratagoko saretearen ondorioz, eztabaida politikoa eta dinamika sozialetan eragiteko aukera daukaten eragileak dira. Oro har, munduaren pertzepzio berri bat adieraziko du, askotariko aktoreek komun dauzkaten mundu mailako erronkei aurre egiteko dinamika sortuz.

Ondoren Mary Kaldorrek adierazitako bost puntuek ideia argiago bat utziko digute Gizarte Zibil Globalaren esanahiaz.

- a) Nazioarteko hitzarmen eta legediaren ondorioz gauzatu daiteke *societas civilis* mundu mailan.
- b) Estatuaz eta familiaz haratago, mundu mailan konektatuta egoteak ahalbidetuko du sare global bat.
- d) Erronka Globalei aurre egiteko prestutasuna eta aktibismorako nahia ageri dira Gizarte Zibil Globalean.
- e) Ikuspegi altruista dauka.
- f) Aniztasunaren eta desberdinen arteko elkarlanean oinarrituko da bere identitate postmodernoa.

Gizarte-mugimendua

Norbanakoen, taldeen eta erakundeen arteko interakzio sareak dira. Gizarte-mugimenduek hainbat arlotan gizartean aldaketak eragitea dute helburutzat; izan ere, ez datoz bat erakunde politikoez errealtate soziala hobetzeko egiten dituzten proposamenekin. Aldaketak proposatzeaz gain, garrantzi handia ematen diote parte-hartze prozesuari, eta kritika egiten diete arlo horretan alderdi politikoei, gehiegizko ordezkaritza planteamendua egiten dutelako.

Herritarrek parte-hartzeko ekintza kolektiboak izanda, jorratuko duten interesezko gaiaren arabera, askotariko helburuak dituzte. Hortaz, errealtatearen eraldaketarako ekintza markoa era subjektiboan jorratzen dutela ulertu beharra dago. Eztabaidan dagoen terminoa da, eta liburu honetan Gizarte Mugimendu ezberdinei egiten zaie erreferentzia. *Ikus* Larrinaga eta Amurrio, 2017.

Gizarte-zerbitzua

Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-langintza sarritan nahasi egiten diren kontzeptuak dira; izan ere, gaur egun eta gure gizartean gizarte-langintza burutzeko esparru nagusia da gizarte-zerbitzua. Azken hau, babes sistema bat da, ardura publikoko zerbitzuen sarea, pertsonaren eta talde edo komunitateen alderdi soziala aintzat hartuz lan egiten duena (Zubillaga eta Berasaluze, 2021). Zehatzago, honela definitu litezke: «Gabeziak estaltzeko eta potentzialtasunak garatzeko, autonomia (edo mendekotasun) pertsonalarekin eta integrazio (edo bazterketa) orokor eta komunitarioari lotuta, laguntza eta babesa eskaintzen duten prestazio tekniko eta jarduerak, batez ere erlazionalak eta hurbiltasunezkoak» (Fantova, 2008: 35. or.).

Globalizazio neoliberala

Globalizazioa mundu osoan gertatutako aldaketa ekonomiko, politiko eta sozialak definitzen dituen kontzeptua da, 70eko hamarkadaren erdialdeko estatu-merkatuen desarautzearen arrakastatik abiatuta, gerora, 80ko hamarkadaren amaieran sozialismo erreala kolapsatu ondoren areagotu zirenak. Kontzeptuak estatuen eremua gainditzen duen mundu esparruko finantza- eta diru-sareen sorrera adierazten du, baina baita kultura- eta politika-sareena ere. Bestalde, neoliberalismoa gizarte-eragileek, ideologoez, intelektualek eta nortasun zehatza duten agintari politikoez, kapitalaren jabe diren gizarte-klaseetakoek, edo haien zerbitzura daudenek, bultzatutako proiektu ekonomikoa ez ezik, egitasmo politikoa eta kulturala ere bada. Bi prozesuen konbergentziak kapitalismoaren gaur egungo modalitatea osatzen du. *Ikus* Dreiling eta Darves, 2016; Sassen, 2007.

Glokalizazioa

Glokalizazioa globalizazioaren eta toki- eta lurralde-berrantolaketaren prozesu konbinatuari erreferentzia egiteko sortu zen. Horrek esan nahi du eskala espazialen berregituratzeak, elkarlotzeak eta bereizteak gatazkatsuak eta dinamikoak direla. Antolakuntza eskalarrean ematen den lausotze hau, «glocal» terminoa estrategia politiko desberdinek dakartzaten joerak azaltzeko baliagarria egiten zaigu, hots, nazioaren azpimailako zenbait espazio (hiriak, eskualdeak...) nazioz gaindiko zirkuituen barruan (europarrak edo globalak) kokatzearen bitartez azaldu daiteke glokalizazioa (Brenner, 2003a).

Gobernantza

Gobernantza terminoa 1990eko hamarkadatik Estatuaren esku-hartzearen eraginkortasuna, kalitatea eta orientazio ona izendatzeko erabiltzen den terminoa da. Oso era zabalean, gobernantza, gaur egungo gizarte konplexuko aktore (pribatu zein publiko) ezberdinen arteko saretzean eta parte hartzaileko aukera emango duten mekanismo ezberdinen bitartez erabaki demokratikoagoak hartzeko baliabide bezala azaldu nahi zaigu.

Ostera, sistema neoliberealean, mekanismo parte hartzaileak eta demokratizazio prozesuak, esparru pribatuari (merkatuko agente gisa ulertuta) eremu publikoan botere handiagoa ematean oinarritzen den praktika izaten da, gizarteko dimentsioa indargabetuz. *Ikus* Apodaka eta Morales, 2021; Martinez-Palacios, Ormazabal eta Ahedo, 2019.

Gobernantza globala

Munduko gobernantzaren gaia globalizazioa deritzonaren testuinguruan agertzen da. Giza gizartearen arteko eta baita gizateriaren eta biosferaren arteko interdependenziak azkartzen ari direla ikusita —mundu mailan—, munduko gobernantzak eskala horretako arauak zehazteko balio du. Bere horretan, gobernu-erakundeek zein gobernu kanpoko mekanismo informalez osatutako sistema bat adierazten du, eragile politikoak lotuz. Eragile politiko horiek, oro har, Estatu sistema ez dela potentzia garaikidearen iturri bakarra adierazten dute.

Habitus

Habitus Pierre Bourdieu-ren teoria soziologikoaren kontzeptu nagusietako bat da. Funtsean, modu jakin batean jarduteko, pentsatzeko eta sentitzeko disposizio edo eskema multzo bat da, gizarte-eragileen posizio sozialari lotutakoa. Bestela adierazita, mundu soziala ulertzea ahalbidetzen duen eskema sortzaileen multzoa da; eskema horietatik abiatuta hautematen dute mundua subjektuek.

Aipatutako eskema sortzaileak egiturazkoak dira. Alde batetik, sozialki egitura-tutako egiturak dira, eragile bakoitzaren historian zehar eratu direlako, eta, hartara, eragilea eratu duten egitura sozialaren eta harreman sozialen hezuramamitza dira —eragilean gorpuztuta agertzen da egitura soziala—. Baina, aldi berean, egitura egituratzaileak dira, horietatik sortzen baitira eragilearen pentsamenduak, pertzepzioak eta ekintzak. *Habitus* gorputzaren bidez ikasten eta barneratzen da, hots, praktiken bidez, eta ez da horren kontzientziarik sortzen norbanakoarengan. *Ikus* Bourdieu, 1991, 1997 eta 2018.

Hegemonia

Zaila da definizio bakarra ematea, era oso zabalean definitu eta erabili izan den kontzeptua delako.

Gramscik (1891-1937) sakonki landu zuen. Haren arabera, gizarte jakin baten oinarri sozialaren norabide politiko ideologikoa adieraziko lukeen, eta botere politikora bideratu lezakeen kontzeptua zen. Aurrekoa aintzat hartuta, hertsidura eragiteko sortutako adostasun gisa ikus dezakegu. Gizarteko zati zabal batek elite batek ezartzen dizkion, edo gizarteak berak sortzen dituen, marko kognitiboak inkontzienteki legitimatzen ditunean hegemoniaz hitz egiten ari gara.

Herri-boterea

Herri-boterea esaten zaio herriak modu demokratiko eta parte-hartzailean bere bizitza komunari dagozkion alderdi guztien gainean erabakitzeari.

Gobernantza bezala, oso eztabaidatua den terminoa da; izan ere, zer da boterea? Nork osatzen du herria? Foucaultek dioenez, boterea ez da eduki daitekeen objektu materiala, *eragiten* duen zerbait baizik. Horrela ulertuta, esan liteke herri-boterea berez ezinezkotasun epistemiko bat dela.

Hala ere, herri boterea ere esaten zaio hainbat parte-hartze prozesuren bitartez (hauteskundeak, galdeketak, manifestazioak, grebak...) lortutako garaipenaren kapital sinbolikoari. Alegia, herri-boterea uler genezake gizarte zibiletik ateratako kon-

tzientziadun subjektu antolatuak egiten dituen aldarrikapen, ekintza edo salaketen ondorioz lortutako produktu sinboliko gisa.

Herritartasuna

Kontzeptuaren zentzu klasikoan, komunitate politiko jakin baten barruan pertsona bat eskubide osoko kide gisa definitzen duen praktiken multzoa da. Herritartasun formalak estatuak formalki onartzen duen estatusa dakar; herritartasun substantiboak, berriz, komunitate politiko bateko kideek dituzten eskubide eta betebeharren multzoa definitzen du. Herritartasunak erakunde publikoen betebeharrak ere inplikatzeko ditu, herritarrei aitortutako eskubideen konpromisoari erantzuteko. *Ikus* Isin, 2009 eta 2017; Ong, 2006.

Marshallek, herritartasunari eskubide zibil, politiko eta sozialak esleitu zizkion.

- Eskubide zibilak: askatasuna, iritzia, elkartzea.
- Eskubide politikoak: sufragioa eta hautatua izateko eskubidea.
- Eskubide sozialak: ongi izate estatuaren zerbitzuez gozatzeko aukera, osasun-sistema, hezkuntza-sistema...

Hiriaren (erre)produktzioa

Henri Lefebvreren teoretatik dator. Kapitalismoak espazio urbanoa produzitu egiten du. Industrializazioaren garaiak urbanismoaren hasiera ekarri zuen berekin. Kapital industrialaren finkapen hori espazio zehatz horietan, desindustrializazioarekin batera hiriz eta herrialdez mugitu egin zen. Gero kapital-metaketaaren bigarren zirkuituan bueltatu egin da hiri askotara, *real estate* agentzien bitartez. Hortaz, hiri industrialak eraiki zuten kapital industrial horiek, higiezinaren kapital moduan bueltatu egin da. Honek suposatzen du hiriaren ber-produktzioa. *Ikus* Lefebvre, 2013.

Hirirako eskubideak

Henri Lefebvrek kapitalismoak hirian eta hiri-espazioan zituen ondorioak azalertzeko garatutako ideia da. Baina azken bi hamarkadetan gizarte-mugimenduek, pentsalari kritikoek eta tokiko zenbait agintari aurrerakoik hiria elkarrekin sortutako espaziotzat aitortuz, eta merkantilizazioari zein kapitalismo globalari aurre eginez, hiri demokratikoago bat eraikitzeke aldarri bihurtu dute.

Hiritar digitalak

Hiritar digitalak, herramienta digitalak erabiliz beraien hiritartasuna birkokatzen duten hiritarrak dira. Hala ere, perspektiba funtzionalista/utilitaristatik harago, autoreak kapitulu honen bidez, perspektiba teknopolitikoak jartzen du erdi-erdian. Alegia, hiritarrak digitalizazioaren bidez, heuren testuingurua politikoa aldatzeko bidean jar daitezke. Teknopolitika hori bideratzen duen espazioa da. *Ikus* Calzada, 2020 eta 2022.

Ikerketa-ekintza-parte hartzailea

Ikerketa, ikertuak diren subjektuekin batera egitea bilatzen duen aukera metodologikoari egiten dio erreferentzia. Ikuspegi dialektikoaren markopean burutzen da eta ikertzaileak/ek egindako errealitate baten deskripzio hutsetik jauzi bat eman eta ikertzailea/k ikertuekin batera bizi duten errealitate konplexura gerturatzea bilatzen du, horren eraldaketa bilatzeko asmoz.

Ondorioz, lagina zehaztuta, bere dinamika soziologikoak aztertu ostean, parte hartzaileengan eta parte hartzaileekin, aztertutako errealitatea eraldatuko duen prozesu dinamiko bat burutzean datza. *Ikus* Montañés, 2016 eta Caparros eta Raya, 2015.

Ikuspuntuaren teoria

Ikuspuntuaren teoria ikuspegi epistemologiko bat da, diziplina akademiko batzuetan diskurtso intersubjektiboak aztertzeko erabiltzen dena. Nancy Harsocek formulatutako teoria horren arabera, jendeak errealitatearen ikuspegi desberdinak ditu, hierarkia sozialean duten lekuaren arabera. Ikuspuntu bakoitza partziala da.

Indibidualizazioa

Modernitate berantiarrean gizon-emakumeak gizartetik desinkrustatuta baleude bezala ikusten dute beren burua. Modernitate berantiarrari dagokion indibidualizazio prozesua areagotu egiten da eta, horren ondorioz, norbanakoen identitatea ez da datu bat, norberak egin beharreko zeregina baizik. Aktore sozialek berek arduratu behar dute beren jardunaren erantzukizunez, ondorioez eta albo-ondorioez; eurek

eraiki behar dute beren bizitza. Gizarte indibidualizatuan norberaren existentzia biografia erreflexibo eta hautazkotzat hartzen da; «zuk zeuk egin» da agindu nagusia. Horrela, gaur egungo pertsonak kontraesan sistemikoei irtenbide biografikoak aurkitu nahian bizi dira, egoera hori globalizazio-baldintza berrietan instituzionalizatu-tako desorekaren ondorio dela ulertu gabe.

Teorialari batzuek lotura sozial berriak eraikitzeko beharra indibidualizazio prozesuaren osagaitzat jotzen dute. Alegia, erlazioak sortu eta produzitzeko erak ezberdinak direla diote hauek; garaiko krisiaren isla bezala ikusita, indibidualizazio prozesu bat bezala loturak berregiteko ariketa gisa aitortzen dute. *Ikus* Bauman, 2001; eta Beck eta Beck-Gernsheim, 2002.

Interbentzionismoa

Interbentzio edo esku-hartzeari dagokio. Estatuak gai sozialen aurrean hartzen duen jarreraren arabera era bateko edo besteko gizarte ereduan aurkituko gara. Horrela, gizarte liberaletan, adibidez, norbanako bakoitza bere errealitatearen erantzule dela ulertzen da eta estatuak ez du ezer egiten egon litezkeen arazo edo problematika sozialen aurrean. Estatu sozialaren kasuan, erantzukizuna ez da norbanakoengan jartzen, gizarte egituran baizik, eta, beraz, estatuak gai sozialetan esku hartu behar duela ulertzen da (Velasco, 2012). II. Mundu Gerra ostean Europan eratu zen Ongizate Estatuaren ezaugarri nagusia izango da interbentzionismoa (Zabalo eta Moreno, 2011).

Dena den, esku-hartze hori egiteko modu desberdinak egon daitezke. Estatuak, edo gizarte-zerbitzuen esparrura ekarrita, gizarte langileek, interbentzioa instituzioak ezarritako arauetara hertsiki jarraikiz egiten badu, kriterio profesionala eta erabiltzaileen hitza kontuan hartu gabe geratzen da. Puntu honetan, hurrengo kontzeptura pasatuko ginateke, elkarlaneko praxia azaltzera.

Interseksionalitatea

Elkar gainjarrirako edo elkarri lotutako gizarte-identitateak eta kokapenak, eta horien zapalkuntza-, menderatze- edo diskriminazio-sistemen azterketa da. Analisi-ikuspegi horrek iradokitzen eta aztertzen du nola elkar eragiten duten esparru askotan eta aldi berean hainbat kategoria biologiko, sozial eta kulturalak —hala nola, sexua, generoa, etnia, klasea, desgaitasuna, sexu-orientazioa, erlijioa, kasta, adina, nazionalitatea eta beste identitate-ardatz batzuk—. Injustizia sistemikoa, gizarte-desberdintasuna eta zapalkuntza dimentsio anitzeko oinarri batetik abiatuta ulertzeko erabil daiteke analisi interseksionala.

Kimberlé Crenshaw-ek (1959-) ekarria, interseksionalitatea 1989. urtean sortutako kontzeptua dugu. Crenshaw Estatu Batuetako emakume beltza eta aktibista izan zen. Besteak beste, kolektibo horren eskubideen alde lan egin zuen.

Metodo interseksionala erabilia, komunitate jakin batean kokatuta egoteagatik, eta beltza nahiz emakumea izate hutsagatik norbanakoak hainbat zapalkuntza mekanismo paira ditzakeela baieztatu zuen. Are gehiago, haren ustetan, emakume izateaz gain beltzak eta klase xehekoak diren pertsonak zein kolektiboek ez dituzte aipatutako hiru zapalkuntza mekanismoen batuketa hutsa jasaten, hirurek sortutako elkar-ketaren bilakaera baizik.

Geroago, kontzeptua aplikatzean, Patricia Hill Colins-ek (1948-) zapalkuntza sistematikoez gain pribilegio zehatzak eta horien sorkuntza aztertu beharraz ohartarazi zuen. Izan ere, nabarmendu zuen une eta kokapen jakin batean zapaldurik dagoena zapaltzaile edo pribilegiadun ere izan daitekeela bestelako une edo tesuinguruetan.

Ondorioz, interseksionalitateak indarkeria estrukturalarekin lotzen ditu zapalkuntza eta pribilegio koiunturalak; hori ahalbidetzean, gizarte-desberdintasunak eta zapalkuntzak sakon aztertzeko analisi tresna eraginkor bilakatu da feminismotik datorren kontzeptua hau. *Ikus* Dunezat, 2017; eta Platero, 2014.

Kapitala

Pierre Bourdieu-ren adieran, kapitala edozein motatako baliabidea izan daiteke —ekonomikoa, soziala, kulturala edo sinbolikoa— baldin eta balio soziala esleitzen bazaio gizartean. Baliabide-mota horiek boterearen alde lehiatzeko balio dute eta desberdintasun sozialak birsortzeko gizartearen era askotako esparruetan. *Ikus* (Bourdieu, 1992 eta 1997).

Keynesianismoa

John Maynard Keynes (1883-1946) Estatu Batuetako ekonomista izan zen. Haren ekarpen nagusia, 29ko Crackaz geroztik, keynesianismoa izenez ezagutu izan den modelo ekonomikoa proposatzea izan zen.

Ondorioztatu zuen merkatuak ezin duela estatuaren esku-sartzerik gabe bizi-raun. Hori dela eta, kapitalismoak izango dituen krisialdi ziklikoei aurre egiteko, estatuko gobernuek merkatua arautu beharko zutela adierazi zuen. Milton Friedmanen (1912-2006) doktrina ultraliberala ezarri arte mantendu zen paradigma hau.

Komunitatea

Interakzio eta jarrera multzokomunak dauzkan giza talde homogenea. Giza talde honek, ohitura, kultura, erritu... eta ondorioz *habitus* ezberdinak tartekatuko ditu, eta haren parte hartzaileek identitate kolektibo bat sorraraziko dute.

Konstituzio-testuak

Konstituzioa izaera juridiko-politikoaren duen testu kodetua da. Botere konstituziogile batetik sortua da, eta eraturako botereak (legegilea, exekutiboa eta judiziala) definitu eta sortzeko asmoa du, dagozkien kontrol eta orekez gain. Estatu baten oinarritzko legea dela esaten da, eta gainerako arau juridikoei baino maila handiagoa du. Herritarrei dagokienez, oinarritzko eskubide eta askatasunen araubidea jasotzen du, eta antolamendu politikoaren botereei mugak ezartzen dizkie.

Kontrahegemonikoa

Kontrahegemonia eraturako botere hegemonikoa kritikatzeko edo desegiteko ahaleginei dagokie. Beste era batera adierazita, existitzen den *statu quo*arekin eta politikan duen legitimitatearekin konfrontazioa edota aurkakotasuna azaltzen duen indarra da. Ikuspegi gramsciar batean, limurtzearen eta propagandaren bidez, mugimendu kontrahegemoniko batek ordena hegemonikoari buruz beren ikuspuntua partekatzen duten pertsonen kopurua handitu nahi du; mugimendu-gerra batean, hazi egin diren indar kontrahegemonikoei une jakin bateko hegemonia kentzen dute boteretik, eta bloke historiko gisa ezartzen dira. Artikulu honen testuingururako, indar kontra-hegemonikoaren adibide bat nazionalismo kontrahegemonikoa izan daiteke, nazionalismo dominatzaileari bere eremuan erronka egiten diona berariaz, nazioaren bestelako ideia jakin bat babestuz. *Ikus* Gramsci, 2011; eta Laclau eta Mouffe, 1985.

Kontraktualitate liberala

Filosofia politikoaren eta Zuzenbidearen korrante moderno bat da, eta azaltzen du gizarteak eta Estatuak gizakien arteko jatorritzko kontratu batean dutela jatorria. Kontratu horren bitartez, ulertzen du barkamenek askatasunen muga bat onartzen dutela, gizarte-gorputzaren iraunkortasuna eta zenbait abantaila bermatzen dituzten legeen truke.

Kontratu soziala

Filosofia politikoan, zientzia politikoan, soziologian eta Zuzenbidearen teorian, kontratu soziala kideek talde baten barruan egindako akordio bat da; adibidez, Estatu batean bere eskubide eta betebeharreri eta bere herritarren eskubideei dagokienez eskuratzen dena. Taldeko guztiak, beren borondatez, kontratu sozialarekin ados daudela dioen ideiaren zati da, eta, horren arabera, agintaritza bat, arau moral batzuk eta lege batzuk daudela onartzen dute. Itun soziala agintaritza politikoa eta ordena soziala azaltzeko hipotesi bat da.

Gizarte-kontratuak, teoria politiko gisa, Estatuaren eta giza eskubideen jatorria eta helburua azaltzen ditu, besteak beste. Teoriaren funtsa (horren formulaziorik ezagunena Jean-Jacques Rousseauk proposatutakoa da) honako hau da: gizartean bizitzeko, gizakiek kontratu sozial inplizitu bat adosten dute, eta kontratu horrek eskubide jakin batzuk ematen dizkie, izadi-egoeran izango luketen askatasuna uztearen truke.

Kosmopolitismoa

Munduko gizakiok giza talde bakarra garela aldarrikatzen duen ideologia (Jacques, 2001).

Lagina

Egoera jakin baten inguruan egingo den azterketarako hautatutako populazioa ordeztzen duen zati adierazgarria. Laginaren tamaina ikerketak berak eta ikuspegi ezberdinek erabakitzen dute.

Ikerketa-teknika jakin batzuk azaltzeko erabiltzen den terminoa da. Lagin bat aztertzen ari den biztanleriaren azpimultzo bat da. Populazio handiena adierazten du, eta biztanleria horretatik oro har ondorioak ateratzeko erabiltzen da. Gizarte-zientzietan asko erabiltzen den ikerketa-teknika da, informazioa biltzeko modu bat, biztanleria osoa neurtu beharrik gabe. *Ikus* Juaristi, 2003; eta Valles, 1999.

- *Metodologia kuantitatiboan*, lagin bat populazio baten kasuen edo banakoen azpimultzo bat da. Lagina adierazgarria izatea komeni da, eta, horretarako, auzako lagin egokia sortzen duen laginketa-teknika aukeratu behar da. Adierazgarria izateko, populazioaren ezaugarri berak izan behar ditu. Lagin oker bat lortzen bada, haren erabilgarritasuna mugatuagoa izan daiteke, duen lerratze-mailaren arabera.

— *Metodologia kualitatiboan*, berriz, laginketa ez-probabilistikoa erabiltzen da, ez baita ausazkoa. Aitzitik, lagina intentzioskoa izaten da, eta ikerketaren helburuetara egokitzen da. Horrela, diseinu kualitatiboan, laginean erreferentziako biztanleria osatzen duten profilak hautatu behar dira, eta lagin hori erreferentziako taldea edo biztanleria ordezkatu duten pertsonak betetzen dute. Azterketa kualitatiboetan laginaren tamaina ez da garrantzitsua probabilitatearen ikuspegitik begiratuta, ikerketaren interesa ez baita azterketaren emaitzak biztanleria zabalago bati orokortzea. Ikerketa kualitatiboaren helburua hautatutako pertsonak edo taldeek aztertutako errealitateari egotzen dizkioten esanahiak sakon ikertzea izaten da.

Legearen inperioa

Legearen inperioa kontzeptu juridiko-politikoa da. Formala ez da uniboboa, baina, oro har, legeak beste edozein gobernu-printzipioren gainetik jartzen duela ulertzen da, batez ere botere politikoaren tiraniaren eta arbitrariotasunaren aurka.

Legegile negatiboa

Legegile negatiboa konstituzio-zuzenbidetik eratorritako kontzeptua da. Lege bat aldarrikatzeke botererik ez izan arren, badira zenbait organo legeak indargabetzeko gaitasuna dutenak. Estatu-mailan, Auzitegi Konstituzionalek duten gaitasunetako bat da, eta halakorik ez duten sistema politikoetan, berriz, Gorte Gorena. Europar Batasunean, berriz, eginkizun hori Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari dagokio.

Legitimitatea

Ekimen bat garatzeko zilegitasuna edo onarpena, aldez aurretikoa edo ekimean bertan sortua. Botere harremanetan, A subjektuak (norbanakoa zein Estatuia izan) B subjektuarengan eragina izango duen ekimena garatzeko, A-k B-rengatik behar duen baldintza. Weberrek menderakuntza forma gisa interpretatu zuen legitimitatea; izan ere, estatu modernoetan hertsidurarako botereak gizarteak berak onartzen du. *Ikus* Lopez, 2009.

Liskar politika - Politika liskartsua (eu.) / política contenciosa (ga.) / contentious politics (in.) / politique controversée (fr.)

Liskar politikaren esparruak era askotako borroka politiko kolektiboak hartzen ditu barnean, esaterako, gizarte-mugimenduak, baina baita beste politika-modu liskartsu batzuk ere, hala nola, istiluak eta greba-uholdeak, gerra zibilak, iraultzak eta demokratizazio-gertaerak. Askotan, jarduera horiek ohiko prozesu politikoeekin intersekzionatzen dute. Gatazka etniko edo nazionala oinarri dutenak ere sartzen dira liskar politiken artean. *Ikus* Tilly eta Tarrow, 2015.

Merkatuaren forma globala

Merkatuak, bizitza soziologikoaren dimentsio bat hartzen du, gizartea eta erakunde publikoekin tartekatzen duena. Hiruren arteko orekan jardungo luke estatu sistema kapitalista modernoaren egiturak. Osterantzean, eta mundu mailako zabalitze ekonomiko neoliberalaren eraginez, erakunde publikoek merkatu dimentsioarekin bat egin dute, eta azken honek bizitzaren esparru handia bereganatzen du. Ondorioz, haren logikak mundu mailan kokatuko dira.

Merkatu terminoetan, beti existitu izan bada mundu mailako salerosketa minimo bat; gaur egun, Internet eta logika postfordisten ondoren, mundua bera da merkatua. Munduan jorratzen dira produktuak, eta haien jabetza kultural-intelektualari lokalizazioa kentzen zaie eta identitate bera lausotzen. Bide berean, mundu mailan salduko dira dagoeneko globalak diren produktu hauek. Interneten bidez eta komunikatzeko tresna garaikideez baliatuz; Google, Amazon, Meta, Nestle edo Uberrek, langile, kontsumitzaile eta produktuen logikak alda ditzakete.

Merkatu bideratutako estatua

Edo ahots batzuen arabera, merkatu-estatua: neoliberalismoak Estatuaren lurraldetasunaren ikusmolde westfaliarra gainditzen du, eta botere arautzailea kentzen dio, joerazko merkatu globalaren indarren aurrean.

Metagainbegiratzea

Gainbegiratze saioetako gainbegiraleek kanpoko gainbegirale baten eskuetan gainbegiratze saioak egiteari dagokio, hots, burutzen ari den gainbegiratze prozesua-

ren inguruko gainbegiratzea egiteari. Ainhoa Berasaluze eta Miren Ariño gainbegiratzaleek diotenez, gainbegiraleek «gainbegiratze-prestakuntza jasotzea aholkatzen da, prestakuntza espezifiko baten bitartez zein autoprestakuntza-prozesu baten ondorioz, eta metagainbegiratze- edo intergainbegiratze prozesuetan parte-hartzea ere komenigarria izaten da» (Berasaluze eta Ariño 2014, 110).

Metodologia

Zientziaren markoaren pean, errealitate bat nola aztertuko den azaltzen duen atala da metodologia, askotan jarrera teoriko edo filosofikoren bati lotua. Ikuspegiaren edo beharrianaren arabera, prozedura edo metodo bat baino gehiago erabil daitezke (kuantitatiboa, kualitatiboa, parte hartzailea). *Ikus* Ibáñez, 1986.

Metodologia kualitatiboak

Ikerketa kualitatiboak kuantifikazioa saihesten du. Ikerketa mota honek fenomeno erregistro narratiboak egiten ditu; horretarako, zenbait teknika erabiltzen dira, hala nola, behaketa parte-hartzailea, elkarrizketa sakonak eta eztabaida taldeak. Bi metodologia horien arteko alde nagusia da ikerketa kuantitatiboak aldagai kuantifikatuen arteko lotura edo erlazioa aztertzen duela, eta kualitatiboa, berriz, egitura-testuinguruetan zentratzen dela. Ikerketa kualitatiboak errealitate sozialen izaera sakona, gizarte-eragileek errealitate horiei egotzitako esanahiak, eta haietan dauden harreman-sistemak eta egitura dinamikoak identifikatu nahi ditu. Ikerketa mota honek, askotan, elkarrizketa izaera dauka, eta ikerketa kuantitatiboaren metodoarekin alderatuta, bere datuak ezin dira kuantifikatu.

Metodologia kuantitatiboa

Ikerketa kuantitatiboan aldagaiei buruzko datu kuantitatiboak biltzen eta aztertzen dira. Ikerketa kuantitatiboaren helburua da aldagaien arteko lotura edo korrelazioa zehaztea, emaitzak orokortzea eta objektibatzea lagin baten bidez, lagin hori hartu deneko populazioari inferentzia egiteko. Izan ere, elkarketa edo korrelazioa aztertu ondoren, kausazko inferentzia egitea du helburutzat, gauzak modu jakin batean gertatzen diren ala ez azaltzeko. Metodo kuantitatiboak galderak eta inkestak erabiltzen ditu datu kuantifikagarriak biltzeko eta, horietan oinarrituta, analisi estatistikoak egiteko eta ikerketa-ondorioak ateratzeko.

Migrazio-prozesua

Edonolako baldintza ezberdinengatik lurralde batetik bestera —nazioarteko migrazioak— ematen den ibilbideari deritzo. Zenbaitetan migrazio prozesua leku-aldaketarekin mugatzen da; beste zenbaitetan, berriz, ibilbideko zein helmugako gizartean gertatzen den integrazio prozesua biltzen da kontzeptu honen baitan. Arrazoiei dagokienez, mota ezberdinak bereizi ditzakegu: ekonomikoak, ekologikoak, erlijiosoak edota giza eskubideen urraketari loturikoak; sarritan migrazio ekonomikoen eta behartuen arteko bereizketa egiten da.

Mobilizazio zikloa – protesta zikloa

Sidney Tarrow-ek protesta zikloaz hitz egiten du, testuinguru politiko jakin batean gatazkak areagotzen eta indar politikoak aurkakotzen diren fase bat izendatzeko. Fase horretan gehien mobilizatutako sektoreen ekintza kolektiboa gutxien mobilizatutakoengana hedatzen da, azkar; gainera, berrikuntza-erritmo bizkorra egon ohi da borroka-moduetan, eta esparru berriak edo eraldatuak sortzen dira ekintza kolektiborako. *Ikus* Tarrow, 1993.

Modernitate berantiarra - Bigarren Modernitatea (eu.) / Modernidad Tardía - Segunda Modernidad (ga.) / Late Modernity - Second Modernity (in.) / Modernité Tardive - Seconde Modernité (fr.)

Postmodernitatearen ikuspegiaren aurka, Modernitate Berantiarren tesiak planteatzen du aro modernoak badirauela gaur egun ere, baina lehen modernitate industrialaren osteko fase gisa. Beranduko modernitatea edo bigarren modernitatea ekonomia kapitalista globalek, pribatizazio prozesu gero eta indartsuagoek eta informazioaren eta teknologiaren berrikuntzek ezaugarritzen dute, besteak beste. Kulturari dagokionez, gizarte eredu horretan nagusi dira indibidualizazio prozesuak, harreman sozial jariakorrak, identitate sozial zatituak eta erreflexibitate dinamikak. *Ikus* Bauman, 2000; eta Beck, Giddens eta Lash, 1994.

Multikausalitatea (Kausalitate-aniztasuna)

Printzipio bati izena emateko erabiltzen den kontzeptua, hainbat aldagaik errealitate sozial baten gainean eragina daukatenean. Oro har, errealitate soziala anitz konplexua izaten da era irmo, kategoriko eta zurrunean adierazteko. Nork egin zuen zer azaldu bageneza, zergatik azaltzea izaten da oro har zaila, korapilatsua eta, funtsean, gizarte zientzien oinarria.

Naturalaren zuzenbideak

Estatu naturala edo natura egoera filosofia politikoan erabiltzen den kontzeptu bat da, beste batzuen artean kontraktualismoaren teorietan (Hobbes, Locke, Montesquieu, Rousseau). Hipotesi metodologiko honen arabera, egoera zibila, hau da, zuzenbidea, agintaritza politiko eta, kasuaren arabera, arau moralak ezarri aurretik gizakia egoera natural batean bizi zen, zeinetan beste eskubide batzuk (natura eskubideak) zituen, eskubide zibil eta politikoak baino lehenagokoak.

Nazio algoritmikoa

Nazio algoritmikoa geografia politikoaren eta datafikazioaren ondorioz uztartzen ari den lurralde hibridoa da. Nazio algoritmikoa *assemblage* moduan eraikitako kontzeptua da. Alegia, naziogintza dinamiko baten parte izanik, ateak zabaltzen dizkio kode irekian eratu daitekeen nazio eraikuntzari, esparru fisikoan ez ezik, digitalean ere eraikiari. (Ikus adibideak Igor Calzadaren atalean). Nazio algoritmikoak naziogintza klasikoarekiko haustura dakar, kontzeptualki eta enpirikoki, orain arte naziogintza lurraldeari soilik lotua ulertu izan baita. *Ikus* Calzada, 2018a eta 2022; Echeverria, 2000.

Nazioa

